

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziak. 2007
2. *Pierre Cbarritton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lbande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziaren hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastoralak. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodioaren Martirra. 2013



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzailea:



Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta euri buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



ERNEST DAUDET

**AMODIOAREN MARTIRRA
DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA**

ERNEST DAUDET

AMODIOAREN MARTIRRA DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA

Itzultzaile-moldatzailea: Elizetxe

Sarrera, edizio kritikoa, hiztegia eta edizio modernoa: Xabier Altzibar Aretxabaleta



EUSKALTZAINAK BILDUMA

EUSKALTZAINDIA



XABIER ALTZIBAR ARETXABALETA

Markina ondoko Etxebarri herritxoan (Bizkaia) jaio zen 1951an. Filologia Erromanikoan lizentzia erdietsi zuen Deustuko Unibertsitatean (1976), eta Euskal Filologian doktore gradua Euskal Herriko Unibertsitatetan (UPV-EHU). Bizkaierazko idazle klasiko batzuei buruz egin zuen tesia (1990), izenburu honen pean publikatua: *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Fr. Bartolome: nortasuna, idazlanak, grafiak* (Bizkaiko Foru Aldundia, 1992). Hizkuntza gaiak irakasten ditu Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean (UPV-EHU, Leioa, Bizkaia). Saiatu da bere ikerketek unibertsitateari dagokion maila irits dezaten, 4 arlotan: filologian, literaturan, euskal kazetaritzaren historian eta hizkuntzalaritzan. XVIII, XIX eta XX. mendeko idazleak eta gaiak aztertu ditu, Hegoaldekoak eta Iparraldekoak: Mogeldarrak, ilustrazioa, Zaldubi, Hiribarren, Zazpiak Bat, saiakera. Euskal kazetaritzaren historia ikertu du: Hiriart-Urruti, *Eskualduna, Réveil Basque, Euzkadi*, Kirikiño, Lauaxeta, *Eguna* (1937). Gai horiei buruzko artikuluak argitaratu ditu hainbat omenaldi liburu, kongresutako agiri eta ikerkuntza aldizkaritan: *Euskera, Lapurdum, Oihenart, Litterae Vasconicae, A.S.J.U., Bidebarrieta* etab. Edizio kritiko eta modernoak paratu ditu: *Juan Antonio Mogel. Ipuinak* (Labayru Ikastegia, BBK, Eibarko Udala, Markina-Xemeingo Udala, 1995), Bizenta Mogelen bertsoak (*Bidebarrieta* aldizkaria, Bilbao, 2008), *Jean Hiriart-Urruti. Ni kazeta-egilea naiz* (Labayru Ikastegia—BBK Fundazioa, 2004), *Estepan Urkiaga Lauaxeta. Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak* (Labayru Ikastegia—BBK Fundazioa, 2005). Hizkuntzalaritzan fraseologia arloa landu du (kolokazioak, lokuzioak, hizketa-formulak), eta nazioarteko kongresuetan parte hartu. Euskaltzain urgazlea da.

ERNEST DAUDET
AMODIOAREN MARTIRRA

DOLORRES, EMAZTE BAT
BERTHUTEZ BETHEA

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Maketatzea: Zirrimarra Estudio Grafikoa

Inprimatzea: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-940717-0-6

Lege-gordailua: SS-I652-2013

ERNEST DAUDET

AMODIOAREN MARTIRRA
DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA

Itzultzaile-moldatzailea:

Elizetxe

Sarrera, edizio kritikoa, hiztegia eta edizio modernoa:

Xabier Altzibar Aretxabaleta

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2013

AURKIBIDEA

AMODIOAREN MARTIRRA DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA

— 0 —

SARRERA, <i>Xabier Altzibar Aretxabaleta</i>	1
1) Ernest Daudet-en nobela bat euskaraz (1900-1901)	1
2) Gure edizioko irizpideak	10

— I —

AMODIOAREN MARTIRRA	
DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA	31
Aurkibidea	32
I. Phartea. BUHAMUAK. (I-IV)	37
II. Phartea. CHAMONDRINEKO JAUREGIA. (V-VIII)	47
III. Phartea. DOLORESEN HAURTASUNA. (IX-XIV)	61
IV. Phartea. AMODIOEN KAPITULUA. (XIV-XXIII)	81
V. Phartea. HISTORIA NAHASTEN DA BERRIARI. (XXIII-XXVI)	109
VI. Phartea. DESERTORRAK. (XXVI-XXIX)	119
VII. Phartea. ERRIDAU BAT HIIHITZEN DA. (XXIX-XXXIV)	129
VIII. Phartea. PRESONDEGIA. (XXXV-XXXVI)	143
IX. Phartea. EUSEBIA DE MIRANDOL. (XXXVI-XL)	147
X. Phartea. AMODIOAREN GERLA. (XL-XLIV)	155
XI. Phartea. ARGIA. (XLIV-XLVIII)	167
XII. Phartea. ADIO. (XLVIII-LIII)	185
HIZTEGIA	201
I. Eranskina: TOKI-IZENAK	311
II. Eranskina: OEH-KO ADIBIDEETAN AGERI EZ DIREN HITZAK, ALDAERAK ETA ADIERAK	313

— II —

AMODIOAREN MARTIRRA, DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA. (Edizio modernoa)	319
Edizio modernoa zertako? Irizpideak	321
Aurkibidea	323
I. Phartea. BUHAMUAK. (I-IV)	325
II. Phartea. CHAMONDRINEKO JAUREGIA. (V-VIII)	331
III. Phartea. DOLORESEN HAURTASUNA. (IX-XIV)	339
IV. Phartea. AMODIOEN KAPITULUA. (XIV-XXIII)	349
V. Phartea. HISTORIA NAHASTEN DA BERRIARI. (XXIII-XXVI)	367
VI. Phartea. DESERTORRAK. (XXVI-XXIX)	373
VII. Phartea. ERRIDAU BAT HIHITZEN DA. (XXIX-XXXIV)	379
VIII. Phartea. PRESONDEGIA. (XXXV-XXXVI)	389
IX. Phartea. EUSEBIA DE MIRANDOL. (XXXVI-XL)	393
X. Phartea. AMODIOAREN GERLA. (XL-XLIV)	399
XI. Phartea. ARGIA. (XLIV-XLVIII)	405
XII. Phartea. ADIO. (XLVIII-LIII)	415

SARRERA

I. Ernest Daudet-en nobela bat euskaraz (1900-1901)

I.I.

Amodioaren martirra (AM), azpiizenburu *Dolores, emazte bat berthutez bethea* duena, Louis-Marie Ernest Daudet frantses idazlearen (1837-1921) nobela baten euskarazko itzulpena da; zehatzago esanda, moldapena. E. Daudeten eleberriak *Le Roman d'une jeune fille (1770-1794)* du izenburua bere lehen edizioan (Paris: Charpentier, 1869), eta bigarrenean eta hirugarrenean *Dolorès* (Paris: E. Plon et C., 1879; E. Plon, Nourrit et C., 1885). Hiru edizio horietako testua berbera da.

Nobela historiko erromantiko hori ospetsua izan bide zen bere aldian; Daudetek bere garaian lauzpabost aldiz gutxienez argitaratu zuen, liburu gisa, eta agian, beste zenbait aldiz folletoi eran, ohikoa zenez. Gaztelaniaz itzuli zuen J. D. delako batek (Ernesto Daudet. *Dolores*. Versión castellana de J. D. Madrid: Eduardo Mengibar, 1886). Ingelesez ere argitaratu zen (*Which? Or, Between two women*, 1893; sarean irakurgai: Project Gutenberg), baina korapiloa guztiz desberdin askatuta, bukaera zoriontsuarekin eta azken kapitulua gehituta. Euskarazko itzulpena *Le Pays basque—Eskual-herria* (1898-1914) kazeta errepublikarrean argitara zen 1900-1901ean, folletoi gisa, 53 atal edo emanalditan, 12 parte edo kapituluz osatuta eta D. Elissetche edo Delissetche delako batek sinatuta.¹*Le*

⁽¹⁾ Hona noiz argitaratu ziren atalok: parentesi artean, atalaren zenbatgarrena zehazten da (guk zenbatuta); ondoren, kazetaren agerraldia eta data.

(I) EH 77, 1900-III-17. (II) EH 78, 1900-III-24. (III) EH 80, 1900-04-7. (IV) EH 81, 1900-IV-14. (V) EH 83, 1900-IV-28. (VI) 84, 1900-V-5. (VII) EH 85, 1900-V-12. (VIII) EH 86, 1900-V-19. (IX) EH 88, 1900-VI-2. (X) EH 89, 1900-VI-9. (XI) EH 90, 1900-VI-16. (XII) EH 91, 1900-VI-23. (XIII) EH 92, 1900-VI-30. (XIV) EH 93, 1900-VII-7. (XV) EH 94, 1900-VII-14. (XVI) EH 95, 1900-VII-21. (XVII) EH 96, 1900-VII-28. (XVIII) EH 97, 1900-VII-4. (XIX) EH 98, 1900-VIII-11. (XX) EH 99, 1900-VIII-18. (XXI) EH 100, 1900-VIII-25. (XXII) EH 101, 1900-IX-1. (XXIII) EH 102, 1900-IX-8. (XXIV) EH 103, 1900-IX-15. (XXV) EH 104, 1900-IX-22. (XXVI) EH 106, 1900-X-6. (XXVII) EH 107, 1900-X-13. (XXVIII) EH 108, 1900-10-20. (XXIX) EH 109, 1900-X-27. (XXX) EH 110, 1900-XI-3. (XXXI) EH 111, 1900-XI-10. (XXXII) EH 112, 1900-XI-17. (XXXIII) EH 113, 1900-XI-24. (XXXIV) EH 114, 1900-XII-1. (XXXV) EH 114 (berriz), 1900-XII-8. (XXXVI) EH 115, 1900-XII-15. (XXXVII) EH 116, 1900-XII-22.

Pays basque-Eskual-herria kazeta (1898-1914) Lewy d'Abartiaguek (1866-1944) zuzentzen zuen (Arbelbide 2008). Baionako Udal Liburutegian kontsulta daiteke, bai eta Frantziako Biblioteka Nazionalean (BnF). *Eskual-herria* izenaz ezagunagoa da; horregatik hemen EH izendatuko dugu laburki.

Amodioaren martirra nobelari buruzko argitasunak, bereziki egileari, folletoi erara egokitzeari, nobelaren osagaiari, ideologiari, literaturari eta hizkuntza aldeari dagozkionak emanak ditugu artikulua batean (Altzibar 2009: 51-66). Hemen egile, gai, ikusmolde ideologiko eta generoari buruzko argitasun beharrenak baino ez ditugu emango laburki.

Ernest Daudet kazetari politikoa eta nobela eta historia-liburuen egilea izan zen, erregetiar eta bonapartisten aldekoa, eta politika kargu handiak izan zituen II. Inperioan, baita Errepublika *xuriaren* garaian. 1870 ondoren Errepublikaren kontrako jarrera hartu zuen bere idazlanetan. Harrezkero hirurogei bat nobela publikatu zituen. Ordea, 1870 baino lehenago hamar bat; horien artean obra hau, zeinen lehen edizioa hain zuzen II. Inperioaren azken urtean argitaratua izan baitzen (1869). Ernest Daudet baino ospetsuagoak dira haren anaia Alphonse Daudet (1840-1897) eta honen seme eta haren iloba Léon Daudet (1867-1942).

Protagonista nagusia Dolores da, ijito alaba, eta, harekin batera, Salvador, markes pobretu baten semea; bada hirugarren pertsonaia garrantzitsu bat, Eusebia, neskato noble eta aberatsa. Hiruren artean osatzen dute amodio-triangela. Frantses Iraultzaren aitzineko eta ondoko jazoeretan kokatua dago (1770-1794); azken atala, monarkia berrezarriaren garaian. Lehen bost kapituluak Frantzia hegoaldeko Nîmes inguruan gertatzen dira, ondorengo zazpiak Terrore garaiko Parisen, Kontserjeriako eta Madeloneteko presondegi ospetsuetan. Salvador eta Doloresen arteko amodioa gatazkatsua eta ezinezkoa da. Doloresek uko egiten dio Salvadorren amodioari, aitaorde markesari dion fideltasunagatik, baita Eusebiaren alderako adiskidantza, karitatea eta urrikalmenagatik; fideltasuna maitatzeko libertatearen gainetik ezarria dago, halaber nobleziako kideen arteko interes eta harremanak herritarrekikoen gainetik. Dolores kristau bertutez betea da; gainera, Iraultzak, martiri bilakatuko du. Nobelan burges eta errepublikanoen kritika ageri da, baina hori ohikoa zen II. Inperioan; III.

(XXXVIII) EH 118, 1900-XII-29. (XXXIX) EH 119, 1901-I-5. (II) EH 121, 1901-I-19. (XLI) EH 123, 1901-II-2. (XLII) EH 124, 1901-II-9. (XLIII) EH 137, 1901-V-18. (XLIV) EH 139, 1901-VI-1. (XLV) EH 140, 1901-VI-8. (XLVI) EH 142, 1901-VI-22. (XLVII) EH 143, 1901-VI-29. (XLVIII) EH 144, 1901-VII-6. (XLIX) EH 147, 1901-VII-27. (L) EH 148, 1901-VIII-17. (LI) EH 151, 1901-VIII-24. (LII) EH 156, 1901-IX-28. (LIII) EH 157, 1901-X-5.

Errepublikaz geroztiko folletoi-nobeletan, ordea, burgesiaren bertuteak eta aristokraziarekiko bitoria goraiapatuko ziren.

Folletoi-nobelaren barruan kokatzen da *Amodioaren martirra*; hain zuzen, nobela (fr. eta euskara herrikoian *roman*; hau da, nobela luzea) genero nagusi bilakatu zen folletoiari esker (folletoia, fr. *feuilleton*, kazeten beheko aldeari deitzen zitzaion, albiste eta iritzietatik marra batez bereizita agertzen zenari, hor zatika argitaratzen baitziren eleberriak). Balzac-engandik hasita (*La vieille fille*, 1836), idazle handiak (Dumas, Flaubert, Dumas, G. Sand, Maupassant...) folletoi eran argitaratzen zituzten beren nobelak, baita zabalkunde handiko liburu-bildumetan (hala publikatu zuten *Dolorès*); era batera edo bestera, ohiko liburu formatokoak baino merkeagoak eta salmenta handiagokoak ziren. Aurki *folletoi-nobela* terminoak konnotazio negatiboa hartu zuen (literatura txarra, jende arruntarentzakoa etab.), egun ere baduena, nahiz ukazina den telebistan arrakasta izugarria duela. III. Errepublikatik aitzina, *nobela herrikoia* ere (*roman populaire*, *novela popular*) esaten zaio, elite-literatura ez delako.

Folletoi-nobelari dagozkion ezaugarriak ageri dira *Amodioaren martirran*: gertaeren erreberritze ziklikoa; egoera dramatiko ugari (are egiantzekotasunik gabeak, korapiloaren batasunari eusteko asmoz); Ongiaren eta Gaizkiaren arteko borroka (Ongia, monarkia; Gaizkia, Iraultza edo Errepublika); esajerazioa, patetismoa etab. Esandako ezaugarri gehienak, melodramaren eta komedia sentimentalaren eta negartsuaren (*comédie larmoyante*, *comedia lacrimógena*) eraginezkoak dira. Adib., errugabeak bidegabeki jarriak izatea eta erretorika enfatiko eta negartsua (Queffélec 1989: 81). Folletoi erromantikoaren ezaugarri ugari ditu, beraz.

E. Daudeten nobela hau II. Inperioko folletoi-nobela historikoan kokatzen da. Frantses erromatikoek nobela historikoa garatu zuten monarkiaren berretze garaian (1815-1830), W. Scott eta F. Cooper-en eredura. Aipagarriak dira Balzac, V. Hugo eta, geroago, Dumasen obrak. Hartara, nobela historikoaren garapenak nobela literatura mailara jasotzen lagundu zuen. II. Inperioren bukaeran nobela historikoak ugaritu ziren, baina kalitate aldetik apaldu: historia kokagune bitxia besterik ez zen, motibo pribatuko ekintzak eta historiatik kanpoko intrigak kontatzeko (Queffélec 1989: 50). *Amodioaren martirran* historiako gertaeren deskripzioak –frantses-gaztelaniazko testuetakoak– kenduak dira, eta amodio-istorioa ardatz nagusi bihurtua.

Nobelaren baliabide eta balio literarioei dagokienez, elkarrizketa dramatiko, irudi eta klixe literarioen erabilpena aipagarri dira; euskal moldapenaren kasuan, gainera, hizketaren bizitasuna eta hitanoaren erabilera (hierarkia ez ezik kidekotasun harremanak adierazteko, are nobleen artean). Hizkuntza aldetik azpima-

rragarritzat dauzkagu, alde batetik, folletoi-mintzaira eta klixek euskaraz moldatzeko saioa; bestetik, euskara ahozkoaren, euskalkikoaren eta idatzizkoaren marka ugariak agertaraztea. Eskasiak ere nabarmenak dira: inprobisazioa sintaxi, hitzordena eta puntuazio arloan, erdal mailegukiko morrontza lexikoan.

Funtsean, *Amodioaren martirra*, erdal nobela baten moldapena izanagatik, edo hain zuzen horixe baino ez izateagatik, nazioarteko edo behintzat europar literatura garaikidean txertatzen da, folletoi erromantiko-historiko tipikoaren adarrean. Eta ez da hain beranduko fruitua, aldiaren aldetik: frantseseko jatorrizkoa argitaratu zenetik (1869) 31 urtera eta gaztelaniazko itzulpenetik 14 urtera publikatu zen. Joera ideologiko modernoan aldetik zerbait atzeratuago dabil: II. Inperio garaikoa da, III. Errepublikakoa baino gehiago.

Ondoren, lehenik, aipatu artikuluan (Altzibar 2009) behar bezala aztertu gabeko puntu bat landuko dugu, hau da, *Amodioaren martirra* frantsesetik ala gaztelaniatik itzulia edo moldatua den (I.2.), eta jarraian, bost galdera jarriko ditugu argitalpenari, izenburuari, hizkerari eta moldatzaileari buruz, horietako batzuk esandako artikuluan beste era batera azalduak (I.3.).

I.2.

Amodioaren martirra ez da frantses nobela originalaren (1869, 1879, 1885) itzulpena edo moldapena, gaztelaniazko itzulpenaren (1886) moldapen laburtua baizik. Baliteke gaztelaniazko itzulpen hori kazetaren batean folletoi eran argitaratua izana eta euskal moldatzaileak bertsio hori euskaraz moldatu izana. Bestela, 1886koa hartu bazuen iturritzat, hori baita probableena, hark berak egokitu zuen folletoi eran, hau da, emanaldika. Nolanahi ere, *Amodioaren martirra* moldapena da, itzulpena baino gehiago. Ondorio hori ateratzen da frantses eta gaztelaniazko testuak euskarazkoarekin konparatuz, adib., izenetan, testuaren luze-laburrean eta moztutako pasarteetan, moldatzailearen buruko azalpen eta ideologia adierazpenetan, istorioaren kontaeran, paragrafoen osatzean eta puntuazioan, elkarrizketaren garrantzian, eta jatorrizko hizkuntzaren egitura, hitz eta adierazpideen itzulpenean.

Moldatzaileak pertsonaien izenak aldatzen ditu, protagonista nagusiarena (Dolores) izan ezik: bat edo beste gaztelaniazko itzulpenetik hartuta (fr. Coursegol, gazt. Pedro, eusk. Piarres); gainerakoak, aldatuta (fr. Antoinette, gazt. Antonia, eusk. Eusebia; fr. marquis Hector, gazt. Marqués Héctor, eusk. Estebe markesa). Euskal Herriko ohiko izenak aukeratzen ditu (fr. Philippe, gazt. Felipe, eusk. Salbador; fr., gazt. Tiepoletta, eusk. Dominika; fr. Edmée, gazt. Edmea, eusk. Mariana; fr. Marthe, gazt. Marta, eusk. Graziana). Eta Fouquier-Tinville akusatzailearen ordez Robespierre ezartzen du, Euskal Herrian gorrotatua.

Amodioaren martirra folletoi-tekniken arabera atalkatua da eta folletoi-teknika eta estilora egokitua edo moldatua (emanaldien bukaeran eta hasieran suspentsea edo ustekabea dago), ez jatorrizko nobelaren erritmoaren arabera antolatua. Euskarazko testua frantses-gaztelaniazkoak baino askoz laburragoa da, esan nahi baita kendu egiten dituela zati ugari, laurdena gutxienez; maitaleen arteko istoriora mugatzen da, paisaien deskripzioak, gertaera historikoak eta kritika ideologikoa daukan parte handi bat ezabatuz, protagonisten arteko amodio istorioa garrantzitsuagoa delakoan. Baina, kendutakoen ordain, moldatzaileak, bere buruz ari delarik, beste azalpen eta xehetasun batzuk ematen ditu, frantses-gaztelaniazkoetan ez daudenak, adib. Euskal Herriko buhameez (beraz, Euskal Herriaren presentzia minimo bat dago) edo erlijioaz, Jainkoaz eta santutasunaz, gai hauek pisu handiagoa hartzen baitute euskarazko moldapenean.

Bestalde, euskarazko bertsioak askotan bere erara kontatzen du istorioa, batzuetan kontaeerako osagaien ordena aldatuz. Paragrafoen kopuru nahiz luze-laburrari, edo puntuazioari dagokionez ere, gaztelerazko testuaren eite handiagoa du euskarazkoak, frantsesezkoarena baino: paragrafo eta esaldi laburragoak eta halaber bi puntuak edo puntua eta koma gehiago erabiltzen dituzte gaztelania-euskarazkoek. Frantses testuko kontaeera-pasarte ugari gaztelaniazkoan elkarriketa forman emanak dira, eta halaber euskaraz. Beraz, erritmo lasterragoa eta bizkorragoa bilatzen du moldatzaileak, folletoi-teknikek eta estiloak eskatzen duenez. Hizkuntzari dagokionez, moldatzaileak bereziki gaztelaniazko egitura, hitz eta adierazpideak, klixerik literarioak barne, ahurtaraka mailegatzeko ditu; hain da nabarmena gaztelaniaren kutsua, nahiz badakien euskal kutsuko itzuli eta esapideez baliatzen ere.

Honetan guztian nabari da euskarazkoa ez dela itzulpena, moldapena baizik, moldapen librea eta laburtua. Gaztelaniazkoa, ordea, frantsesezkoaren itzulpena dela esan daiteke, gehienbat, nahiz hark ere zerbait laburtzen edo moldatzen duen frantsesezkoa. Hona euskarazko moldapenaren bi erakusburu:

- I. (Buhameez) *Leur langue est un mélange d'espagnol et de slave. Quelques-uns baragouinent le français.* (1879:4).

El idioma que hablan es una mezcla de castellano y de eslavo. Algunos chapurrean el francés. (1886:9).

Gure Eskual herrian bizi denak, eta hunat jiten denak, ardua harrapatzen ditu udan jende horietarik tropaka bainan hotzak unkitu orduko golondrina bezala leku beroetarar ibes joiten dira eta ez dira itzultzen berriz beroak jin artio. Heien lenguaia erdi español eta erdi eskuara nahasi bat da, badira zombait puxka bat nahasten dutenak frantsesa eta oraino zombait ikasten dute eskuara. II.

Hemen ageri da moldatzaileak ez duela gaztelania edo frantses testuaren edukia biltzen, bere buruz ari dela; ez da Nîmes aldeko buhameez ari, Ipar Euskal Herrikoetz baizik, ia etxeoak zituelako seinale (aurreko pasarte batean buhameak Baionara eta Ortzaize aldera etortzen zirela dio). Gainera xehetasun garrantzitsu bat ematen du: euskara erabiltzen zutela, edo gaztelania-euskara nahasi bat.

2. *Si près de connaître son destin, alors que la réponse de Dolores renfermait le malheur ou le bonheur de sa vie, il éprouvait une émotion violente, accrue par les impressions qui saisissent l'homme lorsqu'il revoit le ciel natal, (...)* (1879:52).

Pero, ¿y si Dolores no le amaba? Su contestación sería la felicidad ó la desgracia de la vida del joven. ¡Aquel pensamiento le apretaba el corazón, agitado por las impresiones que siente el hombre cuando vuelve a ver el suelo natal, (...) (1886:69).

Bainan, eta Doloresek maite ez bazuen? Haren errepostuarekin izanen zen uros edo maluros. Phensamendu horrek bihotza zerratzen zakon sortibu zen lurra ikhbusiko zuelako plazerrarekin, eta han maithatu guziak han harrapatuko ez zituelako dolore bandiarekin. XV.

Hemen ageri da euskarazkoa gaztelaniazkotik moldatua dela, eta ez frantsesezkotik, hau aski desberdina baita. Izan ere, ez dirudi moldatzaileak frantsesezko testua ezagutu edo baliatu zuenik, ezagutzen ez zuelako edo presaka euskaratzen ari delako. Hala ere, baliteke inoiz edo behin kontsultatu izana (horren zantzuak jaso ditugu edizio honetako ohar batzuetan).

Beraz moldatzaileak gaztelaniazko itzulpena bere gisa moldatzen du euskaraz, nahiz edukia ez duen askotan fideltasunez edo zehaztasunez biltzen. Adib., subjekturik ez du jartzen hainbat esalditan, gaztelaniak bezala jokatu nahiz, honek aski duelarik genero-markaz baliatzea. Halako hutsek irakurketa zailtzen dute, eta horregatik ahal den neurrian zuzentzen saiatu gara (2.5.1).

Moldatzaileak bere testua astekarirako espres moldatu ote zuen, argitaratu ahala moldatzen ari zen ala lehenago bururatua ote zuen ez dakigu. Baina hala moldapenak nola argitalpenak lasterka eta tarapatan eginak dirudite. Hasteko, testua moldiztegiko hutsez betea da, eta puntuazioari nahiz ortotipografiari dagokionez arretarik gabe moldatua. Gero, hitz ordena eta joskera landugabeak, ezohikoak, asimetrikoak, bihurriak, traketsak dira maiz, are bortxatuak (erlatiboetan, adib.); moldatzailea heldu zaion bezala moldatzen ari dela erakusten dute. Hizkuntza hutsak ageri dira franko aldiz (ergatiboa *-k* markarik gabe, datibo komunztadurarik eta aditz kohesiorik ez, subjektu argirik ez perpausetan, oharkabea edo zabarkeriaz ahantzitako hitzak,

etab.). Hori, itzulipurdikatutako zati osoak alde batera utzita (XXI). Hain huts ugarirekin argitara zen *Eskual-herria* (EH) kazetan non pasarte anitz nekez irakur baitzitezkeen. Horregatik, askotan gaztelaniazko eta frantsesezko testuen laguntzarekin, baina beste batzuetan gabe (ez bedi ahantz moldapena dela), EHko testua zuzendu, finkatu, irakurgarri eta ulergarri bihurtu dugu, ustez behintzat, nahiz arazo eta zalantza guzti-guztiak ezin izan ditugun argitu.

I.3.

Amodioaren martirrak galdera batzuk jartzen dizkigu, zehatzago ikertzea me-rezi dutenak. Bost aipatuko ditugu, beste hainbat ataletan.

I.3.1.

Egilea eta nobela kontserbadoreak, erregezaleak, frantses iraultzaren kontrakoak izanik, zertako argitaratu ote zuen *Eskual-herria* astekari errepublikarrak? Kazetaren jokabidearekin bat ez zetozen euskaldun irakurleak ere biltzeko eta kazeta zabaltzeko asmoz, beharbada? Ez dakigu zehatz kazetak zenbat ale argitaratzen zituen 1900-1901ean, are gutxiago askok edo gutxik irakurri ote zuten *Amodioaren martirra*; dakiguna da emakumeek irakurtzen zituztela, bereziki, halako nobelak. Ohargarria da ere Ipar Euskal Herrian errepublikar moderatuak nagusi ziren garaian publikatu zela, hain zuzen erradikalen garaipenaren (1902) aurreko bi urteetan.

I.3.2.

Ulergarria izan daiteke *Eskual-herriak* edo moldatzaileak jatorrizko obraren eta gaztelaniazko itzulpenaren izenburuaren orde (Dolores) E. Daudeten beste obra baten izenburua (*Un martyr d'amour*, Paris, E. Dentu, 1867?, 1878, 1883) ezartzea. Itzulpenetan ohikoa zen izenburua aldatzea, eta, bestalde, pentsa daiteke, egile jatorraren bi obren izenburuak koherentziaz batuta (amodioaren martirra Dolores da), kazetak bere burua babestu nahiko zuela, agian. Baina zergatik kazetak ez zuen jarri ezta aipatu egilearen izena eta bai, ordea, ustezko moldatzaile edo dena delakoarena, hots, D. Elissetche edo Delissetcherena, bitarteko atal gehienetan baina ez bi buruetan (hau da, ez lehen 10 ataletan, ez azkenekoan)? Eta zergatik aldatu zituen jatorrizko eleberriko pertsonaien izenak? Ez ote zen izango euskarazko itzulpena argitaratu zen urteetan E. Daudet etengabe idazten ari zenez, euskaratzeko baimenik eskatu ez zitzaiolako eta itzulpen eskubideak zor zitzaizkielako hari eta argitaratzaileari, batak eta besteak beren itzulpen eta berrargitalpen eskubideak, atzerrian bederen, aldarrikatu baitzituzten 1879ko edizioan?

I.3.3.

Zer dela eta ez dago folletoi-nobela honen aipamenik (ala bai?) euskal literaturaren bibliografietan eta historietan? Nondik nora galdu dira 1900e-tik honako arrasto guztiak, Baionako Udal Liburutegian ez ezik Pariseko Biblioteca Nazionalean (BnF) ere gorde izanik *Eskual-berria* kazeta? Zergatik egon da toki publiko horietan ehun urte eta gehiago lo, inoren ezagupen eta ezagutzarik gabe? Euskarazko kazeta zaharrak kontsultagaitzak direlako ala euskaldunek halakoei eskerrik eta begirunerik ez dietelako?

I.3.4.

Zerendako gaztelaniatik itzuli edo moldatu frantsesezko nobela bat Iparraldeko euskarara, frantsesetik beharrean, Ipar Euskal Herriko kazeta batean argitaratzeko? Eta zergatik moldatzaileak ez zuen eredutzat hartu bere garaiko liburu eta kazetetako euskara, eta haren ordeztu maila apalagoko euskara bateratu gabe batean idatzi zuen, gaztelaniatik neurri gabe mailegatu hitz eta adierazpideak, euskaraz behe mailakotzat hartzen direnak, folletoi-nobeletako adierazpide topiko edo klixerik literarioekin –gaztelaniatik mailegatuak horiek ere– nahasirik? Moldatzaileak uste zuelako halako hizkera zegokiola folletoi-nobelari ala, beste gabe, errazago zitzaiolako hala itzultzea? Dakiguna da frantsesezko folletoi-roman edo nobela herrikoiak direlakoak arrakastatuak izan zirela beste hizkuntzetan ere, haietako asko itzuli eta argitaratu zirela gaztelaniaz. Areago, gaztelaniazkoak baino ugariagoak zirela frantsesetik gaztelaniara itzuliak, folletoi-nobelagile ospetsuena: Kock, Sue, Soulié, Ponson du Terrail, Feval, Mary, Richebourg, Montépin (Cobos Castro: 1994). *Dolores* gaztelaniaz argitara zuen E. Mengibar-ek berak argitara zituen Montépinenak eta beste zenbait egile ospetsuena ere (A. Belot, Thackeray...). Beraz baliteke *Dolores* nobela arrakastatsua izatea gaztelaniaz. Eta ziur asko gaztelaniazko itzulpen horiek sartuko ziren Iparraldean, non letra-jende askok ezagutuko baitzuen hizkuntza hori, mugaldekoko jende xeheak ez ezik.

I.3.5.

Nor ote zen D. Elissetche edo Delissetche? *Eskual-berria* kazetak nobelaren alegiazko egiletzat saldu nahi zuen izen bat ala benetako moldatzailea? Elissetche deitura aski ugaria da Nafarroa Beherean eta Lapurdin, adib. Ortaizen edo Arrosan, eta batez ere Bidarrain; Elisseits edo Elicetche ere bada Ortaizen, Bidarrain, Itsasun (Pyrénées Atlantiques. Archives Départementales. <http://earchives.cg64.fr>). Iparraldeko Elissetche horietako batzuk Hegoaldean sortuak ziren, izan ere Baztanen, Irunen eta inguruetan Elizetxe deitura aski ezaguna da.

Ipar Euskal Herrikoa edo agian Hegaldean sortua baina Iparraldean bizi izana zen gure Elizetxe, bere mintzairagatik eta ijitoei buruz ematen dituen xehetasunengatik. Baina gaztelania ondo ezagutzen zuela argi dago. Gainera, norbait ikasia izan behar zuen. Alde horretatik, gure iritzian, baliteke moldatzailea apaiz bat izatea, nahiz *Eskual-berria* astekaria antiklerikala zen; beste arrazoi batengatik ere izan daiteke apaiza: erlijio eta moralitatezko hitz eta esamolde ugari kutsatzen duelako euskarazko moldapena, frantses eta gaztelaniazko testuak hainbesteko kutsurik ez baitu. Hipotesi bat baino ez da, ordea.²

Elizetxe delakoa edo haren izenpean gordetzen zena nor izan ote zen zitalatzeko beste bide bat da mintzaira aztertzea. Izan ere, idazle gutxik jasotzen dute hark hainbat arrasto euskalki edo herri-hizkerakoak, nahiz harengan ere euskara idatziaren eragina nabarmena den. Baxenabarrekoa da eleberri honetako mintzaira, baina nongoa zehazki?

Gure ustez, Baigorri eta Uztaritze arteko hizkeren aztarnak ageri dira: hitz batzuen aldaerak (*ofe, iran* ‘igan, igo’) Baigorriko azpieuskalkikoak –L.L. Bonaparteren sailkapenaren arabera– dira eta OEHN BN-baig markatuta ageri dira. Adizkiei begiratuta ere, Yrizarren bildumakoekin konparatuz (Yrizar 1999a, 1999b-2002), gure ustez hurbil daude aipatu azpieuskalkiko Ortzaize edo Bidarraiko barietateetatik, zenbait xehetasunetan are Uztaritzeiko eta Itsasukoeetatik (*zitzaion/zitzakon, dio/dako, zion/zakon, detak* ‘zidak’, ‘didak’, *betan* ‘hidaan’). Ondorio bera ateratzen dugu Zuazok (2008: 152) deskribatutako ezaugarriak aintzat hartuta ere (*izan/ukhan* bereizketa, *-a* galdera atzizkia, *-entzat* destinatibo atzizkiaren nagusitasuna etab.). Ortzaize-Bidarra-Baigorri inguru horretakoa ote zen moldatzailea? Ez dakigu, baina bai *Eskual-berriako* zuzendaria, Lewy Abartiague, Ortzaizen bizi zela (ez ahantz moldatzaileak ere Ortzaize aipatzen duela, buhameez mintzatzean), hauteskundeetan Baigorriko kantonamenduan presentatu ohi zela, eta hurbileko euskalzaleak ezagutzen zituela.

(²) Elizetxe apaiza izatekotan, Larzabalekoa ote zen? Aldi hartan badira Larzabale-Jutsin (Oztibarre) bi anaia apaiz, Elissetche deiturakoak. Horietako baten ibilbidea ezagutzen dugu Daranatzen liburuari esker (Daranatz: 1924) eta batez ere P. Andiazabal jaun kalonjeari esker, hark eman baitzikigu xehetasun gehienak. Honorate Elissetche Zibitzen sortu zen, Larzabale ondoan, 1831/01/26an, eta Jutsin hil 1903/06/14an. 1858an apaiztu zen, Barkoxen egon zen bikario 1859tik aitzina, gero 1864an Larzabalen auzo Berauneko erretore izendatua izan zen, eta ondotik, 1879an Jutsiko erretore. 1890an Larzabaleko parrokiari, paga kendu zieten apaizei diruz laguntzen agertzen da (*Eskualduna* 150, 1890/03/28, “Souscription pour les prêtres basques privés de leur traitement. Paroisse de Larceveau”). Ez dirudi sinesgarria halako apaiz batek *Eskualdunaren* etsai *Eskual-berrian* publikatzea roman bat baina nork daki? Honorateren anaiaz, ordea, ez dugu deusik jakin. Bestela, Ortzaize-Bidarra aldeko apaizen bat ote zen gure Elizetxe?

2. Gure edizioko irizpideak

Le Pays basque-Eskual-berriaren edizioko testua (laburki, EH) hutsez betea da, puntuazio aldrebesekoa, lerroalde askotan irakurgaitza eta grafia eta hitzen formari dagokienez batasunik gabekoa. Horregatik testua berreraiki eta osatu behar izan dugu, oharren bidez finkatuz, gehienak testuari buruzkoak baitira. Hortaz, alde batetik, edizio kritikoa egin nahi izan dugu, ahalik eta fidelena jatorrizkoari (EHkoa, eskuizkriburik ezean); *ahalik eta fidelena* horrek esan nahi du huts nabarmenenak –inprimategikoak eta hizkuntzari dagozkionak– zuzendu ditugula. Eta, bestetik, irakurle arruntarentzat irakurgarria datekeena. Bi irizpide nagusi izan ditugu kontuan: lehenik, moldatzailearen euskara eta ahoskera errespetatzea. Hori beharrezkotzat jo dugu, izan ere liburu formatoko lehen edizioa da hau; gainera, egunen batean *Eskual-berria* kazeta formato elektronikoa kontsultatzeko aukera egongo balitz ere, irakurleak ezin izango luke testua eroso irakurri eta ulertu. Bigarrenik, irakurleari irakurketa erraztea, ahalik eta nahasketa gutxien sortzeko asmoz, kontuan izanik balio literarioko obra dela batez ere.

Beraz, EHko testuko grafia zaharkituak kendu eta egungo ortografia batuaz janzten saiatu gara; gainera, egungo grafia malguek soineko eroso eta egokia eskaintzen die testuko ahoskera-fenomenoei. Bestalde, moldatzailearen joerak aintzat hartu eta grafia bateratzera jo dugu hitzen eta adizkien forma edo aldaeren idazkeran batasunik edo erregulartasunik ez dagoen kasu batzuetan, nahasketa gutxitzeko asmoz, adibidez txistukarien kasuan edo adibide gutxiko eta zalantzazko kasuetan. Hala ere, beste kasu askotan hitzen eta adizkien grafia, forma eta aldaera desberdinak errespetatu ditugu, esaterako kontsonante ondoko *hdun* hitz frankotan (*begitharte/begitarte, ikbus/ikus* etab.), ahoskera desberdinak edo aldaeren arteko zalantzakortasuna erakustearren, besterik ez bada ere; baita hiztegietan agertzen ez diren mailegu kasu bakanetan (*buenaventua, voila/boila*). Hitz eta adizkien aldaera desberdinak –ahoskeran lur hartuta daudenak– atxiki ditugu beraz, baina ez Iparraldeko tradizio zaharreko grafia-ohitura funtzionaltasun gabekoak (*yoan, banoha* → *joan, banoa*). Sarrera honetan ez ezik, obraren testuari eginiko oharretan (aparatu kritikoa) eta Hiztegian adierazten dugu, kasu askotan, EHko grafia, guk aldatu duguna.

Hala, bada, EHko edizioari aldaketak egin dizkiogu: paratestuan, hau da, izenburu, atalen ezartze eta abarretan (2.1.), ortografian (2.2.), ortotipografian (2.3.), hitzen forman (2.4.) eta morfologia puntu batzuetan (2.5.). Inprimatze huts ugari ere zuzendu behar izan dugu (2.6.). Azkenik, edizio honetako ohar eta laburdurez argitasun batzuk ematen ditugu (2.7.). Adibideak aipatzean, atala

edo emanaldia adierazten dugu erromatar zenbakiz, kazetaren agerraldi-zenbakia eta eguna jarri orde; batzuetan, emanaldiaren ondoren, eta parentesi artean, zenbat aldiz agertzen den zenbatzen dugu.

2.1.

Paratestuari dagokionez, EHko izenburu-azpiizenburuak atxiki ditugu: *Amodioaren martirra*. *Dolores, emazte bat bertutez betea*. Dolores protagonistaren izena hartzen du 1879ko frantsesezko edizioaren izenburuak; “*emazte bat bertutez betea*”, kazetak edo moldatzaileak gehitua da. Izatez, *Amodioaren martirra* E. Daudeten beste eleberri baten izenburua da (*Un martyr d’amour*, 1878), baina nobela horrek ez du deus ikustekorik *Amodioaren martirrarekin*. Honen izenburu-azpiizenburuak koherenteak dira: izan ere, eleberrian amodioaren martirra Dolores da, emazte bat bertutez betea. Baina EHren edizioak bigarren azpi-izenburu bat ezarri zion nobelari, “Buhamuac”, beti beste bien ondotik ageri dena emanaldi edo atal guztietan. Izatez, “Buhamuac” lehen parte edo kapituluaren izenburua baino ez zen, baina oharkabean huts hori itzuri eta atal guztietan gelditu zen bigarren azpi-izenburu gisa. Guk lehen parte edo kapitulurako atxiki baina besteetan kendu dugu.

Parte edo kapitulu batzuen izenburuak ere arteztu ditugu, nahasteak garbituz, eta parteok EHko edizioan baino garbiago finkatu. Adib., azken parte edo kapitulu osoaren izena “Adio” da eta ez “Argia”. Kendu ditugu folletoi gisako argitalpenetan hasiera-bukaeretan ohikoak diren “Segida” eta “Segitzekoa” indikazioak eta moldatzailearen izena. Eta EHren edizioko 53 atal edo emanaldiak zenbakitu ditugu.

2.2.

Ortografia aldaketak. EHko grafia zaharren orde euskara batuko grafia edo letrak ezarri ditugu (→ geziak aldaketaren norabidea adierazten du). Horrek ez du esan nahi hitzaren forma euskara batuan ezarri dugunik.

2.2.1.

c-, *-c-* → *k*. Adib.: *Capetoren*, *Conserjeriaco*, *salva-conducta*, *casu eman*, *azcar* → *Kapetoren*, *Konserjeriako*, *salbakondukta*, *kasu eman*, *azkar*. Azken hauek gehienetan *k* ondoren *b* gabe ageri dira: *kasu eman* V (2), VII (2), VIII, IX, XII, XIII, XVI, XX, *azkar* X, XIII, XIV, XVII, L, *azkartasunaren* XLVII (vs *kbasuman* III, *azkhar* VIII (2)).

2.2.1.1.

-cc- → *-kz-*. Adib.: *seccioneco*, *accento* XL, *proteccionea* XXXVIII → *seksioneko*, *akzento* (frantsesez *aksan* ahoskatua), *proteksionea*.

2.2.2.

v → *b*. Adib.: *atrevituco*, *Salvador*, *vapor* XXXVIII, *providentziac* L, *errevolucioneco* LII, *salva conducta*, *salvaconduct* XLIV, *favorableric* XVI → *atredituko*, *Salbador*, *bapor*, *probidentziak*, *erreboluzioneko*, *salbakondukta*, *salbakondukt*, *faborablerik*. Ordea, OEHn ere agertzen ez diren mailegu bakanetan EHko grafia desberdinak errespetatu ditugu: *buenaventuaren* I, *voila* 'belo' XXXVII (4) [fr. *voile*, *vual* ahoskatua] eta *boila* LI.

2.2.3.

mb, *mp* → *nb*, *np*. Adib.: *costumbre*, *combersacio*, *hambertze*, *cambiatzen* XXII (vs *canbiatuco* III, XXII) → *kostunbre*, *konbersazio*, *hanbertze*, *kanbiatuko*.

2.2.4.

Txistukariak:

2.2.4.1.

ɟ, *c* edo frantsesezko *-t-* → *-z-*. Adib.: *desesperacione* XXVIII (baina *desesperazionea* XXII), *indiferencia* XLIII, *inpatientzia*, *abondantia* III → *desesperazione*, *indiferenzia*, *inpazientzia*, *abondanzia*.

2.2.4.2.

-ss- → *-s-*. Adib.: *passatu* XXXI → *pasatu*.

2.2.4.3.

s → *z* ondoko kasuetan:

2.2.4.3.1.

Hitz bukaeran *-as*, *-es*, *-is*, *-os*, *-us* (ugariak EHko testuan baina beti *-az*, *-ez* etab. baino askoz gutxiago) → *-az*, *-ez*, *-iz*, *-oz*, *-uz*. Adib.: *beras* XXXI, XL, *nigarres* XXVIII, XXXI, XLII, XLVII (2), XLIX, LII, *beldurres* XXVIII, *ikbusis* XVIII, XXVII, XXXI, XXXVIII, XL, XLVII (2), (part. +) *-z gueros* XXVI, XXXI, XXXVII, XLII, XLIV, XLV, *phensatus* XXVIII, XLVII, etab. → *beraz*, *nigarrez*, *beldurrez*, *ikbusiz geroz*, *pensatuz*, etab. Grafia zalantzaz gainera, agian aintzat hartzekoa da Euskal Herriko toki zenbaitetan, adib. Nafarroako Basaburua aldean, *-as*, *-es*, *-os*, *-us* ahoskatzen dela instrumental kasuan.

2.2.4.3.2.

Halaber hitz barnean, herskari ahoskabeen aitzinean: *-sp-*, *-st-*, *-sk-*, *-sc-* (EHko testuan ez dira urriak baina gehienetan *-zp-* etab. baino askoz gutxiago) → *-zp-*, *-zt-*, *-zk-*. Adib.: *espainetan* XXXI, XLV, *besperan* XLVII, XLVIII (baina *bezperan* XLVII), *emaste* I, *gaste* (baina gehiagotan *emazte*, *gazte*, adib. *emazte* I, *emaztea* I, *emazteac* I, *gaztea* I, *gazteric* I), *orrasta-*

tzeco I, besti XLV, bestitu XLVIII, bestitua XLVIII, askenean XXX, XXXI, XLVIII, esconduco XXVII (baina ezcondu LIII) → ezpainetan, bezperan, emazte, gazte, orraztatze, beztitu, azkenean, ezkonduko etab.

2.2.4.4.

Euskara batuko letretara ekarri ditugu txistukarien arteko graffa-nahasketak edo beste graffa-erabilera batzuk ere -horietako batzuk ez egungo usadiokoak-, EHko testuan noizbehinka agertzen direnak; zenbait, inprenta hutsak ere izan litezke. Adib.: *setha, suc XLIII, gausa XL, atherarasiric XLIV, Dolorez XIV, arrasaldean XXXVII, urbatz(-) XXXI, XLVI, ibardetzi XXVIII, sinbetzi XIX, borts XLIII, abans XLI, consientzia XLIII, zorigaitsesco XXVIII, interezatzen XII, interezatu XIV, marquezac XXV, zozietate XIV (eta societate XI), chimizta, errezoluzioea, aspirazione XXXVI, egoizta, hocoloztetan XX, mintzazeco XVII, mintzazen XLVIII, estalzen I, itzulzen V, XIV → zeta, zuk, gauza, aterarazirik, Dolores, arratsaldean, urbats(-), ibardetsi, sinbetsi, bortz, abantz, konzientzia, zorigaitzezko, interesatzen, interesatu, markesak, sozietate, ximista, erresoluzioea, aspirazione, bokolostetan, mintzatzeko, mintzaten, estaltzen, itzultzen, etab.*

Egungo grafietara ekarri ditugu halaber adizki formetako *s/z* nahasketak edo zalantzak. Adib.: *datasu XXXIV, deiskitzuet XXVI, subala (vs zubala XLVI) ‘zihoala’, eguiten dituste I / eguiten tuzte I (hurrengo lerroan), izan suena, tziustelacotz XXXV, babins XXXV etab. → datazu, deizkitzuet, zuala, dituzte, tuzte, izan zuena, tziuztelakotz, babintz.*

2.2.4.4.1.

Euskara batuko grafiak ezarri ditugu EHko testuan adibide gutxi-koak diren eta zalantza erakusten duten zenbait hitzetan: *pensionizt XXIV / pensionist XXII, pensionest XXVII, egoizta XLIV, Luizianarat LIII, trabieza IX, frizatu IX, serbitzua XIX / zerbitzu XXII, sehientzat IX, harentzat X, Doloresenzat XVIII, lagunza XXIII / laguntzalea XXVIII, hiltzen XXVIII / hiltzen XXIII, XXV, setensia XLVIII, setenzia XXXV / setentzia XLVII, presensiatu XXXV, presensiarekin XXXVIII / presentzia XIII, XLI, LII, confidencia XXX → pensionist/pensionest, egoista, Luisianarat, trabiesa, frisatu, zerbitzu, sehientzat, harentzat, Doloresenzat, laguntza, hiltzen, setentzia, presentziatu, presentziarekin, konfidentzia. Beste batzuetan, ordea, ikusirik OEHN badirela halakoak, errespetatu ditugu: *diferenzia XVIII, indiferenzia XLIII (2), aparenzia XL.**

Aldaera desberdinak (*-nz-, -ns-, -ntz-*) errespetatu ditugu zalantza agertzen duten mailegu-hitz batzuen kasuan: *franzes(-) II, XIII, fransesa II, Francia XXVII, XXXIV, Franciaco IX eta Frantziaco I, Frantziari XI: beraz frances(-) eta franses(-), Franzia eta Frantzia. Halaber posi-*

zionaeren XLV / posisione XLIII, desizionea XXII, XVI / dezisionea XXI: beraz *posizione* eta *posisione*, *dezisione* eta *desizione* errespetatu ditugu. *Soinu* ‘arta’, *soinatu* ‘artatu’ ezarri ditugu (*i*)gn grafia zahardunen ordez (*sognatua* XXVII, *soignu* XXIX, LII; ik. beherago, fr. *gn* → *in*, [*ñ* ahoskatzekoa]), bai eta *zoinuren* (VIII, XIV) ordez. Baina *nesesario* (V, X, XXI (2), XXII, XXIII, XLIX), grafia bakarra baita eta bestenez aski ohikoa (ik. OEH *nezesar*io).

Deskantsu eta *deskantsatu* hitzetan moldatzailearen hiru grafia errespetatu ditugu: *-ns-* (*deskansu*), *-nts-* (*deskantsu*, *deskantsatu*), *-ntz* (*deskantzu*, *deskantzatu*). Hona EHko adibide batzuk: *descansu* XXVII, XXXVI, *descantsu* XXI (2), *descantza* V, VII, *descantzatu* XXIX, *descantzatzen* XXV, *descantzua* XLIII, *descantzuarentzat* XLVI. Moldatzailearen laugarren grafia, ordea (*-nz-*), ez dugu errespetatu, izan ere OEHn ez da ageri halako formarik eta, bestalde, bi hitz horietan moldatzaileak *tz* grafiadunak darabiltza ugarien. Beraz *nz*-ren ordez *-ntz* ezarri dugu: EH *descanza* V, *descanzu* XXVII, XXXV → *deskantza*, *deskantzu*.

2.2.4.5.

(*ez + z-*, *d-* adizkietan; *-n + z-* adizkietan). *Ez + z-* kasuetan (*z-* hasiera duten adizkiak) zalantza da nagusi moldatzailearen idazkeran: alde batetik *ez tzu*en, *ez tze*n, gutiagotan *etzue*n edo *etue*n, *etze*n, eta bestetik *ez zu*en, *ez ze*n etab. darabiltza, erdietan batzuk eta beste erdietan besteak. Lehen motakoak (*ez tzakala* XLI, XXXV, *etzizetan* XXXV, *etziztelakotz* XXXV, *etziztuztet* XXV etab.) oso ugariak dira (azken 7 ataletan beti, behin izan ezik), bigarren motakoak (*ez zu*en) bezainbat, nahiz ez diren ohikoak euskal idazleetan; itzultzailearen ahoskeraren lekuko dirateke. Guk euskara batukoa jarri dugu beti (*ez zu*en, *ez ze*n), afrikatua ahoskatzeko gomendatuz, hala ahoskatuko baitzuen moldatzaileak, hala ahoskatzea gomendatzen baita euskara batuaren ahoskera zainduan ere. Izatez, ahoskera afrikatuaren lekuko dira honako hauek: *etz tzakinat* L, *etz tzazkien* ‘*ez zekizkien*’ XXXVIII, *etz tzazkien* XLIV (2), *etz tzaezte* ‘*ez zarete*’ XLVIII, *etz tziola sofri* ‘*ez zezakeela sofri*’ XLIX, *etz tzieztela desespera* LII. Horiek ere aldatu ditugu → *ez zakinat*, *etz zazkien*, *etz zakien*, *etz zaezte*, *etz ziola sofri*, *etz zieztela desespera*. Edizioari eginiko oharretan jaso ditugu EHko grafia horiek, interesgarriak direlakoan.

Ordea, beste kasu batzuetan idazkera afrikatua (*tz*) gorde dugu: *-n + z-* kasu batzuetan, moldatzaileak hala idazten dituelako eta ahoskeraren lekuko direlako, nahiz gehienetan *-n + z-* ohi bezala idatzita ageritzen. Beraz *izan ze*n, *egin zu*en, *erran zion* ezarri dugu, baina *izanen tzieztakola*

XXVI, iduritzen tzizaion XXVII, *xukatzen* tzazkola XXVIII, *jin* tzitzakolarik XXXVI, *banditzen* tzizaion XXXVIII, *jin* tzitzazkon XLIII, *izanen* tzitzakola XLVII, *gostatzen* tzizaion XLVIII, *joaiten* tzitzazkola XLVIII, *jin* tzitzakon XLVIII, *mintzatzen* tzitzakola XLIX, *ereman* tzitzue XXXIV. Bokal ondoko adizkien kasuan ere *tz-* horiek bere horretan utzi ditugu, ahoskeraren lekuko direlako: *iduritu* tzizaion (tzizaion?) XXX, *basi tzen* XXXI (EH *basitzen*), *ari* tzitzakon XXXII, *Arrasta* tzitzue XXXIV, *heldu* tzitzazkon XXXVI, *hurbildu* tzizaion XLIV.

Ez + d-, *b-* kasuetan egungo ortografian bezala idazten du moldatzaileak, noizbehinka baizik ez *ezt-* (*eztakigu*) edo *ezd-* (*ezdakit* XLIV), beraz azken hauek aldatu ditugu → *ez dakigu*, *ez dakit*.

2.2.5.

ch → *x* (salbu toki izenetan: *Chamondrin*); *tch* → *tx*. Zalantza erakusten duten zenbait hitzetan bi formak (*x* eta *tx*dunak) errespetatu ditugu, bi formak dokumentaturik daudenez gero: EH *church* VII, VIII, XIX / *churtch* XXIV; *borchaz* V, *borchatuz* XXXII / *bortch-* VI; *belch* VII, IX, XIII, *belcharana* XVII, XXVI / *beltchec* I. Halaber errespetatu dugu *marxoan* I (EHHaren arabera, *marxo* esaten da Behe Nafarroan Arnegi, Uharte-Garazi, Arrueta eta Armen-daritzen; idatzizkoetan *marcho* agertzen da J.M. Hiribarrenen *Laborarien Erran Zabarrak* bilduman: *Otsailac errekeac bethetzen* / *Marchoac idortzen*, 166). Ordea, OEHN dokumentatu gabekoetan forma zurrta hautatu dugu: EH *drechoac* XVIII / *dretcho(-)* XVIII, XXXVI, XLIII → *dretxo*.

Orobatsu, *alxatu*, *ailxatu* eta *altxatu*, hirurak errespetatu ditugu: EH *alcha-* XII, XIV, XV, XVII, XVIII, XXI, XXII, XXIII, XXV, XXX (2), XXXV, XL, XLIV, XLV, *alchatzean* VIII, *alchatuco* VII, *alchatzea* VI, *alchatzen* I, IV, V, VI, XIX, *ailchatzen* X, *ailchatu* XIII, XLVI / *altchat-* VII, XXX, LIII. *Alxat(u, -tzen)*, hau da, EHko *alchat-* grafia, oso ugaria da (gutxiago ageri da *ailxatu*) eta dokumentatua dago OEHN (ez, ordea, *ailxatu*); *alxatu* ugariagoa da *altxatu* baino (EHko *altchat-* grafia).

2.2.6.

gue, *gui* → *ge*, *gi*.

2.2.6.I.

ge-, *-n + ge-*, *-gi-* → *je*, *ji*. Adib.: *gendarmac*, *generosena*, *estrangerian*, *estrangererat*, *erlijioneari*, *imagina* XIII, *imaginazione* XIII, *imaginazionean* XXX → *jendarmak*, *generosena*, *estranjerian*, *estranjerrerat*, *erlijioneari*, *imajina*, *imajinazione*. Salbu *erregimendu* VII, X, XIII eta *inteligencia* VII, IX, XIII (→ *intelligenza*).

2.2.7.

gn → *in* (ñ ahoskatzekoa): *compagnero*, *compagniatu*; *compagniatua* XXXVII; *compagniatzen* XLV; *compagniatuco* LI; *acompañatu* XLII; *compagnia* XIII; *soignu* ‘arta’ XXIX, LII, *sognatua* XXVII, *espagnol* II, *Bretagnako* XXXVIII, *Bretagnara* XII → *konpainero*, *konpainiatu*, *konpainiatua*, *konpainiatzen*, *konpainiatuko*, *akonpainatu* (?), *soinu* ‘arta’, *soinatua* ‘artatua’, *espainol*, *Bretainako*, *Bretainara*. Baina *Avignoneraino* I, *Avignonerat* XIX. Espreski ohartarazi nahi dugu *konpañero*, *konpañatu*, *soñu*, *soñatua*, *español*, *Bretañako*, *Aviñoneraino* etab. ahoskatu behar direla.

Ordea, *gn* → *ñ*: *baigno* ‘bat’ XXXVII, *amagnoa* V → *baño* (hau, euskara batuko grafia); *amañoa*; *campagna* XIII, *campagnarat* XXVII → *kanpañā*, *kanpañārat*.

2.2.7.1.

Talde grafiko kultoetan *gn* ez dugu aldatu: *erresignatu* X, *resignatu* XIV.

2.2.8.

Hari dagokionez, kendu egin dugu harridurazko interjekzioetan (*Oh!* → *O!*). Baita EHko edizioan behin edo behin ageri denean (*Huste dut* XLIII → *Uste dut*). Ordea, hitz hasierako *h-* errespetatu egin dugu moldatzaileak grafia hori erregulararki erabiltzen duen hitzetan, ahoskera aintzat hartuta: *bon(-)* ‘on’ II, III, IV; *boin* ‘oin’; *hainitz*/*hanitz*, *bur* ‘ur’, *bea*. *Zorion* eta *zoribon*, biak errespetatu ditu, zalantza ageri denez gero: *zorionaren* XXII, XXXV, *zorionari* XXXVI / *zoribonarentzat* XVI, *zoribonaren* XXXV. *H* kendu dugu erregularitasunik gabe edo gutxiagotan erabiltzen duenean moldatzaileak: *hari* ‘jardun’ X, XXV; *yohan* XXIII, XXIV, XXV; *banoha* XLII, *banindohan* XXXI, *zohan* XXIII (baina *yoiteco* ‘joateko’ XII, *yoaiterat* XXIII, *yuaiten* XXV, etab.). → *ari*, *artzen*, *joan*, *juan*, *banoa*, *banindohan*, *zoan*, etab. Azken adizkiei dagokionez, orotara askoz ugariagoak dira *-h-* gabeak (*yoanetarikoak* gutxienez II aldiz, *yoanetarikoak* gutxienez 52 aldiz), baina, bestalde, aski erregulararki ageri dira adizki trinkoak *-h-* rekin (*zohan* eta *honetarikoak* 8 aldiz gutxienez, *banoha* 3 aldiz gutxienez, *zohan* eta *honetarikoak* 7 aldiz gutxienez, etab.). Ez dugu atxiki bokalarteko *-h-* antehiatiko hori, silabak elkarrengandik bereiztea beste funtziorik ez duelako, nahiz Iparraldeko grafia hein bat zaharretan tradizioa duen (oharretan ere gutxitan jaso ditugu *zohan* eta halako aldaera *hdunak*, askotxo direlakoan).

2.2.8.1.

Kontsonante ondoko *h* ere bere horretan utzi dugu gehienetan: ohargarri denez, moldatzaileak *ph-*, *-ph-*, *th-*, *-th-*, *kh-*, *-kh-* aski erregulararki darabiltza. Adib.: *akbitu*, *aurkbitu*, *baithan*, *kheinu*, *khexu*, *kbireski*, *muthiko*, *othoizten* /

otboitzen/otboitzten eta honetarikoak, *phasat(-)* (13 aldiz gutxienez, vs *pasat(-)* behin, IV), *phausa*, *pben(t)sa-*, *pbundu*, etab.

Beste kasu batzuetan bi grafiak errespetatu ditugu. Esaterako, zalantza erakusten duten hitzetan: *begitharte(-)* II, X, XIII, XIX, XXII, XXXVII (2), XLV, XLVI, XLVIII, XLIXLII / *begitarte(-)* I, V, VI, XII, XVII, XXV, XXVI (2), XXIX, XLV; *leith(-)* ‘irakur’ XIV, XLI, L / *leit(-)* XXI, XXV; *ikbus-* (forma nagusia) V (3), VI, VII (3), VIII (7), IX (3), X (2), XI (2), XII (2), XIII (3), XV (2), XVI, XX (2), XXII, XXX / *ikus-* V, VI, VII, XV, XVIII; *eraku(t)s* (gehiagotan) VI, VII (2), VIII, XXII, XXXIX / *erakbu(t)s* X (2), XI, XIX); *khondata* (forma nagusia) VIII(2), XII, XVIII(3), XIX / *kondatu* XV, XVI, XIX; *azkar* / *azkbar* (ik. 2.2.1). Bi grafiak errespetatu ditugu distribuzio moduko bat dagoenean ere: *maitbatu* eta *maite* (*maitbatu* ia beti, salbu behin *maitatu* XXVII, baina *maite* (*du/zu*en etab.) IX, XIX, XXI (4), XXII. Adib. *elgar maite dugula eta betbi maitbatu dugula* XLI. Halaber *malbur(-)* VI (2), VII, VIII, XIII, XIV, XVIII, XXXII, XXXV, XL (2), XLVII, baina *malurus* XIX, XX, XXIV, XXXII, XXXIV, XXXVIII, XLII (2), XLVIII, *maluros* VI, XV, XVIII (2), XIX, XXXII (2), L eta *malburus(-)* XXXI, XLI, XLV (2), XLVII, L.

Lb, *nb*, *rb* erregularlari darabiltza moldatzaileak. Hala ere, badira hitz zalantzakor batzuk eta horietan bi formak errespetatu ditugu: *berheala* (forma nagusia) XI, XIII, XIV, XXIX, XXXIII, XXXVII, XLI, XLVIII (2) eta *berehala* IV, VI (2); *senbar(-)* VIII (2), XXXVIII eta *senar(-)* VII, XXXIII, LIII; *bilabethe* (forma nagusia) VI, VIII, X, XII (2), XIX, XXI, XXVII eta *ilhabethe* III, XVIII, XIX; *mainbatu(-)* XIII, XXVII eta *mainatu(-)* XXVIII; *sinbets(-)* VIII, XI, XIX (2), *sinbetzi* XIX eta *sine(t)s(-)* XI, XIX, XX. Ez dugu atxiki *b* hori adibide bakarreko kasu zalantzakoe-tan: *burhego* LIII (OEHN ez da ageri *burhego*) / *burrego* LI → *burrego*.

2.2.9.

y- → *j-* aldatu dugu. *Y-* erregularlari ageri da EHko edizioan. Beraz *yainco*, *yana*, *yoan*, *yosi*, *ya*, *yadanic*, *yarri*, *yauregui*, *yuramentu*, *yuntatzen*, *yandarmec* → *Jainko*, *jana*, *joan*, *josi*, *ja*, *jadanic*, *jarri*, *jauregi*, *juramentu*, *juntatzen*, *jandarme*. *J-* ezarri dugu EHko edizioan noizbehinka zalantza erakusten duten hitzetan ere (*yautsi/jautsi*, *yusticia/justicia*).

Bokal artean: *-y-* → *-i-*, *-Ø-*, *-j-*. Adib.: *heyen* → *heien*; *Peyo* → *Peio*; *zitzayon* → *zitzaion*; *ideya* → *ideia*; *lenguaya*, *lenguaye* → *lenguaia*, *lenguaie*; *anaya* XIII (2) → *anaia*; *bisayari* → *bisaiari* XL; *uste ziyon* XL → *uste zian*; *piyaya*, *piyayan* etab. XXXVII → *piaia* (3 silaba); *saya* → *saia*; *doi doya* → *doi-doia*; *yuyac* XXXVIII,

XLVIII → *jujak*; *yuyatuac* XLV → *jujatuak*; *atheraya* → *atheraia* XLV; *mayatzean* LIII → *maiatzean*); *etsaiyen* XXVIII → *etsaien*. Ohargarri denez, EHko edizio-ko -y- horiek (*piyaya*, *lenguaya*) hiatoa egiteko baliatzen ditu moldatzaileak. J ezarri dugu halaber -ny- kasuetan: *estranyer(-)* XLIII, *lanyer*, *arrayatzen* LIII → *estranyer*, *lanjer*, *arrayatzen*.

2.2.10.

Talde kultoak: *mb*, *mc*, *mf*, *mm*, *tt* → *nb*, *nc*, *nf*, *nm*, *t*. Adib.: *imcapableac* LI, *triumfa* LI, *comfiatu* LII, *communicatu* XXII, *commobitua* LII, *lettra* XXIX → *inkapableak*, *triumfa*, *konfiatu*, *komunikatu*, *konmobitua* (hitz hau ez da ageri OEHn), *lettra*. Euskara batuko ortografiara ekarri ditugu agerpen bakarreko forma zalantzarik gabekoak ere: *desbhora* XXVIII, *desboratzen* XXXIII baina *desboreak* I → *desbhora*, *desboratzen* (nahiz *desbhoréak* eta halako batzuk ageri diren Lizarraga Elkanokoaren eta Ubillosen testuetan, OEHren arabera).

2.2.11.

-r- → -rr-. Adib.: *aratsa* XLII, *bararazi* XXXVII, *zeratua*, *ceratzera* XXI, XXII baina *zerratua* XXIII → *arratsa*, *barrarazi*, *zerratua*.

2.2.12.

-il- → -ill- (maileguetan). Adib. : *gilotina* LII → *gillotina* eta honetarikoak (*gillotina* XLI, XLVIII, LIII, *gillotin* XLV, *gillotinatu* XXXI).

2.2.13.

Azentua, hitz gutxi batzuetan ageri dena, kendu egin dugu, testuari egin oharretan abisatuz: *séme*, *présentatzen* XLIX.

2.2.14.

Loturak eta bereizkuntzak ere euskara batuko ortografiaren arabera ezarri ditugu, hitzen forma errespetatuz: *Behar bada*, *aldi chartua*, *aldi chartzen* LII, *edo çoin*, *aita amac*, *sor lekbu(-)* LIII, *eror araz* XLIII, *ichil arazi* L, *eguin abala* XLIII, *egui (sic) abalac* XII, *eguin abalac* XIV, XV, *ez deus* XVIII, XXXII, *ez deuskeria* XXI, *salva conducta*, *salva-conducta* LI, *salva conduct* XLIV, *bibotz minic* XXXV, *bibotz mina* XLIV, *Yar arazi* XLIX, *ichil arazi* L; *leben bicico* XL, *sor lekbuco* LIII, *sinets gogorrac* XI → *Beharbada*, *aldixartua*, *aldixartzen*, *edozoin*, *aita-amak*, *sorlekbu(-)*, *eroraraz*, *ixilarazi*, *eginabala*, *eginabalak*, *ezdeus*, *ezdeuskeria*, *salbakondukta*, *salbakondukt*, *bibotzminic*, *bibotzmina*, *jarrarazi*, *ixilarazi*, *lebenbiziko*, *sorlekbuco*, *sinetsgogorrac*. Baina *minbarraraz*, *balinbazuten*, *atxikigogo* → *min barraraz*, *balin bazuten*, *atxiki gogo*.

2.3.

Aldaketa ortotipografiko ugari egin ditugu, beti egungo erabileraren araberu ulergarritasuna eta koherentzia bilatuz:

2.3.1.

Aldatu ditugu letra larri eta xeheak, puntuak, komak, bi puntuak, puntu eta komak, elkarrizketa adierazten duten gidoiak, harridura- eta galdera-markak, paragrafoak, etab.

2.3.2.

Moldatzailearen edo EHko edizioaren estilo ezaugarria da —jatorrizko eleberrian (1879) ez bezala— perpaus juntatuak ezartzeko joera, komen bidez. Gu saiatu gara estilo-ezaugarri hori errespetatzen, adib. esaldi laburretan, salbu gure ustez perpaus juntatuek ulergarritasuna oztokatzen dutenean (orduan puntua ezarri baitugu, hala ulergarriagoa delakoan, hori izanik bestalde jatorrizko eleberriaren estiloa).

Memento berean gizon adinetaco lodi bat yautsi zen salara, hura zen yaun Reed, yaureguico nausia, gizon beguitarte boneco bat zen, emaztearen adin berecoa eta eztia → Memento berean gizon adinetako lodi bat jautsi zen salara. Hura zen jaun Reed, jauregiko nausia. Gizon begitarte boneko bat zen, emaztearen adin berekoa eta eztia XXVI.

2.3.3.

EHko edizioan maizkara ageri den beste ezaugarri bat da jatorrizko nobelaren (1879) puntuen ordezkari puntu eta komak edo bi puntuak ezartzea; horretan gaztelaniazko itzulpenari jarraitzen dio. Guk, ordea, liburu gisa argitaratzean, frantsesezko originaleko puntuazioa nahiago izan dugu kasu askotan.

2.3.4.

Gure edizioan, testua hobeki ulertzeko asmoz, koma ugari ezarri ditugu, askotan EHko puntu eta komaren edo puntuaren ordezkari; horretan frantsesezko edo gaztelaniazko bertsioetan bezalatsu jokatu dugu. Koma jarri dugu EHn puntuazio markarik ez egon eta jartzea komenigarritzat jo dugunean ere. Beste askotan, EHn ez da ez komarik ez punturik ez inolako markarik, edo puntuak nahiz komak desegoki ezarriak dira, testua ulertzea oso zaila izanez. Kasu horietan jatorrizko eleberria (1879) eta gaztelaniazko itzulpena (1886) aintzat hartuta, puntuazioa zuzendu edo egokitu dugu.

Konparazio baterako, ondoko adibidean koma ezarri dugu, EHko testuko puntu eta komaren ordeztan (XXIII. atalean atertugabeak dira):

Eta zombeit aldiz ikbaratzen balin bazen phensatuz bizi eder eta gozo hura menazatua zela; consolatzan zen phensatuz maite zuen harekin hiltzeko alegria izanen zuela → Eta zombeit aldiz ikbaratzen balin bazen phensatuz bizi eder eta gozo hura menazatua zela, konsolatzen zen phensatuz maite zuen harekin hiltzeko alegria izanen zuela XXIII.

Ondoko adibidean, ordea, puntuak jarri ditugu EHko komen ordeztan (edizio horretan perpaus juntatuak -komen bidez adieraziak- ugariak dira).

Eusebia fite beztitu zen eta bi adixkideak yautsi ziren salara, Eusebiac Salvador ikbusi zueneco yauzi batez yuan zen haren besoetara, Salvadorrec hotztasunekin errecebitu zuen ziola: (...) → Eusebia fite beztitu zen eta bi adixkideak jautsi ziren salara. Eusebiak Salbadorek ikbusi zueneco jauzi batez yuan zen haren besoetara. Salbadorek hotztasunekin errezebitu zuen ziola: (...) XLII.

Honako honetan, EHko testuan perpaus juntatuak komarik batere gabe ageri dira; ez dakigu moldatzaileak nahita egin ote zuen, Dominikaren ihesa, herostura eta hatsantuaren erritmoa adierazi nahirik. Guk koma bidez adierazi dugu, puntu bidez baino nahiagoz, erritmoa berdín egoki adierazten dutelakoan, bai eta testua irakurgarriagoa bihurtzeko.

Bulbarretaraino hura bazuen indarric ez zombeit apbur obligatua zen baratcera hatsaren hartzeko indarrac yoiten ari zitzazcon huretic athera zenean yaureguico bidechcaren aldean halaco irriskuan phasatu zuen burari behatzeko denboraric galdu gabe aitzina duba bideari goiti nigar eguingarri den estatu batean → Bulbarretaraino hura bazuen, indarric ez, zombeit apur obligatua zen baratcera hatsaren hartzeko, indarrak joiten ari zitzazcon... Huretic atera zenean jauregiko bidexkaren aldean, halaco irriskuan pasatu zuen burari behatzeko denboraric galdu gabe aitzina dua bideari goiti, nigar eguingarri den estatu batean IV.

2.3.5.

Elkarrizketak askotan jarraian emanak dira EHko testuan, hurrengo lerroa pasatu gabe, edo elkarrizketaren marka (marra edo gidoi luzea) gabe, tartek aurreztu beharrez. Beste askotan, aipatu edizioan, solaskide baten esana zatitu eta zenbait paragrafotan emana da (XXXI). Baita, solaskide beraren jardunaren zati bat beste solaskide batena balitz bezala, elkarrizketa-marka den gidoi luze eta guzti (XVI, XVII, XXXV, XLII, XLIII, XLV, XLVII). Kasu hauetan EHko testua zuzendu dugu, jatorrizko eleberrian (1879) nahiz gaztelaniazkoan (1886) oinarrizuz; elkarrizketa markak eta ohiko tartekak (berr)ezarri edo egokitu ditugu, eta solaskide beraren jarduna osorik eman dugu, paragrafoetan zatitu gabe. Beste batzuetan, elkarrizketa

ageri da EHko testuan, gaztelaniazko itzulpenean bezala (hari jarraitzen baitio), baina ez frantsesezkoan; orduan EHko edizioari egin diogu kasu.

2.3.6.

Galdera eta harridura markak aldatu ditugu batzuetan, bata bestearen ordeztuz jarritz (XLIX). Oro har, egungo erabilerara egokitu nahi izan ditugu. Beraz harridurazko marka kendu dugu batzuetan, adib. izenburuan: *Dolores! emaste bat bertubutes bethea* → *Dolores, emaste bat bertubutez bethea*. Edo heiagora perpausaren bukaeran ezarri dugu marka hori, egungo erabilerari jarraituz: *Ai, malurusa!* XLVIII.

2.3.7.

Behin edo behin, eten puntuak jarri ditugu (III, XXXVI).

2.3.8.

Liburu gisa argitaratzean, paragrafoak zenbaitetan egokitu edo aldatu ditugu, gaztelaniazko itzulpenaren eredua (paragrafo laburrak) nahiz frantsesezkoarena (paragrafo luzeak) aintzat hartuz. Paragrafoen banaketan gaztelaniazkoaren eredua segitzen du EHko edizioak, eta hala jokatu gara gu ere. Paragrafoak ez ditugu luzeegitu, nolana ere.

2.4.

Hitzen forman egindako aldaketak.

2.4.1.

Oro har, hitzen forma errespetatu dugu, baita EHko testuan batasunik ez dagoenean ere, maiztasun apur bateko hitzetan behintzat: *beizik* eta *baizik*, *juje* eta *juja*; *dezisione* XVI, XXII eta *dezisione* XXI; *posisione* eta *posizione* (ik. 2.2.4.4.1.); *gillotina* XLI, XLVIII, LIII eta *gillotin* XLV; *pensionist* XXII, XXIV (EH *pensionizt*) eta *pensionest* XXVII; *desespera(-)* (forma nagusia) eta *desespera(-)*; *gaxto* eta *gaixtagin(-)* XXV; *hanitz* I, III, XI eta *hainitz* I; *momento* XXI, XXII, XXV, XXVIII, XLVI, XLVII, XLVIII, L, LI, LII eta *memento* XXI, XXV, XLVII (adib. *memento bartan* XXV eta *momento bartan* XXV); *pharte* VI eta *farte* VI; *malurus* eta *maluros*; *lenguaia* eta *lenguaie*. Errespetatu dugu *bokolost* forma bakarra (XXI, XLIII), *holokost* formarik ez baita ageri (OEH *holokausto*, *holokaust(a)*, *holokost*). Errespetatu ditugu halaber adizkien forma desberdinak, dokumentatuta daudenean: *zizazkon* II, *zizakola* XIII baina *zitazkon*, *tzitazkon* etab.).

Ordea, adibide bakarreko kasu zalantzagarrietan ez gara arriskatu aldaera horiek onartzera, badaezpada, eta testu-oharrean apuntatu ditugu: EH *errefustatu* XX (vs *errefusatu* XXI, XXIII etab.), *escalaretan* XXIII (vs *escalerer* XXVI), *insencible* XVIII, *leitzone* XI, *poderesenekin* XXIX, *seperatu* XXI, *alimatu* VIII → *errefusatu*, *eskaleretan*, *insensible*, *leitzionen*, *poderosenekin*, *separatu*, *alimantu*.

2.4.2.

Toki eta pertsona-izenak, EHn zuzen emanak ez direlarik, zuzendu ditugu: *Chamodrin* → *Chamondrin*; *Baneaire*, *Bancaire* → *Beucaire*; *Mirandal* → *Mirandol*.

2.5.

Morfologia arloko aldaketak.

2.5.1.

Huts franko zuzendu dugu: *-k* ergatiboari edo nominatiboari dagozkionak, komunztadura eta aditz kohesioari nahiz orohar ulergarritasunari buruzkoak, oharkabeen edo zabarkeriaz ahantzitako hitzak nahiz inprimategiko hutsak. Neutralizazio kasu batzuetan ere egin ditugu zuzenketak.

2.5.1.1.

-k ergatiboa ezarri dugu, kako zuzen edo kortxete artean, hainbat kasutan, EHko ediziokoa zuzenduz: *icusirik bere adichquidek eta errege Luis XV ere abandonatzen zuela* → (...) *errege Luis XV[.ak] ere* (...) VI; *Eta aita boza canbiatuz erraiten dio* → *Eta aita[k], boza kanbiatuz, erraiten dio*: (...) XI; *presentatu Marie Antonietari eta Luis XVI* → *Luis XVI[.ari]* XII; *ez bain kbireski nola marquesa nigar eguin baitzuen ordu arte* → (...) *nola markesa[k] (...) XV*; *Dolores hainbertze ordu arte sofritu zuena, oraino sofritzen zuena pietate izan zuen* (...) → *Dolores, hainbertze ordu arte sofritu zuena[k], oraino sofritzen zuena[k] (...) XX*; *Eusebia, urosa inguratzen zuen Salvador bere behatze ezteiz* → *Eusebia[k], urosa, (...) XXVI*; *–Eta zer eguiten daut eni andere Mirandol?* → *–Eta zer egiten daut eni andere Mirandol[ek]? (?) XLVII*; *Piarres zen zoina entzunik Doloresen setensia* (...) → *Piarres zen, zoina[k] entzunik Doloresen setentzia desidatu baitzuen harekin hiltzea XLVIII*; *–Ay! malurusa, murmuratu zuen Dolores nigarretan* → (...) *Dolores[ek] (...) XLVIII*; *Hi, adichkide maitea, ene abizpa Eusebia, (...) eta hic Salvador eguin buen libroki complitzeco borondatearekin* → *Hi[k], adixkide maitea, (...) L*.

-k ergatiboaren marka kendu dugu beste batzuetan. Adib.: *Salvadorrec uste izan suena bere declaracionearekin salbatzea hain maite zuen hura ikbaretan yarren* → *Salbador, uste (...) XXXIV*; *Eta benedicatzen dudanean presondegui bun-*

tarat hire alderat igorri nauen Yaincoac, (...) → *Eta benedikatzen dudanean presondegi buntarat hire alderat igorri nauen Jainkoa, (...) XL.*

2.5.1.2.

Komunztadurari (bereziki datibo komunztadurari) eta aditz kohesioari dagozkion hutsak zuzendu ditugu (batzuetan, kako zuzenen bidez osatuz). Adib.: *Haurra atzartzen da presentatzen ditu amaren bulbarri bere ezpain bitsac (...) eta edan ditu çombeit chorta esne (...) → Haurra atzartzen da, presentatzen ditu (...) eta edaten ditu (...) III; (...) Dominicac (...) galdeguin bere buruari nola escapatu zen irriscu hartaric. Gau guzia phasatu zuen pbensaqueta eta azkenean hartu zuen erresoluzioea ihes yoiteco → Dominikak (...) galdegin bere buruari nola (...) eskapatuko zen (...) III; nor atrebituco zen beer yanaren errefusatzera erraiten çuelaric: Nabi dut irabaci? → nor atrebituko zen hari janaren errefusatzera erraiten zuelarik: “Nabi dut irabazi”? IV; haur hainbertce salbatzeco gosta zacon hura ez du hilzera nahi utzi → haur hainbertze salbatzea (...) IV; (Pedrok) Emanen zuen bere odolaren erdia Dominicari irri baten éguiten icusteco → (...) Dominika hari irri baten egiten ikusteko V; Gauza horiec guziac indarrac ekbendu ziozcan, (...) → Gauza horiek guziek indarrac ekbendu zazkoten VI; Hainbertze penec chebatu zuen marquesaren osagarria → Hainbertze penak xebatu zuen markesaren osagarria VII; Han harrapatu zuen markesak Piarresi → (...) Piarres VIII; Gaineratico sebiac berdin errespetu zuten Salvador nola Dolores. → (...) errespetatzen zuten (...) IX; ile hori berac zituen, begui barneac belch berac, carter eta botz ezti bera. → (...) begi barne belx berac (...) IX; Haren begui belch ederretan ikbusten zuen temperamenduaren sua, (...) → (...) ikbusten zen (...) XIII; edertasun perfect inguratzen tuzten guziac yelos diren hetaric bat zen → (...) inguratzen duten (...) (?) XIII; nun garbitasuna, sacrificioa, bere buruari eguiten zen casu gutia → (Doloresek) (...) egiten z[u]en kasu gutia (...) XIII; Piyaya guzian Piarresec eguin abalac eguin zituen beren nausiaren consolatzeco → (...) bere nausiaren konsolatzeko XV; (...). bere herrien eta izaite maithatuen alegriari nabasten zitzacon Salvadorren bihotzean dudazco sendimendu batzu, zoinec kbiresten baitzituhen haren urostatuna → (...) nabasten zitza[z]kon Salbadorri bihotzean dudazko sendimendu batzu, zoinec kbiresten baitzuten haren urostatuna XV (euskarazko moldapenaren koherentzia faltaren ondorioz, hiru hitz –zitzacon, Salvadorren, baitzituhen– zuzendu ditugu); ez baitzen haren bihotzac deus alchatzen → ez baitz[u]en haren bihotzak deus alxatzen ‘erakusten’ XVII; (Salbador) desidatu zen Eusebiari hel eguin bebar ziola, barentzat errekeri zezan Dolores (...) → desidatu zuen Eusebiari hel egin bebar ziola (...) XIX; Nabi nian hartan harrapatu hireari berdintzen abal zuen amodio bat → (...) hireari berdintzen abal zen amodio bat XXI; Piarres fidel bere costumari, iduritu izan zitzayon (...) → Piarres[i], fidel bere kostumari (...) XXIV; hitzemana ziolacotz bere khusiari hari eta haren ontasuner*

casu emanen ziola (...) → kasu emanen ziela XXIII; Markesak ezin erresistitu zuen oiboitz hori → (...) hor[r]i (...) XXIV; Doloresec indarric ez zuen lengua ya hori ibardesteco → (...) hor[r]i ibardesteko XXXII; Bizkitartean Dolores entzun izan nabi banindunan, ene esposa nabi bahins izan (...) → Bizkitartean, Dolores, entzun nabi izan banindunan, (...) XXXV; complituco ditut curayerekin eguin bituen promesac → konplituko dituk (...) XL; Huste dut ez duen bere bibotzean bertze amodiorik? → Uste duzu (...) XLIII; nehorc ez tzuen izen hori ibardetsi → (...) hor[r]i ibardetsi (...) XLV; eracuts daan hic emazte azkarra nola irestee [azken letra hau ez da ongi ikusten] abal baitira gure biziaren alegria eta tormenta izan den nabi bizia. → (...) nola iresten abal baita (...) L.

Zuzendutakoen artean ez dira gutxi perpau osagarrien molde batzuei dagozkienak: obligaritzen zuen Salvador mintzatzeaz. *Corteaz, Parisez eta zazkienen erranaraztera Versailles; → Doloresek obligaritzen zuen Salbador mintzatzeraz korteaz, Parisez eta zazkienen erranaraztera Versailles, (...) XVIII; ez zintuen phensatuco zuen destinuen estecatzen elgarrekin → estekatzea elgarrekin (...) XXII; Preparatu zen erresignatzeaz → (...) erresignatzeraz XXIII.*

Adizkiak ez ditugu zuzendu, ordea, pluraleko hizki gabe ageri direnean, ahozko usadioa erakusten dutelako: (Dolores eta Salbadorrek) *entzun zutenean norbeiten urbatsak kanpoko aldean XXXIII.*

2.5.1.3.

Testua ulertzeko beharrezkoak diren aldaketak egin ditugu. Hortaz, batzuetan, subjektua ipini behar izan dugu kako zuzen edo kortxeteen artean. Adib.: *→ [Dolores] oraino ez zen sinbetsia XVIII; Piarresec haren aldean phasatzen zituen ichtant laburetan ikbusten zuen bethi negociorekin calculan ari zela → Piarresek haren aldean phasatzen zituen ixtant laburretan [Doloresek] ikbusten zuen bethi bere negociorekin kalkulan ari zela XXX; Salvadorrec protestazionezco oihu bat eguin zuen, bainan ez entzunarena eguin zuen → (...) bainan [Doloresek] ez entzunarena (...) XLI; Bere gamberarat acompagnatu zuen eta han nigarrez hasi zen zioela: (...) → negarrez hasi zen [Eusebia] zioela: (...) XLII; Eguiten zuen eginabala huni phensamendu guzien ekbentzeco. Bainan ez zuen seguitzerat utzi, (...) → Bainan [Eusebiak] ez zuen (...) XLIII; ecen, bere dolorea Eusebiari gordetzeco, Doloresen nabieren arabera, heietaric urruntzen zen → ezen [Salbador], bere dolorea (...) XLIV; → Comprenditu zuen Doloresi bizia gostatzen tzitzayon sacrificioa → [Hunek] Konprenditu zuen (...) XLVIII; Beldur izan balitz bezala mintza zadin bebatze serios bat eguin zion zoinac erran nabi baitzuen (...) → (...) mintza zadin, [Doloresek] bebatze serios (...) XLVIII; (Herritar harec) curaiestatu zuen momento ikharagarri bartan berriz Dolores. Lebenic iragan zen gillotinaren azpira → (...) [Hau] lebenic iragan zen (...) LIII.*

Beste batzuetan, aditza jarri behar izan dugu: *bau* (Salbador) *baratzean zen eta etheco alderat heldu zelarik Piarres malen preparatzen ari zela eta manatzen zuela sehier (...)* → (...) *heldu zelarik [ikbusi zuen] Piarres malen preparatzen ari zela X; Yaincoari consecratu hintzala eguin dinat* → *Jainkoari konsekratu hintzala [ustez] egin dinat XL. Inoiz, aditz laguntzailea: Dolores egon bortz minuta* → *Dolores egon [zen] bortz minuta XXII. Gaztelaniazko itzulpenaren hutsen ondorioz euskal moldatzaileak eginiko hutsen bat edo beste ere zuzendu dugu, jatorrizko frantses testuari zor zaion fideltasunagatik: Oren zombeitec beizic etzituen separatzen yaureguitic* → *Oren zombeitek beizik ez zuten (...)* XXIV.

Bestalde, ez dira gutxi EHko edizioak oharkabeen edo zabarkeriaz ahantzitako hitzak, hizkiak edo adizkiak. Guk oharretan jaso eta ustez zuzendu ditugu (kako zuzenen artean ipini ditugu falta direnak): *Goizeco sei orenac yoitean 1770co marchoan, (...)* → *Goizeko sei orenak joitean, 1770ko marxoko egun batez I; Lanhoec iduri çuten çoimbait aldiz hunqitu nabi zutela itsasoan* → *hunkitu nabi zutela lurra I; phausatzen du bere bortha hartan (...)* → *phausatzen du bere [haurra] bortha hartan IV; Zango hain pollit denac hantuac ziren eta sarras-kituac* → *Zango hain pollit [hek] denak (...)* V; *Bainan guc erreparatzen abal ditugu* → *Bainan guk [malburrak] erreparatzen abal ditugu VI; Haren inteligencia idekitzen zen (...)* *marquesac eta haren esposac emaiten ziozten leitziontarat* → (...) (...) *ziozkaten leitziontarat IX; Berriz besarcatu zuten, mintzo ziren eta zanden (sic) oro* → (...) *eta [nigarrez] zauden oro XII; ez balin naite yoan, esperantza izanen ziuztet oro Parisen* → *ez balin [ba]naite joan, (...)* XIII; *guerthatu zaucun erreparatuzco malur tristea* → (...) *[ezin] erreparatuzko (...)* XIV; (...) *Ez balin bazuen bere eta Salvadorren amodio handiac consultatzen bai* → *Ez balin bazuen bere eta Salvadorren amodio handiak [beizik] konsultatzen, bai XVIII; Otoitztu nau zuri harec desiratzen duen errapostu bat* → (...) *zuri [galdegitea] harek (...)* XIX; *Ez duc ikbusten (eta 5 lerro beherago) cic ezcontza hau gure aitaren nabiaren kontracoa litakela?* → *Ez duk ikbusten [e]zik ezkontza hau (...)* XXI; *Eta nehoc erraiten abal zion errepostua baten beha (...)* → *Eta nehoc erraiten abal ez zion errepostu baten beha (...)* XXIV; *Eusebia eta Salvador chutitu ziren musu bethe zuten markesaren beguitartea* → (...) *musu[z] bethe zuten (...)* XXV; *bortha hesten duten beza-soinu bat yin zen* → (...) *beza[lako] soinu bat (...)* XXX; *numbeit behar ditugu aloytu eta oro betheac dira* → *nunbeit behar ditugu aloitu eta [lekbua]k oro betheak dira XXXVII; Salvadorrec falta zuen erresinazionea zen* → (...) *falta zuen[a] (...)* XLIV; *eta huna egun hoimbertze irriscu eta urbatsen ondotic ardietsi dudan hemendic atheraraztera, eta beren zorionaren segurtatzea, yiten den berriz gure planen barreatzera* → (...) *ardietsi dudan[ean] hemendik atheraraztea, (...)* XLIV; *bat Salvadorrec errabiaz eguina, eta bertzea izialduraz Eusebiac eguin* → (...) *Eusebiak egin[a] XLVIII.*

Beste aldaketa batzuk ere egin ditugu. Batetik, adizkien forman: *Arbolac beren adarrac aphaltzen zuiztela bidearen gainera* → (...) *aphaltzen ziuztela* XV; *aita zuizten zaldien urhatsac* → *aitu ziuzten* (...) XV; *Arrastatu zuizten* → *Arrastatu ziuzten* XXXIV. Bestetik, hitz zenbaitenean: *Ceren beldur zen markesaren diskutatzea* → *Zeren beldur zen markesaren disgustatzea* XVII; *ez eta ere erremeziazteco, baren baithan iratzartu ziren esperantzer* → *ez eta ere errenonzatzeko* (...) XVI; *errefustatu nion errapostua* → *errefusatu nion* (...) XX; *besoac ekeki zazcon* → *besoak ideki zazcon* LII.

2.5.1.4.

Neutralizazio kasu batzuetan zuzenketak egin ditugu: alegia, *-tzera* ageri denean *-tzearen* ordez, ustez itzultzaileak bata bestearekin nahasi dituen. Hots, uste dugu kasu hauetan ez dela *-r-* bokalartean desagertzearen ondoriozko fenomeno fonetikoa, eta, hortaz, zuzendu egin dugu. Adib.: *huna egun boimbertze irriscu eta urhatsen ondotic ardietsi dudan bemendic atheraraztera, eta beren zorionaren segurtatzea, yiten den berriz gure planen barreatzera* (...) → *huna egun, (...) ardietsi dudanean bemendik atheraraztea, eta* (...) XLIV. Ordea, ez dugu zuzendu *-tzera* kanonikoaren ordez *-tzea* ageri denean (bokalarteko *-r-*ren desagertzearen ondorioz). Adib.: *ez zen atrebitu aitari erraitea* XI; *obligaraziz Eusebiari kasu emaita, hik manatu naunalakotz* XXXII.

2.5.2.

Hitzordena beti errespetatu dugu, nahiz askotan bihurri samarra edo traketza eta batzuetan oso ortodoxoa ez zaigun iruditu. Salbu, behin, oharkabean lekuz kanpo jarritako *eta* juntagailua: *Doloresec behatu zion accento segur batekin eta erran zion:* → *Doloresek behatu zion eta akzento segur batekin erran zion* XL. Hala-ber errespetatu ditugu joskerak, batzuk ohiz kanpokoak edo dudakoak izan arren (*jin zen Piarres, heien libraraztea esperantzan* XLIV). Baita tropo gramatikal, egitura figura eta anakoluto batzuk, nahiz sintaxiaren zuzentasuna, koherentzia edo kohesioa dudan jar lezaketen, hain zuzen balio erretorikoa izan dezaketelakoan.

2.6.

Inprimategiko huts ugariak zuzendu ditugu. Adib., letra nahasketak (*t* eta *c*, *c* eta *z*, *u* eta *n*, *n* eta *c* adizkietan; *r* eta *l*, *r* eta *rr* hitz arruntetan, etab.): *Ez zitakeen consola Salvadorren orhoitzapenac beizic* → *Salbadorren orhoitzapenaz beizic* XII; *lutstasuna* → *bitstasuna* XIX; *pena arindu zitzayon* (...) *esperantzac* → (...) *esperantzaz* XXIII; *abar* → *abal* XXVI; *Ez ditinac hire* (...) → *Ez ditinat hire* (...) XLV; *bori* → *borri* XLV; *abantzico ziuztela* → *abantziko zintuztela* XLVI; *errecebitu duc* → *errezebitu dut* XLVII; *tribunalerac*

yuan → *tribunalerat jua* XLVII; *deac* → *deat* L; *Ni duc enekin tunbarat ereman (...)* → *Nabi dut enekin (...)* LI; *Otboizten zaituztec, deithuco zaituztec* → *Otboizten zaituztet, deithuko zaituztet* LI; *Konplitzen ducan* → *konplitzen dunan* LI.

Beste huts asko ere zuzendu ditugu, inprimategi nahiz moldatzailearen zaborkeriazkoak: *luzatu badut eguiaren ezagutarazteco* → (...) *ezagutaraztea* XX. Halaber lerroz nahastearen ondoriozkoak: *Nigar eguin zuen harentzat, nigar eguiten den bezala, berioac alchatzen dauzun abide eta adichkide banitz maite ditugunac bezala* → (...) *adixkide banitz maite ditugunentzat bezala* XXIII; *Erregina hetsia da oraino temploco dorrean* → (...) *Templeko dorrean* XXVIII. Lerroalde zenbaitetan itzulipurdikatutako hitz eta zati osoak zuzendu ditugu (adib. XXI. atalean). Edizioari eginiko oharretan jarri ditugu EHren edizioko hutsak, interesgarriak iruditu zaizkigunean.

2.7.

Edizio honen aparatu kritikoa osatzen duten 854 oharretan aurre egin diegu EHren testuko arazo ugari eta katramilatsuei. Oharrotan ageri dira: lehenik, testua finkatzeko beharrezkoak direnak, hau da, EHko testuko formak, horiek aldatu ditugunean edo hutsen bat kausitu uste izan dugunean, baita gure aukeraren aldeko frogak eta iruzkin kritikoak. Bigarrenik, gaztelaniazko (1886) eta frantsesezko (1879) pasarteak, euskarazkoari dagozkienak; batzuetan euskarazko testua finkatzeko balio dute, beste batzuetan hura ulertzeko, eta bestetan testuen arteko antzekotasunez edo diferentziaz ohartzeko. Esandakoez gainera, zenbaitetan testua hobeki ulertzeko azalpenak ere ematen ditugu. Hitz edo adizkien esanahia, testua ulertzeko komenigarritzat jo dugunean baizik ez dugu oharretan jarri (hiztegi bat osatu dugu: ik. HIZTEGIA). Oharretan ez ditugu bildu kopiatze- eta inprimatze-huts nabarmenak, bai zalantzaren bat sortarazten dutenak; ezta sarrera honetan azalduak ditugun ortografia eta bes-telako aldaketa asko.

Hona guk erabili ditugun laburdurak eta ikur kritikoak, bereziki oharretan:

AM: *Amodioaren martirra*.

EGLU: *Euskal Gramatika—Lehen Urratsak*, I-VII. Euskaltzaindia, 1991-2011.

EH: *Le Pays Basque-Eskual-herria*-ren edizioa. 1900-1901.

EHHA: *Euskal Herri Hizkeren Atlas*a. Lexikoa I, II, III. Euskaltzaindia, 2008-2010.

eusk.: euskaraz.

fr.: frantsesez.

gazt.: gaztelaniaz.

OEH: *Diccionario General Vasco—Orotariko Euskal Hiztegia*. L. Mitxelena—I. Sarasola (1987-2005). Bertsio elektronikoa: 2. argit., 2011.

1879:orrialdea: Frantsesezko testu-aipamenak jatorrizko eleberritik hartuak dira (*Le Roman d'une jeune fille (1770-1794)*, 1869; *Dolorès*, 1879. Azken edizio hau erabili dugu, 1886koaren testu berbera daukana, salbu izenburua). Edizioaren dataren (1879) ondoren orrialdea jarri ohi dugu.

1886:orrialdea: Gaztelaniazko itzulpena (Ernesto Daudet. *Dolores*. Versión castellana de J. D. 1869. Data horren ondorengo zenbakia orrialderena da.

[...]: kako zuzen edo kortxete artean ipintzen ditugu EHko edizioan falta direla susmatu eta gure edizioan gehitu ditugun hitzak eta hizkiak, edizio hartan ahantzi direlakoan, edo bestela hizkuntzaren zuzentasunak manatuta ([k] ergatiboa, *hor[r]i, z[u]en*).

/: zehar marraren ezkerreko nahiz eskubiko hitzak edo aldaerak agertzen direla adierazten du. Baita ere, frantses eta gaztelaniazko testuak transkribatzean, hurrengo paragrafoa jarraian ematen dela.

→: aldaketaren norabidea adierazten du.

BIBLIOGRAFIA

- Altzibar, X. 2009. “*Amodioaren martirra (1900-1901), folletoi nobela ezezaguna*”. *Beñat Oibartzabali Gorazarre-Festschrift for Bernard Oyharçabal, R. Etxepare-R. Gómez -J. A. Lakarra (arg./eds.), Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”-International Journal of Basque Linguistics and Philology XLIII:I-2 (2009), 51-66.*
- Arbelbide, X. “William Levi d’Abartiague eta *Le Pays Basque-Eskual Herria*”. *Euskera* LIII, 2008, 2. 449-464 or.
- Cobos Castro, E. 1994. “Narrativa y traducción: la novela francesa traducida al español en la segunda mitad del S. XIX”, *Estudios de investigación franco-española*, 10 (1994), 185-216).
- Daranatz, J.B. 1924. *L’Église de Bayonne*. Librairie. Lasserre. Pyrénées Atlantiques. Archives Départementales. <http://earchives.cg64.fr>.
- Queffélec, L. 1989. *Le roman-feuilleton français au XIX^e siècle*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Yrizar, P. 1999a. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental (estudio dialectológico)*. UPV-EHU–Euskaltzaindia.
- 1999b-2002. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (estudio dialectológico)*. *Subdialecto cizo-mixano*. UPV-EHU–Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Elkar.

Eskerrak zor dizkiet Piarres Andiazabal, Adolfo Arejita, Gabriel Fraile, Emile Larre, Beñat Oibartzabal, Andres Urrutia eta bereziki Jon Casenaveri, emandako informazio, abolku edo bultzada nabiz eginiko oharrengatik.

XABIER ALTZIBAR ARETXABAETA
josejavier.alcibar@ehu.es

ERNEST DAUDET

Itzultzaile-moldatzailea: Elizetxe

AMODIOAREN MARTIRRA
DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA

AURKIBIDEA

I.	PHARTEA. BUHAMUAK. (I-IV)	37
II.	PHARTEA. CHAMONDRINEKO JAUREGIA. (V-VIII)	47
III.	PHARTEA. DOLORESEN HAURTASUNA. (IX-XIV)	61
IV.	PHARTEA. AMODIOEN KAPITULUA. (XIV-XXIII)	81
V.	PHARTEA. HISTORIA NAHASTEN DA BERRIARI. (XXIII-XXVI)	109
VI.	PHARTEA. DESERTORRAK. (XXVI-XXIX)	119
VII.	PHARTEA. ERRIDAU BAT HIIHITZEN DA. (XXIX-XXXIV)	129
VIII.	PHARTEA. PRESONDEGIA. (XXXV-XXXVI)	143
IX.	PHARTEA. EUSEBIA DE MIRANDOL. (XXXVI-XL)	147
X.	PHARTEA. AMODIOAREN GERLA. (XL-XLIV)	155
XI.	PHARTEA. ARGIA. (XLIV-XLVIII)	167
XII.	PHARTEA. ADIO. (XLVIII-LIII)	185

La contrecourants. — C'est une maladie invincible, incurable sur toutes les frontières. Il est des gens qui ne douteraient pas si leur journée s'était passée sans une fraude, aussi légère fut-elle.

Parfois, lorsque la mesure est comble, l'administration se fâche et frappe à tort et à travers, mais parfois des innocents.

Depuis quelques temps, la douane espagnole surveillait les voyageurs qui franchissaient la frontière par le bac de Santiago, situé à cent mètres en amont du pont international d'Espagne.

Sa surveillance n'a pas été inutile, puisque des choses importantes viennent d'être faites par les douaniers.

Mais pareille chose n'advient pas si le poste de Santiago recevait la déclaration des voyageurs transportant eux-mêmes. Il y a d'ailleurs, une loi et des règlements qui instituent une douane à Santiago. L'administration espagnole est dans son port en ne s'y conformant pas.

STE-ENGRACE

Riches gisements. — A la jubilation de ses habitants, la commune de Ste-Engrace possède actuellement : 1° deux superbes plâtrières contenant en quantité incommensurable de riches gisements de gypse anhydre et de gypse hydraté ; 2° Plusieurs ardoisiers dont la plupart à ciel ouvert.

3° De très gros d'acier lamelleux brillant : c'est du fer oligiste contenant à l'état de pureté 60 0/0 à 70 0/0 de fer. La feuille définitive est encore à faire. Avis donc aux amateurs ;

4° De petits cristaux bruns : c'est de la pyrite de fer transformée en limonite (oxyde ferrique hydraté). Ces cristaux se composent de deux dodé-

caèdres n'aurait d'autre la distance est de 30 kilomètres. Mais si l'exploitation prospère, on traiterait douera certainement lieu à la création d'une voie ferrée longeant la route de St-Jean-Pied-de-Port à Pampelune, voie ferrée qui deviendrait le premier tronçon espagnol du grand central Paris-Madrid que nous continuons à voir à Bayonne, comme la prolongation naturelle de la ligne Saint Jean-Pied-de-Port-Bayonne.

Ces faits donnent raison à ceux qui ont créé le raccordement de la rive gauche.

B.

ESKUAL HERRICO BERRIAC MOTHICO GAZTEN ERREKLAMA

- Erreclama izanen da horaz :
- Maulen marchorean 30an 9 orenetan ;
- Atharratzen 21an 10 orenetan ;
- Dona-Phaleon 22an 9 orenetan ;
- Tholdin 23an 9 orenetan ;
- Donibane-Garazin, 23an 2 orenetan ;
- Baigorryn 24an oren batean ;
- Bayonan maitzaren 7an 2 orenetan ;
- Diarritzen 8an 10 orenetan ;
- Ustaritzen 9an 10 orenetan ;
- Azparnen 10an 10 orenetan ;
- Espelatan 11an 10 orenetan ;
- Monibane-Lohitzunen 12an 2 orenetan ;
- Bayonan 14an 2 orenetan ;
- Labastidan 15an 10 orenetan ;
- Bidachunen 16an 11 orenetan.

atheratzen landare suerte guciac. Ceruico aldean ikhusten ziren lanho gris eta churi batzu bazabiltzan nahasiac iduri itsaso samur bat. Lanhoec iduri çuten çoimbat aldiz hanguitu nahi zutela itsasoan, banan haizeac alchatzen zituen airetan gora forma itsusiac hartuz marcha fier batekin.

Gure emaztea, horroca euriarekin eta haizearekin, aitzina suhan urhats segur batean, iduri zuelaric ez izaita bertice inquietaduracic baicic ere bere piyayaren burura fite heltzea, haur bere besotan lo zagocan haren hotzaren contra beiratzeco. Hain gaztea cen ez baitzuen iduri bacituela oraino hogoi urthe. Haren bilo horiac atheratzen ciren buruco mocanes marracatu haren azpitic, iduri baitzuen egungo egunean Bordaleco inguruetaco arrastazeco manera. Haren ailamendua ikhusgarri cen haintbertice yosia cen manera nola colores diferentes, tunica oena urdinezco bat dena brodatua urhezco

potasse » deitzen diren oncailluac ; aldiz « Beraz ongi egineu da emplegatzea 800 kilos « Scories Thomas » hectaran pentzen, mahastien, ogiaren, artuaren, lur sagarren eta landare guzien. Hobe-edo erciteratecuan emaita.

Gisa berean 150 edo 200 kilo « sulfate de potasse » eman behar litazke larrakenean edo erciteco antinean ; bereziki lur sagar eta betterrabac behar dute on-

callu hori. Aldiz primaderan balde ez da behar eman « nitrate de soude » deitzen den oncaillu eta bereziki ogiarentzat biziki on da : 150, 200 edo 300 emplegatzen da hectaran.

Aurthen berantegi denaz geroz, baldi den urtheco emanen dituz chehetasun gehiago, bizi baniz.

PIARRIS.

P. S. — Gure iracurtzaleac otholzen dituz entsegu zombaiten egiteaz oncailluac, bereziki mahastietan, arnoa mailte baituz.



Souches fumées aux Scories Thomas.

AMODIOAREN MARTIRRA

Dolores! emaste bat berthutes bethea

BUHAMUAC

Goiceo sei orenac yoitean 1770^{oo} marchean, emaste bat, haur sorthu berri bat besotan: yautsi cen Gardon deitzen den hur handiaren ezquerreco aldeari beheara; eta hurbildu cen asko importancia duen herri baten aldera çoina deitzen baita Remoulins, emastea guelditu çen aphur bat bere bidearen gainean iduri bere baitaan bilhatzen çuela çoin bide behar çuen seguitu. Dembora guti iraun zuten haren aduec.

Dembora arras hotza çen euria ez çen guelditzen ichtant bat ere. Sudeco aldeco helida çen haize batec erhautsi zituen bazler guciac gauas eta oraino ere goiz hantza: ezen çhirulatzetic guelditzen, zerraitzen zituelaric arbolac eta errotic

galones eta estecatua guerrian cinta gorri batez. Galtzerdiric ez çuen eta zangoetan zituen hoinetacoac ciren espartin lieta gorric estecatua batzu.

Haren saya hiatua cen eta bazuen tarata frango ; hetaric çombait yosiac hanitz coloretaco harietz iguzkia colorea yana zacon eta ezagun cen aspaldian soinecen çuela. Hitz batez haren ailamendu guciac mis-ria handia eracusten çuen. Bizkitartean deusic ez da causitzen ahal emaste haren begitartea bezain ederric, huren urhezco biloac ; haren fracione delicatuac eta frescoac! doloren eta akhi-duaren gatic arguitzen zuten ecin erranezco edertasun batez; haren begi beltcheç bazuten behatze ezti miragarri bat: desohoreac estalzen çuen begitarte çarmant-hur escu tipi eta haur zango hec ez zuten pareric. Haren arropce aguerrian zuten çuen gorphutz edo hartaco haraguiac çuria zen eta fina ; pochi bat gorritua ç orphutz perlet hartan irakitzen ari

zen odolaz.


Halacoa zen emaste hura non pandelata bat izan ez balu guerrian : ez baitzen aise izanen phentsatzen çoin arracotaric heldu cen.

Dominica ezen hori zen haren izena hanitz mende huntan Hugriatic eta Espainiatic urthe gucietz gure aldeatart yiten diren buhametarie çen ; orduan beçala orai ere hainitz yiten da Frantçiacco sguerdioco alderat Bayonaco eta Orzaiceco alderat ; guisa berean Marsellaco, Niccco, eta Banestireco aldeatart, Avignoneraino eta Arlesetaraino. Beren egoitzaç eguiten dituste yaineoac nahi duen lekhuaren beren çarroetan egoiten dira gauas ; eta egunaz guçonec eguiten Auzte asto tratuac, emasteac zere saltzen eta buenaventuraren erraiten ari direlaric herrietaco gazteac Aronpatuz sos çombeltez yabeltz haurrac igortzen tute çarteric caritatearen galdetzer.

DOLORÈS

PAR

ERNEST DAUDET



PARIS

E. PLON ET C^o, IMPRIMEURS-ÉDITEURS

RUE GARANCIÈRE, 10

Tous droits réservés

ERNESTO DAUDET

DOLORES

VERSIÓN CASTELLANA

DE J. D.



E. Mengibar

MADRID

EDUARDO MENGÍBAR, EDITOR

1886

I. PHARTEA. BUHAMUAK

(I)

Goizeko sei orenak joitean, 1770ko marxoko egun batez,¹ emazte bat, haur sortu berri bat besoetan, jautsi zen Gardon deitzen den hur handiaren ezkerreko aldeari behera, eta hurbildu zen asko inportanzia duen herri baten aldera zoina deitzen baita Remoulins. Emaztea gelditu zen aphur bat bere bidearen gainean,² iduri bere baithan bilhatzen zuela zoin bide behar zuen segitu. Denbora guti iraun zuten haren dudek.

Denbora arras hotza zen, euria ez zen gelditzen ixtant bat ere. Sudeko alde-tik heldu zen haize batek erhautsi zituen bazter guziak gauaz eta oraino ere goiz hartan; ez zen xirulatzetik gelditzen, arrailtzen zituelarik arbolak eta errotik atheratzen landare suerte guziak. Zeruko aldean ikusten ziren lanho gris eta xuri batzu bazabiltzan nahasiak, iduri itsaso samur bat. Lanhoek iduri zuten zoinbait aldiz hunkitu nahi zutela lurra,³ bainan haizeak alxatzen zituen airetan gora forma itsusiak hartuz martxa fier batekin.⁴

Gure emaztea, borroka euriarekin eta haizearekin, aitzina zuan⁵ urhats segur batean, iduri zuelarik ez izaitea bertze inketadurarik baizik ere bere piaiaren burura fite heltzea, haur bere besoetan lo zagokan haren hotzaren kontra beira-

(1) Goiceco sei orenac yoitean 1770co marchuan, (...) (EH). Guk marxoko egun batez ezarri dugu. *Al dar las seis de una mañana de marzo del año 1770, una mujer, (...)*. (1886:5). *En 1770, un matin de mars, vers six heures, (...)*. (1879:1).

(2) (...) Remoulins, emastea guelditu çen (...) (EH). Guk komaren orde z puntua jarri dugu. *La desconocida se detuvo unos momentos (...)* (1886:6). *La femme (...)* s'arrêta quelques instants au centre de ce carrefour, (...). (1879:1).

(3) Hunqitu nahi zutela itsasoan (EH). Moldatzailea nahastu bide da; lurra izan behar du. *Las nubes parecía que querían tocar la tierra* (1886:6). *Ils semblaient, tant ils étaient bas, vouloir toucher la terre.* (1879:2).

(4) (...) corrian fingiendo las formas más caprichosas y el andar más extravagante. (1886:6). (...) affectant les formes les plus bizarres, les allures les plus échevelées. (1879:2).

(5) suhan (EH). zuban: zihoan.

tzeko.⁶ Hain gaztea zen ez baitzuen iduri bazituela oraino hogoi urthe. Haren bilo horiak atheratzen ziren buruko mokanes marrakatu haren azpitik,⁷ iduri baitzuen egungo egunean Bordaleko inguruetako orraztatzeko⁸ manera. Haren ailamendua ikhugarri zen hainbertze josia zen manieraz nola kolore diferentez,⁹ tunika lena urdinezko bat dena brodatua¹⁰ urhezko galonez eta estekatua gerrian zinta gorri batez. Galtzerdirik ez zuen eta zangoetan zituen hoinetakoak ziren espartin lieta gorriz estekatu batzu.¹¹ Haren saia hiatua¹² zen eta bazuen tarrata frango, hetarik zonbeit josiak hanitz koloretako hariez; iguzkiak kolorea jana zakon eta ezagun zen aspaldian soinean zuela. Hitz batez, haren ailamendu guziak miseria handia erakusten zuen. Bizkitartean, deusik ez da kausitzen ahal emazte haren begitartea bezain ederrik.¹³ Haren urhezko biloak,

(6) *lo zagokan haren (...): lo zeukan hura (...). (...) proteger (...) á su niña, que llevaba dormida.* (1886:6). (...) *protéger (...) son enfant endormi.* (1879:2).

(7) *Sus rubios cabellos caían en desorden por debajo de un pañuelo rayado, (...).* (1886:6). *Ses cheveux blonds s'échappaient en désordre d'une sorte de coiffure de coton rayé, (...).* (1879:2).

(8) arrastatzeco (EH). *orrastatzeco izan behar du; guk orraztatzeko ezarri dugu. iduri baitzuen: iduri baitzuten (?). (...) recordando los peinados que llevan hoy las muchachas del pueblo de Burdeos.* (1886:6). *rappelant celle que portent aujourd'hui les jeunes filles du peuple à Bordeaux.* (1879:2).

(9) Haren ailamendua (...) nola kolores diferentes, (...) (EH). *ailamendua: abilamendua, jantzia, soinekoa. hainbertze...nola...: hala josia zen manieraz nola kolore diferentez. Hainbertze ... nola egitura modu-konparaziozkoa edo, agian zehatzago, banakaritza adierazten duen korrelazioa da, juntaduraren bidezko esamoldeen antzekoa ("bai A bai B" edo "A eta B"). Egitura hori ez bide da ugaria euskal tradizioan, baina, Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatik*an (EGLU-V) ageri ez bada ere, bada OEHN adibideren bat edo beste: *Bada Jesus ainberze dago hostiaren parterik ttipienan nola andianean* (CatB 62). *Su traje llamaba la atención, tanto por la forma como por los colores diferentes.* (1886:6). *Son costume tirait l'oeil par sa forme autant que par la diversité de ses couleurs.* (1879:2).*

(10) *tunica oena (...)* (EH). *Guk lena ezarri dugu* (ik. *lenazko V*). Hau da: lena urdinezko tunika bat, dena brodatua (...). Ikus atal honetan bertan lerro batzuk aurrerago antzeko joskerara bat: espartin lieta gorriz estekatu batzu. *dena brodatua* horren pareko egitura bat: (*hura*) *dena jenden eta animalen gorpbutz bidez bethea* (zen) IV. Beste era batera ere interpreta daiteke perpaus aski ulerkaitz eta trakets hau; alegia, erlatibo esaldia dagoela aposizioan: Haren ailamendua ikhugarri zen hainbertze josia zen manieraz nola kolore diferentez, tunika lana urdinezko bat dena, brodatua (...). *Se componía de una túnica de lana azul bordada, con galón de oro, y sujeta al talle por un cinturón de seda encarnada.* (1886:6-7). *Il se composait d'une tunique en laine bleu, bordée d'un galon jaune, serrée à la taille par une ceinture de soie rouge; (...).* (1879:2)..

(11) *espartin lieta: espartin soka. (...)* *los pies calzados con sandalias atadas con correas.* (1886:7). *Les pieds chaussés de sandales en cordes tressées, (...).* (1879:2). Puntuak aitzineko eta gibelesko paragrafoak bereizten ditu EHko edizioan; guk paragrafo bakarrean ezartzen ditugu.

(12) *hiatua: higatua.*

(13) Ondoren, koma dago EHko edizioan, puntua frantsesezkoan, bi puntu gaztelaniazkoan.

haren frakzione delikatuak eta freskoak, doloren eta akhiduaren gatik,¹⁴ argitzen zuten ezin erranezko edertasun batez. Haren begi beltzek bazuten behatze ezti miragarri bat. Desohoreak estaltzen zuen begitarte xarmant hura, esku ttipi eta haur zango hek ez zuten parerik. Haren arrokek agerian uzten zuten gorphutz eder hartako haragia xuria zen eta fina, poxi bat gorritua gorphutz perfet hartan irakitzen ari zen odolaz.

Halakoa zen emazte hura non pandeleta¹⁵ bat izan ez balu gerrian ez baitzen aise izanen pentsatzea zoin arrazetarik heldu zen.

Dominika, ezen hori zen haren izena, hanitz mende huntan Hugriatik eta Espainiatik urte guzietz gure aldeetarat jiten diren buhamuetarik zen; orduan bezala orai ere hainitz jiten da Frantziako eguerdiko alderat,¹⁶ Baionako eta Orzaizeko alderat; gisa berean Marseillako, Niceko eta Beaucaireko aldetarat, Avignonera eta Arlesetara.¹⁷ Beren egoitzak egiten dituzte Jainkoak nahi duen lekhuari, beren karroetan egoiten dira gauaz; eta egunaz gizonek egiten tuzte asto tratuak, emazteak zare saltzen eta buenaventuren erraiten ari direlarik herrietako gazteak tronpatuz sos zonbeitez jabetzeko,¹⁸ haurrak igortzen tuzte gazterik karitatearen galdetzera.

(14) *doloren*: doloreen. *akiduraren gatik*: nahiz akitua zen, nekatua egon arren. Izena + *-(r)en gatik* egiturak kontzesioa adierazten du; ez da oso ohikoa eta ez da halako molderik agertzen Euskaltzaindiaren gramatikan (EGLUVII).

(15) *pandeleta*: pandereta, pandero (txikia). Ala *pandereta* izan behar ote du? OEHn ez da ageri *pandeleta*, bai *pandereta*. (...) *si no bubiese tenido una pandereta atada a la cintura* (...) (1886:7). (...) *si un tambour de basque attaché à sa ceinture*, (...) (1879:3).

(16) Guk jarri dugu koma, ez baita EHko edizioan.

(17) (...) *llegan -desde hace muchos siglos- todas las primaveras de Hungría ó de España, extendiéndose durante algunos meses por el Mediodía de Francia, internándose hasta Beaucaire, Avignon y Arlés*. (1886:8). *viennent au printemps de Hongrie ou d'Espagne, se répandant pour quelques mois dans le midi de la France; s'avancant jusqu'à Beaucaire, Avignon, Arles*. (1879:3). Beraz euskal moldatzaileak bere burutik gehitzen du buhameak "gure aldeetarat" ere, Baiona eta Ortzaizera etorri ohi zirela. Ik. beherago "Gure Eskual herrian bizi denak eta hunat jiten denak (...)".

(18) (...) *buenaventuren erraiten ari direlarik herrietako gazteak Aronpatuz (sic) sos çombeitez yabetz (sic) haurrac igortzen tuzte gazterik caritatearen galdetzera*. (EH). Guk ezarri dugu koma, EHko edizioan ez baitago. *buenabenturen erraiten*: buenabentura, etorkizuna edo patua iragartzen. (...) *las mujeres á decir la buenaventura, embaucando à los jóvenes aldeanos, à quienes de este modo sacan algunas monedas, ó despachando objetos de vidrio que ellas mismas fabrican é implorando la caridad pública los niños*. (1886:9). (...) *les femmes disant la bonne aventure, débauchant les jeunes paysans auxquels elles arrachent ainsi quelque monnaie; débitant des verroteries qu'elles fabriquent; les enfants implorant la charité*. (1879:4).

(II)

Jende kasta hori, Eropa guzian barreatua, kostunbre misteriosez¹⁹ bethea da eta, gehiago dena, nehork ez daki zer kastetarik diren: iduri dute jende beltz edo gorrietarik atheraiak direla eta egungo egunian xuriekkin nahasiak bainan beren lehen aiten kostunbreak ez dituzte behin ere utzi.

Gure Eskual herrian bizi denak, eta hunat jiten denak, ardua harrapatzen ditu udan jende horietarik tropaka bainan hotzak unkitu²⁰ orduko golondrina bezala lekhu beroetarat ihes joiten dira eta ez dira itzultzen berriz beroak jin artio. Heien lenguaia erdi espainol²¹ eta erdi eskuara nahasi bat da, badira zonbait puxka bat nahasten dutenak fransesa eta oraino zonbaitek ikhasten dute eskuara.²² Gizonak ontsa formatuak dira, beltzaranak, ile kuskulatu eta botz lodi batekin.

Emaztek, deus edertasunik.²³ Kobre kolore dira gehienak eta behatze bat arras salbaia dute.

Bizkitartean ez dira gaixtoak jeneralean heien arrazatik kanbio den²⁴ jendeentzat. Buhamuak bizitzen dira familiak formatuz; familia bakhotxak baitu hogoi eta hogoi eta hamar presuna, obeditzen dute emazte bati, zaharrena; egiazko erregina deitzen dute, haren manuak soberanoak direlakotz, bera bertze erregina bati sumetitia izanik ere.

Dominika bere sortzez jende hetarik othe zen?

Ez dakigu, bainan haren biloaren koloreak, haren frakzionen delikatasunak, haren larru xuriak erraiten zuen ez zela jende hetarik atheratzen, bainan²⁵ Do-

(19) misteriosozez (EH). Bestela, *misteriosez* izan behar du.

(20) uukitu (EH). Ala *ukitu* izan behar ote du?

(21) espagnol (EH).

(22) *El idioma que hablan es una mezcla de castellano y de eslavo. Algunos chapurrean el francés.* (1886:9). *Leur langue est un mélange d'espagnol et de slave. Quelques-uns baragouinent le français.* (1879:4). Berriz ere euskal moldatzaileak aldatu du jatorrizkoa, xehetasun garrantzitsu bat emanez: euskara erabiltzen zutela buhameek, edo gaztelania-euskara nahasi bat.

(23) *Las mujeres tienen poco que desear en cuanto à hermosura.* (1886:9). *Les femmes ont peu à désirer sous le rapport de la beauté.* (1879:4).

(24) *kanbio den jendeentzat*: diferenteak diren jendeentzat. *Kanbio izan* lexikalizatuta dagoela dirudi, bestela *kanbio diren jendeentzat* izan beharko luke.

(25) Ulerkaitza zaigu bigarren *bainan* hau. Ez da 'baizik', perpaus bukaeran *biziki ederra zela* eskatuko lu-keelako. Ez ote da moldatzailea edo inprimategia nahastu eta *baina jarri alabainan* 'izan ere' (esplikatio) edo 'hala ere' (aurkaritza adierazlea) jarri beharrean, edo *ezen* edo *zeren (eta)* kausal-esplikatioak jarri beharrean? Edo *ez dakigu* behar ote luke ezkerrean, perpausaren hasierako bera errepikatuta? (*ez dakigu, bainan Dominikak* (...)).

minikak izana gatik ere buhamuen odola bere gorphutzean, edo haur ebatsi bat ardura gertatzen den bezala izanik ere, oraino²⁶ amodio mixterioz bete baten fruitua, biziki ederra zen. Harek uste zuen buhamuetarik zela, haren imajinazionea hetan sekula ez baraturik ere.²⁷

Behar bada haren aldean bizi zen jendeak ezagutu zuen ez zela heen arrazatik zeren eta ez baitziren harentzat sekula honak izan.

Beiratua instinto sekreto batez, garbia zen, arras garbia.

Egun batez harrapatu zuen bere bidean liburu bat, eta bakharririk frantzesez leitzen eta mintzatzen baitzuen, uste zuten bertzek urguluz bethea zela haren baitan sendimendu hortarik ez izanik ere.

Haurra zelarik joka²⁸ ehotzen zuten ez baitzuen nahi eske joan, eta handitu zenean haren etsaiik handiena izan zen haren edertasuna; ezen hartarik jin zizazkon²⁹ gaitz guziak. Orok hastio zuten eta gehiago hastiatu zuten ikhusi zutenean ez zuela heien artean senar bat hautatu nahi.

Nahi zuten bortxaz ezkontarazi, bainan eskapatu zen.

Tropa bat joan zen bilha makhilez harmaturik, harrapatu zuten eta golpeka hetsirik ezarri zuten karro handi baten barnean erraiten zakotelarik han egonen zela ezkondu nahi zuen artio. Emazte gaixoak hanitz sofritzen zuen, jaiten zuten, gosia atxikitzen,³⁰ guzien irriegangarri zen, eta hilen zen Jainkoak³¹ ez balio igorri libratzera Peio, hogoi eta bortz urteko muthiko xarmant bat, zoinak eman baitzituen manuak hura hobeki trata zezaten.

Nola biziki muthiko azkarra baitzen, kuraiaz bethea eta terriblea bere koleretan,³² inguratzen zituen guziak ikharatzen baitzituen, obeditu zuten eta oro

(26) *oraino* (...): are (...).

(27) *betan*: buhameetan, ijitoetan. *baraturik*: egonik, gelditurik. *Que Tiepoletta tenga sangre de jitanos en sus venas, ó que sea una niña robada à su familia, ó el fruto de un amor misterioso, cosa es que no se sabe. / Creía ella ser gitana, aunque su imaginación nunca se hubiera fijado en esto.* (1886:10). *Que Tiepoletta eût du sang bohémien dans les veines; qu'elle eût été, encore enfant, ravie à sa famille; qu'elle fût le fruit de quelque mystérieux amour, toutes ces hypothèses étaient également admissibles. Mais rien ne lui prouvait que la première ne fût pas la seule réelle. Jamais son imagination ne s'était arrêtée à en rechercher une autre.* (1879:5).

(28) *yocako* (EH). *joka* ehotzen zuten: jipoitzen zuten. *Siendo niña, la molían a golpes (...).* (1886:10). *Petite, on la rouait de coups (...).* (1879:5).

(29) *yin* cizazkon (EH). *zizazkon* Bidarrain bederen dokumentatua dago, baita *zitzaizkon* (Yrizar 1999a:219).

(30) *gosea* atxikitzen (zuten). *Hau da, gosedun edukitzen. (...)* *peor alimentada que un perro.* (1886:11). *plus mal nourrie qu'une chienne.* (1879:6).

(31) *Moldatzai*leak Jainkoa aipatzen du, gaztelania-frantsesezkoek halabeharra. (...) *si el destino no la hubiese mandado un protector (...).* (1886:11). (...) *si le destin ne lui eût envoyé un protecteur (...).* (1879:6).

(32) *coloretan* (EH). (...) *terrible en sus iras, (...).* (1886:11). *terrible en ses colères.* (1879:6).

nexkatxarentzat kanbiatu ziren.³³

Dominika ez zen ingrata izan eta ezkondu zen bere ongiegilearekin. Kostumaren arabera, erregina ezkontzako zeremonioetan³⁴ aurkhitu zen.

Hogoi eta bederatzirthe zituelarik hila harrapatu zuten Peio.

Dominikak hemeretzi urthe zituen eta lau urthe baizik ez zen bizi bere senharrarekin irus.

(III)

Emaztearen edertasunaz jelos izanez, bere³⁵ lagun batek hil zuen bederatzirthe kaniet ukhaldiz.³⁶

Dominika alhargun gelditu zen ama izan³⁷ behar zuen mementoan, hortako ez zen xangrinez hil.

Sei ilhabethe pasatu ziren zoinetan errespetatu baitzuten haren dolua. Orduan amatu zen³⁸ haur nexka batez.

Ixtorio hau hasi dugun aitzinagoko arratsean bere haurraren lokharrarazten ari zen, noiz eta ere aditu baitzuen botz bat apal, kasuman³⁹ zuen zer erraiten zuten eta hartaz mintzo ziren. Bainan zer konbersazione espantagarria! Zer estatutan gelditu zen emazte gaixoa, entzun zuenian bere alaba ekhendu⁴⁰ behar ziotela, hura galdu nonbeit⁴¹ eta haurrarekin gelditu gero hari eskarazteko! Konbersazione izigarri hori gehienik atxikitzen zuena zen Concorvita, emazte malhurusaren ama erraiten zutena.

–Utz dezagun lekhu hau Avignonerat joiteko -erraiten zuen emazte harek-, behar dugu harrapatu okasione bat Dominikaren⁴² galarazteko eta haren hau-

(33) Hau da: buhameak oro neskatxaren alderako kanbiatu ziren. (...) *quiso que todos fueran mejores para ella.* (1886:II). (...) *exigea qu'on adoucît son sort.* (1979:6).

(34) Ala zeremonietan izan behar du? Zeremonio aldaera ez dugu ikusi OEHN. (...) *la reina procedió a la ceremonia del casamiento.* (1886:II). (...) *la reine procéda à la cérémonie du mariage.* (1979:6).

(35) Hau da: Peioren.

(36) *kaniet*: ganibet, aizto.

(37) ama ecin (EH).

(38) erdi(tu) zen, ama egin zen.

(39) khasuman (EH). *kasuman*: kasu eman, entzun, aditu. (...) *se puso a escuchar* (1886:12). *Elle prête l'oreille.* (1879:7).

(40) Kendu.

(41) Euskarazko moldapena pixka bat desberdina da. (...) *despedirla á ella* (...). (1886:12). (...) *la chasser ensuite elle-même, afin de débarrasser la communauté d'un membre inutile,* (...). (1879:7).

(42) Domicaren (EH).

rraren ebasteko.

Orok erraiten zuten:

–Ez da aise izanen.

Berak erraiten du orduan:

–Bueno, nihaurek eginen ditut oro.

Dominikak aski entzun zuen, ikharetan joan zen urrunago, eta galdegin bere buruari nola eskapatuko zen⁴³ irrisku hartarik. Gau guzia phasatu zuen phensaketa eta azkenean hartu zuen erresoluzioea ihes joiteko.⁴⁴

Biharamun goizean goizik preparatu ziren buhamuak joateko, eta ofreitu zakoten Dominikari jarlekhu bat karroan, zoinak hartu baitzuen zeren eta bere indar guzieren beharra baitzuen hartua zuen xedearen konplitzeko.

Arrats aphaleko heldu ziren Avignoneko hiriaren ondora eta han gelditu ziren. Dominikak ikhusi zituen kheinuka ari zirela eta pensatu zuen hura bere haurrarekin lokhar zadin beha zaudela gero jokoaren egiteko. Hura beilan zagon.

Zortzi orenak heinean gizonak joan ziren hiriko atheen alderat; xaharrak lo zauden, gazteak elheketa ari ziren elgarrekin eta haurrak lo beren kamantzetan ziren.⁴⁵

Dominikak baliatu zuen momento hura urruntzeko harrootsik⁴⁶ egin gabe, zango puntan gainean emeki kurrituz.⁴⁷ Ehun urhats joan eta ondoan bat-batean jauzi bat egin zuen bere menbro guzietz eta lasterka abiatu zen haren ondotik norbeit heldu balitz bezala alaba maite haren hari khentzera, bere bihotzaren kontra tinkatzen zuen, fite eta fiteago zoan iduri bere amaren boza entzuten zuela, ez zen gelditu hats hantua indarrrik gabe erori artio.

Orai irriskutik urrun zen, bizkitartean ez zagon trankil; segitzen zutela beldurrez, berriz eman zen lasterkari Gardeko zubiari buruz, phensatuz alde hartarat joan zela ez zutela phensatuko eta itzuliko zirela ezin harrapatuz beren karroetaratan han elgarren artean xede baten hartzeko.

Gau guzian joan zen, batean fite, gero errapuskitzago hatsaren hartzeko. Iguzkia ateratzen ari zen zubira zeneko, haizea borthitz zen oraino bainan iduri

(43) (...) ikharetan joan zen urrunago, eta galdegin bere buruari nola escapatu zen irrisco hartaric (EH). (...) *se preguntaba con angustia cómo podría escapar de aquel peligro.* (1886:13). *Elle se demandait avec angoisse comment elle échapperait à ce danger.* (1879:7).

(44) Hau da: ihes joateko erabakia hartu zuen.

(45) Honako hitz hurrenkera da ohikoena: haurrak lo ziren beren kamantzetan. *kamantzetan*: kamainetan.

(46) *harrootsik*: harrabotsik.

(47) *carrituz.* (EH). (...) *andando sobre la punta de los pies* (1886:13). (...) *marchant sur la pointe des pieds* (1879:8).

zuen denbora kanbiatuko zela eta honera emanen.

Horra non arribatu den bezperan zen lekhu berera, hirur egun lehenago amatu zen tokira; flako izana gatik, han zen berriz; ezpainak haizearekin idortiak, dena bustia, zangoak hantuak,⁴⁸ behatzen du lekhu hainbertze sofritu duen hari -urte guzietz hara jiten zen bere lagunekin-, hanitz ukhaldi hartu du leku hartan; bizkitartean eztitasunekin behatzen dio; ezen han sorthua da kreatura besoetan duen delikatu hura, zoina ebatsi nahi baitzioten eta salbatu baitu. Urrunxago harrapatzen du belhar puxka bat, zoinaren gainean etzaten baitu bere alaba lo zagona, eta bera, ogi beltz ondar puxka zombait bilhaturik lurrian, joiten da hurera zangoen garbitzera eta edatera; iguzkian ixtant bat promenaturik, itzultzen da bere hurraren aldean lo pixka bat behar duela egin, berriz indarren hartzeko. Haurra atzartzen da, presentatzen ditu amaren bulharrari bere ezpain hitsak, zointarik esperantza baitzuen⁴⁹ bizia, eta edaten ditu⁵⁰ zombait xorta esne zoinaren abondantzia⁵¹ guttitua baitzuen bezperako akhidurak, eta gero berriz lokhartu zen. Orduan sekula izan ez zen ixiltasun hartan, Dominikak senditu zuen alegria handi bat, iduri zitzaion libro zela, libro sekulako, eta ideia horrek ahantzarazi zazkon sofritu zituen guziak; ez zakien zer eginen zuen, nola biziaraziko zuen bere haur maitea, nola mantenatuko zen bera eta nola mantenatuko zuen hura.

(IV)

Bainan ez dute hanitz behar, xoriak eta buhamuak gutirekin phasatzen dira;⁵² lanean ariko zen, jadanik kostumatua zen lan guzietan, nor atrebituko zen

⁽⁴⁸⁾ hantua (EH).

⁽⁴⁹⁾ *esperantza baitzuen*: espero baitzuen. (...) *presentó sus labios al pecho del cual esperaba la vida, (...)*. (1886:17). (...) *à cette poitrine d'où elle attendait la vie, (...)*. (1879:10).

⁽⁵⁰⁾ edan ditu (EH).

⁽⁵¹⁾ abondantia (EH). Guk *abondantzia* ezarri dugu; ik. *abondantzia* VII. atalean. *zombait xorta esne*: zenbait esne xorta. Azken hau da arruntena; haatik, *zombait xorta esne* ez dateke hutsa: ik OEH xorta: txorta bat ezne (S). *La niña se despertó, empezó á llorar, presentó sus labios pálidos al pecho del cual esperaba la vida, y tomó algunas gotas de una leche cuya abundancia había disminuido la fatiga de la noche anterior, sin consumir el manantial, y después volvió á dormirse.* (1886:17). *La petite se réveilla, poussa un vagissement, présenta ses lèvres pâles à cette poitrine d'où elle attendait la vie, y puisa quelques gouttes d'un lait dont les fatigues de la nuit avaient diminué l'abondance sans en tarir la source, et ne tarda pas à se rendormir.* (1879:10).

⁽⁵²⁾ Bainan ez dute hanitz behar choriak eta buhamuak gutirekin phasatzen dira. (EH). *Pero no necesitaban mucho. Los pájaros y los jitanos tienen costumbre de vivir con poca cosa.* (1886:17). *Mais leurs besoins n'étaient pas grands. Les oiseaux et les bobémiens sont accoutumés à vivre de peu.* (1879:11).

hari⁵³ janaren errefusatzera erraiten zuelarik: “Nahi dut irabazi”?

Emazte gaixoak,⁵⁴ zoinak ez baitzuen phensamendu honik baizen, bere buru nahasian zabiltzan esperantza horiek guziak, ikharatuz phensatzean zer irriskutik atera zuen bere haur maitea.⁵⁵ Sekula ez zakoten erran Dominikari Jainkorik bazela.

Ez zakien othoitz egiten, bizkitartean ixiltasun hartan alxatzen zuen bere arima izaite guzien nausiari, zoinaren ahalak lagundu baitzuen bere haurraren salbatzen, eta zoinaren izena ez baitzakien. Phensamentu horietan loak hartu zuen, phensatu ahal ukan gabe zer eginen zuen atzartzen zenean. Zonbeit orenez eztiki lo eginik, atzartu zen.

Itsas orro handi bat entzuten du, gero bertze bat. Zer zen? Hura lo zagon denboran Gardoneko hur handia handitu zen eta haren zangoetarar hurbildua zen; jeiki zen berehala, bere haurra beso akhitu hetan berriz hartu zuen, bere bihotzari kontra zerratu eta phensaketa hasi zen zer egin behar zuen.

Ez zuen ikhusten hurik baizik alderdi guzietan, jadanik haren zangoak hurrean ziren, nehorat ez zitaken jua eta, gauza espantagarria, hura dena jenden eta animalen gorphutz hilez bethea zen; ikusten du harek ere hil behar duela, bainan haur hainbertze salbatzea⁵⁶ gusta zakon hura ez du hiltzera nahi utzi, hura behar du salbatu berriz ere eta nola eginen du?

Bat-batean orhoitzen da handik hurbil mendi bizkar batean bazela jauregi bat zointara buhamuak joiten baitziren eske. Bainan nola joanen da?,⁵⁷ huretik

(53) Heer (EH). Moldatzailea nahastu bide da, Dominikari dagokion izenordainaren orde txori eta buhameei dagokiena jarriz. *Trabajaría. Estaba ya acostumbrada á todos los trabajos. ¿Quién se atrevería á rehusarla el pan cuando dijera: Quiero ganarle?* (1886:17-18). *Elle travaillerait. Elle était faite à tous les labeurs, rompue à toutes les fatigues. Qui donc oserait lui refuser du pain, lorsqu'elle dirait: "Je veux le gagner."* (1879:11).

(54) gaichoa (EH).

(55) zabiltzan: zerabiltzan. *La ingenua criatura, cuyas ambiciones no podían ser más puras, acariciaba estas esperanzas en su cerebro turbado, temblando al pensar en los que acababa de huir.* (1886:18). *La naïve créature, dont les ambitions ne pouvaient aller au delà, caressait ces espérances dans son cerveau troublé, ne tremblant que lorsqu'elle pensait à ceux qu'elle venait de fuir!* (1879:11).

(56) salbatzeco (EH). Moldatzaileak nahastuta jarri bide du *salbatzeco*, edo bestela inprimategiko hutsa da, beste behin ere agertzen baita *-tzea*-ren orde *-tzeko* (*luzatu badut eguiaren ezagutarazteco* → (...) *ezagutaraztea* XX). Horregatik guk *salbatzea* ezarri dugu. Nolanahi ere, molde honetako erlatibo bihurriak ditu gogoko moldatzaileak. Ulergarriagoa da honetara: *salbatzea* hainbertze gusta zakon ('zaion' edo 'zitzaion') haur hura ez du hiltzera utzi nahi. Pasarte hau moldatzailearen burukoa da, ez baitago frantses eta gatzelaniazko testuetan.

(57) Bainan nola joanen da huretic behar du pasatu (EH).

behar du pasatu, bere eta bere haurraren bizia irriskatzen du; berdin du,⁵⁸ irriskatuz salbatzeko esperantza du bere bulharren kontra azkarki josia duen haur maite hura; orduan ezartzen du lephoaren gainean estekaturik hartaraino hura ez dadin hel eta abiatzen da.

Bulharretaraino hura bazuen, indarririk ez, zenbeit aphur⁵⁹ obligatua zen baratzera hatsaren hartzeko, indarrak joiten ari zitzazkon... Huretik atera zenean jauregiko bidexkaren aldean, halako irriskuan phasatu zuen hurari behatzeko denborarik galdu gabe aitzina dua bideari goiti, nigar egingarri den estatu batean.⁶⁰

Zenbeit minuten buruan heldu zen jauregiko bortharaino. Ordu zen, minuta bat gehiago eta haren belhaunak indarririk gabe erortzen ziren. Erortzen da belhaunez lurrera, phausatzen du bere [haurra]⁶¹ bortha hartan ziren lore batzuen artian, goititzen da puxka bat han zen khorda zoinak barnean joiten zuen baten harrapatzeko⁶², thirutzen du bainan undarreko indar horrek hainbertze akhitsu du non aldixartua erortzen baita gizon baten eskuek bortha idekitzen dutelarik.

⁽⁵⁸⁾ berdin du irriskatuz salbatzeko esperantza du (EH).

⁽⁵⁹⁾ Hau da: apurka, apur bana, pixkaka. *Várias veces se vió precisada à pararse para respirar* (1886:21). *A diverses reprises, elle dût s'arrêter pour reprendre haleine* (1879:13).

⁽⁶⁰⁾ EHko edizioan ez da komarik bat ere paragrafo osoan. Guk jarri ditugu komak, puntuak baino nahiagoz, baita ere puntuak, Dominikaren herstura eta arnas-hotsaren erritmoa egoki adierazten dutelakoan, bai eta testua irakurgarriagoa bihurtzeko. Moldatzaileak paragrafo bakarrean trinkotzen du gaztelaniazko itzultzaileak zazpitan adierazia.

⁽⁶¹⁾ phausatzen du bere bortha hartan (...). (EH). (...) *puso su hija sobre unas malezas de brezo* (...). (1886:21). (...) *déposa sa fille sur quelques touffes de bruyère* (...). (1879:14).

⁽⁶²⁾ Hau da: goititzen da puxka bat han zen korda baten, zoinak barnean joiten zuen, harrapatzeko. Joskera bortxatua. (...) *se agarró por un esfuerzo supremo à una cadena colgada al lado de la puerta*. (1886:21). (...) *tira, par un suprême effort, une chaîne suspendue à côté de la porte*. (1879:14).

II. PHARTEA. CHAMONDRINEKO JAUREGIA

(V)

Bortha ideki zuen gizona gaztea zen, haren begithartea ezta zen eta haren¹ behatzetik ezagun zen lañoa zela eta borondate honez betea. Haren ailamendua gisa berean izan zaiteen soldado batena nola sehi batena. Hartan ziren zilharrez brodatuak Chamondrineko markes jauregi hartako nausiaren harmak.

Ikhustearekin Dominika aldixartua eta haurra amaren aldean lo, ezin egon zen garrasia bat egin gabe.

–Zer da, Piarres? -galdegiten du gibeletik segitzen duen norbeitek.

–Behazazu, jaun markesa -ihardesten du Piarresek, erakusten zakolarik kheinu batez Dominika.

–Hila da!² -dio markesak, behatzen dakolarik buhamuari.

Harritua denbora berean Dominikaren edertasunaz, belhaunikatu zen haren aitzinean eta eskua eman zuen emazte miserablearen bihotzaren gainean.

Bihotz hura joiten ari zen oraino, bainan hain gutti non markesak doi-doia khondatzen baitzituen pulsazioneak.

–Bizi da! -dio markesak xutitzen delarik-, bainan ez dakit salbatzen ahalko dugun. Fite, Piarres!, ekhar ditzaten behar direnak, kasu eman dezeeten ontsa.³

(1) (...) gaztea cen horren beguithartea ezta zen eta harren behatzetik (...) (EH).

(2) ¡Está muerta! –dijo el Marqués precipitándose hacia la jitana. (1886:22). –Est-elle morte? s'écria le marquis en se précipitant vers la bobémiennne. (1879:15).

(3) Harrigarri samarra gerta daiteke aginterazko bi adizkiok -n menderagailua hartzea (ekbar ditzaten, kasu eman dezeeten) eta ez -la (ekbar ditzatela (...), kasu eman dezeetela). Agian manatu aditza dagoela isilpean ulertu behar da ([manatzen dut] ekbar ditzaten (...), kasu eman dezeeten (...), beste honako honen eredura: [ikbusi zuen] Piarres malen preparatzen ari zela eta manatzen zuela sehier karrosaren gainean ezar zitzaten mala eta puska guziak, X. Moldatzailea nahastu ote da? Gaztelaniazkoaren kalkoak ote dira ekbar ditzaten eta kasu eman dezeetan ontsa? (zati hau gaztelaniazkoetik itzulia dela ageri da). Ala horrelakoak ez dira hain ohiz kanpokoak eta onargarriak dira? Pronto, Pedro, que traigan los auxilios necesarios y que la cuiden bien. (1886:23). Vite! Coursegol, qu'on la recueille elle et son enfant, qu'on leur donne des soins. (1879:15).

–O! Haurrak iduri du azkarra dela -dio Piarresek-. Ez du esne honaren falta baizik; egungo, ene ahuntza haren amañoa izanen da.⁴

Hori erraitearekin Piarresek oihu egin zion neskato bati eta eman zion haurra, gero hartu zuen ama bere besoetan eta phausatu ganbera batetako ofe baten gainean.

Piarres hogoi eta hamar urthetako muthiko bat zen⁵ jauregian sortua zeren eta haren aita eta aitaso ere markesaren sehiak izanak baitziren, hazia markesaren semearen⁶ aldean bere jostetak harekin fartituz; maite zuen markesa bere bihotz guziaz eta gogotik bizia emanen zuen harentzat. Lanean ari zen harentzat, edozoin lanetan bazakien eta jadanik eskola puxka bat erakusten ari zen markesaren seme Salbador bortz urtheko muthiko xarmantari; gehiago dena, Piarres puxka bat mediku zen, bethi kanpoan egona⁷ ezagutzen zituen belharrak eta heien berthuteak. Sekula jakitatea ez zitzakon hain nesario izan. Dominika malurosari ez zitzaion batere ezagutza jiten, eta hain kolore xuriak zituen iduri baitzuen hila. Pedrok⁸ berehala erremedio bat egin zuen emaztearen bizirat ekharrarazteko, ez emozionerik gabe.

Lehenbiziko aldia zen emazte bati kasu ematen ziola.⁹

Emazte haren begitarte garbiak bihotza harrapatzen zion. Emanen zuen bere odolaren erdia Dominika hari¹⁰ irri baten egiten ikusteko.

–Beha zazu, jaun markesa -zion Piarresek-, zoin ederra den! Ez du oraino hogoi urthe. Zer bilo ederrak, hunen besoak zeta¹¹ bezain leunak dira.

Memento hartan, Piarresek idekitzen zuelarik borxaz eriaren ahoa, sarthu ziozkan arno kanelarekin eta sukreakin irakitu batetik zonbeit xorta.¹² Gero

(4) ez du esne honaren falta baizik egungo ene ahuntza haren amagnoa izanen da. (EH). *no la hace falta más que buena leche: por hoy mi cabra será su ama.* (1886:23). *Il ne lui faut qu'un bon lait; pour aujourd'hui l'une de nos chèvres sera sa nourrice.* (1879:16).

(5) Gaztelaniazko eta frantsesezko testuetan 36 urte ditu.

(6) seméaren (EH).

(7) (...) *habiendo vivido siempre en los campos,* (...) (1886:24). (...) *ayant vécu presque toujours aux champs,* (...) (1879:17).

(8) Gaztelaniazko itzulpenetik hartuta, moldatzaileak izena aldatu dio Piarresi, oharkabea.

(9) *kasu ematen ziola:* artatzen zuela.

(10) *Dominicari irri baten éguiten icusteco.* (EH). Moldatzailea edo inprimategiko langilea nahastu bide da *Domicari* ezartzean; horregatik zuzendu dugu *Dominika bari* (Pedrori) ezarrita. *Hubiera dado de buena gana la mitad de su sangre por oír á Tiepoletta hablarle y sonreírle.* (1886:24). *Il eût volontiers cédé une partie de son sang pour entendre Tiepoletta lui parler, pour la voir lui sourire.* (1879:17).

(11) setha (EH).

(12) Hau da: kanelarekin eta sukreakin irakitu arno batetik zonbeit xorta.

frikzionatu ziozkan besoak eta zangoak, odolaren kurriarazteko gorphutz hoztu hartan, lenazko oihal batekin. Zango hain pollit [hek] denak¹³ hantuak ziren eta sarraskituak.

–Hanitz kurritu bide du huna artio.¹⁴

–Bainan ez dea batere bizi seinalerik? -galdetzen du markesak, behatzen zakolarik tristeki.

–Ez dakit; beha zazu, iduri du poxi bat higitzen dela.

Ordu berean Dominikak ideki zituen begiak eta behatu eskuineko eta ezkerreko alderat, hitz aphaltu¹⁵ erraiten zituelarik hek ezagutzen ez zuten lenguaia batean.

–Mintzatu da -dio markesak-, iduri du inket dela, zerbeit nahi duela.

–Nahi du bere alaba ikusi -ihardesten du Piarresek, eta lasterka bilha doa.

Piarres haurraren bilha zen denboran Dominikari jin zitzaion ezagutza puxka bat, orduan orhoitu zen zer phasatu zitzaion bainan hain indar guti baitzuen ez zen mintzatu ahal izan. Bizkitartean ikhustearekin Piarres, haurra besoetan, irri bat egin zuen eta eskuak zabaldu.

–Besarka zazu -dio markesak-, bainan ez zazula har, ez zira oraino aski azkar.

Dominikak konprenditu zuen lenguaia hura eta obeditu zuen.

–Dolores maitea -dio behatze ezti bat egiten duelarik haurrari.

–Dolores! -dio Piarresek, irus buhamua¹⁶ ahoaren idekitzen ikhustez-. Izen ederra¹⁷ da.

–Konserbatuko duzue, ez dea hala? -zion Dominikak-. Norapeit igortzeko ez duzue despretuko!¹⁸ Gaizki trata lezakete. Egi zazue hortarik emazte bat hona eta ohoratua. Erakuts zozue buhamuen ez despreziatzen. Horren aita eta ama arraza madarikatu hortarik ziren.

(13) Zango hain pollit denak hantuak ziren eta sarraskituak. (EH). Guk *hek* jarri dugu kako zuzenen artean, ustez moldatzaileak edo inprimategikoeak ahantzi duten; erakusle hori darabil moldatzaileak (ik. lerro batzuk beherago). *Aquellos pies tan bonitos estaban golpeados é hinchados.* (1886:25). *Ils sont meurtris et gonflés! ajouta-t-il.* (1879:17).

(14) Piarresek esaten du.

(15) *con una voz apagada murmuró algunas palabras (...)* (1886:25). *d'une voix presque éteinte murmura quelques mots (...)* (1879:18).

(16) (EH) buhamuar.

(17) ederr (EH). Tarte bat hutsik dago: arena hain zuzen.

(18) *¿No la despedireis para mandarla con los otros?* (1886:26). *Vous ne la renverrez pas aux autres.* (1879:18).

Erran zituen hitz horiek eztiki bere idaia¹⁹ hobeki konprendiarazteko.

–Zaude trankil -ihardetsi zion Piarresek-, ez zako deus faltatuko haurrari; deskantza zite arrangurarik gabe.

–Bai -ihardesten du Dominikak-, deskantza bertze munduan.

–Hiltzeaz mintzo da? -dio markesak.

Ez zuen oraino akhabatu horren erraitea noiz eta ere buhamua altxatzen baita, hedatzen ditu besoak, haren begitartea kanbiatzen da, haren begiak itzulzen²⁰ dira eta nahi dute bere tokietarik athera, ematen du esku bat bihotzaren gainean egiten duelarik oihi izigarri bat eta erortzen delarik ofearen gainera. Horiek guziak minota erdi batez phasatu ziren. Piarresek eta markesak berehala hartu zuten eta egin ahalak egin ziuzten berriz biziartzeko. Bainan inutil izan zen. Dominika hila zen.

(VI)

Hainbertze sofrikarioez arraildua, haren bihotza xehatu zen baso bat beza-la. Piarresen begietarik nigar bat eskapatu zen.

–Gaixo emaztea! -zion.

–Zer egingen dugu horren alabaz?²¹ -galdetzen du markesak-. Nahi dut atxiki ene aldean, hemen edukatu eta instruitu, zeruak igorri dautanaz gainean.²² Bainan nor izanen da haren ama? Ene emaztea ez daiteke!

–Jaun markesak nahi balu ene nahia kunplitu... -ihardesten du eztiki Piarresek.

–Eta zoin da?

–Nik ez dut ez emazterik ez haurrik, ene biziteia²³ arras triste da jaun Salvador han²⁴ ez denean. Jaunak nahi badu Dolores ene alaba litake.

(19) idaya (EH). OEHN dokumentatua dago *idaia* aldaera.

(20) itzulzen (EH). (...) *sus dilatados ojos parecían salir fuera de las órbitas, (...)* (1886:27). (...) *ses yeux agrandis semblèrent sortir hors de la tête; (...)*. (1879:19).

(21) alabez (EH).

(22) *igorri dautanaz gainean*: *igorri didanez gero. ya que el cielo me la manda. (1886:27). puisque le ciel me l'envoie. (1879:19).*

(23) *biziteia*: *bizitegia, bizilekua.*

(24) *hau* (EH). *la habitación que ocupo está muy triste cuando el señorito Felipe no está conmigo. (1886:28). Le petit appartement que j'occupe est parfois bien triste, lorsque M. Philippe n'y est pas avec moi. (1879:19).*

–Hire alaba? Nola haziko duk?

–O! Hori aise. Ezagutzen dut Remoulinsen familia bat arras hona. Emazteak badu seme bat zoinari bulharra emaiten baitio eta eman lezake denbora berean Doloresi; hari konfia nio²⁵ denbora gutirentzat.

–Bon, haurra hirea izanen duk beraz -dio markesak-, eta amaz, haren arima bakean phausa dadila, baditake ez zuen Jainkoa ezagutzen, bainan ez zuen iduri nehoi gaizki egiteko kapable zela.

–Banoa jaun aphezaren mintzatzera hilharrietan hortzarazteko.

Piarressek estali zuen mihise batekin hilaren²⁶ begitartea eta othoitz egin zuen harentzat, eta handik goiti bere alaba deituko zuen haurrentzat.

Chamondrineko jauregia ez zen orduan lehen izan zen bezala, bazen denbora bat erraiten zutena “urhea dario Chamondrintar bati bezala”,²⁷ bainan Estebe markesaren aitak eta aitaratxik²⁸ xahutu ziuzten ontasun hek guziak. Parisen bizitzen ziren mundu hartako josteta guzietan pharte hartuz. Lehenbizikoa Orleaneko Filipe handiaren gaztetasuneko laguna zen.

Emaztekin eta jokoan xahutu zuen hanitz, eta gazte zelarik oraino hil zuten. Haren semea ez zuen korrijitu²⁹ etsenplo horrek. Erregeren kortean lehena zen eta haren aitak ontasun heer egin zuen gaizkia erreparatu orde,³⁰ hartu zuen farte bere adixkide Law-en³¹ konseiluarekin erreboluzioea prepararazi zuen gauza izigarrietan. Orduan xahutu zituen aitak utzi ziozkan guziak. Ikusirik bere adixkidek eta errege Luis XV[.ak]³² ere abandonatzen zuela, athera zen Parisetik eta Juan Chamondrineko jauregirat han bakea izanen zuela phensatuz eta harek zor zituenak ez zirela hara juanen.

Bainan hok erregeri erran zakoten eta erregek erranarazi zion Chamon-

(25) *konfia nio*: konfia nezake. *yo se la voy a confiar... por poco tiempo.* (1886:28). *Je la lui confierai... pour un temps.* (1876:19).

(26) hilharren (EH).

(27) “*Opulento como un Chamondrin*”. (1886:29). *Opulent comme un Chamondrin.* (1879:21).

(28) *aitaratxi*: aitatxi, aitona. *Aitaratxi* aldaera ez dugu ikusi OEHn; *aitatxi* izan behar ote du?

(29) *korrijitu* (EH).

(30) *erreparatu orde*; hartu zuen farte (...) (EH). Guk *erreparatu orde* ezarri dugu, EHko *erreparatu orde* ‘erreparatu orduko’ edo ‘erreparatu bezain laster’ en orde, esanahiz egokiagoa delakoan. Gaztelerazko eta frantsesezko testuetan esanahia ez da berbera. (...) *y para reparar los quebrantos que sufrieron sus bienes, (...)* (1886:30). (...) *et, pour réparer les brèches faites à ses biens, (...)* (1879:21).

(31) Lavoën (EH).

(32) Luis XV ere (...) (EH). *Luis XVak* behar du; zuzen eta egokiagozat daukagu hori *Luis XVek* baino. Halaber XII. atalean *Luis XVI* (EH) → *Luis XVIari*.

drineko markesari, hirur hilabetherik barnean ez baitzuen³³ pagatzen bere zor guziak Bastillan preso ezarraraziko zuela. Markesa ez zen ixtant bat ere dudan egon, saldu zituen bere lur guziak salbu mintzo giren jauregia, eta pagatu bere zor guziak.

Bainan bere bortxara gauza hori egin eta ez zitzaion gelditzen arranda guti bat beizik. Ez zuen kasik miseria beizik bere³⁴ etxean, eta, gehiago zena, ikusten zuen errege eta harekilakoak haren ganik urruntzen zirela. Malur handi hori erori zen haren gainera bere emaztea hil zitzaionlarik emaiten zakolarik argia seme bati.³⁵ Gauza horiek guziek indarrak ekhendu zazkoten³⁶, eta kuraia galdu zuen, ezen ez zen gizon bat preparatua sofritzeko hainbertze malhur. Hetsi zen bere jauregian. Han, plazerretarik urrun,³⁷ bere adixkide ahantzi zutenetarik urrun, akusatzen zitielarik zerua eta gizonak haren malhurrez, sartu zen tristezia handi batean.

Hala bizi zen hogoi urthez, alegeratu gabe ikhusteaz bere semea handitzen; edukarazi zuen herri auzo batetako apez bati eta haur bat hona athera zen. Markesa hil zen mende haren erditan zoina izan baitzen hain malurosa haren etxearentzat. Haren semea, Estebe markesa, zoina ikusi baitugu Dominikaren herioan, aurkhitu zen hogoi eta bat urthetan izen handi lehen hainbertze erregeren kortean argitu zuen haren jabe. Estebe gazte hon bat zen, seriosa biziki, gustu honak³⁸ zituen eta modestak. Bere suertea Jainkoak igorri bezala hartu zuen; eta ez zuen phensatzen izen handi haren alxatzea beizik.

(33) *baitzuen*: bazituen. Hemen *baitek* baldintza adierazten du eta *zuenek* ez du pluralgile hizkirik.

(34) behar (EH). *Se apoderaba casi la miseria de su casa, (...)*. (1886:31). *C'était presque la misère tombant sur sa maison (...)*. (1879:21).

(35) emaztea hil zitzaionean argia ematen ziola seme bati. *Aquella doble desgracia caía sobre él en el momento en que perdía a su mujer dando a luz un hijo.* (1886:31). *et ce double malheur surgissait au moment où il venait d'avoir un fils et de perdre sa femme.* (1879:22).

(36) Gauza horiec guziak indarrak ekhendu ziozcan, (...) (EH). Hasteko, EHko testuan nahasmena dago subjektuan (*Gauza horiek guziak*) eta hori zuzenduta (*Gauza horiek guziek jarrita*) adizkia ere aldatu behar da, *ziozkan* 'zizkion' zuzena litzatekeelako baldin subjektua *Gauza horrek guziak* izango balitz (*ziozkan* 'zizkion' Itsasun, Uztaritzen, Ezpeletan, Zuraiden etab. erabilia, Yrizar 1999a:258). Beraz, *guk zazkoten* 'zizkioten' ezarri dugu, dokumentatua eta segurua delako (Baigorri, Ortzaize, Bidarra, Itsasu, Kanbo, Mendiondo, Hazparne-Elizaberri etab., Yrizar-en arabera), eta gainera moldatzaileak darabilelako (*Hitzeman zazkoten nabi zituen guziak*, LI). *Todos estos acontecimientos le quitaron todo su valor, (...)* (1886:31). *Ces divers événements le trouvèrent sans courage, (...)* (1879:22).

(37) Hetsi zen bere yauregian han plazerretarik urrun, (...) (EH). *Se encerró en su castillo. Lejos allí de los placeres; (...)*. (1886:31). *Il se cloîtra dans son château. Là, loin de ses plaisirs (...)*. (1879:22).

(38) honec (EH). *Tenía gustos muy modestos.* (1886:31). (...) *de goûts modestes.* (1879:22).

Aita hil eta bi urtheren buruan ezkondu zen etxetiar modest baten alabarekin, zoinaren leheneko berthutek erakutsi baitzakoten lagunduko zuela egiteko gogoia zuenaren alxatzen.³⁹

Ezkondu eta biharamunean ereman zuen bere emaztea jauregira eta erranzion:

–Mariana maitea, juan den⁴⁰ berrogoi urthe huntan hanitz sofritu duen familia batean sarthu zira. Bainan guk [malhurak] erreparatzen ahal ditugu hanitz sakrifizioekin.⁴¹ Ez dugu gozatuko gure sakrifizioen frutuez bainan gure semek, Jainkoak emaiten badauku, gozatuko dute; eta hek izanen dira zoinek⁴² emanen baitute etxe huni berriz argia eta forma. Phensatzen dut lagunduko naitzula urthe guziez gure arrandatik soma azkar baten bazterrerat emaiten; halako gisaz nun hogoi urthetan gure semerik zaharrenak fortuna bat izanen baitu, gisa hortan sartuko da kortean eta bere gainerat jautsaraziko ditu ene aitek erregeren aldean izan tuzten fagoreak.

(VII)

Ezkondu eta bi urtheren buruan izan zuten seme bat deithu zutena Salbador, erran nahi baitu salbazailea. Bai, hek esperantza zuten seme harek salbatuko eta alxatuko zuela familia hura, Jesus-Kristok gu egin gintuen bezala.⁴³

⁽³⁹⁾ *egiteko gogoia zuenaren: egin gogo zuenaren. Se casó con la hija de un modesto hacendado de la Provenza, cuyas virtudes domésticas le parecieron propias para ayudarle á la ejecución de sus proyectos. (1886:32). Il épousa (...) la fille d'un pauvre gentilhomme provençal, dont les vertus domestiques lui parurent propres à aider à l'exécution de ses projets. (1879:22).*

⁽⁴⁰⁾ yuanden (EH).

⁽⁴¹⁾ Bainan guk erreparatzen ahal ditugu hanitz sakrifizioekin (EH). EHko testuan koherentzia falta dago, osagarri zuzena behar da. Guk malburak ezarri dugu (ik. ezin erreparatuzko malur tristea, XIV). (...) *una familia que hace (sic) cuarenta años ha sufrido muchos males que podremos reparar con grandes sacrificios. (1886:32). (...) une famille qui, depuis quarante ans, a subi bien de maux que nous ne pouvons réparer que par de grands sacrifices. (1879:22).* Hemen bukatzen da VI. atala EHren edizioan, elkarrizketa moztuz. Guk nahiago izan dugu markesaren jarduna ez moztu eta zati osoa VI. atal honetan ezarri, eta VII.a narrazioarekin hasi.

⁽⁴²⁾ Kalko sintaktikoa, baina ez literala. *No podremos gozar del fruto de nuestros esfuerzos; pero nuestros hijos, si Dios quiere concedérmolos, gozarán de ellos (...)* (1886:32). *Nous ne devons pas espérer de jouir de nos efforts. Mais nos enfants, si Dieu nous en accorde, en jouiront, (...)* (1879:22-23).

⁽⁴³⁾ Yesus-Cristoc gu egin gaintuen bezala (EH). Salbador izena, haren esanahia eta iruzkina ez dira jatorrizko eleberrikoak, ez gatzelaniazko itzulpenekoak, euskarazko moldatzailearenak baizik.

Lehenbiziko urthetan arras ontsa juan ziren,⁴⁴ lurrek abundantzia eman zuten⁴⁵ eta sos hanitz bazterrerat eman zuten; geroxago izan zuten alaba bat, Graziana eman zioten izena eta bethe zuen etxe hura alegriez.

Markesak hanitz esperantza zuen geroan, haren esposa emazte xarmanta zen eta jarraikia; esperantza zuen, senarrak bezala, noizpeit argituko zela familia hura.

Ez zen segurki alegera bizitzea jauregi handi hartan bakharririk, auzorik ere gabe. Neguak luzeak iduri zuten. Bainan markesak leitzen zuen hanitz, ihizin ebiltzen zen eta kanpoko langiler kasu ematen zeen, herritar batek bezala.⁴⁶

Haren esposak egiten zuen lan guzietarik, kasu ematen zuen orori⁴⁷ etxean eta sehiak xuxen ebilarazten zituen, iduri baitzuen ez zela gehiago bizi senarraren laguntzeko baizik. Hitz batez, urosak ziren jauregian. Lau urthe phasatu ziren gisa hortan.

Salbador handitzen zen, jadanik atheraia zen lehen haurtasunetik eritasunik gabe, eta mintzatzen zen arras polliki.

—Eginen dugu huntarik muthiko bat xarmanta -ziona markesak Marie-Annari-. Argituko du Europako kortetan eta hiri handietan. Erregek emanen dio erregimendu bat gobernatzeko, eta ezkonduko da izen handitako andere aberats batekin. Eta andere huni -erraiten zuen markesak erakusten zuelarik Graziana erhiarekin-, ez balin badiogu emaiten ahal doterik, emanen diogu bethi senar aberats bat.

Marianak irri ezti batekin kuraiez bethetzen zuen bere Estebe maitea. Bainan berriz ere malhurrak heldu dira etxe eta familia dohatsu haren desesperatzera.

1769 urthe ondarrean Graziana hasi zen kolore eder heen galtzen, mehatu zen halako gisaz nun aita-amak harritu baitziren. Phasatzen ziuzten bere gauak haur maite haren beilan, zoina anemika baitzen. Gau batez markesa akhitua zen eta phausatu zen fotil baten gainean lo pixka baten egiteko.

Graziana iratzartzen da eta Marianak, erremedioa emaiten boteilaz tronpaturik, phozoindatzen du.

Graziana hil izan zen hanitz sofritu eta, medikuek ez zuten gorde ahal izan

(44) *Arras ontsa juan ziren*: markesa eta haren familiakoak (subjektua). Egitura ohikoagoa dateke, ordea, *untsa juan zaioten* 'zitzaien' (ik. IX. atala) edo nor-nori sailekoren bat.

(45) *Abundantzia eman* baino ohikoagoa dateke *abundantziarekin eman* (OEHN adibide bat). *Durante dos años las cosechas fueron muy abundantes y las primeras economías muy numerosas.* (1886:32). *Durant ces deux années, les récoltes furent abondantes, et les premières économies s'en ressentirent.* (1879:23).

(46) *landa-langileak zaintzen zituen, herritar (baserritar) batek bezala. (...) y se ocupaba de sus bienes como un aldeano.* (1886:33). (...) *s'occupait de ses biens, comme l'eût fait un paysan.* (1879:23).

(47) *Pertsona eta gauza guztiei. cuidaba mucho de su casa (...).* (1886:33). *dirigeait sa maison avec autant de soin (...).* (1879:23).

nola hila zen eta amak jakin zuen.⁴⁸ Amaren deseparazionea handiagoa izan zen aitarena beino. Haren doloreari nahasia zen urrikia eta senarraren elhe ezti guziez ez zuten konsolatzen. Ukhan zuen buruko atakat⁴⁹ zoinak arras gaizki utzi baitzuen.

Orok uste zuten sendatuko zela bainan sukharrak utzi zuenean ezagutza ez zitzaion jin,⁵⁰ hasi zen harrapatu guzien biltzen eta biribilkaturik bere bulharren kontra tinkatzen zituen ustez bere alaba zen, orenak phasatzen zituen bere alabari oihuz, uste zuen gauza guzietan hura ikhusten zuela, hitz batez Marianak izpiritua galdua zuen.

Avignoneko, Nimeko eta Monpelieko medikuek alferretan egin zizuten egin ahalak sendarazteko. Ez zakoten markesari esperantza bat eman ukhan ere.

Egun gutirik barnean Mariana arras flakatu eta mehatu zen. Bethi bere haurrari oihuka ari zen bere izenaz; muble, lore, arropa guziak deitzen zituen Graziana, uste hetan zen haren alaba.⁵¹

Hainbertze penak xehatu zuen markesaren osagarria,⁵² zoina eritu baitzen egun batez.

Piarres egon zen haren ofearen aintzinean hainitz egun ikharetan, uste markesa hilen zen.⁵³ Bainan uruski, gazte baitzen, sendatu zen.

(48) Graciana hil izan zen hanitz sofritu eta medicuek ez zuten gorde ahal izan (...) (EH). Hor *eta* jantagailuak denbora adierazten du ('sufritu ondoan'). *Marta murió después de haber sufrido atrocemente; los médicos no pudieron ocultar la causa de la muerte y la madre lo supo.* (1886:34). *Marthe mourut, et l'on ne put cacher à sa mère la cause de sa mort.* (1879:24).

(49) *atakat*: ataka bat, atake bat.

(50) *zitzayen yin* (EH).

(51) Bethi bere haurrari oihuka ari zen bere izenaz, muble lore arropa guziak deitzen zituen, Graciana uste hetan zen haren alaba (EH). (...) *uste hetan zen haren alaba: uste ageri da, eta ez ustez; halaber lerro gutxi batzuk behe-rago (uste markesa hilen zen). Lerro batzuk goraxeago, ordea, ustez: bere bulharren kontra tinkatzen zituen ustez bere alaba zen. Zuzena ote uste, ala ustez ezarri behar ote litzateke, moldatzailak atal honetan behin eta beste batzuetan ere darabilenez? (Ustez ez zituela abantzi, hurbildu nitzaio XXXI). OEIn ez dago uste + adizk. -n/-la. Hala ere, guk errespetatu dugu. Bitara uler daitekeela dirudi: 'ustez', 'uste izanik' nahiz 'uste zuen', hau da, aditza ezabatuta. *Todo, en una palabra, muebles, flores, vestidos, todo lo llamaba con los nombres más tiernos, creyendo ver á su hija en ellos.* (1886:35). (...) *livrée à sa monomanie qui consistait à voir sa fille dans tous les objets qui l'environnaient. Elle prenait tour à tour des fleurs, des vêtements, des meubles légers, leur prodiguait les marques de sa tendresse, les appelait des noms plus tendres,* (...) (1879:25).*

(52) Hainbertze penek chehatu zuen markesaren osagarria zoina eritu baitzen egun batez. (EH). Komunztadura falta nabari da EHko testuan, horregatik zuzendu dugu *penak* ezarri.

(53) (...) ikharetan uste markesa hilen zen (EH). Honetara ere uler daiteke: uste zuen markesa hilen zen. *Pedro temió también ver acercarse la muerte à la cabecera de su amo.* (1886:35-36). *Et Coursegol, durant un mois, crut voir la mort s'approcher du chevet de son maître* (...). (1879:25).

Hura hilez, Salbador ume xurx geldituko zelako ideiak kuraie eman zion eta kuraiarekin haren indarrak itzuli ziren. Markesa desesperatua izanik, phen-satzen hasi zen, eta nahi izan zuen bizi bere semearentzat.

Urthe bat phasatua zen hok oro gerthaturik, Dominika jin zelarik jauregira eta hil zelarik Piarresen besoetan haur bat uzten ziolarik.

Haren aitzinean othoitzean egonik, Piarres xutitu zen eta haurra besoetan harturik joan zen kanporat oihuz:

–Jaun Salbador! Jaun Salbador!

Haurra, josteta ari zena⁵⁴ jauregiko emazte baten aitzinean, jin zen lasterka. Bortz urthe zituen, haren ile belx kuskulatuak erortzen ziren haren lephoan behera; haren begi ezti handietan ikhusten zen haren adineko haurretan ikhus-ten ez zen inteligenzia handi bat. Biziki ontsa mintzatzen zen jadanik, eta kon-prenitzen zituen ikusi guziak.

–Beha zazu zer haur ederra -erran zion Piarresek, erakusten ziolarik Dolores.

(VIII)

–Panpa bat, -dio Salbadorrek, hunkitzen zuelarik.

–Bai, haragiz eta hezurrez -ihardetsi zuen Piarresek-, panpa bat fite handi-tuko dena eta zurekin jostetan ariko.

–Noiz? -galdetzen du Salbadorrek.

–Xutik joiten denean -ihardesten du Piarresek.

–Ekharzu beraz alde huntarat -dio haurrak.

Eta harturik Piarres besotik, ereman zuen sukaldetako alderat⁵⁵ berak egin zuen katura ororer erekuts zezan.⁵⁶ Hau arras kontent zen haur haren beretzat izaiteaz eta orok besarkatu zuten.⁵⁷ Sehi guziak muntatuak⁵⁸ ziren Piarresen eta Salbadorren aldera eta bakhotxak khondatzen zuen ixtorio gisa.

⁽⁵⁴⁾ zeno (EH). *El niño, que jugaba (...)*. (1886:36). *L'enfant, qui jouait (...)*. (1879:26).

⁽⁵⁵⁾ *sukaldetako alderat*: gazteluko sukaldeen ari da. *le llevó hacia el lado de las cocinas (...)* 1886:37). *l'entraîna du côté des cuisines (...)* (1879:26).

⁽⁵⁶⁾ *catura ororer erekuts zezan* (EH). *katura*: aurkikuntza, atzemako. *erakuts*: baldin *erekuts* izan behar badu, aldaera hori ez dugu ikusi OEHN. (...) *el lindo ballazgo (...)*. (1886:37). (...) *la belle trouvaille*. (1879:26).

⁽⁵⁷⁾ Dolores besarkatu zuten.

⁽⁵⁸⁾ *muntatuak*: bilduak. *Los servidores estaban reunidos formando un grupo alrededor de Pedro y de Felipe. Cada cual contaba historias*. (1886:37). *Le petit group des serviteurs était réuni autour de Coursegol et de Philippe. Le premier racontait comment cette fillette avait été arrivée, (...)*. (1879:26).

Piarresek khondatzen zuen Dominikaren ixtorioa; eta orok pena hartzen zuten Mariana hetara jiten delarik,⁵⁹ hari kasu emateko beizik ez zen emazte batez lagundua. Egun guzia joan-jinka ibiltzen zen jauregiaren alde guzietan; gaixoak ez zuen nehor ezagutzen, ez bere senharra, ez eta bere semea ere.

Deusik trixteagorik emazte eder haren ikhustea –bixta nahasia, ileak desordrean eta oihuka– beizik. Hari ematen ziozkaten soinu guzien gatic,⁶⁰ ikhusten zen hartan erho bat. Memento hartan egur puxka bat zaukan bere bulharren aldean; urhats ezti batean zoan iduri lokharrarazi behar zuela bere alaba uste zuen hura. Marianak behatu zion phasatzean Salbadorri, eta burua higitzen duelarik erraiten du:

–Nor da hori? Hori ez da nik bilhatzen dutana.

Begiak alxatzean ikhusi zuen Dolores, lo zagona Piarresen besoetan; hain fierki behatu zion, nola ixtant berean ideia bat jiten baitzaio Piarresi burura,⁶¹ eta zoinak argitu baitzuen argi biziarekin.

–Zeruak!... posible ditakea... ni... ah!⁶² Urrunt ziezte, ereman zazue jaun Salbador eta jaun markesa hunat ekharraraz zazue.

Oro urrundu ziren. Mariana, bere egurra botaturik, nigarrez bertze zerbeiten bilha abiatua zen. Piarresek phausatzen du haurra alkhi baten gainean eta badoa gardiatzera leiho baten gibelera, handik ikhusteko ikhusia izan gabe. Han harrapatu zuen markesak Piarres.⁶³

–A!, jaun markesa -dio Piarresek-, uste dut madama salbatua dela, zeruak ideia bat eman daut; bainan tronpatzen baniz, madamak hilten du haurra -segitzen du tristeki Piarresek.

(⁵⁹) (...) y todos estaban llenos de compasión, cuando apareció la Marquesa, á quien acompañaba siempre una mujer destinada al efecto. (1886:37). (...) et chacun s'extasiait et s'apitoyait sur l'étrangeté de l'aventure, lorsque tout à coup la marquise parut. La pauvre créature, depuis que sa folie avait éclaté, était toujours suivie de près par une femme spécialement attachée à sa personne. (1879:26).

(⁶⁰) zoinu guzien gatic (EH). ematen ziozkaten soinu guzien gatic: nahiz ongi artatua zen. soinu: arta. A pesar del cuidado que de su persona tenían, se veía en ella á una loca. (1886:38). (...) quelque soin qu'on prit de sa personne, révélaient la folle. (1879:27).

(⁶¹) bain... nola bait- + adizkia joskera aski bakana da euskaraz. Había en su mirada una fjeza tal y miraba á la niña con tanta persistencia, que una idea imprevista como extraña cruzó por la imaginación de Pedro y le alumbró con viva luz. (1886:38). elle regardait l'enfant avec tant de persistance, qu'une pensée aussi étrange qu'imprévue traversa l'esprit du garde, l'éclaira comme une vive lumière. (1879:27).

(⁶²) Ceruak!... posible ditakea... ni ah! (EH). –¿Cielos!.. será posible... Yo... ¡Ah! (1886:38). Ciel! s'écria-t-il, serait-ce possible? (1879:27).

(⁶³) Piarresi (EH). Allí fue donde el Marqués encontró á Pedro. (1886:39). C'est là que le marquis vint le trouver. (1879:27).

–Zer diok? Zer egin duk? Ez da oraino malhurrik aski ene etxean gerthatu? Hail⁶⁴ fite, laster egin zak.

–Berantegi da, beha zazu.

Ixtant bat beha egon eta Mariana haurrari hurbildu zen. Behatzen zakon besoak hedatuak zauzkalarik, hurbildu zen oraino, pot bat eman zuen haurraren kopeta garbian, berriz behatu zion, eta bat-batean hartu zuen bere besoetan bihotzari kontra tinkatzen zuela eta espakatu zen lasterka.

Hogoi urhatsen ingurua egin eta behatu zuen gibelerat ikhusteko nehok segitzen zuen.

Markesa eta Piarres harrituak zauden hatsik ezin hartuz.

Marianak besarkatzen zuen haur hura eztitasunekin, eta lehenbiziko aldian bere eritasun⁶⁵ guzian erran zuen:

–Estebe, ene alaba! Harrapatu dut ene alaba maitea!

Markesa kontentez ezin egonez joan zen bere emazteari buruz. Marianak ikhusi zuen heldu zela eta hari buruz abiatu zen,⁶⁶ irriz eta nigarrez erakusten zuela Dolores. Orduan erortzen da bere senharraren besoetarar ezagutzarik gabe.

–Salbatua da -dio Piarresek, bere nausia segitzen zuenak.

–A! Posible ditakea? -zion markesak-. O! Ez dezaket sinhets ikhusten dutana, iduritzen zaut imposible dela.

–Jaun markesa, ezagutu zaitu, arrazoina jin zako eta berriz amatu da.⁶⁷

Biek ereman zuten Mariana ofearen gainera eta Piarresek eman zion konseilu markesari siheska⁶⁸ batean ezar zezan haurra madamaren ganberan. Nimera joan ziren mediku bilha eta hirur orenen buruan jin zen medikua.

Ezagutza jin zitzaionean, Marianak galdegin zuen Dolores.⁶⁹ Eta erakhutsi ziotenean, lokhartu zen. Noizetik noizera ametsetan erraiten zituen hitz hauk:

(64) hail fite laster eguin zac (EH). *bail*: habil!, Joan hadi!

(65) iritasun (EH).

(66) *Elle le vit venir, fit quelques pas au-devant de lui, riant et pleurant, lui montrant l'enfant (...)*. (1879:28). *El Marqués, loco de alegría, se precipitó a su lado, la vio venir hacia él, dió algunos pasos riendo y llorando enseñando a Dolores*. (1886:40). Pasarte honetan euskarazko moldapenak frantsesezko testuaren eite du; gaztelerazkoa piska bat desberdina da.

(67) *amatu*: ama bilakatu. *la mère s'est de nouveau révelée*. (1879:29). *la madre se ha revelado de nuevo*. (1886:40).

(68) *sibeska*: sehaska.

(69) *galdegin zuen Dolores*: Doloresen galde egin zuen; Doloresengatik galdetu zuen. Ik. behe-rago Goiz batez markesak galdegin zuen Piarres. *la Marquesa preguntó por Dolores; se la enseñaron y volvió á dormirse (...)* (1886:40). *Au premier cri poussé par elle, on lui avait montré Dolores endormie*. (1879:29).

–Alaba maitea! Alaba maitea!

Iratzartzen zenean beha jartzen zen haurrari, eta hala-hala egoiten akhitu artio.

–Ez dut hemen deus egitekorik -dio medikuak-. Arrazoina itzuli da, gelditzen zakon flakeza phasatuko zako zonbeit egunen ofearekin eta alimentu⁷⁰ azkharrarekin.

Memento hartarik goiti Mariana azkhartzen hasi zen arrazoin xuxenean⁷¹ eta jin zen mementoa non, senarra ezagutu ondoan, ezagutu baitzuen bere semea. Orduan erran ahal ukhan zioten beldurrik gabe zer gisetan jina zen Dolores jauregirat. Handik hirur hilabetheren buruan Mariana arras sendatua zen. Goiz batez markesak galdegin zuen Piarres⁷² eta erran zion:

–Eman nean Dolores, nahi detak gibelerat eman? Nahi duk ene alaba izan dadin?

–Puxka bat enea ere izanen da; hartzen ahal duzu, jaun markesa, prestatzea ez da galtzea, haren aldean biziko naizenaz gerroz bethi; gisa hortan izanen gira bida⁷³ maithatzeko.

Gisa hortan buhamuaren alaba, ama galdurik ere, ez zen ume xurx geldituko.

(70) alimatu (EH). Guk *alimentu* ezarri dugu, izan ere *alimentu* forma ageri da XLVIII. atalean; *alimatu*, ordea, ez dakigu inon badenez, OEHN ez dugu ikusi behintzat. *la gran debilidad que la queda todavía se curará con los cuidados y una calma absoluta.* (1886:41). *la grande faiblesse qui reste encore cédera à des soins vigilants et à un calme absolu.* (1879:29).

(71) *Desde aquel día se arraigó lentamente, pero con seguridad, su existencia: (...)* (1886:41). *A dater de ce jour, elle se rattacha lentement mais sûrement à l'existence.* (1879:29).

(72) *Una mañana el Marqués llamó á Pedro (...)* (1886:41). *Un matin, le marquis manda Coursegol dans sa chambre.* (1879:30).

(73) *bida*: bia, bi.

III. PHARTEA.

DOLORESEN HAURTASUNA

(IX)

Dolores dohatsu hazi eta handitu zen Chamondrineko jauregian, maithatua Graziana izan balitz bezala. Graziana bera zela ilusionatu zen Mariana, bai eta ere gaineratekoak.

Graziana izan balitz bezala Dolores zen Salbadorren lehen jostetan artzeko laguna, zeinak¹ deitzen baitzuen anaia.

Berak,² aphaltzen zuelarik bere buru horia Marianaren bulharretaraino, deitzen zuen ama.

Estebe markesak ere maite zuen alaba izan balu bezala.

Piarresak hain maite zuen non ez baitzuen tratatzen nausien haurra izan balitz bezala, bainan bai berea izan balu bezala. Gaineratiko sehiek berdin errespetatzen zuten³ Salbador nola Dolores.

Hitz batez, Chamondrineko jauregiko adixkidek errespetatzen zuten manera berezi batez haur xarmant hura zeinaren presentziak ezarri baitzuen berriz dohatsutasuna⁴ etxe hartan.

Erran behar dugu Dolores erran ditekenez beino haur ederragokoa zela.⁵ Iduri

(1) (...) Dolores zen Salbadorren lehen jostetan artzeko laguna zeinac deitzen baitzuen anaia. (EH). *artzeko*: artzeko. *zeinak*: Doloresek. Joskera bortxatua da, baina halakoak, moldapena arretarik gabe egina dela erakusten dutenak, behin baino gehiagotan ageri dira. *El primer compañero de los juegos de Dolores fue Felipe de Chamondrin, á quien llamaba hermano.* (1886:42). *Le premier compagnon de ses jeux fut Philippe de Chamondrin, qui la nommait sa soeur.* (1879:31).

(2) *Berak*: Doloresek. *Ella misma*, (...) (1886:42). *Elle-même*, (...) (1879:31).

(3) errespetu zuten (EH). Hurrengo esaldian ere errespetatzen zuten ageri da. *Los demás servidores tenían igual respeto para Dolores que para Felipe.* (1886:43). *Quant aux serveurs, ils témoignaient à Dolores et à Philippe un égal respect.* (1879:31).

(4) dohatsutasunaz (EH). (...) *cuya presencia había traído otra vez la felicidad á aquella casa.* (1886:43). (...) *l'enfant dont la présence avait guéri la marquise.* (1879:31).

(5) Ohikoagoa, agian, erran ditekenez beino ederragoko haurra. *Hay que decir que Dolores era la criatura más linda que se puede imaginar.* (1886:43). *Il est vrai de dire que Dolorès était la plus ravissante créature qu'on pût aimer.* (1879:31).

zuen amari iduria atherako zela; ile hori berak zituen, begi barne belx berak,⁶ karater eta botz ezti bera.⁷

Estebe markesari eta Piarresi iduritzen zitzeen alabaren ikhustea amaren ikhustea zela, alaba[k] ama[k]⁸ bezala bihotz jenerosa zuen, imajinazionea bizia; eta erraiten zuten ardurak Dolores bizi zeno ez zutela Dominika ahantziko.

Haren inteligenzia idekitzen zen erran ez ditaken bezain aise markesak eta haren esposak emaiten zioz[ka]ten leitziontarat.⁹ Haren memorian orhoitzapen guziak finkatzen ziren segurki.¹⁰

Maithagarria zen, hona, ezti; eta bere burua maitharazten zuen inguratzen zuen guzieri.¹¹

Salbadorrek hanitz eta hanitz maite zuen bere arreba.

Doloresek beino bortz urthe gehiago zituen. Hau trabiesa¹² zen, erdi gaixtoa sehientzat, jadanik nausi nahi zuen izan, baina horiek phasatu behar zitzazkon adinarekin eta horien azpian gordetzen zuen bihotz hon eta jeneros bat, naturaleza azkar bat eta borondate handi bat. Orai ere Doloresen aldean hona da eta ezti.¹³

(6) begui barneac belch berac, (...). (EH). Guk *begi barne belx berak* ezarri dugu; bestela, *begi barne eta belx berak* jar daiteke. Bata eta bestea ondoko egituren alderako simetrikoak dira. Bortxatua litzateke, ordea, *begi barneak, belx berak* (?). *tenía el mismo pelo rubio, los mismos ojos profundos y negros, (...)* (1886:43). *C'étaient les mêmes cheveux blonds, les mêmes yeux profonds et noirs, (...)* (1879:31).

(7) carter eta (...) (EH). *la misma energía, la misma dulzura de carácter y de voz.* (1886:43). *la même énergie, la même douceur de caractère et de voix.* (1879:31).

(8) alaba ama (EH).

(9) (...) emaiten ziozten leitziontarat. (EH). Guk *ziozkaten* ezarri dugu *ziozten*-en ordeztu, zuzenagoa eta ziurragoa delakoan (*ziozkaten/ziozkiten* erabiltzen dira edo ziren Uztaritzen, Ezpeleta eta Zuraiden: Yrizar 1999a). *leitziontarat*; lezioetara. Lerro batzuk beheago, *leitzoneak*. *Su inteligencia se abría con maravillosa facilidad á las lecciones que le daba el Marqués.* (1886:43). *Son intelligence s'ouvrait avec une merveilleuse facilité aux leçons que le marquis lui donnait.* (1879:32).

(10) *segurki*; *segurtasunez*. *los recuerdos se fijaban con seguridad.* (1888:43). *les souvenirs se fixaient avec sûreté.* (1879:32).

(11) *inguratzen zuen*; *inguratzen zuten*. *Moldatzaileak zuen, duen eta zuten, duten* elkarrengandik bereizten ditu ia beti, baina lau kasutan gutxienez *zuen, zuela* edo *duen* horiek 'zuten', 'zutela' eta 'duten' adierazten dute. Yrizar-en adizkitegian (1999a, 1999b, 2002) ez dugu aurkitu *zuen* 'zuten' adizkiaren lekukotasunik. Baina guk, badaezpada, nahiago izan dugu EHko edizioan dagoen moduan utzi, zuzendu gabe. Ik. halako kasuak X eta XL kapituluetan. (...) *y se hacía querer de todos los que la rodeaban.* (1886:43). (...) *déjà chère à tous ceux qui l'approchaient.* (1879:32).

(12) *trabieza* (EH). *Salbadorrez mintzo da. Él era un muchacho travieso, casi brutal, algo vano de su nacimiento; (...)* (1886:43). *C'était un gros garçon, bruyant, presque brutal, quelque peu vain de sa naissance, (...)* (1879:32).

(13) *orai ere*; *orain*, *bada* (?). *Doloresen aldean*: *Doloresen aldean zelarik. (...)* *pero estos defectos debían pasarse con la*

Aski zen ikhustea zenbat kasu egiten zakon arreba maite hari.¹⁴ Baratzean promenatzen zabiltzalarik ekhertzen zituen bidetik Doloresi min harraraz zezaketen edo eroraraz zezaketen harriak. Mahinean deus onik zuenean bere azitan,¹⁵ ematen zakon Doloresi. Balin bazuen arropa berri bat ez zen akhitzten beha, erranez ederra zela, eta musuak emanez ile frisatu¹⁶ hori eder hetan. Nahi balin bazuten Salbador gaztigatu, Doloresen ikhustetik beiratzten zuten. Iruski gaztigu handi hunek gaztigatzen zuen hainbertze haren arreba nola hura, gisa hortan ez zen enpleatzen okasione handitan beizik.

Haurren alegriarik handiena zen Piarresekin promenatzerat joitea, alegria bera zen Piarresentzat haur xarmant heiekin paseatzea. Jausten ziren lehen Dominikak haurra lepho ondoan iragan zuen mendixka hari behera Gardoneko hur bazterreraino. Han hur bazter hartan sorthua zen Dolores, gauza hori Piarresek ere ez zakien eta sekula ez zuen Doloresek jakin behar. Primaderan joiten ziren ardurenik hur bazter hartarat promenatzerat primaderako goiz xarmez¹⁷ betheetan Franziako eguerdi aldean. Kanpoak oro lorez betheak ziren. Xoriak kantuz beren kafiren egiten ari ziren. Piarresek gauza horiek oro erakusten zezteen haurrer zoinen arimetan phizten baitzen naturalezaren handitasunaren neurtzeko su bat.

Jartzen zien¹⁸ sablearen gainean, xipak harrapatzen zizuten, kafiren bilha ebiltzen ziren, ontsa jostatzen ziren eta gauza frango ikhasten. Piarres bethi okasionerik galdu gabe heer mundua nola egina zen erakusten ari baitzen.

Gibelerakoan phasatzen ziren harroketarik gaindi (ezen buhamuak heen azpian egoiten zien), sartzen ziren buhamuak han ez zielarik harroken barnean, urrun baitzauden phensatzetik Doloresen sorlekhua zela.

Urthe guziez primadera eta larrazkenean buhamuak jiten ziren harrokan zonbeit denboraren phasatzera.

edad y ocultaban una naturaleza sensible, pero todos desaparecían cuando estaba al lado de Dolores (1886:44). Mais ces dehors, destinés à se modifier avec l'âge, cachaient une nature sensible et disparaissaient lorsqu'il était au près de Dolores (1879:32).

(14) Esaldi hau aurreko paragrafoaren barnean dago. Guk, gaztelania-frantsesezkoekin batera, paragrafo berrian kokatu dugu. *zenbat kasu egiten zakon*: nola zaintzen zuen, nolako arreba jartzen zion. *Había que ver las previsiones, los cuidados que tenía por ella. (1886:44). Il falloit voir de quelles prévenances, de quels soins il l'entourait. (1879:32).*

(15) *Mahinean*: mahaian. *azitan*: platerean.

(16) *frizatu (EH)*. *acariciando los ricitos espesos de sus hermosos cabellos. (1886: 44). Il ne se laissait pas de (...) caresser les boucles épaisses de ses blonds cheveux. (1879:32).*

(17) *charmes (EH)*. *xarmez*: xarmaz. *-(e)z instrumental pluralaren atzizkia dateke. durante las hermosas madrugadas de primavera tan llenas de encanto (...). (1886:44). (...) durant ces adorables matinées du printemps, si pleines de charme dans le Midi. (1879:33).*

(18) *Jartzen zien*: jartzen ziren. *se sentaban sobre la arena (1886:45). on s'asseyait sur le sable. (1879:33).*

Salbador eta Dolores heen beldur ziren, egun batez buhamu emazte zahar bat, dudarik gabe iduriturik Dolores Dominika iduria zela, hanitz denbora beha egon zitzeelakotz.

Miserable hotarik bat hurbiltzen zitzeelarik amoinaren¹⁹ galdetzera, haurrak ikharetan Piarresen besoetara joiten ziren, zoinak egin ahalak egiten baitzituen trankilarazteko. Promenada eder hok, bere aitak emaiten zazkon leitzoneak, amaren kariziak eta giristino berthuteen praktikak, liburu sainduak leitharaziz,²⁰ Salbadorren aldean phasatzen zituen orenak jostetan edo errekreazionetan, bethetzen zuten Doloresen bizia, egunak egunen ondotik bazoazin, haurrak uros ziren, kasu guti egiten zuten Parise handitik jiten ziren berrier, iduritzen zaioten²¹ hek hala-hala behar zutela bethi elgarrekin gozatuz bizi. Eta ez ziren ohartzen heien aita-amak trixtatzen hasiak zirela zeren eta erregek baitzuen partida hanitz eta ikhusten baitzuen gerla hurbil zela.

(X)

Markesa, bere adixkiden letrak errezebitu aldi guziez, trixteago eta trixteago zoon. Dolores heldu zen hamahirur urthetara deus eritasunik gabe osagarri honen, haren intelijenzia barreatzen eta hontzen ari zen.²² Hitzemaiten²³ ohore eginen zuela bere aita-ameri eta maite zituen bere bihotz guziaz.

Markesek ere beren alaba bezala maite zuten; bethi berekin atxiki gogo zuten hari zor zaiotenaz gainean²⁴ bizia, ezen harek sendarazi zuen Mariana. Bainen egun batez erranen zakoten nola jina zen jauregira, zonbat zor zioten, eta zer lekhu gora hartua zuen heien bihotzetan.

(19) amoineren (EH). *amoinaren*: limosnaren.

(20) *praticuac*, liburu sainduak leitharaziz Salbadorren aldean (...). (EH). *los libros piadosos de la Marquesa y las largas horas de recreo en compañía de Felipe*, (...). (1886:46). *les pieux enseignements de la marquise, les longues récréations en compagnie de Philippe*, (...). (1879:34). Liburuen aipamenean, ikus dezakegu gaztelaniazkoaren moldapena dela euskarazkoa, frantsesezkoak ez baitu liburu konturik aipatzen.

(21) *zayoten* (EH). Hemen *zaioten* 'zitzaien', X.ean 'zioten' (24. oh.). Egokiagoa dateke *zitzaieten*.

(22) *hari zen* (EH). *su inteligencia se desarrollaba y maduraba*. (1886:47). *son intelligence se développait et mûrissait*. (1879:34).

(23) *Hau da*: hitzematen zuen. Aditz laguntzailea ezabatua dago, edo bestela inprimategian ahantzia. *Elle promettait de faire honneur à ses parents adoptifs* (...). (1879:34). *Prometía hacer honor à sus padres adoptivos* (...). (1886:47).

(24) *zayotenaz gainean* (EH). *Hau da*: ziotenez gero. Zuzenagoa dateke *ziotenaz gainean* edo *zakotenaz gainean*, *baitzioten* edo *ziotenez gero*. Ik. hurren esaldian *zakoten* eta *zioten*.

Orai Salbadorrek hemezortzi urthe ditu. Muthiko gaitza zen²⁵ adinarentzat, kalitate honez bethea, haren baithan ikhusten zen zer odol nobletik atheratzen zen. Eta errespetuz bethea zen ailxatzen zuen izenarentzat.

Markesek ez dute ahantzi haurra sorthu gabe formatua zuten ideia, haur hari argiaraztea²⁶ mende hartan ahantzia zagon izen hura, zeina lehena izana baitzen Europako kortetan.

Egin zuten fortuna azkar bat bere malur guziekin, eta markesek nahi zuketan Salbador Pariserat igorri, lau edo bortz urtherentzat, eta gero erregek emanen zakola²⁷ lekhu bat handia erregimenduan. Bainan beldur ziren haur gazte haren mundu galdu hartarat igortzeko. Mundu eskandalaz bethe hainbertze gaizki haren aiter egin zioten²⁸ hartarat.

Delfin sorthu²⁹ zen urthe hartan, markesaren inketadurak ekhendu zituen,³⁰ ezen ikhusi zuen berriz monarkia segur zela, eta bibak egin ziuzten³¹ bai erregeri bai sorthu berriari.

(25) Orai Salvadorrek hemezortzi urthe ditu muthico gaitza zen adinarentzat (...). (EH). Euskarazko moldapenean denbora komunztadurarik ez da. *Felipe llegaba á la edad de dieciocho años. Ya era un bravo caballero, (...) (1886:47). Philippe atteignait sa dix-huitième année. C'était alors un fier cavalier, (...) (1879:35).*

(26) Marquesek ez dute ahantzi; haurra sorthu gabe formatua zuten ideya; haur hari arguaraztec (sic) (...). (EH). *Sin embargo, el Marqués no olvidaba los proyectos que había formado antes tocante al porvenir que reservaba á Felipe. / (...) acariciaba el sueño de (...) de realzar en él y por él el brillo de la casa de Chamondrin, demasiado olvidada desde la cuarta parte de un siglo. (1886:47). Cependant, le marquis ne perdait pas de vue les projets qu'il avait autrefois formés, touchant l'avenir qu'il réservait à Philippe. (...) il caressait, depuis la naissance de son fils, le rêve (...) de relever en lui et par lui l'éclat de la maison de Chamondrin, trop oublié depuis près d'un quart de siècle. (1879:35).*

(27) emanen zacoia (EH). emanen zakola: (pentsatuz) erregek emanen ziola (...). *Había podido realizar una buena suma con la cual podía atender, al menos durante cinco años, á las necesidades de Felipe, ó sea hasta el momento en que hubiese podido tener algún privilegio del Rey para entrar en el ejército. (1886:48). (...) il avait pu se créer (...) une bourse d'un poids assez respectable. Elle devait pourvoir, au moins durant cinq ans, à tous les besoins de Philippe, c'est-à-dire jusqu'au moment où il serait en état d'obtenir du roi quelque privilège ou d'occuper un emploi dans l'armée. (1879:35).*

(28) egin zioten: egin zien.

(29) sarthu (EH).

(30) Delphin sarthu (sic) zen urthe hartan marquesaren inketadurak ekhendu zituen ezen (...). (EH). Esan nahi baita: delfinaren sortzeak markesaren kezak kendu zituen. Delfin hori Luis XVII.a da, 1785 /03/27an sortua. *El nacimiento del Delfín sobrevino aquel año y dispó las inquietudes del Marqués. (1886:48). La naissance du Dauphin, survenue en cette année, dissipa les incertitudes du marquis. (1879:36).*

(31) Esaldi osoa da zinez traketsa. Subjektu komunztadurak huts egiten du. Zati honetan ere ez dakigu zein den subjektua, ez baita ageri eta, bestalde, *zuen* 'zuen' edo 'zuten' izan daiteke: markesak ikusi zuen? jendeek ikusi zuten? Bigarrena dirudi, gaztelania-frantses testuei ohartuta. (...) *el entusiasmo de la nación, que á pesar de sus males dió vivas al Rey y vivas al recién nacido. (1886:48). (...) l'enthousiasme de la nation qui, même du sein de ses maux, eut des cris d'allégresse en l'honneur du nouveau-né. (1879:36).*

Markesek beren ahideak eta adixkideak konsultatu eta ondoan preparatu³² zuten Salbadorren piaia.

Markesaren adixkide Penthievreko dukeak izkiriatu zuen markeser haren baithan Salbadorrek izanen zuela aita bat eta trankil uzten ahal zuela.³³

Bizkitartean inket ziren markesak zeren eta erregek partida handiak baitzi-tuen.³⁴ Fite jakin zuten hurrek zoin ziren markesen intenzioeak, eta ja bazaki-ten separatu behar zutela.³⁵ Gertakari trixte horrek nigarrak atherazten³⁶ zezten, bainan fite konsolatzen ziren, phensatuz oraino ez zela ethorria separatzeko tenorea, eta ez ziren gehiago orhoitzen presentekoaz beizik.

Bainan denbora airean joiten da zeren eta geroago uste dugun hura gutien ustean presente baita eta phensatu gabe phasatua.³⁷ Egun batez markesa prome-nan³⁸ zabilan phensaketatua, bat-batean oihu egiten du Marianari eta erraiten dio:

(32) dreparatu (EH). Beherago, *preparatzen*. *El viaje de Felipe se decidió, después que el Marqués hubo consultado con sus amigos y parientes (...)* (1886:48). *Le voyage de Philippe fut décidé.* (1879:36).

(33) *uzten ahal zuela*: uzten ahal zutela. Gogora zuen, zuela 3. perts. sing. nahiz plurala izan daitezkeela (ik. IX); beherago ere, atal honetan berean, *erakbusten zuen* 'erakusten zuten'. Hala ere, moldatzaileak gehien-gehienetan bereizi egiten ditu *zuen* eta *zuten*. (...) *después que el Marqués hubo consultado con sus amigos (...)*. *Uno, llamado Florian, contestó al Marqués que Felipe encontraría un padre en la persona del duque de Penthièvre, (...)* (1886:48). *Par l'entremise du chevalier de Florian, à diverses reprises commensal du château de Chamondrin, il avait obtenu la promesse que Philippe trouverai un appui vigilant auprès du duc de Penthièvre.* (1879:35). Ikus daitekeenez, euskarazko testua moldapena da.

(34) batzituena (EH). Badirudi EHko edizioak *ba-* eta *bait-* nahasi dituela (kasu bakarra da), edo bestela inprimategiko hutsa izan daiteke. Ik. *zeren eta errezebitu* batzituena XIX. (...) *á pesar de todo, el Marqués estaba muy inquieto porque aquel año, 1785, las hostilidades suscitadas alrededor del Rey se presentaban de un modo poco tranquilizador.* (1886:48-49). *Et cependant le marquis nourrissait de vives inquiétudes car, dès cette année, -on était en 1783,- les hostilités suscitées autour du roi s'accroissaient d'une façon inquiétante.* (1879:35-36). Ohargarria da data desberdinak ageri direla 1879 eta 1886ko edizioetan; gaztelaniazkoak koherentziaz jokatu du, delfinaren sortze data (1785) hartzen du abiapuntu; baliteke data hori 1879z geroztiko frantsez edizioen batetik (1885ko-tik?) hartuta zuzendu izana gaztelaniazkoak.

(35) EHko testuan ez da punturik eta ez komarik.

(36) *atherazten*: aterarazten. *Aquel triste acontecimiento les arrancaba lágrimas amargas; (...)* (1886:49). *Cette pensée leur arrachait des larmes toutes les fois qu'elle se présentait dans leurs entretiens.* (1879:36). Euskarazkoa gaztelerazko-tik itzulia dela nabari da.

(37) *Pero el tiempo vuela; lo que nos asusta poco, porque es el devenir ó lo eventual, se hace á su vez el presente, es decir, la realidad.* (1886:49). *Mais le temps vole; ce qui nous effrayait peu, parce que c'était l'avenir, c'est á dire l'éventualité, devient á son tour le présent, c'est-à-dire la réalité.* (1879:36). Euskarazko itzulpenak Axularren moldekoa dirudi (mol-datzaileak ezagutzen ote zuen Axularren obra?).

(38) premenan (EH).

–Salbadorrek behar du fartitu hilabete hunen ondarrean (urria zen) eta nahi dut Piarres horrekin joan dadin ezen ez dut uste hori beino konpainero³⁹ segurragorik eman nezakeen.

Berri horrek joan zuen Doloresen bihotzeko bakea ezen maite zuen hanitz Salbador. Ez zena haren anaia? Haren protektora? Haren jostetako eta promenatzeko laguna? Eta posible zena galdu behar zuela?⁴⁰

Salbadorren aldeko guziek pena hartu zuten berri horren jakiteaz, amak Doloresek bezanbat; bizkitartean ama ez zen gelditzen hari erakrustetik piaia hura nesesario zela harentzat⁴¹ nola Salbadorrentzat. Haur gaixoak ez zuen gauza bat beizik konprenditzen, anaia ekhentzen ziotela eta ez zuela gehiago ikhusiko hanitz urthez eta menturaz sekula.

Bizkitartean erresignatu behar izan zuen; ez zuen Salbador memento bat ere uzten azken egun hetan.

Zonbat ilusione egin zuten itzultzen zeneko! Zonbat esperantza konsolagarri nigar khibitsez⁴² bustiak!

Salbador, serio bere paper berrietan,⁴³ hitz emaiten zakon Doloresi ez zuela sekula ahantziko, bethi hanitz maithatuko zuela.

Memento hek phasatu ziren senditu gabe, eta separatzeko orena jin zen fitegi haren beldurrez zaudenentzat.

Fartitzeko egunean markesak oihu egin zion Salbadorri, hau baratzean zen eta etxeko alderat heldu zelarik [ikhusi zuen] Piarres malen⁴⁴ preparatzen ari zela eta manatzen zuela sehier karrosaren gainean ezar zitzaten mala eta puska guziak.

Piarresen aldean xutik zagon Dolores behatzen zuelarik trixteki preparazione horier guzier, eta nigarra zariola. Haren begi hantuek eta begitharte akhituak

(³⁹) *compagnero* (EH).

(⁴⁰) *posible zena (...)?*: posible ote zen (...)?

(⁴¹) (...) harentzat (EH). *hari erakrustetik*: Doloresi erakrustetik. *nesesario zela harentzat*: beharrezkoa zela Doloresentzat.

(⁴²) *nigar khibitsez* (EH). *nigar khibitsez*: Hau da: negar kiratsez. *¡Cuántas esperanzas consoladoras mezcladas con amargas lágrimas!* (1886:50). *Que d'espérances consolatrices mêlées aux larmes amères de ces heures cruelles!* (1879:37).

(⁴³) EHko testuan ez da komarik batere paragrafo honetan. *Felipe, serio, formal y grave como lo exigía su nuevo papel, (...)* (1886:50). *Philippe, sérieux, grave, ainsi que l'exigeait son nouveau rôle, (...)* (1879:37).

(⁴⁴) heldu zelarik Piarres malen preparatzen ari zela eta manatzen zuela sehier (...) (EH). *malen*: maleten. Aditza txertatu dugu: *ikhusi zuen*. *Vió á Pedro que hacía algunos preparativos para el viaje y mandaba á los criados poner los baules sobre el coche (...)* (1886:50-51). *En traversant la cour, il vit Coursegol qui surveillait les préparatifs du départ. Des valets, obéissant á ses ordres, chargeaient les malles sur un char-à-bancs (...)*. (1879:37).

erakhisten zuen⁴⁵ aitzineko gauean ez zuela lorik egin. Bainan, hala ere, hain ederra zen nun Salbador xoratua edertasun hortaz, lasterka haren ganat joan baitzen, eta besarkatu zuen hitz konsolagarriak erraiten zazkolarik.

–Ai! Ene Salbador maitea! Zerentzat uzten gaituk? -erraiten zuen nexkatoak botz ezti ikharetan zagon batekin.

–Behar dut joan -ihardetsi zuen Salbadorrek-, ene honetan, hire honetan, ez dakin gure aitak nahi duela? Harek manatzen du,⁴⁶ ez dut obeditu behar?

(XI)

–Hori da nik andereari erraiten nakona -dio Piarresek hurbiltzen zelarik haurrer-. Jaun markesak Salbador igorriz bere eginbidea egiten du, zeren eta fite jaun Salbadorrek fortuna handi bat eginen baitu, eta ohorez betheak berriz elgarretarat juntatuko gira; ez zintake orduan zu biziki uros izan?⁴⁷

Gisa hortan mintzo zelarik Piarresek bere pena gordetzen zuen, ezen ez zen sendimendurik gabe Doloresen ganik separatzeaz.⁴⁸ Haur eder hura kasik harena zen ezen mundura jin zen haren besoetan, haren aldean edukatu zen eta maite zuen bere alaba ukhan balu bezala. Hortakotz, kontent balin bazen Salbadorren lagun joiteaz, bihotza erdiratzen zitzaion phensatzean Dolores utzi behar zuela. Piarresen hitzak, nahasiak Salbadorren karesarekin,⁴⁹ iduri zuten konsolatzen zutela puxka bat. Nigarretik gelditu zen, bainan bat-batean erran zuen:

–Ez nauk ahantziko hainbertze gauza eder den mundu hartan? Ez hiz ene

(45) Hemen berriro zuen ‘zuten’ ageri da, IX. atalean bezala, EHko edizioan. *Sus ojos húmedos, sus facciones descompuestas indicaban que su dolor durante la noche había alejado de ella el sueño.* (1886:51). *Ses yeux rougis, encore humides, ses traits défaits, tout indiquait que sa douleur avait, durant la dernière nuit, éloigné d’elle le sommeil.* (1879:37).

(46) harec manatzen du? (EH). *No sabes que lo desea nuestro padre? Manda. ¿No debo obedecer?* (1886:51). *Il ordonne; ne dois-je pas obéir?* (1879:38).

(47) ez zintake orduan zu biziki uros izan?: ez zinateke orduan zu oso zoriontsu izango? *Ez zintake (...) izan?: baldintza alegiazkoetan ondorioa adierazten du; ekialdean erabilia da. ¿No seríais vos entonces muy dichosa?* (1886:51). *Ne serez-vous pas heureuse alors, mademoiselle?* (1879:38).

(48) (...) *porque si estaba contento con acompañar a Felipe no era sin una dolorosa opresión de corazón por separarse de Dolores* (1886:51). (...) *car, s’il était heureux d’accompagner Philippe, ce n’est pas sans un douloureux serrement de coeur qu’il allait se séparer de Dolores.* (1879:38).

(49) Agian zuzenagoa da karesekin. *Estas palabras, mezcladas a las caricias de Felipe (...)* (1886:52). *ses paroles, mêlées aux caresses de Philippe (...)* (1879:38).

maithatzetik geldituko?⁵⁰

–Nik hi ahantzi?⁵¹ Ni hire maithatzetik gelditu? Nahi balin banu ere ez nezake -dio Salbadorrek, harritua haren arrebak halako duda bat izaitez-. Ez hut sekula ahantziko, sekula ez nun hire maithatzetik geldituko.

Hitz horiek erran zituenean ikhusi zuen ama heldu zela. Hartu zuen Dolores besotik eta bere amaren besoetan ezarri zuen; besarkatu zituen biak eta lasterka juan zen aitaren ganberara.

Hau⁵² bere apertemenduan promenari zabilan, iduri zuen khexu zela eta nigar hanitz egin zuela; arras penatua zen bere seme bakharraren ganik separatzeaz.⁵³

–Deithu nauzia,⁵⁴ aita maitea?

–Bai, haur maitea, jar hadi; mintzatu behar haut. Juan behar duk, seme maitea. Zonbeit orenen buruan hire buruaren nausi izanen hiz. Ez nuk hire aldean izanen gehiago; hire ama ere ez hire laguntzeko, eta hire izaitea gaixtonera heltzen dunean⁵⁵ galtzen gaituk. Erran zakeat⁵⁶ Piarresi hirekin juan dadin zeren eta harek konseilu honak emanen baitauzkik. Segituko dituk egiazko adixkide batenak bezala. Bizkitartean behar duk kostuma hartu ontsa phensatzea, segitu

(50) ez hiz ene maithatzetic gueldituko! (EH). ¿No vas á cesar de quererme? (1886:52). *Ne cesseras-tu pas de m'aimer?* (1879:39).

(51) Nic hi ahantzi! (EH) –¿Yo olvidarte? (1886:39). –*Moi t'oublier?* (1879:39).

(52) Han (EH). *Este andaba en su habitación (...)*. (1886:52). *Celui-ci marchait dans sa chambre (...)* (1879:39).

(53) separatzeo (EH). Lerro batzuk gorago irakurri dugu *Doloresen ganik separatzeaz; separatzeaz* hitzeko instrumental kasuak (-z) kausa adierazten du hor eta hemen ere bai. Bestalde, *penatua separatzeo* egitura ez dateke zuzena (ez dugu ikusi, behintzat, OEHn). Horregatik ezarri dugu *separatzeaz, separatzeak* baino seguruagoa delakoan (ik., hala ere, *Kruelki penatua markesaren galtzeak, (...)* XVIII. atalaren hasieran). *Estaba muy afligido por separarse de su querido hijo.* (1886:52). (...) *affligé du départ de son fils.* (1879:39).

(54) –*Deithu nauzia, ...?* Deitu nauzu (...)?

(55) hire izaitea gaixtonera heltzen dunean galtzen gaituk (EH). Nahiz euskara kanonikoan *gaixtoenera heltzen denean* izan behar lukeen, guk errespetatu ditugu EHko *dunean* eta *gaixtonera* fonetismoa, erabiliak direlakoan edo zirelakoan. (...) *es en el momento en que tu existencia se transforma, en el instante más difícil de la vida en el que te vamos á faltar.* (1886:53). (...) *c'est au moment où ton existence se transforme, où les circonstances vont peut-être devenir difficiles, que notre appui te manquera.* (1879:39).

(56) Atal honen bukaeran ere *zakeat* ([Doloresi] *erranen zakeat berantsago*). *He dicho que Pedro vaya contigo* (1886:53). *J'ai décidé que Coursegol t'accompagnerait* (1879:39).

beino lehen;⁵⁷ gehiago dena, beitu⁵⁸ mementoak berheala opinione bat behar beitu jendeak. Orduan ez zakala nehor konsulta hire burua beizik.⁵⁹ Faltarik ez egiteko, seme maitea, eta hon izaiteko, grabatzik hire bihotzean eta hire memorioan erranen ditudan hitzak.

Markes Estebe baratu zen ixtant bat eta gero erran zuen:

–Jainkoa, erregea eta hire herria. Hori duk hire biziaren ithurria. Biziko hiz sozietate hanitz diferentetan. Harrapatuko dituk gizon sinetsgogorrek eta gaixtoak. Urrunt hadi heien ganik, ez zakala heien etsenplurik har, eta egin edo mintzatu gabe galda zak hire buruari hea eginen edo erranen dukana hire fedeari zor diokan, ohoreari, Frantziari eta hire erregeari doana den.

Gisa hortan mintzatu zitzaion bi oren Salbadorri. Bainan erran ziozkan guziek ez zioten deus erakhutsi zeren eta hori ez beitzen markesak ordu artio eman ziozkan leitzonen⁶⁰ eta konseiluen totala beizik.⁶¹

Salbadorrek hitzeman zion ez zela sekula harek ezarri lerrotik atherako eta bizi zeno orhoituko zela harek eman konseiluez. Eta aita[k],⁶² boza kanbiatuz, erraiten dio:

–Orai behar deat konfidentza bat egin, uzten dukanaz geroz etxea zonbeit urtherentzat menturaz.

–Zer da?

–Dolores ez duk hire arreba.

–Dolores! eta beraz!⁶³

(57) *kostunna hartu ontsa pentsatzea: kostumatu edo kostuma harturen perpaus osagarri jokatugabearen aditzak -tzen, -tzera edo -tzea hartu izan du tradizioan, OEHren arabera. segitu beino lehen. Piarresen kontseiluak segitu baino lehen. Los escucharás como si fuesen de un amigo verdadero; pero acostúmbrete á pensarlos bien antes de seguirlos, (...) (1886:53). Tu les écouteras comme venant d'un ami, plus encore que d'un serviteur; mais pour t'accoutumer à devenir homme, tu ne dois pas les suivre, ni ceux-là ni d'autres, sans les avoir raisonnés. (1879:39).*

(58) *beituk: baitituk (beit + tuk). tuken ('dituk') erabilera dokumentatua dago Baigorri, Banka, Ezpeleta, Zuraide eta Aezkoan (Yrizar:1999a: 94, 312, 621). y además en la vida hay casos que necesitan en seguida una opinión; (...) (1886:53). Puis il est des cas où la rapidité des décisions est nécessaire. (1879:39).*

(59) (...) yendeac; orduan eztzaçala nehor consulta (...) (EH). entonces, no consultes á nadie más que á tí solo. (1886:53). (...). Si tu n'as pas alors le temps de consulter ceux qui ont ta confiance, il faut que tu puisses agir par toi-même, aussi sûrement que si tu avais pris conseil d'eux. (1879:39).

(60) leitzonen (EH). Ik. leitzoneak IX (baina leitziontarat IX). Hau da: lezioen.

(61) *no era más que el resumen de los consejos y de las lecciones de su padre. (1886:53). C'était, en quelque sort, le résumé des conseils et des leçons qu'il lui avait toujours donnés. (1879:40).*

(62) aita (EH).

(63) *-¡Dolores! Pero entonces!... (1886:54). -Dolorès! Mais alors... (1879:40).*

Salbador baratu zen; ez zen atrebitu aitari erraitea⁶⁴ haren burura bat-batean jin zen phensamendua.

Aitari entzun ziozkanean hitz horiek alegeratu zen, eta aitak leithu izan balu semearen phensamendua ikhusiko zuen erraiten: “Dolores ez balin bada ene arreba, ene emaztea izan ditake”. Bainan gorde zuen eta aitak ez zuen deus phensatu ahal izan.

Doloresen ixtorioa hastetik buru khondatu zion markesak Salbadorri eta hunek ez zezakeen sinhets.⁶⁵ Haur adoragarri hura hainbertze aldiz bere promenadetan kausitu ziuzten buhamu itsusi basa hetarik othe zen? Ez zuen sinesten ahal ikhusten zuena eta bizkitartean bazakien bere aitak egia erraiten zakola. Lehenbiziko aldikotz sendimendu ezagutzen ez zuen bat jin zen haren bihotzera, ixtant hartan haurretik athera zen eta orai gizon bat zen.

–Ez duk hortakotz gutiago maithatuko -dio markesak-; Grazianaren tokia atxiki dik gure bihotzetan eta horri zor diauk hire amaren osagarria.

–Ez, ez, aita, sobera maite dut, nik ez dut gutiago maithatuko, hortako ez duguia bada horri zor hemen ene hurtasunetik hunat izan dugu bakea?

–Seme hon bat hiz -dio markesak nigarra begian eta besarkatzen duelarik-. Bethi behar duk maithatu, harek ez zakik egia; eta ez diat nahi jakin dezan oraino; erranen zakeat berantxago.

⁽⁶⁴⁾ *erraita*: erraitera. *Atrebitu* hitzak osagarritzat mende perpausa duelarik, arruntki *-tzen* (bizk. eta gipuzk.) edo *-tzera* hartu ohi du, baina bokal arteko *-r-*ren desagerpenaren ondoriozkoa dateke *-tzea*. OEHn badira Iraola eta Illarramendiren adibideak. (...) *no se atrevió á expresar en alta voz el pensamiento que acababa de presentarse en su imaginación*. (1886:54). *Il n’osait exprimer tout haut la pensée qui venait de se présenter à son imagination* (1879:40).

⁽⁶⁵⁾ eta hunek ez zezakeen sinhets haur adoragarri hura hainbertze aldiz bere promenadetan kausitu ziuzten buhamu itsusi basa hetarik othe zen (EH). Guk egokiagotzat jo dugu puntua jarrita esaldia moztu eta bukaeran galdera marka jartzea, hitzik aldatu beharrik gabe. Gainera, *othe* galdera-markarik gabe agertzen da beste behin ere EH edizioan (*Harec erran zazcon guziac guezurrac ote ziren XIX*) eta hor ere markarekin jarri dugu. Bestela, zuzenago zatekeen ondokoa: *eta hunek ez zezakeen sinhets haur adoragarri bura (...) buhamu itsusi basa hetarik zela*. Zeren ez baitirudi *sinhets* aditzak *-(e)n* onar dezakeenik. Gerta liteke itzultzailea nahastu izana, *sinhets* idatzi ondoan beste aditzen bat buruan gurutzaturik. *Felipe no podía creerle, y se extrañaba que esta adorable niña hubiese nacido de unas [sic] de aquellas jitanas que habían encontrado en los paseos*. (1886:54-55). (...) *Philippe, qui n’en pouvait croire ses oreilles, s’étonnait que l’adorable enfant fût née d’une de ces bohémiennes* (...) (1879:41).

(XII)

–O! sekula ez dut ahantziko, sekula ez niz horren maithatzetik geldituko -zion Salbadorrek boza ikharatzen zizakola eta aitaren aitzinean egin zituen promes berak egiten zituelarik.

Eta, harritua jakin zituenez, utzi zuen aita berriz Dolorezen gana joiteko.⁶⁶ Nahi zuen ikhusi oraino aldi bat fartitu gabe.⁶⁷

Hari hurbiltzarekin, haren bihotza pilpiratzen eta haren izaite guzia ikharretan zagon.

–Ez da ene arreba! -zion eta berriz erraiten zuen-. Ez balin bada ene arreba, ene emaztea izan ditake.

Orduan iduritu zitzaion bertze bat, kanbiatu ahal izan balitz bezala.⁶⁸ Lehenbiziko aldikotz ohartu zen esku adoragarriak zituela eta heien forma ezin erreproxatua zela.⁶⁹ Lehenbiziko aldikotz ez zuen atxiki ahal izan, ikhararazi gabe haren begi ederren argiak.⁷⁰ Lehenbiziko aldikotz ohartu zen ja emazte bat zela eta ez haur bat. Bere bihotzari kontra azkarki tinkatu zuen eta besarkatu, erraiten ziolarik:

–Ez, ez, sekula ez hut ahantziko, bethi maithatuko haut, geroago konprendituko dun hobeki.

Ez zen hari behatzetik gelditzen. Iduritzen zitzaion haren ilea perfumatua zela. Zonbat desiratzen zuen Doloresek egia jakina izan zezan⁷¹ bere sortzearen gainean, erran ahal izaiteko gero... Adoratzen hut!

⁽⁶⁶⁾ yoiteco (EH). XIII. atalean ere *borrat joitea* (EH *yoitea*); maiz ageri da aldaera hori. *joiteko*: joateko. Beste batzuetan, *joaiteko* (XIV). (...) *para ir a buscar á Dolores*. (1886:55). (...) *il quitta le marquis et la rejoignit*. (1879:41).

⁽⁶⁷⁾ Partitu baino lehen.

⁽⁶⁸⁾ *como si hubiese podido cambiar* (1886:55). (...) *comme si elle eût été une personne nouvelle*. (1879:41).

⁽⁶⁹⁾ (...) ohartu zen, esku adoragarriak zituela eta heien forma ezin erreproxatua zela. (EH). Guk koma kendu dugu. Bestalde, *erreproxatua* ezarri dugu; ik. *kupable kausitzen zen eta erreproxatzen zuen amodio hura krima bat bezala* XVIII. Baina *erreproxatua* ere izan daiteke. (...) *adorables manos, cuya forma era irreprochable* (1886:55). (...) *d'adorables petites mains blanches dont la forme était d'une irreprochable pureté* (1879:41).

⁽⁷⁰⁾ Komarik ez da EHko edizioan. Anakolutoa dateke; honela uler daiteke: ez zuen atxiki ahal izan haren begi ederren argia, ikhararazi gabe haren begi ederren argiak. *no pudo sostener el brillo de sus ojos negros fijos en él*. (1886:55). *il ne put soutenir l'éclat des yeux noirs fixés sur lui*. (1879:41).

⁽⁷¹⁾ Salbadorrek desiratzen zuen Doloresek egia jakitea. Adierazmolde bihurria, naturalagoa dateke *Doloresek egia jakin zezan*. *¡Cuánto hubiera deseado que Dolores supiese la verdad sobre su nacimiento para poder decirla después. . . ¡te adoro!* (1886:55). *Il aurait voulu que Dolores connût la vérité sur sa naissance et pouvoir lui dire ensuite: / –Je t'aime!* (1879:41).

Sendimendu berri bat sarthu zen autorizazionerik gabe hemezortzi urthetako bihotz gazte hartan, bihotz ignorant eta garbi hartan, eta berriz thirutzen zuelarik gerritik, bere bihotzari kontra zerratu zuen ziolarik eztiki:

–Bethi maithatuko hut, juramentu egiten denat. Orhoit hadi nitaz.

Errepostua emaitako orde, Doloresek behatu zion Salbadorri, eta bi besoak alxaturik lothu zitzaion lephotik, besarkatzen zuela, higiarazten zuelarik lehen haur baten eta orai gizon baten arima hura.

Bizkitartean horra fartitzeko tenorea. Karrosa abiatzen da aitzinean zeren eta hoinez joan nahi duten orok laguntzera, handik hurbil den herrixka bate-taraino.

Hirur orenetan abiatu ziren trixteki herriko alderat; Salbadorrek emaiten zuen besoa amari, behatzen zakolarik Doloresi zoina baitzoan markesaren eta Piarresen erdian. Trixteza handi bat leitzen zen haren begitartean. Trixteza! Memento hartan bazter guzietan zen, naturalezaraino.⁷² Larrazken ondarra zen. Haizeak atheratzen zituen arbolen adarretarik ondar osto horiak. Zeru ilhundu hartarik ez zen jausten argi puxka bat ere, gure penen ahantzarazteko edo arin-tarazteko.

–Begira hadi ontsa -zion Marianak bere semeari.

–Izkiriaturiko detak? -zion Doloresek.

–Izan hadi hona eta balientea -zion markesak.

Eta hirurek batean manatzen zuten Piarres ontsa kasu eman zezola.⁷³ Berriz besarkatu zuten, mintzo ziren eta [nigarrez] zauden oro.⁷⁴ Musu bat beizik ez! Besarka bat! Eta zaldiek ereman zuten.

Salbador jadanik urrun zen. Karrosa gordetzen zen erhautsezko lanhoetan eta izaitte maite Salbadorrek giblean uzten zituen hek galdetzen zuten bere buruari, harek egiten zuen bezala, hea ez othe zen separazione hura dolu bat izanen.

Markesek egin ahala eginik eta Doloresi Salbadorrek utzi zion hutsaren bethetzeko, hau hilabete bat nigarrez egon zen. Deseparazione handi eta ilhun bat haren bihotzaz jabetu zen.

(72) Esan nahi du: bai eta naturalezan ere. Euskarazko itzulpena ez dateke oso zuzena. *hasta en la Naturaleza*. (1886:56). *même dans la nature*. (1879:42).

(73) *ontsa kasu eman zezola*; Piarresek Salbadorri.

(74) *mintzo ziren eta zanden (sic) oro; musu bat beizik ez!* (EH). EHko edizioan falta den hitza ezarri dugu gure testuan: *nigarrez* (nigarrez zauden oro). Berriz besarkatu zuten (Salbador). *Le abrazaron todavía, lloraban, hablaban. ¡Nada más que un beso! ¡un abrazo!* (1886:57). *On s'embrassa encore! On pleurait! Rien qu'un baiser! une étreinte!* (1879:43).

Ez zitakeen konsola Salbadorren orhoitzapenaz⁷⁵ beizik. Iduri zuen kontent zela sofrituz, iduri zuen arima gazte hura sofritzeko beizik ez zela egina. Eta Salbador urrun izanik ere, hura zen bakharrik haren penari fin bat emanen zuena, eta harek konserbatzen zuen Dolorezen gainean ahal bat markesek⁷⁶ ez zutena.

Hilabethe baten buruan errezibitu zuen Salbadorren letrak gehiago ongi egin zuen haur arima hartan, bere aita-amen hitz konsolagarriek beino.

Izkiriaturen zuen Doloresi, khondatzen zakon bere arribada, Parisen zoin ontsa errezebitua izan zen bere aitaren adixkide Penthievreko dukearen eta Lamballeko prinzesaren etxean. Prinzesak eremanarazi zuen Versaillesetara eta presentatu Marie-Antonietari eta Luis XVI[.ari].⁷⁷ Dukeak bere etxerat hartu zuen, ikhusi arte erregek zer eginen zuen.

Prinzipio hona zuen Salbadorrek, bide honian aurkhitzen zen. Prinzesa interesatzen, Bretainara jun beharra zen fite dukearekin.⁷⁸

Hogoi urthe bethe beha zauden, harentzat erregimenduko konpainia bat erregeri galdegiteko.

Berri hon horiek alegerratu ziuzten Salbadorrek lehen aldikotz utzi zituen hirur izaita maite hek. Markesak izkiriatu zakon Penthievreko dukeari erremesiatzen zuela haren semearentzat zituen borondate hon guzietz eta fite errezebitu zuen errepostua.

Dukeak izkiriaturen zuen markesari haren plazerrik handiena izanen zela⁷⁹ Salbador etxe hari argiaren emaiten ikustea eta harek eginahalak⁸⁰ eginen zituela.

(75) orhoitzapenac (EH).

(76) marquez (EH).

(77) presentatu Marie – Antonietari eta Luis XVI. (sic) (EH). Guk *Luis XVI*ari jarri dugu. Ik. *Luis XV*ak VI.

(78) Prinzesa interesatzen Bretagnara (...) (EH). *Prinzesa interesatzen: interesatzen zen. La Princesa le demonstra intérêt (...) y debía ir pronto á Bretaña con los servidores del Duque.* (1886:53). *La princesse de Lamballe lui témoigait de l'intérêt. Il (...) devait prochainement se rendre en Bretagne, avec la maison du duc.* (1879:44).

(79) (...) harek placerric handiena izanen zela (...) (EH).

(80) (...) eta harek egui ahalac eguinen zituela. (EH). Guk *eginahalak* ezarri dugu moldatzaileak hori darabilelako hiruzpalau aldiz eta ohikoena delako, nahiz OEHNn baden *egi abalaren* adibide bat.

(XIII)

Phensatuz heen semearentzat beiratua zagon argiaz,⁸¹ konsolatu ziren mar-kesak Salbadorrek heien bihotzetan utzi zituen penetarik. Eta Doloresi ongi gehiago egiten zioten haren letrek haren geroagoko esperantzek beino. Bere urustasun guziak khondatzen zituen Doloresi.⁸² Harentzat nahi zuen loriarat heldu, hura uros izan zadin eta urgulu izan zezan bere anaiaz. Hola espresatzen zituen bihotz gazte hura bethetzen zuten sendimenduak, arartu⁸³ gabe hala ere bere aitak konfiatu zakon sekretua; Doloresentzat ez zen plazer handiagorik bere anaia maiteari izkiriatzea beino.

Hola phasatu zen denbora, hautsi gabe etxe hartako urostasuna bi urthez. Bi urtheren buruan izkiriatzten zuen Salbadorrek erregek eman zakola konpainia bat dragonetako erregimenduan. Panthievreko dukeak eta prinzesak emanarazi zioten grazia hura.

Erreginak ere hitzeman zion hartaz orhoituko zela eta lagunduko zuela. Bere nausi gaztea ez uzteatik⁸⁴ eta hari hurbil izaiteagatik Piarresek ere galdegin zuen erregimendu berean lekhu bat, eta ukhan zuen enplegu gora bat.

Ez ditake imajina Doloresen edertasuna denbora hartan! Lumarik hobere-nak ez lio presenta⁸⁵ haren begitharte xarmanta! Kontenta gaiten erraiteaz haren edertasuna konplia⁸⁶ zela.

Kanpoan hazi eta handitu zen, arbola bat bezala. Hura zen Dolores beha-ztetik gelditzen ez zen kanpaña eder heien garnigailua.⁸⁷ Nork phentsa haur

(81) Komarik ez da EHko edizioan. *Pensando en los brillantes destinos que parecían reservados á su hijo, el Marqués y la Marquesa se consolaron de su ausencia.* (1886:59). *Il [le marquis de Chamondrin] écrivit à monseigneur de Ponthièvre pour le remercier, et la réponse de celui-ci manifestait un tel désir d'aider à l'avenir de Philippe que le marquis et la marquise se consolèrent de l'absence de leur fils, en songeant aux brillantes destinées qui lui semblaient réservées.* (1879:44). Gaztelaniazko itzulpenetik hurbilago dago euskarazko moldapena.

(82) Salbadorrek.

(83) *arartu*: agertu.

(84) (sic). *uzteatik*: uzteagatik.

(85) *ez lio presenta*: ez lezake irudika. *sería incapaz de representar la fisonomía (...).* (1886:60). *serait encore impuisante à ressusciter la physionomie (...).* (1879:45).

(86) *konplia*: betea, osoa, perfektua.

(87) *Hura*: arbolari egiten dio erreferentzia. Hau da: arbola hura zen kanpaña eder haien –zeinak behatzetik Dolores gelditzen ez zen– apaindura. Pasarte honetan ez dago komarik EH edizioan, bestela uler zitekeen ere honetara: *Hura zen Dolores, behatzetik (...).* Baina interpretazio hau bortxatuagoa da. *En medio de los campos había crecido y desarrollado como los robustos árboles, adorno del paisaje que Dolores no cesaba de admirar.* (1886:60). *Au milieu des champs, elle avait grandi, s'était développée, comme les arbres robustes ornement du paysage, qu'elle contemplait sans cesse.* (1879:45).

eder hura buhami bethi biden gainean, hemen ohointzan eta han eske dabiltzan jende hetarik zela:⁸⁸ Doloresek ez bazuen heien egiterik zen ama iduria zelakotz, zoinak⁸⁹ sinetsarazten baiterauku Dominika ez zela buhamu arrazatik, bainan bai bere aiter ebatsi haur bat.

Doloresek odol bizia zuen Peio haren aitak bezala, xuria zen eta ile horia zuen Dominikak bezala. Haren begi belx ederretan ikhusten zen tenperamenduaren sua, borondatearen indarra eta franzes odol noblia.⁹⁰ Ez zen presuna flako eri bat, bainan gazte azkar eder bat, arbola baten aldaska aberatsa. Hazia buhamuen artian nahi eta ez ederra izanen zen, distinzionerik eta noblezarik gabe.⁹¹ Edukazioeak findu zuen haren gorphutza hala nola instruzioeak handitu baitzuen haren inteligenzia. Gisa hortan, hamazazpi urthetan edertasun perfekt inguratzen duten⁹² guziak jelos diren hetarik bat zen. Gehiago dena, arima gorphutza bezain ederra zuen.

Geroxago ikhusiko ditugu haur adoragarri hunen kalitateak eta berthuteak, destinatua⁹³ martir baten paperraren presentatzera erreboluzioean, paper hain handia nola ignoratua, sekula ontsa ezagutuko ez dena, eta nun garbitasuna, sakrifizioa, bere buruari egiten zuen kasu gutia,⁹⁴ ezin erranezko kuraiak, phasatu

(88) hetaric zela. (EH).

(89) zoinak: ama iduria izateak. *Como su madre, era muy delicada, lo que hacía creer que (...)*. (1886:60). *(qu'elle tenait de Tiepoletta la délicatesse que nous avons signalée déjà), qui pouvait faire croire que (...)*. (1879:45).

(90) Haren begui belx ederretan ikhusten zuen temperamenduaren sua, (...) (EH). Guk ikhusten zen ezarri dugu; bestela, EHko ikhusten zuen errespetatuta 'ikusten zuten' (inpersonala) ulertu behar da, eta hori posible da baina moldatzaileak gutxiagotan darabil zuen 'zuten' (inguratzen zuen IX, erakbusten zuen X, etab.), *en sus hermosísimos ojos negros se revelaban el ardor del temperamento, la fuerza de voluntad y la noble sangre española*. (1886:60). *Dans ses yeux noirs se révélèrent l'ardeur du tempérament, la force de la volonté*. (1879:45). Beraz odol konturik ez da ageri frantsesezkoan; bai, ordea, gaztelaniazkoan. Hara nola euskarazko testua gaztelaniazko itzulpenean (kasu honetan moldapenean) oinarritua baina halaber bere gisa moldatua den.

(91) Komarik ez da EHko edizioan. *Hazia: baldin hazia izan balitz (...)*. *Educada con los jitanos hubiese sido brutalmente bella, sin distinción ni nobleza*. (1886:61). *Élevée par les bohémiens, Dolorès aurait-été brutalement belle, sans distinction ni noblesse*. (1879:45).

(92) inguratzen tuzten (EH). Guk inguratzen duten ezarri dugu; bestela, inguratzen dituen izan daiteke, agian. *Así que á los diecisiete años ya anunciaba una de esas hermosuras perfectas que desafían á todas las descripciones y que no pueden aparecer en el mundo sin eclipsar á todas sus rivales*. (1886:61). *Elle annonçait déjà l'une de ces beautés parfaites qui défient toute description, qui ne peuvent apparaître dans le monde sans éclipser, par leur éclat, toutes leurs rivales*. (1879:46).

(93) destinatua: haur destinatua (...); hauren aposizioan dago destinatua. *de quella adorable niña, destinada á representar un papel (...)* (1886:61). *de cette adorable enfant, destinée à jouer un rôle, (...)* (1879:46).

(94) eguiten zen casu gutia (...). (EH). *un papel tan heroico como ignorado en el drama revolucionario que no se conocerá jamás por completo, y á donde el pudor, el sacrificio, la abnegación de sí misma, el valor indomable, alcanzaron algo más allá de las fuerzas humanas*. (1886:61). (...) *un rôle (...)* dans le drame révolutionnaire qu'on ne connaîtra jamais tout entier, et où la pu-

baitziuzten jendearen indarrak. Denbora hartan ez zuen deus falta Doloresen biziak, Salbador bere anaia maitearen presentzia beizik.

Beren semetik pribatuak, markesek maiteago zuten oraino Dolores. Haren desirak manuak ziren. Alegerarazteko eremaiten zuten Nimesetara, Monpeliara,⁹⁵ Avignonera promenatzera, alde guzietan errezebitzen eta mainhatzen zuten⁹⁶ izen handi haren ondokoa izan balitz bezala, izen mende erdi bat ilhunbetan egon nahi izan zuen harek nahi baitzuen gehiago argitu bi buru gazte eder heien gainean.

Phensatzen zuen fite ikhusiko zuela bere anaia maitea, eta esperantzaz bethea zen.

Salbadorrek berheala emaiten zuen letra guzien errepostua, ondarrekoan erraiten zakon: “Ez zaitut ixtant bat ere ahantzi eta phensatzen dut fite besarkatuko zaitudala. Zeren eta uste baitut juanen nizan Chamondrinerat zombait asteren phasatzera, lehen bezala libro eta alegera”.

Doloresek errezebitu zuen bertze batian, erraiten zakon:⁹⁷

“Desiratzen dut ene bihotz guziaz zuen ikhustea, phensatzen nuen horrat joitea;⁹⁸ bainan uste dut ez nizala aise joanen; ez balin [ba]naite joan, esperantza izanen ziuztet⁹⁹ oro Parisen.”

Izan zadin Parisen ala Chamondrineko jauregian, Doloresek besarkatuko zuen fite bere anaia maitea. Phensamendu horrek konsolatzen zuen, bainan inpazientziak galdeginarazten zakon aitari:¹⁰⁰

–Zerentzat, aita, Salbadorren piaia imposible da? Zeren beldur da?

–Zeren baitira behar orduak, bere karguan erregeren aldiñ atxikaraz dezaketanak -ihardesten zuen Estebek tristeki.

Presunan¹⁰¹ aitari izkiriitzen zituen letretan, erraiten zituen Salbadorrek bere beldur guziak. Uste zuela erlisionekeo gerlak eta zombait partida zuen erre-

deur, le dévouement, l'abnégation de soi, le courage indomptable, s'élevèrent communément au delà des forces humaines. (1879:47).

(95) Montpellier-era.

(96) *mainhatzen zuten*: mainak edo xerak egiten zizkioten. *En todas partes era recibida y mimada como si fuese la heredera (...).* (1886:61). *Partout elle avait été reçue et fêtée comme l'héritière (...).* (1879:46).

(97) Komarik ez da EHko edizioan. *erraiten zakon*: Salbadorrek Doloresi.

(98) *joitea*: joatea.

(99) ez balin naite joan esperantza (...) (EH). Hau da: ez baldin banaiteke joan, espero izanen zaituztet (/ igurikiko zaituztet) (...). *Pero este viaje me parece difícil, si no imposible; mas si no pudiese ir, os espero á todos en París.* (1886:62). *Mais ce voyage me semble parfois d'une réalisation difficile. S'il devenait impossible, je vous attend tous à Paris.* (1879:46).

(100) Inpazientziak behartzen zuen Dolores aitari galdetzera.

(101) *Presunan*: hark (Salbadorrek) berak. *En las cartas personales que su hijo le escribía (...).* (1886:62). *Dans les lettres personnelles qu'il recevait de son fils, (...).* (1879:47).

gek.¹⁰² Nihok ez zuen phensatzen zonbat mallhur izanen zen, baina ikhusten zuten jadanik jende handi eta obserbatzailek aire gaixtoa zerutik jausten.

Ixtant batez ailxatu zen nazione guzia erlisionearen eta nobleziaren kontra.¹⁰³ Parleментарioan¹⁰⁴ handitu zizuten herritarren zergak, eta hok inbidiarekin behatzen zuten noblezari eta jauregiak menazatzen zizuten.

(XIV)

Horiek oro ikhusten zituen markesak eta triste zen. Doloresek eta Marienak egiten zizuten, beren pena gordez, eginahalak ahantzarazteko, baina beti haren begiak lanhoz betheak harrapatzen zizuten.

1788ko maiatzaren lehenian Salbadorren letra batek handitu zituen haren inketadurak. Izkiriatu zuen goiz hartan, Parleментарiotik haren dretxon beiratzeko.¹⁰⁵ Erraiten zuen haren adixkide bat arrastatu zutela, eta erregen eta

(102) Nola ulertu testu hau? Uste zuela ('itxaroten zituela') erlisioneko gerlak eta (uste zuela) zonbeit partida ('zenbait etsai') zuen erregek ('zituela erregeak')? Uste zuela zonbeit partida zuen erregek eta erlisioneko gerlak izanen ziren? *Uste izan* aditz nagusiak bi perpaus uztartzen dituela dirudi (zeugma figura). *En las cartas personales que su hijo le escribía le manifestaba los graves acontecimientos por los cuales la dignidad real caminaba á fatales trances. Había motivos para alarmar á los espíritus observadores y reflexivos, (...).* (1886:62-63). *Dans les lettres personnelles qu'il recevait de son fils, celui-ci l'entretenait des graves événements par lesquels la royauté s'acheminait, à son insu, vers des sanglants épreuves. Il y avait là de quoi alarmer les esprits observateurs et réfléchis (...).* (1879:47). Erljio-gerra gertatuko zelako kontua euskarazko moldapenarena da, ez baita halakorik ageri ez frantsesezko testuan eta ez gaztelaniazko itzulpenean.

(103) *Los Parlamentos estaban revueltos contra el Rey; tenían celos de la nobleza y del clero, y éstos de aquéllos.* (1886:63). *Les parlements étaient en révolte contre le roi, jalousaient la noblesse et le clergé, qui le leur rendaient bien.* (1879:47). Euskarazko moldapenak *erlisionea* ezartzen du *klero* jatorrizko hitzaren ordeez.

(104) *Parleментарioan*: Parleментарuan.

(105) EHKo edizioan komarik ez denez *goiz hartan* ondotik, zer ulertu behar da? (Salbadorrek) idatzi zuen bere eskubideak Parleментарuaren erabakietatik babesteko (eskatuz)? Ala: Parleментарutik idatzi zuen bere eskubideak babesteko (eskatuz)? Lehenbizikoa dirudi, jatorrizko testuari, frantsesezkoari begiratura (nahiz frantsesezkoak adierazten duen Salbadorrek noiz idatzi zuen gutuna, eta euskarazko moldapenak zertako idatzi zuen). Horregatik ezarri dugu koma *goiz hartan* ondotik. Nolanahi ere, euskarazko testuak ez du zuzen jaso jatorrizko testuak dioena: *Dès les premiers jours du mois de mai 1788 une lettre de Philippe vint accroître ses inquiétudes. Elle avait été écrite au lendemain de la déclaration du parlement de Paris pour la défense de ses droits, et de l'arrestation du conseiller d'Espremenil. (...).* (1879:49). Euskarazkoak ez du zuzen jaso, hain zuzen ere gaztelaniazko itzulpenak nahastu duelako moldatzailea: *En los comienzos del mes de mayo 1788 una carta de Felipe vino á acrecentar sus inquietudes. Había escrito la mañana de la declaración del Parlamento de Paris para la defensa de sus derechos y del arresto del diputado Espremenil.* (1886:65). Gaztelaniazkoa anbigua da, eta hari jarraitzea-

noblen kontra juramentuka ari zirela goiz hartan karrketan.

Doloresek ezagutu zuen Salbadorren letra zela, nahi izan zuen jakin zer igortzen zuen, markesak leithu zakon eta erran zakon zoin gerlaren beldur zen.¹⁰⁶ Orduan konprenditu zuen zerendako haren anaia maitea ez zen oraino jiten. Egun hartarik goiti interesatu zen gauza politikako guzietan, ez ikhusten zuelakotz hek zoin arraroak ziren bainan¹⁰⁷ hek gibelatzen zutelakotz Salbador maite haren piaia jauregian.

Gaixo haurrak ez zuen phensatzen zer malurra jin beharra zen zombait egunen buruan Chamondrineko borthetara.

gatik euskal moldatzaileak ere gaizki ulertu du, jatorrizkoak (frantsesezkoak) baitio Parlamentuak bere eskubideak begiratzeko egin zuela adierazpena, eta, aldiz, euskal moldatzaileak dioke Salbadorrek bere eskubideak Parlamentuaren erabakietatik defendatzeko idatzi zuela. Euskarazko moldapenak data ere ez du zehatz jasotzen (*maiatzaren leben egunetan behar luke, ez maiatzaren lehenean*); hain zuzen, Pariseko Parlamentuaren adierazpena maiatzaren 3koa da.

⁽¹⁰⁶⁾ *zoin gerlaren beldur zen: gerlaren zoin beldur zen.*

⁽¹⁰⁷⁾ (...) gauza politicaco guzietan ez ikhusten zuelacotz hek zoin arraroac ziren. Bainan hek guibelatzen zutelacotz (...). (EH). Puntua dago EHko edizioan *bainaren* aitzinean; guk kendu egin dugu. Zuzenago dagoke honetara: ez ikhusten zuelakotz hek arraroak zirela bainan (...). (...) *y desde aquel día se interesó en todos los hechos, no á causa de su gravedad, que no la parecía tanta, sino porque retrasaba el viaje de su Felipe, que era testigo de todo ello.* (1886:65-66). (...) *elle s'intéressa vivement à tous ces faits, non à cause de leur gravité qui lui apparaissait moins clairement qu'à ses parents adoptifs, mais parce que Philippe en était le témoin, et son retour subordonné à leur solution.* (1879:49).

IV. PHARTEA.

AMODIOEN KAPITULUA

Hamabortz egunen buruan Salbadorrek errezebitu zuen letra hau:

“Pena handirekin behar deitzut jakinarazi, Salbador maitea, gerthatu zaukun [ezin] erreparatuzko¹ malur tristea. Bil zazu² zure indar guziak, adixkide maitea. Zure ama hil izan da atzo. Hain fite jua izan da nun ez baitugu izan denborarik zure abisatzeko,³ ez eta ere zuri emanarazteko konsolazionea azken aldikotz besarkatzeko nigarrez gauden hura,⁴ zoina ez baita gelditu azken momento artio bere seme maiteari oihu egitetik. Badu lau egun biziz, osagarritz eta esperantzaz bethea zen.⁵ Bethi zure itzultzeaz mintzo zen eta orok errepartitzen ginuen haren alegria.⁶ Gau batez itzuli zen bethi egiten zuen promenadatik sukhar puxka batekin eta hotzez zagola erranez. Ez zen deus, iduriz, ez ontsa ttipi bat beizik, zoina goizetik handitu baita malurosiki, gure soinu guziak alferretan izan dira, eta ez zauku gelditzen gurtzea zeruaren aitzinean eta nigar egitea beizik.

“Nigarrez zaude zu, Salbador maitea, bainan ez zaitela alxa Jainkoaren manuen kontra. Resigna zite, harrapatuko duzu indarra, nahi baduzu xerkatu bizi eternalaren esperantzan, zoinak berriz elgarretaratuko baigaitu sekula.⁷ Espe-

(1) guerthatu zaukun erreparatuzko malur tristea (EH). *ezin ezarri dugu: ezin erreparatuzko (...). (...)* *la triste é irreparable desgracia que acaba de berirnos. (1886:67). (...)* *l'irréparable malheur qui vient de nous frapper. (1879:50).*

(2) Bil zazu (...) (EH). *Ala zatzu edo bestela tzazu izan behar ote du? zatzu eta tzazu formak ez dira ageri nobela honetan.*

(3) zure, abisatzeko (EH). *Iparraldean ohikoagoa dateke zure abisatzeko, zuri abisatzeko baino.*

(4) Mende-perpau erlatiboa. *ni daros el último y supremo consuelo de abrazar por última vez á la que lloramos (1886:67). ni vous donner la consolation suprême d'embrasser une dernière fois celle que nous pleurons (1879:50).*

(5) *Badu: duela, orain dela. Badu lau egun (...)* *esperantzaz bethea zen joskera zuzena ote? Hace cuatro días estaba llena de salud, de vida y de esperanzas. (1886:67). Il y a quatre jours, elle était debout, pleine de santé, de vie et d'espérances (1879:50).*

(6) errepartitzen: elkarrekin partitzen, partekatzen. (...) *todos compartíamos su alegría. (1886:67). (...)* *nous partagions sa joie. (1879:50).*

(7) Resigna zite harrapatuko duzu indarra nahi baduzu chercatu, bizi eternalaren esperantzan, (...). (EH). *Komak egokitu ditugu. zoinak: bizi eternalak. Resignaos; tendreis la fuerza si quereis buscarla en la esperanza*

rantza horrek emaiten daut zuri izkiriatzeko eta zure aita desolatuaren konso-
latzeko indarra, ene pena ahantzirik. Bainan nahirik ere, ez niz kausitzen aski
azkar haren pena handiaren eztitzeko, eta behar duzu zuk jin ene laguntzera;
markesa bere marrumen artean ez da zuri oihu egitetik gelditzen. Xauri fite,
bizia badoa haren baithan.⁸

“Orai zuri, atzo ene anaia deitzen zintuana, behar deitzut egin konfesione
bat...Menturaz ja badakizu. Ezagutzen dut egia ene sortzearen gainean.

“Hil beino lehen markesak erran daut, zer gisetan, eskelari eta ume xurtx
zure familiaratu nintzan. Zure amak azken hatsa emaiten, zure aita ene be-
soetarat jin da. Deitzen ninduen izenik eztinez,⁹ nahi ukhan balu bezala alaba
baten karesetan harrapatu erremedio bat pena handi haren arintzeko.

“Haren zangoetarat erori niz erraiten diotalarik: –Oro badazkit, jaun mar-
kesa. –Zer! Erran daun? Eta holako memento batean ez dun nahi izan gehiago
ene alaba!...Nahi naun utzi bakharririk ene pena guzietan? –Sekula, ihardetsi diot
haren besoetarat joanik.

“Ez dut utziko sekula, Salvador maitea, trankilitatea eta kalma eman nahi
diot haren zahartasunari, eta nahi duenaz geroz bizi nadin izanez haren alaba,
zuk behar detazu jakinarazi nahi duzunez segi dezadan izanez zure arreba...

“DOLORES”.

Letra hori errezebitu eta zonbeit egunen buruan,¹⁰ Salvador, bihotza do-
luz bethea eta Piarresen konpainian, jausten zen Versaillesetan, Chamondrine-
rat joaiteko. Politikako malhur guzien gatik, koronelak eman zeen permisio-
nea behar zutena har zezaten,¹¹ eta fartitu ziren berheala. Urrundia¹² lau urthe
hartan Doloresen ganik, eta utzia kasik haurra, harrapatuko zuen kanbiatua,

de la vida inmortal que nos reunirá para siempre. (1886:67-68). *Résignez-vous. Vous en aurez la force, si vous voulez la chercher dans l'espérance de l'immortelle vie qui nous réuniera pour jamais.* (1879:50-51).

(⁸) bizia badoa (...) (EH). Xauri: zatoz (xuka). *No tardeis en venir, le va en ello la vida.* (1886:68). *Ne tardez pas. Il y va de sa vie.* (1879:51).

(⁹) eztinez (EH). EHko eztinez ‘eztienez’ bere hartan utzi dugu, erratua gabe fonetismoa izan daitekeelakoan.

(¹⁰) buran (EH).

(¹¹) *Politikako malhur guzien gatik*: nahiz politikako malurrak larriak ziren. *behar zutena har zezaten*: behar zuten lizentzia edo baimena har zezaten. *A pesar de los acontecimientos políticos, el coronel de Felipe le dió licencia hasta cuando hubiera necesidad, (...)* (1886:69). *Quelle que fût dès ce moment la gravité toujours croissante des événements politiques, il ne lui avait pas été difficile d'obtenir de son colonel un congé illimité, en raison des motifs qui l'appelaient auprès de son père et pourraient l'y retenir.* (18979:52).

(¹²) *Urrundia*: urrundua.

edertua, berriz formatua.¹³ Idera¹⁴ horrek pilpirarazten zion bihotza azkarki Salbadorri. Lau urthek ez zuten destruitu haren bihotzean fartitzeko egunean senditu zuen amodio garbi¹⁵ hura. Ez zen gelditu khar azkar batekin Doloresen maithatzetik. Haren arima, argitua amodioaren argiaz, ez zen ilhundu lau urthe hetan phasatu zituen uharretan, ez eta ere bizi zen sozietatetan. Parise batetako edergailuek ez zuten deus ahalik harek bere jostetako lagunarekin ezkontzeko hartu zuen erresoluzioean.

Ikhusiko zuen sarrixago, eta jakinik ez zirela anaiak, deklaratu ahal zuen¹⁶ bere amodioa.

(XV)

Bainan, eta Doloresek maite ez bazuen? Haren errepostuarekin izanen zen uros edo maluros. Phensamendu horrek bihotza zerratzen zakon sorthu zen lurrea ikhusiko zuelako plazerrarekin,¹⁷ eta han maithatu guziak han harrapatuko ez zituelako dolore handiarekin. Salbadorrek phensatzen zuen bere ama gehiago ikhusiko ez zuen hartan, bere aita deseparatuan eta Doloresen baithan.

Bizkitartean, ezagutzen zuen hain ontsa bide hura! Arbolak, beren adarrak aphaltzen ziuztela¹⁸ bidearen gainera, iduri zuten irri ezti bat egiten zakotela, lagun xahar batzuek bezala. Iguzkiak iduri zuen argi gehiago egiten zuela haren festekarazteko. Zonbat aldiz egin zuen piaia hori Avignonen eta Chamondrinen artean! Han oro familiar zitzazkon, orok ekhartzen zuten haren memoriora zonbeit orhoitzapen ezti.

(13) *transformada* (1886:69). *transformée* (1879:52).

(14) *Idera horrek*: asmo horrek, xede horrek. *Idera* aldaera errespetatu dugu (OEHN ere ageri da). Nobelan ageri diren beste aldaera batzuk: *ideia* (XVII, *ideiak* XXI), *idea* (XXII), *idaia* (V).

(15) *aqueel amor cándido* (1886:69). *cet amour candide* (1879:52).

(16) *deklaratu ahal zuen*: deklaratu ahalko zuen. (...) *y sabiendo que no eran hermanos, podría declararla su amor.* (1886:69). *sachant qu'elle n'ignorait plus la vérité, qu'il pouvait lui révéler son amour.* (1879:52).

(17) *¡Aquel pensamiento le apretaba el corazón, agitado por las impresiones que siente el hombre cuando vuelve á ver el suelo natal, ausente durante mucho tiempo de él, (...)* (1886:69). *Si près de connaître son destin, (...)* *il éprouvait une émotion violente, accrue encore par les impressions qui saisissent l'homme lorsqu'il revoit le ciel natal, (...)* (1879:52).

(18) Arbolak beren adarrak aphaltzen ziuztela bidearen gainera, (...). Guk koma ezarri dugu Arbolaken ondotik. Arbolak dio hemen, mendebaldeko euskalkietan bezala, eta ez Arbolek; ez da moldatzailearen jokabide ohikoa ergatibo pluralaren kasuan. *Los árboles inclinados sobre la carretera parecían sonreírle (...)* (1886:70). (...) *les arbres semblaient lui sourire comme (...)* (1879:52-53). aphaltzen ziuztela ezarri dugu aphaltzen ziuztelaren orde; atal honetan, beheago, ziuzten ezarri dugu berriz EHko ziuztenen orde, eta halaber XXXIV.ean. Arruntak dira ziuzten XIV (2), ziuztelakotz XXXV.

Bainan, bere herrien eta izaitte maithatuen alegriari nahasten zitzazkon Salbadorri bihotzean dudazko sendimendu batzu, zoinek khiresten baitzuten haren urostatuna.¹⁹

Piaia guzian Piarresek eginahalak egin zituen bere²⁰ nausiaren konsolatzeko. Bainan orai hura ere Salbadorren trixteza berean eroria zen. Enfin, zazpigarren egunian karrosa gelditu zen Chamondrineko jauregiaren aitzinean.

Markesa eta Dolores galerietan zauden afaria zerbitza zezaten beha, aitu ziuizten zaldien urhatsak eta fite jautsi ziren. Salbador eta Piarres jautsiak ziren karrosatik.²¹ Oihu alegriazko handi bat izan zen eta gure adixkideak besarkatu ziren.

Ez dugu izkiriartzen ahal heien emozioek²² memento hartan. Heien musu luzeak, heien bihotzen pilpirazioneak, lau urthe separaturik egon eta elgar ikhustean. Aita haren dolorezko eta alegriazko nigarrak, haur heien elgar ikhusteko zoriona.

Dolores ikhusi zuen Salbadorrek lehenik, edertasun hak harritia utzi zuen.²³ Lau urthek egin zuten haur batetarik nextato adoragarri bat. Haren frakziona ederrak, haren begi argiz eta misterioz betheak, haren ezpain eta boz sonorak, haren erregina eskuak, oro admiratu zituen Salbadorrek behatze batez. Bazuen bere bihotzean haren aldetik urrun egon zen denbora guzian amodio garbi eta noble bat.

Modestki bizi izan zen,²⁴ biltzen zituelarik elgarretara bere akziona guziak, bere lenguaia, bere phensamenduak, bere esperantzak, bere bizia, ezagutu gabe

(19) nahasten zitzacon Salvadorren bihotzean dudazco sendimendu batzu, zoinek khiresten baitzuten haren urostatuna (EH). Euskarazko moldapenaren koherentzia faltaren ondorioz, hiru hitz zuzendu behar izan ditugu (zitzacon, Salvadorren, baitzuten → zitzazkon, Salbadorri, baitzuten). *se mezclaban en Felipe unos sentimientos de incertidumbre y de duda que amargaban su felicidad.* (1886:70). (...) *se mêlaient, chez Philippe, les regrets, l'incertitude, le doute, et il n'était pas heureux.* (1879:53).

(20) beren (EH).

(21) aita zuizten zaldien urhatsac eta fite yautsi ziren Salvador eta Piarres yautsiac ziren carrosatic (EH). *Oyeron los pasos de caballos y pronto bajaron al patio. / Felipe y Pedro habían bajado.* (1886:70). *Le bruit de la voiture les attira dans la cour, au moment où Philippe et Coursegol mettaient pied à terre.* (1879:53).

(22) Hau da: Ez dugu izkiriartzen ahal nolakoak izan ziren heien emozioek. *Hay que renunciar á describir esas emociones, los largos besos, que son el encanto de la vuelta.* (1886:71). *Il faut renoncer á décrire ces premières étreintes, ces longs baisers, qui sont la charme du retour.* (1879:53).

(23) (...) edertasun hac (sic) (...) (EH). *Á Dolores fue á quien Felipe vió en primer lugar. Aquella hermosura le dejó sorprendido.* (1886:71). *C'est Dolores que Philippe vit d'abord. Cette écrasante beauté le stupefia.* (1879:53).

(24) Salbador bizi izan zen modestki. *Había vivido moralmente, uniendo sus acciones, (...)* (1886:71). *Il en avait vécu moralement, y rattachant ses actions, (...)* (1879:54).

ontsa konsekratu zituen hura.²⁵ Iduritzen zitzakon ederra zela, baina ez zuen uste hainbertze,²⁶ eta maithatu zuen oraino hobeki.

Bizkitartean markesak thirutzen zuen Salbador salonerat, nahi zuen ikhusi bere semea. Lanpen argiaren aldean behatzen zakon besarkatzen zuelarik. Muthiko hura zen arraza baliente, arraza handi haren ondokoa.

Phasatuaz eta hilaz mintzatu ziren. Nigar egin zuten, baina ez hain khireski nola markesa[k]²⁷ nigar egin baitzuen ordu arte. Bere seme maitearen ikhusteko gozoak eta alegriak nahasten zuten eztitasun zonbeit pena handi hartan.

Lehenbiziko arrats hura ximista²⁸ bezala phasatu zen. Salbadorrek kondatzen zazkon aitari kortean phasatzen zirenak, zonbat adixkide zuen, zoin hona izan zen harentzat Penthievreko dukea, eta Lamballeko²⁹ prinzesa, erreginaren lehen adixkidea.

Doloresek ez zuen hitz bat ere galtzen konbersazione hartarik. Ezagutu gabe Salbadorrek maite zituenak, maite zituen harek. Eta admiratzen zuen bere aneia uste izan zuenaren prestutasuna.³⁰

Piarresek ere kondatzen zituen bere orhoitzapenak. Doloresek maite zuen hanitz sehi hon hura. Harek ere maite zuen baina biziki timido zen haren aldean.

Hamekak joiten ari ziren markesa jeiki zenean erraiten zakolarik bere semeari:

–Juan behar huke phausatzera.

–Hain uros eta kontent niz zuen ikhustez, ez baitut senditzen akhitua nizala. Hainbertze gauza baitut Doloresi erraitekoak, ez baitzaut loa heldu.³¹

(25) Ezagutu gabe ontsa, iradoki (?) zituen hura edo ezagutu gabe ontsa hura, nori kontsokratu ('eskaini') baitzizkion gauza haiek. *sin conocer bien á la que se las inspiraba.* (1886:71). *sans connaître tout entière celle qui l'inspirait.* (1879:54).

(26) Salbadorri Dolores iruditzen zitzaion ederra zela, baina ez zuen uste izan hainbertze (hain ederra) izanen zela. *La soñaba hermosa; pero no tanto como lo era, (...)* (1886:71). *Il la rêvait belle, mais, si belle qu'il l'eût rêvée, il dut s'avouer, en la voyant, que la réalité dépassait le rêve; il l'en aime plus encore.* (1879:54).

(27) marquesa (EH).

(28) chimizta (EH).

(29) Lambailleco (EH). Frantses-gaztelaniazkoetan Lamballe agertzen da, ez Lambaille.

(30) Eta admiratzen zuen bere aneya, uste izan zuenaren prestutasuna. (EH). *Admiraba el juicio y la elocuencia de su hermano adoptivo.* (1886:72). *Elle admirait les sains jugements que son frère adoptif portait sur les hommes (...)* (1879:54).

(31) Yuan behar huke phausatzera; hain uros eta kontent niz zuen ikhustez, ez baitut senditzen akhitua nizala. Hainbertze gauza baitut Doloresi erraitecoak; ez baitzaut loa heldu. (EH). EHren testuan jarraian

–Beraz, haur maiteak, mintza ziezte nahi duzuen bezenbat. Ni banaoa.³²

Hau³³ athera zen Piarresekin, Salbador eta Dolores gelditu ziren bakharrrik. Ixtant bat ixilik egon ziren. Dolores, bere emozionearen gordetzeko, leihoaren aldean jarri zen kadira batean eta behatzen zuen kanpo argi eder heier.

Salbador, oraino gehiago turbatua, joan-jinka zabilan salonean, ixil ez zita-keenaren erraiteko okasione baten bilha ebiltzen balitz bezala.

Azkenean desidatu zen, jarri zen Doloresen aldean eta erran zion:

–Ezkribatu datan³⁴ letra luze bat, galdegin datan errapostu bat eta emanen denat.

Doloresek burua alxatu zuen, ikusi zuen Salbador turbatua zela, bainan ez zuen deus erran. Salbadorrek segitu zuen:

(XVI)

–Bainan esplikatu gabe letra haren hotzdura, zendako tratatzen nindunan zu erranez?³⁵ Zendako ez nindunan deitzen anaia, lehen bezala?

–Banakien nik ez nintzela orai hiretzat presuna estranjer bat izanen? -ihardetsi zion Doloresek eztiki.

–Estranjerra hi! -dio Salbadorrek xutitzen delarik-. Badu lau urthe baino gehiago ezagutzen dutala egia eta ez nun hire maithatzetik gelditu. Zer diot? Jakinez geroz maite haut gehiago eta bertze manera batez.³⁶

Dolores ez zen atrebitu errepostuaren emaitera. Erran zezakeen harek ere maite zuela egia jakinez geroz?³⁷ Salbadorrek segitu zuen:

emana da aitak semeari esana eta honen erantzuna, solaskidea aldatzen dela adierazi gabe. –*Deberías ir a descansar. / -Soy tan dichoso al veros, que no siento la fatiga. Tengo tantísimas cosas que decir a Dolores, que no me rinde el sueño. (1886:72). –Tu dois avoir besoin de prendre du repos? dit-il. –Je suis si heureux de vous revoir tous que je n'éprouve aucune fatigue, répondit Philippe. J'ai tant de choses à dire à Dolorès et à lui demander, que je ne sens pas le sommeil. (1879:55).*

⁽³²⁾ (...) mintza ziezte nahi duzuen bezembat ni banaoa. (EH).

⁽³³⁾ Markesa. *Éste salió seguido de Pedro (1886:73). Sur ces mots, le marquis, les ayant tendrement embrassés, sortit, suivi de Coursegol. (1879:55).*

⁽³⁴⁾ idatzi didan (hik niri). –*Me has escrito una larga carta. Me has pedido una contestación (...). (1886:73). –Tu m'as écrit une longue lettre. Tu m'as demandé de t'apporter la réponse. (1879:55).*

⁽³⁵⁾ (EH) erranenez. zu erranez: errespetuzko tratamendua emanaz. *¿Por qué me tratabas con aquel solemne vos? (1886:73). Pourquoi employais-tu ce vous solennel? (1879:56).*

⁽³⁶⁾ maneraz batez. (EH).

⁽³⁷⁾ *¿Podía decirle que también ella le amaba desde que supo la verdad? (1886:74). Pouvait-elle lui dire que, depuis qu'elle savait n'être pas sa soeur, elle éprouvait le même sentiment que lui, (...)? (1879:56).*

–Galdegin datan, hea nahi huen segi nezan hire anaia izanez. Ez, ene arreba ez! Bainan bai ene emaztea, nahi balin badun!

–Ni hire emaztea! –dio Doloresek xutitzen delarik bere aldian eta hori erraitetan haren begiak itzuli ziren Salbadorren ganat pietatezko alegria batekin.

Salbador, Doloresen aitzinean belhauniko, bere bihotzari kontra eskuak tintkatzen zazkon.

–Ez dakin, haur ederra,³⁸ ene aitak hire ixtorioa ezagutaraziz geroz karesatu izan dutala hi enea izanen hintzalako esperantza ezta? Gisa hortan erraiten nuen: “Sekula ez gira separatuko; bethi ene aldean izanen dut ene arreba deithu dudana, arrazoina ene amari ekharrarazi duena, haren bizia xarmatu duena, hura konsolazionez bethe duena eta sostenitu duena ene aita deseparatua...”³⁹ Ai! Dolores maitea, ez nezanala⁴⁰ kasa, othoi, othoi! Hain maite hut! Hil nintaken!⁴¹

Doloresek ez zuen sinhesten ahal bere begiez ikhusten zuena; entzuten zuen Salbadorren kofesioa amets bat izan balitz bezala. Dudatzen zen oren hain ezti hartaz.

Salbadorrek segitzen zuen:

–A! Dolores, ene ama maitea hemen izan balitz orai, berak belhauniko othoitz hintzake⁴² uros egin nezanan!

–Ai! Pietatez, Salbador; ixil hadi, ixil hadi, erhoak gituk.

Dolores markisaren konfidanta izanez bazakien hunek nahi zuela ezkontarazi bere semea familia izen handitako eta aberats zoinbaiten alabarekin. Jakina⁴³ aitaren nahiak zoin ziren, ez zen atrebitzen bihotzaren manuen segitzera; bizkitartean ez zuen balorerik muthikoaren desesperazteko ere, ez eta ere erre-

(38) Ez dakin haur ederra; ene aitac (...). (EH). *¿No sabes, bella niña, que desde que mi padre me hizo conocer tu historia acaricié la dulcísima esperanza de que seas mía?* (1886:74). *Je caresse cette espérance depuis le jour où mon père me fit connaître ton histoire.* (1879:56).

(39) Hura konsolazionez bethe duena eta sostenitu duena; ene aita deseparatua... (EH). *la que (...) y ha sostenido á mi pobre padre desesperado...* (1886:74). *celle qui a (...) soutenu, durant ces tristes heures, mon père désolé.* (1879:56).

(40) nezalana (EH). *¡Ay, Dolores mía, no me rechaces; te lo suplico! ¡Te amo tanto! Me moriría.* (1886:74). *Dolorès, ne me refuse pas. J'en mourrais.* (1879:56).

(41) Hil nintaken!: Hil ninteke!, hitanoz. *Me moriría.* (1886:74). *J'en mourrais.* (1879:56).

(42) Zuzenagoa dateke izan balitz...hintzake(e)n, edo bestela izaiten balitz...othoitz hintzake. –*Ab Dolores, si mi pobre madre estuviese aquí, ella misma te suplicaría que me hicieras feliz!* (1886:74-75). –*Si ma mère était là, c'est elle qui te supplierait de me rendre heureux.* (1879:57).

(43) Jakitun, jakile.

nonzatzeko haren baithan iratzartu ziren esperantzer.⁴⁴ Salbadorrek, behatzen zakola eztiki, erran zion:

–Hire maithatzea erhotzea da?

–Kasu eman daak,⁴⁵ Salbador. Ez deat ihardesten ahal orai. Sekula ez diat phensatu phasatzen den huntan.⁴⁶ Behar diat phensatu eta ene bihotza eta konzientzia konsultatu. Eta hik ere behar duk phensatu eginen dukanean.⁴⁷

–Nik? Badu lau urthe phensaketan nagola.

–Bainan, Salbador, konprendituko duk ez deatala⁴⁸ errepostua emaiten ahal orai berean.

–A! Ez naun maite! –zion behatzen zakolarik eztiki-. Adoratzen haut! Bainan hik, erran, maite nuna? A! Ikhusten dut ezetz, ez nun maite.

–Bai, maite haut arreba batek bere anaia maite duen bezala; maite bahut bertze gisaz ez diat oraino ezagutzen,⁴⁹ Salbador maitea –segitu zuen Doloresek, egiten zuelarik posiblea kalmatzeko eta haren kalmarazteko.

–Utz nezak akostunbra nadin ene bihotzera ixuri ditukan ideietan. Fite jakinaraziko deat ene erresoluzioea; ordu arte, othoizten haut, izan ezak nitaz pietate, errespeta ene ixiltasuna eta igurika.

Salbador, musuz bethetzen zituelarik Doloresen esku xuriak, xutitu zen eta erran zion:

–Emanen denatan amodioaren lehen proba, obediencia izanen dun; igurikatuko dinat bainan izanen dinat esperantza.

“Gau hon” erraiten zuelarik, erretiratu zen uzten zuelarik Dolores phensatzerat bakean. Ondoko goizean eta ondoko egunetan, fidel bere hitzari, ez zuen alusionerik batere egin kondatu dugunaz. Lau urthez gorde zuen bere bihotzaren zolan bere segetua. Nehok ez zuen jakin zoin zen haren pasioea, ez eta Piarres haren aldean bizi izan zenak ere. Lan hori pisuago zitzakon Doloresen

⁽⁴⁴⁾ ez eta ere erremeziazteko, haren baithan iratzartu ziren esperantzer. (EH). Ez dateke egokia *erremesiatzeko haren baithan iratzartu ziren esperantzer. Erremesiatzen adiera hemen adierazi nahi denaz bestelakoa da, eta bestetik, -z erremesiatu moldea da ohikoena: erremesiatzen zuela haren semearentzat zituen borondate bon guziez XII. Horregatik aldatu dugu, eta errenontzatzeko ezarri, silaba kopuru bera duelako (bestela, errenuntziazteko edo errenontziazteko ere izan zitezkeen; hiru forma horiek ageri dira OEHN). (...) ni renunciar á la esperanza que acababa de despertarse en ella. (1886:75). (...) ni renoncer elle-même à l'espoir qui venait de s'éveiller en elle. (1879:57).*

⁽⁴⁵⁾ Kasu eman daak: kasu emadak. *Escúchame, Felipe. (1886:75). Écoute-moi (1879:57).*

⁽⁴⁶⁾ *Nunca he pensado en lo que ocurre. (1886:75). Je m'attendais si peu à ce qui m'arrive! (1879:57).*

⁽⁴⁷⁾ *eginen dukanean: zer eginen duan. Y también tú tienes que pensar en lo que vas á hacer. (1886:75). Il faut que tu réfléchisses toi-même. (1879:57).*

⁽⁴⁸⁾ dehatala (EH).

⁽⁴⁹⁾ *si te amo de otro modo lo ignoro. (1886:76). Si je t'aime autrement, je l'ignore. (1879:57).*

aitzinean, baina harrapatu zuen suportatzeko manera bere esperantzetan, zoinak handitzen baitziren.

Gaztek ez dute dudatzen heien nahiak ez direla konplutuko.⁵⁰ Bazakielarik zoin ziren markesaren nahikeriak,⁵¹ erraiten zuen haren aita uros izanen zela bere ametsen eta nahikerien sakrifikatzerara semearen zorihonarentzat. Bethi bere amodioaren parrean⁵² ez zuen Salbadorrek ikhusten motibo faborablerik beizik bere ezkontzarentzat. Egiten zuen,⁵³ haren aitak ez bazuen fite baia emaiten, galdeginen zuela bere ama zenaren orhoitzapenetan eta markesari aitzinerat emanik Marianak Doloresentzat zuen amodioa, orhoitaraziz, etxe hartan hamazazpi urtez uros bizi izan baziren, hari zor ziola; zion, markesak ez zuela errefusatzen ahalko. Ikhusten zuen haren ezkontzeko eguna hurbil eta ezin parekatuzko urustasun batean bizi.⁵⁴ Azkartua esperantza hortaz, kontent bizi zen, igurikatzen zuen pazientziarekin Doloresen desiziona eta konsideratzen zen uros haren aldean bizitzeaz.

(XVII)

Hainbertze kasu emaiten zuen ez baitzuen haren bihotzak deus alxatzen,⁵⁵ haren akzionetan, haren mintzatzeko maneran nehok ez zuen phensatzen ahal sendimendu hek haren baithan bizi zirela, eta zoinen gainean phausatua baitzen haren urostasuna. Dolores kontent zen Salbadorren fidelitateaz eta obediენტiaz. Aprezietzen zuen haren sakrifizioa, eta ezagutzen zuen zonbat lan emaiten zakon ixiltasun harek, ezen harek ere maite zuen!...

⁽⁵⁰⁾ *Los jóvenes no dudan; (...)*. (1886:76). *Les jeunes coeurs ne doutent jamais*. (1879:58).

⁽⁵¹⁾ *nahikeriak*: egitasmoak. (...) *aunque no ignoraba los proyectos de su padre (...)* (1886:76). *Il n'ignorait pas les projets de son père*. (1879:58).

⁽⁵²⁾ *bere amodioaren parrean*: bere amodioaren parean; hau da, amodioari buruz, amodioaren aldera. Adiera hau ez bide da oso ohikoa idazleetan; ez dugu ikusi OEHN. *Siempre enfrente de su amor, Felipe no veía más que motivos favorables para su casamiento*. (1886:77). *Toujours en face de son amour, Philippe ne voyait que les motifs qui devaient en assurer la consécration*. (...). (1879:58).

⁽⁵³⁾ Bere artean pentsatzen/esaten/galdetzen zuen. *Se decía que si su padre no cedía pronto, (...)* (1886:77). *Il se faisait fort d'en avoir raison*. (1879:58).

⁽⁵⁴⁾ Hau da, bizi zela. *Se veía casado y en posesión de una felicidad sin igual*. (1886:77). *Il se voyait, à six mois de là, marié, en possession d'une félicité au delà de laquelle rien ne lui semblait enviable*. (1879:58).

⁽⁵⁵⁾ ez baitzen haren bihotzac deus alchatzen haren accionetan (...) (EH). Guk EHko baitzenen orde z baitzuen ipini dugu. Hau da: Ez baitzuen haren bihotzak deus erakusten. *Tenía tanto cuidado, que nada revelaba su corazón; (...)*. (1886:77). *Il veillait sur lui avec tant de soin que jamais un mot ne révélait l'état de son coeur, (...)*. (1879:58).

Arima garbi kharretan den batek senditzen dituen guziak senditzen⁵⁶ zituen harenak. Aski izan zen harentzat Salbadorren kofesioa, Marie Annak hiltzera-koan erakutsi zakon nahiaren gainera, esposa zadin haren bihotzeko sendimen-der eta kalitater ihardesten zuen presuna batekin. Eta hautatua zena, haren destinua konplitu behar zuena Salbador zela uste zuen. Elgarrekin haziak, hanitz maite zuten elgar eta estimatzen ziren, fartitzen ziuzten beren inpresione guziak, maithatzen ziuzten gauza berak. Bazen bi arima heien artian lazo bat bezala juntatzen zituena; nehorek ez zuen hausten ahalko.⁵⁷ Doloresentzat Salbador gizonik ederren eta nobleena zen. Ez othe zen hori amodioa? Zendako beraz Doloresek atxikitzen zuen Salbador desesperatzen zuen ixiltasun bat? Ze-ren beldur zen markesaren disgustatzea.⁵⁸

Haren ganik zuen ontsa izaite⁵⁹ guzia. Esposatuz Salbadorrekin ez zuen ekhartzen Chamondrineko jauregira haren aitak hainbertze amets egin zuen abantail hetarik batere. Konsentituko zuena haren desirer hain kontrario zen ezkontza bati?⁶⁰ Eta konsentitzen ez bazuen zoin izanen zen haren paperra, ezarria semearen amodioaren eta aitaren indarraren artean? Bazakien Doloresek markesak egiten ahal zuen sakrifiziorik handiena hori zela. Kolpatua ja bere emaztearen galtzeaz suportatuko zuena bere esperantzer eman zuen azken golpe hori?⁶¹

Phensamendu horiek bethetzen zuten Doloresen burua eta uzten mintzatzeko borondaterik gabe. Bere beldurrak Salbadorri erranez desepararaz beldur zen; deklaratzeko ez zuela maite haren indarrer superior zen. Iduritzen zitzakolarik ere imposible zela ezkontza hori, ez zuen gezurraren erraiteko indarririk, ez zezakeen bere bihotz propiko sua hil.⁶² Bertze ideia bat bazuen eta hura zen

(56) guziak, senditzen (...). (EH).

(57) (...) juntatzen zituena, nehorek ez zuen hausten ahalko. (EH). *Había entre sus dos almas como un lazo que las unía; nada hubiera podido quebrantarlo.* (1886:78). *Il y avait entre leurs âmes comme un lien que rien ne pouvait briser et qui n'en faisait qu'une.* (1879:59).

(58) diskutatzea (EH). Moldatzaileak *disgustatu* aditza darabil XXIX. atalean. *Es que tenía disgustar al Marqués* (1886:78). *C'est qu'elle redoutait de déplaire au marquis.* (1879:59).

(59) ontza izaite (EH). *De él tenía todo su bienestar.* (1886:78). *Elle tenait tout de sa générosité. Elle était sans fortune.* (1879:59).

(60) ezkontza bati? (EH). Frantsesaren kalkoa ote? Zuzenagoa da: (markesak) konsentituko zuena (...) ezkontza bat? *Consentiría en una unión tan contraria á sus deseos?* (1886:78). *Consentirait-il à une union si contraire à ses désirs?* (1879:59). (...) *supporterait-il ce nouveau coup porté à ses espérances?* (1879:60).

(61) Hau da: soportatuko zuena markesak Doloresek haren (markesaren) esperantzei emandako azken golpe hori? (...) *¿podría aguantar aquel nuevo golpe dado á sus esperanzas?* (1886:79).

(62) *no podía matar su propio corazón.* (1886:79). *Elle n'avait pas le courage de mentir, de marcher sur son propre coeur.* (1879:60).

markesari egiaren erraitea; bainan harek errapustua emaiten ahal zion haren hitz batez khentzen ahal ziozkala esperantza guziak Salbadorri; eta arrazoin zuen bainan Doloresek ez zezakeen destrui bere urostatun guzia gisa hortan.

Enfin, bere dolorentzat erremedio bilha zabilala denbora phasatzen zen; egun batez azkar kausitzen zen, bertze egun batez flako, eta hola, bere esperantza Jainkoaren baithan emana, hari othoituz fermuki argi zezala egin behar zuenaren gainean, denbora bazoan.⁶³

Bi hilabethe phasatu ziren eta markesa galdegina izan zen Marseillara bere adixkide eta kusi urrun da⁶⁴ eri txar zen baten gana. Fartitu zen berehala Salbadorrekin batean. Kusi hau Comte de Mirandol deitzen zen.

Fortuna handi baten jabe, alhargun zen aspaldian, eta bazuen hemezortzi urthetako alaba bat zoina haren ontasun guzieren ondoko izan behar baitzen. Han eta hemen estranjerian bizi ziren bethi eta orai bere egoitzaren egitera Franzia jinak ziren. Kondea eritasun bati ezin buru eginez egona, uste zuen izanen zuela arintasun zombait sorlekhuko aire garbia hartuz. Bainan Marseillara orduko eri-xartu zen eta, bere estatu goraz ilusionerik egin gabe, xerkatu zuen bere alabarentzat protektor bat, phensatu zuen bere khusi Chamondrineko markesean. Bazuen hanitz denbora ez zutela elgar ikhusi; bainan aski ontsa ezagutzen zuen, bere haurraren ontasunen konfiatzeko. Markesak ez zuen tronpatu, jin zen, hartu zuen bihotz honez bere ahaideak emaiten zion kargua eta zerratu zazkon begiak bere kusiari.

Zombait egunen buruan itzuli ziren jauregira andere dolutan zen baten konpainian, hura zen Eusebia de Mirandol.⁶⁵

Begitarte aski pollita zuen; ez izanik ere Doloresen edertasunetik batere, bazuen grazia hanitz. Belxarana zen eta aphala. Bainan haren begien eztitasuna halakoa zen nun obligarazten⁶⁶ baitzituen oro maithatzerat.

–Ekhartzen denat ahizpa bat -dio markesak Doloresi-. Gaixoak hanitz so-fritzen du; eta ororen karesen beharra badu konsolatzeko.

(63) Koma ezarri dugu *Enfin* lokailuaren ondoren. Euskarazko moldapenean Doloresek Jainkoaren baitan ezartzen du bere esperantza; gaztelaniazko eta frantsesezko testuan, halabeharrean. *En fin, buscando un remedio á su dolor, el tiempo pasaba; un día se encontraba fuerte, otro desesperada, y así esperaba de la casualidad una solución suprema.* (1886:79). *Au milieu de ses alternatives, le temps passait, et Dolorès, tour à tour fortifiée, indécise, désolée, attendait du hasard une solution suprême.* (1879:60).

(64) cusi urruna eri txar zen baten gana. (EH). *urrun da: urrun eta (?), urrundu (?). (...) y el Marqués fue llamado a Marsella por uno de sus primos, peligrosamente enfermo.* (1886:79). (...) *le marquis fut mandé à Marseille par un de ses cousins dangereusement malade.* (1879:60).

(65) Eusebio de Mirandol (EH). EHN behin baino gehiagotan ageri da *Eusebio* forma, *Eusebia* beharrean.

(66) obligarazten (EH).

Bi nexkatoak elgarretaratu ziren eta elgar besarkatu zuten. Doloresek lagundu zuen andere Mirandol bere ganberara, zoinarekin⁶⁷ fartitu behar baitzuen handik aitzina; han bilhatu zazkon konsolazioneak, karesak,⁶⁸ eta ordutik goiti elgar maithatu zuten ahizpak izan balire bezala.

(XVIII)

Kruelki penatua markesaren galtzeak, zoinak ama errenplazatu baitzion, eta Salbadorren ganik libratzeko egiten zituen indarrak,⁶⁹ konsolatu behar zuen adixkide baten presentzian.⁷⁰ Hola ahantzi zituen bere penak, eta eman zen osoki bere adixkidearen penen ttipiarazteko misionari. Eta konsegitu zuen. Khondatu zuten elgarri beren phasatua.⁷¹ Doloresek ez zakon deus gorde. Konfesatu zakon modestia falsurik gabe hura ez zela markesarentzat eskelari bat beizik. Eusebiak ere khondatu zakon bere gaztetasuna.

Ez zuen ezagutzen Frantzia. Harek hobekienik ezagutzen zuen lekhu Louisiana zen. Eta bethi lekhu eder hetaz mintzo zen. Doloresek obligarazten zuen Salbador mintzatzera korteaz, Parisez, eta zazkien erranaraztera Versaillesz, bethi Eusebiari penaren ahantzarazteko.⁷² Salbadorrek khondatzen zituen oro eta

⁽⁶⁷⁾ *zoinarekin*: andere Mirandolekin. Euskal moldatzailea nahastu da, gaztelaniazko testuari jarraitu nahian. Zuzenagoa: Doloresek lagundu zuen bere ganberara andere Mirandol, zoinarekin fartitu behar baitzuen ganbera handik aitzina. *Dolores acompañó á la señorita de Mirandol al cuarto que ésta debía compartir con ella; (...)* (1886:81). *Dolorès entraîne mademoiselle de Mirandol dans la chambre que celle-ci devait partager avec elle, (...)* (1879:61).

⁽⁶⁸⁾ *cabesac*. (EH). (...) *la prodigó consuelos, caricias, (...)* (1886:81). *lui prodigua des consolations, des caresses, (...)* (1879:61).

⁽⁶⁹⁾ (...) *markesaren galtzeak zoinak (...)* (EH). Hau da: markesaren galtzeak (...) eta Salbadorren ganik libratzeko egiten zituen indarrak penatua. *Penatu* hitzak lehen kasuan 'sufriarazi' eta bigarrenean 'akitu' esan nahi du. Guk *galtzeak* atxiki dugu, nahiz *-tzeaz penatua* den egitura kanonikoa. *zoinak*: Markesaren emazteak. *Cruelmente probada por la muerte de la Marquesa y las luchas que tenía que librar, á propósito de Felipe, (...)* (1886:61). *Cruellement éprouvée par la perte de la marquise et par les combats qu'elle se livrait, au sujet de Philippe, (...)* (1879:61).

⁽⁷⁰⁾ *indarrak konsolatu behar zuen adixkide baten presentzian hola ahantzi zituen bere penak, (...)* (EH). EHko testua aski ulerkaitza izanik, gaztelerazko itzulpenari esker uler dezakegu. Hau da: adixkide baten presentzian konsolatu behar izan zuen Doloresek. (...) *Dolores encontró fuerzas con la presencia de una amiga á quien consolar. Así olvidó sus propios males (...)* (1886:81). (...) *Dolorès puisa de telles forces dans la présence, auprès d'elle, d'une amie à consoler, qu'elle oublia ses propres maux (...)* (1879:61).

⁽⁷¹⁾ *Se contaron mutuamente su pasado* (1886:81). *Elles se racontèrent mutuellement leurs jours passés.* (1879:62).

⁽⁷²⁾ *obligarazten zuen Salvador mintzateaz. Corteaz, Parisez eta zazkien erranaraztera Versaillesz; bethi Eusebiori penaren ahantzarazteko, Salbadorrek khondatzen zituen oro eta biziki mintzatzeco manera ederra zuen.* (EH). *Dolores, procurando distraerla, obligó á Felipe á referir lo que sabía de París, de Versailles, de la*

biziki mintzatzeko manera ederra zuen. Erraiten zuen nola esperantza zuen egun batez haren izena merezi zuen bezain gora ezartzea, eta Eusebiak, ikhusiz bihotz handitako gizona zela, hasi zen haren maithatzen. O! zoin uros diren ikhusi dutenak lehen amodioaren aurora garbia beren bihotz gazte eta puretara jausten!

Lehenik argi guti bat da, zoinak erakusten beitauku urrunetik maite dugun presuna. Gero argia handitzen da, esperantzak ezitzen ditu, argitzen du oraino ilhunbetan zena: bihotzak hobeki ikusten du bere baitan. Bat-batean ondar lanhoak alxatzen dira eta iguzkia atheratzen da izaite maithatuaz inguratua eta bizi berri bat emaiten du. Amodioa da.

Chamondrinen ilhabethe bat pasatu orduko amodioaren lehen misteriozko grado hartara ethorria zen.⁷³ Salvador hona eta maithagarria zela iduritzen zitzaien. Ez zuen gorde Doloresi; eta ez dugu dudatu behar bihotza xehatzen zakola bere konfidantzekin.⁷⁴ Dolores⁷⁵ oraino ez zen sinhetsia ez zela egun batez Chamondrineko markesa izanen. Eta orduan ikhusi zuen inposible zela ezkontzadin maite zuen gizonarekin. Orduan ezagutu zuen hobeki bien artean zen diferentzia. Guduka zitakeen Eusebiarekin? Ez balin bazuen bere eta Salvadorren amodio handiak [beizik] konsultatzen, bai;⁷⁶ bainan konsultatzen bazuen fortuna, noble-

corte y de todo lo que había visto. (1886:81). *Dolorès, cherchant à la distraire, obligea Philippe à répéter ce qu'il savait de Paris, de Versailles et de la cour, (...).* (1879:62).

(73) Eusebia de Mirandol.

(74) Eusebiak Doloresi bihotza xehatzen ziola.

(75) Doloresez ala Eusebiaz ari da euskarazko moldapena? Subjekturik ez da esaldi honetan, ez aurrekoan; eta gaztelaniazko itzulpenean ere ez. Esaldi honetan Dolores da subjektua, eta aurrekoan ere bai; moldatzaileak, gaztelaniazkoari jarraitzeagatik, ez du garbi adierazi nahi izan nor ikusi zuen orduan inposible zela maite zuen gizonarekin ezkontzea. Frantsesezkoan (jatorrizkoan), ordea, oso garbi ageri da. Horregatik guk esaldi honetan subjektua ipini dugu: *Doloresek*; aurrekoan, testuinguruari kontu eginik, subjektua Eusebia dela errazago uler daiteke. *Après un mois de séjour à Chamondrin, Antoinette (...). Elle ne le cachait pas à Dolores, sans se douter qu'elle lui déchirait l'âme par ses confidences. Elle n'était déjà plus insensible à la pensée de devenir marquise de Chamondrin. C'est alors que pour la première fois, comme à la lueur d'un éclair qui, sur la route obscure, découvre soudain un précipice au voyageur épouvanté, apparut nettement à Dolorès l'impossibilité d'épouser Philippe.* (1879:63). *Después de llevar un mes en Chamondrin, Antonia (...). No lo ocultó a Dolores, y no hay por qué dudar que la rompía el alma con sus confidencias. Ya no era insensible al pensamiento de ser Marquesa de Chamondrin. Entonces fué cuando vió [subjektua falta: Dolores] la imposibilidad de casarse con el hombre que amaba. La pasó lo mismo que al viajero que en una noche oscura (...)* (1886:82).

(76) Ez balin bazuen bere eta Salvadorren amodio handiac konsultatzen bai; (EH). EHko testuan beizik edo baizik falta da; bestela, hasierako *Ez (Ez balin bazuen...)* kendu behar da. Bestalde, ohargarria da adizki-komunzadura singularrean egiten duela: *Ez balin bazuen (...)* amodio handiak konsultatzen (...); ohikoagoa da *balin bazuen bere eta Salvadorren amodio handia* edo bestela *balin bazituen bere eta Salvadorren amodio handiak*. *Sí, si no consultaba más que á su inmenso amor y al de Felipe; (...).* (1886:83). *Oui, si l'on ne consultait que l'amour de Philippe et le sien.* (1879:63).

za, hitz batez andere Mirandolek zituen guziak, ez. Ezen harek bazituen markesak bere semearen ezkontarazteko behar zituen eta desiratu zituen guziak.

Zer gau terriblea Doloresenzat, Eusebiaren konfidentzak segitu zuena.⁷⁷ Zonbat pena! Biak ganbera berean etzaten ziren, eta Eusebiak ez bazuen eza gutzen Doloresen pena, hura⁷⁸ ere phensaketan zagolakotz zen. Ez zuen bere adixkidearentzat inbidiarik ez eta ere jelosiarik,⁷⁹ konprenditzen zuen maite zuela Salbador ikhusi zuen phundutik.⁸⁰ Nigar egiten zuen desesperazionez.⁸¹ Salbadorren amodioa ezagutuz geroz esperantza sekretu bat haren baithan bizi zen.

Denbora bazuen.⁸² Markesak bere semearentzat desiratzen zuen emazte noble eta aberatsa ez zen oraino harrapatua. Arrazoin horiek emaiten zioten zonbeit indar. Bainan orai ez zezakeen konserba esperantza horietarik.⁸³ Sostentitzen zuen gudua bethea zen urriki handi batez.⁸⁴ Boz batek erraiten zakon: “Maite dun, maithatua hiz, mantenzkin hire dretxoak,⁸⁵ guduka, othoitz, lagunt Salbador, lan egin elgarrekin zuen amodioaren triunfa irabazteko, erresista zazue elgarrekin markesaren borondateari, eta orai ez balin baduzue irabazten ahal zuen indarrak khoronatuak izanen dira berantxago argi handi batekin.”

Bainan bertze boz batek erraiten zion: “Markesa hire aita, hire ongi egilea izan dun, haren emazteak ama batek bezenbat maithatu hau, amaren plaza egin daun.⁸⁶ Nori zor dun ez ignorante izaitea?⁸⁷ Nork ezagutarazi daun Jainkoa, ha-

(77) Hau da: Eusebiaren konfidentzen ondoko gaua. *¡Qué noche tan terrible para Dolores la que siguió á la confidencia de Antonia!* (1886:83). *Quelle terrible nuit fut pour Dolores celle qui suivit la confidence d'Antoinette!* (1879:63).

(78) hura: Dolores.

(79) Doloresek.

(80) Doloresek konprentitzen zuen Eusebiak maite zuela Salbador, ikusi zuen puntutik.

(81) Doloresek negar egiten zuen.

(82) Denbora bazuen markesac bere semearentzat desiratzen zuen emazte noble eta aberatsa, etzen oraino harrapatua. (EH). Subjektua Dolores da: Doloresek bazuen denbora. *Tenía el tiempo. La rica mujer que el Marqués deseaba para su hijo no se había encontrado.* (1886:83). *Elle avait le temp pour elle. La femme que le marquis cherchait pour son fils n'était pas trouvée.* (1879:63).

(83) *Pero ahora no podía conservar estas últimas ilusiones.* (1886:83). *Maintenant, elle ne pouvait plus même conserver ces dernières illusions.* (1879:63).

(84) *La lucha que sostenía estaba llena de un vivo pesar.* (1886:83). *La lutte qu'elle soutint fut pleine de déchirements.* (1879:63).

(85) (EH) drechoac. OEHN ez dugu ikusi *drexo* aldaerarik.

(86) *la Marquesa ocupó el lugar de tu madre.* (1886:84). *la marquise te tint lieu de mère.* (1879:64).

(87) Normalagoa da: ignorante ez izaitea? Edo: ez izaitea ignorante?

ren handitasuna eta haren obrak? Amen bihotza,⁸⁸ familiako gozoak, ontsa izaita eta hire izaita xarmatu duen guzia nori zor dion? Ez dun sobera eginen hire bihotzaren zerrateaz heien errekonpentsatzeko, eta gisa hortan ez ditun heien esperantzak destruituko.”⁸⁹ Lehen bozak zion berriz: “Salbador biziki maluros izanen dun hik abandonatzen badun. Nigar eginen din hiretzat⁹⁰ eta madarikatuko hau, eta hik ere phasatuko dun bizia nigarrez, ahalgeturik hire urostasuna ezdeus batzuentzat uzteaz.”⁹¹ Bainan bigarren bozak ihardesten zion: “Eusebiak konsolatuko din Salbador. Madarikatzen bahau, jakiten duenean zerentzat ez dunan nahi izan, benedikatuko hau. Eta hitaz nigar egiten badun khireski, apazegatuko hiz phensatuz hire deberra konplitu dunala.”

Haur malurosa gisa hortan gudukan ari zen bere bihotzaren eta kontzientziaren kontra. Bainan geroxago ixilarazi zuen bere kontzientzia bai⁹² eta ere bihotza eta phensamenduak. Erresinatu zen bere malhurrari eta hartu zuen xedea ez konbatitzeko Eusebiaren baithan sortzen ari zen amodioa, bainan bai animatzeko. Esperantza zuen Salbador ez zela insensible⁹³ izanen Eusebiaren grazier eta orduan, deseparatzeko beldurrik gabe,⁹⁴ atrebituko zen bere gogoaren kontra mintzatzeri eta deklaratu zion Salbadorri ez zuela maite.

(XIX)

Hirur ilhabethe phasatu ziren gisa hortan. Salbador akhitua bere honaren eta gaitzaren errapostuaren beha,⁹⁵ eta ezin atrebituz bere hitzaren haustera

(88) *La ternura maternal, los gozos de la familia, el bienestar, todo lo que encantó tu existencia, ¿a quién se lo debes?* (1886:84). *Tu leur dois de n'avoir pas vécu dans l'ignorance, dans l'ignominie, de connaître Dieu, la tendresse paternelle, les joies de la famille, le bien-être, ce qui charme la vie.* (1879:64). Lehen hitzetik ageri da gaztelaniatik moldatua dela, ez frantsesetik.

(89) *No harás demasiado con hacer callar tu corazón para recompensarles, y así no destruirás sus esperanzas.* (1886:84). *Est-ce trop les récompenser que de faire taire ton cœur et de ne pas détruire leurs espérances?* (1879:64).

(90) *hiretzat: hiregatik. Te llorará, (...)* (1886:84). *Il te pleurera, (...)* (1879:64).

(91) *ez deus batzuentzat (EH). (...)* *encontrándote ridícula por haber sacrificado tu felicidad á unos escrúpulos exagerados* (1886:84). *(...) tu passeras ta vie dans les larmes, en te trouvant ridicule de t'être sacrifié à des scrupules exagérés.* (1879:64).

(92) *bat (EH).*

(93) *insensible (EH).*

(94) *(...) sin temor de desesperarle, (...)* (1886:85). *(...) sans crainte de le désespérer, (...)* (1879:64).

(95) *(...) cansado de esperar la contestación que debía decidir de su porvenir, (...)* (1886:85). *(...) lassé d'attendre la réponse qui devait décider de sa destinée, (...)* (1879:64).

Doloresi galdeginez, desidatu z[u]en Eusebiari hel egin behar ziola⁹⁶ harentzat errekeri zezan Dolores, hainbertze desiratzen zuen errepostuaren izaiteko. Ja bazakien bi nexkatoek biziki elgar maite zutela, beren sekretuak elgarri khondatzen zizutela eta phensatzen zuen andere Mirandolek plazer hori eginen ziola.

Ordu arte harentzat hotz izan zen, bainan orduan hasi zen haren hobeki tratatzen, gero atrebituko zela lau urthe beino gehiago bere bihotzaren zolan zaukan segetuaren hari erraitera.⁹⁷ Promenatzera juaten zirenean Salbadorrek emaiten zakon besoa, karrosan joaten zirelarik haren aldean jartzen zen, Avignonerat juaten zelarik Doloresi bezala hari ere orhoitzapen bat ekhartzen zion, eta Eusebiak zituen⁹⁸ karesa horiek amodioaren probak bezala. Biziki kontent zen eta bere sendimenduek sinetserrex⁹⁹ eginarazten zuten. Arrats batez erran zion Doloresi:

–Ez dakizu maite nauela?

Ez zuen sinhetsi.¹⁰⁰ Inposible zen Salbadorrek hain fite ahantzi zuen.¹⁰¹ Harek erran zazkon guziak gezurrak othe ziren? Nola sinhets hainbertze lañotasunekin eta surekin mintzatu zitzaionaz geroz!¹⁰² Gudukatu eta ondoan phensatzen zuen Salbadorrek ez zuela maite eta sakrifikatzen zela Eusebiarentzat. Preparatua zen behatze ezti batekin bere malurustasunaren konsumitzen ikhustera.¹⁰³ Bainan hain fite ahantzia izaitea ez zuen sinesten ahal.

–Hau hola balin bada -egiten zuen Doloresek-, Salbador Eusebiarentzat

(96) desidatu zen Eusebiari hel eguin behar ziola (EH). *Desidatu* aditza ‘deliberatu’ nor erregimenarekin (XV) nahiz nor-nork erregimenarekin (XLVIII) darabil moldatzaileak. Guk hemen *zuen* ezarri dugu, egokiagotzat jota. (...) *resolvió acudir à Antonia para obtener con su intercesión (...)* (1886:85). (...) *résolut d’avoir recours à Antoinette pour obtenir, par son intermédiaire, (...)* (1879:64).

(97) Aditza gordeta dago, ahozko estiloan ohi bezala: *pentsatuz, ustez, (bere artean) egiten zuen* edo antzekoren bat.

(98) zutuen. (EH). Guk *zituen* ezarri dugu, nahiz EHko edizioan hemengo *zutuen* ez ezik *dutu* forma ere agertu zaigun lehenago (*u hori ü ote?*).

(99) Sinets errech (EH).

(100) sinhetzi (EH). Doloresek ez zuen sinetsi.

(101) Hau da: hain fite ahaztea (Salbadorrek Dolores). *Inposible izan* aditza + *-n* egitura ohiz kanpoko da. *Era imposible que Felipe la hubiese olvidado tan pronto. Était-il donc possible que Philippe eût oublié si vite ses aveux?* (1879:65).

(102) Harek erran zazcon guziac guezurrac othe ziren. (EH). Galde-markarik ez da EHren edizioan, guk ezarria da. *Quizá todo lo que la había dicho era mentira. ¿Cómo creerlo (sic) si la había hablado con tanto ardor!* (1886:86). *Mentait-il lorsqu’il les formulait avec tant d’ardeur? Comment le supposer? Dolores ne put s’adresser ces questions sans frémir.* (1879:65).

(103) *Estaba preparada para ver con mirada tranquila consumarse su desgracia.* (1886:86). *Oui, elle était prête à voir d’un oeil tranquille se consommer son malheur.* (1879:66).

hain indigno da nola neretzat. Bainan ez ditake. Tronpatzen da hau!¹⁰⁴

Segurtatzeko, erran zion Eusebiari:

–Bainan, nola dakizu maite zaituela? Zoin dira harek zuri erakhutsi¹⁰⁵ dauz-kizun amodioaren frogak?

Eusebiak erran zaskonean Salbadorrek harentzat hartzen zituen atenzio-neak, Dolores dudatu zen. Bizkitartean ez zuen deus erran. Eusebiak biziki uros lo egin zuen gau hartan. Biharamunean bere ganberatik atheratzean harrapatu zuen Salbador galerian eta [hunek] erran zakon fite boz aphas batean.¹⁰⁶

–Anderea, mintzatu behar zaitut. Zure beha nago behereko parkean.

Hitz horiek erran eta itzali zen, uzten zuelarik Eusebia konfusa, bainan urosa. Haren bihotzak palpitatzen zuen azkarki. Haren bisaia gorritua zen guti aski. Juan zen parkera ahal zuen bezain urrun, Doloresek ez ikhusia izaiteko.

Salbador, haren beha zagona, hari hurbildu zen. Eusebiak ikhusi zuenean bethi bezala zela eta haren begitharteak ez zuela deus partikularrik alxatzen, horrek kontrariatu zuen.¹⁰⁷ Uste zuen koloreak juanak eta ikharetan jinen zela bainan tronpatu zen.

–Barkhatuko deitazu, anderea, zuri hel egiteaz¹⁰⁸ -erran zion Salbadorrek-. Bainan zuk egiten ahal detazun zerbitzua hain handia da, nun hari estekatua baita ene bizi guziko urostatuna, hortakotz ez niz gibelatu zure borondatean konfiatzetik.

–Eta zertan baliatzen ahal nauzu?

–Maite dut -ihardetsi zion Salbadorrek.

Eusebia ikharatu zen, eta, turbatua, begiak aphasdu zituen.

–Nik maite dutana diskreta da, ederra, eta hona zu bezala. Ez duzu erraiten ahalko ezetz jakiten duzunean Doloresez mintzo naizela.

(104) hau: Eusebia.

(105) erakhusi.

(106) Salbadorrek Eusebiari.

(107) Salvador haren beha zagona, hari hurbildu zen ikhusi zuenean bethi bezala zela eta haren beguitharteac eztzuela deus partikularrik alchatzen. Horrec kontrariatu zuen. (EH). Denborazko mende-perpau-saren subjektua Eusebia da: Eusebiak ikusi zuenean Salbador beti bezala zela eta (...). *Antonia vió que tenía su calma ordinaria y sus facciones no revelaban nada de particular. Aquello la contrarió. (1886:87). En le voyant, il marcha vers elle. Alors elle remarqua qu'il possédait son calme ordinaire, que ses traits n'exprimaient aucune émotion, qu'il souriait, comme pour démontrer que ce qu'il allait dire n'était ni émouvant ni solennel. Antoinette éprouva quelque désappointement. (1879:67).*

(108) -*Me dispensaréis, señorita, haber pensado en recurrir á vos (...)* (1886:87). *Excusez-moi, mademoiselle, d'avoir songé à recourir à vous, (...)* (1879:67).

Nola ixtant hartan Eusebiak ez zuen zer senditzen zuen erran? Hats luze bat botatu zuen eta hits-hitsa egin zen bainan arbolen itzalek disimularazi zioten bere hitstasuna.¹⁰⁹ Eta gisa hortan entzun zituen Salbadorren konfidentzak. Kondatu zakon maite zuela Dolores lau urthe hartan eta harek bazakiela zonbait hilabete hartan;¹¹⁰ berak erran ziola, bainan ez zakola errapostua eman eta, ezin gehiago biziz gisa hortan, othoizten zuela andere Mirandol harentzat othoitz zezan Dolores nahi zuenez mintzatu hain maite zuen harekin.¹¹¹

Eusebiak hitzeman zakon mintzatu zitzakola Doloresi. Haur malurosak hitzeman zion jakin gabe zer ari zen; desiratzen zuen Salbador jua zadin, gero nigar egiteko, bakharrik. Jua zen parke hartara esperantzarik eztienekin eta heien arruina¹¹² harrapatu zuen han, kupable kausitzen zen eta erreproxatzen zuen amodio hura krima bat bezala.¹¹³ Eta erraiten zuen han ikhusten zuela Jainkoaren eskuak gaztigatzen zuela Salbadorri phensaturik, oraino dolu handian izan eta.¹¹⁴ Bakharrik gelditu zenean nigar egin zuen, hala haren pena ezti-tu zen; bainan jelsia sorthu zen haren baithan zeren eta Doloresek errezebitu baitzitu haren konfidentzak hari erran gabe Salbadorrek maite zuela; jua zen haren bilha. Dolores atheratu zen erraiten ziolarik:

–Eusebia...bainan zer duzu? Hitstua zira eta iduri duzu nigar egin duzula.

–Zer dudan? Ez niz maithatua! Horra zer dudan. Zu maite zaitu. Othoiztu nau zuri [galdegitea] harek desiratzen duen errapostu bat.¹¹⁵ Konprenditzen

(109) (EH) luttasuna. Ik. lerro batzuk beherago *Hitstua. Pero la umbria de los bojes la permitió disimular su palidez.* (1886:88). *Elle se sentit devenir très-pâle. Mais l'ombre des buis lui permit de dissimuler sa pâleur.* (1879:68).

(110) (...) *que ella lo sabía desde hacía algunos meses; (...).* (1886:88). (...) *qu'elle ne le savait par lui que depuis quelques mois (...).* (1879:68).

(111) *harentzat*: Salbadorrentzat, Salbadorren alde. *harekin*: Salbadorrekin.

(112) *heien arruina*: esperantza haien arruina.

(113) *se reprochaba aquel amor como un crimen, (...).* (1886:88). *se reprochait son amour comme un crime, (...)* (1879:68).

(114) Gaztigatzen zuela Salbadorri phensaturik oraino dolu handian izan eta bakharric guelditu zenean negar (...) (EH). (...) *por haberse atrevido á pensar en Felipe, estando todavía enlutada por la muerte de su padre.* (1886:89). (...) *d'avoir osé penser à Philippe, étant encore en deuil de son père.* (1879:68).

(115) Othoiztu nau zuri harek desiratzen duen errapostu bat. (EH). Guk, aditz bat falta delakoan, *galdegitea* ezarri dugu, eta molde prototipikoena hautatu dugu (*-t(z)ea*), laburrena izanaz gainera. Aditz hori (*galdegin*) hautatu dugu (eta ez *athera* edo *ekbendu*) hain zuzen ere moldatzaileak *errapostu (bat) galdegin* egitura darabilelako (*galdegin datan errapostu bat XV*). *Acaba de suplicarme para que favorezca su causa y que os arranque una contestación favorable á sus deseos.* (1886:89). *Il m'a supplié tout à l'heure de plaider sa cause, de vous arracher une réponse favorable à ses vœux.* (1879:69).

duzu zer gisaz eni adrezatu den, zure aldean abokat paperraren¹¹⁶ egiteko? A! hanitz sofritzen dut, humiliatua naiz, ahalgetua. Zerentzat ez deitazu erran Salbadorrek maite zintuela? Arras gaizki egin duzu; uste nuen ene adixkidea, ene ahizpa zinela.

Ez zezakeen deus gehiago erran, hats-hantua zen.

(XX)

Dolores, hainbertze ordu arte sofritu zuena[k], oraino sofritzen zuena[k],¹¹⁷ pietate izan zuen Eusebiaren penaz. Hari hurbildu zen, haren nigarrak xukatu zituen eta erran zion:

–Egia da Salbadorrek maite naiela, erran daut badu zonbeit egun; errefusatu¹¹⁸ nion erropostua phensatu beino lehen eta ontsa egin dut zeren eta ez beitut ikhusten Salbadorren baithan anaia bat beizik. Sekula ez niz haren emaztea izanen, eta luzatu badut egiaren ezagutaraztea,¹¹⁹ egin dut beldurrez hari pena eman destruiaraziz haren baithan zen esperantza bat.

–Zer! maite zaitu, ez zira harekin ezkondu nahi? ez diot¹²⁰ sinets.

–Ez dut nahi harekin ezkondu -segitu zuen Doloresek-, eta aithortzen deitzut, ikhusiz zuk maithatzen zinduela kontentatu nizala erranez: hori da Salbadorri konbenitzen zaion emaztea eta ene erropostuak desesperatzen balin badu konsolatuko du Eusebiaren amodioak.

–Hori phensatu zinduen? -dio andere Mirandolek bere adixkidea besarkatzen duelarik-. Eta nik hain gaizki jujatzen zintudana!¹²¹ Barkhatuko deitazu?

Musu bat irri batez lagundua izan zen haren erropostua.

–Bai, Eusebia, nahi dut lanean ari haren honarentzat eta segur niz harek maithatuko zaituela.

(116) paperarren (EH).

(117) (...) sofritu zuena, oraino sofritzen zuena (...) (EH).

(118) errefustatu (EH). *Errefustatu* aldaera ez dugu ikusi OEHn, behin baino ez da agertzen nobela hone-tan, hutsa dirudi; *errefusatu*, ordea, maiz ageri da.

(119) eguiaren ezagutarazteco eguin dut beldurrez (...) (EH). *y si he tardado en hacerle conocer la verdad, es que temía causarle una pena (...)* (1886:90). *Si j'ai retardé à lui faire connaître ma volonté, c'est dans la crainte de lui causer une peine, (...)* (1879:69).

(120) dirot, dezaket.

(121) (...) bere adichkidea besarkatzen duelarik, eta nic hain gaizki yuyatzen zintudana; barkhatuco deitazu? (EH). *y yo que os juzgaba tan mal; ¿me perdonareis?* (1886:90). (...) *en se jetant dans les bras de son amie. Et moi qui viens de vous juger si mal!* (1879:70).

–Ai! nola nahi duzu ni maitha nezan haren bihotza zurea denaz gainean eta haren begiek zureak beizik bilhatzen ez diuztenean? Nahi gabe enetzat partida handi bat zira, zeren eta zu ikhusiz ez beitu Salbadorrek sekula ene bihotza ezagutuko.

–O! ez zazula beldur hori izan, ene ausenziak¹²² zuen urustasuna eginen du.

–Zer! utz zindezake etxe hau hain maitatua zirena?¹²³ -dio Eusebiak-. Ez, ez hori sekula.

–Bai, utziko dut, zuen uroostasuna segurtatu artio. Chamondrineko markesa izaiten zirenean joanen zira Pariserat Salbadorrekin eta orduan jinen niz ene aitaren alderat, utziko dudan hutsaren bethetzera.

–Dolores, aingeru bat zira! zoin maite zaitudan!

Doloresen lenguaiaik konsolatu zuen Eusebia eta konten fartitu zen.

Dolores bera¹²⁴ gelditu zen bere desesperazionearekin, akhitua egin zuen indar hartaz Eusebiaren uroostasunaren egiteko. Bainan ez zezakeen ahantz Salbadorrek hanitz maite zuela eta harek ere ba. Hala ere zion: “Uros izanen da Eusebia bai eta ere markesa sakrifizio hori eginez eta bertze gisaz biak maluros litazke”. Sakrifiziorik dolorosena egiten bazuen, jenerosena egiten zuen.¹²⁵

Iduritzen zitzaion ez zuela egiten ahal, ez zela kapable; hainbertze akhitua zela gudukan. Bainan “Egin behar dut” erran zuen. Eta bere bihotzari kasurik egin gabe badoa berehala markesaren ganberara.

Elgarren artean konferenzia handi bat izan zuten. Urgulurik gabeko balore handi batekin Doloresek erran zion nola¹²⁶ Salbadorrek maite zuen eta harek ez, harentzat Salbador anaiat¹²⁷ zela. Bainan Eusebiak hura maite zuela, eta ahantz ahal zezan handik joanen zela, hura ezkondu artio.

(122) auzenciac (EH).

(123) –*¡Que, ¿dejariais esta casa donde tan querida sois?* (1886:91). –*Quoi! Vous quitteriez cette maison, et c’est moi qui vous en chasserais!* (1879:70).

(124) *bera*: bakarririk. *Dolores se quedó sola con su desesperación (...)* (1886:91). *Restée seule, Dolorès, (...)* (1879:70).

(125) (...) maluros litazke sakrifiorik dolorosena eguiten bazuen; generosena eguiten zuen (EH). Badirudi alderantziz izan behar lukeela: sakrifiziorik jenerosena egiten bazuen, dolorosena egiten zuen. *La felicidad, la grandeza de amor que tenía por ella hacía su sacrificio más generoso, pero también más doloroso.* (1886:91). *La fidélité de Philippe, la grandeur de l’amour qui se révélait à elle, rendaient plus douloureux son sacrifice.* (1879:70-71).

(126) Urgulurik gabeko bolore (sic) handi batekin. Doloresek erran zion; nola (...) (EH).

(127) *anaiat*: anaia bat.

(XXI)

Markesak nigarretan besarkatzen zuen, erranez ez zuela nahi haren ganik separatu.¹²⁸

–Nesario da -zion Doloresek-, zendako eta ni haren aldean izanez ez nau ahantziko, eta bethi konserbatuko du nik maithatuko dutalako esperantza. Nesario da ezin phasatuzko murru bat gure bien artean alxa dadin, uste izan dezan hila nizala munduko eta amodioarentzat.¹²⁹ Alon, aita, maite banauzu eta zure semea maite baduzu ez detazu errefusatuko nik ikhusi nahi ez dudanaren eta ahantzi behar nauenaren aldean bizitzea. Phasatuko ditut bi urthe komentu batean eta gero jinen niz zure alderat.

Jaun Chamondrin harritu zen ikhustez haur harek hain bihotz handia zuela, musuz bethetzen zuela konsentitu zuen phensatuz harek zuen desira, bere semearen izen handitako andere batekin ezkontaraztea, konplituko zela fite eta orduan berriz uros bere alderat ekharraraziko zuela Dolores. Separatu zirenean [Dolores] joan zen Salbadorren aurkhitzera, harrapatu zuen goizean andere Mirandol othoiztu zuen lekhu berean. Ikhusi zuen heldu zela. Eta hari hurbildu zen.

–Eusebia hitaz mintzatu zetak -erran zion boz segur batekin-. Beldur nindukan hiri pena eman, hortako ez deat ihardetsi fiteago. Bainan goizean hau phasatu denaz gainean, esplikatuko nuk.

Salbadorrek phensatu zuen, inzirina bat egin zuen eta bere indar guziak bildu zituen haren entzuteko.

–Har ezak kuraie, Salbador, ez zakala handi hire desesperatzeaz duan pena. Hik hire bihotza ideki hindatan¹³⁰ momentotik hire sentimenduen leitarazteko, ez nuk gelditu nerearen konsultatetik. Nahi nian hartan harrapatu hireari berdintzen ahal zen amodio bat.¹³¹ Bainan alferretan bilhatu diat. Maite haut ene odola hiretzat emaiteko, bai eta ere ene deskantsua eta ene bizia. Bainan ez deat atxikitzen ahal bertze amodiorik. Bethi sakrifizio guzietarat preparatu den

(128) seperatu (EH). Moldatzaileak sarritan darabil *separatu*; atal honetan bertan lerro batzuk beherago ere bai.

(129) (...) *muerta para el mundo y para el amor* (1886:92). (...) *morte au monde et à l'amour* (1879:71).

(130) *ideki bindatan*: ireki hidaan (hik niri, hitanoz). *Desde el día que me abriste tu corazón* (...) (1886:93). *Depuis le jour où tu m'ouvris ton coeur* (...) (1879:72).

(131) Hireari berdintzen ahal zuen amodio bat (EH). Moldatzailea nahastu da; guk *berdintzen ahal zen ezarri* dugu baina *hirea berdintzen ahal zuen* ere zuzen dagoke. *hartan*: nire bihotzean. (...) *no he cesado de consultar el mío. Quería encontrar los síntomas de un amor igual al tuyo.* (1886:93). (...) *je n'ai cessé de consulter le mien. Je voulais y trouver les symptômes d'un amour égal à ton amour.* (1879:72).

aurhide amodio harekin maithatu haut.¹³² Hori duk enetzat dukana eta nahi duk farti dezagun?¹³³ Nahi dukanaz geroz, ene bihotza zerratua duk eta bethi izanen duk hortaz bertze amodioarentzat, konsentitzen banu hirekin hurbilago juntatzera ezkontzako lazoekin.¹³⁴

–Ai! -murmuratu zuen Salbadorrek-, ez dut jakin nere buruaren konprendiarazten.

–Ez dezakeat ahantz hemezortzi urthez anaiak izan girela -erraiten zakon Doloresek konsolarazi nahiz-. Ez duk ikhusten [e]zik¹³⁵ ezkontza hau gure aitaren nahiaren kontrakoa litakela, bai eta ere hire izenaren loriari,¹³⁶ zoinaren ondoko bakharra bai hiz?

–Eta zer egiten dautate ene loriak, izenak eta ene aitaren nahiak! Deus ez zaut interesatzen¹³⁷ -zion bizitasunekin Salbadorrek-. Sorthu niz hokolostetan ofreitua izaiteko ezdeuskeria batzuentzat?¹³⁸ Bortz urthe bizi izan nun espe-

(132) *aurhide amodio*: haurride edo anai-arreben arteko maitetasun. *Aurbide* aldaera zuberera eta behenafarrerako zenbait tokitakoa da, OEHren arabera. *Siempre te he querido así, con aquella fraternal ternura preparada á todo sacrificio.* (1886:93). *Je t'ai toujours aimé ainsi, avec cette fraternelle tendresse prête à tous les dévouements.* (1879:72).

(133) *¿Es ese el que tienes para mí y que quieres que compartamos?* (1886:94). *Est-ce là cet amour que tu ressens, que tu voudrais me faire partager?* (1879:73).

(134) (...) ene bihotza zeratua duc (...) (EH). *hortaz bertze amodioarentzat*: horretaz bertze amodioarentzat. *¿No, lo ves? Pues, qué quieres, mi corazón se ha quedado cerrado y siempre se quedará así, aun cuando consintiese á unirme más estrechamente contigo con los lazos del matrimonio.* (1886:94). *Non, et tu le vois bien, à celui-là mon coeur est resté obstinément fermé. Il y resterait fermé de même si je consentais à m'unir plus étroitement à toi, par les liens du mariage.* (1879:73). Ondoko zatia eta hurrengo hiruzpalau paragrafoak itzulipurdikaturik ematen ditu EH kazetak. Guk, 1879ko frantses edizioari jarraituz, dagokien ordenan ezarri ditugu.

(135) EH edizioan, dagokien lerroaldetik kanpo ageri dira *Ez duk ikhusten?* eta bost lerro beherago horren jarraipena den *cic ezkontza hau gure aitaren nabiaren (...)*. Lerro hasieran dagoen *cic* hori ezik osatuta ezarri dugu, *bik* baino seguruagoa delakoan.

(136) hire izenaren loriari zoinaren (...) (EH). *kontrakoa (...)* hire izenaren loriari: egitura bihurria; normalagoa zatekeen, simetrikoagoa eta erabiliagoa delako, *ezkontza hau gure aitaren nabiaren kontrakoa litakela, bai eta ere hire izenaren loriarena*; izan ere *-ri* kontrakoa ez da egitura oso ohikoa. *zoinaren*: aurrekaria izena du. *–Y ¿no sabes que este casamiento sería contrario á los deseos de tu padre y á la gloria de tu nombre (...)?* (1886:94). *D'ailleurs, ce mariage était-il possible? N'était-il pas contraire aux vœux de ton père, à la gloire du nom dont tu es l'unique héritier?* (1879:73).

(137) *interezazen* (EH).

(138) *hokolostetan ofreitua izaiteko ez deuskeria batzuentzat?* (EH). *hokolostetan ofreitua izaiteko*: holokostetan/holokausto gisa eskainia izateko. *Hokolost* aldaera, *holokosten* metatesia, beste behin ere ageri da: *hokolostetan ofreituzeko* XLIII. Aldaera hori ez dugu ikusi OEHn. *¿He nacido para ser ofrecido en holocausto á unas preocupaciones estúpidas?* (1886:94). *Suis-je né pour être offert en holocauste à des préjugés absurdes?* (1879:73).

rantza batekin. Egun destruitzen detate. Zer ikhusten ahal dut urrunago?¹³⁹ Deusek ez nau estekatzen biziari, zeren eta hire dezisioea ezin hautsizkoa balin badun, ez nun konsolatuko sekula.

–Bainan ahantziko dituk hola maite hautenak? Gure malurra egin hezakek.¹⁴⁰

–Maite nautenak! Alferretan xerkatzen ditut. Non dira? Ene aitak ez othe nau hazi bere anbizioe tzarren satifatzeko beizik? Hi hiz, Dolores, jostatzen hizana eni bihotzaren hausten? Ene ama, bakharra konprendituko ninduena, sostenituko eta konsolatuko ninduena, ez da gehiago hemen ene defenditze-ko.

Erhotua penarekin,¹⁴¹ nigarrez zagon eta oihuka haur bat bezala.

Doloresek galdatzen zuen zeruari kuraie bere goguaren kontra mintzatzeko eta senditzen zuen pasione haren urruntarazteko.

–Blasfematzen duk, Salbador; gaxtoa hiz hire aitarentzat eta enetzat. Bainan guk ez bahugu maite bertze hainbertze erraiten ahal duka Eusebiaz?¹⁴²

–Eusebia!

–Maite hau afekto handi batekin eta erran detak,¹⁴³ ez balin bahakien, erraiten deat, eta orai ez duk erraiten ahal bihotz guziak ingratak direla.

Deklarazione hortan Salbador orhoitu zen, goiz berean bere ideiak eta beldurrak konfiatu zazkola andere Mirandoli. Phensatuz zer paperra eman zion¹⁴⁴ eta zonbat sofritu zuen, hartaz pietate hartu zuen.

–Pena bera hartu balin badu, zonbat urrikari dudan!

(139) Hau da: Zer esperantza dut etorkizunean? (?) ¿Qué puedo ver más allá? (1886:94). *Que puis-je voir au-delà?* (1879:73).

(140) –Bainan ahantziko dituc hola maite gure malhurra eguin nezakec (EH). EHren edizioko zati ulerkaitz hori itzulipurdikaturik dago; sei lerro beherago ageri da EHko edizioan *maite* hitzaren ondoan itzuritako hitza: *hautenac?* Bestalde, *Gure malurra egin bezakec* ezarri dugu *gure malhurra eguin nezakecen* ordeaz; gaztelania-frantsesezkoetan ez dago zati hori. –*Pero ¿vas así a olvidar á los que te quieren?* (1886:94). –*Oublies-tu donc ceux qui t'aiment?* (1879:73).

(141) Komarik ez da EHren edizioan, ez gaztelaniazkoan; bai frantsesezkoan. *Loco de dolor lloraba y gemía como un niño.* (1886:95). *Fou de douleur, il pleurait et gémissait ainsi.* (1879:73).

(142) Bertze hainbertze erraiten ahal duca Eusebiaz. (EH).

(143) errandetak (EH). *erran detak*: ‘erran zidak’. Nor-nori-nork sailekoa da *erran detak*. Baigorriko barietatean, Ortzaizeko azpibarietatean ageri da, esaterako, adizki hau, Artola-Etxebeherek bilduta (Yriar:1999a:138, 146). *y me lo ha dicho* (1886:95). *Elle me l'a dit, (...)*. (1879:74).

(144) *Pensando en el cruel papel que la impuso (...)* (1886:95). *En songeant au rôle cruel qu'il lui avait imposé, (...)* (1879:74).

–Beraz zendako ez konsolatuko haur konsolatuz?¹⁴⁵

Hitz horiek irritatu zuten Salvador.

–Nausi niz ni -zion- manatzeko ene bihotzari ahantz dezan xarmatzen eta memento huntan desesperatzen duena? Uste dun ene ahalean dela hire orhoitza-penaren uztea Eusebiarenaren hartzeko?¹⁴⁶ Jakin ezan ezetz, Dolores enea! Desolotua nun, bainan ez hire galtzeari erresignatua. Obligaraziko hut ene maitha-tzera ene desesperazioneak eginen daunan pietatearen gatik ez balin bada ere.

(XXII)

Hitz horiek, kolera bizi batekin erranak, hautsi zuten Doloresen bihotza, bainan hala ere ez zuen kuraiea galdu. Konprenditu zuen behar zuela destruitu Salvadorren ondar esperantza, ezen hura zen Eusebiaren besoetan ezartzeko erremediorik hoberena, eta erran zion boz fier batekin:

–Salvador, sobera maite haut, hiri errealizatzen ahal ez dien¹⁴⁷ esperantza batzuen uzteko. Ene desizioea ezin hautsia duk eta oraino dudatzen bahiz, jakinen duk egia. Hitzemana nuk...

–Hitzemana! -dio Salvadorrek, phasatzen delarik sorpresatik kolerara!-. Hitzemana! Eta nor da hire ebastera atrebitu dena?¹⁴⁸ Hitzemana! Eta nori?

–Jainkoari -ihardetsi zuen eztiki Doloresek-. Jada erakutsia zakeat hire aitari karmelitetan sartzeko dudan ideia.

Ondar hitz horiek entzutearekin Salvador itzuli zen, Jainkoaren boronda-tearen kontra ez zitakeen joan, eta ikhusiz Jainkoak galdetzen zuela haren ganik sakrifizio hori ez zuen kolpe txar bat egin. Tapatu zuen eskuekin bere bisaia, Jainkoari bere pena eta sakrifizioa ofreitu zion; eta juan zen arbola azpierz ha-

(145) Hau da: zendako ez konsolatuko Eusebia hihaur konsolatuz? –*Pues ¿por qué no consolarla consolándote a tí mismo?* (1886:95). –*Que ne cherches-tu à apaiser ton mal en la consolant?* (1879:74).

(146) Ez da galdera markarik EHren edizioan, puntua baizik. Nausi niz ni (...) desesperatzen duena. Uste dun (...) hartzeco. (EH). –*¿Soy el amo –exclamó– para imponer á mi corazón el olvido de lo que le encanta y le desespera á la vez en este momento? ¿Crees que está en mi poder derrocar tu imagen para elevar la de Antonia?* (1886:96). –*Suis-je donc le maître, s'écria-t-il, d'imposer à mon coeur l'oubli de ce qui le charme et le désespère à la fois, en ce moment? Est-il en mon pouvoir d'en chasser ton image, d'y élever celle d'Antoinette?* (1879:74).

(147) errealizatzen ahal ez diren.

(148) Euskarazko testua moldapena dela ageri da. *¡Prometida!–Tuvo un ademán de amenaza para el desconocido que se atrevía á ser su rival.* (1886:96). (Philippe) (...) *eut un geste de menace pur l'inconnu qui osait devenir son rival.* (1879:75).

rat¹⁴⁹ marrumaz eta bere marrumen artean oihu egiten ziola, bethiko galdu behar zuen hari.

Dolores egon [zen]¹⁵⁰ bortz minuta itzatua bezala, xutik bere bizia hautsi zuen toki hartan. Behatzen zuen Salbadorri, zoinaren marrumek izitzen baitzuten. Ixtant bat urrikitu zitzaion.¹⁵¹ Uste zuen krima bat egin zuela, ezen munduan zuen maiterena¹⁵² hura zuen, markesa eta Eusebia beino hanitz maiteago zuen. Bainan ez zen arima baleros hura hunkitu zuen itzal bat beizik. Alxatu zituen begiak zerurat han indarren bilhatzeko bezala eta itzuli zen urhats ezti batean jauregiko alderat, harritua Salbadorren desesperazioneaz eta bere pena handiaren azpian.¹⁵³

Iduri zuen haren bihotza pedazutan jarri zela, bainan bere kondutaz kontent zen, soldadoak batailan hanitz odol ixuri eta ondoan bezala.¹⁵⁴ Phensatu gabe harrapatu zuen Piarres eta ez zuen denborarik izan bere begithartearen gordetzeko. Hunek ikhusi zituen haren nigarrak. Phasatuaren orhoitzapenetan eta haren bihotza bethetzen zuen amodio paternal haren izenean atrebitu zen bere alaba konsideratzen zuen hari galdetzera:

–Zerentzat nigar egiten duzu, anderea?

Inkomodatzeko orde galde horrek plazer egin zion.

Badira momentoak bihotzak bertze bihotz konprenditzen duen bati bere penak komunikatu behar dituenak.¹⁵⁵ Piarres ontsa heldu zen haren konfident izaiteko.¹⁵⁶

(149) (...) *buyó por los senderos desiertos del parque (...)*. (1886:97). (...) *prit la fuite à travers les allées désertes du parc, (...)*. (1879:75).

(150) Dolores egon bortz minuta (...) (EH). Guk aditz laguntzailea ipini dugu.

(151) EHko edizioan ez dago komarik ez punturik azken bi esaldi hauetan, guk jarri ditugu frantses-gaztelaniazkoen modura. *urrikitu zitzaion*: damutu zitzaion (Doloresi), damutu zen (Dolores). *Miraba á Felipe llorar buyendo. Cuando desapareció tuvo un momento de cólera y de sentimiento* (1886:97). *Elle regardait Philippe s'enfuir. Lorsqu'il eut disparu, elle eut un mouvement de colère et de regrets.* (1879:75).

(152) *maiterena*: hala ageri da EHN.

(153) Zehatzago: *bere pena bandiaren p(h)isuaren* (edo *p(h)izuaren*) *azpian*, frantsesezkoan ageri den bezala; gaztelaniazkoari hertsiegi jarraitzeagatik itzuri zaio *p(h)isu* hitza. (...) *aniquilada bajo su vivísimo dolor.* (1886:97). (...) *anéantie sous le poids d'une douleur déchirante, (...)*. (1879:75).

(154) soldadoac bataila hanitz odol ichuric eta ondoan bezala. (EH). *como los héroes después de la batalla que les ha mutilado, pero en la que han probado su valentía.* (1886:97). (...) *anéantie sous le poids d'une douleur déchirante, mais fière de sa conduite, comme les héros après le combat qui les a mutilés, mais qui a prouvé leur vaillance.* (1879:75).

(155) *communicatu* (...) (EH). *Hay momentos en que el corazón necesita comunicar sus penas á otro corazón que sepa comprenderle.* (1886:98). *Il est des heures où le coeur a besoin de crier sa peine à quelque coeur qui le comprenne.* (1879:76).

(156) *Pedro llegaba á propósito para ser su confidente* (1886:98). *Coursegol arrivait à propos pour être son confident* (1879:76).

Doloresek bethi maite izan zuen Piarres; bainan gehiago maithatu zuen jakin zuenean zer familietarik zen, zeren eta hain estimagarria baitzen herritar baten semea nola buhamu baten alaba.

Ez zen gibelatu, ideki zion bere arima. Nehori erran ez ziona, ez markesari, ez Salbadorri, eta ez Eusebiari, erran zion Piarresi. Nola haren amodio bizia, pasionearen suia, oro sakrifikatu zituen gogotik markesaren ongi handien pagatzeko, eta bere adixkidearen zorionaren egiteko. Nigar egin zuen Piarresen aitzinean, aita baten aitzinean bezala. Piarresek erran zion tristezarekin:

—Oro phensatu nintuen.¹⁵⁷ Haur gaixoak! Egia erran dautzute goizegi. Behar zintuzten bietarik bat ezkondu artio ignorantzian utzi eta orduan ez zintuten phensatuko zuen destinuen estekatzea elgarrekin.¹⁵⁸ Amodio mutua ez zen kanbiatuko nigarretako egin amodio batean.¹⁵⁹ Zer egingen duzu, anderea? —galdegin zuen Piarresek.

—Joanen niz komentu batean zerratzeraz¹⁶⁰ Salbador ezkondu arte.

—Zu komentu batetarat? Inposible!

—Neseario da —erran zuen Doloresek.

—Bai, konprenditzen dut behar duzula etxe hau utzi. Bainan zerentzat juan komenturat? Norat joanen zira bakharririk eta adixkiderik gabe?

—Badakizu ez dutala hemengoak beizik eta hok ez niote akonpainia.¹⁶¹

—Ez dakizu Piarres zure adixkidea dela eta preparatua dela dituen guzien sakrifikatzeraz zure segitzeko? Juanen niz zurekin, zerbitzatuko zaitut, defendituko zaitut. Badut zonbeit ontasun eta zureak izanen dira.

Ezagun zen mintzatzeko maneratik, zuena bihotz honez ofreitzen zuela

⁽¹⁵⁷⁾ Gauza horiek oro pentsatu nituen. —*Lo había previsto todo.* (1886:98). —*J'avais prévu toutes ces choses.* (1879:76).

⁽¹⁵⁸⁾ estecatzen elgarrekin (EH). Ez dirudi *pentsaturen* mende-perpau osagarria —*tzen* atzizkiduna izan daitekeunik. OEHN ez dugu adibiderik ikusi behintzat. Inprimatze hutsa dirudi eta, beraz, *estekatzea* behar du, honako adibide hauek erakusten dutenez: *Ez zuten biltzerat preparatzea beizik phensatu behar. (...) ez zuten gehiago phensatu munduan gelditzen zeezteen orenen trankil eta ezti egitea beizik XXXV. entonces no hubiérais pensado en unir vuestros destinos.* (1886:98). *Vous n'auriez pas songé alors à unir vos destinées.* (1879:76).

⁽¹⁵⁹⁾ Hau da: nigar egiteko (edo negarretarako eginiko) amodio batean. *La amistad mutua no se hubiese cambiado en amor desgraciado, hecho para las lágrimas* (1886:98). *Votre amitié mutuelle ne se serait pas transformée en un amour malheureux, fait pour les larmes.* (1879:76).

⁽¹⁶⁰⁾ ceratzera (EH). Hau da: nire burua zerratzeraz. *Iré a encerrarme en un convento hasta que Felipe se case.* (1886:99). *J'irai attendre dans un couvent que Philippe soit marié.* (1879:76).

⁽¹⁶¹⁾ acompaña (EH). Ala akonpainia izan behar du? ez niote: ez nazakete. —*Ya sabeis que no tengo más que los que están aquí, y éstos no pueden acompañarme.* (1886:99). —*Où irai-je, seule, sans autres amis que ceux qui resteront ici et ne peuvent m'accompagner?* (1879:77).

Piarresek. Admiratua haren borondate guziaz,¹⁶² Doloresek errefusatu zuen haren eskaintza, erakusten ziola haren¹⁶³ lekhua jauregian zela eta bera preparatua zela komentu batean sartzeko, itzuliko zela Salbador ezkontzen zelarik.

–Egizazu nahi duzun bezala, anderea; bainan orhoit zaite idea kanbiatzen balin bazauzu¹⁶⁴ ene fortuna ttipia eta ene bizia zureak izanen direla.

Piarresek hanitz pena hartu zuen jakiteaz haren alaba deitzen zuenak zer ideia zuen.

1789an lehen egunetan Dolores sarthu zen Arleseko karmelitetan, ez nobizio bezala zeren ez baitzuen serora egiteko boturik bainan pensionist bezala, aski baitzen Salbadorren ganik urruntzeko.

(XXIII)

Ondoko egunetan Salbador desesperazione handi bati sumetitua zen.¹⁶⁵ Pena khiretsago bat ez zakon emanen Doloresen hiltzeak. Ez zen hila harentzat? Uste zuen sekulako zerratua zela.¹⁶⁶ Nigar egin zuen harentzat, nigar egiten den bezala herioak alxatzen dauzkun ahide eta adixkide hanitz maite ditugunentzat.¹⁶⁷ Desesperazione hortan phasatu zituen lau hilabete. Eta gero phensatuz Dolores ez zela sekula bertze batena izanen, hura errefusatu zuela Jainkoari bere buruaren konsekratzeko, arindu zen haren pena eta preparatu zen erresignatzera.¹⁶⁸

(162) guziaz (EH). Nahiz *-(k) admiratu* joskera dokumentatua dagoen OEHn, subjektua pertsona ez delarik ere, *guk guziaz* ezarri dugu hori delako joskera prototipikoa. Ik. *-dio Salbadorrek, barritua haren arrebak balako duda bat izaitteaz-* XI. Gainera, hitz bukaeran behin baino gehiagotan gertatzen dira *c* eta *z* nahastearen ondoriozko inprimatze hutsak (adib. arindu zitzayon (...) esperantzac → (...) esperantzaz XXIII). *Admirada de su rendimiento, Dolores rebusó.* (1886:99). *Touchée de son dévouement, Dolores refusa.* (1879:77).

(163) *haren*: Piarresen.

(164) *idea kanbiatzen bazauzu*: joskera ohikoagoa dateke *idea/ideaz kanbiatzen baduzu*. (...) *si cambiais de modo de ver*, (...) (1886:99). (...) *si jamais vous changez d'avis*, (...) (1879:77).

(165) Etsipen handi batek menderatua zen. Iduri du moldatzaileak ez duela zehatz ulertu gaztelaniazko *sumir(se)* 'murgildu' aditza. *Los días que siguieron a su partida encontraron a Felipe sumido en una violenta desesperación.* (1886:100). *Les journées qui suivirent son départ trouvèrent Philippe plongé dans un violent désespoir.* (1879:77).

(166) *La creía encerrada para siempre*; (1886:100). *Il la croyait cloîtrée à jamais*, (...). (1879:78).

(167) (...) hanitz maite ditugunac bezala (EH). Huts nabarmena EHko edizioan, kopiatzean lerroz nahastu eta bezala errepikatuta agertzen baita. *Lloró por ella como se llora por los seres amados que el destino nos arranca por mano de la muerte.* (1886:100). *Il pleura sur elle comme sur les êtres aimés que le destin nous arrache*, (...) (1879:78).

(168) erresignatzeaz (EH). *Erresignatzeaz preparatu* joskera ez dugu ikusi OEHn. *Guk erresignatzera* ezarri dugu; EHko edizioko *erresignatzeaz*, agian, *erresignatzea* fonetismoaren ('erresignatzera') ordezk dago. *-t(z)*

Eusebiak sinhetsi zuen Doloresek erran zakona, ez zuela maite Salvador, eta Doloresen ganik separatzeko hartu zuen pena arindu zitzaion Salbadorrek maithatuko zuelako esperantzaz.¹⁶⁹

Eztiki-eztiki Salbadorren pena juan zen ttipituz ezen zion: “Jainko baten borondatearen kontra ez naite joan”. Bainan deus gisaz ez zezakeen ekhen Doloresen potreta. Harek segitzen zuen bethi eta arimako begiez ikhusten zuen mirail argi batean bezala.

Orduan juan nahi izan zen Versaillesetara bere erregimenduaren aurkhitzera bainan ezin utzi zuen aitak. Erran zion, galdu zuenaz gainean Dolores, ez zitakeela bizi¹⁷⁰ bere semeak abandonatzen balin bazuen. Salbador gelditu zen eta denborarekin ikhusi zuen egiazki Eusebia harek behar zuen emaztea zela, eta phensatzen zuen harekin ezkontzea. Bainan lehenik nahi zuen bere Dolores maitearen dolua ebili¹⁷¹ alhargun bat izan balitz bezala eta erran zuen bere aitari eta Eusebiari utz zezaten trankil, berak erranen zuela noiz nahi zuen ezkondu. Haren borondatea manu bat izan zen.¹⁷² Markesa paziente zen, Eusebia umil,¹⁷³ eta situazioeak segitzen zuen bere kursa bakean noiz eta ere politikako aferak jin baitziren turbaraztera.

era(t) preparatu joskera maiz ageri da nobelan; baita *-tzeko*, baina helburuzko adieran. *Hura errefusatu*: Salbador errefusatu. *La certidumbre de que Dolores no pertenecería a otro, (...) le preparó á la resignación.* (1886:100). *La certitude où il était que Dolorès ne serait jamais à un autre, (...) le prépara le mieux à la résignation.* (1879:78).

⁽¹⁶⁹⁾ *esperantzaz* (EH). Zati hau eta hurrengo askoz laburragoak dira euskarazko moldapenean; moldatzaileak bere gisa interpretatuz moldatzen du testua, gaztelaniazko edo frantsesezkoari segitu gabe. Esaldiak oso luzeak dira frantsesezko testuan. *El amor tímido y discreto de aquella joven, llena de esperanzas, disipó un tanto las tristes ideas de Felipe.* (1886:100). (...), *l'amour timide et discret de cette jeune fille que remplissait une ardente espérance, contribuèrent encore à rasséréner Philippe.* (1879:78).

⁽¹⁷⁰⁾ (...) *etzitakeela bizi* (...) (EH). EH edizioan komarik ez da, guk ipini ditugu. Aitak erran zion Salbadorri (berak, aitak) Dolores galdu zuenez, ez zitekeela bizi bere semeak abandonatzen bazuen. *El Marqués le demostró que habiendo perdido á Dolores no podría vivir con el abandono de su hijo y la ruina de sus esperanzas.* (1886:101). *Le marquis lui montra qu'ayant perdu Dolorès, il ne survivrait pas à l'abandon de son fils, à la ruine de ses espérances.* (1879:79).

⁽¹⁷¹⁾ *dolua ebili*: *dolua ekarri*. *Pero quiso antes llevar el luto de su querida Dolores, y dijo á su padre (...)* (1886:101). *De même qu'il aurait porté le deuil de Dolorès morte, il voulait porter le deuil de Dolorès perdue pour lui, (...)* (1879:79).

⁽¹⁷²⁾ *Su voluntad fué una orden para ellos.* (1886:101). *Sa volonté fut un ordre pour eux.* (1879:79).

⁽¹⁷³⁾ *Marquesa* paciente zen. *Eusebia humil* eta *situacioneac* (...) (EH). *Gaztelaniazko* eta *frantsesezko* testuen erara egokitu dugu puntuazioa.

V. PHARTEA. HISTORIA NAHASTEN DA BERRIARI¹

Orok badakigu zer erreboluzioea jin zen 1790ean² Frantziaren tormen-taraztera, jende xeheak ez zuen handier obeditu, erlijioneari ez zuten obedi-tu nahi, nobleak hil nahi zizuten, gisa berean erregea, errepublikaren izaiteko. Jende xehetarik armada handiak preparatu ziren Parisen eta athera kanpoetarat erretzen zizutelarik jauregiak eta heien ontasunak. Gauza horien jakiteak ba-rrearazi zuen markesaren eta Salbadorren izpiritua eta gisa hortan arinduz zoan heien Doloresen ganik urrun bizitzeko pena.

Markesak desiratzen zuen Salbador fite ezkont zadin, haren gibelarat ekha-rrarazteko,³ eta Salbadorrek uste zuen Jainkoari konsekratua zela.⁴ Oro⁵ arras triste ziren, gazetek erraiten zuten errege menazaturia zela. Hamar aldiz⁶ Salba-dorrek jua nahi izan zuen bere erregimendura han erregeren zerbitzuan hil-tzeko, ezen deusek ez zuen atxikitzen munduari bere Dolores maitea bethikotz galduz. Bainan Piarresek ez zuen joaiterat uzten, erranez haren presentzia nese-sario zela jauregian, eta joaiten balin bazen markesa eta Eusebia lanjer handitan geldituko zirela.

(¹) Gaztelaniazko eta frantsesezko izenburuak: *Capítulo V. La historia se mezcla á la novela* (1886:102). *Chapitre V. Où l'histoire se mêle au roman* (1879:80).

(²) Frantsesez eta gaztelaniaz data erreala agertzen da. *Desde el año 1789, fecha del acontecimiento de la revolución, (...) (1886:102). De l'année 1789 datent réellement le réveil du pays, l'avènement de la révolution.* (1879:80). Frantsesezkoan eta gaztelaniazkoan testuingurua azaltzen da bost orrialdetan, bereziki Nîmes inguruko giroa; hori guztia ezabatzen da euskarazkoan, moldatzaileak aski du bi esaldirekin gertaera horiek istorioarekin lotzeko.

(³) *haren gibelarat ekbarrarazteko*: Dolores berriz ekartzeko. Zuzenagoa dateke *gibelarat*.

(⁴) konsekratua zela Dolores.

(⁵) Pertsonak oro. *Todos estaban muy tristes en el castillo.* (1886:107). *On était triste au château.* (1879:84).

(⁶) *Hamar aldiz*: anitzetan, askotan; zenbatzaile hanpatua da. *Dix veces Felipe (...)* (1879:78). *Dix fois, Philippe (...)*. (1879:84).

Piarresék arrazoin zuen, ezen handik phasatzen ziren bethi ohoin tropak; joiten zen ikhustera, eta, nola beldur baitzen, harrapatzen zituen adixkideak jauregiaren zeintzen laguntzeko.⁷ Oroer kasu emaiten zuen, deus irriskurik ikhusten bazuen markesari khondatzeko. Eta, gehiago zena, harek ez zuen joan nahi Salbadorrekin, Doloresen ez uzteko bakharrik adixkiderik eta defensorrik gabe, eta egun batez haren laguntza falta beldur zen.⁸ Ez zen joan Salbador, eta aitak eta biek hetsi zuten jauregia eta lau gizon borondate honezkoak harmaturik ezarrarazi, beira zezaten.⁹

Piarresék bazituen herritar batzu hitzeman ziotenak laguntzera jinen zirela, deus behar ordurik balin bazen eta markesa joiten zen ardura à Remoulins,¹⁰ eta han bere adixkide guziek hitzemaiten zioten jauregia atakutzen balin bazuten jinen zirela beiratzera. Adixkide hanitz bazuen zeren eta bethi biziki jenerosa baitzen.¹¹ Jakin zuten norteko alde guzia harmetan jarria zela¹² eta herri guzietan sartzten zirela, nobleak, erlijioneko jendeak hiltzen ziuztela eta jauregiak eta elizak erretzen. Motibo horin¹³ gatik markesa eta haren semea preparatu ziren ataka batetarat. Gordetzen zirelarik ahal zuten bezenbat Eusebiaren ganik, hunek ikhusi zituen¹⁴ eta galdegin zuen zer ziren prepario hek. Ez zen aise gor-

(7) (...) ohoin tropac, yoiten zen ikhustera: eta nola (...) (EH). *joiten zen ikhustera*: jendea ikustera joaten zen. *zeintzen*: zaintzen. Ik. *presondegi-zein XLVI. El fiel criado temía por el castillo; temía que fuese atacado, y buscaba amigos y defensores del Marqués.* (1886:107). *Prévoyant le cas où le chateau de Chamondrin serait attaqué, il cherchait à faire des amis au marquis, à lui créer des défenseurs.* (1879:84).

(8) *laguntza falta beldur zen* (EH). *haren laguntza falta beldur zen*: Doloresi haren (Piarresen) laguntza faltako zitzaion beldur zen (Piarres).

(9) Komarik ez da EH edizioan, guk jarri ditugu, *aitak eta biek*: markesak eta Salbadorrek, aita-semeek.

(10) (sic, EH). *Remoulinsera. El Marqués iba de tiempo en tiempo á Remoulins (...).* (1886:108). *Le marquis alla fréquemment dans la petite ville de Remoulins, (...)* (1879:85).

(11) Euskarazko testuan ez dira agertzen gaztelania eta frantses testuetako azalpen xeheak. *Tenía bastantes partidarios todavía, porque, para hacer olvidar las injurias de sus antepasados, había sido siempre muy generoso.* (1886:108). *Il y conservait des partisans qui avaient voulu l'envoyer aux états généraux. On lui promit de venir le défendre s'il était attaqué. Si jadis les seigneurs de Chamondrin avaient été prodigues de vexations, on l'avait oublié.* (1879:85).

(12) Nîmes hiria iparraldeko nekazari bandez ari da. Jatorrizko eleberrian aski xeheki azalduak dira haien azioak (Ik. 1886:108-109; 1879:85 eta hur. Adib. “des bandes des paysans, venues de Cévennes, de la Vaunage, de la Gardonnengue, contrées placées au nord de Nîmes, descendirent sur la ville (...)”, 1879:91).

(13) horin (EH). Fonetismoa dateke. Ala hutsa ote da eta *horien* ezarri behar da?

(14) *Aunque se ocultaban de Antonia, ésta lo vió todo y fué testigo de todos los preparativos.* (1886:109). *Quelle discrétion qu'on apportât à ces préparatifs, Antoinette en était chaque jour témoin.* (1879:86).

detzea, ikhusten zuen Salbador goiti-beheitiko eskalaretan¹⁵ ebiltzen, markesarekin aphen mintzatzen, azkenean Salbadorrek erran zion zeren beldur ziren eta kuraia hanitz behar zuela hartu.

Kuraiez bethea ikhusten zituen preparatibo hek guziak, kasik kontent zeren eta hek atxikarazten baitzuten Salbador haren aldean. Maithatzen zuen¹⁶ ixiltasunean, maite zuen Salbadorrek hura beino gehiago, bainan esperantza bazuen. Eta zonbeit aldiz ikharatzen balin bazen phensatuz bizi eder eta gozo hura menazatua zela, konsolatzen zen phensatuz maite zuen harekin hiltzeko alegria izanen zuela.

Bizkitartean markesak eskrupulak izan zituen Eusebia ez zelakotz haren familiatik¹⁷ oraino eta hitzmana ziolakotz bere khusiari hari eta haren ontasuner kasu emanen zuela¹⁸ hil artio, eta deliberratu zuen Agleterrat igortzea, han segurrago izanen zela¹⁹ Chamondrineko jauregian beino.

(XXIV)

Erran zion egun batez Eusebiari bainan hunek ihardetsi zion:

–Neretzat interes zonbeit balin baduzu, ez baduzu nahi hil nadin, ez neza zula urrunt Salbadorren ganik.

Markesak ezin erresistitu zuen othoitz hor[r]i²⁰ eta Eusebia gelditu zen.

Chamondrineko jendeak emozione horietan erretiratuak zaudelarik Dolores Arlesetako komentuan zagon Salbador fite ezkont zadin beha, gero berriz bere haurtasuna hain dohatsuki phasatu zuen lekhu hortarat joiteko.

(15) eskalaretan (EH). *eskalari* aldaera (bakarra AMn) ez dagoke OEHren adibideetan. Guk *eskalaretan* ezarri dugu (ik. *eskalarer* XXVI).

(16) Eusebiak Salbador.

(17) Ez zelakotz haren familiakoa, familiatikoa. *Sin embargo, el Marqués tuvo escrúpulos de haber expuesto á Antonieta. No era todavía de su familia y (...).* (1886:109). *Cependant, le marquis eut un scrupule. Il se reprocha d'exposer Antoinette à de tels dangers, alors qu'elle n'appartenait pas encore à sa famille et (...).* (1879:86).

(18) (...) kasu emanen ziola (EH). EHko testuan behin baino gehiagotan ageri dira komuntadura hutsak.

(19) *Agleterrat igortzea*: Ingalaterrara igortzea (markesak Eusebia). *han segurrago izanen zela*: han segurrago izanen zela pentsatuta.

(20) othoitz hori (EH). *Erresistitu* aditza nor-nork-nori motakoa da arruntki; hala agertzen da XVIII eta LI. ataletan. *El Marqués no pudo resistir á aquella súplica, y Antonia se quedó* (1886:110). *Il ne put résister à cette prière. Antoinette ne partit pas.* (1879:86).

Zonbeit hilabete phasatu orduko, etxe saindu hortan sosegatua zen. Kalmak eta othoitzak haren dolorea arindu zuten. Sofritzen zuen oraino bere amodioaren sakrifizio bethi senditu behar zuen hura zela kausa. Bainan xerkatzen zuen fedean, bere erresoluzione handietan, erresignazionea, grazia handi eta dibino zeruak arima malurus othoitzen²¹ dutener igortzen duen hura.

Komentu hura egin zutenek nahi izan zuten han izan zadin ere lekhu bat jende pena zonbeit izanik erretiratua bizi nahi zuenarentzat.²² Alhargunek, ama bere haurrak galdurik nigarrez zaudenek, ume xurtx munduaz izituek harrapatzen zuten han bizitze saindu batean konsolazionea. Hamazazpigarren mendearen hastetik serorek obeditu zuten desira horri.

Dolores komenturat bizitzerat joan zenean, baziren han zazpi pensionist,²³ oro adinetakoak. Errezebitu zuten alegriarekin gazte eder hura, eta hain maithatu zuten nun denbora gutiren buruko iduritzen baitzizakon bere familian zela. Jeikitzen ziren sei orenetan, joiten ziren ofizioetarat eta gero libro ziren nahi zutenaren egiterat.

Dolores lanean artzen zen pobrentzat eta aldarentzat, bisitatzen zituen po-break eta eriak, haren egunak trankil phasatzen ziren. Piarres jiten zen eta ekhartzten zazkon Chamondrineko berriak; markesak ere izkiriartzen zakon. Hartzen zuen interes hanitz berak utzi zituen jende maite heien preokupazionez, bere amodioaren proba berri baten emaiteko.

Piarres jiten zenean, erraiten zakon²⁴ zonbat desiratzen zuen Salvador ezkont zadin, berriz etxe benedikatu hartarat itzultzeko. Haren esperantzak ez zi-

(²¹) Moldatzaileak gehienetan *othoitzu* erabili ohi duen arren (*othoitzen* XIX, XXV, XLIX; *othoitzu* XXV, XXXVIII, LI, LIII), eta batzuetan *othoitztu* (*othoitzen* XXV), hemen *othoitu* darabil, bai eta XVIII.ean (*othoituz*). *Pero buscaba en la fe, en el cumplimiento de sus valientes resoluciones, la resignación, esa gracia sobrenatural y divina que el cielo manda á las almas infelices que le han suplicado.* (1886:110). *Mais elle puisait dans sa foi, dans l'accomplissement de ses vaillantes résolutions, la résignation, grâce surnaturelle et divine que le ciel envoie aux âmes malheureuses qui l'ont supplié.* (1879:87).

(²²) Xehetasun gehiago biltzen dituzte gaztelaniazko eta frantsesezko testuek. *Las fundadoras de aquel establecimiento habían exigido que fuese también un refugio para las señoras nobles que por cualquiera causa deseaban vivir á la sombra de aquellos muros misteriosos sin seguir las reglas del orden religioso de las Carmelitas.* (1886:110). *Depuis la fondation de leur établissement, c'est-à-dire depuis le commencement du dix-septième siècle, les religieuses carmélites d'Arles, pour obéir aux vœux de leur fondatrice, aux libéralités de laquelle elles devaient la maison et le jardin qu'elles habitaient, offraient un refuge aux dames nobles qui, pour une cause ou pour une autre, désiraient vivre à l'ombre de ces murs mystérieux, sans obéir aux règles de l'ordre.* (1879:87).

(²³) (...) yohan zenean, (...) zazpi pensionizt (...). (EH). Ik. *pensionist* XXII.

(²⁴) Doloresek.

ren konplitu beharrak. Etxe hain maite zuen, hazia izan zen eta hain maithatua izan zen hura ez zuen sekula gehiago ikhusi behar.

Errealoaren²⁵ lehen egunetan, Piarres[i],²⁶ fidel bere kostumari, iduritu izan zitzaion uzten ahal zuela jauregia bere alaba maitearen aldean zonbeit egunen phasatzeko. Egun guzietz elgar ikhusten zuten, mintzatzen ziren jauregiko izaite maiteez. Oren zonbeitetik beizik ez zuten separatzen jauregitik.²⁷

Zonbeit egun han bere alaba deitzen zuen harekin phasaturik trankil abiatu zen goizeko aire freskoa errespiratzen zuelarik, Beaucaire²⁸ deitzen den hirian sarthu arte, noiz eta ere ezagutu baitzuen jendea khexu zela eta harmetarat preparatzen ari zirela.

–Bainan zer da? –galdegin zuen Piarresek, hurbiltzen zelarik, tropa bati.

–Zer! Ez dakizu zer phasatzen den?

–Deus ez dakit. Arlesetarik²⁹ heldu niz.

–Nimes puskatua da, Cevenesetako ohoinak eta errepublikanoak jautsi dira hirirat.³⁰ Itsuskeria batean hil dituzte hirur ehun presuna beino gehiago, langile, aphez, serora eta arte jendea.³¹ Hiri hartan nausi dira eta beldur gira hunat jin diten. Hortakotz preparatzen ari gira errezebitzera.

(25) errearoaren, ekainaren.

(26) Piarres fidel bere kostumari, (...) (EH). Datibo komunztaduran hutsa dago; horregatik ezarri dugu *Piarresi. En los primeros días de junio, Pedro, fiel á sus costumbres, (...)*. (1886:112). *Dans la première quinzaine du mois de juin, Coursegol, fidel à ses habitudes, (...)*. (1879:88).

(27) etzituen separatzen yaureguitik. (EH). *ez zituen separatzen* (Piarres eta Dolores) ala *ez zu(t)en separatzen* (Piarres) jauregitik? Agian moldatzaileak lehen adierazi nahi zuen baina gure ustez egokiagoa da bigarrena, jatorrizko testuari (frantsesekoari) fidelago zaiolako, horregatik *ez zuten* ezarri dugu. Izan ere, jatorrizkoak dio Piarres Arleseko komentutik abiatua zela eta ordu batzuetako bidea baizik ez zuela Chamondrineko gaztelura iristeko, eta ez Piarres eta Dolores ordu batzuetako bideak bereizten zituela. Gaztelerazko itzultzailea nahastu dela ageri da (*les separaban* dio gaztelaniazkoak baina *le separaban* behar luke), eta, ondorioz, badirudi gure moldatzailea nahasarazi duela. *Se veían todos los días, hablaban de los seres queridos que vivían en Chamondrin. Algunas horas les separaban del castillo* (1886:112). (Coursegol) *Il arriva dans la ville le 14. Il eut avec Dolorès des entrevues quotidiennes, ainsi qu'il faisait tous les mois, et repartit le 16 matin. Quelques heures à peine le séparaient du château de Chamondrin.* (1879:88).

(28) Bancaire (EH).

(29) Arlesetik. Moldatzaileak *-s* bukaera duten toki izen zenbaiti pluraleko atzizkia eransten die maizkara (*Versaillesetara XXIII, Londresetako XXVII, XXXII*).

(30) *–Nimes está despojado. Los aldeanos de Cevennes han bajado a la ciudad.* (1886:113). *–Nimes est au pillage. Les paysans des Cévennes sont descendus sur la ville.* (1879:89).

(31) *arte jendea*: ez noble, ez eliz-jende, ez langile baina arteko jendea, hau da, klase ertainekoa; industria jendea (ofizialeak, burgesak). *Han matado atrocemente á trescientas personas, obreros, curas, monjas, y en fin, la gente de la clase media.* (113). *ils ont massacré trois cents personnes, des ouvriers, des bourgeois, des prêtres, des religieux.* (1879:89).

–Bainan, ja phasatuak dira Nimen? –galdegiten du Piarresek harritua.

–Bai, zonbeit izan dira Gardeko zubiraino, Chamondrineko jauregia arrogatu eta erre dute.

Piarresek oihu ikharagarri bat egiten du, eskua bihotzaren gainean ezartzen du, haren bisaia xuri-xuria egiten delarik.

–Bainan zer duzu, herritarra?³² –galde egin zion, berri trixte hori erran zuten gizon hetarik batek.

–Ene nausiak! Nun dira ene nausiak? –oihu egiten du desesperatua.

Eta nehok erraiten ahal ez zion errepostu³³ baten beha egon gabe, badoa lasterka erho bat bezala, kurutzatzen du hiria hatsa galdu arte, Gardeko zubiari buruz. Ohoin tropak sarthu zirenean hirian, hasi ziren elizaren erretzen eta aphezen hiltzen; gero jua ziren kaputxin komentu bat baitzen, hartara. Gero serora komentura, eta ikhusi guziak erretzen ziuzten, egun batez hirur ehun hil ziuzten.³⁴

Biharamun goizean ekhainaren 13a zen. Entzun izan zen boz bat herri inguru guziak ikharatu zituen. Oihu izigarri hura Chamondrineko jauregi aldetik heldu zen. Eta hau zen: Nimesetako gure anaien arrogatzen eta hiltzen ari dira!

Gau hartan markesak bilharazi zituen ezagun guziak eta goizik oro zaldiz jua ziren gaxtoen hiritik atheraraztera. Markesa ororen aitzinean zoen, Salbador haren ondotic, hitz consolagarriak erraiten ziuztela eta oro kuraiez beharazten ziuztela.³⁵ Hirian sarthu orduko markesak errezebitu zuen bala bat sahetsean, han berean erori zen, bainan Salbadorrek ezagutu zuen ez zela oraino hila.³⁶

(32) herritara! (EH). –*Pero, ¿qué tenéis, compañero?* (1886:113). –*Qu’avez-vous donc, camarade?* (1879:90).

(33) Eta nehok erraiten ahal zion (sic) errepostua (sic) baten beha egon gabe, badoha (...) (EH). Guk bi zuzenketa egin dizkiogu EHko testuari: alde batetik, ez falta delakoan, *erraiten ahal ez zion ezarri* dugu; bestetik, *errepostu baten, ez errepostua baten*. Gero, ohargarri denez, *errepostu erran* darabil hemen moldatzaileak, nahiz askoz gehiagotan *errepostu/errapostu/errapustu eman*; OEHN ere ageri da *errapostu erran* egitura. *Y sin esperar una contestación, que nadie podía darle (...)* (1886:113-114). *Et, sans attendre une réponse que nul ne pouvait lui donner, (...)* (1879:90).

(34) Berriz ere moldatzaileak historiako gertaerak laburki aipatzen ditu, bi esalditan, frantses eta gaztelaniazko testuetako xehetasunak ezabatuta; xehetasunok Nimeseko erlijio- eta klase-borrokak eta hilketak kontatzen dituzte -bereziki 1790ko ekainekoak-, bi orrialdetan. Azken esaldian moldatzaileak esajerazio puntu bat erakusten du, egun bakar batean 300 hil zituztela esatean; gaztelera-frantsesezkoen arabera, ordea, hiru egunetan: *En tres días murieron trescientas personas* (1886:116). *En trois jours, trois cent personnes périrent.* (1879:91).

(35) (...) Salvador haren ondotic. Hitz consolagarriak (...) ziuztela. (EH). Guk koma jarri eta aurreko esaldiari txertatu diogu mende-perpau hau.

(36) Berriz ere euskal moldatzaileak bi paragrafotan laburtzen ditu gertaeren xehetasunak, frantses eta

(XXV)

Alxarazi zuen etxe batetara eta medikua ekharrazi.³⁷ Bala zazpigarren sahets hezuraren ondotik barnerat sartua zen eta bihotza hunkitzen zuen.

–Deus ez ditake egin -dio medikuak-, Jainkoak egin behar du.

Salbador, preperatua baitzoan erreboluzionerat, ez zen desesperatua eta aphez bat ekharrarazi zuen. Hunek azken sakramenduak emanik, konsolazioenez bethea ezarri zuen. Orduan galdegin zuen markesak hiltzera bere etxera nahi zuela jua, othoiztzen zuelarik apheza ez zezala utz azken hatsa eman artio. Karrosa batean ezarri zuten eta Salbador eta apheza haren aldean jua ziren jauregira. Ofe baten gainean ezarri zuten ondoan, ekharrarazi zuen Eusebia eta etsorta bat xarmanta eman zuen Salbadorri eta bier³⁸ erraiten zeelarik hek bizi behar zutela, etxe hari merezi zuen ohorea eman behar ziotela, eta hitzeman zezaten³⁹ aphezaren aitzinean ezkonduko zirela elgarrekin.

Apheza egon zen ixtant bat hitzik erran gabe, obedituz hiltzen ari zen haren desirer. Eusebia eta Salbador nigarrez haren aitzinean belhaunikatu ziren.

gaztelaniazkoetan 7-8 orrialde betetzen dituztenak: katolikoak, Chamondrinen buruzagitzapean antolatuta, Nîmesen sartzera doazelarik, hiriko zenbait katoliko salduk berriz hirian ordena ezarria dela ziurtatzen diete (ez protestantei –gaztelaniazko itzulpenak dioen bezala, II 7. orr.–, katolikoei baizik). Erretiratu ondoan, Nîmeseko hiltzaile zenbaitek Chamondrinez mendekatzea erabakitzen dute, eta, berrogei bat gaizkile bilduta, gaztelura abiatzen dira gauez. Hor hiltzen dituzte markesa eta apaiza (frantses eta gaztelaniazko testuan); euskarazkoan, Nîmes hirian sartu orduko. Beraz euskarazko moldapenak aldatu egiten ditu rolak: Salbadorrek apaiza ekartzan du bere aitari sakramentuak emateko; jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan, ordea, Peretty apaiza gazteluan zen, hura ere armaz borrokan, harik eta aizkora kolpez hil zuten arte (tiroz euskarazkoan).

(37) Lerro batzuk beherago, *ekharrarazi*, bi aldiz.

(38) Markesak ekarrarazi zuen Eusebia eta etsorta bat eman Salbadorri eta Eusebiari.

(39) *Erraiten zeelarik* aditz gobernatzaileak bi perpaua mota hartzen ditu mendean: *-(e)la* menderagailudunak (*bizi behar zutela*, *ohorea eman behar ziotela*) eta *-(e)n* menderagailudunak (*hitzeman zezaten*). *Erran* gobernatzaile orokorra da eta *-la* menderagailudun osagarriak mendean hartzea normala da, baina *hitzeman zezaten* horrek markesak agindu bat ematen edo eskaera bat egiten duela adierazten du (*erraiten* = *manatzen/galdegiten*) eta Iparraldeko euskalkietan osagarriak *-(e)n* hartu ohi du (*manatzen zaituztet ihes joan zaitzeten* XXV, atal honean berean; *Galdegiten dut oroz gainetik segetua atxik dezazuen* XLV), nahiz posible datekeen *hitzeman zezatela* ere (EGLU-V:140-141). Berez agindutzat hartzen du apaizak ere markesak esandako guztia, lerro batzuk beherago (*Zuen aita, bizitzeko manatu zaituztenaren izenean (...)*). Beste era batera ere uler daiteke: bigarren zatian eta *galdegiten zeelarik* (ezabatua) *hitzeman zezaten (...)*. Esaldi osoa moldapena da, ez itzulpena; gaztelaniazko eta frantsesezko testuetan, markesa erdi erreguka eta erdi agintzen ari zaie Salbador eta Eusebiari: *Desearía antes de morir (...)*. *Consiente en casarte con Antonia (...)*. *Os casaréis (...)* ¿*Prometeis obedecerme?* (1886:129-130). Halaber frantsesezkoan.

Puxka bat eztitu zirenean, aphezak galdegin zeen hea elgarrekin ezkonduko ziren, aitak desiratzen zuen bezala,⁴⁰ eta, baietz ihardetsi zutenean biek, erran zeen:

–Ez zaituztet memento huntan ezkontzeko lazoekin juntatzen ahal. Bainan elizak grazia hori zuen alderat ixuri arte benedikatzen zaituztet Jainkoa othoizten dudalarik ene othoitza ardiets dezan.

–Uros hiltzen niz -dio memento hartan markesak eztiki.

Agonia hasia zen.

–Jaun apheza, eman daazu benedizioea.

Eusebia eta Salbador xutitu ziren, musu[z]⁴¹ bethe zuten markesaren begithartea, zoinaren gainean herioa leitzen baitzen. Eta berriz belhaunikatu ziren.

Oren laurden baten buruko markesak azken hatsa emaiten zuen.

Momento hartan sehi bat jin zen erraitera jauregia sutan zela, eta ja gaixtaginak barnerat heldu zirela parkeko borthatik.

Apheza eta bi gazte hek, othoitzean ari⁴² zirenak gorphutz haren aitzinean, jeiki ziren.

–Zoazte ihes -dio aphezak.

–Ene lekhua hemen da -dio Salbadorrek.

Eusebiak aprobatu zion behatze batez.

–Zuen aita, bizitzeko manatu zaituztenaren izenean,⁴³ manatzen zaituztet ihes joan zaitezten.

Hola mintzo zelarik apheza, erakusten zuen bere esku eskunarekin⁴⁴ bortha.

–Bainan, nork emanen dio sepultura? -dio, garrasia izigarri bat egiten duela, Salbadorrek.

–Nik! Athera zaitetzte.

Salbador eta Eusebia harrituak eta marrumetan urrundu ziren.

Apheza gelditu zen bakharrik. Bere presunaz kasu guti egiten zuen. Belhaunikatu zen gorphutzaren aitzinean eta erran zituen hilen arimentzat elizak ze-

(40) hea elgarrekin ezconduko ziren, aitak desiratzen zuen bezala elgarrekin (EH). Errepikatuta ageri da *elgarrekin*, horregatik kendu dugu azkena.

(41) musu (EH). Guk *musuz* ezarri dugu; gainera, letra baten hutsartea dago *musu* eta eta *bethe* hitzen artean EHren edizioan.

(42) hari (EH).

(43) Zuen aitaren izenean, zeinek bizitzeko manatu zaituzten... *En nombre de vuestro padre, quien os ha ordenado vivir, (...)* (1886:131). *Au nom de votre père qui vous a ordonné de vivre, (...)* (1879:103).

(44) eskuinarekin.

ruari egiten dituen othoitzak. Xandela⁴⁵ baten argiak argitzen zuen ganbera ilhun hura.

Bat-batean ohoinak⁴⁶ sartzen dira, apheza heien aitzinera joaten da, eta kheinu batekin erakutsi zeen markesaren gorphutza deskantzatzen zen ohea, erraiten zeela:

–Ikhusten duzue gorphutz hori? Zuen lana da, errespeta zazue, eta erretira ziezte.

Ez zuen finitu. Tiro batez burua lehertu ziotenean ospa⁴⁷ guzia haren gainetik phasatu zen. Ebasten ahal ziuzten guziak ebatsi ziuzten, pareta guzier su eman zioten eta oro erre zirenean joan ziren.

Noiz eta ere gau terrible haren ondoko egunean Piarres jin zenean jauregiaren aitzinera, ez zen gelditzen paretarik beizik. Sorthu eta hazia izan zen etxe maite haren paretarik beizik ez zen, zoinetarik baitzoan oraino lanho ilhun bat.

Hori ikhustearekin Piarresek egin zuen desesperazionezko eta errebiazko⁴⁸ oihu ikharagarri bat. Bainan, zoin zen haren xangrina eta pena jakin zuenean harrien azpian aurkhitu ziuzten gorphutzak, oraino beroak, markesarena eta aphezarena zirela! Salvador eta Eusebia non dira? Hilak othe dira? Nehok ez zakien. Gizon bakhar batek erraiten zuen ihes juaiten ikhusi zituela. Duda hori Piarresentzat begien aitzinean ikhusten zituen guziak beino kruelago zen. Juan zen belhar idorraren gainera eta han, trixteki, desesperazionerik espantagarri-nari lothua, nigar egin zuen khireski.

(45) *xandela*: kandela.

(46) *oihoinac* (EH). *Oihoinak* forma ez dugu ikusi OEHko adibideetan.

(47) *oste*. *Ospa* forma badago Iparraldeko idazle zenbaitetan.

(48) *Errebiazko* aldaera ez bide da batere ohikoa euskal testuetan, *errabiazkoren* aldean, baina OEHn badira *errebiagarri*, *errebiamentu*, *errebiatu*.

VI. PHARTEA. DESERTORRAK¹

(XXVI)

1793ko² urriaren lehen igandean, goizeko hamar orenak joiten ari ziren noiz eta ere andere gazte dolutan zen bat athera beitzen Londresetako inguruetan zen jauregi eder batetarik. Jautsi zen arraposki eskalerer behera, kurutzatu zuen baratzea, portaleak ideki eta behatu zuen hiriko alderat.

Belxarana, mehea zen, bainan begitarte ezta zuen. Haren presunaren eleganzia, haren eskuen xuritasunak³ erakusten zuten jende handietarik zela. Ez zuen iduri oraino hogoi urthe bazituela. Ikhustean zer atenzionerekin behatzen

(¹) Euskarazko moldapenak frantses eta gaztelaniazko testuetako bi kapitulu osorik ezabatzen ditu: Chapitre VI: Paris en 1792. Chapitre VII: Le citoyen Jean Vauquelas. Capítulo VI: Paris en el año 1792. Capítulo VII: El ciudadano Juan Vauquelas. Lehenak Pariseko terrore giroa kontatzen du, hara heldu baitziren ihesi, 1792ko urrian, Coursegol (gazt. itzulpenean Pedro, euskarazkoan Piarres) eta Dolores, Philippe (gaztelerazkoan Felipe, euskarazkoan Salbador) eta Antoinetten (gaztelerazkoan Antonia, euskarazkoan Eusebia) bila, ezkondata han bizi zirelakoan. Karrikan gaindi ikusten dute, izututa, nola *gal-tzagabe* direlakoan segizioak daraman arrastaka Lamballeko printzesaren gorputza. Coursegolen aspaldiko adiskide Bridoulen ostatuan jartzen dira bizitzen (Bridoul euskarazko moldapenean Martin da, geroago agertuko den pertsonaia). Phentièvereko markesaren bidez, Coursegolek jakiten du Philippek Londresetik idatzi duela. Euskarazko moldapenean Piarres eta Doloresen Pariseratzea laburki kontatzen da XXIX. atalean, “Erridau bat hihitzen da” kapituluaren hasierako paragrafoetan. Bigarren kapitulu ezabatuak kontatzen du nola Coursegol, zortzi hilabeteren buruan, dirurik gabe gelditzean, negozioan hasten den Vauquelas lukurrero oportunistarekin, aristokraten jauregien balioarekin espekulatzen. Coursegol eta Dolores Vauquelasen etxean jartzen dira bizitzen. Hurrengo kapitulua da “Desertorrak” hau: Chapitre VIII: Un épisode de l’émigration. Capítulo VIII: Un episodio de la emigración.

(²) 1793eco (EH).

(³) haren presunaren elegancia, haren escuen churitasunac (...) (EH). Bigarren zatiaren subjektuak dauka *-k* ergatibo marka, nahiz ohikoagoa den lehenak ere izatea (*eleganziak*). *La elegancia innata de su persona, la blancura de sus manos, la timidez natural pintada sobre sus facciones delicadas, revelaban una joven perteneciente á una aristocrática familia.* (1886:194). *L’élégance innée de sa personne, la blancheur de ses mains, la timidité naturelle peinte sur ses traits délicats, révélaient une jeune fille appartenant à la classe aisée.* (1879:153).

zuen hiriko alderat ezagun zen izaite maite baten esperantzan zagola. Bainan hau ez zen heldu.

–Ez da jinen? -murmuratu zuen.

Memento huntan hitz horiek entzunak izan balire bezala, boz batek ihardetsi zion:

–Ez zazula gal esperantza, Eusebia maitea; jaun Salbador jinen da, egun abisatu derauku bisita, erran gabe zer tenoretan, eta oraino goiz da. Iklusiko duzu.

Mintzatu zen presuna emazte ingles bat zen, adinetakoa bainan koketa,⁴ ez baitzuen bere buruaren gaztearaztea beizik xerkatzen. Arras emazte hona zen eta juntatu zen Eusebiari bazakielakotz zoin inket zen, puxka bat konsolarazteko, eta hunek ihardetsi zion:

–Ai! nahi dut sinetsi ikhusiko dugula, madama Reed maitea, bainan ez dut inket izaiteko arrazoinik. Ez da egon jin gabe hirur astez.

–Badakizu zonbat afera duen Londresetan.

Eusebiak burua hiitu⁵ zuen eta berriz behatze bat egin eta, itzuli zen trixteki etxeko alderat.

Madama Reedek segitu zuen eta sartu ziren biak jateko sala ttipi eta ontsa mublatsu batean, zoinaren mahiaren gainean fille batek phausatu baitzituen taza huts batzu dute untzi batekin eta ogi xior xerra burraz inguratu batzuekin.⁶

Memento berean gizon adinetako lodi bat jautsi zen salara. Hura zen jaun Reed, jauregiko nausia. Gizon begitarte honeko bat zen, emaztearen adin berekoa eta ezia.

–Anderea -dio Eusebiari behatzen zuela-, egun besta handia da; esperantza duzu jaun Salbador?⁷

Hitz horiek erraitan hartu zuen taza handi bat dute.⁸

(4) Mintzatu zen presuna, emazte ingles bat zen, adinetakoa, bainan cohieta ez baitzuen (...). (EH). *No tenía otra coquetería que la de rejuvenecerse un poco.* (1886:195). (...) *n'affichant dans ses allures et dans ses manières d'autres prétentions que celles d'une femme qui veut mettre une certaine coquetterie à vieillir,* (...). (1879:154).

(5) *hiitu*: higitu. Beste batzuetan *hibitu* ageri da.

(6) *taza hutz batzu (...)* ogi xior (...). (EH). *fille batek*: emakume sehi batek. *dute untzi*: te-ontzi. *ogi xior xerra burraz inguratu batekin*: gurinaz inguratutako ogi txigor xerra batekin. *Se sentaron delante de una mesa, en la que una sirvienta acababa de depositar una tetera humeante, tazas vacías y unas rebanadas de pan con manteca.* (1886:196). *Elles s'assirent devant une table ronde sur laquelle une servante venait de déposer une théière fumante, des tasses vides et des tranches de pain beurrés* (1879:154).

(7) *esperantza duzu jaun Salbador?*: espero/igurikitzen duzu jaun Salbador?, jaun Salbadorri itxoiten diozu?

(8) (...) *se sirvió una gran taza de té.* (1886:196). (...), *en se versant une large rasade de thé,* (...) (1879:155).

Eusebiak ez zuen ihardetsi. Madama Reedek erran zion bere esposari:

–Andereak beldur du hunen khusiak faltatuko duela bere hitzari.

–A! Hatik tronpatzen da -dio jaun Reedek bere dutea edatean, leihoari hurbiltzen delarik-, ezen jadanik hemen da.

Eusebia jaiki zen loriatua. Joanen zen Salbadorren bidera, bainan hau sartu zen denbora berean, eta bi khusiak elgarren besoetara jua ziren. Eusebiak jadanik bere pena guziak ahantziak zituen. Ai! Separatzeko orena trixtea balin bada, zoin ezti den elgarretara juntatzen⁹ gaituena ordainez!

Eusebia[k], urosa, inguratzen zuen Salbador bere behatze ezteiz.¹⁰ Reedene-ko esposek nahi ukhan ziuzten utzi bakharrrik goza zezaten beren urostasunaz, erretiratu ziren. Bainan athera gabe, jaun Reedek erran zion Salbadorri:

–Sakrifikatuko daukuzu egun hau,¹¹ ez dea hala? Gurekin janen duzu.

–A! Ontsa nahi nuke, bainan oren baten buruko jua behar dut.

Jaun Reed harritu zen.

–Zer? Berriz utziko gaituzu?¹² -dio Eusebiak.

–Oro esplikatuko deizkitzuet¹³ -ihardetsi zuen Salbadorrek.

Jaun Reed gurtu zen eta segitu zuen bere emaztea.

Bi urthe phasatu ziren jadanik, Salbadorrek Eusebia Chamondrineko jauregitik urruntaraziz geroz, utzirik etxe hain maite hura erretzen ari zela eta marka hila. Utzirik espantagarriko gau hura¹⁴ bere giblean, Salbador, Eusebiarekin, jua zen Valenciara. Han Chamondrineko familiako adixkide batek ezarri zituen zonbeit paper¹⁵ heien eskuetan, zoinekin heldu ahal baitziren Angleterrera.

Londreserat, bertze hiri hanitzetarat bezala, desertorrak joaten ziren. Bainan Salbadorrek Angleterreko kapitala hautatu bazuen Eusebiaren segurtatzeko egin zuen, ezen bazakien hunen fortunatik farte handi bat phausatua zela hiri hortako bankier baten etxean, eta, gehiago dena, handik aiseago izanen zitzakola¹⁶

(⁹) yintatzen (EH).

(¹⁰) Eusebia, urosa inguratzen zuen Salvador bere behatze ezteiz. (EH). -k ergatibo marka ezarri diogu subjektuari (Eusebiak). (...). *Antonia, dichosa, arrobada, miraba á Felipe*. (1886:197). *Antoinette, heureuse, extasiée, se pressait contre Philippe*. (1879:155).

(¹¹) –¿Nos sacrificaréis este día, verdad? (1886:197). -*Vous nous donnez cette journée, n'est-ce pas?* (1879:155).

(¹²) Cer berriz utziko gaituzu! (EH).

(¹³) deiskitzuet (EH).

(¹⁴) gau gura (EH). Guk *hura* ezarri dugu, *gura* aldaera (aezkeraz etab.) utzi baino nahiagoz, bestetan beti *hura* agertzen baita.

(¹⁵) zombeit pater (EH). *algunos papeles* (1886:197-198). *quelques secours* (1879:156).

(¹⁶) izanen tzitzakola (EH). Ik. hitzaurrean esana *ez + z-* adizkien kontuaz (2.2.4.5.).

kasu egitea Luisianan Mirandolen ondoko bakharrak zituen ontasun handier.

Piaia peligras horren burura heldu eta Salbadorrek hunkitu ahal zituen Eusebiaren ontasunetarik zonbeit eta hau salbatu ahal zuen behar ordu guzietarik.¹⁷

(XXVII)

Hilabete bat phasatu zen, egun guziet zerbeit berriagoko bazelarik, halako gisaz¹⁸ nun gure desertorrek ez baitzuten ukhan denborarik bere bihotzer galdegiteko zer estatutan ziren. Bainan denbora puxka bat kalmatu zenean eta gau espantagarri hura puxka bat heien bihotz hunkituetarik itzali zenean, ethorri zitzagoten deskantzu handi bat. Bat eta bestea aurkhitzen ziren gau ikharagarri harek kreatu zioten situazioneari bisian bis, eta bakhotxak konsideratzen zuen bere maneran.¹⁹

Eusebia ez zen gauza batez beizik orhoitzen: maite zuela Salbador, eta hunek hitzeman ziola bere aitari harekin ezkonduko zela; eta konsideratzen zen ja haren esposa izan balitz bezala.

Salbadorrek bere baithan madarikatzen zuen promes hura, phentsatzen zuen ere Doloresen baithan,²⁰ bazakien komentuak eta elizak oro erreak eta destruituak zirela, eta, hil ez balin bazen, orduan libro zela. Iduritzen tzitzaion, gisa guziet, bizi zela.²¹

–Piarres harekin gelditu da haren laguntzeko eta egun batez ikhusiko dut.

Phensamendu horrek alegeratzen zion bihotza. Nahi tuen²² guziak eginik

(17) *Los parientes que Antonia tenía en Inglaterra habían muerto. Haciéndola reconocer Felipe, pudo entrar en el acto en posesión de una parte de su herencia y ponerla al abrigo de toda necesidad.* (1886:198). *Les parents qu'Antoinette avait en Angleterre étaient morts. Mais, en la faisant connaître, il put la faire entrer sur-le-champ en possession d'une partie de leur héritage et la mettre à l'abri du besoin.* (1879:156).

(18) halaco guisas (EH).

(19) Bat eta bet ea (...) (EH). *kreatu zioten*: kreatu zien. *bisian bis*: aurrez aurre. *Cada uno se encontraba frente de la situación que aquel desastre les había creado y cada uno le consideraba á su modo* (1886:199). *chacun d'eux se trouva en face de la situation que ce désastre leur créait et l'envisagea à son point de vue.* (1879:156-157).

(20) *Pensaba en Dolores; (...)* (1886:199). *Il songeait à Dolorès.* (1879:157).

(21) *Y no quería creer que hubiese muerto. Todo le hacía creer que no lo estaba.* (1886:199). *Et il ne voulait pas croire qu'elle fût morte. Tout le portait à croire qu'elle vivait encore, (...).* (1879:157).

(22) Hala ageri da EH edizioan eta zuzen dagoke. *Nahi tuen guziak*: nahi dituen guziak. Bonapartek jasota Yrizarrek dakarrenez, *tu 'ditu' aldaera erabiltzen zen, esaterako, Baigorri eta Bankan* (Yrizar:1999a:94). *A pesar de todo lo que se hace para destruir una esperanza, ésta no muere jamás en un corazón enamorado.* (1886:199). *Quoi qu'on fasse pour la détruire, l'espérance ne meurt pas dans un coeur sincèrement amoureux.* (1879:157).

ere esperantza baten hilarazteko, hau ez da sekula ahanzten ontsa maitatu duen bihotz batean, bakharrik herioak dezake²³ eta esperantza du mundu huntan ez bada bertzean ikhusiko duela maite duena.

Phensamendu horrekin azkartua, Salbador ez zen atrebitzen Eusebiari erraitera.²⁴ Maite zuen arreba bat bezala, eta aitaren aitzinean egin zion promesa bethi haren begien aitzinean zagon urriki bat bezala.²⁵

Londresetara juan eta zonbeit egunen buruan izan zuen esplikazione bat Eusebiarekin. Erran zion aitaren dolua phasatu eta ezkonduko zirela. Orhoitarazi zuen haren zorigaitzezko heriotzeaz eta ez zakiela oraino Dolores eta Piarres bizi zirenez, konprendiarazteko haren bihotza zein guti preparatua zen oraino espos arropa baten jaunzteko.²⁶

Eusebiak hitzeman zion esperatuko zuela.

Salbadorrek phensatu zuen hobe zuela bere ganik urruntzea,²⁷ eta erran zakon ez zitazkela bizi teilatu beraren azpian ezkondu artio, ezagutzen zuela Londresetako inguruetan familia bat arras hona eta arras kontent izanen zirela pensionest gazte bat berekin izaitez.

Eusebiak konsentitu zuen.

Gisa hortan aurkhitu dugu Reedeneko familian.²⁸

Jaun Reedek ez zuen sekula haurrik izan, negozioan bizi izan zen. Erretiratu zen kanpañarat bere eta emaztearen zahartasunari deskansuaren emaiteko.

(²³) Hilaraz edo ahantzaraz dezake. *Sólo la muerte puede, si no quebrantarla, al menos transformarla, uniendo á la realización la perspectiva de una vida futura contra las dulzuras que la muerte no deja prevalecer.* (1886:199). *La mort seule peut, sinon la briser, du moins la transformer, en en rattachant la réalisation aux perspectives d'une vie future contre les douceurs de laquelle la mort ne prévaudra plus.* (1879:157).

(²⁴) Phensamendu horrekin azkartua Salvador ez tzen atrebitzen Eusebiari erraitera maite zuen arreba bat bezala, eta (...). (EH). Guk puntua ezarri eta bi esalditan banatu dugu EHko bakarra. Salbador ez zen atrebitzen Eusebiari esatera Dolores ikusteko esperantza zuela. *Animado de estos pensamientos, Felipe no se atrevía á decirselo francamente á Antonia. La quería fraternalmente.* (1886:200). *Animé de ces pensées, Philippe n'osait cependant parler avec franchise à mademoiselle de Mirandol. Il l'aimait fraternellement.* (1879:157).

(²⁵) urriki bat bezala: damutzen zen zerbait edo pena ematen zion zerbait bezala.

(²⁶) *Alegó su muerte trágica, la incertidumbre en que estaba todavía de la suerte de Dolores y de Pedro, para hacer comprender cuán poco dispuesto estaba su corazón á entregarse á las alegrías radiantes de la luna de miel.* (1886:200). *Il alléga la mort tragique de son père, l'incertitude dans laquelle il était encore sur le sort de Dolores et de Coursegol, pour faire comprendre combien son coeur était en ce moment peu disposé à se livrer aux joies radieuses de la lune de miel.* (1879:158).

(²⁷) Eusebia urrunaraztea. *Pensó en alejarla de él, (...)* (1886:200). *Puis il songea à l'éloigner de lui* (1879:158).

(²⁸) Reed eneko familian. Beherago ere agertzen da, bi aldiz: *Reedeneko jaun-anderek, Reedeneko jaun-andereer. Así fue como se instaló en la casa de la familia Reed* (1886:201). *C'est ainsi qu'elle fut installée chez les époux Reed* (1879:158).

Gogotik hartu zuten Eusebia, eta hau han mainhatua eta ontsa soinatua²⁹ izan zen.

Salbador Londresetan bizi zen bainan joaten zen aste guzietz arratsalde baten phasatzera Eusebiarekin, zoina presentatu baitzuen kusina bat bezala. Hau jiten zenean Reedeneko jaun-anderek egiten zuten bethi atsalde haskari³⁰ hon bat, eta ahal zizuten guziak.

Zoin fite phasatzen ziren oren hek Eusebiarentzat! Sekula ez ziren geroaz mintzatzen, Salbadorrek bethi urruntzen zuen konbersazione hura. Bainan mintzatzen ziren phasatuaz, Doloresez, zoinaren suertea oraino mixteriosa baitzen. Ez ziren atrebitzen esperantzaz bizitzera, bainan bai orhoitzapenez.³¹

Salbador Londresen lanean ari zen,³² bethi esperantza zuen lanaren medioz ahantziko zituela bere penak eta hura guti ikhusiz³³ Eusebiak ahantziko zuela bainan tronpatu zen.

Eusebiaren bihotza bethi berdin zen, bethi esperantza zuen, hirur urthe phasatu ziren deusetan situazionea kanbiatu gabe, sofritzen zuen hanitz, bainan egiten zituen ahal zituen guziak bere penaren gordetzeko Reedeneko jaun-anderer, zoinak bizi baitziren bethi hura mainatuz ezen maite zuten alaba bat bezala.

Bizkitartean geroago eta arraroago zoazin Salbadorren bisitak, nahi ukhan balu bezala hura ez ikhusiz bere amodioa ahantzarazi andere Mirandoli.

Pena inutila! Eman zuen bere bihotza eta bethiko, ez zuen ezagutzen Salbadorrek ez zuela maite eta haren hoztasuna akusatzen zuen Frantzia denbora hartan bitima zen nahaskerier.³⁴

(²⁹) sognatua (EH), soinatua (in=ñ ahoskatua): artatua.

(³⁰) atsalde haskari: arratsaldeko jatordu. *Cuando volvía, los esposos Reed hacían todo lo que podían para festejarle y agradecerla. Buena comida, buen vino, partidas de campo, etc.* (1886:201). *Ce jour-là, pour la fête, M. et madame Reed mettaient, pour nous servir d'une expression vulgaire, les petits plats dans les grands.* (1879:158).

(³¹) bainan bat orhoitzapenez (EH). *No se atrevía (sic) á vivir de esperanzas sino de recuerdos.* (1886:201). *On n'osait vivre d'espérances, mais on vivait de souvenirs.* (1879:159).

(³²) Euskarazko moldapenak ez du aski zehazten zer lanetan ari ziren Salbador eta Eusebia Londresen, bai frantses eta gaztelaniazko testuek. Eusebiak erbestetuak bisitatzen eta beharrei amoina emanarazten zien; Salbador monarkikoekin konspiratzen ari zen su eta gar baina alderdia zatitua zegoen eta ez ziren deusetako gai; bestalde, ezinegon horren bidez iragana ahaztea bilatzen zuen (1879:159-160; 1886:202-203).

(³³) ikhusis (EH).

(³⁴) *No poseía bastante experiencia para apreciar la indiferencia de Felipe ni para comprender que no era amada. / Atribuía su frialdad á los males sucesivos que le habían herido, y esperaba una ocasión que le permitiese la explosión de sus sentimientos, semejantes á los suyos.* (1886:203-204). *Et puis, elle ne possédait pas encore une expérience telle qu'elle pût apprécier l'indifférence de Philippe et y voir la preuve qu'elle n'était pas aimée. Elle attribuait sa froideur aux maux successifs qui l'avaient frappé, et elle attendait du temps l'occasion qui permettrait l'explosion de sentiments semblables aux siens.* (1879:160).

Gure leitzalek phensatuko dute³⁵ aise orai zertako goiz hartan halako inpa-zientziarekin zagon Chamondrineko markes gaztearen beha. Hirur aste phasatu ziren hura jin gabe eta aldi huntan deus ez zioten egin haren tristesaren kontra Reedeneke jaun-anderek.

Azkenean Salbador haren begien aitzinera jin zen eta phensatu gabe gehi-ago, phasatuaz alegera, haren besoetarat juan zen erakutsiz zoin uros zen ha-ren aldean arratsalde³⁶ baten phasatzeaz, jakin zuelarik oren baten buruko juan behar zuela.³⁷

(XXVIII)

–Esplikatuko deitazu determinazione hori? -erran zion bakharrik gelditu zirenean.

Haren boza ikharetan zagon, haren begiak nigarrez bustiak zauden.

–Eusebia, uzten zaitut egitekoak manatzen nauen lekhura juateko -ihardetsi zion Salbadorrek.

–Egitekoak? Zer egitekoak?

–Erregina hetsia da oraino Templeko dorrean.³⁸ Diote jujatu behar dutela, jakin behar dut zer gaztigo emanen dioten eta ahal balin badut ekhendu bere partiden eskuetarik.

–Bakharrik! -dio Eusebiak phensatuz zer irriskutan zen.

–Sei gira abiatuak hil edo bizi, salbatuko gira edo hilen. Bainan eginahalak oro eginen ditugu salbatzeko.

–Bainan zer eginen duzue hain gutik?

–Jainkoa gurekin izanen dugu -ihardetsi zion Salbadorrek- eta bertze adix-kiderik ere harrapatuko dugu.

Hitz horiek erakutsi zioten Eusebiari haren ideia ezin kanbiatua zela eta ez zen bere sendimenduaren nausi izan, jarri zen fotil batean eta bere eskuez bisaia gordetzen zuela nigar egin zuen khireski.

(35) *Nuestros lectores comprenderán ahora por qué (...).* (1886:204). *On comprendra maintenant pourquoi (...).* (1879:160).

(36) arrasalde (EH).

(37) Eusebiak jakin zuelarik oren baten buruko joan behar zuela Salbadorrek.

(38) *temploco dorrean* (EH). Hutsa dirudi *temploco* horrek, *Temple* izenaren euskarazko egokitzapena baino gehiago. –*La Reina está encerrada todavía en la torre del Temple.* (1886:204). –*La reine est toujours en prison au Temple.* (1879:161).

–Trankiliza zite, adixkide maitea -erran zion Salbadorrek, desesperazione hori ikhusiz.

Denbora berean belhaunikatu zen haren aitzinean.

–Abandonatzen nauzu phensatu gabe zer izanen den nitaz zu ene aldean ez zirenean eni kasu egiteko, eta hiltzen bazine hil bainitake³⁹ aldi berean.

Salbadorrek eskuak zerratu ziozkan eta erran zion boz ezti batekin:

–Lehenik hitzemaiten deitzut biziko nizala eta gero elgarretarako girela.⁴⁰ Eta konprendituko duzu desohora nintakela gibelatzen banintz hartu dudan tarearen aitzinean.⁴¹ Maita zinio bere egitekoen aitzinean gibelatzen den gizon bat? Erregina ene laguntzalea izan da.⁴² Ez dut orai tentatu behar bere etsaien eskuetarik khentzea?⁴³

–Bainan hiltzen bazira?

Oihu horrek ezagutarazten zion Eusebiaren amodio guzia.

–Ez, ez niz hilen -erran zion ikusiz haren trixteza-. Eta itzultzen nizanean nehok ez nau gibelatuko egin dautzutan promesaren konplizetik.

Sekula ez zen hola mintzatu eta hitz horiek konsolatu zuten.

–Nik ez zeitut hemen atxikaraziko, zoazi bakean, suerte izan zazu,⁴⁴ othoitz eginen dut zuretzat.

(39) *Pentsatu gabek* gobernatutako baldintza perpaus honetan *bait-* elementua, menderagailu gisakoa, ageri da ondorio perpausean, eta ez *-(e)la*. –*Me abandonais alejándos de mí sin preguntáros qué será de mi suerte cuando no os tenga á mi lado para protegerme; sin deciros ¡ingrato! que sufriré con vuestra ausencia, y que si murierais me moriría del mismo golpe.* (1886:205). –*Vous m'abandonnez! Vous vous éloignez de moi sans vous demander quel sera mon sort lorsque je ne vous aurai plus pour me protéger; sans vous dire, ingrat, que je souffrirai de votre absence, et que si vous veniez á mourir, je mourrais du coup qui vous aurait tué!* (1879:162).

(40) elgarretarako guirela. (EH). *Ante todo, os aseguro (...) que luego nos volveremos á ver.* (1886:206). *Avant tout, rassurez-vous; dites-vous bien que je vivrai, que bientôt vous me reverrez.* (1879:162).

(41) EH edizioan galdera-ikurra dago (Eta konprendituko duzu (...) aitzinean?). Guk kendu dugu, ego-kia ez delakoan. *Y comprenderéis que me deshonraría si retrocediese ante la tarea que me impongo.* (1886:206). *Et puis, comprenez donc que je me déshonorerais, si je reculais devant la tâche qui s'impose à moi.* (1879:162).

(42) izan da? (EH). *La reina fué mi protectora, (...).* (1886:206). *La reine fut jadis ma protectrice; (...).* (1879:162).

(43) tentatu: saiatu, ahalak egin. *Tentatu...-tzea*: egitura bertsua lerro batzuk beherago: *jakin zuen erregina hil zutela eta haren libratzea tentatu zutenak preso hartuak zirela*. Baliteke *-tzea* hori *-tzeraren* fonetismoa izatea, zeren *-tzer*a baita, *-tzenek*in batera, *saiatu/enseiatu* aditzak eskatzen duen perpaus osagarri moldea (EGLU VII 565-566). Bestela, ezohiko konbinazioa izango litzateke. *¿no debo intentar hoy arrancarla de la muerte?* (1886:206). *ne dois-je pas tenter aujourd'hui de l'arracher à la mort?* (1879:162).

(44) –Nic ez zeitut hemen atchikaraziko zohazi bakean, suerte izan zazu othoitz eginen dut zuretzat (EH). –*Marchaos, tened suerte y volved pronto.* (1886:206). *Partez. Puissiez-vous réussir et revenir bientôt!* (1879:163). Ageri da euskal moldatzaileak gaztelaniatik itzultzen duela.

Momento bat mintzatu ziren Eusebiaren ontasunez eta Salbadorrek erran zion hura Parisen izanen zen denboran ontasun heer kasu emanen zeela jaun Reedek.

–Jaun Reed arras gizon ohoratua da.

Eta deitharazirik erran zion lehen aldikotz andere Mirandol egun batez haren esposa izanen zela.

Despeditzean hitzeman zion berriak igorriko zituela. Bainan Eusebia sei astez bizi zen beldurrez bethea eta gaixtoena gogoan.

Orduan jakin zuen erregina hil zutela eta haren libratzea tentatu zutenak preso hartuak zirela.⁴⁵

–Ai! -dio Eusebiak-, Salbador presoner da.

Ixtant bat ixilik egon zen eta gero erran zuen boz fier batekin:

–Juan behar dut.

–Juan? Norat?

–Salbadorren gana.

–Bainan herioaren bilha joaitea da.

Eusebiak nigarretan eta desesperatua ihardetsi zuen:

–Nahi dut juan!

Madama Reedek hartu zuen bere besoetan eta nigarrak xukatzen tzazkola erran zion:

–Andere maitea, Salbadorrek errekomendatu geitu zuri kasu emaitiaz,⁴⁶ ez zaitugu uzten ahal. Nork erraiten deitzu zure kusia ez dela eskapatu? Gazte da, azkarra eta habila. Nork daki momento huntan ez den bidean zure ganat itzultzeko?

Eusebiak sino⁴⁷ batez erakutsi zion ez zuela esperantzarik, bizkitartean erran zuen obedituko zuela.

Madama Reedek lagundu zuen bere ganberara, etzanarazi zuen eta ez zuen utzi lokhartu zen artio.

Lehen lo hau laburra izan zen. Bi orenak jo gabe, Eusebia iratzartu zen harritua, ikhusi zuen ametsetan Salbador eskuak gibelean gathez estekatuak, ilea pikatua eta kondenatuen ailamendu hits batekin. Oihu egiten zuen Eusebiari miserikordiazko boz batekin:

–O! joanen niz, joanen niz salbarazteko edo harekin hiltzeko.

(45) Frantses eta gaztelaniazko testuan jaun Reed da Eusebiari jakinarazten diona.

(46) Egitura bakan edo ezohiko samarra; ez dugu halakorik aurkitu OEHN (bai $-t(z)ea/t(z)eko$ gomendatu diguzu, $-t(z)ez$ gomendatu zitzaizen bezalakoak). Are gutxiago errekomendatu aditzarekin.

(47) sino: keinu.

(XXIX)

Horiek izan ziren haren hitzak.

Jaiki zen, beztitu, hartu zuen tiranet⁴⁸ batean beiratua zeukan dirua eta zonbeit urheria eta goiz alderat utzi zuen hirur urthe bizi izan zen etxe hura.

Zonbeit orenen buruan Madama Reed haren ganberara juan zenean ez zuen harrapatu letra bat beizik zointan erraiten baitzion bazoala bere kusiaren gana, erremersiatuz harentzat izan ziuzten soinu⁴⁹ guziak hirur urthe hetan.

Jaun Reed juan zen berheala hirirat bainan orduko Eusebia itzaldia zen.

⁽⁴⁸⁾ Tiradera, tirante, kutxatila. OEHn *tiranet* ez dugu ikusi eta nobela honetan hemen baino ez. Behar bada silaba edo letraz nahastuta ageri da, *tirante*, *tirenta*, edo antzekoren baten orde. Hitz horrek aldaera zinez ugari ditu (OEHren arabera, aipatuez gain, *tiranta*, *tirent*, *tiret*, *tiradera*, *tirader* etab.) eta horregatik nahiago izan dugu errespetatu bere horretan, badaezpada.

⁽⁴⁹⁾ soignu (EH). Hau da: arreta, arta.

VII PHARTEA. ERRIDAU BAT HIIHITZEN DA.

Chamondrineko jauregiko khe beltzer beha Piarresen bihotza nigar hanitz eginik deskantzatu zenean, juan zen berriz bere alaba bezanbat maite zuen haren komentura eta jakinik bidean komentu hari ere su eman beharra zutela, deliberatu zuen ihes joaitea Doloresekin. Hunen desesperazionea handia zen, etxe maite hura ez zuen sekula ikhusiko, eta markesari bere sakrifizioa egiteko egunean azken adioa egin zion. Salbador eta Eusebia hil othe ziren hek ere?¹ Maite zituen guziak galdu bazituen zerentzat biziko zen?

Piarres maite zuen oraino,² hunek bizia salbatu zion eta hitzemaiten zion sekula ez zuela deusen faltarik izanen. Obedituko zion, ahal bazuten sartuko ziren Parisen, ahal zizuten guziak eginen zizuten Salbador eta Eusebia, bizi balin baziren, heien aurkhitzeko,³ eta Jainkoaren laguntzarekin biziko ahal ziren.⁴

Horiek ziren Doloresen eta Piarresen ideiak eta nahikariak. Hiri batean zonbeit egun phasatuz, bertze batean zonbeit hilabete, bi urtheren buruan heldu ziren Parisera, hil ala bizi ziren ez zakiten heien berririk deus jakin gabe.

Han Piarresek lehen ezagutu jaun zahar batek eman zeen atherbe, hitzemanenez lana emanen ziola bere komersioko etxean Piarresi, eta haren alaba ontsa izanen zela.

Piarresek gogotik apzetatu zuen⁵ phensatu gabe gizon hura noblezaren eta

(1) azken adioa eguin zion, Salvador eta Eusebia hil othe ziren hec ere. (EH).

(2) Hau da: esandakoez gainera, Piarres ere maite zuen Doloresek. *Orainok* emendiozko lokailu baten funtzioa betetzen du hemen.

(3) (...) ahal zizuten guziak eguinen zizuten. Salvador eta Eusebia bizi balin baziren heien aurkhitzeco, eta (...). (EH). Esaldia trakeski moldatua da, puntuazioa alde batera utzita ere (anakolutoa?). Zuzenago dago *heien* kenduta.

(4) *biziko ahal ziren*: egitura zaharra da Iparraldean, *bizi abalko ziren* baino zaharragoa; hau XIX.ean sartu zen, OEHren arabera. Ik. *deklaratu*ko *ahal* zuen XIV.

(5) *apzetatu*: adibide bakarra nobela honetan. OEHn *azeptatu*, *akzeptatu*, *akzetatu*, baina ez *apzetatu*. *Azeptaturen* metatesia da; ez dakigu, ordea, nahastuta haren ordeztatua den edo ez.

erlijionearen etsairik handienetarik zela,⁶ eta haren komersioan asosiant sarthu zen.

Urthe bat phasatu zen gure adixkidek deus jakin gabe bilhatzen ziuzten hetaz.

Piarres, Vauquelasekin egiten zuen komersioaren gatik egun guzietz atheratzen zen, joaiten zen sozietate handietarat, palazioetarat, eta mintzatzen zen denbora trixte hartako gizonik poderosenekin.⁷

Doloresek ez zuen sekula uzten etxea. Atheratzen balin bazen, mezarat joateko egiten zen. Bizi zen kalma trankil batean, nehor ikhusi gabe. Bere adineko adixkiderik gabe, berak maite zituen guziak galduak, haren gaztetasuna bazoan lore iguzkia ezin ikhusizko bat bezala. Hirur urthez ikhusi zuen hainbertze pena eta itzali zen haren begien aitzinetik hanbertze gauza non ez baitzuen dohatsutasunik mundu huntan esperantza.⁸

Disgustatzen zen biziaz, melankolia handi batez bethea zen. Nexkato gazteen begitarte argi eta alegera galdua zuen eta haren ametsak orhoitzapen trixtez betheak ziren.

Maithatuz geroz galdu zituen guziak ikhusten zituen lanho ilhun baten arte-tik bezala: markes Estebe, zoinaren amodioak ixuri baitzuen hainbertze alegria haren bihotzera haurra zelarik!; Marie-Anna markesa, zoinari eman baitzion amaren izena; Salbador eta Eusebia, anaia-arrebak deitzen zituen hek. Oro phasatzen ziren haren begien aitzinean desesperatuak. Ez zezaken goza komentuko bizi erretiratu hura ere, nun bere sakrifizioak ahantzarazten baitzion bere pena handia.

(XXX)

Bere inguruetararat behatuz, ez zuen kausitzen nehor konfidentzia emaiten ahal zuenik eta bere penen arintzen laguntzen ahal zuenik.

Vauquelas eta Piarres ez ziren Doloresek behar zituen lagunak. Piarresek haren⁹ aldean phasatzen zituen ixtant laburretan [Doloresek] ikhusten zuen

⁽⁶⁾ Jatorrizko testuak (frantsesezkoak) dio Vauquelas espekulatzaila eta oportunistak zela batez ere; geroago azalduko du Robespierren laguna zela eta erregina salbatzeko konplota salatu edo agertarazi zuela (1879:173).

⁽⁷⁾ poderosenekin (EH). *Poderes* 'boteretsu' aldaerarik ez dugu ikusi OEHn.

⁽⁸⁾ dohatsutasunik mundu honetan espero.

⁽⁹⁾ Doloresen.

bethi bere negoziorekin kalkulan ari zela.¹⁰

Vauquelasek behatzen zion Doloresi errespeturekin, ez zen aise phensatzea zer gisetakoa zen gizon haren bihotza,¹¹ eta Doloresek ez zuen haren ganik konsolazionerik esperantza.

Goizetan lanean artzen zen,¹² egiten zituen Piarresek emaiten zazkon khonduak, bakharrrik bazkaltzen zen eta arratsetan jiten ziren haren aldera bizi trixte hartako haren lagunak.

Urriko gau batez bakharrrik gelditu zen bere ganberan, zoinak baitzuen berinazko bortha bat baratzeko alderat eta haren aitzinean erridau haundi bat.

Bederatzi orenak ziren, Vauquelas eta Piarres oraino sartzekoak ziren, sehiak oferat juanak.¹³ Doloresek uste zuen bakharrrik zela. Supaztarrean¹⁴ jarria, brodatzen ari zen. Bainan ikhusten zuenak aise phensatzen zuen haren phensamendu handik urrun zela, lan hura eskuetan izanik ere.

Lehenagoko denboretan zen haren ispiritua, eta bere buruari galdegiten zuen munduko zoin fartetan bilhatu behar zituen Salbador eta Eusebia.

–Zer ari othe dira? -zion Doloresek-. Nitaz orhoitzen othe dira? Uros othe dira?

Momento hartan haize handi bat jaiki zen. Azkenean bortha hesten duten beza[lako]¹⁵ soinu bat jin zen haren beharrietaraino eta izitu zen.

–Ahantzi dute bortha haren hestea -phensatu zuen Doloresek.

Eta zonbeit hitz erraiten zituela juan zen sehiak ahantzi zutenaren egitera.

(10) Piarresen haren aldean phasatzen zituen ichtant laburetan ikhusten zuen bethi negociorekin calculan ari zela (EH). Guk perpaus nagusiaren subjektua ezarri dugu: *Doloresek*. (...) Esan nahi baita: Doloresek ikusten zuen Piarres beti bere negoziorekin kalkulan ari zela. Nolanahi ere, esaldia trakeski moldatua da, eta, hain zuzen, gaztelaniazko itzulpenari orpoz orpo jarraitzeagatik egiten du huts, hark ere ez baitu jartzen subjekturik. *Negoziorekin* errespetatu dugu, fonetismoa izan daitekeelakoan, ‘negoziorekin’ (ala *negozioarekin* behar luke?). *Durante los cortos instantes que Pedro pasaba al lado de ella, le veía siempre ocupado, siempre entregado á sus cálculos.* (1886:214). *Durant les courts instants que Coursegol passait auprès d’elle, elle le voyait absorbé, préoccupé, entièrement livré à ses calculs.* (1879:169).

(11) *Era difícil de saber lo que pensaba este hombre.* (1886:214). *Il était difficile de savoir exactement ce que pensait le bonhomme.* (1879:169).

(12) Dolores.

(13) Sehi bat bakarra dago jatorrizkoan eta gaztelaniazko itzulpenean.

(14) Suspastarrean (EH). *Sus-* lehen osagaia duen formarik ez dugu ikusi OEHN.

(15) (...) askenean bortha hesten duten beza-soinu bat jin zen (...) (EH). *Bezalako hitza mozturik dago. En fin, un ruido semejante al de una puerta que se cierra vino á aumentar el producido por la tempestad.* (1886:216). *Enfin, un bruit semblable à celui d’une porte qu’on referme vint s’ajouter au tapage mystérieux que causait la tempête.* (1879:170). Euskarazko itzulpenak bi esalditan laburtzen du originalean bederatzitan eginiko deskripzioa.

Zonbeit urhats egin orduko baratu zen izitua, iduritu tzizaion¹⁶ norbeit bazela erridauaren gibelean.

–Zeruak! Zer da hau?

Haren imajinazionean phasatu zen lehen ideia izan zen ohoin bat othe zen, bakharririk zela ikhusirik jina.

Emazte baten ispiritua fite inketatzen da; gaua, bakhartasuna, oro jiten ziren haren izialduraren handitzera. Ikharetan zagon eta eskuak hedatu zituen erori gabe jartzeko kadera baten bilhatzeko.

–Erhotua niz -dio berriz-. Nor jinen da horra haizeaz bertzerik? Guazen¹⁷ bortharen hestera.

Eta jaikirik berriz abiatu zen eta orduan ikhusi zuen gizon baten itzala erridauaren gibelean.

–O! Zer izigarrikeria! -dio bihotzera eskua altxatzen duelarik.

Eta boz apha! batekin dio:

–Nor da hor?

Erraposturik batere. Orduan alxatu zuen erridaua. Gizon bat xutik zagon bortha zerratuari kontra.

Begiak ez zituen alxatzen eta ez zitaken ikhus haren bisaia itzalean.

–Nor zira? -dio Doloresek.

Hitz horiek ez zituen akhabatu noiz eta ere gizona haren galdeari erraposturik egin gabe aitzinatzen baita dioelarik:

–Dolores! Dolores!

–Salbador!

Eta juan zen bere adixkidearen besoetara, zoinaren ganik separatua baitzen lau urthe hartan, eta zoinari ez baitzen gehiago atrebitzen ahal anaia deitzerat.¹⁸

⁽¹⁶⁾ tzizayon (EH). AMn ageri dira ere *zitzaion* XI, *tzitzaion* XXVII, XXXVIII, XLVIII, *baitzitzaion* XXXII, *tzitzakon* XLVII.

⁽¹⁷⁾ Guazuen (EH).

⁽¹⁸⁾ amaya ditzerat (EH). *zoinaren ganik...zoinari: adiskidearen* du aurrekari edo hari egiten dio erreferentzia; hau da, Salbadorrengandik ...Salbadorri (...).

(XXXI)

Hola egon ziren zonbeit minuta elherik egin gabe bere emozioean.

Salbador zen, bainan Salbador zahartua, mehatua, pena egingarriko kolore hits batzuekin. Elgarri beha egon ziren bolta bat, eta Dolores, ikhususirik denborak eta penak haren anaiaren kopetan egin zituen markak, nigarrez hasi zen.

–O! Dolores enea! hi hiz hoinbertze xerkatu eta ondoan harrapatzen dudana!¹⁹

Gaixo haurra! Nigar eta irri egiten zuen alegriarekin, Salbadorrek ihesten zuelarik bere behatze eztiuz munduan maite zuen bakharra.²⁰ Azkenean eskutik hartu zuen²¹ eta fofil batean jarrarazi erraiten ziola:

–Khanbiatua harrapatzen nuk?

–Lehen baino ederrago oraino.

Gorritu zen, burua itzuli zuen eta erran zion:

–Nola jin hiz huna?

–Jin nun Parisera lagun batzuekin erreginaren librarazteko. Heriotze trixtea! Erregina gillotinatu dute. Ene lagunak preso dira. Bakharra niz eskapatu nizana.²²

–Ai! Beraz segitia hiz?

–Zortzi egunez egon nun gordea gizon ohoratu baten etxean, zoina ene mi-seriak hunkitu baitzuen. Uste nuen haren etxean egoiten ahal nintzala Parisetik atheratzen ahal nintzan artio. Bainan jin zaut erraitera konprometitua zela Errepublikaren kontrario baten bere etxean atxikitzeaz, eta ez balin banuen nahi hil zezaten, hobe nuela ihes joatea. Geroztik Pariseko karriketean nabila, zakhur bat

(19) Gaztelaniazkotik itzulia; frantsesezkoa -galdera forman egina- egokiagoa dateke. –*Oh, Dolores mía! jeres tú la que encuentro después de haberte buscado tanto!* (1886:218). –*O Dolorès, dit-il enfin, est-ce bien toi qui je retrouve après t'avoir tant cherchée?* (1879:172).

(20) Gaicho haurra nigar eta irri egiten zuen alegriarekin Salvadorrek ihesten zuelarik (...) (EH). *ihesten: irensten. La pobre joven lloraba y sonreía á la vez, mientras que él, reanimado por el dulce calor que hacía en el cuarto, devoraba con la vista á su amiga tan querida.* (1886:218). *Elle pleurait et souriait à la fois, tandis que, ranimé peu à peu par la douce chaleur qui régnait dans la salle, il dévorait des yeux sa chère aimée.* (1879:172).

(21) Doloresek Salbador.

(22) Pertsona komunztadura atxikitzen da (I. pertsona) perpaus erlatiboaren eta aditz nagusiaren artean. Hori ez dateke hain ohikoa; arruntagoa dateke, egun bederen, *Bakharra niz eskapatu dena*, baita, noski, *Eska-patu den bakharra niz* edo *Bakharrik ni eskapatu niz* eta honetarikoak. Hemen pertsona komunztadura dagoen bezala, lerro batzuk goragoko adibidean ez dago halakorik: *hi hiz hoinbertze xerkatu eta ondoan harrapatzen dudana!*, baina agian moldatzaileak berdin idatz zezakeen *Hi hiz (...) harrapatzen hautana* (edo *butana*)! (ik. *hautan*, *butala* etab. XXXV, XL, XLIX L). *Bakharra niz eskapatu nizanaren parekoa da hi hintzala lebena, bakharra, ene bibotza izan dunana XL. Solo yo he podido escaparme.* (1886:218). *Seul, j'ai pu m'échapper.* (1879:172).

bezala gosea gauaz eta egunaz, ezin atrebituz leihorraren galdegitera salhatua izan beldurrez.²³ Gaur gosearekin eta hotzarekin desesperatua, banindoan ene buruaren salhatzera, hilen nindutela eta orduan oro fini izanen zirela,²⁴ noiz eta ere hemendik bi urhatsetan harrapatu beitut Phenthievreko dukearen zerbitzari bat, zoinari hanbertze ongi egin bainion. Ustez ez zituela ahantzi, hurbildu nitzαιο. Miserableak arrastatu nahi izan nu. Indarrak berriz jin zauzkit ikhuziz zoin gaizki, injustoki²⁵ estekatu nahi ninduen, lurrerat botatu dut eta oihuka ari zela eskapatu niz etxe hunen ondorat. Pareta bat ene aitzinean presentatu da eta jauzian phasatu dut, sarthu niz baratze huntan, leiho huntarik argia ikhuzi dut. Bortha bat idekia zen. Sarthu niz eta Jainko maiteak hire gana heldu nin. A! hiltzen ahal nun orai, Dolores, ikhuzi hut eta hilen nun kontent.²⁶

—Bainan, zerentzat mintzo hiz hiltzeaz? Hemen hizanaz geroz, salbatua hiz eta hemen egonen hiz.

Bainan bat-batean orhoituz etxe hura ez zela harena, murmuratu zituen zonbeit hitz.

Salbador ohartu zen eta erran zion:

—Hire etxean nun?

—Ez, Juan Vauquelaren²⁷ etxean hiz.

—Vauquelas! Malhurusa!

—Zendako?

—Ez balin badira seurik bi presuna izen hortakoak, etxe hunen nausia errepublikanoen buruzagia da.²⁸

(23) EHko edizioan komarik ez dago. *Me he marchado, y desde entonces ando errante por las calles de París buscando barrios solitarios, viviendo noche y día como un perro, no atreviéndome á pedir hospitalidad por miedo de ser denunciado.* (1886:219). *Je suis parti, et depuis j'ai erré dans les rues de Paris, cherchant les quartiers solitaires, vivant jour et nuit comme un chien, n'osant demander l'hospitalité de peur d'être dénoncé.* (1879:172).

(24) *hilen nindutela eta orduan oro fini zirela: ulertu behar da (nere baitban/artean) pentsatuz, eginez edo horrelakoren bat dagoela isilpean.*

(25) gaizki injustoki (EH).

(26) Salbadorren solasaldi hau lau paragrafotan emana da EH edizioan; guk bakarrean eman dugu, gaztelania eta frantsesezkoan bezala, hala eginda elkarriketako partehartzailerako bakoitzaren jarduna begiz argiago bereizten delakoan.

(27) Juan Vauquelaren (EH). *Vauquelas* du deitura jaun horrek, beraz ahoskeraren arabera *Vauquelaren* zuze-na dateke, idazkeraren araberako *Vauquelasen* bezain.

(28) Frantses-gaztelaniazkoetan zehatzago azaltzen da nor zen Vauquelas hori. (...) *le maître de cette maison est un des amis de Robespierre, un de ceux qui ont le plus contribué à faire découvrir le complot que nous avons formé, mes compagnons et moi, pour sauver la reine.* (1879:173). *El dueño de esta casa es uno de los amigos de Robespierre, uno de los que han contribuido á hacer descubrir la trama que hemos formado mis compañeros y yo para salvar á la Reina.* (1886:221).

Doloresek estali zuen bisaia eskuez ziola:

–Zer egin?

–Piarres ez da hemen?

–Ez, biziki berant jiten da.

–Gordeko baininduen menturaz bihar artio.

–Haren ganberan gordeko hut -dio Doloresek-. Nehor ez duk harat joanen.

Haren beha egonen nuk eta erranen zakoiat.

Salbadorrek aprobatu zuen plano hura.

–Bainan erran hetan gosea hintzala. A! Jainko maitea, sehiak etzanak dituk.

Urrundu zen, Salbador suaren aitzinean jarria berotzen ari zela utzirik.²⁹

Ixtant baten buruan itzuli zen Dolores ekhartzen zuela ogi, arno eta haragi. Pasatu zituen oro mahi tipi baten gainean eta mahia ezarri Salbadorren aitzinean. Deus erran gabe hau hasi tzen³⁰ jaten eta edaten, aspaldian jatekoa den³¹ gizon baten apetituarekin.

Dolores[ek], haren aitzinean [xutik], behatzen zion;³² haren begiak nigarrez betheak ziren.

Berotzarekin eta janik, Salbadorren indarrak itzuli ziren, odola iragan zen haren bisaiara, eta esperantzazko irri bat haren ezpainetara. Orduan Dolores atrebitu zen ordu arte haren ezpainetan zagon izen baten aiphatzera.

–Ez hiz Eusebiaz mintzatu.

(XXXII)

Izen horrek orhoitarazi zuen Salbador Doloresek ez zazkien promes sakratu batzuez, zoinak iduritu baitzitzaion egundaino bezala sekula ez zituela konplitzen ahalko.³³

(²⁹) su aren aitzinean (EH).

(³⁰) hasitzen (EH).

(³¹) *jatekoa den*: jan gabekoa den. *-tzeko izan* perifrasiak falta edo gauzatu gabearen nozioa adierazten du hemen (EGLU VII 510). (...) *con el anhelo de un hombre hambriento*. (1886:221). (...) *avec l'avidité d'un homme affamé*. (1879:174).

(³²) Doloresek Salbadorri. *Dolores, delante de él, le miraba* (...) (1886:221). *Dolorès, debout devant lui, le regardait*, (...) (1879:174).

(³³) *Aquel nombre recordaba á Felipe unas promesas sagradas que Dolores ignoraba, y que jamás le parecieron más abrumadoras y difíciles de cumplir*. (1886:221). *Ce nom rappelait à Philippe des engagements sacrés que Dolorès ignorait, qui jamais plus qu'à cette heure ne lui avaient semblé lourds et difficiles*. (1879:174). Ageri da euskarazko itzulpena ez dela guztiz fidela.

–Eusebia? -dio Salbadorrek-. Bai, bizi da Londresetako inguruetan, han adixkide batzuer konfidatua dut.

–Hire emaztea duk? -galdegin zion behatzerat atrebitzen ez zela.

–Ez.

–Bizkitartean, hire aitaren nahia...?

–Ixil hadi, othoi, othoi -dio Salbadorrek.

–Ez balin bahindut harrapatu, ez banintz segur izan bizi hintzala, baditaken Eusebiarekin ezkonduko nintzan. Bainan orai, orai...ez ditake jadanik ene emaztea izan.

–Ez hu maite?

Salbadorrek burua aphaltu zuen eta ixtant baten buruan ihardetsi:

–Zendako gordeko denat gehiago? Nik hi maite hut, Dolores enea, maite ene bihotzean zen amodioa erakutsi naunan lehen ixtantean bezala. Geroztik hanbertze malhurren aitzinean ez nun hire maithatzetik baratu. Eta ene amodioa ez da Jainkoaz madarikatua, egun elgarretarat juntatzen gaituenaz geroz. O! Dolores enea! juramentu egiten denat, nehork ez gitin separatuko orai.

Doloresek indarrik ez zuen lenguaia hor[*r*]³⁴ ihardesteko, ezen ikhusten zuen egiazki lau urthek ez zutela hil bihotz fidel hartan zen amodio garbia.

Salbadorrek segitu zuen:

–A! bahaki zein malurus izan nizan hire aldetik urrun! A!, Dolores maitea, bahakien elgarrekin hazi ginen jauregi hura utzi huenean Jainkoaren aitzinean sakrifizio baten egitera joateko, ene izaite guzia eremaiten huela?

–Aski!³⁵ -murmuratu zuen Doloresek jartzen zelarik fotil batean, bainan entzun gabe.

–Geroztik -segitu zuen Salbadorrek- maluros bizi izan nun alferretan borxatuz ene bihotza sinetsaraztera hik ez huela nahi ukhan hire amodioaren eta edertasunaren orhoitzapena, obligaraziz Eusebiari kasu emaita,³⁶ hik manatu

⁽³⁴⁾ *lenguaya hori ihardesteco (EH). Dolores se sentía sin energía para contestar á aquel lenguaje, (...). (1886:222). Dolorès se sentait sans énergie pour répondre à ce langage, (...). (1879:175).*

⁽³⁵⁾ *Aski murmuratu zuen Doloresek (...). (EH). –Detente (1886:223). –Arrête! (1879:176).*

⁽³⁶⁾ *(...) sinetsaraztera (...) kasu emaita, (...). (EH). Kasu emaita: kasu emaitera, bokalarrean -r- desgertzen baita; ik. XI. atalean ez zen atrebitu aitari erraitea. Izan ere, obligatu, obligarazi + -t(z)era normala da (ik. OEH).–Desde entonces, -prosiguió Felipe- he vivido infeliz, esforzándome en vano (sic) desechar de este corazón, que tú no habías querido, el recuerdo de tu amor y tu hermosura, obligado á escuchar con complacencia á Antonia porque me habías ordenado hacerla mi mujer. (1886:223). –Depuis, continua-t-il, j’ai vécu malheureux, m’efforçant en vain de chasser de ce coeur dont tu n’avais pas voulu, le souvenir de ta grâce et de ta beauté, obligé d’écouter d’une oreille complaisante Antoinette, dont tu m’avais ordonné de faire ma femme! (1879:176).*

naunalakotz. Ikhusten dun, sakrifizio hori imposible dun. Ez nezakeen, ez deza-kenat. Eusebia maite dinat arreba bat bezala, bainan hi...

Dolores jaiki zen eta boz firme batekin ihardetsi zion:

–Salbador, ez hut gehiago entzun behar. Jainkoarena nuk eta hi ez hiz libro, Eusebia...

–Obligatu nahi nun aborreitzera?³⁷

Desafio horrek harritu zuen Dolores eta bethe arima pietate eztiz haren zangopean belhauniko desesperatua othoizten ari tzitzakon maluros harentzat eta zoina hanbertze maite baitzuen.

–Beraz ez hadila ezkont, hire aitaren nahia ez balin baduk hirea. Bainan ez zakala esperantza izan aski ezdeus³⁸ izanen nizala hire othoitzer kasu egiteko egun batez. Maitha dezakan ala aborrezea, eternitate guzian Eusebia gure artean izanen duk.

Deklarazione hortan desesperatu zen arras Salbador, eta, jaikirik, juan zen jartzera, burua eskuen artean, marrumetan zagola.

Doloresek ikhusten zuen haren indarrak ttipitzen ari zirela eta nahi zuen fini zadin heien konbersazionea. Orena aitzinatzen ari zen. Etxeko nausia fite jin beharra zen.

–Ez hute hemen harrapatu behar. Piarresen ganberarat eremanen hut. Han segur izanen hiz.

(XXXIII)

Bainan Salbadorrek ez zuen entzuten, haur bat bezala nigarrez zagon eta bere dolorearen artean murmuratzen zuen:

–A! Gizon batek egiten ahal duena beino gehiago galdetzea da. Jainkoak ez du hanbertze galdegiten gure arrazari,³⁹ eta bizi behar badugu eternitate guzian separatuak, zendako elgarretaratu gau huntan? Dolores, kanbiatuko hiz.

Hitz ezti horiek bihotza hausten zioten Doloresi. Bizkitartean kuraia bildu zuen eta boz ezti batekin erran zion:

⁽³⁷⁾ (...) abarreitzera? (EH). *Aborreitzen ageri da XLIV kapituluan. Aborreitu ez dugu ikusi OEHn, are gutxiago abarreitu, bai aborrezitu, aborritu. Ik. Lerro batzuk beherago aborrezea. -¿Quieres obligarme á aborrecerla? (1886:223). -Véux-tu donc m'obliger à la haïr? (1879:176).*

⁽³⁸⁾ ez deus (EH). (...) bastante débil para ceder á tus súplicas. (1886:224). (...) assez faible pour céder à tes prières. (1879:176).

⁽³⁹⁾ Dios no pide tanto á nuestra debilidad; (...). (1886:224). Dieu ne demande pas autant à notre faiblesse, (...). (1879:177).

–Haugi, Salbador.

–Bainan hitzeman daan...⁴⁰

–Bueno, bihar -ihardetsi zion kalmarazteko.

Salbador jaiki zen segitzeko. Dolores, gandelarra harturik, haren aitzinean abiatu zen entzun zutenean⁴¹ norbeiten urhatsak kanpoko aldean.

–Zeruak! Vauquelas! Galduak gira!

Kheinu batez ixil zadin erran zion Salbadorri, uste baitzuen phasatuko zela athea jo gabe. Haren esperantza inutil izan zen, Vauquelasek jo zuen bi aldiz borthan.

–Sar nitake, andere Dolores?

–Ez -ihardetsi zuen-, etzana niz.

–Beraz jaiki zite berheala eta xauri bortharen idekitzera. Ikhusi dute duela oren bat gizon bat karrikatik baratzerat jauzi egiten. Etxearen inguruan izan behar da, segitzen dute, jendarmak bilha dabilta.

–Jaikitzen niz -dio Doloresek-, nahi baitzuen denbora irabazi Salbadorren ihes igortzeko.

–Gaua ilhuna da -dio hunek-. Banoa baratzerat, han gordeko niz eta egonen jendarmak juan artio.

Doloresek aprobatu zuen kheinu batez, juan zen zango punten gainean bortharaino, ideki zuen emeki eta gibelatu zen bere adixkidearen phasatzerat uzteko. Eta bat-batean ikharetan jarri zen.

Ganberako argiarekin batean baratzearen zolan ikhusi zituen bost guardia nazional borthari hurbiltzen ari zirenak eta beren harmak apuntatuak.

Salbador abiatu zen kanporat eskapatu nahiz. Hok apuntatu zuten.⁴²

–Ez zazuela thira -dio-, zuen eskuetan niz.⁴³

Momento hartan Vauquelas sarthu zen bertze borthatik, Doloresek behatze luze bat egin zion bere adixkideari eta haren ganat hurbildu zen. Ixiltasun luze bat izan zen.

(40) *hitzeman daan*: 'hitzeman iezeadan' ala 'hitzeman didan' ('hitzeman didazu', noka) ote da? *Daan* adizkia 'hik didan' da Baigorriko barietatean bederen (Yrizar:1999a:72, 89, 96) baina guk uste 'hitzeman iezeadan' dela hemen. –*Pero, prométeme...* (1886:225). –*Mais, alors, promets-moi!*... (1879:177).

(41) Adizki laguntzailea (*zutenean*) pluraleko hizki gabe ageri da. Ohikoagoak: entzun *zituztenean* edo *ziuztenean*.

(42) *Hoken aurreko erreferentea bost guardia nazional da. Felipe se lanzaba para huir antes que los soldados llegaran hacia él. Éstos le apuntaron*: (1886:226). *Philippe s'élança pour fuir avant que les soldats fussent arrivés jusqu'à lui. Ceux-ci le mirent vivement en joue*. (1879:178).

(43) –*No dispareis -exclamó-, me entrego. Os espero*. (1886:226). –*Ne tirez pas! s'écria-t-il. Je me rends*. (1879:178).

Azkenean galdatu zioten Salbadorri:
 –Zer egiten duk etxe huntan? Nor hiz?
 Salbadorrek ihardetsi nahi zuen, Vauquelasek erran zuenean.⁴⁴
 –Nor den! Gauza errexa phensatzeko: errepublikaren partidarik bat, ene etxean sarthu dena, andere horren ohorearen konprometitzeko irriskuan.⁴⁵
 Hitz horiek entzutean, Dolores ikharetan jarri zen eta erran zuen:
 –Tronpatzen zira, jaun Vauquelas, gizon hori ene senarra da.
 –Zure senarra! Ezkondia zira?
 –Gauza partikularren gatik oroer egia gordetzen nuen.
 –Bainan Piarres...
 –Harek ere ez daki -dio Doloresek, begiak aphalduz.
 –Ezkondia! -erraiten zuen Vauquelasek-.⁴⁶ Zendako gorde datazu ezkondia zinela?
 –Gure arteko gauzen gatik.
 –Eta zendako zure senarra sartzen da ene etxean ohoin bat bezala, borthatik sar orde?
 –Nahi baiginuen gure ezkontza segeretuan atxiki.
 Soldadoen nausiak dio:
 –Horiek oro ez dira klar. Nola deitzen hiz? Eta nondik heldu hiz?
 Salbadorrek zerbeit murmuratu zuen, xefak segitu zuen:
 –Jaun hau eta andere hau gurekin jinen dira sekzionario salara. Han esplikatu dira, eta ez badute faltarik libro izanen dira.
 –Hori da, hori da, eremanzkizue -dio Vauquelasek, kontent, urrunduko zirelakuan etxea desohoratzen⁴⁷ zioten soldado hek.

(44) Komarik ez da EHko edizioan. *Felipe iba á contestar, cuando Vauquelas lo impidió.* (1886:227). *Philippe allait répondre. Vauquelas l'en empêcha.* (1879:179).

(45) *errepublikaren partidarik bat*: ohikoagoa –eta zuzenagoa ere, agian–, *Errepublikaren partidatarik bat. Cosa bien fácil de adivinar: un enemigo de la República que ha buscado un auxilio en mi casa, arriesgando comprometer la honra de esta joven y mi civismo.* (1886:227). (...) *rien de plus facile à deviner. Un ennemi de la République, qui a cherché un asile chez moi, au risque de compromettre l'honneur de cette jeune fille, et mon propre civisme.* (1879:179).

(46) Euskarazko moldapenean kenduta daude bizpahiru paragrafo, originaleko eta gaztelaniazko testuetakoak, kinka horretan Salbadorrek Doloresi xuxurlatua, Doloresen begirada Vauquelasi eta honen disimulatzea kontatzen dutenak. Une hartan Vauquelas gogoratu zen nola Piarresek kontatu zion Chamondrinen alabaordea noble batekin ezkontzekoa zela, eta noble hura Estatuaren etsaia zela. Nola justifika zezakeen Vauquelasek pertsona haiek bere etxean kausitzea? Horregatik, disimulatuz, egiten dio ondoko galdera Doloresi.

(47) deshoratzen (EH).

(XXXIV)

Orduan Doloresek konprenditu zuen Salbadorren salbatzeko erran zuen gezurrak ez zuela galtzen beizik. Harentzat beizik ez zuen senditzen.⁴⁸ Bazuen hanitz denbora bere biziaren sakrifizioa egina zuela, bainan Salbadorrek ez zuen nahi sakrifizio hura, eta, ikhusi zuenean estekatzen zutela, oihu egin zuen:

–Neskato hunek gezurra erran du arrotz baten salbatzeko. Ez niz horren senarra eta horren ondoan kausitu balin banute,⁴⁹ estekatu nahi ninduen gizon baten ganik eskapatzeko murru huntarik jauzian barnerat jin nizalakit harrapatu naute. Chamondrineko markesa deitzen niz, konspiratzale eta desertor bat niz.

–Ai! Malurusa!, bera galtzen da.⁵⁰

Entzutean Salbadorren deklarazionea, jauzi zen Vauquelas, ziola:

–Deitzen hiz Salbador Chamondrin?

–Hori da ene izena -ihardetsi zuen.

–Beraz orduan andere hunen anaiaordea hiz.⁵¹ Bai, konspirador bat hiz eta hau hire konpliza. A, kanaillak!⁵² ene etxeaz egiten duzue errepublikaren kontrarion⁵³ kafira bat!

Inbidiak gorritu zuen gizon zahar haren begithartea, handitzen zituelarik haren begiak.⁵⁴

(48) *Harentzat beizik ez zuen senditzen*: Salbadorrengatik baizik ez zuen sentitzen/pena hartzen/ez zen damutzen/atsekabetzen. Esaldi hau eta ondorengoa bereizi ditugu puntu bat jarrita; EHko edizioan esaldi hau eta ondorengoa loturik daude, eta koma bat baino ez dago, *bainaren* aitzinean hain zuzen. *Entonces Dolores comprendió que la mentira que había dicho para salvar a Felipe no hacía más que perderle. No lo sintió más que por él.* (1886:229). *Alors, seulement, Dolorès comprit que le mensonge auquel elle avait eu recours pour sauver Philippe ne le sauvait pas et la perdait elle-même. Elle n'en éprouva de regret qu'en ce qui touchait son ami.* (1879:181). Beraz, frantses -gaztelaniazkoen arabera, gezurrak Dolores bera ere galtzen zuen.

(49) *causitu balin balute, (...) (EH). (...) y si me encuentran a su lado (...) (1886:229). (...) et si l'on me trouve auprès d'elle, (...) (1879:181).*

(50) *bera*: izenordain indartu honen esanahia 'bera bakarrik' da. Ik. *hek ere berak bizi ziren XLIV. –¡Ay, infeliz! Se pierde él mismo.* (EH 1886:230). *–Ah! Le malheureux! murmura Dolorès. Il se perd!* (1879:181).

(51) Hona moldapenaren inkongruentzia bat: Nola daki Vauquelasek Dolores Salbadorren anaia-ordea dela? Aitzin ataleko ohar batean esan dugu euskal moldatzaileak kendu egiten dituela gaztelania-frantseseko pasarte batzuk, eta horietako batean Vauquelasek gogoratzen zuela nola Piarresek kontatu zion Chamondrinen alabaordea noble batekin –Estatu berriaren etsai handi batekin– ezkontzekoa zela.

(52) *Ah! canaillac ene etxeaz (...) (EH).*

(53) *contrarion (EH)*. Bokal elkarketaren ondoriozko galtzea (*kontrarioen* → *kontrarion*) izan daiteke, euskalki askotan ohikoa dena. Bestela, *kontrarion* erratua bada, *kontrarioen* ezarri beharko litzateke. Beherago, atal honen azken aurreko esaldian, *kontrarioak*.

(54) *La ira había sonrojado su faz, agrandado sus ojos.* (1886:230). *La colère avait rougi son teint, agrandi ses yeux.* (1879:181).

–Arrasta tzitzue -dio errabian.

Salbador, uste izan zuena bere deklarazionearekin salbatzea hain maite zuen hura, ikharetan jarri zen,⁵⁵ ez bere suerteaz bainan bai Doloresenaz.

–Dударик gabe nik behar nituen ene teiltuaren azpian atxiki zuek bezalako noble batzu, bainan patriota niz, maite dut errepublika, Franzia guzien gainetik! Soldadoak! Gizon hau peligrasa da.⁵⁶ Hau errepublikaren kontra konspiratu duena da erreginaren salbatzeko eta haren seme Kapetoren tronurat iraganarazteko, eta bertze hau horren konpliza da. Ereman tzitzue, hil ditzen nazionearen kontrarioak.

Arrastatu ziuizten⁵⁷ biak, hamekak joak ziren orduko.⁵⁸

(⁵⁵) Salvadorrec uste izan suena bere deklaracionearekin salbatzea hain maite zuen hura ikharetan yarri zen. (EH). *Felipe, que suponía salvar á Dolores por la declaración que acababa de hacer, tuvo un movimiento de rabia.* (1886:230). *Philippe, qui supposait, par la déclaration qu'il venait de faire, sauver Dolores, eut un mouvement de rage impuissante.* (1879:181).

(⁵⁶) (...) errepublika Franzia guzien gainetic, soldadoak! (EH). –*Lo que la fatalidad me ha reservado ha sido abrigar bajo mi techo á unos aristócratas como vosotros. Pero soy patriota, amo á la República. La Francia ante todo. Ciudadanos, este hombre es peligroso!* (1886:230). –*Ce qui me porterait malheur, ce serait d'abriter sous mon toit des aristocrates tels que vous. Mais je suis un patriote, moi! j'aime la république; la France avant tout! Citoyens, cet homme est dangereux!* (1879:182).

(⁵⁷) ziuizten (EH). XIV. atalean *ziuzten* agertzen da bi aldiz, XXXV.ean *ziuztelakotz*; ordea, XV. eta XXXIV. ean *ziuzten*, *ziuztela*, *guk ziuizten*, *ziuztela* aldatu ditugunak. *Ziuizten*, *ziuzten* Baigorri eta Bankako adizkiak dira, baita, *ziuzten* bederen, Uztaritze, Zuraide, Itsasu, Milafranga, Kanbo, Mendiondo, Luhuso, Makea, Hazparne, Aldude, Urepel eta Kintoakoa (Yrizar 1999a:117, 198, 275, 329, 358, 388, 414, 471, 527). Ordea, *ziuzten* ez dugu ikusi Yrizarren bilduman.

(⁵⁸) Ondoko kapitulua osorik kentzen du euskarazko moldapenak: Chapitre X. Les exploits de Coursegol (1879:183-193). Capítulo X. Las hazañas de Pedro (1886:232-244). Coursegolek (gazt. Pedro) Vauquelas mehatxatzen eta xantaiatzen du, Dolores eta Philipperentzat Robespierrearen salbokonduktoa eskatuz, presondegitik atera daitezzen, bestela hark sotoan gordetzen duen dirutza erakutsiko diela soldaduei. Vauquelas Robespierren sinadura huts-hutsik duen paper bat hartzen du haren idazkarizatik; gainera, Coursegolek dirua eskatzen dio Vauquelasi, presondegitik bere semeorde-alabaordeak ateratzeko beharko zuela eta. Coursegolek ez daki zein kartzelatan diren Dolores eta Philippe, horregatik bere adiskide Bridoul-engana (euskarazkoan Martin) jotzen du. Epaitu gabeko presoek kanpokoekin harremanak zituzten, atezain eta jagoleek baimenduak –dirua tarteko–, izan ere kanpokoekin komunikatzeko presoek mezulari edo mandatariak izan zitzaizketen. Bridoulek proposatzen dio Coursegoli mandatari jartzea, lanbide hartako lagun bat duela eta. Hala jakiten du Dolores Konserjeriako kartzelan dagoela eta Philippe Madelonetekoan (fr. Madelonnettes).

VIII. PHARTEA. PRESONDEGIA¹

(XXXV)

Vauquelasen etxean arrastatuak, Salbador eta Dolores eremanak izan ziren poliziako salara. Sala hartan zauden hirur presuna oraino jujatzekoak. Presondegiko nausiak ezarri zituen zonbeit mataletz² lurrean etzan nahi zuenarentzat, biharamun artio ez ziuztelakotz jujatzen ahal.

Doloresek ez zuen etzan nahi izan, jarri zen Salbadorrek harrapatu zuen fotil hautsi batean eta deklaratu zuen hola phasatuko zuela gaua.

Salbador haren zangoetan jarri zen alkhi baten gainean eta gisa hortan egon ziren goizalde artio. Han ziren bertze hirur presunentzat gau hura gaixtoa balin bazen, heientzat amets ezti bat bezala phasatu zen.

Ez zezaketen ilusionerik egin esperantza zuten suerteaz. Salbadorrek konspiratu zuen erreginaren fagoretan, Dolores haren konplize egin zen errezebituz bere ganberan; krima horrek ez zuen indulgenziarik izaiten ahal. Interrogatuak izanen ziren eta gillotinatzerat kondenatuak. Ez zuten hiltzerat preparatzea beizik phensatu behar. Biak preparatu ziren setentzia jina izan balitz bezala eta ez zuten gehiago phensatu munduan gelditzen zeezteen orenen trankil eta ezti egitea beizik.

–Zendako herioaren beldur izan behar niz? –erraiten zuen Doloresek Salbadorri-, herioaren beldur izan behar da uzten dienean izaitte maiteak lurrean.³

(¹) *Chapitre XI. La Conciergerie* (1879:194). *Capítulo XI. La Conserjería*. (1886:244). *Konserjeria* Dolores eraman zuten Pariseko presondegi ospetsuaren izena da.

(²) *Ala matalatz* ‘matalaz, koltxoi’ izan behar du? *Mataletz* aldaera (*matalatzen* disimilazioa) ez dugu ikusi OEHn.

(³) –*Por qué he de temer morir?* –decía Dolores á Felipe, que en vano trataba de fingirla risueñas esperanzas. –*La muerte es terrible cuando se dejan seres amados.* (1886:247). –*Pourquoi craindrais-je de mourir?* disait Dolorès à Philippe, qui avait d’abord tenté de lui faire partager des espérances menteuses. *La mort n’est redoutable que pour ceux qui laissent après eux quelque objet qui les aime.* (1879:195).

Bainan, hi ez bahiz bizi, nor geldituko da ene thonbaren ganean nigar egiteko? Eusebiak uste du aspaldi hila nizala. Juaiten ahal niz mundu huntarik bihotz-minik nehorri eman gabe eta joiten ahal niz deskantzu eternalaren bilha, zoina hanbertze desiratu beitut.⁴

–Jadanik phensatua huen?

–Emeki-emeki ikhusi ditut joaiten ene ingurutik maite ditudan guziak; ene bixtak presentziatu⁵ du hainbertze malhur eta heriotze; sofritu dut hainbertze khirestasun othoiztu beitut Jainkoa hanitz aldiz bere ganat deith nezan.

–Bizkitartean, Dolores, entzun nahi izan banindunan, ene esposa nahi bahinz izan,⁶ zoin diferenta izanen zen gure suertea!

–Ez nintakean hire emaztea izan.

–Zendako? Zendako ez nindunan maite, zendako ez nun maite orai ere?

Doloresek ez zuen ihardetsi, Salbadorrek segitu zuen:

–Ene nahier sensible izaitea othoiztu hutun aldi guzietz ez dautan ihardetsi ene aitaren borondatea beizik, hartakotz nahi nindunan Eusebiarekin ezkondia ikhusi. Orai ene aitaren borondatea⁷ ez dun bizi eta erraiten ahal banu Eusebiari hi baxharrik maite hutala, gogotik egin lezaken desira horren konplimendua. Bainan horiek guziak destruitiak dira aurkhitzen giren situazioe berrian. Libro gira gure beha dagon herioaren aitzinean. Ez datan erranen egia guzia? Ez datan idekiko hire bihotza nik enea ideki denatan bezala?

Doloresek entzun zituen hitz horiek Salbadorri beha zagola, bihotza ttipitzen ari tzitzakola, harritua hitz horietaz: “Libro gira gure beha dagon herioaren aitzinean”.⁸

(4) Hau guzia Doloresek esana da; hala agertzen da jatorrizko eleberrian eta hala ematen dugu guk ere. Ordea, gaztelaniazko eta EHko euskal testuan bigarren esaldia Salbadorrek esana balitz bezala ageri da, eta elkarrizketa marka edo gidoi luzeaz adierazia. Huts bertsua, lerro batzuk beheago, “Bizkitartean...” hasten denean: Doloresek esandakotzat emana da, Salbadorrena izanik. Bi edizio horietako huts horiek garbi erakusten dute EHk gaztelaniazko testua hartu duela iturritzat, ez jatorrizkoa (frantsesezkoa).

(5) presensiatu (EH). OEHN ez dugu ikusi *presensiatu* aldaerarik.

(6) (...) entzun izan nahi banindunan ene esposa nahi bahins izan, (...) (EH). Guk *entzun nahi izan banindunan* ezarri dugu, zuzenagoa delakoan. *Sin embargo, Dolores, si hubieses querido oirme; si cuando intentaba hacerte mi esposa hubieras aceptado, (...) (1886:247). –Cependant, Dolorès, si tu avais voulu m’entendre; si, lorsque j’essayerais en vain de te fléchir, ta main était tombée dans la mienne, (...) (1879:196).*

(7) barondaba (EH). Aitzineko esaldian *barondatea* irakurtzen da EHko edizioan.

(8) (...) ttipitzen ari tziczakola (...) (EH). *Dolores había escuchado estas palabras con los ojos fijos sobre Felipe, con el pecho oprimido, exaltada de aquella frase: “Somos libres ante la muerte que nos espera”. (1886:248). Dolorès avait écouté ces paroles l’oeil ardemment fixé sur Philippe, la poitrine oppressée, frappée surtout par cette phrase: “Nous voici libres en face de la mort qui nous attend”. (1879:197).*

Berriz hori bera erranez, egiten zuen ez ziola⁹ errefusatzan ahal bere adixki-deari galdegiten zuen azken alegria, berak ere hanitz sofritu zuela bere bizia eta esperantzak oro sakrifikatuz, bazuela dretxoa bere ariman hainbertze denboraz gordea atxiki zuen segetuaren eskapatzerat uzteko. Azkenean haren ezpainetarik athera ziren hitz hauk:

–Adi zak, Salbador, nahi dukanez geroz egia jakinik trankil Jainkoaren aitzinean ahartu.¹⁰ Bethi maite izan haut egun maite hautan bezala, eta bizi nizano maithatuko hautan bezala.

Hainbertze eztitasun bazen hitz horien erraiteko maneran Salbador jaiki baitzen, galdua, begiak argituak ezin erranezko alegria batez, zioela:

–A! Azkenekotz athera dun hire ezpainetarik hainbertze desiratu dudana. Ez zen posible ene amodio handiak errapusturik ez izaita hire bihotzean, erran dun hik.¹¹ Hoinbertze zorion ene biziaz pagaturik ere ez zitzetan khario idurituko. Itzularazten ditun ene indarrak; azkar senditzen nun, nun iduri baitzetan¹² mundu guziaz alxatzen ahal dutala gure salbatzeko eta gure zorihonaren segurthatzeko. Biziko gira, Dolores, bat bertzearenak izaiteko eta elgarren adoratzeko.

–Othoi -dio Doloresek-, ez zakala bizitzea galdegin, hiltzeko segurtamenak baxharrik gisa hortan mintzarazi bainu.

(XXXVI)

–Oraino! -ihardetsi zuen Salbadorrek, trixtatua-.¹³ Bainan aurkhitzen giren peril handian libertatea ukhaiten baginu, Jainkoaren nahiaren kontra joanen hiz?

⁽⁹⁾ eguiten zuen ez ztiola errefusatzan ahal (...) (EH). *ez ziola errefusatzan ahal: ez zezakeela errefusatu. se decía que no podía rebusar á su amigo la última alegría que reclamaba: (...) (1886:248). se disant qu'elle ne pouvait refuser à son ami la dernière joie qu'il réclamait; (...). (1879:197).*

⁽¹⁰⁾ agertu.

⁽¹¹⁾ Jatorrizko eta gaztelaniazko testuetan puntua dago bi esaldien artean; euskarazkoan, koma. *No era posible que mi inmenso amor no ballara eco en tu corazón. Lo has dicho tú. Debería pagar tanta dicha con mi vida y no me parecería caro. (1886:249). Je savais bien, moi, que mon amour était partagé. Tu l'as dit, et devrais-je payer de ma vie le bonheur de l'apprendre de ta bouche, que je ne trouverais pas l'avoir payé trop cher. (1886:197).*

⁽¹²⁾ azkar sentitzen naun, non iduri baitzait (...). *iduri baitzetan: iduri baitzait (noka). Me siento fuerte para levantar todo un mundo (...) (1886:249). Je me sens fort à soulever le monde pour nous sauver, (...) (1879:197).*

⁽¹³⁾ –Oraino! ihardetsi zuen Salvadorrek trixtatua, bainan aurkhitzen guiren peril handian, libertatea ukhaiten baguinu. Yaincoaren nahiaren kontra yoanen hiz? (EH). *Oraino! adierazpideak Salbadorren nahi-gabe edo haserrea adierazten du, Doloresen esana gehiegizkoa iruditurik ('Oraindik hori entzun behar, gainera!'). –;Todavía! –contestó Felipe entristecido– (1886:249). -Encore! répondit Philippe frémissant. (1879:197).*

Ez dun ikhusten hura gurekin dela eta elgarretarazi nahi gituela?

–Salbador! Salbador! -murmuratu zuen Doloresek.

Ez zuen akhabatu ahal izan eta phausatu zuen bere burua Salbadorren bulharren gainean zoinen barnea bethea baitzen amodiorik garbienaz harentzat.

Goizeko bederatzi orenetan jujatuak izan ziren eta kondenatuak, bat Konserjeriako presondegira eta bertzea Madeloneteko presundegira.¹⁴

–Ez gaituzte elgarrekin uzten ahal? -galdegin zuen Salbadorrek, desesperatua bere adixkidearen ganik separatzeaz.

–Gero ikhusiko dugu, orai obligatua niz separatzerara.¹⁵

Salbador Doloresi hurbildu zen:

–Ez zanala kuraia gal¹⁶ -erran zion-, berriz elgarretaratuko gitun.¹⁷

(14) Euskarazko moldapenak bi lerroko esaldi bakarrean kontatzen du epaiketa. Frantses eta gaztelaniazkoek bederatzi-hamarretan esaten dute Komunaren ordezkariak galdekatu zituela Philippe (Salbador) eta Dolores, atxilotu zituzten gardien buruari deklarazioa entzun, eta ondoren haiek kartzelara bidali. (1879:198; 1886:250).

(15) Euskarazko moldapenean ez da ageri nor den Salbadorren solaskidea baina behar litzateke, lehen pertsona mintzatzen baita; Komunaren ordezkaria da. –*El Comité decidirá. Por el momento estoy obligado á separaros –contestó el delegado de la Commune.* (1886:250). –*Le Comité décidera. Pour le moment, je suis obligé de vous séparer, répondit le délégué de la Commune.* (1879:198).

(16) Ez tzanala curaya gal (EH).

(17) Ondotik jatorrizko eta gaztelaniazko itzulpeneko XI. kapituluaren (fr. La Conciergerie, gazt. La Conserjería) parte handiena kendua da euskarazko moldapenean (1879:198-211; 1886: 250-267). Lehenik, Doloresi Konserjeriako presondegian lehen egunean gertatuak kontatzen dira. Doloresek kartzela-jagole on bat aurkitzen du (Aubry), eta Coursegoli (gazt. Pedro) idazten dio haren eta Philipperen atxiloketa jakinarazteko eta dirua eskatzeko. Dolores tristeziak jota dago, bizitza mespretxugarria iruditzen zaio, sentitu gabe hil nahiko luke. Hurrengo egunean Coursegolek ikuste bat egiten dio. Coursegolek Aubry ordezkatzeko du egun hartan jagole-lanetan. Presoak biltzen diren salara jaistean, Doloresek zer ikusten duen deskribatzen da: nola nobleek heriotzari beldurrik ez ziotela erakutsi nahi zuten, dama aristokratek zein dotore janzen ziren, nola etortzen ziren biktima berriak, zein lazgarriak ziren azken agurrak, etab. Doloresen edertasun eta dotoretasunari ohartuak, andre aristokratek harrera ona egiten diote eta Beauforteko andre markesak bere babespean hartzen. Kontatzen da ere nola akusatuek ez zuten denborarik izaten beren defentsa prestatzeko, hurrengo egunean tribunal iraultzazalearen aitzinera eramana izaten baitziren eta handik pare bat ordura gillotinarara. Hala gertatu zen Beauforteko andre markesarekin, honek Biba Erregea! oihuz egin zuen azken adioa; halaber bi gazterekin, moderatuak zirelako akusaziopean Biba Errepublikak! oihukatuz hil baitziren. Ikusgarri haiek Doloresen espiritua indartu eta heriotzaren mespretxua sentiarazi zioten.

IX. PHARTEA. EUSEBIA DE MIRANDOL

Hamabortz egun bazuen jadanik Dolores Konserjerian zela, Piarres jin tzi-tzakolarik erraitera ardietsi zuela Salbadarren presondegi hartara ekharrarazteko grazia eta biharamun goizeko han izanen zela. Berri horrek alegeratu zuen Dolores. Hura zen izan zuen emozioerik eztiena.

Lehenago ere ikhusi zuen Piarres eta erran zion egin ahalak eginen zituela Salbadarren harat ekharrarazteko bai eta ere bien librarazteko.

Doloresek ez zuen libratzeko esperantzarik, bainan zion, ikhusten ahal bahu¹ bertze aldi bat bere anaia eta adixkide maitea, gogotik eta arrangurarik gabe iraganen zela gillotinarene azpian preparatua zen mahinaren gainera.

–Badut paper bat -erran zion Piarresek-, zoinaren medioz Salbador jiten denean hemendik atherako baitziezte.

–Posible da? -dio Doloresek-, eta presundegia uzten ahal baginu norat eremanen gaituzu, nobleak harrapatu lekhu guzietan arrestatzen tuztenaz gainean? Nun gordeko gaituzu?

–Bilhatu dut jadanik etxe bat -dio Piarresek-, Versaillesetik hurbil den oihan batean galdua; nehor ez da joanen hara zuen deskubritzera.²

Piarresen lenguaiaik Doloresen bihotzean gozo handi bat eman zuen. Bere adixkidearen ganik sekulako separatua uste izan eta ondoan, bere bihotza sakrifikaturik³ Salbadorrez maithatua eta hari juntatua izaiteko zorionari adio erran eta ondoan, uste zuenean oro galduak zirela, bere deskansua, bere bizia... oro bat-batean heldu tzi-tzakon estatu trixte hartarik atheratzera; haren bihotzean

⁽¹⁾ Zuzenago: ikhusten ahal bazuen. Esaldi hau jatorrizkoan (1879) ez dago, moldatzaileak sortua da.

⁽²⁾ Jatorrizkoan eta gatzelaniazkoan zehaztasunak ematen dira: lehenik Bridoulen etxera joango ziren, gero Chevreuseko oihanetan galduta dagoen etxe batera (1879:213;1886:269-271).

⁽³⁾ *seculaco separatua uste izaneta ondoan; bere bihotza sacrificaturic. Salvadorres maithatua eta hari yuntatua izaiteco zorionari adio erran eta ondoan, (...). (EH). Después de haberse creído separada para siempre de su amigo; después de haber sacrificado su corazón y renunciado á la dicha de ser amada de Felipe y unirse á él; (...). (1886:269-270). Après s'être crue à jamais séparée de son ami; après avoir sacrifié son propre coeur et renoncé au bonheur de se laisser aimer par Philippe et de l'épouser; (...). (1879:213).*

sartzen zen, lore bat bezala lur galdu batean, bere arimaren aspirazione ez tier urrikirik gabe abandonatzeko esperantza eta sekulako hain maite zuen harena izaiteko zoriona.⁴

Eta Eusebia? phensatuko dute gure leitzalek. Doloresek ahantzia zuena Eusebiak bazituela dretxoak Salbadorren gainean? Ez, eta badakigu zer gisan sakrifikatu zuen bere amodioa eta bere bizia markesaren borondatearen Salbadorri konpliarazteko. Bainan Salbadorrek harrapatu zuenean Vauquelasen etxean, ahantzi zituen ondar⁵ promesak, zoinek estekatzen baitzuten oraino aitzinean beino gehiago andere Mirandoli, eta, Doloresi erraiteko orde, egin zuen eginahala disimulatzeko.

Erran zion ez zuela sekula amodiorik senditu Eusebiarentzat, haren bihotzean zena hazi zela harek lehenik maithatu zuenarentzat, zoina maithatuko baitzuen bethi eta bere emaztea eginen.

Kasu egiten badugu Salbadorren lenguaiari Vauquelasen etxean, phensatuko dugu zer gozoa eman zuen Doloresen bihotzean, hura etxe hartan bizi zen maneran, baxharrik, adixkiderik gabe; konsideratzen bada uste zutela Eusebia heien aldetik urrundua zela eta beren ustez nehoren beldurrik ez zutela, konprendituko dugu nola behatzen zuten beren ezkontzari gauza errexa bezala.⁶

Arrats hartan Dolores, kontent biharamun goizean ikhususko zuela Salvador eta menturaz ez zela sekula gehiago haren ganik urrunduko, goizik jua zen bere ganberarat. Presundegi-zaina⁷ jua zen haren ondotik eta ezarri zuen haren ganberan burdinazko ofe bat.

(XXXVII)

Presundegi-zaina Martin deitzen zen gizon hon bat zen. Doloresek haren

(4) lur galdu batean; bere arimaren (...) (EH). *En su corazón nació, como una flor bajo las ruinas, la esperanza de poder sin violencia, sin remordimientos, abandonarse á las dulces aspiraciones de su alma y de ser para siempre de aquel que habían separado de su lado acontecimientos fatales.* (1886:270). (...) *voilà que des diverses causes qui avaient amené ses malheurs naissait, comme une fleur sous des ruines, l'espérance de pouvoir sans contrainte ni remords s'abandonner aux élans et aux aspirations de son âme, et d'être enfin pour toujours à celui dont les circonstances avaient voulu jusqu'à ce moment la séparer.* (1879:213).

(5) Hitz hau b gabe idazten du moldatzailak.

(6) Doloresek amets egiten du jatorrizko testuan eta gaztelaniazko itzulpenean. Philipperekin bizi zen modestki baina goxoki Chevreuseko oihan gixen ezin atsegingarriagoan (1879:214-215; 1886:271-272); ametsa ezabatua da euskarazko moldapenean.

(7) Presundegui zaina (EH). Bereiz idatzia halaber hurrengo ataleko lehen hitzean EHko edizioan.

baithan konfientza hartu zuen eta han sarthu zen egunean galdegin zion ahal bazuen eman zezola ganbera bat beretzat, hartako pagatuko zuela, eta garanti-tzat eman zion lephotik harturik bethi soinean zuen urhezko kurutze bat.

–Zer ari zira? –galdegin zion ikhustean ofe bat han ezartzen zuela.

–Hemen ezartzen dut ofe bat, bihar igortzen dauzkutelakotz Vendeetik hanitz presoner, heien artean izanen da hanitz emazte, nunbeit behar ditugu aloitu eta [lekhuak] oro⁸ betheak dira. Egund artian⁹ egin ditut ahal ditudan guziak zuhaurek desiratu bezala uzteko, erran nahi baita bakharrrik. Orain inposible zait, egund arratsaldean sartu da inspektorra zure ganberan eta eman daut ordrea ofe baten gehiago izaiteko. Hori ez zauzu gustatzen, egia da, bainan ez beldurrik izan, oro jiten direnean hautatuko dut baño zure laguntzat, begithartek¹⁰ ez naute ni tronpatzen.

Doloresen plazerrrik handiena bakharrrik izaitea zelakotz kontrariatu zuen berri horrek, bainan biharamun goizean bere adixkidearen ikhusteko phensamenduak alegeratu zuen.

Biharamunean jaiki zen goizik ofetik, bat-batean ideki zuten ganbera eta Martin sarthu zen emazte doluz beztitu batez konpainiatua,¹¹ Doloresek ez zion begithartea ikhusi ahal izan voila batek estaltzen ziolakotz eta oraino goiz zelakotz eta argia ez zelakotz sartzen oraino ganberan.¹²

–Huna zure presundegiko laguna -dio Martinek Doloresi-, esperantza dut¹³ ene hautuaz kontent izanen zirela, ene iduriz gisakoena hautatu dut zuretzat. Gaixoa! Zein akhitua den.

Emaztea bere voila goititu gabe bere ofearen gainean jarri zen, ezagun zen biziki akhitua zela gauaren gaizki phasatzeaz eta penez.

(⁸) eta oro betheac dira. (EH). Guk lekhuak (lekhuak oro) ezarri dugu; bestela, ganberak (ganberak oro) izan behar lukeela dirudi. *Hay que habilitar sitio y en todas partes está lleno.* (1886:273). *Il faut leur trouver de la place, et tout est déjà plein ici, comme partout.* (1879:216).

(⁹) *Egund artian*: egund artean, goiz erdiko orduetan -arratsaldea baino lehenagokoetan-.

(¹⁰) Hau da: begithartek. *Las fisonomías no me engañan a mí.* (1886:273). *Les physiologies ne me trompent pas.* (1879:216).

(¹¹) *compagniatua* (EH).

(¹²) voila batek estaltzen ziolacotz eta oraino goitz zelacotz eta arguia ez tzelacotz sartzen oraino gamberan. (EH). voila ageri da beste hiru aldiz lerro batzuk beherago, baina boila LI. atalean. *Dolores no pudo ver su cara a causa del velo que la cubría, y también a que era todavía temprano y la luz no había entrado en la celda.* (1886:274). *Une femme l'accompagnait, dont Dolores ne put voir les traits, moins à cause du voile qui les cachait que parce que, à cette heure matinale, la lumière du dehors n'avait pas atteint tout son éclat.* (1879:217).

(¹³) esperantza duc (EH). –*Tengo esperanza de que estarás contenta de mi elección.* (1886:274). *J'ai l'espoir que tu seras contente de mon choix.* (1879:217).

Martin erretiratu zen. Orduan Dolores, hurbiltzen zelarik bere lagun berriari, erran zion:¹⁴

–Behar dugunaz geroz elgarrekin bizi denbora puxka zonbeit, nahi duzu adixkide izan giten?

Doloresen lehen hitza entzun orduko emaztea ikharetan jarri zen, xutitu zen, bere voila beltza gibelera eman zuen eta behatzen ziola Doloresi erran zion:

–Nahi dudanez izan zure adixkidea, Dolores? ez nauzia ezagutzen?

Doloresek, harritua, eskuak gurutzatu zituen oihi bat eginez, eta, hurbiltzen tzitzakolarik, voila gibelatu zion ezagutzeko.

–Eusebia! Eusebia!

–Dolores! Zu hemen?

Eta bat bertzearen besoetara jua ziren.

Lau urthe separatuak izan ziren!

Ezin mintzatuz zauden, azkenean Eusebiak erran zuen:

–Erranen deitazu, Dolores...bainan zu?¹⁵

–Sarri, sarri, ene maitea -ihardetsi zuen Doloresek-. Lehenik etzanan zira, arras akhitua zira.

–Gau guzia piaian phasatu dut.

Doloresek lagundu zuen buluzten eta etzanarazi zuen. Momento berean jua zen Martini dute bero xorta baten galdegitera zoinak zerbitzatu baitzuen berheala.

Dolores itzuli zen bere lagunaren aldera, dutea harrarazi zion, jarririk haren ofearen gainean mintzo ziren bizi phasatuaz. Bainan hastean Eusebiak galdegin zion Doloresi:

–Ikhusi duzu Salbador?

Galde horrek gorriarazi zituen puxka bat Doloresen mathelak eta ihardetsi zion kalmarekin:

–Bai, ikhusi dut, gu bezala preso da eta egun berean hunarako da.¹⁶

(14) EHko edizioan komarik ez da bat ere. Zuzenago dagoke honetara: *Orduan Doloresek, hurbiltzen zelarik bere lagun berriari, erran zion: (...). Anakolutoa dateke (joskeraren haustea, pentsamenduak diskurtsoaren logika formalari gaina hartzearen ondorioz), hizkuntza mintzatuari aski arrunta. Entonces Dolores, acercándose a su compañera desconocida, la dijo: (...). (1886:274). Alors Dolores, s'approchant de sa compagne inconnue, lui dit: (...). (1879:217).*

(15) Eunen deitazu Dolores...bainan zu? (EH), *–Me diréis... pero ¿y vos? (1886:275). –Mais, enfin, me direz -vous?...-Mais, vous-même?... (1879:218).*

(16) *egun berean hunarako da; gaur bertan hona etorriko da. (...). hoy mismo estará aquí (...). (1886:276). (...). aujord'hui même il sera ici. (1879:218).*

(XXXVIII)

Eusebiak jakin nahi izan zuen nola arrastatua izan zen Salbador, eta Doloresek erran zion, gisa berean jauregitik atheraz geroz phasatu zituen khirestasun guziak;¹⁷ bainan gorde zion oroetarik handiena, Salbadorrentzat zuen amodio bizia.

Eusebiak, bere aldian,¹⁸ khondatu zion lau urthe hetan phasatu zituen guziak, bai eta ere Salbadorrek egin ziola juramentu sakratua, eta nola haren ganik separatua ezin bizi zen bakharrik Reedeneko jaun-anderen etxean, eta nola Angleterretik eskapatu zen. Salbadorrek presentatu zion jaun baten protekzioea galdegin zuela Londresen, hari esker izan zuela bapor batean lekhu bat; Bre-tainako¹⁹ ezkinetara heldu orduko, orok desenbarkatu zutela eta abandonatu. Ikhusi zuela gizon bat eta galdegin ziola eremanaraz zezan Pariserat, hura bihi marxant bat zela eta ereman zuela bere karrosan herri batetaraino, han jateko hotel²⁰ batetara juan zirela eta presentatu zuela bere alaba bezala, bainan haren jateko manerak, haren esku xuriek galtzen zutela, jendea elheketa hasi zela ez zela hura bihi saltzale baten alaba izaiten ahal, eta, salon batean phausatzen ari zelarik, gizona eskapatu zela, hoteleko²¹ nausiak komisariara ereman zuela eta han bere inketadurak ezin gorde zituela. Komisariako jujak²² nahi zuela Nan-teserat igorri bainan othoiztu zuela Pariserat igor zezan eta konsegitu zuela.²³ Arrats berean abiatu zirela Pariserat eta gau guzia bidaian emanik goiz hartan ideki zirela haren aitzinean Konserjeriako borthak.

Gisa hortan khondatua izan zen Eusebiaren mihiaz bere piyaiako ixtorioa Doloresi. Hunek hitzik erran gabe entzun zuen eta azkenean erran zion:

–Orai phausatu behar duzu, lo egizu bakean, ni zurekin izanen niz.

(17) *gisa berean*: halaber, era berean, bai eta (...) (emendiozko lokailua). Halaber erran (zizkion) jauregitik atheraz geroz phasatu zituen khirestasun guziak. *Antonia quiso conocer las circunstancias del arresto de Felipe, y Dolores se los (sic) manifestó, así como sus amarguras desde que dejó el castillo de Chamondrin; (...)* (1886:276). *Antoinette voulut connaître sur-le-champ les circonstances de l'arrestation de Philippe. Dolorès les lui raconta, obligée aussi de raconter rapidement sa vie, depuis le jour où, quatre ans auparavant, elle avait quitté le château de Chamondrin.* (1879:218).

(18) *Ella á su vez contó à Dolores todos los detalles de su vida, (...)* (1886:276). *Puis, ce fut le tour d'Antoinette de revenir sur le passé.* (1879:218).

(19) Bretagnaco (EH).

(20) *hotel*: ostatu. *posada* (1886:277). *auberge* (1879:220).

(21) *hoteloco* (EH).

(22) *Comisarioco yuyac* (EH). Fr. *commissaire du district* (1879:220), gazt. *juez de comisión* (1886:278), eusk. *komisariako juja*: horra hiru moldaera, aski desberdinak diruditenak. Aitzin esaldian *komisariara* dio euskaraz, fr. *devant le commissaire du district*, gazt. *ante el juez de comisión*.

(23) Eusebiak otoiztu zuela Pariserat igor zezan eta erdietsi zuela.

–Nahi nuke Salbador ikhusi -murmuratu zuen- lotan sarthu gabe.²⁴

–Iklusiko duzu, nik hitzemaiten deitzut.

Eusebia, dozil Doloresen nahier, fite lokartu zen. Dolores, jarririk, bakharrik gelditu zen entzun zituenetan phensaketa.²⁵

Eusebiak erran guzietan ez zituen bi gauza beizik konprenditu: bat, Eusebia Angleterretik Franziarat jin zela Salbadorrekin juntatzeko, eta bertzea, Salbadorrek bazituela eginak Eusebiari harek ez zazkien²⁶ promes sakratu batzu.

–Zer egin? -zion haur dohakabeak, zoinari bihotza xehatzen baitzitzaion.

Gau hartan egin zuen lo eztiaren ondotik, bere amodio propia handitzen tzitzaion Eusebiaren amodioaren aldean. Zoin bi amodioetarik behar zen gelditu sakrifkatua? Eusebiarena, Salbadorrek maite zuena Dolores zenaz gainean.²⁷ Ez zen atrebitzen erresoluzione horri buruz jartzera.²⁸

Gisa huntan phensatzen zuen Doloresek: Zer? Chamondrineko markesak atxiki nau alaba baten plazan, eta nik, lagunduz haren semea haren azken borondaten hausten, behar ditut haren ongi eginak pagatu? Ez, imposible da, itsuseria bat litake. Hitzemanarazi dio Eusebiarekin ezkontzea. Berak ere hitzeman dio aitari eta gero Eusebiari. Eta zer erran nahi du²⁹ maite banau ere! Maithatuko du Eusebia ere. Gehiago dena, nihaur ez ikhusiz ahantziko nau. Nor niz ni ene presentziarekin³⁰ ene ongi-egilearen azken borondaten hautsarazteko? Eta zendako, zerk gibelatzen nau ene sakrifizioaren segitzetik?³¹ Alon, Dolores, izan

(24) EHko edizioan dena jarraian emana da, komarik edo gidoirik gabe. Gaztelaniazko itzulpenari jarraituta interpretatu dugu: lotan sartu baino lehen nahi zuela ikusi Salbador. Bestela ere interpreta daiteke: lotan sartu baino lehen murmuratu zituela hitz horiek.—*Quisiera ver á Felipe —murmuró Antonia— antes de entregarme al reposo.* (1886:278). *Je voudrais voir Philippe, murmura Antoinette qui s'assoupissait.* (1879:220).

(25) *Dolores se había quedado sola, sentada, pensando en lo que acababa de oír.* (1886:278). *Dolorès était demeurée assise dans la chambre, pensant à ce qu'elle venait d'entendre.* (1879:220).

(26) ez tzazkien (EH). *Ez + tz-* (adizkia) *ez z-* transkribatu dugu, nahiz afrikatu gisa ahoskatu behar den. Ik. Hitzaur 2.2.4.5. *harek ez zazkien (...): Eusebiak ez zekizkien (...).*

(27) *Dolores zenaz gainean: Dolores zelako. ¿Cuál de los dos amores debía quedar sacrificado? El de Antonia, pues que Felipe amaba á Dolores* (1886:279). *Lequel des deux devait être sacrifié? Celui d'Antoinette assurément, puisque Philippe aimait Dolorès.* (1879:221).

(28) *No se atrevía á ponerse frente á tal solución.* (1886:279). *Elle n'osait se placer en face d'une telle solution.* (1879:221).

(29) *zer erran nabi du (...): zer axola dio...? ¡Y qué importa que me ame!* (1886:279). *Qu'importe qu'il m'aime!* (1879:221).

(30) *presensiarekin* (EH). OEHN ez dugu ikusi *presensia* formatik.

(31) *¿Y por qué, qué motivo me impide seguir mi sacrificio?* (186:279). *Pourquoi ne pas continuer mon sacrifice?* (1879:221).

hadi azkar eta hail kuraiarekin,³² ezkontzen bahinz Salbadorrekin, Eusebia marlurus litake hire gatik: hil litake eta bizi guzian ikhus hezake hire eta hire senhararren artean hire gatik hil litakeen haren itzala. Inozent dun. Ez daki Salbador maite dutala. Harek ere ez dio erran. Bueno, gordeko dut egia. Urus izanen da urrikirik gabe eta jautsaraziko du maite duenaren bihotzera erresinazionea eta amodioa.

(XXXIX)

Dolores preparatzen ari zen bethi bezala digno bere buruaren erakusteko.³³ Momento hartan haren bere presunarentzat zuen estekamendu gutia hunkigarri zen,³⁴ ez zuen hitz baten erraita beizik berak maite zuen haren aldean izaiteko sekulako. Bainan ez zuen uroostasuna nahi aita bezala maite zuen hari errespetua galdurik, ez eta ere Eusebiaren bihotz ezta penaturik. Phensaketa horietan ari zen lo zagon hunen aitzinean.

–Ai! -erraiten zuen behatzen ziolarik Eusebiari-. Zendako jin hiz? Zendako ez Angleterren gelditu, Salbadorrek utzi hinduen bezala? A! Ez dakin zenbat pena emaiten dautanan!

Denbora berean athea ideki zen, presundegi-zaina sartu zen erraiten zuela:

–Anderea, bada salan presonier bat, zu ikhusi nahi zituena. Uste dut Madelonetetarik heldu den.

–Hura da! -phensatu zuen Doloresek, zoina ikharatu baitzen ikhusi behar zuelakoan.³⁵

Bizkitartean animatu zen eta urhats segur batekin jautsi zen salara. Salbador promenazabilan urhats ezti batean kolore hits batzuekin, gizon anhitz sofritu eta ondoan desiratzen duena ardietsi duen bat bezala.

Goizeko hamarrak ziren.

(³²) *hail kuraiarekin!*: bihotz emateko esapidea edo adierazpidea. *Hail* 'habil', 'hoa'. Ohiz kanpoko erabilera? Ez dugu ikusi halakorik OEHN, *habil* sozietiboarekin. *Anda, Dolores, sé valerosa y fuerte; (...)*. (1886:279). *Allons, Dolorès, sois courageuse, sois forte.* (1879:221).

(³³) *Dolores se preparaba á mostrarse digna de lo que había sido siempre.* (1886:280). *Dolorès se préparait ainsi à se montrer digne de ce qu'elle avait toujours été jusque-là.* (1879:222).

(³⁴) *En aquel momento la hacía admirable su voluntaria abnegación.* (1886:280). *Elle fut en ce moment admirable de renoncement volontaire.* (1879:222).

(³⁵) *(...) pensó Dolores, quien se puso pálida al pensar que le iba a ver.* (1886:281). *(...) pensa Dolorès, qui devint toute pâle à la pensée de le revoir.* (1879:222).

Dolores ikhusi zuenean alegriazko oihu bat eginez haren ganat lasterka abiatu zen. Salan nehor ez zen eta besoak ideki zazkon ziola:

–A! Dolores maitea, ikhusten hut azkenean; hirekin nun sekulako; sekula ez gitun separatuko.

–Sekula? -dio Doloresek boz aphalt batekin.

(XL)

–Erran nenan: separazione luze eta kruel baten ondotik elgarretararazi gaituen Jainkoak, menazatuak giren irriskutik libratzen bagitu, ez dun uste berak nahiko duela gure unioea mundu huntan? Ezen Piarresi eskerrak hemendik atherako gira, libro eta uros izanen gira.

–Eta Eusebiak, zer egingen du?

–Eusebia!

Doloresek behatu zion eta akzentu segur batekin erran zion:³⁶

–Utzi huen Eusebia Angleterren, itzultzen hitzanean³⁷ harekin ezkonduko hintzala hitzemanik. Ikhusiz ez hintzala itzultzen, phasatu dik itsasoa. Parisen duk presondegi huntan; heldu duk hire konplimenduaren eta promesaren galdegitera.³⁸

Dolores mintzo zelarik Salbadorren bisaia kanbiatu zen, eta, errapostuaren emaiteko indarrik gabe, paretari kontra xutik faratu zen.

⁽³⁶⁾ Doloresec behatu zion *accento segur* batekin eta erran zion: (...) (EH). Guk lekuz aldatu dugu *eta*, ez baitzegoen toki egokian. *Dolores le miró, y con acento seguro le dijo: (...)*. (1886:281). *Dolorès le regarda, et d'un accent dans lequel elle mit autant de fermeté qu'elle put: (...)*. (1879:223).

⁽³⁷⁾ itzultzen hizanean (EH). Denbora komunztadurak eskatuta aldatu dugu *itzultzen bizanean* → *itzultzen bitzanean* 'itzultzen hintzanean'; halaber L kapituluan *sacrificatzen bizan* (EH) → *sakrifikatzen bitzan* 'sakrifikatzen hintzen'. Uste dugu *itzultzen bitzanean* 'itzultzen hintzanean' egokiagoa dela *itzultzen bizanean* 'itzultzen haizenean' baino, nahiz zalantzak ditugun: alde batetik, moldatzaileak gehienetan *biz(-)* 'haiz(-)' adierazteko darabil (adib., *bizana* 'haizena' bi aldiz L kapituluan); bestalde, iraganeko adizkietan *ntz* hizkiak erabiltzen ditu gehienetan, adib. *hintzan*, *baibintzan* L, *hintzala* XL (7 aldiz), *nintzan* (XL, XLII), *nintzanean* (XLI), etab., baina *-tz-* beste batzuetan (*banitz*, XLI) edo zalantza ageri da (*Ezkontzen banitz* / *bebatzen banintz* XLI, *atberatzen abal banitz*, *escapatzen abal baniz* EH XLI), aldatu ditugun bi *bizan(-)* horiek alde batera utzita ere. Beraz badirudi *ntz/tz/z* zalantza dagoela grafietan, baldintzazko adizkietan.

⁽³⁸⁾ *promesaren galdegitera*: hire promesaren konplimenduaren galdegitera. Hendiadis izeneko figura erretorikoa dateke, agian moldatzaileak espreski baliatua; figura honetan perpaus bakunak juntatzen edo koordinatzen dira, osagaiak bata bestearen mende eta joskera edo hitzordena arruntean ezarri beharrean. *Viene á reclamar el cumplimiento de tu promesa*. (1886:282). *Elle vient réclamer l'exécution de ta promesse*. (1879:223).

X. PHARTEA. AMODIOAREN GERLA¹

Doloresek ekharri zion berriak samurraraz eta khexarazi zuen Salbador.
Nola Eusebia jin zen Franzia? Zer gisaz jin zen Parisera eta presundegi hortara? Hori jakin nahi zuen.

Doloresek khondatu zion Eusebiak errana eta akhabatu zuenean erran zion eztiki:

–Salbador, zendako ez dazkidaak erran zoin ziren Eusebiari hoin hurbildanik estekatzen hutun promesak? Zer! Utzi duk duela sei aste, harekin ezkonduko hintzala hitzemanik, eta hemen nahi huen nik hire othoitzak entzun nintzan!

Salbadorrek ixilarazi zuen bizitasunekin zioela:

–Othoi, othoi, Dolores, ez nezanala akusa! Ez nun trahidor izan ez eta ere gezurti. Hire ganik separatua izanik, uste izanik hila hintzala edo gordea ni bezala bainan ene ganik urrun, egin badut promesa bat Eusebiari, bethiko Jainkoari konsekratu hintzala [ustez] egin dinat, egin nakon bezala bertze bat lau urthe lehenago.² Bainan aurkhitu hautanean hi, ene bihotzaren jabea,³ nola ahanz nezakeen hi hintzala lehena, bakharra, ene bihotza izan dunana?⁴ Oraino

(¹) *Chapitre XIII. Les combats de l'amour.* (1879:224). *Capítulo XXX. Luchas de amor* (1886:283).

(²) eguin badut promesa bat Eusebiari; bethico Jainkoari consecratu hintzala eguin dinat eguin nacon bezala bertze bat lau urthe lehenago. (EH). Guk honela ezarri dugu: *konsekratu hintzala ustez egin dinat*. Bestela, *konsekratu hintzala uste izanik jar daiteke*, edo *konsekratu hintzalakoan*. *Si separado de ti, habiéndote esperado en vano, creyéndote muerta ó escondida como yo, pero lejos de mí, hice una promesa á Antonia, como ya le había hecho otra cuatro años antes, es porque creí que te habías consagrado á Dios para siempre.* (1886:283-284). *Oui, séparé de toi, ayant vainement attendu, n'espérant plus te revoir, te croyant morte ou cachée comme moi, mais loin de moi, j'ai fait une promesse à Antoinette, comme je lui en faisais une, il y a quatre ans, devant mon père, et alors que pour jamais je te croyais consacrée à Dieu et devenue carmélite dans Avignon.* (1879:224). Jatorrizko baieztapena (*Oui,...*) gaztelaniaz baldintzazkoa bihurtua ageri da (*Si...*). Argi dago euskarazkoak gaztelaniazkoari jarraitu diola.

(³) Bainan aurkhitu hautanean hi ene bihotzaren yabea, (...). (EH). *Pero cuando te encuentro, á quien adoro [sic; a tí falta da] (...).* (1886:284). *Mais, quand je te retrouve, toi que j'adore (...).* (1879:224).

(⁴) izan dudana? (EH). *hi hintzala lehena, bakharra, ene bihotza izan dunana*: hona moldatzaileak gogoko duen erlatibo joskera bat, aurrerago agertu zaigun baten parekoa: *Bakharra niz eskapatu nizana XXXI. ¿cómo podría olvidar que tú fuiste la primera, la única que tuviste mi corazón?* (1886:284). (*...*) *comment pourrais-je oublier que la*

haur bat nintzan, eta, jakin gabe, ene arreba bezala maite uste nuen hura, nik adoratzten nuen emaztea.⁵ Eta amodio hura hazi da hainbertzetaraino orai egiten beitu ene malhurra.⁶

–Ai! -murmuratu zuen Doloresek.

–Eta benedikatzten dudanean presondegi huntarat hire alderat igorri nauen Jainkoa,⁷ hire esku xuri maiteak ene musuz bethetzen ahal ditudan momentuan, hire behatze eztien azpian egoiten ahal nizanean, defendatuko nun hik, Eusebiaren izenean, hoinbertze urthe huntan ene bihotzean senditzen dudanaren erraitera?⁸ Ez, ez nitaken ixil. A! Dolores, kuraia hanitz badun, bazakinat, badun indarrrik aski hihaturen bentzutzeko, aparenzia ezti baten egiteko hire bihotzak hainbertze sofritzen duen denboran;⁹ bainan ez ditinat nik berthute berak.¹⁰ Sofritzen dinat eta behar dinat arranguratu, maite dinat eta behar dinat erran.¹¹

Gisa hortan mintzo zelarik, Salbadorren bisaiaari behera nigarrak nasai zoazin.

–Ikhusten dun -erran zuen ixtant baten buruan-, gure malhur guzien has-tapena aitari egiazen ez kofesatzea izan dun. Eskuak elgarri eman eta haren

première, la seule, tu eus mon coeur? (1879:224).

(⁵) EHko edizioan komarik ez dago esaldi osoan. Perpausaren bukaeran adizki bat dago isilpean, edo dagoela ulertu behar dela dirudi: *zen (nik adoratzten nuen emaztea zen). Era todavía un niño, y, sin saberlo, la que creía amar como mi hermana, era la mujer á quien adoraba.* (1886:284). *J'étais un enfant, et, sans le savoir, dans celle que je croyais ma soeur, c'était la femme que j'aimais.* (1879:224-225).

(⁶) hainbertzetaraino orai eguiten beitu ene malhurra (EH). *Y aquel amor se ha desarrollado. Ha crecido tanto, que ahora hace la desventura de mi vida.* (1886:284). *Et puis, cet amour s'est développé. Il a grandi au point de faire l'infortune de ma vie!* (1879:225).

(⁷) Yaincoac (EH).

(⁸) defendatuko nun hic (...) erraitera? (EH). *defendatuko nun hik (...): debekatuko didan hik, (...)? Defendatuko nun hik (...) erraitera ala erraitera ote da egokiagoa? OEHn ageri diren adibideetan ez dugu ikusi defendatuko naun modukorik, bai defendatuko didan -t(z)ea/-t(z)etik modukoak. Hori bera erakusten du Euskaltzaindiaren gramatikak (debekatu/galarazi/eragotzi...-tzea, EGLU VII, 557). Beraz defendatuko didan (edo dautan) (...) erraitera zatekeen egokiena, baina moldatzaileak nahastu bide du (?) defendatu aditzaren erregimena, baita mende perpau osagarri jokatu gabeen -t(z)ea eta -t(z)era atzizkiak. Guk nahiago izan dugu EH edizioa (defendatuko nun (...) erraitera?) errespetatu. ¿me vas á prohibir en nombre de Antonia decirte lo que desde tantísimos años siento en mi corazón? (1886:284). (...) tu m'auras inderdit, au nom d'Antoinette, de te dire ce qui, depuis tant d'années, est dans mon coeur.* (1879:225).

(⁹) aparenzia ezti baten eguiteko, hire bihotzak (...) (EH). (...) *para quedarte insensible en apariencia cuando tu corazón está tan atormentado; (...).* (1886:284). (...) *pour demeurer insensible en apparence, alors que ton coeur est torturé.* (1879:225).

(¹⁰) bainan ezditinac nic berthute berac. (EH).

(¹¹) *Padezco, tengo que quejarme; amo, tengo que decirlo.* (1886:284). *je souffre, il faut que je le crie; j'aime, il faut que je le dise.* (1879:225).

aitzinean belhaunikatu izan bagine erranez “Ene aita, elgar maite dugu”, uros izanen zen eta benedikatuko gintuen.

(XLI)

–Tronpatzen hiz, Salbador. Juan nintzanean komenturat, markesak jakin zian ene ahotik enetzat huen amodioa eta ez nindian geldiarazi.

Salbadorrek behatu zion harritua.

–Zer! ene aitak bazakien!...Bai eta obligarazi nau hil beino lehen hitzemaierat Eusebiarekin ezkonduko nintzala! O! Zoin krudelak diren aitak¹² zonbeit aldiz!

–Uste zian ahantzi nindukala.

–Posible da hire ahanzte? -dio Salbadorrek-. Bainan zer egin?

Doloresek ez zuen ihardetsi, begiak aphaltu zituen ez zezan leith haren bihotzean zen gerla handia.

Salbadorrek baliatu zuen momento hura, berriz bere kausa propiaren defenditzeko.¹³

–Entzun nezan, Dolores, ez gitazken sakrifizioetan ofrei gure aitaren borondatearen egiteko.¹⁴ Ezkontzen banitz ni Eusebiarekin ene bihotza hirea izan eta, ez nakiken haren urus egiten eta hik zer egin hio?¹⁵

–Bainan, hiri behatzen banintz, zer egin lio Eusebiak?¹⁶

–Ahantz nion.¹⁷ Maite nin hark ezagutu duen lehen gizona nizalakotz, ber-

(¹²) *aitak*: aita-amak, gurasoak. Beste bi aldiz ere agertzen da gaztelaniazko *padres* hitzaren kalko hau (VII, XIII). *¡Oh, cuán crueles son los padres algunas veces!* (1886:285). *Oh! les parents sont parfois cruels.* (1879:225).

(¹³) bere gausa propiaren defenditzeko. (EH). *Kausa* izan behar du, *gauza* baino ziurrago. Ez dirudi *gauza*ren ordez dagoenik *gausa* EHren edizioan ‘kausa’ adieran (nahiz halako adibide bat badagoen OEHn, Etxeberrri Ziburukoarena). *Felipe aprovechó sus vacilaciones y sus incertidumbres para defender de nuevo su propia causa.* (1886:285). *Philippe profita de ses hésitations et de ses incertitudes pour plaider de nouveau sa propre cause.* (1879:226).

(¹⁴) –*Escúchame, Dolores; no podemos ofrecernos en holocausto á la voluntad de mi padre.* (1886:285). –*Écoute, Dolorès, nous ne pouvons nous offrir tous deux en holocauste à la volonté de mon père.* (1879:226).

(¹⁵) *hik zer egin hio*: hik zer egin hiro ‘hezakek’, hik zer egingo huke? **iro* aditz erroa ekialdean baldintzazko perpausetan erabilia da, baldintzaren ondorio adizkietan (apodosia). *Si me caso con Antonia siendo mi corazón tuyo, no sabré asegurar su dicha. Y tú, ¿qué harías?* (1886:285). *Si j’épouse Antoinette, ayant le coeur plein de toi, je ne saurais assurer son bonheur. D’ailleurs, toi-même, que deviendrais-tu?* (1879:226).

(¹⁶) *zer egin lio Eusebiak?*: zer egin lio ‘lezake’, zer egingo luke Eusebiak? –*Pero, si te escuchaba, ¿qué haría Antonia?* (1886:286). –*Mais, si je t’écoutais, que deviendrait Antoinette?* (1879:226).

(¹⁷) Ahantz nion. (EH). Guk *ahantz* ezarri dugu, hori delako nafar-lapurtar testuetan ohikoena eta moldatzaileak erabiliena (*ahantz* nindezaken XLI, *ahantz* abal zezan XX). *Ahantz nion*: ahantz niron, ahantz nin-

tze bat beino lehenago ezagutu nuelakotz eta munduan sartu gabe.¹⁸ Bainan nigar zonbeit ixuri eta ondoan, ez baitira konparatzen ahal hiretzat ixuri eta ixuriko ditudaner¹⁹ abandonatzen banun, ahantz nindezaken. Gehiago dena, haren amodioa ez ditaken konpara ene bihotza bethetzen duenari.

–Ez zakala kalumnia, Salvador. Lau urthe huntan Jainkoaren aitzinean bere esposa uste hu, eta kapable duk, hik abandonatzen baduk, hire infidelitatearen doluaren alxatzeko.²⁰

–Ene infidelitatea?

–Bai, hari promes bat egin dukanaz geroz eta eni ez detak hitzeman deus.

–Bainan, eta hik?

–Nik ere ez.

–Beraz juan den eguneko ixiltasuna ez zen konsentimendu bat?

–Ez, gaizki konprenditu huen -ihardetsi zuen Doloresek.

–O! zein malhurusa nizan -dio Salvadorrek marrumetan zagola.

Dolores akhittua zen. Konbersazione horrek akhabatu zituen haren indarrak, bainan hartu zuen azken erresoluzione bat eta geroztik ez zuen izanen phensamendu bat beizik: Eusebiaren urustasunaren segurtatzea, obligaraziz Salvador harekin ezkontzera. Momento baten buruan erran zuen eztiki:

–Piarresek ekharriko dik hunat paper bat, zoinaren medioz hik eta nik athera behar baikinikek; hi atherako hiz Eusebiarekin.

Salvadorrek protestazionezko oihu bat egin zuen, bainan [Doloresek]²¹ ez

dezaken (ik. lerro batzuk beherago *abantz nindezaken*, beraz moldatzailea bi aditz erroez baliatzen da: *iro eta *eza); hau da: ahaztuko ninduken (hark ni ahaztuko ninduke, hitanoz). –*Olvidaría*. (1886:286). –*Elle oublieria*. (1879:226).

(¹⁸) *ezagutu nuelakotz*: ezagutu nauelakotz eta (...). *munduan sartu gabe*: munduan sartu baino lehen, mundua ikusi baino lehen. *Porque soy el que conoció antes que á otro hombre, antes de entrar en el mundo*. (1886:286). (...) *parce que je suis celui qu'elle a connu avant de connaître d'autres jeunes hommes, avant de voir le monde*. (1879:226).

(¹⁹) *ichurico ditudanee* abandonatzen banun, (...) (EH). Datiboan ezarri dugu (-er, hori baita moldatzaileak pluralean usuenik darabilen forma); izan ere, *konparatu* aditzak datiboa galde egiten du gehienetan ekialdeko testu aski modernoetan, soziationbo (-r)ekin baino gehiagotan: ik. hurrengo lerroan *bethetzen duenari*. Bestalde, letra bakar baterako tartea dago EHko edizioan. *Pero después de haber vertido algunas lágrimas, que no pueden compararse á las que vertí y verteré si me abandonas, me olvidará*. (1886:286). *Mais elle m'oubliera, après quelques larmes qui ne peuvent pas plus se comparer aux larmes que j'ai versées, moi, et que je verserai si tu me quittes, que l'amour qu'elle nourrit pour moi ne peut se comparer à celui que j'ai dans le coeur*. (1879:226).

(²⁰) *doluaren alxatzeko*: dolua ekartzeko. OEHN ez dugu ikusi konbinazio hau. *y es capaz si la abandonas de llevar el luto de tu infidelidad*. (1886:286). *et elle est femme, abandonné par toi, à porter le deuil de ton infidélité!* (1879:226).

(²¹) Salvadorrek protestazionezko oihu bat eguin zuen, bainan ez entzunarena eguin zuen (EH). Bigarren

>>

entzunarena egin zuen eta segitu zuen erranez:

–Harekin atherako hiz. Piarresi esker izanen duzue lekhu segur bat, Versailleko ondoan. Han biziko ziezte trankil. Ez deat erraiten ezkontziezten berheala,²² bainan denbora eztitzen denean, gerlarik gabe hire bihotza jartzen denean, orduan, hire presuna bakez bethea izaiten denean, konplituko dituk kuraierekin²³ egin hituen promesak.

Salbadorrek ezetz erran zion kheinu batekin eta galdegin zion:

–Zer litaken orduan hitaz?²⁴

–Presondegri huntarik atheratzen ahal banitz, eskapatzen ahal banitz²⁵ gillotinarene azpitik, juanen niz estranjerrerat eta itzuliko niz ene lehenbiziko bokazionerat; han erretiro batean sepultatuko ditut ene egunak eta othoitz eginen dut zuentzat. Bainan ez diat botu eternalik eginen, eta egun batez aski azkar kausitzen bahiz ene presentzia hire etxean, perilik gabe hire bihotzeko bakearentzat, soportatzeko, jinen nuk hire ganat, Salbador maitea, lehen bezala hire arreba izanen nuk, hire haurrentzat bigarren ama bat, eta Eusebiak harrapatuko du berriz bere adixkidea.

–Ez nun Eusebiarekin ezkonduko, beraz nahi nute obligatu harekin ezkontzera.²⁶ Bai, erranen dakot ez dakiena, elgar maite dugula eta bethi elgar maithatu dugula.

perpausaren subjektua ezarri dugu: Doloresek. Euskarazkoak gaztelaniazko itzulpenaren huts bera egin du, jatorrizkoari ez begiratzegatik. *Il poussa un cri de dénégation. Elle feignit de ne pas entendre et continua: (...)* (1879:227). *Felipe dió un grito de protesta. Pero fingió no entenderle y siguió: (...)* (1886:287).

(22) ezkontziezten: ezkont zaitezten.

(23) komplutuko dituk curayerekin eguin hituen promesak (EH). Hau da: kuraierekin konplituko dituk egin hituen promesak. (...) *pero cuando el tiempo haya calmado la lucha que te devora, en ese momento, cumplirás con valor las promesas que hiciste.* (1886:287). *Mais, lorsque le temps aura calmé la fièvre qui te devore en ce temps, et fait descendre l'apaisement dans ton coeur, tu rempliras vaillamment, en bonnête homme, les engagements que tu as pris.* (1879:227).

(24) Adizki alokutiboa galdera perpausuan. –*¿Qué sería entonces de tí?* (1886:287). –*Quelle sera ta destinée? demanda-t-il.* (1879:227).

(25) – (...) atheratzen ahal banitz, eskapatzen ahal baniz (...). Bigarren adizkian ere *banitz* ezarri dugu. Ohargarri denez, EH estuan *ntz/tz/z* zalantza dago baldintzazko adizkietan. –*Si salgo de esta cárcel, si puedo escapar del cadalso, (...)* (1886:287). *Si je sors de cette prison, si j'échappe à l'échafaud, (...)* (1879:227).

(26) Euskarazko moldapenak gaztelaniazko itzulpena du abiapuntu baina zentzuz etenda gelditzen dela dirudi, ez baitu aipatzen Eusebia epaile ezartzeko konturik, eta beraz ez da egoki lotzen hurrengo esaldiarekin, puntu ondorengoarekin. Honen moduko zerbait falta dela dirudi: Beraz nahi naute obligatu harekin ezkontzera? Hura izanen da juze. Bai, (...). *No me casaré con Antonia, y pues quieren obligarme a casarme con ella, será mi juez. Sí, la revelaré lo que ignora, que nos amamos y que nos hemos amado.* (1886:287). *Non, je n'épouserai pas Antoinette, et, puisque tu veux m'y obliger, c'est elle que je veux faire juge du parti auquel je dois me résoudre. Je vais lui révéler ce qu'elle ignore, que nous nous aimons, que nous nous sommes toujours aimés.* (1879:228).

(XLII)

–Ixil hadi, -dio Doloresek-, gaixoak ez dezala sekula jakin. Ez duk dretxorik hirea bezanbat enea den segetu baten hari konfiatzeko.

Bizkitartean konbersazione horrek aski iraun zuen. Emeki-emeki, sala jendez bethe zen. Jausten ziren bere ganbaretarik hara jateko tenoreko, beren artean egiten zutela hea arratsa harrapatuko othe zuten akusazionezko akta errezebitu gabe.

Zonbeit Salbadarren eta Doloresen aldean fasatzean, behatzen zeeten²⁷ jakin nahi ukhan balute bezala zertaz mintzo ziren.

–Banoa Eusebiaren bilha -dio Doloresek-. Huna ekharriko deat. Othoizten hut berriz ere, hire amodioaren izenean, ez erraitea deus pena egin dezakeenik.²⁸ Ez dugu presarik; hemen bethi hiltzeko bezperan gira, eta, menturaz, Piarresek eginahalak eginik ere, ez gira libratuko, memento batetarik bertzean emaiten ahal daukute akusazionezko akta.²⁹ Ez dezagun presentea turba, arima pedatzutan ezartzen duen gerlekin;³⁰ hemen bizitzen ahal gira Chamondrineko jau-regian bizi ginen bezala gure penak elgarren artean fartituz. Gauden errapuski, denborak argituko gaitu.³¹

–Zenbat kuraia dunan -ihardetsi zuen Salbadorrek, zoinari ondar hitz horiek esperantza bat uzten baitzioten.

(²⁷) Egokiagoa da: *Zonbeitek, Salbadarren eta Doloresen aldean fasatzean, behatzen zeeten (...)*. Anakoluto soila dateke, moldatzaileak behin baino gehiagotan egiten duena (ik. XXIX, XXXVII). *Algunos, pasando delante Felipe y Dolores, los miraban con interés, como si hubiesen deseado conocer el objeto de una conversación tan animada.* (1886:288). *Quelques-uns, en passant devant Philippe et devant Dolorès, les regardaient curieusement, comme s'ils eussent souhaité de connaître l'objet d'un entretien si animé.* (1879:228).

(²⁸) *pena egin dezakeenik*: Eusebiari pena eman diezaiokeenik. *Je te supplie encore, au nom même de ton amour, de ne lui rien révéler qui puisse l'affliger.* (1879:228). *Te prometo todavía, en nombre de tu amor, no revelarla nada que pueda afligirla.* (1886:288). Gaztelaniazkoa (*Te prometo*) ez dator bat jatorrizkoarekin.

(²⁹) *De un momento á otro pueden remitirnos el acta de acusación.* (1886:288). *D'une minute à l'autre, un acte d'accusation peut être remis à l'un de nous, (...)* (1879:228). Gaztelaniazkoan eta EH edizioan zati hau eta ondokoa Salbador eta Doloresen arteko elkarriketa gisa emanak dira.

(³⁰) *ezartzen duen gerlekin*: ezartzen duten gerlekin. Berriz ere bereizketarik ez subjektu singular eta plural-dunen arteko adizkietan, IX eta X kapituluetakoa adibideetan bezala. –*No turbemos el presente con recriminaciones y luchas que nos destronan el alma: (...)* (1886:288-289). *Quel que doit être l'avenir, ne troublons pas le présent par des récriminations et des luttes qui déchirent l'âme.* (1879:228).

(³¹) *Viviremos aquí como vivíamos en Chamondrin, queriéndonos y compartiendo nuestras desventuras. Esperemos de los acontecimientos y del tiempo una solución á nuestros pesares.* (1886:289). (1886:289). *Vivons ici, comme nous vivions á Chamondrin, en nous aimant et nous soutenant mutuellement dans notre infortune, afin de la mieux supporter, et attendons des événements et du temps une solution á tout ceci.* (1879:228).

Salbador nahasi zen salan ziren jender, zoinetan baitziren hanitz kortean ezagutu zituenak, eta Dolores jua zen Eusebiaren bilha. Hau iratzartua zen.

–Eta Salbador? –izan zen haren lehen hitza.

–Salbador jin da, ikhusi dut eta salan gure beha dago.

Eusebia fite beztitu zen eta bi adixkideak jautsi ziren salara. Eusebiak Salbador ikhusi zueneko jauzi batez jua zen haren besoetara. Salbadorrek hotztasunekin errezebitu zuen ziola:³²

–A, malurusa! Zertako ez zira Angleterren gelditu? Zendako jin zira irrisku handi hotara?

–Ene egitekoa ez zen zure ganat jitea elgarrekin hiltzeko? Hamabortz egun berririk gabe bizi eta ondoan, jakin dudanean erregina hil zutela konprenditu nuen zuen indarrak inutil izan zirela eta zuen bizia peligro handietan izan behar zela, orduan utzi dut Angleterra.³³ Hanitz sofritu dut; bainan, ez baniz tronpatu ere, uros niz ikhusten zaitudanaz geroz.³⁴

Doloresek entzun zuen errapostu hau Salbadorrek eginak zituen promesen proba berri bat zen. Doloresek behatu zion Salbadorri; behatze harek erran nahi zuen: “Atrebituko hiz ez dukala maite erraitera? Bertzenaz maitha zak eta desiratzen duen uroostasuna egin ezok.”

Eusebiak uste zuen alegria gehiagorekin errezebituko zuela, bere amodioa deklaratuko zakola. Bainan Salbadorren ezpainetarik ez zen hitz bat ere athera ahal izan, mutu bat bezala zagon bi nekatoen artean.

(32) Euskarazko moldapenean Eusebiaren emozioen deskripzio labur bat kendua da. Bestalde, jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan Salbadorren urrikoa ageri da, Eusebiaren alderako, ez hoztasuna: *Elle vola dans ses bras avec tant de naïf abandon, qu’il en fut touché, et, en même temps, conçut des remords en pensant qu’il avait été sur le point de haïr cette charmante créature dont le seul tort était de l’aimer.* (1879:229). *Al verlo voló á sus brazos con un abandono tan sincero, que Felipe sintió profundo remordimiento al pensar el abandono en que la dejó y la indiferencia que le inspiraba aquella linda criatura, cuya falta era amarle.* (1886:290).

(33) EHko edizioaren puntuazioa errespetatu dugu; hein bat desberdina da hiru testuetan. *Lorsque (...), je me suis dit que, n’ayant pu la sauver, vous deviez courir de grands dangers, peut-être même être arrêté déjà, et vous voyez que je ne m’étais pas trompé. Alors, je suis partie, et je m’estime heureuse puisque je vous ai retrouvé.* (1879:230). *Cuando supe la muerte de la Reina comprendí lo inútil de vuestros esfuerzos; descubierta la conspiración, debía estar vuestra existencia expuesta á correr grandes peligros, y determiné dejar Inglaterra.* (1886:290).

(34) Hanitz sofritu dut; bainan ez baniz tronpatu ere, uros niz ikhusten zaitudanaz gueros. (EH). Euskarazkoak gaztelaniazkoari jarraitzeagatik, tarteko esaldi bat trakeski moldatzen du (*ez baniz tronpatu ere*). Honelako zerbait esan nahi du: *Anitz sufritu dut baina ez naiz tronpatu, zoriontsu naiz ikusten zaitudalako. Mucho he sufrido; pero, aunque no me había equivocado, soy dichosa pues que os he encontrado.* (1886:290). Askoz argiago dago frantsesa: *(...) je me suis dit que, n’ayant pu la sauver, vous deviez courir de grands dangers, peut-être même être arrêté déjà, et vous voyez que je ne m’étais pas trompé. Alors, je suis partie, et je m’estime heureuse puisque je vous ai retrouvé.* (1879:230).

Ordu hartan sala guzia jendez bethe zen eta iduri oro hetaz mintzo zirela.³⁵
Doloresek erran zuen:

–Iduri zaut oro gutaz mintzo direla, hobe dugu³⁶ erretiratzea.

Markesa itzuli zen, ikhusi zuen egia zela eta abiatu zen zioela:

–Sarri elgar ikhusiko dugu.

Doloresek behatu zuen Eusebiari; hau kolore hits batzuekin ikharetan zagon.
Bere ganberarat akonpainatu zuen eta han nigarrez hasi zen [Eusebia]³⁷ zioela:

–Ez daut ihardetsi, iduri du ene arribadak alegria beino pena gehiago eman diola.

–Maite baitzaitu eta pena baitu zu ere zure faltaz gu menazatuak giren irris-ku³⁸ beretaz menazatua ikhustea.

–Maite nauela? O! badakit nik, haren plazan, alegria gehiagorekin erreze-bituko nuela. Ikhusiko zuen amodioaren proba bat, ni zer periletan nintzan phensatu gabe. Elgar maite denean zein trixte ahal den hiltzea bat bertzea gabe!³⁹ Zein malurus ahal den bizi gelditzen dena! Formatzen ahal duen desirarik handiena eta biziena da segitzea fite tunbara maite zuena.

(³⁵) Hau da: iduri (zuen) oro hetaz mintzo zirela. EHko edizioan ez da punturik ez komarik bi esaldien artean, hasi *Ordu bartan eta erran zuen* arteraino. Frantses eta gaztelaniazkoan bi orrialdetan adierazten da berriro gizarte aristokratikoaren ispilu zirela Terroreak zabaldu eta betearazitako kartzelak; fribolitatea zela nagusi, ez gertaerekiko jakinmina edo heroismoa. Philippe eta Dolores hizketan gartsuki edo Antoinette zein polita den ikustean, jakinmina sortzen zaie kartzelatuei.

(³⁶) hobe gugu erretiratzea. (EH). –*Me parece que estamos llamando la atención –dijo Dolores en voz baja y sonriéndose. (1886:293). –Je crois que nous provoquons ici une émeute, dit-elle tout à coup à voix basse et en souriant. (1879:232).*

(³⁷) Bere ganberarat acompagnatu zuen eta han nigarrez hasi zen zioela: (EH). Guk 2. perpausaren subjektua ezarri dugu (Eusebia), falta baita. Hau da: Doloresek bere ganberara lagundu zuen Eusebia, eta han Eusebia negarrez hasi zen, zioela: (...). *Dolores miró á Antonia. Aquella estaba pálida y temblaba; su amiga la acompañó á la celda que ocupaban en común. Antonia, ballándose sola con su compañera, dió libre curso á sus lágrimas. (1886:293). Dolorès regarda Antoinette. Celle-ci était toute pâle et tremblait. Son amie la remmena dans la cellule qu’elles occupaient en commun. (1879:232).*

(³⁸) (...) irricu beretaz (...) (EH). –*Es que os ama –contestó Dolores– y está afligido de veros amenazada de los mismos peligros que nosotros. (1886:293-294). –C’est qu’il vous aime, répondit Dolorès, et qu’il est affligé de vous voir menacé de ses mêmes dangers que nous. (1879:232).*

(³⁹) zein trixte ahal den hiltzea (...). *Zein malurus ahal den bizi gelditzen dena!* Perpau hauetan bietan abalek probabilitatea adierazten du, ziurtasun osorik eza: ‘segur aski’, ‘itxura denez’. (...) *¡qué penoso debe ser morir el uno sin el otro! ¿Qué infeliz debe ser el que sobrevive!* (1886:294). (...) *rien n’est plus douloureux que de mourir l’un sans l’autre, et celui qui survit doit être si malheureux pour la suite de ses jours, (...)* (1879:233).

(XLIII)

Doloresek ez zuen ihardetsi. Konprenditzen zuen Eusebiaren arima bethe-
zen zuen tristezia handia. Harena ez zen ttipiagokoa, bainan azkartzen zen
konprendituz zoin util zen haren sakrifizioa.

Memento hartarik izan zen Doloresen baithan bere buruaren hokoloste-
tan⁴⁰ ofreitzeko desira handi bat, hain maite zituen heien urostasunaren segur-
tatzeko.

Eguna phasatu zen berriagokorik gabe. Aldi bat beizik ez ziren presentatu
salan.⁴¹ Salbadorrek ez zituen ikhusi nahi izan. Alde batetik jiten zirenean, ber-
tzetik juaten zen.

–Sofritzen du -zian Eusebiak-.⁴² Zoin othe da haren pena? Zertako hoin
trixte othe da?

Ez zuen jakiten ahal bainan konprenditzen zuen, ez bakharrik ez zela
maithatua, bainan bai oraino Salbadorrek lehen bezala maite zuela Dolores.⁴³
Orhoitu zen zuela bortz urthe Salbadorrek erran ziola Dolores maite zuela eta
haren fartez errekeri zezala mintzatzea Salbadorrekin.⁴⁴ Egun hartaz orhoitza-
pen handi bat atxiki zuen zoina histu baitzen Dolores Arlesetako karmelitatarat
juan zenean.⁴⁵ Bainan momento hartan orhoitzapen hura sekula beino azka-
rrago pharatu zen haren aitzinean, min sendatu bat berriz idekitzen denaren
efektua egin zion.

(40) *hokolostetan ofreitzeko*: holokaustoan eskaintzeko. Lehenago ere agertu da adierazpide hau (XXI).

(41) EHko edizioan komarik ez punturik ez da, azken bi esaldi hauen artean. *berriagokorik gabe*: berririk/
albisterik gabe. *ez ziren presentatu salan*: Eusebia eta Dolores ez ziren presentatu salan. *El día se pasó sin ningún
acontecimiento. Antonia y Dolores se presentaron una sola vez en la sala común.* (1886:294). *Le reste du jour s'écoula sans
d'autre incident. Antoinette et Dolorès ne firent qu'une apparition dans la chambre commune.* (1879:233).

(42) Sofritzen du zian Eusebiak? (EH).

(43) Euskarazkoak frantsez-gaztelaniazko sei esaldi kentzen ditu, ez baitezpada beharrezkoak: lotaratu
aitzin bi andre gazteek eginiko gogoeta zenbait, Chamondrineko gazteluari lotuak.

(44) *errekeri zezala mintzatzea Salbadorrekin*: errekeri zezala Dolores mintzatzea Salbadorrekin. *Errekeritu* aditza
'eskatu' nor-nork erregimenarekin darabil moldatzaileak (*Dolores errekeri zezan XIX*). Badirudi errekerituk
-tzea hartzen duela arruntki, *eskatu/galdatu/galdaginek* bezala. *Entonces se acordó que una mañana Felipe había
solicitado de ella una cita secreta.* (1886:295). *Alors elle se rappela qu'un matin, Philippe avait sollicité d'elle un entretien
secret.* (1879:234).

(45) *De aquella escena había guardado una impresión penosa cuyo recuerdo se borró en su imaginación después que Dolores
hubo dejado el castillo para ir á encerrarse á las Carmelitas de Avignon, (...).* (1886:296). *Elle avait gardé de cette scène
une impression pénible dont le souvenir s'effaça après que Dolorès eut quitté le chateau pour aller s'enfermer aux Carmélites
d'Avignon, (...).* (1879:234).

Orduan konprenditzen zituen oro: Salbadorren ezkontzeko duda handiak, promes sakratu heien biolazioneak. Bezperan haren alderat izan zuen hotzta-sunak erakusten ziozkan zein ziren haren sendimenduak. Lehengo posicione berean aurkhitzen zen. Salbadorrek maite zuen Dolores.

Hortaz seurtatu zenean, bururdiaren azpian burua gorderik nigarrez hasi zen, Dolores, lo zagonak, entzun gabe.⁴⁶ Bortz urthe hartan phasatu guziak jin tzitzazkon aitzinera, eta penak handiagokoak ziren bortz urthe hartan haren amodioa hazi zelakotz.

Gaua hola phasaturik Eusebia goizik jaiki zen. Beztitu eta hurbildu zen Doloresen ofeari, hau lo zagon oraino. Eusebia bere adixkidearen ofearen gainean jarri zen eta beha egon.⁴⁷ Azkenean Doloresen begiak ideki ziren eta behatu zuen Eusebiari.

–O! Nola histua ziren eta penatua iduri duzun! Zer duzu, Eusebia?

–Hainbertze sofritu dut gau huntan!

–Zertako? Nola?

–Salbadorren indiferentzia!

–Bainan ez zitela hola pena, adixkide maitea. Zuk indiferentzia uste duzun hura amodio handi bat da. Salbador kontrariatua da zuk ez duzulakotz esperatu Angleterren. Zuk aurkhitu duzun situazio terribleak pena emaiten eta kontrariatzen du.

Egiten zuen eginahala huni phensamendu guzien ekhentzeko.⁴⁸ Bainan [Eusebiak]⁴⁹ ez zuen segitzerat utzi, erran zion:

–Segur zira Salbadorren sendimenduez? Uste duzu⁵⁰ ez duen bere bihoztean bertze amodiorik?

⁽⁴⁶⁾ hasi zen Dolores lo zagonac entzun gabe. (EH). Komarik ez da edizio horretan. Perpaus erlatiboan joskera bera beherago, atal honetan berean: *Dolores, oraino ofean zagonak, (...)* (hor ere guk jarri ditugu komak). *Hundió su cabeza en la almohada para gritar y llorar sin ser oída por Dolores, dormida á su lado.* (1886:296). *Elle plonge sa tête dans l'oreiller de sa couchette, pour crier et pleurer sans être entendue de Dolores endormie à quelques pas d'elle.* (1879:235).

⁽⁴⁷⁾ Hau da: haren beha egon zen, haren zain egon zen, hari itxoiten egon zen. *Antonia se sentó en el lecho de su amiga y esperó.* (1886:297). *Antoinette s'assit à ses pieds et attendit.* (1879:235).

⁽⁴⁸⁾ Doloresek egiten zuen eginahala Eusebiari pentsamendu guziak kentzeko.

⁽⁴⁹⁾ Subjektua ez da ageri EHko edizioan, guk ezarri dugu: Eusebiak; *bunek* ere ezar genezakeen, baina garbiago dago *Eusebiak* ezarrita (frantsesezkoan lehen perpausean ageri da). *Trataba de obligarla á crear lo que decia para no aumentar sus presentimientos. Pero ésta no la dejó seguir.* (1886:298). *Elle cherchait ainsi à obliger Antoinette à se faire illusion. Mais celle-ci ne la laissa pas aller jusqu'au bout, et, l'interrompant (...).* (1879:236).

⁽⁵⁰⁾ Huste dut (...). (EH). *¿No parece que tenga en su corazón otro afecto?* (1886:298). *Ne croyez-vous pas plutôt qu'il ait dans le coeur quelque autre affection?* (1879:236).

–Zer amodio? -dio Doloresek harritua entzutean egiari hain hurbil zen lenguaia hura-. O! Ez zazula sinhets. Salbadorrek behar du zurekin ezkondu, bada-ki. Oraiko eta geroko egitekoen konzientzia badu eta maite zaitu.⁵¹

–Tronpatzen zira, Dolores; zu zira maite zaituena. Lau urthe separatuak izan eta ondoan, ikhusi zaituenean haren bihotza berriz zuri buruz jarri da. Ai! Ahantzi nau.⁵²

Eta berriz haren begiak nigar khiretsez busti ziren. Dolores, oraino ofean zagonak, bere alderat thiratu zuen eta, nigarrak xukaturik, erran zion eztiki:

–Kalma zite, Eusebia. Imajinazioneak eremaiten zaitu egiatik urrunago. Salbadorrek lehen izan bazuen zonbeit ideia enekin ezkontzeko,⁵³ ene harenganik urruntzea aski izan zen ahanzarazteko. Eta ideia hek berriz ni ikhusi nauenean sorthu balin badira, aski izanen da berriz urrunt nadin zuri itzularazteko haren amodio osoa, zointan baituzu dretxo osoa.

Hitz horiek kalmatu zuten Eusebiaren izpiritua. Ez zen gehiago nigarrez ari. Iduri zuen bere izaite guziaz Doloresen erremersiatzen ari zela, zoina bortxatzen baitzen hari esperantza emaiteko.⁵⁴ Hunek segitu zuen:

–Jainkoak nahi badu libertatea izan dezagun, juanen zira Salbadorrekin. Eta nitaz, berari erran dakodan bezala, joanen niz estranjerrerat eta galdeginen dut atherbe komentu batean.⁵⁵ Han da ene lekhua. Sekula ez niz ezkonduko.

–O! Mila esker -dio Eusebiak-, emaiten derautazu urostasuna eta deskan-tzua.

(51) (...) consientzia (...) (EH).

(52) abantzi nau (EH).

(53) (...) enekin ezkontzeko; ene harenganik (...) (EH). Moldatzaileak bi hitzez laburtzen du jatorrizko testu naroa. *Puede ser que al verme Felipe baya sufrido algunas impresiones que los recuerdos del pasado despiertan en todos los corazones. Pero aquellas impresiones son fugitivas y no amenazan su dicha. Si Felipe ha acariciado durante un momento unas veleidades que le alarmaban, sabeis que mi salida bastó para hacerle renunciar.* (1886:299). *Il se peut que Philippe ait, en me revoyant, subi quelques-unes des impressions que les souvenirs du passé réveillent dans tous les coeurs. Mais ces impressions sont fugitives et ne menacent pas votre bonheur. Si Philippe a caressé pendant un temps des vellétés qui vous alarmaient, vous savez qu'il a suffi de mon départ pour l'y faire renoncer.* (1879:236).

(54) bortxatzen baitzen: eginahalak egiten zituen. *Todo su ser parecía dar las gracias á Dolores, quien se esforzaba en darla esperanzas.* (1886:299). (...) *tout son être semblait remercier Dolorès, qui s'efforça ainsi de lui rendre l'espoir.* (1879:237).

(55) nitaz: niri dagokidanez, nitaz denaz bezainbatean. Diskurtso-markatzaile gisa ez da ohikoa, ez dugu ikusi OEHN. *Tócante a mí, así como ya se lo he dicho á él mismo, iré al extranjero y pediré asilo en una casa religiosa.* (1886:299). *Quant à moi, ainsi que je le lui ai dit à lui-même, je gagnerai l'étranger et je demanderai asile dans une maison religieuse.* (1879:237).

(XLIV)

Amodioa egoista da, eta Eusebiak ez zuen ezagutu Doloresek zuen bihotzmina. Ez zuen xerkatu sakrifizio haren zola, eta, uros entzun zituen deklarazioenez, phasatu zen tormentarik handienetik kalmara eta trankilitatera.⁵⁶

⁽⁵⁶⁾ (...) zola eta urus entzun zituen declaraciones; phasatu zen (...). (EH). *No buscó el fondo de aquel sacrificio, y dichosa por las declaraciones que acababa de oír, esperando recobrar su dicha, del más vivo dolor pasó á un estado completo de calma y tranquilidad. (1886:299). Elle ne chercha donc à sonder les mobiles qui poussaient celle-ci, et, heureuse des déclarations qu'elle venait d'entendre, ne désespérant plus de reprendre sur Philippe son pouvoir ébranlé, elle passa de la vive douleur que nous avons exposé à un état complet d'apaisement. (1879:237).*

XI. PHARTEA. ARGIA¹

Hirur egun phasatu ziren deus berriagokorik gabe. Teilatu beraren azpian, Eusebia eta Dolores bizi ziren separatuak bezala Salvador martir haren ganik, ezen [Salvador], bere dolorea Eusebiari gordetzeko, Doloresen nahiaren arabera, heietarik urruntzen zen.² Jausten balin bazen salara eta nexkatoak han balin baziren, gizonen artean nahasia egoiten zen, halako gisaz nun ez baitziren hari hurbiltzen ahal deus inportant erraiteko zutenean beizik.

Salvadorrek falta zuen[a], erresinazionea zen.³ Bazakien Dolores harentzat arras galdua zela, eta presundegi hartarik atheratzen ahal baziren, jakinen zuela heien artean murru baten alxatzen; phensaketa horietan, nehorekin elherik egin gabe, trixteziarik handienez bizi zen.

Doloresek eta Eusebiak errespetatzen zuten tristezia hura, eta hek ere berak bizi ziren.⁴

Egun batez jin zen Piarres heien libraraztea esperantzan, atherarazirik paper bat⁵ zoina presundegian erakutsi eta Chamondrineko markeser presundegiko

(¹) *Chapitre XIV. Le coup de foudre* (1879:238). *Capítulo XIV. El rayo* (1886:300).

(²) (...) Eusebia eta Dolores bizi ziren separatuak bezala. Salvador martir haren ganik ezen bere dolorea Eusebiari gordetzeko Doloresen nahiaren arabera, heietarik urruntzen zen (EH). Bigarren zatian (*ezen... urruntzen zen*) subjektua falta zaio, edo egokiago dagoke subjektua jarrita, bestela zail gertatzen da ulertzea; horregatik guk *Salvador ezarri dugu (hau edo hura ere jar daiteke)*. *Antonia y Dolores, habitando bajo el mismo techo, vivían como separadas del pobre Felipe, que persistía en alejarse de ellas.* (1886:300). *Antoinette et Dolores vivaient presque séparées de Philippe, quoique habitant sous le même toit que lui, tant il mettait de persistance à se tenir éloigné d'elles.* (1879:238).

(³) *Salvadorrek falta zuen erresinazionea zen.* (EH). *Lo que faltaba á Felipe era la resignación.* (1886:300). *Ce qui manquait à Philippe, à la suite des événements don't nous avons retracé le récit, c'était la résignation.* (1879:238).

(⁴) Berak: bakarrik. *Vivieron solas, (...).* (1886:301). *Elles vécurèrent seules, (...).* (1879:239).

(⁵) Egun batez yin zen Piarres heien libraraztea esperantzan atherarazirik paper bat (...). (EH). *heien libraraztea esperantzan*; haiek librarazteko esperantzan/itxaropenez. *-tea esperantzan* joskera ez da oso ohikoa, OEHN ez da adibiderik agerian, ohikoagoa eta agian egokiagoa da *heien librarazteko esperantzan*; honen antzeko bat ageri da nobelan: *hire ikhusteko esperantza galtzen dudanean* L. Beharbada, *-t(z)ea esperantza izan mol-*

borthak ideki behar baitziren.

Piarresek ez zakien Eusebia han zela, eta ganberan sarthu zenean, ikhusi orduko, egin zuen dolorezko oihu bat.⁶

–Hor zira, anderea?

–Badu hirur egun jina nizala, Piarres -ihardetsi zuen Eusebiak.

Piarresek segitu zuen:

–Bainan paper hau ez da zerbitzatzen ahal hirurentzat bainan bai bientzat.

Eusebiak ez zuen konprenditu, ez zakien zertaz mintzo zen Piarres.

Dolores hurbildu tzitzaion bizitasunekin eta erran zion boz aphalean:

–Aski, Piarres, ez zazula erran hitz bat ere gehiago. Emadaazu salbakondukta.

Piarresek obeditu zuen penarekin, ezen phensatzen zuen berriz ere Dolores Eusebiaren eta Salbadorrenzat sakrifikatzen zela.

Momento hartan haren baithan formatu zen gerla handi bat. Aborreitzen zuen Eusebia, zoina ez baitzen ez haren ahidea eta ez haurtasunetik ezagutua ere, eta zoina bigarren aldikotz heldu baitzen Doloresen egunen irriskuan ezartzera.

–Lehen aldian -erraiten zuen-, horren presentziak jauregian gibelatu zuen ene alaba Salbadorrekin ezkontzetik, eta huna, egun, hoinbertze irrisku eta urhatsen ondotik ardietsi dudan[ean] hemendik atheraraztea, eta beren zorionaren segurtatzea, jiten den berriz gure planen barreatzera.⁷

Mintzatzera abiatu zen bainan Doloresek igorri zuen eta bortha zerratu. Juan zen Salbadorren gana, zoinari erran baitzion Doloresek bere eskuetan zue-

dearekin lotu edo nahastu du: *Erraiten zuen nola esperantza zuen egun batez haren izena merezi zuen bezain gora ezartzea XVIII. Martin-en [Aubry jatorrizko testuan] ordeztartzen da Piarres kartzelazain, hura ordezkatzeko du haren anaia balitz bezala (1879:239; 1886:301); azalpen hau kendua da euskarazkoan. *Este día su presencia á su lado se explicaba por el deseo que tenía de arrancarla con Felipe de todos estos peligros que la amenazaban. Les traía el salvoconducto sobre el cual estaban escritos sus nombres, y que por lo tanto debía dar la libertad á los ciudadanos Chamondrin. (1886:302). (1886:301). Ce jour-là, sa présence auprès d'elle s'expliquait par le désir qu'il nourrissait de l'arracher ainsi que Philippe aux périls qui les menaçaient. Il leur apportait le sauf-conduit sur lequel il avait écrit leurs noms, et qui, par sa teneur, devait rendre la liberté "au citoyen et à la citoyenne Chamondrin". (1879:239).**

(6) Piarresek ez zakien (...). EH). Halaber lerro batzuk beheerago ez izakien ageri da EHko edizioan; hor ere ez zakien ezarri dugu.

(7) (...), eta huna egun hoinbertze irrisku eta urhatsen ondotik ardietsi dudan hemendik atheraraztera, eta beren zorionaren segurtatzea, yiten den berriz gure planen barreatzera (EH). Testuan aldaketa batzuk egin ditugu, esaldiak zuzen josiak ez daudelakoan: *buna* ondoren koma jarri dugu, ardietsi *dudan* → ardietsi *dudanean*, hemendik *atheraraztera* → hemendik *atheraraztea*. *Había trabajado para asegurar su huída y la realización de sus esperanzas, cuando hoy viene otra vez á impedir nuestros planes. (1886:303). Aujord'hui, alors que j'avais si bien travaillé pour assurer leur fuite et la réalisation de leurs espérances, c'est elle encore qui vient déjouer nos plans. (1879:240).*

la salbakondukta.⁸

–Beraz nehirentzat ez da zerbitzatuko -dio Salbadorrek, boza sendimendu eztiz bethea.

–Idek ahal balite borthak bi emazterentzat, hek atheraraziko gintian; bainan batekin athera behar dudana geroz, ez dakit nork salba lion⁹ bertzea. Halako gisaz, nun geldituko baikira hirurak.

–A! -dio Piarresek-, ene indarrak oro galduak izanen dira eta izanen dut ororen peritzen ikhusteko dolor bizia, salbatzeko mirakuluak egin eta ondoan.

Kolerazko nigar bat jin zen haren begietara.

Salbadorrek eztiarazi zuen erakutsiz imposible zela bia athera ziten hirurga-
rrenak han gelditu behar zuenaz geroz eta hirurek beren gisan elgar maite zute-
naz geroz. Hetarik bat ikhusten balin bazen bertzez abandonatua,¹⁰ zer urriki
handia jinen zen utzi zutenen bihotzera! Ez zuten partida bat baizik hartzeko.¹¹
elgarrekin eskapa edo herioaren beha egon.

Piarresek hitzeman zion berriz eginahalak eginen zituela hirurendako baliatzen ahal zen salbakondukt baten ardiesteko.

Juan zen, hitzemanik bere adixkider ahalik fitena itzuliko zela.

Juan zenean, hirurak elgarretaratu ziren.

–Oraino ere ez othe gaituzte gillotinarat galdetuko?¹² -dio Eusebiak.

–Ez dakit; bainan gisa guziez zuekin nahi naiz bizi -ihardetsi zuen Salbadorrek-. Bizi gaiten elgarrekin, ahal dugun bezanbat, herioak harrapatzen bagaitu

(8) (...) bortha zerratu, yuan zen (...) (EH). Beraz guk komaren orde z puntua ezarri dugu, gaztelaniazkoan eta frantsesezko jatorrizkoan bezala. *Puede ser que hubiera manifestado sus sentimientos, pero Dolores lo comprendió y le mandó retirarse. Se fué con Felipe y le dijo que Dolores tenía en sus manos el salvoconducto.* (1886:303). *Mais Dolores, comme si elle eût compris ce qui se passait en lui, fit un signe, et il se retira. Il rejoignit Philippe, auquel il apprit que le sauf-conduit était entre les mains de Dolorès.* (1879:240).

(9) salba lion: salba lezakeen. (...) *pero pues que tengo que salir con una, no sé quién pueda salvar á la otra. De modo que nos quedaremos los tres.* (1886:303). (...) *mais puisqu'il faut que je sorte avec l'une d'elles, comme je sais qu'aucune ne voudra se sauver aux dépens de l'autre, nous resterons ici tous les trois.* (1879:240).

(10) bertzez abandonatua: bertzeek abandonatua. Ergatiboaren orde z egitura pasiboak erabiltzen ditu moldatzaileak, maiz. Ik. *Salbadorrez maithatua XXXVI, Jainkoaz madarikatua XXXII, hitaz sostenitua L.*

(11) *partida bat baizik hartzeko*: hautu/alderdi bat hartzeko. Zailagoa da 'partida (joko) bat aritzeko' gisa ulertzea. Gainera, hurren atalean agertzen da pareko egitura bat: (*hire*) *phartea bartu XLV. No quedaba más que un partido: escaparse juntos ó esperar el fin de la cautividad.* (1886:304). *A tous donc il ne restait qu'un parti: s'échapper ensemble, sinon attendre ensemble le dénoûement de leur captivité.* (1879:241).

(12) –Oraino ere ez othe gaituzte guillotinarat galdetuco, dio Eusebiak. (EH). Guk galdera marka ezarri dugu. Bestelakoa da galdera jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan. *-Persistérons-nous encore à nous fuir? demanda Antoinette à Philippe.* (1879:241). *-¿Persistiremos todavía en evitarnos? -preguntó Antonia.* (1886:304).

elgar ikhus dezagun azken momentotan.

–Ontsa mintzo hiz -dio Doloresek Salbadorri.

Eta, ez ziolakotz gehiago erran¹³ Eusebiak segetua jakin gabe, eman zion eskua Salbadorri.

Elgarrekin egon ziren oferat joateko tenorea jin artio. Bainan ez zuten batiere alusionerik egin salbakonduktaz, ezen Salbadorrek eta Doloresek ez zuten nahi sekula jakin zezan Eusebiak haren arribadak gibelatzen zituela libertatearen hartzetik.

Biharamun goizean jautsi zen Dolores bakharrik salara. Aurkhitu zuen Salbador, izan zuen harekin konferentzia largo bat.¹⁴ Haren linguaia seriosa izan zen.¹⁵

–Jainkoak oro elgarretarazi gaituenaz geroz, goza gaiten emaiten deraukun denboraz, hirritarazi gabe elgarretarik berexiak egonez, bakea eta batasuna gure konsolazione bakharrak direnaz gainean.¹⁶

(XLV)

–Ez ditinat hire sentimenduak jakin nahi, Dolores.¹⁷

–Ez duk bi gauza beizik jakin behar, Salbador: lehena, ez nukala sekula hire

⁽¹³⁾ Ez ziolakotz (*iro erroko adizkia): ez zezakeelako, ezin ziolako gehiago esan Doloresek Salbadorri, (...). *Y como no podía añadir más sin revelar el secreto á Antonia, dió la mano á Felipe.* (1886:304). *Et, comme devant Antoinette elle ne pouvait rien ajouter sans lui révéler ce qui lui avait été caché jusque-là, elle tendit la main à son ami.* (1879:241).

⁽¹⁴⁾ Aurkhitu zuen Salbador: izan zuen (...) (EH). *Encontró á Felipe; tuvo con él una larga conferencia.* (1886:305). *Elle y trouva Philippe et eut avec lui un assez long entretien.* (1879:242).

⁽¹⁵⁾ Noren linguaia? Doloresena ala Salbadorrena? Aitzin esaldiko *harekinen* (Salbadorrekin) ondotik *baren* (noren?) jartzeak ez du errazten irakurketa, baina testuinguruan Dolores da *harenen* aurrekaria. Dolores da subjektua paragrafoan. Frantses-gaztelaniazkoetan ere Dolores mintzatzen da; ondorio bera ateratzen dugu elkarrizketa-gidoiei ohartuta ere. *Elle lui tint un langage à la fois sévère et fraternal. / –Puisque Dieu nous a réunis ici, lui dit-elle, (...)* (1879:242). *Encontró á Felipe; tuvo con él una larga conferencia. Su lenguaje fué severo y fraternal. –Pues que Dios nos reune á todos, (...)* (1886:305).

⁽¹⁶⁾ *direnaz gainean*: direnez gero, direlarik; kausa edo azalpen bat adierazten du. (...) *cuando la paz y la concordia son nuestros solos consuelos.* (1886:305). (...) *alors que la paix et la concorde forment nos seules consolations.* (1879:242).

⁽¹⁷⁾ Ez ditinac hire (...) (EH). Jatorrizko eleberrian (frantsesezkoan) hitz hauek, aurrekoen segidakoak eta paragrafo berekoak, ez dira Salbadorrek esanak, Doloresek baizik. Ik. 1879:242. Baina gaztelaniazko itzulpenak dialogo bihurtzen du Doloresen monologoa, eta hitz hauek Salbadorrek esanak balira bezala agertzen dira. Gaztelaniazko itzulpenari jarraitzen dio euskarazkoak; gainera, solaskidea nori zuzentzen zaion adierazten da, gaztelaniazkoan ez bezala. *–No quiero conocer tus sentimientos. –No debes saber más que dos cosas (...)* (1886:305). (Doloresek) *Je ne veux plus connaître tes sentiments quels qu'ils puissent être. Tu ne dois avoir en vue que deux choses (...)* (1879:242).

emaztea izanen, eta bertzea, Eusebiari erreparazione bat zor diokala. Hori duk hire egitekoa. Hortaz kanpo oro gezurra eta kapriza duk. Ikhusten duk, behar duk hire phartea hartu,¹⁸ gehiago gu desesperarazi gabe hire tristezia espantagarriarekin.

Salbadorrek entzuten zuen, kopeta aphaltik, eta erraiten zuen boz hori entzutean:

–Egia da, arrazoin du! Zer zaut, geruak iduririk ere horren ganik urrundu nahi nuela, presenteak hunen aldean uzten nauenez geroz? Bizi gira hemen bethi hiltzeko bezperan; eskapatzen balin bagira izanen dugu phensaketan egiteko denbora.

Haren ideiak azkenean akort kausitu ziren Doloresenekin. Juramentatu zuen bihotzean atxikiko zuela oraino bere esperantza; aphaltu zen Doloresen eskuaren gainera, zoina alxatu baitzuen bere ezpainenara eta besarkatzen zuela erran zion:

–Prestutasuna eta berthutea hire afoan ditun, arreba maitea; hitaz digno izanen nun.¹⁹

Egun hura izan zen gure ixtorioko hirur presunek phasatu zuten egunik urosena.

Maluroski urostan hainbertze xerkatu eta hainbertze desiratu hak ez zuen egun bat beizik iraun.²⁰

Abendoaren ondarra zen. Presonerrak oro afaldurik salan zauden elheketan, batek bertzeari pena berak khondatzen ziuztela, oro akusazionezko aktaren beha. Bat-batean hirur ehun presuna heien artean harrabots bat entzun zen eta oro izituak jarri ziren. Bortharen aldean zirenak gibelatu ziren eta phusatu ziuztent gibelago zirenak, han lekhu huts²¹ puska baten uzteko.

Gizon bat sarthu zen, hoinetako eta xapel gorri batzuekin, beltzez bezt²².

(18) –(...) *Ya ves, tienes que tomar tu partido para no desesperarnos más con el espectáculo de tu espantosa tristeza. Me destroza el corazón, pero no puede cambiar en nada la situación.* (1886:305). *Donc, prends-en ton parti et ne nous désespère plus par le spectacle de ta tristesse. Elle me déchire le coeur et ne peut changer en rien ce qui est.* (1879:242). Bigarren esaldia ez du itzultzen euskarazkoak.

(19) (...) arreba mattea (...). (EH). Hutsa izan behar du *mattea* horrek, halako formatik ez baita euskarazko moldapenean beste inoiz agertzen. –*La sabiduría y la virtud están en tu boca, hermana mía; seré digno de tí.* (1886:306). –*La sagesse est dans ta bouche, ma soeur. Je serai digne de toi.* (1879:243).

(20) hainbertze desiratu hac (...). (EH). Hemen baino ez da ageri, nobela osoan, *hak* 'hark' aldaera.

(21) hutz (EH).

(22) Guizon bat sarthu zen. Hoinetaco eta chapel gorri batzuekin beltzes besti. (EH). *beztⁱ*: beztitua, jantzia. Ulerkaitz samarra da pasartea, hitzordenaz eta joskeraz ere traketsa: Gizon bat sartu zen, beltzez beztⁱ, oinetako (gorri) eta xapel gorri batekin? Koma ezarri dugu *beltzezen* aitzinetik, hala ulergarriagoa delakoan. *Un hombre acababa de entrar. Estaba vestido de negro con una escarapela encarnada en el sombrero.* (1886:307). *Un homme venait d'entrer. Il était vêtu de noir. Une cocarde rouge était attachée à son chapeau.* (1879:243).

Eskuak paperrez betheak zituen. Lau soldadok konpainiatzen²³ zuten eta aise zen ezagutzea erreboluzioneko tribunaleko aintzindari zonbeit zela. Egun guziez jiten zen gizon espantagarri hura hiltzerat kondenatuak zirener beren listen emaitera.

Egun guziez ikhusteko kostunbrea izanik ere, gizon harek oro ikharetan emanarazten zituen. Bazen han hainbertze gaztetasun, hainbertze odol inozent!²⁴ Zendako hilarazi behar zituzten gillotin terrible haren azpian? Zer gaizki egin zuten? Noren partidak ziren? Kestione inutila. Gizon haren eskua hedatzen zen honen eta gaixtoen gainera hala nola azkarren eta flakoen gainera.²⁵

Gizon itsusi Robespierre deitzen zen hura sarthu zenean, Salbador eta Eusebia, hango kostunbreak oraino ez zazkitenak,²⁶ phusatu zizuten gibelerat, eta, hek lekhurik ez izanez, salatik kanporat athera ziren. Dolores, zer phasatzen zen bazakiena, aitzinatu zen ikhusteko zoin ziren egun hartan hil behar zutenak. Robespierre aitzinatu zen, bere lista athera zuen eta hasi zen gora biharamun goizean tribunalaren aitzinera juan behar zuten guzien deitzen.²⁷

Zer izen nahasdura! Pobreak noblekin, serorak aphezekin, errepublikanoak monarkikoekin, zaharrak gaztekin, oro hon ziren gillotinaren ahoak lephoa pikatzen ahal bazeen.²⁸ Presoner bat deitzen zuen aldi guziez entzuten zen murmura elkhor bat, zoinak irauten baitzuen adinaren, posizionearen eta erakusten zuen pietatearen arabera;²⁹ hurbiltzen zen, malhurusak hartzen zuen bere es-

(23) compainiatzen (EH)

(24) gaztetasun: gazte jende. *Había allí tanta juventud, tanta sangre inocente!* (1886:307). *Il y avait là tant de jeunesse, tant de sang innocent, tant de beauté, tant de dévouement, tant de grâce!* (1879:244).

(25) *La mano poderosa de Robespierre pesaba sobre buenos y malos, fuertes y débiles, y su nombre fue relegado á la eterna execración y al olvidable horror por todos los corazones generosos.* (1888:307-308). *C'est parce que Robespierre a appesanti sa puissante main sur les bons, sur les faibles, sur les timides, que son nom est voué à l'éternelle exécution des cœurs généreux.* (1879:244). Jatorrizko testua Robespierrez mintzo da hemen, baina egunero jiten zen gizon espantagarri hura uxerra da, ez Robespierre; euskal itzultzailearen testuan, ordea, Robespierre bera.

(26) ez tazakitenac (EH).

(27) gora biharamun goizean (...) deitzen: goraki edo ahots gora deitzen biharamun goizean tribunalaren aitzinera joan behar zutenak.

(28) (...) errepublikanoak markikoekin (...) (EH). *¡Qué mezcla de nombres! Los plebeyos con los nobles; monjas y sacerdotes; republicanos con monárquicos; ancianos con niños, todo era bueno con tal que la guillotina no dejase de funcionar.* (1886:308). *Quel mélange de noms! Des plébéiens et des nobles; des religieuses et des prêtres; des royalistes et des républicains; des vieillards et des enfants; des hommes et des femmes, tout était bon, pourvu que la guillotine ne cessât pas de fonctionner.* (1879:244).

(29) (...) pietatearen arabera, hurbiltzen zen (...) (EH). EHko komaren ordezkari gora puntu eta koma ezarrita bereizi ditugu bi esaldiak, errazago irakurtzeko. Murmurak irauten zuen presoneraren adinaren, posizioaren eta hark (murmurak) erakusten zuen pietatearen (jendearen pietatearen) arabera. Euskarazko

kuetan paper tinbratu itsusi hura.³⁰ Haren aldean aita bat, ama bat balin bazen marrumetan hasten ziren ziotela:

–Ai! zendako ez naute ni galdetzen? Horren orde hil nahi nuke.

Dolores gauza espantagarri horri beha zagon. Trixte zen, ikhusi zuen hainbertze gisa hortan juaten! Egun hartan emozioea egun guzietakoa zen. Begiak eta bihotza orotan kostunbratzen dira.³¹ Bat-batean ikharatu zen. Entzun zuen deitzen bere adixkidearen izena, Eusebia de Mirandol. Behatu zuen bere aldean eta ez zuen ikhusi, alegeratu zen. Eusebia atheraia zen Salbadorrekin eta nehork ez zuen izen hor[r]i ihardetsi.³² Robespierrek berriz deithu zuen boz azkarrago batez. Orduan Doloresen begitartea zerutikako argi batez bethe zen eta irri ezti bat egin zuen.³³

–Eusebia de Mirandol! -deithu zuen hirugarren aldikotz boz terribleak.

Dolores hurbildu zen.

–Hemen niz, jauna. Barkha daazu, arras distraita nintzan...³⁴

–Andere Mirandol zira?

–Hura bera.

Doloresek hartu zuen esku segur batekin eta begithartea urgulu sainduz bethea, eta itzuli zen ezteki, irri bat ezpainetan, bere lekhurat.³⁵

Eusebiaren izena zen listako ondarra.

moldapenean Robespierre da deitzailea; jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan forma inpersonalak ageri dira. *Cada vez que se llamaba á un prisionero, se escuchaba un rumor sordo, que se prolongaba más ó menos, según su posición, su edad y su sexo ó la más ó menos simpatía y piedad que inspiraba, (...)* (1886:308). *Chaque fois qu'un prisonnier était appelé, une sourde rumeur se faisait entendre et se prolongeait plus ou moins, selon que son rang, son âge ou son sexe inspiraient plus ou moins de sympathie et de pitié.* (1879:245).

(³⁰) EH edizioan ez dago komarik, guk ezarri dugu, gaztelania-frantsesezko testuei segituz. (...) *y el desgraciado se acercaba, recibía de las manos del alguacil aquel borroso papel timbrado, (...)* (1886:308). *Puis le malheureux s'approchait; des mains de l'huissier, il recevait un horrible papier timbré (...)* (1879:245).

(³¹) *La vista y el corazón se acostumbra á todo.* (1886:309). *Les yeux et le coeur s'accoutument à tout.* (1879:245).

(³²) nehorc ez tzuen izen hori ihardetsi (EH). Guk horri ipini dugu, EHko horiten orde, aitzinago bezala (horri ihardesteko XXXII).

(³³) zerutikako argi batez. argia hitzak ematen dio izena parte edo kapitulari (XLIV-XLVIII atalak); gazt. "El rayo", fr. "Le coup de foudre". Pasarte honetan bezalatsu hurrengo atalean: *Grazia baren* [Doloresen] begithartetik saltatzen zen zeruko argi batek inguratzen izan balu bezala XLVI.

(³⁴) *—Aquí me teneis; dispensadme, ciudadano, estaba tan distraída...*(1886:310). *—Me voilà, dit-elle. Pardonnez-moi, citoyen; il est bien permis de ne pas entendre.* (1879:246).

(³⁵) (...) esku segue batekin (...) (EH). *Ella, sin atender á nada, tomó con mano segura el acta que el alguacil la presentaba y luego fué lentamente á su sitio.* (1886:310). *Pour elle, sans en rien entendre, l'oeil rempli d'une héroïque fierté, elle prit d'une main ferme, l'acte d'accusation qui lui était tendu et regagna lentement sa place.* (1879:246).

–Deithu guziak bihar goizean hamar orenetan jujatuak izanen dira.
Hitz horiek erran orduko, juan zen gizon harrigarri pietaterik gabe hura,³⁶
eta Dolores ezagutzen zutenez inguratua izan zen.

–Malhurusa! Zer egin duzu?

–Hiltzeko presa duzu?

–Zendako presentatu zira ez zaituztenaz geroz deithu?

Haren begi eztiak behatzen zuten trankilki galde horiek egiten ziuztenen gainean, eta boz ezti eta kuraiez bethe batekin ihardetsi zuen:

–Galdetzen dut, guzien nausi den Jainko handi haren izenean, utz dezadaa-
zuen ene sakrifizioaren libertate osoa eta ez dezazuen ene urostasuna turba elhe
banoekin.³⁷ Galdegiten dut oroz gainetik segetetua atxik dezazuen.

(XLVI)

Nehok ez zuen ihardetsi. Haren desira manu bat zen, eta nola orduan ez
baitziren martirak eta presuna bihotz handitakoak arraro, ixtant³⁸ baten buruko
ahantzi zuten eta ez zen gehiago nehor Doloresez mintzo. Phasatu zen urhats
firme batekin, kontent, ororen aitzinean, barkhamendu galdetzen zuela, eta juan
zen Salbadorren eta Eusebiaren gana zoinek ez baitzakiten zer phasatu zen.
Gorde zuen bere kasakaren barnean paper izigarri bizia eman behar zion hura.³⁹
Elheketa arizan zen bere adixkidekin ganbaretarat juateko ezkilak jo artio.⁴⁰
Orduan besarkatu zuen Salbador zioela:

–Gau hon.

Gero hartu zion besoa Eusebiari eta biak juan ziren beren apartamendurat.⁴¹
Eusebia sartu zen lehenik, eta Doloresek ikhusi zuenean korridorrean baxharrik

⁽³⁶⁾ Jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan epaimahaiaren mandataria da hitzak esan ondoan joaten dena.

⁽³⁷⁾ *–Pido que me dejes la libertad de mi sacrificio y que no turbeis mi dicha tratando de disuadirme. (1886:311). Je demande qu'on me laisse la liberté de mon dévouement et qu'on n'en trouble pas le bonheur en essayant de m'en détourner. (1879:247).*

⁽³⁸⁾ icgant (EH).

⁽³⁹⁾ *bizia eman*: bizia eraman. Hau da: Gorde zuen bere kasakaren barnean bizia eraman behar zion paper izigarri hura. *Había escondido bajo la toquilla que cubría su pecho aquel fatal papel. (1886:311). Elle avait caché sous le fichu qui couvrait sa poitrine le fatal papier. (1879:247).*

⁽⁴⁰⁾ *Elheketa arizan zen*: hizketan ari izan zen.

⁽⁴¹⁾ *Después tomó el brazo de Antonia y las dos se dirigieron á su departamento. (1886:311). Prenant ensuite sous son bras le bras d'Antoinette, elle regagna avec elle la cellule qu'elles occupaient en commun. (1879:247).*

zela juan zen presondegi-zein⁴² Martinen gana, zoinak ez baitzakien oraino zer phasatu zen.

–Norat zoaz -galdegiten dio hunek irri batekin.

–Zure bilha nabilan -ihardetsi zion hunek-,⁴³ behar dut komisione bat igorri Piarresi gaur berean.

Martinek behatzen zion atrebitu gabe galdatzera zer zen presa handi hura.

–Bihar tribunalaren aitzinean presentatu behar niz.

–Zu? Ai! uste nuen ahantziko zintuztela.⁴⁴

–Ixilik! Ez hitzik erran hortaz ene adixkider, guzien gainetik enekin bizi den hari, abisa zazu Piarres, eta zure obra honaz errekonpensatua izanen zira.

Deusik gehiago erran gabe utzi zuen Martin eta jua Eusebiaren gana zoina haren beha baitzagon. Biak bilhuzi ziren, ixtant bat mintzatu lehen jauregian phasatu ziuzten egun ederrez eta gero elgar besarkaturik bakotxa bere oferat jua ziren. Doloresek biziki ontsa eta trankil lo egin zuen.

Iratzartu zenean ondoko goizean, senditu zuen alegria saindu batez inguraturua zela, phentsatzen zuen bizi sakrifizioz bethe baten Jainkoaren aitzinean khoronatzeraz zuala.⁴⁵ Bazakien herioa haren beha zagola bainan harrapatuko zuen deus arranguririk gabe, trankila.⁴⁶

Jaiki zen, bere tualeta egin zuen kustuman beino koketeria gehiagorekin. Beztitu zen ailamendi gris batez, xingola zabal eder batez thaila fin eder hura tinkatu zuen eta gibelean floka handi batez estekatu.⁴⁷ Buruaren gainean ezarri zuen xapel redonda gora bat zoinaren azpitik atheratzen baitziren urhe kolore

(42) presondegui zein (EH). *zein* hori, *presondegi-zein* hitz elkartuko bigarren osagaia, *zainduren* aldaera da; ik. *jauregiaren zeintzen laguntzeko* XXIII, ik ere OEH *zeindu* (BN-lab-arb.). -*zain* ere ageri da, noski (*Presundegi -zaina* XXXVI).

(43) nabilan: nembilen. –*Te buscaba –dijo la jóven.*– (1886:312). –*Je te cherchais, répondit-elle.* (1879:247).

(44) (...) ahantziko zintuztela. (EH). *Esperaba que te olvidarían.* (1886:312). *j'espérai qu'on t'oublierait.* (1879:248).

(45) zuhala (EH). Hau da: pentsatzen zuen sakrifizioz betetako bizitza bat Jainkoaren aurrean koroatzera zihoala.

(46) EHko edizioan ez da komarik azken bi esaldi hauetan, guk ezarri ditugu. Jatorrizko testua eta gaztelaniazkoa hedatuagoak baina hutsagoak dira pasarte honetan; euskarazkoa, biziagoa: *Elle ne se méprenait pas sur la portée de l'acte qu'elle dépassait de beaucoup la limite des obligations qu'impose le devoir, elle était sans regrets et sans trouble.* (1879:248). *No se equivocaba: bien sabía que en el acto que iba á realizar entraba la renuncia de sí misma.* (1886:312).

(47) Beztitu zen ailamendi gris batez, chingola zabal eder batez, thaila fin eder hura tinkatu zuen eta gibelean floka handi batez estekatu. (EH). *ailamendi*: abilamendu, jantzi. *Se vistió con un traje de lana gris; sobre sus hombros se puso una toquilla del mismo color, atada detrás del talle; (...)* (1886:312). *Elle se vêtit d'une robe en laine gris; sur ses épaules elle posa un tissu de soie de même couleur, noué derrière sa taille; (...)* (1879:248).

ziren bilo xarmant hek.⁴⁸ Sekula ez zen hain ederra izan. Grazia haren begithartetik saltatzen zen zeruko argi batek inguratzen izan balu bezala.⁴⁹ Belhaunikatu zen eta haren arima egon zen bi oren ixtantean ikhusiko zuen Jainko handi haren aitzinean othoitz egiten.⁵⁰

–Herioa -erraiten zuen-, ez da bizi hobeaiko batetarat eremaiten gaituen bide bat beizik.⁵¹ Ezagutzen ez ditudan lekhu hetara joanen da egun ene arima eta juntatuko da mundu huntan maithatu eta zeruak ailxatu zauzkitan izaite maite heer:⁵² markes Esteberi, zoinaren borondateak eta amodioak segurtatu beitu ene suertea mundu huntan; Marie-Anna markesari, zoinaren bihotzean aurkhitu beitut ama baten amodioa eta eztitasuna; ene aita-ameri, zoinak galdu izan baintuen ezagutu gabe. Lurrean uzten ditudanen beha han egonen niz, heien suerte honarentzat eta deskantzuarentzat othoitz eginez.

Jaiki zen eta hurbildu Eusebiaren ofeari. Doloresek behatu zion momento bat eta behatze trixte batekin murmuratu zuen:

–Ene herioak urostatasuna eman dezanala eta Salbadorrek maitha hezala nik maithatu izan dudana bezala.⁵³

(48) *sobre su cabeza colocó un sombrero alto y redondo; de él se escapaban, descansando sobre su cuello, sus hermosos cabellos rubios; (...).* (1886:312-313). *sur sa tête un chapeau de feutre de forme élevée, tel qu'on les portait à cette époque et d'où ses cheveux d'or descendaient sur son cou, en lourdes bandeaux.* (1879:248).

(49) Grazia haren begithartetik saltatzen zen: haren begitartetik grazia saltatzen zen. *La gracia de su rostro resaltaba como si un rayo de inmortalidad se hubiera reflejado en él.* (1886:313). *La grâce de son visage éclatait comme si un rayon d'immortalité s'y fût reflété.* (1879:249).

(50) Euskal moldatzaileak laburrago adierazten ditu gauzak, baina luzazago otoitzarazten Doloresi. *Se arrodilló, y durante una hora dejó su alma alzarse en aspiraciones ardientes hacia Dios, en quien iba a descansar luego.* (1886:313). *Puis, elle s'agenouilla et, durant une heure, elle laissa son âme s'élever en aspirations ardents vers le Dieu dans le sein duquel elle allait reposer.* (1879:249).

(51) *bizi hobeaiko batetarat: bizi hobeaigo(ko) batetarat.*

(52) *ailxatu zauzkitan: kendu/ebatsi zizkidan: que la muerte me ha arrebatado* (1886:313). *qui sont partis avant moi.* (1879:249).

(53) Ohargarria da Dolores hitanoz ari dela bere buruarekin Eusebiar mintzatzean, zeren Eusebiarekin buruz buru mintzatzean ez baita sekula hitanoz ari. Horrek erakusten du hitanoaren indarra bakarriketan.

(XLVII)

Athera zen ganberatik eta korridorrean aurkhitu zuen Martin, zoinak erran baitzion:⁵⁴

–Zure adixkide Piarres salan zure beha dago, anderea.

–O!, mila esker -dio Doloresek alegriarekin.⁵⁵

Jautsi zen salara. Han zagon Piarres, hits-hitsa eta begiak hantuak. Martinek abisatua bezperan, phasatu zuen gaua karrikan, presundegiko pareter kontra, desesperatua, nigarrez, Dolores ikhusten ahal zuen orenaren beha.⁵⁶

–Zer da, anderea? zer da? -erran zuen ikhusiz sartzen Dolores-. Tribunalean arartzeko markatua zira?⁵⁷ Ez ditake, anderea, deus maneraz, ez dut konsentituko, imposible da. Tronpatu dira. Zer krimaz akusatzen ahal ziuzte? Desertatu duzu edo konspiratu?

–Errezebitu dut atzo⁵⁸ ordrea tribunalean presentatzeko eta denbora berean akusazionezko akta.

–Ai, malhureusa! -dio Piarresek.

–Zendako ez nauzu ekutatu? Zerbitzatu⁵⁹ izan bazinezte nik prokuratu nauzuen salbakonduktaz, memento huntan libro eta uros izanen zinezten.

–Bainan Eusebia hemen izanen zen bakharrrik, galdua.⁶⁰

(54) (...) corridarrean (...) EH). *Dejó la celda, y en el gran pasillo encontró á Aubry, que la buscaba.* (1886:314). *Elle quitta sa chambre. Dans le vaste corridor, elle rencontra Aubry qui la cherchait.* (1879:249).

(55) –¡Oh! Mil gracias –exclamó la joven con alegría. (1886:314). *Oh! merci! s'écria-t-elle avec joie.* (1879:240).

(56) Martinek abisatua besperan phasatu zuen gaua carrican presundeguico pareter kontra desesperatua nigarres, Dolores ikhusten ahal zuen orenaren beha. (EH). *Avisado desde la víspera por Aubry, había pasado la noche en la calle, acurrucado contra las paredes de la prisión, llorando, desesperándose, esperando la hora de poder ver á Dolores.* (1886:314). *Prévenu dès la veille par Aubry, le pauvre homme avait passé la nuit dans la rue, accroupi contre les murs de la prison, pleurant, se désolant, en attendant l'heure où il pourrait rejoindre Dolorès.* (1879:250).

(57) EHko edizioan ez da galdera markarik, bai gaztelaniazkoan eta jatorrizkoan. –¿Qué es, señorita? ¿Qué es? –dijo al verla entrar. – ¿Estais citada para acudir al tribunal? (1886:314). –*Qu'ai-je appris, mademoiselle? fit-il en la voyant. Vous-êtes traduite devant le tribunal? Oh! C'est impossible! Il y a une erreur.* (1879:250).

(58) Errezebitu duc (EH). –*Recibí ayer (...).* (1886:314). –*J'ai reçu (...).* (1879:250).

(59) Cendaco ez nauzu ecutatu? Serbitzatu izan (...) (EH). *ekutatu*: entzun, kasu egin. –*Por qué no haberme escuchado? Si os hubiéseris servido del salvoconducto que os he procurado estaríais en este momento libre y dichosa.* (1886:315). –*Pourquoi ne m'avez-vous pas écouté? Pourquoi n'avoir pas usé du sauf-conduit que je vous avais procuré? Vous seriez en ce moment libre, heureuse.* (1879:250).

(60) –*Pero Antonia estaría allí sola, perdida.* (1886:315). –*Mais Antoinette serait hors d'état de se sauver.* (1879:250).

–Eta zer egiten daut eni andere Mirandol[ek]?⁶¹ Nor da enetzat? Zu bai, zu⁶² ene amodioaren nausia zira, zu ene alaba zira, eta, heriotzeak eremaiten bazaitu, ez niz biziko. Egiazki mirakuluak egin ditut zuen presondegi huntarik atherarazteko; karesatzen nuen oraino zuen uros ikhusteko esperantza, eta horra, andere hori arartu denean ene indar guziak bano izan dira. O! hau ez da justo!...

–Jainkoa gatik, Piarres, ixil zaite eta kalma.

Bainan gizon gaixoak, nigarrez, ez zuen deus entzuten.⁶³

–Alon, Piarres, ni kontent niz hiltzeaz. Ene bizia ez da nesesario nehorri. Neretzat nigar eginen dutenak konsolatuko dira phensatuz egun batez zeruan elgarretaratuko girela sekula gehiago ez separatzekotan.

–Eta uste duzu esperantza hori aski dela? –dio Piarresek marrumetan-. Jau-regiko borthan zure ama hilaren besoetarik hartuz geroz maithatu zaitut⁶⁴ egun guzietz gehiago; ene xarma izan zira, ene uroostasuna, ene bizia. Eta egun, ikhusiz kondenatua zirela setentzia itsusi batez, bihotza xehatzen zaut! Zu, hoin inozenta!...

Baratu zen, haren hitzak gelditu ziren nigarren artean.⁶⁵ Geroxago erran zuen:

–Erakuts datazu akusazionezko akta.⁶⁶

–Zertako? –dio Doloresek, zoinak nahi baitzuen oroer gorde bere sakrifizioa.

–Nahi dut jakin zer krimez akusatzen ahal ziuzten.

(61) –Eta cer eguiten daut eni andere Mirandol? (EH). *Mirandol* → *Mirandolek* zuzendu dugu. Zer egiten daut (...) andere Mirandolek? ‘Zer axola dit (...) andere Mirandolek?’. *daut*: dit (*eman daut ordrea* XXXVII). –¿Y qué me importa la señorita de Mirandol? (1886:315). *Et quoi m’importe mademoiselle de Mirandol!* (1879:250).

(62) Zu bai zu, ene (...) (EH). *Vós sí, porque sois el objeto de mi cariño, vos sois mi hija, (...)* (1886:315). *Elle ne m’est rien, elle, tandis que vous, vous êtes presque ma fille.* (1879:250).

(63) Bainan guizon gaichoac nigarres ez tzuen deus entzuten (EH). *Pero el pobre hombre, desesperado, nada oía. Hablaba con violencia. Su llanto impedía salir las palabras de su garganta.* (1886:315). *Mais il n’entendait rien. Il parlait avec violence. Ses sanglots arrêtaient ses paroles dans sa gorge.* (1879:250). Ondotik segitzen duten bost esaldi, Piarresesen etsipena xeheago kontatzen dutenak, ez ditu moldatzaileak itzultzen, funtsezkoak ez direlakoan.

(64) (...) maithatu zautut (...) (EH). *Desde que en el umbral del castillo de Chamondrin os recogí del seno de vuestra madre espirante, os he amado más cada día; (...).* (1886:316). *Depuis qu’au seuil du château de Chamondrin, je vous recueillais sur le sein tari de votre mère expirante, je vous ai aimé de plus en plus.* (1879:251).

(65) *Se paró y sus acentos se apagaron en suspiros de cólera y de dolor.* (1886:316). *Il s’arrêta, et ses accents s’éteignirent dans des soupirs de colère et de douleur.* (1879:251).

(66) –Enseñadme el acta de acusación. (1886:316). –*Montrez-moi l’acte d’accusation, dit-il tout à coup.* (1879:251).

–Ba ahal dakizu akusazione hok ez dutela fundamenturik.⁶⁷

–Xerkatuko dut abokat handi bat zure defenditzeko eta ez badut aurkhi-tzen nihaurek defendituko zaitut.

–Adixkide maitea, hil behar dut, oro inutil dira, egiten dituzun guziek kon-prometituko ziuzte, eta ez nuzu salbatzen ahalko.⁶⁸

Hitz horiek erran orduko, senditu zuen oihu bat eta ikhusi zuen berriz bez-perako gizon bera kondenatuen deitzen ari zela tribunalean arartzeko.

–Adio, adio -dio Doloresek boz aphalt batekin.

Lehenbiziko aldikotz senditu zuen bihotza xehatzen maite zituen hetarik separatzean.

–Adio ez, sarri artio -ihardetsi zuen Piarresek.⁶⁹

Eta deusik erran gabe urrundu zen.

Doloresek behatu zuen bere inguruetarat eta ez zuen ikhusi ez Salbador ez eta ere Eusebia. Alegeratu zen eta, momento hortarik, tunbarat bere segetetua eremaiteko esperantza karesatu zuen.⁷⁰ Ez zuen nahi sekula jakin zezan Salbadorrek Eusebiaren orde hil zela, hau odiosa izanen tzitzakola beldurrez eta urriki eternal bat izaiten ahal zuela menturaz.⁷¹

Salan bazen aphez saindu bat ere hiltzerat kondenatua.⁷² Kondenatuak ha-

(67) *Ba ahal dakizu: abalek ziurtasuna edo ia ziurtasuna adierazten du egitura edo esapide honetan; aurreko esaldian, ordea, ahal zehar galderan txertatua dago eta galderak adierazten duen zalantzari lotua dela dirudi. Pasarte hau Doloresten ahoan ageri da EHko edizioan, gaztelaniazkoari jarraiki; jatorrizkoan, ordea, Piarresen ahotik atereak dira esaldi hau, aurrekoa eta ondokoa. –Quiero saber de qué crimen os acusan./–Pero ya sabes que estas faltas no pueden tener ni pruebas ni contestaciones. /–Buscaré a un abogado, y si no le encuentro, yo mismo me encargo de defenderos. (1886:316). Je veux savoir de quel crime on vous accuse. Ces griefs ne peuvent avoir ni consistance ni preuves. Je vous chercherai un avocat. Au besoin, je présenterai moi-même votre défense. (1879:251).*

(68) (...) hil behar dut, oro inutil dira eguiten dituzun guziek comprometituko ziuzte, (...). –Amigo mío, todo es inútil: debo morir; todo lo que hagas te comprometerá y no podrás conseguir salvarme. (1886:316). –C'est inutile, mon ami. Si je dois être condamnée, tes démarches te compromettraient sans me sauver. (1879:251).

(69) –Adiós, no –contestó Pedro,– hasta luego. (1886:317). –Non pas adieu! répondit Coursegol. Au revoir! (1879:252).

(70) EHko edizioan ez da komarik esaldi barruan; guk ezarri ditugu, errazago irakurtzeko. Dolores, (...) no vió ni a Felipe ni a Antonia. Se alegró; tenía que las emociones hubiesen podido hacerla perder su ánimo, y desde aquel momento acarició la esperanza de llevar a la tumba el secreto del sacrificio que la costaba la vida. (1886:317). (...) ne vit ni Philippe ni Antoinette. Elle en fut heureuse. Elle redoutait toutes les émotions qui pourraient affaiblir son coeur, et, dès ce moment, elle caressait l'espérance d'emporter avec elle dans le tombeau le secret du dévouement qui lui coûtait la vie. (1879:252).

(71) Ondoren, jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan kontatzen dira, orrialde batean, salan bilduak -gehienak heriotzara kondenatuak- zirenen indarra edo etsi ona.

(72) Saindu kalifikatiboa euskal moldatzailearena da, ez 1879ko testukoa eta ez 1886ko gaztelaniazko itzulpenekoa. Ici un prêtre disait son bréviaire, s'interrompant quelques fois pour répondre à ceux des prisonniers qui, dans ce

ren gana juaten ziren beren bekhatuen kofesatzera eta absoluzionearen izaitera. Dolores bere aldian juan zen, belhaunikaturik bere berri guziak erran ziozkan,⁷³ eta aphezak absoluzioea eman eta ondoan erran zion:

–Haur maitea, emaiten deraukuzu azkartasunaren etsenplua. Zure bekhatuak barkhatuak dira.

–Inozenten othoitzak entzuten ditien hari othoitz bat neretzat.⁷⁴

Bezperan bezala Eusebia de Mirandol deithu zutenean, Dolores presentatu zen eta tribunalerat juan.⁷⁵ Justizia ixtant batez egiten zen.⁷⁶ Egun hartan hameka kondenatu ziuzten, Dolores ondarrrik deithua zen.⁷⁷

–Zure izena? -erran zion presidentak.

–Eusebia de Mirandol.

suprême moment, venaient solliciter de lui la bénédiction solennelle qui, selon la croyance catholique, assure à l'âme la jouissance éternelle du ciel. (...). (1879:252-253). Allí, un sacerdote leía en su breviario, interrumpiéndose para contestar á algunos prisioneros que en aquel supremo momento venían á solicitar su bendición, la cual, según su creencia católica, asegura al alma el gozo eterno del cielo. (1886:318).

⁽⁷³⁾ Dolores bere aldian juan cen belhaunicaturik bere berri guziak erran ciozkan, (...) (EH).

⁽⁷⁴⁾ Hau Doloresek apaizari erantzuna da gaztelaniazko eta euskarazko moldapenetan, solaskidearen txanda markatzen duen gidoi eta guzti. Jatorrizkoan, ordea, ez dago solaskideen txanda aldaketarik, aurreko esaldiaren jarraipena da, apaizak Doloresi esana da hau ere. –(apaizak) *Si estais condenada, la daré la absolución y la pediré que se disponga.* / (Doloresek) *–Al que atiende los rezos de los inocentes, una oración para mí. (1886:319). Si vous êtes condamné, je vous donnerai l'absolution et je vous demanderai d'adresser à Celui qui exauce les prières des innocents, une prière pour moi. (1879:253).*

⁽⁷⁵⁾ (...) tribunalerac juan. (EH).

⁽⁷⁶⁾ Euskarazkoak ez du deskribatzen kondenatuen segizioa, bai frantsesezkoak eta gaztelaniazkoak: hor doa Dolores, salatik tribunalera, soldaduen artean, galtzagabe eta emakume trikotatzaile zirtzil اندانا batek oihuka lagundurik. Euskal moldatzaileak bi hitzez laburtzen du tribunalak nola egiten zuen justizia; ordea, frantsesezko eta gaztelaniazko testuetan zehatzago kontatua dago, ondorio bera adierazi baino lehen: *Le président prononçait un nom. L'individu désigné se levait, répondait aux demandes qui lui étaient adressées. Ses réponses étaient-elles embarrassées, son embaras devenait la preuve de sa culpabilité. Étaient-elles longues, le président lui imposait silence. On entendait des témoins, témoins à charge ordinairement, ceux qui se présentaient en faveur de l'accusé étant mal venus; puis l'accusateur public parlait cinq minutes, et le jury rendait son verdict, selon les termes duquel, l'accusateur ayant requis l'application de la loi, le président acquittait ou condamnait. Sous cette forme rapide, la justice se rendait en quelques instants. (1879:254-255). El presidente pronunciaba un nombre. El individuo designado se levantaba, contestaba á las preguntas que le hacían. Aun cuando sus contestaciones fueran claras, su embarazo se daba por prueba de su culpabilidad. Si eran largas, el presidente le imponía silencio; se oía á los testigos, no siendo escuchados los que iban a favor de los acusados: en seguida hablaba el acusador durante cinco minutos, y luego el presidente absolvía ó condenaba, siendo esto lo más general. / Bajo aquella rápida forma la justicia se hacía en algunos instantes. (1886:321).*

⁽⁷⁷⁾ Egokiago, agian: deithua izan zen. Dolores fue interrogada la última. (1886:321). Dolorès fut interrogée la dernière. (1879:255).

(XLVIII)

Izen hori erran zuenean, entzun zuen bere gibelean garrasia bat. Burua itzuli zuen eta ikhusi zuen, paretari kontra xutik zagola, Piarres, begitharte trixte batekin.⁷⁸ [Hunek] Konprenditu zuen Doloresi bizia gostatzen tzitzaion sakrifizioa.⁷⁹

Beldur izan balitz bezala mintza zadin, [Doloresek] behatze serio bat egin zion,⁸⁰ zoinak erran nahi baitzuen ez zuela balio, oro galduak zirela, mintzatzen bazen galduko zuela Eusebia, Dolores salbatu gabe.⁸¹

(78) EHko edizioan komarik ez da, guk jarri ditugu. Guk honela interpretatu dugu: (Doloresek) ikusi zuen Piarres, paretari kontra zegoela, zutik, begitarte triste batekin. Hau da: *zagola* adizkiaren *-la* atzizkiak *nola* adierazten du. Bestela, mende-perpau osagarriaren marka izango litzateke (ikusi zuen paretari kontra zegoela Piarres), baina testuinguruan ez daukagu hori hain egokitzat. *Con rapidéz dió la vuelta y vió apoyado contra Bridul á Pedro, cuyo rostro expresaba una tristeza profunda.* (1886:321). *Comme elle venait de prononcer ce nom, elle entendit à quelques pas derrière elle un cri mal contenu. Elle se retourna vivement. Au premier rang, parmi la foule, appuyé contre Bridoul, dont le visage exprimait une tristesse profonde, elle vit Coursegol, les lèvres crispées, le visage enfiévré.* (1879:255). Ohar bedi moldatzaileak Piarres (=Coursegol) paretari kontra jartzen duela, 1879ko testuaren arabera Martini (=Bridoul) kontra jarri beharrean.

(79) Gaztelaniazko testuari jarraituz, euskarazkoak ez du subjektua edo subjektuaren genero markarik jarri, eta testuinguruari oihartzun atzeman behar dugu: Piarresek konprentitu zuen Doloresi bizia kostatzen zitzaion sakrifizioa. Horregatik *Hunek* ezarri dugu, argiago ulertzen delako (*Piarresek* ere ezar daiteke). *Acababa de comprender el heroico sacrificio de Dolores.* (1886:321). *Il venait de comprendre l'héroïque sacrifice de Dolorès.* (1879:255).

(80) Hemen ere subjektua falta du perpau nagusiak, eta testuingurutik atzeman daiteke, nahiz ez guttziz argi. Horregatik ezarri dugu: *Doloresek behatze serio bat egin zion* (...). Ordea, gaztelaniazkoan eta batez ere frantsesezkoan genero-markek garbi adierazten dute zein den subjektua. *Como si hubiese temido que hablara, le echó una mirada para imponerle silencio.* (1886:321). *Comme si elle eût craint qu'il ne la traduisit, d'un coup d'oeil elle lui commanda le silence.* (1879:255).

(81) Ondotik, jatorrizko testuan E. Daudetek antzeko kasuak aipatzen ditu, epaiketak egiteko Fouquier-Tinvillek erabili ohi zuen prozedura arinegia kritikatu. *Des faits semblables n'étaient pas rares alors. La précipitation de la procédure était une cause quotidienne d'erreurs, que l'on ne reconnaissait que lorsqu'il n'était plus temps de les réparer. C'est ainsi que l'on avait vu, peu de jours auparavant, un fils condamné à la place de son père, un père condamné à la place de son fils, et un autre malheureux payer de sa tête la similitude de son nom avec le nom d'un accusé, à la place duquel on le traduisit au tribunal et avec lequel il fut guillotiné, Fouquier-Tinville ignorant quel était celui qu'on avait voulu désigner, et trouvant préférable de faire périr deux innocents plutôt que de s'exposer à épargner un coupable.* (1879:256). *Hechos semejantes no eran raros entonces. La precipitación de la forma era una causa diaria de errores, que se reconocía cuando no había tiempo para repararlos. Así fué como se había visto algunos días antes á un hijo condenado en lugar de su padre, un padre en vez de su hijo, y otro desgraciado pagar con su cabeza la similitud de su nombre con el de otro acusado, yendo los dos al cadalso. Fouquier-Tinville, que ignoraba quién había sido el designado, encontró preferible hacer morir dos inocentes mejor que absolver á un culpable.* (1886:322).

Dolores hiltzerat kondenatua izan zen Eusebia Mirandolen izenaren azpian. Jujak abiatu ziren kondenatuak zirenen sala baterat laguntzera, gizon bat jua zelarik heien aitzinera, eta boz fier batekin mintzatzen hasi, zioela:

–Zuek egin duzuen justizia gaizki egina da, ez zaezte⁸² jujak bainan bai gizon hiltzaleak eta inozent hiltzaleak.

Besoak bulharren ginean gurutzatuak, behatzen zuen jujer aire desafiador batekin.

–Gizon hori esteka zazue -dio presidentak.

Bi jandarmek estekatu zuten eta tribunalari buruz erran zuten:

–Jaun jujak, gizon hau interroga zazue eta hunen punizioea eman.⁸³

Piarres zen, zoina[k] entzunik Doloresen setentzia⁸⁴ desidatu baitzuen harekin hiltzea.

–Ai, malurusa! -murmuratu zuen Dolores[ek] nigarretan.⁸⁵

Piarresek behatzen zion eztiki, galdegiten balu bezala harekin hiltzeko aski digno kausitzen zuen, eta denbora berean jujek interrogatzen zuten.

–Inutil da bilha dezazuen zoin den ene kondukta. Nik erranen dudana da: asea niz zuen injustokerien eta inozenten odolaren khurritzen ikhustez.⁸⁶ Monarkikoa niz, aborritzen dut errepublika eta hura zerbitzatzten dutenak, eta ez dut bertze deuserik opinione horren finkatzeko ene odolaren ixurtzea baizik.⁸⁷

(82) ez tzaezte (EH).

(83) *hunen punizioea eman*: honen zigorra eman edo jarri. Bestela, moldatzailea nahasi da eta *huni* izan behar luke. Zailagoa da *hun*en ‘honetzat’ ulertzea, moldatzaileak -*entzat* eta noizbehinka -*endako* atzizkiak erabiltzen dituelako destinatiboan, ez -*en*. *Punizioea*: zigorra. Moldatzaileak jatorrizko testuko (1879) zenbait gauza aldatzen ditu, adib. presidentea ezartzen du akusatzaile publikoaren ordez, edo jendarmeak mintzarazten akusatzaile publikoaren ordez: –*Que se detenga á ese hombre! –exclamó el acusador público—. Dos guardias nacionales se acercaron. El acusador dijo al tribunal: –Ciudadanos jueces, detengo aquí á este sujeto. Que se le interroge y que los ciudadanos decidan su suerte. (1886:322). –Qu’on arrête cet homme! s’écria l’accusateur public. / Deux gendarmes s’avancèrent. L’accusateur, s’adressant au tribunal, ajouta: –Citoyens juges, je traduis cet individu á votre barre. Interrogez-le, et que les citoyens jurés prononcent sur son sort. (1879:256).*

(84) Piarres zen zoina entzunic Doloresen setentzia (...) (EH). Mende-perpau erlatiboaren subjektuari -*k* ezarri diogu. Eta *setentziaren* ordez *setentzia* ezarri dugu (ik. XLVII *setentzia*). *Era Pedro, quien, oyendo condenar á Dolores, había resuelto morir con ella. (1886:322). C’était Coursegol qui, entendant condamner Dolorès, avait soudain résolu de ne pas lui survivre et de mourir avec elle. (1879:256).*

(85) (...) murmuratu zuen Dolores nigarretan. (EH).

(86) –Inutil da bilha dezazuen zoin den ene conducta, nic erranen dudana da, asea niz zuen injustokerien eta inocenten odolaren khuritzen ikhustez. (EH).

(87) Monarkitua niz, aborritzen (sic) dut errepublika eta (...) (EH). Beheraxeago ere *erpublika*, baina *errepublikaren* XXIII. *Soy monárquico, y no tengo otro deseo que sellar con mi sangre la opinión que proclamo aquí. (1886:323). Je suis royaliste et n’ai d’autre désir que de sceller de mon sang l’opinion que je proclame ici. (1879:257).*

–Erhotua da -dio juje batek.

–Ez, ez niz erhotua -dio Piarresek-. Hil bedi errepublika eta biba erregea!⁸⁸

Hoinbertze atrebimenduk koleran emanarazi zituen juja guziak eta hiltzerat kondenatu zuten. Orduan, begithartea argitua hau ere, hurbildu zen⁸⁹ Doloresen ganat zoina nigarrez hurtua beitzagon, eta erran zion:

–Barkhatu behar detazu, anderea, hoinbertze malhur ez jasain⁹⁰ nahi izaitea, bainan heriotzean ere ene lekhua zure aldean da.

–Ene aita!, adixkide maitea! -murmuratu zuen Doloresek.

Eta bere besoetarat thiratu zuen zainak, besarkatua atxiki baitzuen, manatu ziuzten artio sala batean sar ziten gillotinarat iraiteko momentoa jin artio.⁹¹

⁽⁸⁸⁾ errepublika (EH). –*¡Muera la República, y viva el Rey!* (1886:323). *A bas la République et vive le roi!* (1879:257).

⁽⁸⁹⁾ Orduan beguithartea argitua hau ere hurbildu zen Doloresen ganat (...) (EH). *begithartea argitua hau ere*: Piarresi buruz ari dela dirudi, hau da, Piarresek ere begitartea argitua zuela (XLVI.ean agertzen da Doloresek begitartea argitua zuela zeruko argi batek inguratu izan balu bezala). Baina zergatik *hau* eta ez *hark*? Badirudi moldatzailea katigatu dela subjektua (*hau*) perpaus nagusiko aditzarekin (*hurbildu zen*) lotu beharrez eta ez duela testuaren kohesioa behar bezala zaindu, anaforari –kasu honetan erakusleari– dagokionez; askoz egokiagoa zatekeen *Orduan, haren begithartea ere argitua, hurbildu zen (...)*. Gero, Piarresek begitartea argitua zuelako kontua moldatzailearen burukoa da, ez frantses-gaztelaniazko testuetakoa.

⁽⁹⁰⁾ ez jasain (EH). *Jasain* forma OEHn dokumentatua dago.

⁽⁹¹⁾ EHko edizioan ez da komarrik. *Zaina* (presondegizaina, alegia) hemen Piarres da; gogora Martin ordezkatzan zuela, aldizka, zaintzan. *gillotinarat igaiteko*: gillotinara igotzeko (*iran*: *iganen* aldaera). *Y cediendo á un impulso irresistible se precipitó en los brazos de Pedro, quien la tuvo apretada contra su pecho hasta el momento en que se ordenó que los condenados se retirasen á sus celdas.* (1886:324). *Et, cédant à un irresistible élan, elle se précipite dans les bras de Coursegol, qui la tint pressée contre sa poitrine, jusqu'au moment où il fut ordonné aux condamnés de se mettre en route pour regagner la prison.* (1879:257).

XII. PHARTEA.
ADIO

Hok oro tribunalean phasatzen zirelarik, Eusebia de Mirandol irartzartu zen, beztitu eta juan zen salara jateko Doloresekin.¹

Nehon ez zuen aurkhitu, orduan izitu zen ez phensatu zuelakotz zer gerthatu zen bainan beldurtu...² Itzuli zen bere urhatsen gainean³ gizonen alderat, oraino Dolores Salbadorrekin zelako esperantzan. Harrapatu zuen kanpoko burdinen aldean, bakharrrik.

–Eta Dolores -erran zion-, non da?

–Ez dut ikhusi -ihardetsi zion Salbadorrek.

–Ai, Jainko maitea! -murmuratu zuen Eusebiak, koloreak joaiten tzitzazkola.⁴

–Bainan zer da? Eusebia, izitzen nauzu -dio Salbadorrek.

–Ai! Doloresi malhur handi zonbait gerthatu othe zaion beldur niz.

Aldixartzera zoan eta eroriko zen, Salbadorrek, ezagaturik, ez balu besoetan hartu⁵ eta berheala zerbeit alimentu bero emanarazi.

Beldur bera jin tzitzakon Salbadorri eta Eusebia bere ganatu zenean⁶ abiatu

(1) Jatorrizko testuan eta gaztelaniazkoan kontatzen dira, paragrafo luze batean, Antoinette de Mirandolen harat-honatak Doloresen bila (1879:259; 1886:325).

(2) *Dolores faltaba; Antonia se sintió dominada por una cruel emoción: no era que hubiese adivinado la realidad, sino que acababa de presentir una siniestra idea...* (1886:326). *Dolorès manquait. Antoinette se sentit envahir par une émotion douloureuse, non qu'elle eût deviné la réalité, mais parce qu'elle venait d'être saisie d'un sinistre pressentiment.* (1879:258).

(3) Gaztelaniazko lokuzioa kalkatzen du moldatzaileak. *Volvió sobre sus pasos (...)* (1886:326). *Elle revint sur ses pas (...)* (1879:258).

(4) –*¡Ah, Dios mío! –murmuró la joven poniéndose pálida, y bajo la impresión de un invencible horror se quedó inmóvil y muda.* (1886:326). –*Ab! mon Dieu! murmura-t-elle. / En même temps, elle devint toute pâle, et, sous le coup d'un indicible effroi, demeura immobile et muette.* (1879:259).

(5) Salbadorrek ezagaturik ez balu besoetan hartu (EH). *si Felipe no la recoge en sus brazos.* (1886:326). *si Philippe ne l'eût retenue.* (1879:259).

(6) *bere ganatu*: bere baitaratu, bere onera etorri. *Antonia llegó á calmarse bastante para explicar á Felipe (...)* (1886:326). *Antoinette parvint cependant à se calmer assez pour pouvoir expliquer à Philippe la cause de son émoi.* (1879:259).

ziren biak Doloresen bilha, galdeginez orori hea ikhusi zuten. Azkenean Martin heien aitzinean presentatu zen eta berheala galdegin zioten Doloresentzat.⁷

–Zer! Ez dakizue... –dio Martinek ikharetan.

–Ez, ez dakigu deusik.

–Andere Dolores hamar orenetan tribunalean presentatu da.

Bi oihu-garrasia entzun ziren, bat Salbadorrek errabiaz egina, eta bertzea izialduraz Eusebiak egin[a].⁸ Nigar marrumen artean galdegin zioten Martini hobeki esplika zadin.

Ez zakien deusik bezperan akusazionezko akta errezebitu zuela beizik egun hartan tribunalean presentatzeko, eta othoiztu zuela Piarres deitzeko;⁹ goiz hartan bederatzi orenetan athera zela bere ganberatik trankila eta ederki beztitua, eta Piarresekin konbersazione luze bat izan zuela. Deus ez zakien gehiago, sarthu zela beizik tribunalean, bertze akusatuekin.

(XLIX)

Zer berri kruela Eusebiaren eta Salbadorrentzat! Doi-doia xutik zaudela, erraitea imposible den desesperazionezko estatu batean, elgarri behatzen zuten harrituak eta bere ideia nahasien artean egiten zuten zendako Doloresek egia gorde zeen.¹⁰ Hain gozo izanen zen elgarrekin uztea sakrifizioz eta nigarrez bethe bizi bat! Nok baratuko zituen elgarrekin gillotinaren azpirat juateko plazer eztitik?¹¹

–Guri pena emaitaren beldur izan da¹² –dio azkenean Salbadorrek-, phen-satu gabe egia erranez beino pena gehiago emaiten zaukula gordez.

Hitz horien akhabatzen ari zelarik, Martin, urrundua zena, hurbildu zen berriz zioela:

(7) Doloresengatik galdetu zioten.

(8) Bi oihu garrasia, (...) eta bertzea izialduraz Eusebiac eguin. (EH). Azken hitz hori osatu dugu *a* gehituz (*egina*), *zuena* (*egin zuena*) baino nahiagoz.

(9) (Martinek) ez zekien deusik, (Doloresek) bezperan akusazionezko akta errezebitu zuela baizik, (...), eta othoiztu zuela (Doloresek Martin) Piarres deitzeko; goiz hartan (Dolores) bederatzi orenetan athera zela (...). *No sabía más sino que estaba citada á comparecer ante los jueces y le había suplicado llamase á Pedro; (...)*. (1886:327). *Il ne savait rien, sinon que, la veille au soir, Dolorès lui avait appris qu'elle était assignée à paraître devant les juges et l'avait supplié d'appeler Coursegol; (...)*. (1879:260).

(10) *egiten zuten*: Eusebiak eta Salbadorrek esaten zuten, galdetzen zuten.

(11) Noc (...) (EH). *-r-* gabeko formak badira nobela honetan: *bak XLV, nebok L*, etab.

(12) Guri nahigabea emateko beldur izan da.

–Akusatuak itzuli dira tribunaletik. Andere Dolores heiekin da kondenatuen salan.

–Kondenatuen salan! Ai, ene Jainkoa! -dio Eusebiak.

Hitz horiek heien beharrietan errezonatu zuten gillotinarene ahoak bezala, eta bi erho bezala juan sala hortako borthara.¹³

Dolores alkhi baten gainean jarria zen leihoaren aldean. Piarresen kondenatzeko manerak eman zion pena izigarria orduko kalmatua zen. Hau Doloresen aitzinean xutik zagon, behatzen zakola irri ezti batekin, erraiten ziola gogotik hiltzen zela momento terrible hartan hura haren aldean izanez.

Deus ez zitakeen Doloresen begithartea beino trankilagorik momento izigarri hartan,¹⁴ oro ikharetan zaudela hura eta Piarres bakharririk irri ezti batekin elheketan ari ziren.

Eusebia, Salbadorrez segitua, jauzi zen, bere adixkidearen oinetan belhaunikatu zen, marrumaz zagola:¹⁵

–Eusebia, othoizten zaitut Jainkoaren izenean, ez dazkidazula indarrak ekhen hoinbertze nesesario ditudan momento huntan -dio Doloresek.

–Ai, zoin kruela ziren! Zendako ez gaituzu abisatu?

–Zendako erran behar nuen? Zer irabaziko nun?¹⁶ Jainkoak igortzen daukun suerteaz kontentatu behar dugu, eta ez kobardeak bezala hil.

(13) *errezonatu zuten*: durundi egin zuten. OEHn ez dugu ikusi *errezonatu*, bai *resonatu*. *Aquella palabra resonaba en sus oídos lúgubre y sorda como la cuchilla de la guillotina. Semejantes á dos fantasmas, transidos de dolor, se encaminaron hacia el siniestro sitio, donde pronto el verdugo iría á vestirles el último traje.* (1886:328). *Ce terrible mot retentissait à leurs oreilles, lugubre et sourd comme le couperet de la guillotine. Semblables à deux fantômes, tordus par la douleur, ils s'acheminèrent vers le sinistre endroit où le bourreau procédait à la dernière toilette.* (1879:260-261).

(14) trankilagoric momento izigarri hartan oro ikharetan zaudela (...) (EH). Guk koma ezarri dugu bi perpauz juntatuen artean. *Nada más tranquilo que el bermoso rostro de la joven y la cara enérgica de aquel que guardaba todavía las huellas de las lágrimas que un momento de desesperación había arrancado de sus ojos.* (1886:330). *Rien de plus calme ne se pouvait voir que ce délicat visage de jeune fille et cette figure énergique qui gardaient encore la trace des larmes qu'un moment de désespoir avait arrachées à leurs yeux.* (1879:262).

(15) EHko edizioan ez da komarik, guk ezarri ditugu. *Antonia, seguida de Felipe, se lanzó hacia Dolores. Se arrodilló delante de ella, y echando su cabeza en las rodillas de su amiga, dió libre curso á su llanto.* (1886:330). *Antoinette, suivie de Philippe, s'élança vers Dolorès, s'agenouilla devant elle, et, jetant sa tête sur les genoux de son amie, elle donna un libre cours à ses sanglots.* (1879:262).

(16) Cer irabacico nun? (EH). Moldatzaileak hemen *nun* darabil *nunen* ordez; bestetan *nun* hitanozko forma da 'nauñ' (hau da, 'naiz') adierazteko (*Ni ez nun saindu, gizona nun L*) baina Dolores eta Eusebia ez dira elkarrekin noka mintzatzen.—*Es que quería evitar estas escenas dolorosas. Hay que contentarse á sufrir la suerte que nos está reservada y no exponernos á un eternecimiento inútil y morir como cobardes.* (1886:330). *C'est que je voulais éviter ces déchirements douloureux. Il faut se résigner, subir le sort qui nous est fait, et ne pas nous exposer par un attendrissement inutile à mourir en lâches.* (1879:262).

Gisa hortan mintzatu eta ondoan, Doloresek bere aldean jarrarazi zuen Eusebia, mintzatzen tzitzakola lenguaie firme eta ezti batekin. Paperrak kanbiatuak ziren. Hiltzera zuanak konsolatzen zuen bizi gelditzen zena.¹⁷

Bi nexkatoak mintzo zirelarik, Salbador ikharetan, koloreak galduak, ukhomoiloak zerratuak, kolera bero batekin interrogatzen zuen Pedro eta hunek erranzion zer gerthatu zen.¹⁸ Inbidiaz bethe zen Piarresentzat zeren Doloresekin hiltzeko zoriona baitzuen eta xerkatzen zituen bide guziak Robespierre espartagarriaren kolera bere buruaren gainerat ekharrarazteko eta hain maite zuen harekin gillotinarene azpirat juateko.¹⁹

Piarresek khondatu zion modestiarekin bere ixtorioa. Desesperatua ikhuserik Dolores kondenatua, ez ziola sofri haren galtzeak emaiten zion pena.²⁰

–Zonbat preferiblea den hire suertea enari -dio Salbadorrek khirestasunekin-. Nahi nitek hire plazan izan eta hil.

Doloresek entzun zituen hitz horiek. Hurrundu zen Eusebiaren ganik Salbadorri hurbiltzeko eta erranzion:²¹

–Jainko maitea gatik, Salbador, ez hadila gisa huntan mintza. Nahi gabe presentatzen zauk tenorea egin hituen promesen bethetzeko.²² Jainkoak egun huntan erakusten dauk bere borondatea. Bere ganat deitzen nik. Diok enekin hil nahi hukeela. Ez duk hil behar. Behar duk bizi, hire hitzetan fede izan due-

(17) Hiltzera zuhanac (...) (EH). *Hiltzera zuanak*: hiltzera zihoanak (Doloresek).

(18) colera bere batekin (...) (EH). (...) *en una agitación violenta que revelaba una calentura violenta, interrogaba á Pedro, y éste le dijo lo que acababa de suceder.* (1886:331). (...) *dans une agitation qui révélait une fièvre violente, interrogeait Coursegol et apprenait de lui ce qui venait de se passer.* (1879:262).

(19) (Salbadorrek). *Il cherchait par quels moyens il pourrait, lui aussi, attirer sur sa tête les colères de l'accusateur Fouquier-Tinville et se faire envoyer sans retard à l'échafaud.* (1879:262). (...) *y buscaba todos los medios para atraer sobre su cabeza la cólera del acusador Fouquier Tinville, y hacerse conducir con ella al cadalso.* (1886:331). Beraz euskal moldatzaileak Robespierre ezartzen du jatorrizko eleberriko Fouquier-Tinvilleren ordeaz, nagusia mutilaren ordeaz.

(20) Desesperatua ikhuserik Dolores kondenatua ez tziola sofri haren galtzeak emaiten zion pena. (EH). Edizioan *ez tziola sofri* ageri da; bestalde, ez dago komarik. *ez ziola sofri*: ez ziola/zezakeela sufri. Aditzaren elipsia dagoke: khondatu zion/ khondatzen zuen/zioen ez ziola sofri (...). *Desesperado de ver condenar á Dolores no quería sobrevivir al ser querido que le arrancaban.* (1886:331). *Désespéré de voir condamner Dolorès, il avait voulu partager sa destinée, se sentant en ce cruel moment des entrailles de père et ne voulant pas survivre au cher objet qui lui était ravi.* (1879:262).

(21) Hirundu cen (...) (EH). *Hirundu* aldaerarik ez dugu aurkitu OEHn, horregatik *burrundu* ipini dugu, ahoskeraren idazkera kontua delako (*i* eta *r* aise truka edo nahas daitezke *u* edo *ü* eta *rrekin*), EHko *birundu* hori kopia- edo inprimatze-hutsa izatea baztertu gabe. *Se alejó de Antonia para acercarse á Felipe, y le dijo:* (...) (1886:331). *Elle s'éloigna d'Antoinette, s'avance vers Philippe et lui dit:* (...) (1879:263).

(22) (...) *présentatzen zauk* (...) (EH).

narena bai hiz.²³ Hire izena fartitu behar duk eta nehor ez duk Eusebia beino dignoago alxatzeko.²⁴

(L)

Salbadorrek ixilarazi zuen bizitasunekin:

–Ni ez nun saindu, gizona nun. Zer erraiten dautan promesez eta egitekoez? Zerbeit erran edo hitzeman badut ere, ez badaunat erran maite hutala, eta hitzeman banu ez hire maithatzea, gezurra erran nion:²⁵ leithzan ene bihotzean, han ikhusiko dun hire izena; hire izena dun lekhu guzietan,²⁶ eta erakuts daan hik, emazte azkarra, nola iresten ahal baita gure biziaren alegria eta tormenta izan den nahi bizia.²⁷ Orhoit hadi pasatuaz, Dolores, gure gaztetasuneko lehen orenak, gure bihotzak amodio berarekin jakin gabe norat zazin eta zer nahi zuten iratzartzen ziren momento hura.²⁸ Ez zakinat zer phasatzen zen hirean, bainan

(²³) *¿Quisieras morir conmigo dices? No debes morir. Tienes que vivir porque perteneces á la que tuvo fe en tus juramentos.* (1886:331). *Tu voudrais mourir avec moi, dis-tu? Il ne faut pas mourir. Il faut vivre, car tu appartiens à celle qui eut foi dans tes serments;* (1879:263).

(²⁴) *izena fartitu:* izena partitu edo banatu norbaitekin, partekatu. *Te debes á tu nombre, y ninguna fué tan digna como Antonia de llevarle.* (1886:331). *tu te dois à ton nom, et nul ne fut plus qu'Antoinette digne de le porter.* (1879:263).

(²⁵) (...) hitzeman banu ez hire maithatzea guezurra erran nion: (EH). *hitzeman banu ez hire maithatzea:* hitzeman banu hi ez maitatzea. *gezurra erran nion:* gezurra erran niron, erranen nuen; alegiazko iragana da. Esan dugunez, *iro aditz erroa baldintzazko perpausetan erabilia da, baldintzaren ondorio adizkietan (apodosia). *A pesar de lo que haya dicho, de lo que haya prometido, si no te dijera que te amo, y si te prometí no amarte, mentiría (...).* (1886:332). *Quoi que j'aie dit, quoi que j'aie promis, si je ne te disais pas que je t'aimais, si je ne promettais pas de t'aimer toujours, j'ai menti.* (1879:263).

(²⁶) Leithzan ene bihotzean; han ikhusiko dun hire izena; hire izena dun (...) (EH). *lee en mi corazón, allí verás tu nombre; tu nombre es el único que está en todas partes, (...).* (1886:332). *Lis dans mon cœur; vois-y ton nom, ton nom seul écrit partout.* (1879:263).

(²⁷) nola irestea [?; ez da garbi ikusten azken letra] ahal baitira (...) (EH). Guk iresten ahal baita ezarri dugu. Moldatzailea nahastu bide da *baitira* idaztean; agian, objektu plurala itzuli nahian (*las ardientes aspiraciones*) lehenik adizki plurala jarri du (*baitira*), gero singularrean itzuli (*nabi bizia*) eta azkenean adizkia zuzentzea ahantzi. *iresten:* suntsitzen, galtzen, ahitzen. (...) *enseñame tú, la mujer fuerte, cómo se llegan á abogar las ardientes aspiraciones de un amor que ha sido la sola alegría, el solo tormento de nuestra vida.* (1886:332). (...) *apprends-moi, toi, la créature courageuse, toi, la femme forte, comment on parvient à étouffer les ardents aspirations d'un amour qui a été la seule joie, le seul tourment de votre vie.* (1879:263). Ohargarri denez, frantsesezkoan *votre vie* dio eta gaztelerazko itzulpenean *nuestra vida*.

(²⁸) (...) momento hora. (EH). *Orhoit hadi pasatuaz, (...)* *leben orenak, (...)* *momento hura* aposizioko komunzadura ohiz kanpoko da. Ohikoena *Orhoit hadi pasatuaz, (...)* *leben orenez, (...)* *momento hartaz* dateke. Koma

eneak ez din phensamendu bat beizik izan, karesatu esperantza bat beizik: hitaz ene esposaren egitea. Esperantza hartaz bizi nun, egin din ene egunen animoa eta desesperazionea, dolorerik zorrotzena eta alegriarik garbiena.

Gisa hortan mintzo zelarik boz erdi aphalt batean, inketatu gabe nehok entzuten zuen, Eusebia hurbildu zen eta espian zagon:

—Ail, amets inutil bat zen enea -segitu zuen Salbadorrek Eusebia ikhusi gabe eta Dolores entzun gabe, zoinak nahi baitzuen ixilarazi-. Hitzemaitea bizitze modest bat, beraz digno den emazte batekin, hori anbizione kulpable bat da? Bizkitartean amodio hartaz mintzatu hautan lehen aldian erran hautan:²⁹ “Eusebia hor da, ezkont hadi!”. Eta nola nik ez bainuen nahi, erran huen berriz: “Jainkoari hitzemana nuk!”

—Ez zen egia? -dio³⁰ Doloresek burua aphaltzen zuela.

—Ez, zeren eta hik ere maite bainindunan eta sakrifkatzen hitzan ez zakinat zer egitekoer, ene aitak ez baiginituen gibelatuko, hitaz sostenitua izanik atrebitu izan banintz egiazen erraitera.³¹ Ez huen nahi izan, jua hintzan eta probidentziak ezarri gitin bat bertzeari buruz. Orduan esperantza bat eman hetan gero kitatzeko.

ezarri dugu *leben orenak* eta *gure bibotzak* artean. *norat zazin: nora zihoazen. Recuerda el pasado, Dolores, las primeras horas de nuestra juventud, aquella existencia en que nuestros corazones, sin saber lo que querían y á donde iban, se despertaban con la misma ternura.* (1886:332). *Souviens-toi du passé, Dolorès, des premiers heures de notre jeunesse, de cette existence à deux où nos coeurs, sans savoir ce qu'ils voulaient, où ils allaient, s'éveillaient à la tendresse.* (1879:263).

(²⁹) *amodio hartaz mintzatu hautan leben aldian erran hautan: amodio hartaz mintzatu hindudan lehen aldian erran hidaan: (...)*. Bi baliorekin ageri da *hautan* hitanozko forma; bigarren balioan ‘hidaan/hidanen’, *hetan* eta *hindatan* formekin batera (*erran hetan gosea hintzala XXXI, hiri behatu gogo nintzan egunean ez hetan hibaurak kofesatu (...)*)? L, *Orduan esperantza bat eman hetan gero kitatzeko L, Hik bire bibotza ideki hindatan XXI*).

(³⁰) *Moldatzailak orainaldia darabil batzuetan, iraganaldiaren orde. —¿No era la verdad?—dijo la joven con timidez.* (1886:333). *—N’était-ce pas la vérité? demanda timidement Dolorès.* (1879:264).

(³¹) (...) maite bainundunan eta sakrifkatzen hizan etz tzakinat (...). (EH). EHko edizioak *maite bainundunan* dio, baina guk *bainundunan* aldatu dugu, *bainundunan* hutsa delakoan: alde batetik, *bainundunan* da hainbat eskualdetan dokumentatua den aldaera (Baigorri, Aldude, Urepel, Bidarra, Hazparne, Uztaritze —*nindüianekin* batera—, ik. Yrizar: 1999a: 112, 194, 225, 273) eta, bestetik, adizki batzuetan *u* agertzen da *iren* edo *agian üren* ordezt EHko edizioan (*zutuen XVIII, dutu etab.*). *sakrifkatzen hitzan*: EHren edizioiko (*sakrifkatzen*) *hizanen* ordezt *hitzan* ‘hintzen’ ezarri dugu (XL atalean bezala: *itzultzen hizanean* → *itzultzen hitzanean*), denbora komunztadurak hala eskatzen duelako; gehienetan, ordeza, *hizan* ‘haizen’ da (ik. beherago *hintzan* ‘hintzen’ eta *bizana* ‘haizena’; beheraxeago berriro *baibintzan* ‘baihintzen’ eta *bizana* ‘haizena’). Bestalde, koma ezarri dugu *gibelatukoren* ondoren, hurrengo perpausaren subjektua *ni* dela errazago ulertzeko. *Hitzaurrean adierazi dugunez (2.2.4.5.), etz tzakinat hori ez zakinat* transkribatu dugu. —*No, porque tú también me amabas y te sacrificabas á no sé que deber: mi padre no me hubiese exigido el cumplimiento si, sintiéndome sostenido por tí, me hubiera atrevido á decirle la verdad.* (1886:333). —*Non! Car tu m’aimais et tu te sacrifiais à je ne sais quel devoir de convention dont mon père n’eût pas exigé l’accomplissement si, me sentant soutenu par toi, j’avais osé dire la vérité.* (1879:264).

Eusebia berriz jin da. Orai ikhus ezan hire obra. Hemen gitun hirurak berdin kondenatuak, hi hiltzera, ni pena horren soportatzera, Eusebia ene maithatzera.

–Uros nuk hiltzeaz -ihardetsi zuen Doloresek irri ezti batekin.

–Zendako atzo berri maluros hori jakin huenean ez erran:³² malhuos gira mundu huntan, eternitateak libratuko gaitu hain guti merezitu ditugun gaitz hotarik eta seguratu gure bihotzer hainbertze desiratzen duten unionea, haugi elgarrekin hil gaiten!

–Nik hi hilaraz?

–Ez zunan bizitzera uztea bezan³³ krudel izanen. Badakin zer izanen den ene biziaz, mundu huntan hire ikhusteko esperantza galtzen dudanean arrunt? Othoitz luze bat herioari fite ene bilha jin dadin.

–Salbador! Salbador! -murmuratu zuen Doloresek erreprotxu egiten zakola-, hi hiz gisa hortan mintzo hizana, hire arimari bertze bat josi dukana, hi jadanik espos hizana, zeren eta hire aitaren hil ofearen aintzinean Eusebiarekin belhaunikatu baihintzan eta aphez batek benedikatu baitzintuzten?³⁴ Erreprotxuak egin deztak -segitu zuen Doloresek-, zer bide dute?³⁵ Nor da kulpable? Ni niz? Ez deat erran bethi: “egitekoak hire ganik urruntzen nik”?³⁶ Ez deat erakutsi ehun aldiz hire esperantzen inutiltasuna?³⁷ Eta hiri behatu gogo nintzan egunean ez hetan hihaurek kofesatu Eusebiak hire promesa eta hire fedea bazituela?³⁸ Uste

(32) ez erran; (EH). Guk bi puntu ezarri ditugu, EHko puntu eta komenaren orde.

(33) *bezan*: bezain. Ik. Hiztegia, II. Eranskina.

(34) Komak ezarri ditugu hiru perpaus juntatuak bereizteko, EHko puntu eta komen orde. Galde-perpau sak dira (hondarrean galdera-marka dago), gaztelaniazkoaren urratsetan dabil euskarazkoa; frantsezkoan, ordea, harridurazkoak dira perpaus juntatuok. —*Felipe!* ¡Felipe!—murmuró Dolores con acento de reproche, —eres tú el que hablas así; tú, que has ligado un alma á la tuya; tú, que ya eres esposo, porque al lado del lecho de muerte de tu padre Antonia y tú os arrodillásteis juntos bajo la mano de un sacerdote que os bendijo? (1886:334). —*Philippe!* Philippe! murmura Dolores d'un accent de reproche. Est-ce toi qui parles ainsi, toi qui as lié une âme à la tienne, toi qui es époux déjà, car, au lit de mort de ton père, Antoinette et toi, vous vous êtes agenouillés ensemble sous la main d'un prêtre qui vous a bénis! (1879:265).

(35) (...) cer bide dule? (EH). *Erreprotxuak egin deztak -segitu zuen Doloresek-* idaztean, moldatzaileak ahantzi du Salbador isilik gelditu zela adieraztea: *Felipe no contestaba.* (1886:334). *Philippe ne répondit pas.* (1879:265). Eta oharkabean paragrafo berri bat irekitzen du; guk, ordea, nahiago izan dugu Doloresean jarduna eten gabe, paragrafo bakarrean ezarri. *zer bide dute?*: zertara zuzentzen dira? Edo bestela: zer arrazozi, zergatik edo motibo dute? —*¿á qué conducen?* (1886:334). *A quoi servent-ils?* (1879:265).

(36) Moldatzaileak gaztelaniazko testuari jarraitzen dio: *¿No te he dicho siempre: el deber me aleja de tí?* (1886:334). Jatorrizkoan, ordea: *Ne t'ai-je pas dit toujours: Le devoir t'éloigne de moi?* (1879:265).

(37) Ez deac erakutsi (...) (EH). *¿No te he demostrado cien veces la inutilidad de tus esperanzas?* (1886:334). *Ne t'ai-je pas toujours démontré l'inanité de tes espérances?* (1879:265).

(38) Eta hiri behatu gogo nintzan egunean? Ez hetan (...)? (EH). EHko bi galde-perpau setan esana

dut ez dudan deus akusatze korik nihauri.³⁹ Gehiago dena, ez dut herioa bilhatu. Hiltzen niz Jainkoak manatu daulakotz. Erresinatzen niz. Eta erresinazione hori ene kuraia ttipiaren proba balin bada, nahi nuke etsenplu horrek hire arima azkar dezan. Espantatuko hiz gehiago, hortako errespetatuko duk.⁴⁰

Lenguaia hori entzun zuenean erori zen Salbadorren kolera; ez zen gehiago irratatua bainan bai penatua.

Bat-batean heien giblean nigar marruma bat entzun zen. Itzuli ziren eta ikhusi zuten Eusebia belhaunikatua.

–Barkhatu -murmuratu zuen Eusebiak nigarra zariola.

Doloresek xutiarazi zuen.

–Ai! barkhatuko deraiztazu, Salbador, sofriarazi dauzkizutan guziak? -galdegin zuen Eusebiak.⁴¹

Salbador nigarrez zagon, eman zion eskua Eusebiari.

–Ai! -dio Doloresek-, arima pedatzutan ezartzen deitazue hainbertze indar behar dudan momento huntan. Ni hiltzen ikhusteko desesperazioneak eremaiten ziuzte biak egia beino urrunago. Hi[k], adixkide maitea, ene ahizpa Eusebia, errezebitu huen promes sakratu bat, eta hik, Salbador, egin huen libroki, konplitzeko borondatearekin.⁴² Hau da ahantzi behar ez duzuen gauza bakharra. Hortaz kanpo, oro gezurrak dira.

batean bildu dugu, hala egokiago delakoan eta gaztelania-frantsesekoei segituz. *biri behatu gogo nintzan*: hiri entzun/kasu egin nahi nuen. Adiera honetan *behatu* aditza *da* edo *nor* motakoa da (*biri behatzen banintz XLI*) baina kontua da moldatzaileak *behatu gogo nintzan* dioela eta ez *behatu gogo nuen*, OEHko adibideetan ikusi dugun bezala (ik. Hiztegia, II. Eranskina). *Y el día que iba á escucharle, ¿no fuiste tú el que confesó que Antonia tenía tu promesa y tu fe?* (1886:334). *Et le jour où j'ai été sur le point d'écouter d'un coeur moins résistant, n'est-ce pas toi qui m'as avoué qu'Antoinette avait ta promesse et ta foi?* (1879:265).

(³⁹) *Me parece que no tengo nada que reprocharme.* (1886:334). *Je n'ai donc rien à me reprocher.* (1879:265).

(⁴⁰) *Te espantaré, mas por esto mismo debes apresurarte á respetarlo.* (1886:334). Jatorrizko eleberrian, azken esaldiaren aitzinean beste bat dago, zentzua ematen diona: *Place-toi sans arrière-pensée en face du seul parti qui soit digne de ton passé, de ton coeur, de ton nom. Plus il t'épouvante, et plus tu dois te montrer pressé de l'embrasser.* (1879:265).

(⁴¹) (...) sofriaraz dauzkizutan guziak! galdeguin (...) (EH). Galdera-marka ezarri dugu, EHko edizio harridura-markaren ordeiz, *galdegin* 'galdetu' aditzarekin hobeki doalakoan; gaztelarazkoan eta frantseserazkoan ere hala da. –¡Ay! ¿me perdonaréis Felipe todo cuanto os he hecho sufrir?—preguntó Antonia. (1886:335). –*Philippe, me pardonnez-vous?*—demanda Antoinette. (1879:266).

(⁴²) Hi, adixkide maitea, ene ahizpa Eusebia, errezebitu huen promes sakratu bat, eta hic Salvador eguin huen libroki komplitzeko borondatearekin (EH). Beraz *hi* → *bik* zuzendu dugu. Koma ezarri dugu *libroki* ondoan, testua errazago ulertzeko. *Tú, querida amiga, mi hermana Antonia, recibiste una promesa sagrada, y tú, Felipe, la hiciste libremente con la voluntad de cumplirla.* (1886:335). *Toi, ma chère amie, ma chère soeur Antoinette, tu as reçu une promesse sacrée que toi, Philippe, tu as faite librement, avec la volonté de l'accomplir.* (1879:266).

(LI)

Doloresen bozak iduri zuen haren arimak ixtantean phausatu behar zuen zeru eder hari prestuz idekia zela.⁴³ Momento izigarri hartan Jainkoak erakutsi izan balazko bezala legeak hobeki, mintzo zitzeen munduko egitekoez, erresinatzekeo behar orduaz eta sakrifikatzeakoaz.⁴⁴

–Nahi dut enekin tunbarat ereman ene hiltzeaz konsolatuko zireztelako segurtamena, elgar maithatuz ene orhoitzapenetan.⁴⁵

Hitzeman zazkoten nahi zituen guziak, inkapableak hainbertze borondateri erresistitzeko.⁴⁶ Bere sakelatik athera zuen Piarresek eman salbakondukta eta eman zion Salbadorri, zioela:

–Hau zuen libertatea da, salbakondukt hunekin hemendik atherako ziezte eta lekhu segurrerat juanen.⁴⁷ Han jakinen duzue miserablen arruina eta egiaren eta berthutearen triunfa. Oren hura jinen da, zeren eta geroa ez baita gaixtoentzat eta ez soberbioentzat, bainan bai humilentzat, jenerosen eta honentzat.⁴⁸

Eusebiaren eta Salbadorren nigarrak eta desesperazionea handitu ziren. Gisa hortan mintzatu zen oren bat eta gero othoiztu zituen bere adixkideak athera

(43) (...) prestus (...) (EH). *prestuz idekia*: maileguz edekia (edo idokia, kendua, aterea). Doloresen ahotsak iduri zuen maileguz aterea zela haren arimak istantean pausatu behar zuen zeru eder hartatik. *Su voz parecía haber pedido prestado á la eternidad, en la que su alma iba á entrar, un admirable eco, como si se ballase encima de un mundo mortal á donde comprendía mejor el equilibrio y las leyes.* (1886: 335). *Sa voix empruntait à l'éternité dans laquelle son âme allait entrer un admirable écho, comme si, planant déjà au-dessus du monde mortel, elle en eût mieux compris l'équilibre et les lois.* 1879:266).

(44) mintzo zizeen (EH). Guk *mintzo zitzeen* ezarri dugu; ik., adib. *zitzetan* XXXV. Hau da, (Dolores) mintzo zitzaien. *balazko bezala*: balizkio bezala. Bestalde, EHko edizioan ez da komarik *eguitecoez* arte. *Les hablaba de los mayores deberes de la vida, (...).* (1886:335). (...) *Elle leur disait les grands devoirs de la vie, la nécessité de se résigner, de se sacrifier.* (1879:266).

(45) Ni duc (...) (EH). –*Quiero llevar conmigo á la tumba (...).* (1886:336). –*Je veux emporter dans le tombeau, (...).* (1879:266).

(46) Perpaus osagai nagusien ordena oro har gaztelania eta frantsesezko bera da; ohikoagoa eta agian egokiagoa zatekeen honetara: *Inkapableak hainbertze borondateri erresistitzeko, hitzeman zazkoten nabi zituen guziak. Prometieron todo lo que quisó, incapaces de resistir á tanta bondad y elocuencia.* (1886:336). *Et ils promirent tout ce qu'elle demanda, incapables de résister à tant de grâce, à tant d'éloquence, à tant de foi.* (1879:266).

(47) Han zuen libertatea da, (...) (EH).

(48) *Aquella hora vendrá, porque el porvenir no pertenece á los malos ni á los soberbios. Pertenece á los humildes, á los generosos y á los buenos.* (1886:336). Jatorrizko eleberriko testuan, ordea: (...) *car l'avenir n'est pas aux violents et aux audacieux.* (1879:267).

ziten ixtant bat, hiltzerat preparatu behar zuela,⁴⁹ eta, nola hok marrumetan baitzauden, erran zeen:

–Othoizten zaituztet nitaz pietate izan dezazuen; juan beino lehen deithuko zaituztet azken adioaren erraiteko.⁵⁰

Athera ziren eta bertze kondenatuen artean gelditu zen, zoinak oro bat bertzearen ondotik juaten baitziren jadanik Doloresen kofesetzen ikhusi dugun aphezari bere bekhatuen barkhamenduaren galdegitera. Dolores ere berriz juan zen.

–Aita maitea, benedika nezazu.

Eta aphezaren esku sakratuak Doloresen buru ederraren gainean phausatu ziren.

–Preparatua niz -erran zion Piarresi-, herioa jin ditake.

–Hoin gazte eta hoin eder hil behar! -murmuratu zuen hunek.

–Ene suerteak pena egiten dauk. Ez dik bizkitartean merezi, ezen uros nuk.

–Konplitzen dunan sakrifizioak egiten othe hau hoin uros?⁵¹

–Ixil zite -dio bizitasunekin-.⁵² Zer mintzo hiz sakrifizioz? Ez diat nahi erran dezakan. Eusebiak eta Salbadorrek behar dute bethi ignoratu bertzen plazan hil nizala.

–Gisa hortan mintzo dira sainduak -murmuratu zuen Piarresek.

Eta alegre ikhusten baitzuen, segitu zuen:

–Uros ni, konpainiatuko zaitutana eternitate guzian.⁵³

(49) EHko edizioan ez da komarik *behar zuela* arteraino. *biltzerat preparatu behar zuela*: erran aditza dagoke isilpean (*erran zuen, erranez*), tradiziozko euskara mintzatuan ohi bezala. (...) *y después dijo á sus amigos se alejase un momento que quería prepararse á la muerte.* (1886:336). *Puis, elle les pria de s'éloigner. Elle voulait se préparer à la mort.* (1879:267).

(50) Othoizten zaituztec (...) deithuco zaituztec (...) (EH). –*Os ruego que tengais piedad de mí; antes de marcharme os haré llamar para daros el último adios.* (1886:336). *Ayez pitié de moi! fit-elle. Avant de partir, je vous ferai appeler pour vous dire un dernier adieu.* (1879:267).

(51) Complitzen ducan (...) (EH). EHko *ducan* horrek hutsa izan behar du, moldatzaileak oharkabean egina edo inprimatze-hutsa, zeren Piarres mintzatzen baitzaio Doloresi. –*¿Será el sacrificio que cumplís lo que os hace tan feliz?* (1886:337). –*Est-ce le sacrifice que vous accomplissez qui vous rend heureuse ainsi?* (1879:267).

(52) *Ixil hadi* beharko zukeen, koherentziaz, elkarrizketa hitanoz emana baita.

(53) *compagniatuco* (...) (EH). Euskarazko testua laburragoa da; izan ere, gaztelaniazko eta, are gehiago, frantsesezko perpaus hedatu, lauso eta ideologia darien zenbait ezabatzen baititu moldatzaileak. –*Feliz yo, que os acompañaré por toda una eternidad. / Así fue que aquellos dos seres alcanzaron el heroísmo por la sencillez de su adhesión. / Sin embargo, ni el uno ni el otro tenían en sus venas una noble sangre, é iban á morir como los valientes y santos.* (1886:337-338). E. Daudetek mintzamolde hedatuagoak, bai eta ideologiaz oratuagoak darabiltza: –*Je suis heureux de m'en aller avec vous. Vous m'ouvrez la porte du ciel, et je me presserai si bien contre vous, âme pure, qu'on me laissera à votre suite. / Ainsi, ces deux êtres s'élevaient jusqu'à l'héroïsme par la simplicité de leur dévouement. Certes, ni l'un ni l'autre n'avait dans ses veines un noble sang, et cependant ils allaient mourir comme des vaillants, comme des saints.* (1879:268).

Arratsaldeko hirur orenak ziren; neguko denbora ederra zen, zerua urdin zen eta iguzkia bero.

–Zer egun ederra zerurat juateko -phensatu zuen Piarresek.⁵⁴

Dolores trankil zen, bihotzetik Jainkoari othoitzez ari zen handi zezala haren sakrifizioa eta hartarik egin haren orhoitzapenez betheak gelditzen ziren bi izaite maite heien urostasuna.

Bat-batean salan oihu-intzirina-garrasiak entzun ziren, heien gillotinarat eremaileak heldu ziren.⁵⁵

Doloresek oraino ere ez zuen bere kalma galdu. Ekhen du zuen bere xapela eta hirur jendarma ari zirelarik haren inguruan ziren kondenatuen biloen pikatzen, barreatu zituen bere bilo ederrak, zoinak jautsi baitziren haren solbalden gainera boila lodi eder bat bezala.⁵⁶ Bertze garrasia bat izan zen ikhusi ziuzte-nean burrego hek buru eder hartako ilearen pikatzen.⁵⁷

(LII)

Ikhusi zuenean joateko momentoa hurbil zela, galdeginarazi zituen bere adixkideak,⁵⁸ zoinak borthan baitzauden nigarrez hantuak. Sarthu ziren Martinekin, zoinaren begithartea trixte baitzen kostunbratua izanik ere izigarrikeria heien ikhusten.

(54) Gaztelaniazkoan eta frantsesezkoan, ordea, urkamendiaren edo gillotinarene bidea aipatzen da: –*Buen día para ir al cadalso –pensó Pedro.* (1886:338). –*Beau temps pour s'en aller à l'échafaud! pensa Coursegol.* (1879:268).

(55) oihu intzirina garrasiak (...) (EH). *De repente varios hombres entraron en la sala. Eran el verdugo y sus ayudantes. Entonces hubo entre los condenados quejas y gritos de espanto.* (1886:338). *Tout à coup, plusieurs hommes entrèrent dans la salle. C'étaient l'exécuteur et ses aides. Alors, parmi les condamnés, l'on entendit quelques plaintes, des cris d'effroi!* (1879:268). Euskal moldatzailea bere kasa ari da.

(56) Solbalda forma, sorbaldaren aldaera, hemen baino ez da agertzen nobelan, eta OEHN ere ez dugu ikusi. Inongo hitza edo aldaera ez bada, inprimatze-hutsa izango da. *boila*: belo, oihalezko estalki. *como un velo moviente.* (1886:338). *comme un voile mouvant.* (1879:269).

(57) Euskarazkoak labur adierazten du; ordea, gaztelaniazkoak eta jatorrizkoak luze eta irudi hein bat artifizialen bidez, ohi bezala. *Hubo en la sala un estremecimiento general cuando las tijeras despojaron el maravilloso adorno de aquella lindísima cabeza, donde el Artista divino que crió su belleza parecía haber agotado para bemosarla su tesoro de gracias y de encantos.* (1886:338-339). *Il y eut dans la salle un frémissement quand le ciseau dépouilla de cette merveilleuse parure cette tête charmante où l'artiste divin qui créa la beauté semblait avoir épuisé, pour l'embellir, son trésor de grâces et de charmes.* (1879:269).

(58) (...) *preguntó por Felipe y Antonia para abrazarlos.* (1886:339). (...) *elle demanda à embrasser de nouveau Antoinette et Philippe.* (1879:269).

Dolores haren alderat jua zen eta erremersiatu zuen harentzat izan zituen soinu guzietz.⁵⁹

–Presundegian sartzean kurutze urhezko bat konfiatu neitzun.

–Huna, anderea, emaitera heldu nintzan.

–Atxik zazu, ene adixkidea; orhoitaraziko zaitu harentzat hona izan ziren presonier batez.⁶⁰

–O, anderea!, egin dut ene egitekoa.⁶¹

Ez zuen deus gehiago ihardetsi ahal izan Martinek, konmobitua.⁶²

Dolores itzuli zen Salbadorren eta Eusebiaren ganat, zoinen dolorea espan-tagarria baitzen.⁶³

–Adio, adixkide maiteak -erran zuen Doloresek-, ez ziezela desespera. Phentsa zazue piaian noala eta zeruan berriz elgarretarako girela sekula ez se-paratzeko.

Bainan gisa hortan mintzo zelarik heien konsolatzeko, bera ere nigarrez zagon. Hurbildu zen bati eta bertzeari, bere bihotzaren kontra tinkatuak bolta bat atxiki zituen.

–Elgar maitha zazue bethi eta ez nezazuela sekula ahantz.

Hori zen eman zeen azken konseilua.

Piarres hurbildu zen Salbadorri eta besoak ideki zazkon.⁶⁴

–A Piarres!, gizon ohoratu bat zira, suplizioak ez zaitu izitzen. Ez zazula zure odol hotza gal. Kasu emanen diozu finitu artio, ez dea hala!⁶⁵

(59) (...) soignu guzietz. (EH). *harentzat izan zituen soinu guzietz: harekiko arreta edo ardura guziengatik.*

(60) (...) os recordaré á una prisionera con quien habeis sido bueno, (...). (1886:340). (...) elle vous rappellera une prison-nière à l'égard de laquelle vous avez été compatissant (...). (1879:269-270).

(61) (...) hice lo debido. (1886:340). (...) j'ai fait ce que je devais faire, (...). (1879:270).

(62) Ez tzuen deus guehiago ihardetsi ahal izan Martinek konmobitua. (EH). Koma ezarri dugu aposi-zioan doan konmobituaren aitzinean, moldatzaileak gaztelaniazkoari jarraitzen baitio horretan nola hitzor-denan. *Nada más contestó el pobre carcelero conmovido* (1886:340). Eite bertsuko joskera, aitzin atalean: *Hitzeman zazkoten nabi zituen guziak, inkapableak bainbertze borondateri erresistitzeko* LI. Gaztelaniazko itzultzaileak moldatua da pasarte hau, ez baitago frantsesez.

(63) Moldatzaileak Salbador eta Eusebiaren minaren deskripzio xeheak kentzen ditu. *Su desesperación era precursora de la locura: la de Antonia era violenta, pues no podía contener sus sollozos; la de Felipe era más espantosa, más terrible, porque el joven, melancólico, silencioso, había en algunas horas envejecido diez años.* (1886:340). *Leur désespoir était voisin de la folie. Celui d'Antoinette était violent, fait des cris et de larmes; mais celui de Philippe était plus effrayant, car le malheureux jeune homme, morne et silencieux, avait en quelques heures vieilli de dix ans.* (1886:270).

(64) (...) ekeki zazkon (EH). *Ekeki* forma ez dugu ikusi OEHn. Guk *ideki* 'ireki' ezarri dugu, moldatzaileak beti hori erabiltzen duelako (XXII, XXVI, XXXV, XLIII).

(65) *Cuidarás de ella hasta lo último, ¿verdad?* (1886:341). *Aie bien soin d'elle jusqu'au bout, n'est-ce pas?* (1879:270).

–Ez bakharrrik juaterat uzteko hil nahi izan dut hunekin -ihardetsi zuen Piarresek.⁶⁶

Orduan oihu handi bat entzun zen:

–Bidean, bidean!⁶⁷

Musu batek juntatu zituen oraino.

–Adio, adio! elgar ikhusiko dugu berriz zeruan!

Eta Dolores, penaz hautsia, jauzi zen kanporat.⁶⁸

Piarresek segitu zuen, bainan ez zen athera hain fite, ezen ikhusi zuen Eusebia aldixartzen eta Salbador haren sokhorritzen.

Presundegiko borthan karro bat prestatua zagon presonerren Erreboluzioneko plazarat eremaiteko.⁶⁹

Hara heldu zirenean gillotina⁷⁰ ikhusi zuen preparatua Doloresek, ikharetan eman zen eta murmuratu zuen:

–Beldur niz!

–O, ene maitea!, ez zazula kuraia gal -erran zion eztiki Piarresek-. Ikhusten duzu, hemen niz, ez zaitut hemendik atheratzen ahal.⁷¹ Bainan konfia eta espera. Zonbeit minutaren buruko tunbako bakean eta Jainko maitearen presentzian izanen gira.

(⁶⁶) *Ez bakharrrik juaterat uzteko*: Bakharrrik juaterat ez uzteko (edo: Ez uzteko bakharrrik juaterat). –*Como que para no dejarla marchar sola he querido morir con ella –contestó Pedro con sencillez.* (1886:341). –*C'est pour ne pas la laisser aller seule que j'ai voulu mourir avec elle, répondit simplement Coursegol.* (1879:270). Ondoren, Antoinettek (Antonia, gaztelaniazkoan) bedeinkatzeko eskatzen dio Doloresi (1886:341; 1879:270), baina hori ezabatua da euskarazkoan.

(⁶⁷) –*En camino, en camino!*... (1886:341). –*En route! en route!* (1879:271).

(⁶⁸) jauzi zen kanporat: jalgi/irten zen kanpora. *Y Dolores, quebrantada por las emociones, se lanzó fuera.* (1886:341). *Et, brisée par tant d'émotions, Dolorès s'élança au dehors.* (1879:271).

(⁶⁹) erreboluzioneko plazarat eremaiteco. (EH). Euskal moldatzaileak xoil kontatzen du, E. Daudeten deskripzio luzeak -20 lerrotik goitikoak- moztuz. Doloresekin batera beste hamar eramaten dituzte, haien artean gazte bat eta adineko bat –biak erregeari bibaka–, errepublikano bat eta apaiz bat. Dolores, Coursegol-i (gazt. Pedro) eutsita, lazki sufritzen; Coursegol, bihotza xehatua, Doloresengan pentsatzen. Bestenaz, E. Daudeten ideologia-isuria nabarmena da hala kontaeran nola deskripzioetan. *De la Conserjería hasta la plaza de la Revolución el carro fue seguido de una muchedumbre asquerosa de hombres y mujeres andrajosos, quienes cantaban odiosas canciones é injuriaban á las víctimas. Éstas parecían insensibles á semejante ultraje.* (1886:342). *De la Conciergerie jusqu'à la place de la Révolution, la charrette fut suivie d'une foule bideuse d'hommes, de femmes, d'enfants qui chantaient d'odieuses chansons et injuriaient leurs victimes. Celles-ci paraissaient insensibles à ces outrages. (...).* (1879:271).

(⁷⁰) gilotina (EH). Guk gillotina ezarri dugu, hori delako moldatzaileak darabilen forma nagusia (XLI, XLVIII, LIII).

(⁷¹) Ikhusten duzu hemen niz, ez zaitut hemendik atheratzen ahal. (EH). *Ya ves, estoy aquí; no puedo arrancar de estos horrores.* (1886:343). *Tu vois, je suis là; je ne peux rien pour t'arracher à ces horreurs.* (1879:272).

(LIII)

Herritar harek bere hitz konsolagarriekin kuraieztatu zuen momento ikharagarri hartan berriz Dolores.⁷² [Hau] lehenik iragan zen gillotinaren azpira.⁷³ Piarresek othoiztu zuen burregoa plazer hura egin zezola, haren alabak, erraiten zuen bezala, ez zezan ikhus haren odola ixurtzen.⁷⁴

Bainan hunek ikhusi zuenean erortzen Doloresen buru xarmanta, eman zuen berea gogotik, kontent, separazioneak ez zuelakotz minuta bat ere iraun.

Doloresek ez zituen oraino hogoi eta hirur urthe betheak.⁷⁵

Salbadorrek eta Eusebiak, haren dolua errespetatuz, ez zuten hilabete batez librantza galdegin.

Orduan athera ziren eta juan Piarresek Versailleko ondoan erakutsi zeen etxera. Han familia hon bat bizi baitzen, heiekin gelditu ziren, Doloresez nigar eginez eta bizi phasatuaz orhoitu gabe.⁷⁶

Han bi urthez Eusebiaren amodioa hazi eta purifikatu zen, bainan handituz Doloresen orhoitzapena. Hura ere orduan sakrifizio handi baten egiteko kapable zen eta uzten zion Salbadorri bere bihotzaren libertate osoa. Hau izan zen bethi Eusebiaren nahia izan zenaren lehen alusioea egin zuena.⁷⁷

(72) *Aquel aldeano, con sus accents consoladores, pudo reanimar el valor de Dolores en aquel instante supremo.* (1886:343). *Et ce paysan, en cet instant suprême, trouva des accents consolateurs qui ranimèrent Dolorès.* (1879:272).

(73) (...) Dolores. Lehenik iragan zen gillotinaren azpira Piarresek othoiztu zuen (...). (EH). Dolores lehen edo aitzin esaldian osagarria da, bigarrenean subjektua, baina EHko edizioan ez dago adierazita subjektua, hau da, nor iragan zen lehenik gillotinaren azpira. Horregatik guk *Hau* ezarri dugu esaldiaren buruan, berrito jarraian *Dolores* ez errepikatzearen; *hau* anaforikoa darabil moldatzaileak berak ere lerro batzuk beherago. *Hura* ere ezar genezakeen, baina nahasgarriagoa iruditu zaigu. Euskal moldatzaileak, gaztelaniazko itzulpenari segituz (gaztelaniak aski du genero diferentzia markatzearekin), ez du subjektua adierazi, oharkabea. *Subió la primera al cadalso.* (1886:343). *Elle monta la première sur l'échafaud.* (1879:272).

(74) EHko edizioan ez da komarik perpaus osoan; guk ezarri ditugu. EHN *burhego* irakurtzen da; aldaera hori ez dugu ikusi OEHN, horregatik guk *burrego* 'borrero' ezarri dugu, hau LI. atalean ere agertzen baita. (...) *haren alabak* (...) *haren odola*: Piarresen alabak (Doloresek) (...) Piarresen odola. *Pedro había rogado al verdugo le concediera este favor para que su hija, como decía, no viese correr su sangre.* (1886:343). *Coursegol avait supplié l'exécuteur, afin d'obtenir cette grâce, pour que sa fille, comme il l'appelait, ne vît pas couler le sang.* (1879:272).

(75) Doloresen adina hein bat aldatua ageri da itzulpenetan: *Dolorès avait vingt-quatre ans.* (1879:272). *Dolores no había cumplido veinticuatro años.* (1866:343).

(76) Jatorrizkoan eta gaztelaniazkoan xehetasun zenbait ematen dira: Philippe eta Antoinette Bridoul-i esker ateratzen dira eta Chevreuseko ibarrera joaten. Horretarako, Bridoulek bere kabareta saldua zuen eta bere emaztearekin haien zerbitzura jarria zen. Anai-arrebak bezala bizi ziren, "Doloresez nigar eginez eta bizi phasatuaz orhoitu gabe", erran nahi baita: "no haciendo alusión á los proyectos formados en el pasado." (1886:343), "ne faisant aucune allusion aux projets formés dans le passé" (1879:272).

(77) *Hau izan zen*: Salbador izan zen.

–Egin ginion promesa bat Doloresi, behar dugu fite konplitu.

Zonbeit asteren buruan ezkondu ziren eta Juan Angleterrerat. Berriz geroxago Luisianarat, nun baitzen Chamondrineko markesa berriaren fortuna guzia.

Handik hamar urtheren buruan berriz jin ziren Franziarat, ordukotz baziuzten bi haur, muthiko bat eta nexkato bat, eta biziki uros ziren.⁷⁸

Salbadorrek berriz orduan eginarazi zuen bere sorlekhuko jauregi errea eta mendearen ondarrean beren egoitza han egin zuten.⁷⁹

Mila zortziehun eta hemeretziako maiatzean⁸⁰ Parisen bere intres batzuen arranjatzen kausitu zen, harrapatu zuelarik harekin Konserjerian preso egona zen adixkide bat. Phasatuaz mintzatu ziren, egun trixte hetaz, eta hunen hitz batek erakutsi zion Dolores hil zela Eusebiaren plazan.

Chamondrineko markesa ikharatu zen, eskua bihotzera altxatu zuen, bainan ez zuen *ai!* bat ere erran⁸¹ eta haren adixkideak ez zuen konprenditu bihotz martiritatu hartan egin zuen azken golpea.

(78) Jatorrizko eta gaztelaniazko testuetan ageri da zorion hura malenkoniak bete zela: *bien qu'empreint d'une inguérissable mélancolie, leur bonheur était sans mélange.* (1879:273). *á pesar de que los dos fuesen muy melancólicos, su dicha era sin igual.* (1886:344).


(79) Hau da: berriz eginarazi zuen orduan bere sorlekuko jauregi errea. Frantses eta gaztelaniazko testuen arabera, Inperioaren bukaeran berreraiki zuen gaztelua; hau da, Napoleonen Inperioaren bukaeran, 1814-1815 inguruan. Euskarazko moldapenaren arabera, *mendearen ondarrean*. Badirudi garai edo aldi haren (Napoleonen Inperioaldiaren) hondarrean esan nahi duela esamolde zehaztugabe horrek, Salbadorren bizialdiaren bukaeran baino areago; ez du esan nahi ere XVIII. mendearen bukaeran, zeren gillotinatik libratu zirenetik gaztelu berrira bizitzera joan arte gutxienez hogeitatu urte pasatuko baitziren. Bestenaz, jatorrizko testuan xehetasun gehiago ageri dira; horietako zenbait kenduak dira gaztelaniazko itzulpenean. *Philippe de Chamondrin commença alors la reconstruction du château du Pont du Gard, et s'y établit définitivement vers la fin de l'Empire, résolu à vivre en gentilhomme campagnard, dans l'étude, au milieu des siens, sans se mêler aux luttes politiques de son temps. Il poussa sa résolution au point de refuser la députation, qui lui fut offerte par deux fois. Il avait soif de repos.* (1879:273). *Felipe empezó entonces á hacer construir el castillo del puente del Gard, y se establecieron definitivamente al fin del imperio, resuelto á vivir en medio de los suyos sin mezclarse en las luchas políticas de su tiempo.* (1886:344).

(80) Paragrafo hau bereiz ezarri dugu, frantses-gaztelaniazkoek bezala, aitzinekoaren segidan ageri baita EHko edizioan. Ohargarri da euskal moldatzaileak, gaztelaniazko itzulpenari jarraituz, frantsesezkoaren data aldatzen duela, agian frantsesezko beste edizioaren batetik (1885?) hartuta; gaztelaniazko itzulpena euskaraz moldatzen duelako froga garbia. *Au mois de mai 1822, se trouvant à Paris où il était venu seul pour régler certains intérêts, il rencontra un vieux gentilhomme qui avait été enfermé à la Conciergerie en même temps que lui.* (1879:273). *En el mes de mayo de 1819, ballándose en París arreglando algunos intereses, encontró á un anciano gentil hombre que había estado encerrado en la Conserjería al mismo tiempo que él.* (1886:344-345).

(81) ez zuen, ay! Bat (...) (EH). (...) *pero no dió ni siquiera un ¡ay!* (1886:345). *Mais il ne poussa pas un cri, (...).* (1879:273).

Salbadorrek sepultatu zuen oraino segeretu hura bere bihotzean eta Eusebiak ez zuen sekula jakin. Bizkitartean ezagutu zuen haren senarrak bazuela eztitasun gehiago bere bozean Doloresez mintzo zelarik, eta ikharetan zagola bethi neguko gau luzetan bere haurrer gaztetasuneko ixtorioa khondatzen zelarik eta erraiten zelarik: “Zuen izeba Dolores saindu handi bat zen.”⁸²

FIN



⁽⁸²⁾ Koma ezarri dugu *mintzo zelarik* eta *eta* artean, jatorrizko eta gaztelaniazko testuetan bezala, errazago irakurtzeko. Ohargarri da jatorrizko eleberrian heroitzat hartzen dela Dolores; euskal moldatzaileak, ordea, saindu egiten. *Vuestra tía Dolores era un alma heroica*. (1886:345). — *Votre tante Dolores était une âme héroïque*. (1879:274).

AMODIAREN MARTIRRA.

HIZTEGIA

Hiztegi hau prestatu dugu eleberria irakurterrazagoa izan dadin bai eta hor-ko hitzak biltzeko asmoz. Hitz gehien-gehienak jaso ditugu, beren aldaerekin eta konbinazio edo unitate fraseologikoekin eta molde edo egiturekin. Obra hau *roman* frantses baten gaztelaniazko itzulpenaren euskal moldapena izanik, ez oso landua gainera, gaztelaniatik mailegaturiko hitz anitz ageri dira, espreski gainera, folletoi estiloa imitatu nahiz edota, frankotan, zabarkeriaz.

Hiztegi hau nobelako hitzez, unitate fraseologikoez eta adibideez osatua dago. Hitz beraren bi-hiru-lau aldaera ageri direnean, denak ematen ditugu bai-na erabiliena lehenik eta gero bestea. Ondoren, adibide ugari ematen ditugu, ez denak, eta adibideok zein ataletan azaltzen diren zehazten dugu. Adibideok, askotan, unitate fraseologikoetan kokatuta ageri dira, espreski, alde batetik hitzak multzoka prozesatzen dituelako hizkuntzak eta multzo horien informazioa probetxugarria delako, eta bestetik, nobelako mintzamoldea eta hitz konbinazio ugari eginak direlako (gaztelaniaz behintzat, horregatik mailegatzten ditu mol-datzaileak); horrek ez du esan nahi guztiak hala erabiliak edo finkatuak direnik edo zirenik euskaraz. Hitzak unitate fraseologikoetan kokatuta egotean, adibide berak errepikatuta ageri dira maiz unitatea osatzen duten bi hitzetan.

Beste argibide batzuk ere ematen ditugu, gure ustez komeni denean, batez ere Hegoaldeko euskaldunak gogoan: 1. Kategoria eta erabilera; horien laburdurak I. Sarasolaren *Euskal Hiztegian* (Elkar, 2006) edo *Euskaltzaindiaren Hiztegian* (2012) bezalatsu jarri ditugu. 2. Esanahia, sinonimo bidez edo aipatu hiztegie-tako definizioak baliatuz.

Hitzen forma gure edizioko ortografia-irizpideei jarraituz erabakitakoa da (Ik. Sarrera: 2. “Gure edizioko irizpideak”). Grafia-batasun arrazoiengatik baztertu ditugun formak –*Eskual-berriaren* ediziokoak– adibide zenbaiten bukaeran agertzen dira, espreski jarrita, kako zuzenen artean, halaber 1886ko gaztela-niazko edizioko eta 1879ko frantseseko edizioko baliokideak, bai eta beste

ohar batzuk ere, hitzaren formari edo esanahiari dagozkionak. Hitz zenbaiten bukaeran ageri den *Ik.* laburdurak hitzak aldaeretara eta sinonimoetara igortzen ditu, inoiz antonimoetara ere bai.

Bi eraskin gehitu ditugu: I. ERASKINA: Toki-izenak. Euskarazko egokitzapenaren lekuko direlako bildu ditugu. II. ERASKINA: Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) bilduak ez diren hitz, aldaera eta adierak.

Ohartarazi nahi dugu, bestalde, hiztegi honetako hitz batzuek adibide gutxi dituztela OEHn, eta esamolde edo kolokazio guzti-guztiak ez diratekeela jasoak hiztegi horretan.

—A—

A! *-A Piarres!*, gizon oboratu bat zira LII.

Abandonatu I. Utzi, alde batera utzi, bertan behera utzi. *Salbador biziki maluros izanen dun bik abandonatzen badun XVIII. ez zitakeela bizi bere semeak abandonatzen balin bazuen XXIII. Abandonatzen nauzu phensatu gabe zer izanen den nitaz XXVIII.*

—z **abandonatua**: *Hetarik bat ikbusten balin bazen bertzez abandonatua, (...) XLIV.*

2. Zerbait lotu, zerbaitera eman/jarri, entregatu. *haren bibotzean sartzen zen, (...) bere arimaren aspirazione ez tier urrikirik gabe abandonatzeko esperantza XXXVI.*

Abendo. *Abendoaren ondarra zen XLV.*

Abiatu. *da ad. Abian jarri, joaten hasi. trankil abiatu zen goizeko aire freskoa errespiratzen zuelarik XXIV. alegriazko oibu bat eginez haren ganat lasterka abiatu zen XXXIX. abiatu zen ziela: -Sarri elgar ikbusiko dugu XLII.*

Abisatu. *du ad. ez baitugu izan denborarik zure abisatzeko XIV. abisa zazu Piarres, eta zure obra honaz errekonpensatua izanen zira XLVI. Zendako ez gaituzu abisatu? XLIX.*

Abokat. *Konprenditzen duzu zer gisaz eni adrezatu den, zure aldean abokat paperraren egiteko? XIX.*

Abondantzia. **Abondantzia gutxitu**. *zonbait xorta esne zoinaren abondantzia guttitua baitzuen bezperako akbidurak III [EH abondantia]. Abondantzia eman: lurrek abondantzia eman zuten VII.*

Aborreitu; **Aborritu**. *du ad. Gorrotatu. Obligatu nahi nun aborreitzera? XXXII. Aborreitzen zuen Eusebia, zoina ez baitzen ez haren abidea eta ez haurtasunetik ezagutua ere XLIV. Monarkikoa niz, aborritzen dut errepublika XLVIII. Ik. Aborrezea.*

Aborrezea. *Maitha dezakan ala aborrezea, (...) XXXII). Ik. Aborreitu.*

Absoluzione. *kofesatzera eta absoluzionearen izaitera XLVII. Absoluzionea eman: aphezak absoluzionea eman eta ondoan erran zion: (...) XLVII.*

- Adin.** *Gizon begitarte boneko bat zen, emaztearen adin berekoa XXVI.*
- Adinetako.** *Adineko. Dolores komenturat bizitzerat joan zenean, baziren han zazpi pensionist oro adinetakoak XXIV [yohan]. emazte ingles bat zen, adinetakoa, bainan koketa XXVI. gizon adinetako lodi bat jautsi zen salara XXVI.*
- Adio. Adio!** *Adio, adixkide maiteak -erran zuen Doloresek- LII. Adio, adio! elgar ikbusiko dugu berriz zeruan! LII. Adio ez, sarri artio: -Adio ez, sarri artio -ihardetsi zuen Piarresek XLVII. Ik. Azken adioa egin/erran.*
- Adixkide.** *uste nuen ene adixkidea, ene abizpa zinela XIX. preso egona zen adixkide bat LIII.*
- Admiratu.** *haren ezpain eta boz sonorak, haren erregina eskuak, oro admiratu zituen Salbadorrek behatze batez XV. Admiratua haren borondate guziaz Doloresek errefusatu zuen haren eskaintza XXII [EH guziac].*
- Adoragarri.** *nexkato adoragarri bat XV.*
- Adoratu.** *Biziko gira, Dolores, bat bertzearenak izaiteko eta elgarren adoratzeko XXXV.*
- Adrezatu.** *Zuzendu, bideratu, joan edo etorri. Konprenditzen duzu zer gisaz eni adrezatu den, zure aldean abokat paperraren egiteko? XIX.*
- Afaldu.** *Presonerrak oro afaldurik salan zauden elbeketa XLV.*
- Afekto.** *Maite hau afekto handi batekin XXI.*
- Afera.** *situazioneak segitzen zuen bere kursa bakean noiz eta ere politikako aferak jin baitziren turbaraztera XXIII. Badakizu zonbat afera duen Londresetan XXVI.*
- Afo. Ik. Aho.**
- Ageri.** *Begi bistan. Agerian utzi: Haren arrokek agerian uzten zuten gorphutz eder hartako baragia xuria zen I.*
- Agonia.** *Jaun apheza, eman daazu benedizioea XXV.*
- Ahal.** *iz. Uste dun ene abalean dela hire orboitzapenaren uztea Eusebiarenaren hartzeko? XXI. Ahal guziak egin: egiten zituen abal zituen guziak XXVII. egin ditut abal ditudan guziak XXXVII.*
- Ahal.** *Ahal + da ad. Probabilitatea edo ziurtasuna (ez osoa). Zein+izond.+ahal den...! Elgar maite denean zein trixte abal den hiltzea bat bertzea gabe! Zein malurus abal den bizi gelditzen dena! XLII. Ahal dakizu: Ba abal dakizu akusazione bok ez dutela fundamenturik XLVII. Zalantza (zehar galderetan) Nabi dut jakin zer krimez akusatzen abal zizuten XLVII.*
- Ahalgetu.** *Ahalketu, lotsatu. bik ere phasatuko dun bizia nigarrez, abalgeturik hire urostatuna ez deus batzuentzat uzteaz XVIII.*
- Ahantzi.** *abantz abal zezan bandik joanen zela XX. Bainan abantziko dituk bola maite bautenak? XXI. hau ez da sekula abanzen ontsa maitatu duen bibotz batean XXVII. Doloresek abantzia zuena Eusebiak bazituela dretxoak Salbadorren gainean? XXXVI.*
- Ahartu. Ik. Arartu.**

- Ahide.** Ahaide. *Markesek beren abideak eta adixkideak konsultatu eta ondoan preparatu zuten Salbadorren piaia X. Aborreitzen zuen Eusebia, zoina ez baitzen ez baren abidea eta ez haurtasunetik ezagutua ere XLIV.*
- Ahizpa.** *uste nuen ene adixkidea, ene abizpa zinela XIX.*
- Aho; Afo.** (Labana) *oro hon ziren gillotinaren aboak lephoa pikatzen abal bazeen XLV. Prestutasuna eta bertbutea hire afoan ditun, arreba maitea. XLV.*
- Ai!** *ez zuen ai! bat ere erran LIII.*
- Ailamendu; Ailamendi.** *Abilamendu, jantzi. Haren ailamendua ikbusgarri zen hainbertze josia zen maneraz nola kolore diferentez I. kondenatuen ailamendu hits batekin XXVIII. Beztitu zen ailamendi gris batez, xingola zabal eder batez XLVI [fr. ‘robe en laine gris’, 1879:248].*
- Aintzindari.** *Buruzagi. aise zen ezagutzea erreboluzioneko tribunaleko aintzindari zonbeit zela XLV.*
- Aire.** *haizeak alxatzen zituen airetan gora forma itsusiak hartuz I. behatzen zuen jujer aire desafiador batekin XLVIII [Aire desafiador: desafio-itxura edo jarrera]. Aire fresko: trankil abiatu zen goizeko aire freskoa errespiratzen zuelarik XXIV. Aire gaixto: ikbusten zuten jadanik jende handi eta obserbatzailek aire gaixtoa zerutik jausten XIII [“Il y avait (...) une malaise général”, 1879:47]. Airean joan: laster joan. Bainan denbora airean joiten da X.*
- Aise.** *—Hire alaba? Nola baziko duk? / —O! Hori aise. Ezagutzen dut Remoulinsen familia bat arras hona VI. handik aiseago izanen zitzakola kasu egitea Luisianan Mirandolen ondoko bakharrak zituen ontasun handier XXVI. Gure leitzalek phensatuko dute aise orai zertako goiz hartan balako inpazientziarekin zagon Chamondrineko markes gaztearen beha XXVII.*
- Aitak.** *iz. (pl.) Gurasoak. gisa hortan sartuko da kortean eta bere gainerat jautsaraziko ditu ene aitek erregeren aldean izan tuzten fagoreak VII. bere aiter ebatsi haur bat XIII. O! zoin krudelak diren aitak zonbeit aldiz! XLI [‘les parents’, 1879:225; 1886:285 ‘los padres’]. Ik. Aita-amak. Lehen aitak.*
- Aita-amak.** *Hitzemaiten obore eginen zuela bere aita-ameri X.*
- Aitaratxi.** *Aitatxi, aitona, aitatea. Estebe markesaren aitak eta aitaratxik xabutu ziuzten ontasun bek guziak VI.*
- Aithortu.** *aithortzen deitzut, ikbusiz zuk maithatzen zinduela kontentatu nizala erranez: hori da XX.*
- Aitzin.** *Eusebia eta Salbador nigarrez haren aitzinean belhaunikatu ziren XXV. Aitzina joan. Gure emaztea, borroka euriarekin eta haizearekin, aitzina zuan urbats sendo batean I.*
- Aitzinatu.** *Orena aitzinatzen ari zen XXXII. Robespierre aitzinatu zen, bere lista athera zuen eta (...) XLV. [fr. ‘s’avança’].*

- Aitzinera eman.** Aipatu, argudiatu (?). *markesari aitzinerat emanik Marianak Doloresentzat zuen amodioa XVI* [‘invocaría el recuerdo de su madre y la ternura que ella tenía para Dolores’, 1886:77].
- Akhabatu.** *Hitz horiek ez zituen akhabatu noiz eta ere (...)* XXX. *Salbador! Salbador! -murmuratu zuen Doloresek-. Ez zuen akhabatu abal izan XXXVI. Konbersazione horrek akhabatu zituen haren indarrak XLI. Hitz horien akhabatzen ari zelarik, (...)* II.
- Akhidua.** Akidura, nekea, unadura. *Haren urbezko biloak, haren frakzione delikatuak eta freskoak, doloren eta akhiduaren gatik, argitzen zuten (...)* I.
- Akhitu.** *Salbador akbitua bere honaren eta gaitzaren errapostuaren beba, (...)* XIX.
- Akonpainatu.** *Bere ganberarat akonpainatu* [?] *zuen XLII [EH acompagnatu; gn grafia zaharra, hemen in transkribatua, ñ ahoskatu behar da]. Ik. Konpainiatu.*
- Akort.** *Haren ideiak azkenean akort kausitu ziren Doloresenekin XLV.*
- Akostunbratu.** *Utz nezak akostunbra nadin ene bihotzera ixuri ditukan ideietan XVI.*
- Akta.** Ik. **Akusazionezko akta.**
- Akusatu.** *du ad. haren hotsasuna akusatzen zuen Frantzia denbora bartan bitima zen nabaske-rier XXVII [Elle attribuait sa froideur à (...), 1879]. Nabi dut jakin zer krimez akusatzen abal ziuzten XLVII. Uste dut ez dudan deus akusatzekorik nibauri L [Je n’ai donc rien à me reprocher, 1879:265]. iz. sarthu zela beizik tribunalean, bertze akusatuekin XLVIII.*
- Akusazionezko akta.** *Presonerrak oro afaldurik salan zauden elbeketa, batek bertzeari pena berak khondatzen ziuztela, oro akusazionezko aktaren beba XLV. Akusazionezko akta eman: memento batetarik bertzean emaiten abal daukute akusazionezko akta XLII. Akusazionezko akta errezebitu: beren artean egiten zutela bea arratsa harrapatuko othe zuten akusazionezko akta errezebitu gabe XLII. Errezebitu dut atzo ordrea tribunalean presentatzeko eta denbora berean akusazionezko akta XLVII. Ez zakien deusik bezperan akusazionezko akta errezebitu zuela beizik XLVIII.*
- Akzento.** Ahots, doinuera. *Doloresek behatu zion akzento segur batekin eta erran zion XL. [EH accento].*
- Akzione.** *Modestki bizi izan zen, biltzen zituelarik elgarretara bere akzione guziak XV.*
- Alaba.** *haren alabak, erraiten zuen bezala, ez zezan ikbus haren odola ixurtzen LIII. [inoiz ez albaba].*
- Aldare.** *Dolores lanean artzen zen pobrentzat eta aldarentzat XXIV.*
- Alde.** Toki, parte, inguru. *orduan bezala orai ere hainitz jiten da Frantziako eguerdiko alderat, Baionako eta Orzaizeko alderat; gisa berean Marseillako, Niceko eta Beaucaireko aldetarat I. Hugriatik eta Espainiatik urte guziez gure aldeetarat jiten diren bubamuetarik zen I. (norbaiten) -(r)en aldean: ondoan. Haren aldean aita bat, ama bat balin bazen marrumetan hasten ziren ziotela:(...) XLV. momento terrible bartan hura haren aldean izanez XLIX.*

- Aldi.** *al di buntan deus ez zioten egin baren tristesaren kontra Reedeneko jaun-anderek XXVII.*
- Aldi bat:** *behin. Aldi bat beizik ez ziren presentatu salan XLIII. Bere aldian:* bere txandan. *Eusebiak, bere aldian, khondatu zion lau urthe betan phasatu zituen guziak. XXXVIII [ce fut le tour d'Antoinette, 1789]. Kondenatuak haren gana juaten ziren beren bekhatuak kofesatzera eta absoluonearen izaitera. Dolores bere aldian juan zen belbaunikaturik XLVII.*
- Aldixartu.** *Konorte gabe erori; ondoeza izan (?). undarreko indar horrek bainbertze akitu du non aldixartua erortzen baita IV [elle roula sans connaissance sur le sol (...), 1879:14]. Aldixartzera zohan eta eroriko zen, Salbadorrek, ezagaturik, ez balu besoetan hartu XLVIII. ez zen athera hain fite, ezen ikbusi zuen Eusebia aldixartzten LII.*
- Luisiana.** *Luisianan Mirandolen ondoko bakbarrak zituen ontasun bandier XXVI. juan Angleterrerat. Berriz geroxago Luisianarat LIII.*
- Madelonet.** *Pariseko kartzela ospetsu bat Iraultza garaian (fr. Madelonnettes). Madelonetetarik heldu den XXXIX. jujatuak izan ziren eta kondenatuak, bat Konserjeriako presondegira eta bertzea Madeloneteko presundegira XXXVI.*
- Marseilla.** *Marseillako, Niceko eta Beaucaireko aldetarat I. markesa galdegina izan zen Marseillara XVII.*
- Monpelie; Monpelia** (fr. Montpellier). *Monpelieko medikuek VII. Monpeliara, Avignonera promenatzera XIII.*
- Nantes.** *Nanteserat igorri XXXVIII.*
- Nice.** *Marseillako, Niceko eta Beaucaireko aldetarat I.*
- Nimes** (fr. Nîmes). *Nimes puskatua da XXIV. ja phasatuak dira Nimen? XXIV. Nimerera joan ziren mediku bilba VIII. Nimesetako gure anaien arrogatzen eta biltzen ari dira! XXIV. eremaiten zuten Nimesetara, Monpeliara, Avignonera promenatzera XIII.*
- Orlean.** *Orleaneko Filipe VI.*
- Orzaize** [Ortzaize?]. *Baionako eta Orzaizeko alderat I.*
- Parise.** *Parise handitik IX. Parise batetako edergailuek XIV. Parisen bere intres batzuen arranjatzen LIII. Parisetik VI, XXXI. Pariseko XXXI.*
- Remoulins.** *Remoulins I. Remoulinsen VI.*
- Templeko dorre.** *Erregina betsia da oraino Templeko dorrean XXVIII [EH temploco dorrean; en la torre del Temple, 1886:204; au Temple, 1879:161].*
- Valencia.** (fr. Valence). *juan zen Valenciara XXVI.*
- Vendee.** *tz (fr. Vendée) Vendeetik XXXVII.*
- Versailles.** *juan nabi izan zen Versaillesetara XXIII. zazkienen erranaraztera Versailles XVIII. Versaillesetik hurbil den oiban batean galdua XXXVI. Orduan atbera ziren eta juan Piarresek Versaillesko ondoan erakutsi zeen etxera LIII.*

2. ERANSKINA:

OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIAN (OEH) BILDUAK EZ DIREN
HITZ, ALDAERA ETA ADIERAK

Hemen zerrendatzen ditugun hitz, aldaera eta adierak ez dira jasoak OEH-ko hitzen sarreretan eta adibide osoetan, alde batera utzita aipu soilak (v[er]tbn. XXX). Baliteke batzuetan gure trebetasun ezagatik zerrendako hitzen bat edo beste ikusi ez izana OEHn (bertsio elektronikoa, 2. argitaraldia, 2011). Gaztelaniatik mailegu gordin nabarmenenak (*boz sonora* etab.) ez ditugu jarri. Zerrendako gehienak adibide bakarrekoak dira; haietako asko, formaz aldaera xeheak (fonetismoak), esanahiz ere OEHkoen hurbilekoak; zenbait, dudako maileguak (*amodio mutua*, *ekutatu* etab.) edo kalkoak (*berri* ‘eleberri’). Galde-ikur batez mar-katu ditugu dudazko horiek. Beste batzuk, lekuko baliotsuak izan daitezke.

- Aborreitu.** Gorrotatu. *Obligatu nabi nun aborreitzera?* XXXII [EH abarreitzera]. *aborreitzen* XLIV. OEH: *aborrezitu*, *aborritu*.
- Ailamendi.** Abilamendua, jantzia. *Beztitu zen ailamendi gris batez, xingola zabal eder batez* XLVI [fr ‘robe en laine gris’, 1879:248]. OEH: *abilamendu*, *abillamendu*, *ailamendu*.
- Aitaratxi.** Aitatxi, aitona, aitaita. *Estebe markesaren aitak eta aitaratxik xabutu zizuten ontasan bek guziak* VI. OEH: *aitatxi*, *aitetxi*, *aitaatxi*, *aitabitxi*.
- Akhidua.** Akhidura. *Haren urhezko biloak, haren frakzione delikatuak eta freskoak, doloren eta akhiduaren gatik, argitzen zuten (...)* I. OEH: *akhidura*, *akidura*, *akidiura*.
- Akzento.** Ahotsa, doinuera. *Doloresek behatu zion eta akzento segur batekin erran zion* XL [EH *accento*]. OEH: *akzentu*, *azentu*, *azento*.
- ? **Amodio mutua.** Elkarrenganako maitasuna. *Amodio mutua ez zen kanbiatuko nigarretako egin amodio batean* XXII [amor mutuo, 1886; amitié mutuelle, 1879].
- Apartemendu.** *Hau bere apertemenduan promenau zabilan* XI [la cellule qu’elles occupent, 1979:247]. OEH: *apartamendu*, *apartimendu*, *apartamentu*.
- Apzetatu.** *Piarresok gogotik apzetatu zuen* XXIX. OEH: *azeptatu*, *akzeptatu*, *akzetatu*.
- Argia eman (haur bati).** Erdi(tu). *bere emaztea bil zitzaizolarik emaiten zakolarik argia seme bati* VI. OEH: *argira eman* ‘traer al mundo, dar a luz’ eta *argitara eman* ‘dar a luz (un niño)’ (*haur bat*, *haurra*).

- Arruina.** *Juan zen parke hartara esperantzarik eztieneekin eta heien arruina harrapatu zuen ban XIX. Han jakinen duzue miserablen arruina eta egiaren eta bertutearen triunfa LI. OEH: arruinamendu, ruinamendu “ruina, destrucción”.*
- Asosiant.** *baren komersioan asosiant sarthbu zen XXIX. OEH: sozio, sosio, zozio.*
- ? **Berri.** *iz. Eleberria. Historia nabasten da berriari XXIII [La historia se mezcla á la novela, 1886:102]. Gaztelaniaren kalkoa da.*
- Berriagoko/Berriagokorik.** *iz. Berriagorik, albiste berriagorik. (baiezkako, ezezakako nahiz galde-perpausetan: zerbeit/deus + berriagoko/berriagokorik). egun guziet zerbeit berriagoko bazelarik XXVII. Eguna phasatu zen berriagokorik gabe XLIII. Hirur egun phasatu ziren deus berriagokorik gabe XLIV. OEH: Berriagorik.*
- Bezan.** *Ez zunan bizitzera uztea bezan krudel izanen L. OEHk dio bezan ez dagoela dokumentatua: “Azkue da tbn “bezan (L, S), bezanbat (Lc, Ae)”, pero bezan no se documenta como palabra independiente, sino en bezanbat, bezanbeste, etc.” (OEH. bezain). Beraz bezan nobela honetan, behintzat, dokumentatzen da.*
- Boila.** (buruko) *Beloa. bere bilo ederrak, zoinak jautsi baitziren baren solbalden gainera boila lodi eder bat bezala LI [comme un voile mouvant, 1879:269]]. Doloresek ez zion begithartea ikhusi abal izan boila batek estaltzen ziolakotz XXXVII. [buala izan behar ote du?]. OEH: belo, belu, bela.*
- Buenaventua.** *emazteak zare saltzen eta buenabentuaren erraiten ari direlarik I. OEH: bonabentura, bonabantur.*
- Buhamu.** *Buhamea, ijitoa. Hugriatik eta Espainiatik urte guzietz gure aldeetarat jiten diren buhamuetarik zen I. [Bubami ere badago, XIII]. OEH: bubame, buhami, behomi, bobamu.*
- Desizione.** *Ene desizionea ezin hautsia duk XXII. igurikatzen zuen pazientziarekin Dolore-sen desizionea XVI. OEH: dezisio, dezisio.*
- Dolua alxatu.** *hire infidelitatearen doluaren alxatzeko [XLI llevar el luto de tu infidelidad, 1886]. OEH: dolu hartu, dolu egin, dolu(a) ekarri, dolu izan, doluan sartu, etab. Altxaturen adiera berezi batean (“Establecer, instaurar (un rito, devoción...)” koka daiteke agian dolua alxatu.*
- ? **Ekutatu.** *Entzun, kasu egin. Zendako ez nauzu ekutatu? XLVII.*
- Errealizatu.** *sobera maite haut, hiri errealizatzen abal ez dien esperantza batzuen uzteko XXII.*
- Errealo.** *Errearoa, ekaina. Errealoaren leben egunetan, Piarres fidel bere kostumari, iduritu izan zitzaion uzten abal zuela jauregia XXIV. Adibide bakarra. OEH: erriario, errieiro, erearo, errearo, etab.*
- Errebiazko.** *Piarresek egin zuen desesperazionezko eta errebiazko oihu ikharagarri bat XXV. OEH: errabia, errabiadura, errebiagarri, errabiamendu, errebiamentu, errebiatu, etab.*

- Errepartitu.** Partekatu, elkarrekin partitu. **Alegria errepartitu:** *orok errepartitzen ginuen haren alegria* XIV. OEHn hitza ageri da baina ez adiera hori, bai besteak: “Repartir, dividir. Repartirse, distribuirse”.
- Errezonatu.** Durundi egin. *Hitz horiek heien beharrietan errezonatu zuten gillotinareneko aboak bezala* XLIX. [erresonatu izan behar ote du?]. OEH: *resonatu*.
- Espian egon.** Zelatan egon. *Gisa hortan mintzo zelarik boz erdi apha! batean, inketatu gabe nebok entzuten zuen, Eusebia hurbildu zen eta espian zagon* L [prêter l’oreille, 1879]. OEH: *espia, ispia etab., espiatu*.
- Fartitu.** I. Joan, partitu. [Marseillara] *Fartitu zen berehala Salbadorrekin batean* XVII. 2. Partitu (norbaitekin/-en artean): partitu, banandu, partekatu. *hanitz maite zuten elgar eta estimatzen ziren, fartitzen ziuzten beren inpresione guziak, maitbatzen ziuzten gauza berak* XVII. OEH: *partitu, phartitu* [phartitu ote da AMko fartitu?].
- Frakzione.** Aurpegiera, hazpegiak, aurpegiko ezaugarriak. *haren frakzione delikatuak* I. *haren frakzionen delikatasunak* II.
- Gandelar.** Dolores gandelarra harturik *haren aitzinean abiatu zen* XXXIII [flambeau, 1879; candelabro, 1886]. OEH: *gandeler, kandaler, kandelar, kandela, gandela, kandelera, kandelero etab.*
- Gardiatu.** du *ad.* Zelatatu. *badoba gardiatzera leibo baten gibelera, handik ikhusteko ikhusia izan gabe* VIII. OEH: *guardiatu, goardiatu, gardiatua* “Vigilar, cuidar (...). (Part. en función de adj.) *Izan zaitte zure hitzetan modesta eta gardiatua. Mih. 66*”, *gardatu, guardatu, goardatu, guardia, gardia, goardia, etab.*
- Garnigailu.** Apaindura. *Hura zen Dolores, behatsetik gelditzen ez zen kanpaña eder heien garnigailua* XIII [ornement du paysage, 1879:45].
- Gogo izan.** (+ partiz.) *Eta hiri behatu gogo nintzan egunean ez betan bahaurek kofesatu Eusebiak hire promesa eta hire fede bazituela?* L. OEHko adibide oso guztietan ageri da *du* laguntzailea, ez *da*.
- Hitstasun.** Zurbiltasuna; tristezia. *bits-bitsa egin zen bainan arbolen itzalek disimularazi zioten bere hitstasuna* XIX. OEH: *histasun, hits* II (Sust) (Precedido de gen.) *Palidez, tristeza; histura, hisdura*.
- Hitzemana izan.** Norbaitekin ezkontzeko engaiatua izan (gazt. *estar prometido-a*). *Hitzemana nuk... Hitzemana! -dio Salbadorrek, phasatzen delarik sorpresatik kolerara!-. Hitzemana! Eta nor da hire ebastera atrebitu dena? Hitzemana! Eta nori?* XXII [Promise, 1879:75]. OEHn *Hitzemana* izen gisa ageri da: (Sust.). “Fiancé, qui est engagé de parole au mariage. *Ene hitz-emana bere hitzean balin badago*” H. *Éta (zerbaitera) hitzemana izanen adib. bat dago (“Hitzemana naiz lanera”, Dv)*.
- Hokolost.** Holokausto. *Sortbu niz hokolostetan ofreitua izaiteko ez deuskeria batzuentzat?* XXI. *izan zen Doloresen baithan bere buruaren hokolostetan ofreitzeko desira handi bat.* XLIII. OEH: *holokausto, holokaust(a), holokosta*.

- Ihesten.** Irensten. *Salbadorrek ihesten zuelarik bere bebatze eziaz munduan maite zuen bakbarra XXXI* [devoraba (con la vista) 1886:218; il dévorait (des yeux), 1879:172]. OEH: *irentsi, iretsi, iruntsi etab.*; adibideetan *iresten, irensten etab.*
- ? **Inbidia.** 2. iz. Haserre (?). *Inbidiak gorritu zuen gizon zabar baren begithartea XXXIV* [ira, 1886: 230; colère, 1879:181]. OEHk bekaizkeria (g. 'envidia') adiera besterik ez du biltzen.
- Inket.** Kezkatua; urduri (egon). *iduri du inket dela V. inket ziren markesak zeren eta erregek partida handiak baitzituen X. juntatu zen Eusebiari bazakielakotz zoin inket zen XXVI.* OEHn *inkiet, inkiet; inket ere bai, baina beste adiera batekin ageri da: "inket (V-arr). (...) (perrotea, inketa)" AEF 1926, 74.*
- Inketadura.** Kezka. *iduri zuelarik ez izaita bertez inketadurarik baizik ere bere piaiaren burura fite heltzea I. 1788ko maiatzaren lehenian Salbadorren letra batek handitu zituen baren inketadurak XIV. han bere inketadurak ezin gorde zituela XXXVIII.* OEH: *inkietadura* ("Inquiétude, trouble, agitation d'esprit, inconstance d'humeur" Chaho), *inkietamendu, inkietamentu.*
- ? **Kanbio izan** (izena+ -tik). Diferentea izan (?). (buhameak) *ez dira gaiptoak jeneralean beien arrazatik kanbio den jendeentzat II* [para con los individuos extraños á su raza, 1886:9]. Lexikalizatuta ote dago *kanbio izan?* OEH: *kanbio izan.* *Cambiar (leben zenetik kanbio da. Laph 99).*
- Karater.** Izaera. *ile hori berak zituen, begi barne belx berak, karater eta botz ezti bera IX* [EH carter; la même douceur de caractère et de voix, 1879:31; la misma dulzura de carácter y de voz, 1886:43]. OEH: *karakter, karaktera, karatera.*
- Khihits.** (*Nigar khibitsez*). *izond. Kiratsa. Zonbat esperantza konsolagarri nigar khibitsez bustiak! X.* [*kbirets ere ageri da AMn, eta usu kbirestasun eta kbireski*]. OEH: *kirats, karats, kirets, kbirets etab.*
- Konmobitu.** Hunkitu. *Ez zuen deus gebiago ibardetsi abal izan Martinek, konmobitua LII* [EH commobitua].
- Konspiratu.** *Hau errepublikaren kontra konspiratu duena da erreginaren salbatzeko XXXIV. Desertatu duzu edo konspiratu? XLVII.* OEHn ez dago *konspiratu, ez kospiratu.*
- Konspiratzale; Konspirador.** *konspiratzale eta desertor bat ni XXXIV. Bai, konspirador bat biz XXXIV.* OEHn ez dago *konspiratzale, ez konspiratzaile, ez konspirador.*
- Lehen aitak.** Arbasoak, asabak. *beren leben aiten kostunbreak ez dituzte behin ere utzi II.* OEH: *Lebenen-aita.* Patriarca. *Aitalehen, aitalen:* 1. Patriarca. 2. Padre fundador. 3. Padre prior 4. Aitalen, bisabuelo. 5. Antepasado. 6. Patriarca, obispo de ciertas sedes importantes. *Leben* (Con *aita, ama, guraso...*, ref. a Adán y Eva). Cf *aitalehen, lebenen-aita.*
- Mainhatu.** Mainak, txerak egin. *alde guzietan errezebitzen eta mainbatzen zuten izen handi baren ondokoa izan balitz bezala XIII. hau ban mainbatua eta ontsa soñatua izan*

zen XXVII. [*mainatu* ere, XXVII]. OEH: *mainatu*, *mainbutsu* (izond.), *mainazu* (izond.)

Mataletz. Lastaira, koltxoi. *ezarri zituen zonbeit mataletz lurrean XXXV*. OEH: *matlaz*, *matelaz*, *matelas*, *matalatz* etab. Inprimategiko hutsa ote da *mataletz?* *matalatz* izan behar ote du?

? **Nitaz.** (diskurtso markatzailea). Niri dagokidanez, nitaz denaz bezainbatean *Eta nitaz, berari erran dakodan bezala, joanen niz estranjerrerat eta galdeginen dut atherbe komentu batean XLIII* [Tocante a mí, 1886:299; Quant à moi, 1879:237].

Odios. Gorrotagarria. *Ez zuen nabi sekula jakin zezan Salbadorrek Eusebiaren orde bil zela, hau odiosa izanen tzitzakola beldurrez XLVII*.

? **Parrean** (genit. *-en parrean*): *-ri buruz, -ren aldera(ko)*. *Bethi bere amodioaren parrean ez zuen Salbadorrek ikbusten motibo faborablerik beizik bere ezkontzarentzat XVI* [enfrente de su amor, 1886:77; en face de son amour, 1879:58]. OEHn ez da ageri adiera figuratu hori; mailegu gordina ote da?

Pandeleta. Pandereta, pandero txikia. *pandeleta bat izan ez balu gerrian ez baitzen aise izanen pentsatzea zoin arrazetarik heldu zen I*. OEH: *pandereta*.

Parlamentario. Parlamentu. *Parlamentarioan handitu ziuzten herritarren zergak XIII*. *Izkiriatu zuen goiz hartan Parlamentariotik haren dretxon beiratzeko XIV*. OEH: *parlamentu*, *parlamendu*, *parlament*: Parlamento.

Pedatzu. Puska, zatia. *arima pedatzutan ezartzen duen gerlekin XLII*. *arima pedatzutan ezartzen deitazue L*. (*Pedazu* forma ere badago: XXII). OEH: *pedazu*, *pedaxu*, *peaxu*, *pedexu*, *peraxu*, *pedatxu* (baina ez *pedatzu*) “remiendo”, “pièce, morceau d'étoffe”, “pedazo”. Azken adiera honetan darabil *pedatzu* moldatzaileak.

Pensionist; Pensionest. *Dolores sarthu zen Arleseko karmelitetan, (...) pensionist bezala XXII*. *baziren han zazpi pensionist XXIV* [EH pensionizt]. *pensionest gazte bat XXVII*. OEH: *pensioner*, *pensioner* “Pensionista, alumno interno”. “Pensionaire”.

? **Phensaketatua** (ibili). *Partiz*. Gogoetetan murgildua; pentsatzen. *markesa promenan zabilan phensaketatua X*. OEHn aditza ageri da, adiera berarekin, nahiz ez AMn duen erabilera bereziarekin: *pentsaketatu* “Pensar, reflexionar”. *bebar tiizi (...) aizinaz pentsaketatu*. AR 124. *pentsaketa zite beste religioniaren egien gañan*. Ib. 122. *Bebar diizi, luzaz gure beithan pentsaketatu*. Ib. 126.

Pilpirazione. *beien bibotzen pilpirazioneak XV*. OEH: *pilpira*, *pirpira*, *pilpirra* “Palpitation, battement de cœur”, “Palpitación del corazón”.

Preparazione. Prestaketa, gazt. `preparativo`: *Piarresen aldean xutik zagon Dolores behatzen zuelarik trixteki preparazione horier guzier X*. OEH: *preparatibo*, *prepario*, `preparativo`, *preparu*, *preparamendu*, *preparazio*, *preparazione* “preparación”.

Salbakondukt. *bere eskuetan zuela salbakondukta XLIV*. *salbakondukt baten ardiesteko XLIV*. *Piarresen eman salbakondukta LI*. OEH: *salbakonduto* “salvoconducto”.

- ? **Siheska.** Sehaska. *sibeska* batean ezar zezan haurra VIII. Adibide bakarra. OEH: *sehaska, seiaska, siaska, sieska, etab.*
- Soperbio.** geroa ez baita gaixtoentzat eta ez soperbioentzat LI. Adibide bakarra. OEH: *sup(h)erbio, superbo, soberbio, suberbio, suberbo, suberba; ez soperbio.*
- Solbalda.** *barreatu zituen bere bilo ederrak, zoinak jautsi baitziren haren solbalden gainera* LI. OEH: *sorbalda, sobalda, solbarda, etab.*
- Tiranet.** *hartu zuen tiranet batean beirratua zeukan zonbeit urreria* XXIX. Adibide bakarra. OEH: *tirante, tirenta. Tirante, tirent* edo holakoren bat izan behar ote du?
- ? **Trabies.** Okerra; bihurria. (Salbador) *Hau trabiesa zen, erdi gaixtoa sehiertzat* IX. Adibide bakarra [EH *trabieza*]. OEH: *trabieso* “Revesado o travieso”; *Trabie-sa, trabes.* Apuesta, *traviesa.*
- ? **Uste.** *arropa guziak deitzen zituen Graziana, uste hetan zen baren alaba* VII. *Piarres egon zen baren ofearen aintzinean bainitz egun ikharetan, uste markesa hilen zen* VII. OEH: *ustez, ustez eta + adizk. -n/-la.* Isilpean ote dago usteren kide edo laguntzailea (*izanik, zuen*)?
- Xirulatu.** (haizeak edo beste zerbaitek) Txirula bezalako hotsa atera. *Sudeko aldetik heldu zen haize batek erbautsi zituen bazter guziak gauaz (...) ez zen xirulatzetik gelditzen, arrailtzen zituelarik arbolak* I. OEH: “1. “Jouer de la flûte” 2. “Txülül-latü (S), au fig., boire, avaler”. 3. *xiruldu.* Cantar. 4. *xirulatu.* Aflautar (la voz).
- ? **Zer egiten daut (...) X-ek?** Zer axola dit X-ek? *-Eta zer egiten daut eni andere Mirandol[ek]?* XLVII [EH *Mirandol*]. Adibide bakarra. OEHn *egin* aditzean ez da ageri ‘axola izan’ edo antzeko adierarik.
- ? **Zeremonio.** Zeremonia. *erregina ezkontzako zeremonioetan aurkbitu zen* II. Adibide bakarra. OEH: *zeremonia, zerimonia, zirimonia, ziremonia.*

AMODIOAREN MARTIRRA
DOLORES, EMAZTE BAT BERTHUTEZ BETHEA



(Edizio modernoa)

Edizio modernoa zertako? Irizpideak

Amodioaren Martirra eleberria nahiago izango dute batzuek egungo ortografian eta zaluago irakurri, hartako prestatu dugu edizio moderno hau, testua edizio kritikoan oinarrituta. Uste dugu gehienentzat irakurterrazagoa izango dela edizio moderno hau edizio kritikoa baino. Saiatu gara irakurleak pasarte zail samarrak uler ditzan edizio kritikoko oharretara jo behar izanik gabe, eta, bestalde, hitzen esanahia ulertzeko hor du edizio kritikoko hiztegia. Hortaz, bi edizioak elkarren osagarri direla uste dugu.

Bi xede izan ditugu: lehena, eleberria ahalik eta ulerterrazena egitea eta beraz euskara batura hurbilaraztea; bigarrena, eleberriaren bi ezaugarri nabarmen gordetzea, hau da, Iparralde-ekialdeko euskara eta gaztelaniatiko maileguak. Beraz, ahalegindu gara ezkontzen jatorrizko euskara moldea euskara batuarekin (*Euskaltzaindiaren arauak*, gramatika, *Hiztegi Batua*, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*).

Lau irizpide jarraitu ditugu:

1. Euskara batuan ezarri ditugu ortografia, toki izenak, adizkiak, erakusleak eta deklinabideko atzizkiak. Toki izenetako plural formak kendu ditugu: *Versaillesetan* → *Versaillesen*. Adizkiei dagokienez, *zoan* → *ziboan* aldatu dugu, nahiz moldatzaileak beti *zoan* ematen duen. Ekialdeko adizki berezi batzuk atxiki ditugu: *xauri* ‘zatoz’ XXXIII, *zirola*, *niro* etab. (-*iro*- erroko adizkietan bokal arteko -*r*- ezarri dugu, jatorrizko testuan galdua zutena; beraz edizio kritikoan *ziola*, *nio* eta hemen *zirola*, *niro*). Baita -*er* datibo pluralaren marka (*pareter*, baina *beer* → *baier*) eta -*rat* adlatibo norabide adierazlea.

2. Hitzak *Hiztegi Batukoak* ezarri ditugu askotan. Jatorrizko euskalkiaren eta euskara hein bat zaharraren usaina gorde nahi izan dugu eta beraz ez ditugu aldatu *Hiztegi Batuan* *Ipar.* edo *Naf.* marka duten hitz asko. Iparraldeko tradizioan erabilitako aldaera zenbait ere errespetatu dugu ((*r*)*en ganik*, -*kotz*, *libro*, *perfet*, -*zio-ne*). Erdal maileguak ere –hizkuntza ezaugarri nabarmena– atxiki ditugu, adib. -*os* bukaeradunak (*jenerosa*, *odiosa*, *peligrosa*). Mailegu horietako asko ez dira ageri

Hiztegi Batuan baina bai *Orotariko Euskal Hiztegian*. Bestalde, hitzetan formaren osotasuna eta batasuna bilatu dugu (gezi batekin markatzen ditugu edizio kritikotik modernorako aldaketak): *konspirador*, *konspiratzale* → *konspiratzaile*; *trixteza*, *tristeza*, *tristesia*, *trixtezia* → *tristezia*); *zendako*, *zerendako* ‘*zergatik*’ → *zerendako*.

3. Jatorrizko testua ulergarriagotzeko asmoz, sintaxi eta estilo aldaketa batzuk egin ditugu. Arlo batzuk aipatuko ditugu –askotan elkarrekin korapilatua daude– eta dagozkien adibide gutxi batzuk jarriko.

3.1. Kohesioari dagozkion aldaketak. Batzuetan subjektua ezarri dugu. Adib.: *Hola espresatzen zituen bibotz gazte hura betetzen zuten sendimenduak* → *Hola espresatzen zituen Salbadorrek bere bibotz gaztea betetzen zuten sentimenduak* XIII. Edo, subjektua zein den garbiago ulertzeko, izena ezarri dugu erakuslearen ordeztu: *Salbador abiatu zen kanporat eskapatu nabiz. Hok apuntatu zuten* → *Guardiek apuntatu zuten* XXXIII.

Kohesio-mekanismo anaforiko egokiagoak bilatu ditugu. Adib.: *Kruelki penatua markesaren galtzeak, zeinak ama errenplazatu baitzion, eta Salbadorren ganik libratzeko egiten zituen indarrak, konsolatu behar zuen adixkide baten presentzian.* → *Andere markesaren galtzeak, hark ama errenplazatu baitzion, eta Salbadorren ganik libratzeko egiten zituen indarrek kruelki penatua, adixkide baten presentzian kontsolatu behar zuen Doloresek* XVIII.

3.2. Sintaxiari dagozkion aldaketak. Adib.: *behar duk kostuma hartu ontsa pentsatzea* → *ontsa pentsatzeko ohitura hartu behar duk* XI; *Doloresek lagundu zuen andere Mirandol bere ganberara, zeinarekin partitu behar baitzuen handik aitzina* → *Doloresek lagundu zuen bere ganberara andere Mirandol, zeinarekin partitu behar baitzuen ganbera handik aitzina* XVII; *Sakrifiziorik dolorosena egiten bazuen, jenerosena egiten zuen* → *Sakrifiziorik jenerosena egiten bazuen, dolorosena egiten zuen* XX.

3.3. Hitzordenari dagozkion aldaketak: *ez zaigu gelditzen gurtzea zeruaren aitzinean eta negar egitea baizik* → *ez zaigu gelditzen zeruaren aitzinean gurtzea eta negar egitea baizik* XIV; *Grazia haren begitartetik saltatzen zen zeruko argi batek inguratzen izan balu bezala* → *Haren begitartetik grazia saltatzen zen zeruko argi batek inguratzen izan balu bezala* XLVI. *Ez bakbarrik joaterat uzteko hil nabi izan dut honekin* → *Ez uzteko bakbarrik joaterat hil nabi izan dut honekin* LII.

3.4. Beste aldaketa batzuk ere egin ditugu testuaren ulermenaren onetan, jatorrizko testua –gaztelaniazkoa batez ere– interpretatuta. Adib.: *Politikako malbur guzien gatik, koronelak eman zeen permisionea* → *Politikako malurrak larriak izanagatik, koronelak (...) XIV; Iduritzen zitzakon ederra zela, bainan ez zuen uste hainbertze* → *Iduritzen zitzaion ederra zela, baina ez zuen uste hain ederra izanen zela* XV.

AURKIBIDEA

I.	<i>PHARTEA. BUHAMUAK. (I-IV)</i>	325
II.	<i>PHARTEA. CHAMONDRINEKO JAUREGIA. (V-VIII)</i>	331
III.	<i>PHARTEA. DOLORESEN HAURTASUNA. (IX-XIV)</i>	339
IV.	<i>PHARTEA. AMODIOEN KAPITULUA. (XIV-XXIII)</i>	349
V.	<i>PHARTEA. HISTORIA NAHASTEN DA BERRIARI. (XXIII-XXVI)</i>	367
VI.	<i>PHARTEA. DESERTORRAK. (XXVI-XXIX)</i>	373
VII.	<i>PHARTEA. ERRIDAU BAT HIHITZEN DA. (XXIX-XXXIV)</i>	379
VIII.	<i>PHARTEA. PRESONDEGIA. (XXXV-XXXVI)</i>	389
IX.	<i>PHARTEA. EUSEBIA DE MIRANDOL. (XXXVI-XL)</i>	393
X.	<i>PHARTEA. AMODIOAREN GERLA. (XL-XLIV)</i>	399
XI.	<i>PHARTEA. ARGIA. (XLIV-XLVIII)</i>	405
XII.	<i>PHARTEA. ADIO. (XLVIII-LIII)</i>	415

I. PHARTEA. BUHAMUAK



(I)

Goizeko sei orenak jotzean, 1770ko martxoko egun batez, emazte bat, haur sortu berri bat besoetan, jautsi zen Gardon deitzen den ur handiaren ezkerreko aldeari behera, eta hurbildu zen asko inportantzia duen herri baten aldera, zeina deitzen baita Remoulins. Emaztea gelditu zen apur bat bere bidearen gainean, iduri bere baitan bilatzen zuela zein bide behar zuen segitu. Denbora guti iraun zuten haren dudek.

Denbora arras hotza zen, euria ez zen gelditzen istant bat ere. Sudeko aldetik heldu zen haize batek errautsi zituen bazter guziak gauaz eta oraino ere goiz hartan; ez zen txirulatzetik gelditzen, arrailtzen zituelarik arbolak eta errotik ateratzen landare suerte guziak. Zeruko aldean ikusten ziren laino gris eta zuri batzuk bazebiltzan nahasiak, iduri itsaso samur bat. Lainoek iduri zuten zombait aldiz ukitu nahi zutela lurra, baina haizeak altxatzen zituen airetan gora forma itsusiak hartuz martxa fier batekin.

Gure emaztea, borroka euriarekin eta haizearekin, aitzina zihoan urrats segur batean, iduri zuelarik ez izatea bertze inketadurarik baizik ere bere bidaiaren burura fite heltzea, haur bere besoetan lo zeukan haren begiratzeko hotzaren kontra. Hain gaztea zen ez baitzuen iduri bazituela oraino hogeituzte. Haren bilo horiak ateratzen ziren buruko mokanes marrakatu haren azpitik, iduri baitzuen egungo egunean Bordaleko inguruetako orraztatzeko manera. Haren abilamendua ikusgarri zen, hala josia zen manieraz nola kolore diferentetz: lana urdinezko tunika bat brodatua urrezko galonez eta estekatua gerrian zinta gorri batez. Galtzerdirik ez zuen eta zangoetan zituen oinetakoak ziren espartin lieta gorriz estekatu batzuk. Haren saia higatua zen eta bazuen tarratada franko, haietarik zenbait josiak anitz koloretako hariez; iguzkiak kolorea jana zion eta ezagun zen aspaldian soinean zuela. Hitz batez, haren abilamendu guziak miseria handia erakusten zuen. Bizkitartean, deusik ez da kausitzen ahal emazte haren begitartea bezain ederrik. Haren urrezko biloak, haren frakzione delikatuak eta freskoak, dolore eta akidura izanagatik ere, argitzen zuten ezin

erranezko edertasun batez. Haren begi beltzek bazuten behatze ezti miragarrri bat. Desohoreak estaltzen zuen begitarte xarmant hura, esku ttipi eta haur zango haiek ez zuten parerik. Haren arropen agerian uzten zuten gorputz eder hartako haragia zuria zen eta fina, poxi bat gorritua gorputz perfet hartan irakiten ari zen odolaz.

Halakoa zen emazte hura non pandereta bat izan ez balu gerrian ez baitzen aise izanen pentsatzea zein arrazetarik heldu zen.

Dominika, ezen hori zen haren izena, anitz mende honetan Hungariatik eta Espainiatik urte guzietan gure aldeetara jiten diren buhameetarik zen; orduan bezala orai ere anitz jiten da Frantziako eguerdiko aldera, Baionako eta Ortzaizeko aldera; gisa berean Marseillako, Niceko eta Beaucaireko aldeetara, Avignonera eta Arleseraino. Beren egoitzak egiten dituzte Jainkoak nahi duen lekuan, beren karroetan egoten dira gauaz, eta egunaz gizonen egiten dituzte asto tratuak, emazteak zate saltzen eta buenabenturaren erraten ari direlarik herrietako gazteak tronpatuz sos zenbaitez jabetzeko, eta haurrak igortzen dituzte gazterik karitatearen galdetzerara.

(II)

Jende kasta hori, Europa guzian barreatua, kostunbre misterioez bete da eta, gehiago dena, nehork ez daki zer kastetarik diren. Iduri dute jende beltz edo gorrietarik atereak direla eta egungo egunean zuriakin nahasiak, baina beren lehen aiten kostunbreak ez dituzte behin ere utzi.

Gure Eskual Herrian bizi denak, eta hona jiten denak, ardura harrapatzen ditu udan jende horietarik tropaka, baina hotzak ukitu orduko golondrina bezala leku beroetarat ihes joaten dira eta ez dira itzultzen berriz beroak jin artio. Haien lengoaia erdi espainol eta erdi euskara nahasi bat da, badira zenbait puska bat nahasten dutenak frantsesa eta oraino zenbaitek ikasten dute euskara. Gizonak ontsa formatuak dira, beltzaranak, ile kuskulatu eta botz lodi batekin. Emazteek, deus edertasunik. Kobre kolore dira gehienak eta behatze bat arras salbaia dute.

Bizkitartean ez dira gaixtoak jeneralean haien arrazatik diferente diren jendeentzat. Buhameak bizi dira familiak formatuz; familia bakoitzak baititu hogei eta hogei eta hamar pertsona, obeditzen dute emazte bati, zaharrenari; egiazko erregina deitzen dute, haren manuak soberanoak direlaketaz, bera bertze erregina bati sumetitia izanik ere.

Dominika bere sortzez jende haietarik ote zen? Ez dakigu, baina haren biloa-

ren koloreak, haren frakzioneen delikatasunak, haren larru zuriak erraten zuen ez zela jende haietarik ateratzen; alabaina Dominika, izanagatik ere buhameen odola bere gorputzean, edo haur ebatsi bat ardura gertatzen den bezala izanik ere, oraino amodio misterioz bete baten fruitua, biziki ederra zen. Harek uste zuen buhameetarik zela, haren imajinazionea haietan sekula ez baraturik ere.

Beharbada haren aldean bizi zen jendeak ezagutu zuen ez zela haien arrazatik, zeren eta ez baitziren harentzat sekula onak izan.

Begiratua instinto sekretu batez, garbia zen, arras garbia.

Egun batez harrapatu zuen bere bidean liburu bat, eta bakarrik frantsesez leitzen eta mintzatzen baitzuen, uste zuten bertzeek urguiluz betea zela, haren baitan sendimendu horretarik ez izanik ere.

Haurra zelarik joka ehotzen zuten ez baitzuen nahi eske joan, eta handitu zenean haren etsairik handiena izan zen haren edertasuna; ezen hartarik jin zitzaizkion gaitz guziak. Orok hastio zuten eta gehiago hastiatu zuten ikusi zutenean ez zuela haien artean senar bat hautatu nahi.

Nahi zuten bortxaz ezkontarazi, baina eskapatu zen.

Tropa bat joan zen bila makilez armaturik, harrapatu zuten eta kolpeka hetsirik ezarri zuten karro handi baten barnean erraten ziotelarik han egonen zela ezkondu nahi zuen arte. Emazte gaixoak anitz sufritzen zuen, jotzen zuten, gosea atxikitzen, guzien irriegangarri zen, eta hilen zen Jainkoak ez balio igorri libratzera Peio, hogeit eta bortz urteko mutiko xarmant bat, zeinek eman baitzitu-tuen manuak hura hobeki trata zezaten.

Nola biziki mutiko azkarra baitzen, kuraiatz betea eta terriblea bere koletertan, inguratzen zituen guziak ikaratzen baitzitu, obeditu zuten eta oro neskatxarentzat kanbiatu ziren.

Dominika ez zen ingrata izan eta ezkondu zen bere ongiegilearekin. Kostumaren arabera, erregina ezkontzako zeremonietan aurkitu zen.

Hogeit eta bederatzi urte zituelarik hila harrapatu zuten Peio.

Dominikak hemeretzi urte zituen eta lau urte baizik ez zen bizi bere senar-rarekin uros.

(III)

Emaztearen edertasunaz jelos izanez, bere lagun batek hil zuen Peio bederatzi ganibet ukaldiz.

Dominika alargun gelditu zen ama izan behar zuen mementoan, hortako ez zen xangrinez hil.

Sei hilabete pasatu ziren zeinetan errespetatu baitzuten haren dolua. Orduan amatu zen haur neska batez.

Istorio hau hasi dugun aitzinagoko arratsean bere haurraren lokarrarazten ari zen, noiz eta ere aditu baitzuen boz bat apal, kasu eman zuen zer erraten zuten eta hartaz mintzo ziren. Baina zer konbersazione espantagarria! Zer estatutan gelditu zen emazte gaixoa, entzun zuenean bere alaba kendu behar ziotela, hura galdu nonbait eta haurrarekin gelditu gero hari eskarazteko! Konbersazio-ne izugarri hori gehienik atxikitzen zuena zen Concorvita, emazte malurusaren ama erraten zutena.

—Utz dezagun leku hau Avignonerat joateko -erraten zuen emazte hark-, behar dugu harrapatu okasione bat Dominikaren galarazteko eta haren haurraren ebastekeo.

Orok erraiten zuten:

—Ez da aise izanen.

Berak erraten du orduan:

—Bueno, nihaurek eginen ditut oro.

Dominikak aski entzun zuen, ikaretan joan zen urrunago, eta galdegin bere buruari nola eskapatuko zen irrisku hartarik. Gau guzia pasatu zuen pentsaketa eta azkenean hartu zuen erresoluzioea ihes joateko.

Biharamun goizean goizik preparatu ziren buhameak joateko, eta ofreitu zioten Dominikari jarleku bat karroan, zeinak hartu baitzuen zeren eta bere indar guzieren beharra baitzuen hartua zuen xedearen konplizteko.

Arrats apaleko heldu ziren Avignoneko hiriaren ondora eta han gelditu ziren. Dominikak ikusi zituen keinuka ari zirela eta pentsatu zuen hura bere haurrarekin lokar zadin beha zeudela, gero jokoaren egiteko. Dominika beilan zegoen.

Zortzi orenak heinean gizonak joan ziren hiriko ateen alderat; xaharrak lo zeuden, gazteak eleketa ari ziren elkarrekin eta haurrak lo ziren beren kaman-tzetan.

Dominikak baliatu zuen memento hura urruntzeko harrabotsik egin gabe, zango puntan gainean emeki kurrituz. Ehun urrats joan eta ondoan bat-batean jauzi bat egin zuen bere membro guzietan eta lasterka abiatu zen haren ondotik norbait heldu balitz bezala alaba maite haren hari kentzera, bere bihotzaren kontra tinkatzen zuen, fite eta fiteago zihuan iduri bere amaren boza entzuten zuela, ez zen gelditu hatsantua indarririk gabe erori artio.

Orain irriskutik urrun zen, bizkitartean ez zegoen trankil; segitzen zutela beldurrez, berriz eman zen lasterkari Gardeko zubiari buruz, pentsatuz alde hartarat joan zela ez zutela pentsatuko eta itzuliko zirela, ezin harrapatuz, beren karroetarat, han elkarren artean xede baten hartzeko.

Gau guzian joan zen, batean fite, gero erreposkixago hatsaren hartzeko. Eguzkia ateratzen ari zen zubira zeneko, haizea bortitz zen oraino baina iduri zuen denbora kanbiatuko zela eta onera emanen.

Horra non arribatu den bezperan zen leku berera, hirur egun lehenago amatu zen tokira; flako izanagatik, han zen berriz; ezpainak haizearekin idortuak, dena bustia, zangoak hantuak, behatzen du leku hainbertze sofritu duen hari –urte guziaz hara jiten zen bere lagunekin–, anitz ukaldi hartu du leku hartan; bizkitartean eztitasunekin behatzen dio; ezen han sortua da kreatura besoetan duen delikatu hura, zeina ebatsi nahi baitzioten eta salbatu baitu. Urrunxago harrapatzen du belar puska bat, zeinaren gainean etzaten baitu bere alaba lo zagona, eta bera, ogi beltz hondar puska zombait bilaturik lurtean, joaten da urera zangoen garbitzera eta edatera; eguzkian istant bat promenaturik, itzultzen da bere haurraren aldean lo pixka bat behar duela egin, berriz indarren hartzeko. Haurra atzartzen da, presentatzen ditu amaren bularrari bere ezpain hitsak, zeinetarik esperantza baitzuen bizia, eta edaten ditu zombait xorta esne, zeinaren abondantzia guttitua baitzuen bezperako akidurak, eta gero berriz lokartu zen. Orduan, sekula izan ez zen isiltasun hartan, Dominikak sentitu zuen alegria handi bat, iduri zitzaion libro zela, libro sekulako, eta ideia horrek ahantzarazi zizkion sufritu zituen guziak; ez zekien zer egingen zuen, nola biziaraziko zuen bere haur maitea, nola mantenduko zen bera eta nola mantenduko zuen hura.

(IV)

Bainan ez dute anitz behar, txoriak eta buhamuak gutirekin pasatzen dira; lanean ariko zen, jadanik kostumatua zen lan guzietan, nor atrebituko zen hari janaren errefusatzeraz erraten zuelarik: “Nahi dut irabazi”?

Emazte gaixoak, zeinak ez baitzuen pentsamendu onik baizen, bere buru nahasian zebiltzan esperantza horiek guziak, ikaraturik pentsatzean zer arrisku-tik atera zuen bere haur maitea. Sekula ez zioten erran Dominikari Jainkorik bazela.

Ez zekien otoitz egiten, bizkitartean isiltasun hartan altxatzen zuen bere arima izate guzien nagusiari, zeinaren ahalak lagundu baitzuen bere haurraren salbatzen, eta zeinaren izena ez baitzekien. Pentsamentu horietan loak hartu zuen, pentsatu ahal ukan gabe zer egingen zuen atzartzen zenean. Zombait orenez eztiki lo eginik, atzartu zen.

Itsas orro handi bat entzuten du, gero bertze bat. Zer zen? Hura lo zegoen denboran Gardoneko ur handia handitu zen eta haren zangoetarar hurbildua

zen; jaiki zen berehala, bere haurra beso akitu haietan berriz hartu zuen, bere bihotzari kontra zerratu eta pentsaketa hasi zen zer egin behar zuen.


Ez zuen ikusten urik baizik alderdi guzietan, jadanik haren zangoak urean ziren, nehorat ez zitekeen joan eta, gauza espantagarria, ura dena jendeen eta animalien gorputz hilez bete zen; ikusten du hark ere hil behar duela, baina salbatzea hainbertze gusta zaion haur hura ez du hiltzera nahi utzi, hura behar du salbatu berriz ere eta nola egingen du?

Bat-batean oroitzen da handik hurbil mendi bizkar batean bazela jauregi bat zeinetara buhameak joaten baitziren eske. Bainan nola joanen da? Uretik behar du pasatu, bere eta bere haurraren bizia irriskatzen du; berdin du, irriskatuz salbatzeko esperantza du bere bularren kontra azkarki josia duen haur maite hura; orduan ezartzen du lepoaren gainean estekaturik hartaraino ura ez dadin hel eta abiatzen da.

Bularretaraino ura bazuen, indarrik ez, zenbait aldiz obligatua zen baratzera hatsaren hartzeko, indarrak joaten ari zitzaizkion... Uretik atera zenean jauregi-ko bidexkaren aldean, halako arriskuan pasatu zuen urari behatzeko denborarik galdu gabe aitzina doa bideari goiti, nigar egingarri den estatu batean.

Zenbait minuturen buruan heldu zen jauregiko bortaraino. Ordu zen, minutu bat gehiago eta haren belaunak indarrik gabe erortzen ziren. Erortzen da belaunez lurrera, pausatzen du bere haurra borta hartan ziren lore batzuen artean, goititzen da puska bat han zen korda baten —zeinak barnean jotzen zuen— harrapatzeko, tiratzen du baina hondarreko indar horrek hainbertze akitu du non alditxartua erortzen baita gizon baten eskuek borta irekitzen dutelarik.

II. PARTEA.
CHAMONDRINEKO JAUREGIA



(V)

Borta ireki zuen gizona gaztea zen, haren begitartea ezta zen eta haren behatzetik ezagun zen lañoa zela eta borondate onez betea. Haren abilamendua gisa berean izan zitekeen soldadu batena nola sehi batena. Hartan ziren zilarrez brodatuak Chamondrineko markes jauregi hartako nagusiaren armak.

Ikustearekin Dominika alditxartua eta haurra amaren aldean lo, ezin egon zen garrasi bat egin gabe.

–Zer da, Piarres? -galdegiten du gibeletik segitzen duen norbaitek.

–Beha ezazu, jaun markesa -ihardesten du Piarresek, erakusten ziolarik keinu batez Dominika.

–Hila da! -dio markesak, behatzen diolarik buhameari.

Harritua denbora berean Dominikaren edertasunaz, belaunikatu zen haren aitzinean eta eskua eman zuen emazte miserablearen bihotzaren gainean.

Bihotz hura jotzen ari zen oraino, baina hain gutti non markesak doi-doi kontatzen baitzituen pulsazioneak.

–Bizi da! -dio markesak zutitzen delarik-, bainan ez dakit salbatzen ahalko dugun. Fite, Piarres!, ekar ditzatela behar direnak, kasu eman diezaietela ontsa.

–O! Haurrak iduri du azkarra dela -dio Piarresek-. Ez du esne onaren falta baizik; egungo, ene ahuntza haren amañoa izanen da.

Hori erratearekin Piarresek oihu egin zion neskato bati eta eman zion haurra, gero hartu zuen ama bere besoetan eta pausatu ganbera bateko ohe baten gainean.

Piarres hogeit eta hamar urteko mutiko bat zen jauregian sortua zeren eta haren aita eta aitaso ere markesaren sehiak izanak baitziren, hazia markesaren semearen aldean bere jostetak harekin partituz; maite zuen markesa bere bihotz guziaz eta gogotik bizia emanen zuen harentzat. Lanean ari zen harentzat, edozein lanetan bazekien eta jadanik eskola puska bat erakusten ari zen markesaren seme Salvador bortz urteko mutiko xarmantari; gehiago dena, Piarres puska bat mediku zen; beti kanpoan egona, ezagutzen zituen belarrak eta haien bertu-

teak. Sekula jakitatea ez zitzaion hain nesesario izan. Dominika malurosari ez zitzaion batere ezagutza jiten, eta hain kolore zuriak zituen iduri baitzuen hila. Piarresek berehala erremedio bat egin zuen emaztearen bizirat ekarrarazteko, ez emozioerik gabe.

Lehenbiziko aldia zen emazte bati kasu ematen ziola.

Emazte haren begitarte garbiak bihotza harrapatzen zion. Emanen zuen bere odolaren erdia Dominika hari irri baten egiten ikusteko.

–Beha ezazu, jaun markesa -zioen Piarresek-, zein ederra den! Ez du oraino hogeit urte. Zer bilo ederrak, honen besoak zeta bezain leunak dira.

Memento hartan, Piarresek irekitzen zuelarik bortxaz eriaeren ahoa, sartu zizkion kanelarekin eta sukreakin irakitu arno batetik zenbait xorta. Gero frikzionatu zizkion besoak eta zangoak, odolaren kurriarazteko gorputz hoztu hartan, lanazko oihal batekin. Zango hain pollit haiek hantuak ziren eta sarraskituak.

–Anitz kurritu bide du hona artio -dio Piarresek.

–Baina ez dea batere bizi seinalerik? -galdetzen du markesak, behatzen zio-larik tristeki.

–Ez dakit; beha ezazu, iduri du poxi bat higitzen dela.

Ordu berean Dominikak ireki zituen begiak eta behatu eskuineko eta ezkerreko alderat, hitz apal batzuk erraten zituelarik haiek ezagutzen ez zuten lengoia batean.

–Mintzatu da -dio markesak-, iduri du inket dela, zerbait nahi duela.

–Nahi du bere alaba ikusi -ihardesten du Piarresek, eta lasterka bila doa.

Piarres haurraren bila zen denboran Dominikari jin zitzaion ezagutza puska bat, orduan oroitu zen zer pasatu zitzaion baina hain indar guti baitzuen ez zen mintzatu ahal izan. Bizkitartean ikustearekin Piarres, haurra besoetan, irri bat egin zuen eta eskuak zabaldu.

–Besarka ezazu -dio markesak-, bainan ez ezazula har, ez zara oraino aski azkar.

Dominikak konprenitu zuen lengoia hura eta obeditu zuen.

–Dolores maitea -dio behatze ezti bat egiten duelarik haurrari.

–Dolores! -dio Piarresek, uros buhamea ahoaren irekitzen ikusteaz-. Izen ederra da.

–Kontserbatuko duzue, ez dea hala? -zioen Dominikak-. Norabait igortze-ko ez duzue despedituko! Gaizki trata lezakete. Egin ezazue horretarik emazte bat ona eta ohoratua. Erakuts iezaiozue buhameen ez despreziatzen. Horren aita eta ama arraza madarikatu horretarik ziren.

Erran zituen hitz horiek eztiki bere ideia hobeki konpreniarazteko.

–Zaude trankil -ihardetsi zion Piarresek-, ez zaio deus faltatuko haurrari; deskantsa zaitez arrangurarik gabe.

–Bai -ihardesten du Dominikak-, deskantsa bertze munduan.

–Hiltzeaz mintzo da? -dio markesak.

Ez zuen oraino akabatu horren erratea noiz eta ere buhamea altxatzen baita, hedatzen ditu besoak, haren begitartea kanbiatzen da, haren begiak itzultzen dira eta nahi dute bere tokietarik atera, ematen du esku bat bihotzaren gainean egiten duelarik oihu izigarri bat eta erortzen delarik ohearen gainera. Horiek guziak minutu erdi batez pasatu ziren. Piarresek eta markesak berehala hartu zuten eta egin ahalak egin zituzten berriz biziartzeko. Baina inutil izan zen. Dominika hila zen.

(VI)

Hainbertze sofrikarioz arraildua, haren bihotza xehatu zen baso bat bezala. Piarresen begietarik negar bat eskapatu zen.

–Gaixo emaztea! -zioen.

–Zer eginen dugu horren alabaz? -galdetzen du markesak-. Nahi dut atxiki ene aldean, hemen edukatu eta instruitu, zeruak igorri didanez gero. Baina nor izanen da haren ama? Ene emaztea ez daiteke!

–Jaun markesak nahi balu ene nahia kunplitu... -ihardesten du eztiki Piarresek.

–Eta zein da?

–Nik ez dut ez emazterik ez haurrik, ene bizitegia arras triste da jaun Salbador han ez denean. Jaunak nahi badu Dolores ene alaba litzateke.

–Hire alaba? Nola haziko duk?

–O! Hori aise. Ezagutzen dut Remoulinsen familia bat arras ona. Emazteak badu seme bat zeinari bularra ematen baitio eta eman lezake denbora berean Doloresi; hari konfia niro denbora gutirentzat.

–Bon, haurra hirea izanen duk beraz -dio markesak-, eta amaz, haren arima bakean pausa dadila, badaiteke ez zuen Jainkoa ezagutzen, baina ez zuen iduri nehoi gaizki egiteko kapable zela.

–Banoa jaun aperezaren mintzatzera hilerrietan ehortzarazteko.

Piarresek estali zuen mihise batekin hilaren begitartea eta otoitz egin zuen harentzat, eta handik goiti bere alaba deituko zuen haurrarentzat.

Chamondrineko jauregia ez zen orduan lehen izan zen bezala, bazen denbora bat erraiten zutena “urra dario Chamondrintar bati bezala”, baina Estebe

markesaren aitak eta aitatzik xahutu zituzten ontasun haiek guziak. Parisen bizi ziren mundu hartako josteta guzietan parte hartuz. Lehenbizikoa Orleanseko Filipe handiaren gaztaroko laguna zen.

Emazteekin eta jokoan xahutu zuen anitz, eta, gazte zelarik oraino, hil zuten. Haren semea ez zuen korrijitu etsenplu horrek. Erregeren kortean lehena zen eta haren aitak ondasun haiei egin zuen gaizkia erreparatu orde, hartu zuen parte bere adixkide Law-en konseiluarekin erreboluzioea prepararazi zuen gauza izugarrietan. Orduan xahutu zituen aitak utzi zizkion guziak. Ikusirik bere adixkidek eta errege Luis XV.ak ere abandonatzen zuela, atera zen Parisetik eta joan Chamondrineko jauregirat han bakea izanzen zuela pentsatuz eta hark zor zituenak ez zirela hara joanen.

Baina horiek erregeri erran zioten eta erregek erranarazi zion Chamondrineko markesari, hirur hilabeterik barnean ez bazituen pagatzen bere zor guziak Bastillan preso ezarraraziko zuela. Markesa ez zen ixtant bat ere dudan egon, saldu zituen bere lur guziak salbu mintzo garen jauregia, eta pagatu bere zor guziak.

Baina bere bortxara gauza hori egin eta ez zitzaion gelditzen arranda guti bat baizik. Ez zuen kasik miseria baizik bere etxean, eta, gehiago zena, ikusten zuen errege eta harekilakoak harengandik urruntzen zirela. Malur handi hori erori zen haren gainera, bere emaztea hil zitzaionalarik ematen ziola argia seme bati. Gauza horiek guziek indarrak kendu zizkieten, eta kuraia galdu zuen, ezen ez zen gizon bat preparatua sufritzeko hainbertze malur. Hetsi zen bere jauregian. Han, plazerretarik urrun, bere adiskide ahantzi zutenetarik urrun, akusatzen zituelarik zerua eta gizonak haren malurrez, sartu zen tristezia handi batean.

Hala bizi zen hogoi urtez, alegeratu gabe ikusteaz bere semea handitzen; edukarazi zion herri auzo bateko apez bati eta haur bat ona atera zen. Markesa hil zen mende haren erditan, zeina izan baitzen hain malurusa haren etxearentzat. Haren semea, Estebe markesa, zeina ikusi baitugu Dominikaren herioan, aurkitu zen hogei eta bat urtetan izen handi lehen hainbertze erregeren kortean argitu zuen haren jabe. Estebe gazte on bat zen, seriosa biziki, gostu onak zituen eta modestak. Bere suertea Jainkoak igorri bezala hartu zuen; eta ez zuen pentsatzen izen handi haren altxatzea baizik.

Aita hil eta bi urteren buruan ezkondu zen etxetiar modest baten alabarekin, zeinaren leheneko bertuteek erakutsi baitzioten lagunduko zuela egiteko gogoa zuenaren altxatzen.

Ezkondu eta bihamunean eraman zuen bere emaztea jauregira eta erran zion:

—Mariana maitea, joan den berrogei urte honetan anitz sufritu duen familia batean sartu zara. Baina guk malurrak erreparatzen ahal ditugu anitz sakrifizio-

rekin. Ez dugu gozatuko gure sakrifizioen fruituez baina gure semeek, Jainkoak emaiten badigu, gozatuko dute; eta haiek izanen dira emanen diotenak etxe honi berriz argia eta forma. Pentsatzen dut lagunduko nauzula urte guzietan gure arrandatik soma azkar baten bazterrerat ematen; halako gisaz non hogeitertan gure semerik zaharrenak fortuna bat izanen baitu, gisa horretan sartuko da gortean eta bere gainerat jautsaraziko ditu ene aitek erregeren aldean izan dituzten fagoreak.

(VII)

Ezkondu eta bi urteren buruan izan zuten seme bat deitu zutena Salbador, erran nahi baitu salbatzailea. Bai, haiek esperantza zuten seme hark salbatuko eta altxatuko zuela familia hura, Jesus-Kristok gu egin gintuen bezala. Lehenbiziko urteetan arras ontsa joan ziren, lurrek abondantzia eman zuten eta sos anitz bazterrerat eman zuten; geroxago izan zuten alaba bat, Graziana eman zioten izena eta bete zuen etxe hura alegriez.

Markesak anitz esperantza zuen geroan, haren esposa emazte xarmanta zen eta jarraikia; esperantza zuen, senarrak bezala, noizbait argituko zela familia hura.

Ez zen segurki alegera bizitzea jauregi handi hartan bakarrik, auzorik ere gabe. Neguak luzeak iduri zuten. Baina markesak leitzen zuen anitz, ehizan ibiltzen zen eta kanpoko langileez kasu ematen zien, herritar batek bezala.

Haren esposak egiten zuen lan guzietarik, kasu ematen zien orori etxean eta sehiak xuxen ibilarazten zituen, iduri baitzuen ez zela gehiago bizi senarraren laguntzeko baizik. Hitz batez, urosak ziren jauregian. Lau urte pasatu ziren gisa horretan.

Salbador handitzen zen, jadanik aterea zen lehen haurtzarotik eritasunik gabe, eta mintzatzen zen arras polliki.

–Egiten dugu honetarik mutiko bat xarmanta -zioen markesak Marie-Annari-. Argituko du Europako gorteetan eta hiri handietan. Erregek emanen dio erregimentu bat gobernatzeko, eta ezkonduko da izen handiko andere aberats batekin. Eta andere honi -erraten zuen markesak erakusten zuelarik Graziana eriarekin-, ez baldin badiogu ematen ahal doterik, emanen diogu beti senar aberats bat.

Marianak irri ezti batekin kuraiez betetzen zuen bere Estebe maitea. Baina berriz ere malurrak heldu dira etxe eta familia dohatsu haren desesperatzerara.

1769 urthe hondarrean Graziana hasi zen kolore eder haien galtzen, mehetu zen halako gisaz non aita-amak harritu baitziren. Pasatzen zituzten beren gauak

haur maite haren beilan, zeina anemikoa baitzen. Gau batez markesa akitua zen eta pausatu zen fotil baten gainean lo pixka baten egiteko.

Graziana iratzartzen da eta Marianak, erremedioa ematean boteilaz tronpaturik, pozoindatzen du.

Graziana hil izan zen anitz sufritu eta, medikuek ez zuten gorde ahal izan nola hila zen eta amak jakin zuen. Amaren desesperazionea handiagoa izan zen aitarena baino. Haren doloreari nahasia zen urrikia eta senarraren ele ezti guziez ez zuten konsolatzen. Ukan zuen buruko atake bat zeinak arras gaizki utzi baitzuen.

Orok uste zuten sendatuko zela baina sukarrak utzi zuenean ezagutza ez zitzaion jin, hasi zen harrapatu guzien biltzen eta biribilkaturik bere bularren kontra tinkatzen zituen ustez bere alaba zen, orenak pasatzen zituen bere alabari oihuz, uste zuen gauza guzietan hura ikusten zuela. Hitz batez, Marianak izpiritua galdua zuen.

Avignoneko, Nîmeseko eta Montpellièrereko medikuek alferretan egin zituzten egin ahalak sendarazteko. Ez zioten markesari esperantza bat eman ukan ere.

Egun gutirik barnean Mariana arras flakatu eta mehetu zen. Beti bere haurrari oihuka ari zen bere izenaz; muble, lore, arropa guziak deitzen zituen Graziana, ustez haietan zen haren alaba.

Hainbertze penak xehatu zuen markesaren osagarria, zeina eritu baitzen egun batez.

Piarres egon zen haren ohearen aitzinean anitz egun ikaretan, ustez markesa hilen zen. Baina uroski, gazte baitzen, sendatu zen.

Hura hilez, Salvador ume xurtx geldituko zelako ideiak kuraia eman zion eta kuraiarekin haren indarrak itzuli ziren. Markesa desesperatua izanik, pentsatzen hasi zen, eta nahi izan zuen bizi bere semearentzat.

Urte bat pasatua zen horiek oro gertaturik, Dominika jin zelarik jauregira eta hil zelarik Piarresen besoetan haur bat uzten ziolarik.

Haren aitzinean otoitzean egonik, Piarres zutitu zen eta haurra besoetan harturik joan zen kanporat oihuz:

—Jaun Salvador! Jaun Salvador!

Haurra, josteta ari zena jauregiko emazte baten aitzinean, jin zen lasterka. Bortz urte zituen, haren ile beltz kuskulatuak erortzen ziren haren lepoan behe-
ra; haren begi ezti handietan ikusten zen haren adineko haurretan ikusten ez zen intelijentzia handi bat. Biziki ontsa mintzatzen zen jadanik, eta konprenitzen zituen ikusi guziak.

—Beha ezazu zer haur ederra -erran zion Piarresek, erakusten ziolarik Dolores.

(VIII)

–Panpa bat -dio Salbadorrek, ukitzen zuelarik.

–Bai, haragiz eta hezurrez -ihardetsi zuen Piarresek-, panpa bat fite handituko dena eta zurekin jostetan ariko.

–Noiz? -galdetzen du Salbadorrek.

–Zutik joaten denean -ihardesten du Piarresek.

–Ekarzu beraz alde honetarat -dio haurrak.

Eta harturik Piarres besotik, eraman zuen sukaldeetako alderat berak egin zuen aurkikuntza orori erakutsi zezan. Hau arras kontent zen haur haren bereztat izateaz eta orok besarkatu zuten Dolores. Sehi guziak bilduak ziren Piarresen eta Salbadorren aldera eta bakoitzak kontatzen zuen istorio gisa.

Piarresek kontatzen zuen Dominikaren istorioa; eta orok pena hartzen zuten Mariana haietara jiten delarik, hura artatzeko baizik ez zen emazte batez lagundua. Egun guzia joan-jinka ibiltzen zen jauregiaren alde guzietan; gaixoak ez zuen nehor ezagutzen, ez bere senarra, ez eta bere semea ere.

Deusik tristeagorik ez emazte eder haren ikustea baizik: bista nahasia, ileak desordenan eta oihuka. Hari soinu guziak emanagatik, ikusten zen hartan ero bat. Memento hartan egur puska bat zeukan bere bularren aldean; urrats ezti batean zihoan, iduri lokarrarazi behar zuela bere alaba uste zuen hura. Marianak behatu zion pasatzean Salbadorri, eta burua higitzen duelarik erraten du:

–Nor da hori? Hori ez da nik bilatzen dudana.

Begiak altxatzean ikusi zuen Dolores, lo zegoena Piarresen besoetan; hain fierki behatu zion, non instant berean ideia bat jin baitzitzaion Piarresi burura, eta zeinak argitu baitzuen argi biziarekin.

–Zeruak!... posible daiteke... ni...a! Urrunt zaitezte, eraman ezazue jaun Salbador eta jaun markesa honat ekarraraz ezazue.

Oro urrundu ziren. Mariana, bere egurra botaturik, negarrez bertze zer-baiten bila abiatua zen. Piarresek pausatzen du haurra aulki baten gainean eta badoa guardiatzera leiho baten gibelera, handik ikusteko ikusia izan gabe. Han harrapatu zuen markesak Piarres.

–A, jaun markesa! -dio Piarresek-, uste dut madama salbatua dela, zeruak ideia bat eman dit; baina tronpatzen banaiz, madamak hilen du haurra -segitzen du tristeki Piarresek.

–Zer diok? Zer egin duk? Ez da oraino malurrik aski ene etxean gertatu? Habil fite, laster egin ezak.

–Berantegi da, beha ezazu.

Istant bat beha egon eta Mariana haurrari hurbildu zen. Behatzen zion be-

soak hedatuak zeuzkalarik, hurbildu zen oraino gehiago, pot bat eman zuen haurraren kopeta garbian, berriz behatu zion, eta bat-batean hartu zuen bere besoetan bihotzari kontra tinkatzen zuela eta eskapatu zen lasterka.

Hogoi urratsen ingurua egin eta behatu zuen gibelerat ikusteko inork segitzen zuen.

Markesa eta Piarres harrituak zeuden hatsik ezin hartuz.

Marianak besarkatzen zuen haur hura ezintasunekin, eta lehenbiziko aldian bere eritasun guzian erran zuen:

–Estebe, ene alaba! Harrapatu dut ene alaba maitea!

Markesa, kontentez ezin egonez, joan zen bere emazteari buruz. Marianak ikusi zuen heldu zela eta hari buruz abiatu zen, irriz eta negarrez erakusten zuela Dolores. Orduan erortzen da bere senarraren besoetarat ezagutzarik gabe.

–Salbatua da -dio Piarresek, bere nausia segitzen zuenak.

–A! Posible daitekea? -zion markesak-. O! Ez dezaket sinets ikusten dudana, iruditzen zait imposible dela.

–Jaun markesa, ezagutu zaitu, arrazoina jin zaio eta berriz amatu da.

Biek eraman zuten Mariana ohearen gainera eta Piarresek eman zion kontseilu markesari sehaska batean ezar zezan haurra madamaren ganberan. Nimesera joan ziren mediku bila eta hiru orenen buruan jin zen medikua.

Ezagutza jin zitzaionean, Marianak deitu zuen Dolores. Eta erakutsi ziotenean, lokartu zen. Noizetik noizera ametsetan erraten zituen hitz hauek:

–Alaba maitea! Alaba maitea!

Iratzartzen zenean beha jartzen zen haurrari, eta hala-hala egoten akitu artio.

–Ez dut hemen deus egitekori -dio medikuak-. Arrazoina itzuli da, gelditzen zaion flakezia pasatuko zaio zenbait egunen ohearekin eta alimentu azkarrarekin.

Memento hartarik goiti Mariana azkartzen hasi zen arrazoi xuxenean eta jin zen mementoa non, senarra ezagutu ondoan, ezagutu baitzuen bere semea. Orduan erran ahal izan zioten beldurrik gabe zer gisetan jina zen Dolores jauregirat. Handik hirur hilabeteren buruan Mariana arras sendatua zen. Goiz batez markesak galdegin zuen Piarres eta erran zion:

–Eman nian Dolores, nahi didak gibelerat eman? Nahi duk ene alaba izan dadin?

–Puska bat enea ere izanen da; hartzen ahal duzu, jaun markesa, prestatzea ez da galtzea, haren aldean biziko naizenez geroz beti; gisa horretan izanen gara biga, maitatzeko.

Gisa horretan buhamearen alaba, ama galdurik ere, ez zen ume xurtx geldituko.

III. PHARTEA.

DOLORESEN HAURTASUNA



(IX)

Dolores dohatsu hazi eta handitu zen Chamondrineko jauregian, maitatua Graziana izan balitz bezala. Graziana bera zela ilusionatu zen Mariana, bai eta ere gaineratekoak.

Graziana izan balitz bezala Dolores zen Salbadorren lehen jostetan aritzeko laguna, zeina deitzen baitzuen anaia.

Doloresek berak, apaltzen zuelarik bere buru horia Marianaren bularretaraino, deitzen zuen ama.

Estebe markesak ere maite zuen alaba izan balu bezala.

Piarresek hain maite zuen non ez baitzuen tratatzen nagusien haurra izan balitz bezala, baina bai berea izan balu bezala. Gainerateko schiek berdin errespetatzen zuten Salbador nola Dolores.

Hitz batez, Chamondrineko jauregiko adiskideek errespetatzen zuten manera berezi batez haur xarmant hura, zeinaren presentziak ezarri baitzuen berriz dohatsutasuna etxe hartan.

Erran behar dugu Dolores erran daitekeen baino haur ederragoa zela. Iduri zuen amari iduria aterako zela; ile hori berak zituen, begi barne eta beltz berak zituen, karakter eta botz ezti berak.

Estebe markesari eta Piarresi iruditzen zitzairen alabaren ikustea amaren ikustea zela, alabak amak bezala bihotz jenerosa zuen, imajinazionea bizia; eta erraten zuten ardura Dolores bizi zeno ez zutela Dominika ahantziko.

Haren intelijentzia irekitzen zen erran ez daitekeen bezain aise markesak eta haren esposak ematen zizkioten leitzionetarat. Haren memorian oroitzapen guziak finkatzen ziren segurtasunez.

Maitagarria zen, ona, ezta; eta bere burua maitarazten zuen inguratzen zuten guziei.

Salbadorrek anitz eta anitz maite zuen bere arreba.

Doloresek baino bortz urte gehiago zituen. Hau trabiesa zen, erdi gaiztoa

sehientzat, jadanik nagusi nahi zuen izan, baina horiek pasatu behar zitzaizkion adinarekin eta horien azpian gordetzen zuen bihotz on eta jeneros bat, natura-leza azkar bat eta borondate handi bat. Orain ere Doloresen aldean delarik ona da eta ezta. Aski zen ikustea zenbat kasu egiten zion arreba maite hari.

Baratzean promenatzen zebiltzalarik kentzen zituen bidetik Doloresi min harraraz zezaketen edo eroraraz zezaketen harriak. Mahaian deus onik zuenean bere azitan, ematen zion Doloresi. Baldin bazuen arropa berri bat ez zen akitzen beha, erranez ederra zela, eta musuak emanez ile frisatu hori eder haietan. Nahi baldin bazuten Salbador gaztigatu, Doloresen ikustetik begiratzen zuten. Uroski gaztigu handi honek gaztigitzen zuen hainbertze haren arreba nola hura, gisa horretan ez zen enpleatzen okasione handietan baizik.

Haurren alegriarik handiena zen Piarresekin promenatzerat joatea, alegria bera zen Piarresentzat haur xarmant haiekin paseatzea. Jausten ziren lehen Dominikak haurra lepo ondoan iragan zuen mendixka hari behera Gardoneko ur bazterreraino. Han ur bazter hartan sortua zen Dolores, gauza hori Piarresek ere ez zekien eta sekula ez zuen Doloresek jakin behar. Primaderan joaten ziren arduenik ur bazter hartarat promenatzerat primaderako goiz xarmaz beteetan Frantziako eguerdi aldean. Kanpoak oro lorez beteak ziren. Xoriak kantuz beren kafiren egiten ari ziren. Piarresek gauza horiek oro erakusten zizkien haurren zeinen arimetan pizten baitzen naturalezaren handitasunaren neurtzeko su bat.

Jartzen ziren harearen gainean, xipak harrapatzen zituzten, kafiren bila ibiltzen ziren, ontsa jostatzen ziren eta gauza franko ikasten. Piarres beti okasione-rik galdu gabe haiei mundua nola egina zen erakusten ari baitzen.

Gibelerakoan pasatzen ziren arrokatarik gairi (ezen buhameak haien azpian egoten ziren), sartzen ziren buhameak han ez zirelarik arroken barnean, urrun baitzeuden pentsatzetik Doloresen sorlekua zela.

Urte guzietan primadera eta larrazkenean buhameak jiten ziren arrokan zenbait denboraren pasatzera.

Salbador eta Dolores haien beldur ziren, egun batez buhame emazte zahar bat, dudarik gabe iduriturik Dolores Dominika iduria zela, anitz denbora beha egon zitzaielakotz.

Miserable horietarik bat hurbiltzen zitzaielarik amoinaren galdetzeraz, haurrak ikaretan Piarresen besoetara joaten ziren, zeinak egin ahalak egiten baitzitu-
tuen trankilarazteko. Promenada eder horiek, bere aitak ematen zizkion leitzio-
neak, amaren kariziak eta giristino bertuteen praktikak, liburu sailduak leitaraz-
ziz, Salbadorren aldean pasatzen zituen orenak jostetan edo errekreazionetan,
betetzen zuten Doloresen bizia, egunak egunen ondotik bazihoazen, haurrak

uros ziren, kasu guti egiten zuten Parise handitik jiten ziren berrier, iduritzen zitzairen haiek hala-hala behar zutela beti elkarrekin gozatuz bizi. Eta ez ziren ohartzen haien aita-amak tristatzen hasiak zirela zeren eta erregek baitzuen partida anitz eta ikusten baitzuen gerla hurbil zela.

(X)

Markesa, bere adiskideen letrak errezibitu aldi guzietan, tristeago eta tristeago zihoan. Dolores heldu zen hamahirur urtera deus eritasunik gabe osagarri onean, haren intelijentzia barreatzen eta ontzen ari zen. Hitzematen zuen ohore eginen zuela bere aita-amei eta maite zituen bere bihotz guziaz.

Markesek ere beren alaba bezala maite zuten; beti berekin atxiki gogo zuten hari zor ziotenaz gainean bizia, ezen hark sendarazi zuen Mariana. Baina egun batez erranen zioten nola jina zen jauregira, zenbat zor zioten, eta zer leku gora hartua zuen haien bihotzetan.

Orain Salbadorrek hemezortzi urte ditu. Mutiko gaitza zen adinarentzat, kalitate onez betea, haren baitan ikusten zen zer odol nobletik ateratzen zen. Eta errespetuz betea zen altxatzen zuen izenarentzat.

Markesek ez dute ahantzi haurra sortu gabe formatua zuten ideia, haur hari argiaraztea mende hartan ahantzia zegoen izen hura, zeina lehena izana baitzen Europako gorteetan.

Egin zuten fortuna azkar bat bere malur guziekin, eta markesek nahi zuketan Salbador Pariserat igorri, lau edo bortsu urterentzat, eta pentsatuz gero erregek emanen ziola leku bat handia erregimenduan. Bainan beldur ziren haur gazte haren mundu galdu hartarat igortzeko. Mundu eskandalaz bete hainbertze gaizki haren aiter egin zien hartarat.

Delfin sortu zen urte hartan, markesaren inketadurak kendu zituen, ezen ikusi zuten berriz monarkia segur zela, eta bibak egin zituzten bai erregeri bai sortu berriari.

Markesek beren ahaideak eta adiskideak kontsultatu eta ondoan preparatu zuten Salbadorren bidaia.

Markesaren adiskide Penthievreko dukeak izkiriatu zuen markeser haren baitan Salbadorrek izanen zuela aita bat eta trankil uzten ahal zutela.

Bizkitartean inket ziren markesak zeren eta erregek partida handiak baitzitu. Fite jakin zuten haurrek zein ziren markesen intenzioneak, eta ja bazekiten separatu behar zutela. Gertakari triste horrek negarrak aterarazten zizkien, baina fite konsolatzen ziren, pentsatuz oraino ez zela etorria separatzeko teno-

rea, eta ez ziren gehiago oroitzen presentekoaz baizik.

Baina denbora airean joaten da zeren eta geroago uste dugun hura gutien ustean presente baita eta pentsatu gabe pasatua. Egun batez markesa promenaz ebilen pentsaketatua, bat-batean oihu egiten du Marianari eta erraten dio:

—Salbadorrek behar du partitu hilabete honen hondarrean (urria zen) eta nahi dut Piarres horrekin joan dadin, ezen ez dut uste hori baino konpainero seguragorik eman nezakeen.

Berri horrek joan zuen Dolorezen bihotzeko bakea, ezen maite zuen anitz Salbador. Ez zena haren anaia? Haren protektora? Haren jostetako eta promenatzeko laguna? Eta posible zena galdu behar zuela?

Salbadorren aldeko guziek pena hartu zuten berri horren jakiteaz, amak Doloresek bezainbat; bizkitartean ama ez zen gelditzen hari erakustetik bidaia hura nesario zela harentzat nola Salbadorrentzat. Haur gaixoak ez zuen gauza bat baizik konprenitzen, anaia kentzen ziotela eta ez zuela gehiago ikusiko anitz urtez eta menturaz sekula.

Bizkitartean erresignatu behar izan zuen; ez zuen Salbador memento bat ere uzten azken egun haietan.

Zenbat ilusione egin zuten itzultzen zeneko! Zenbat esperantza kontsolagarri negar kiratsez bustiak!

Salbador, serio bere paper berrietan, hitzematzen zion Doloresi ez zuela sekula ahantziko, beti anitz maitatuko zuela.

Memento haiek pasatu ziren sentitu gabe, eta separatzeko orena jin zen fitegi haren beldurrez zeudenentzat.

Partitzeko egunean markesak oihu egin zion Salbadorri, hau baratzean zen eta etxeko alderat heldu zelarik ikusi zuen Piarres malen preparatzen ari zela eta manatzen zuela sehien karrosaren gainean ezar zitzaten mala eta puska guziak.

Piarresen aldean zutik zegoen Dolores, behatzen zuelarik tristeki preparazio horien guzien, eta negarra zeriola. Haren begi hantuek eta begitarte akituak erakusten zuten aitzineko gauean ez zuela lorik egin. Baina, hala ere, hain ederra zen non Salbador xoratua edertasun horretaz, lasterka haren ganat joan baitzen, eta besarkatu zuen hitz kontsolagarriak erraten zizkiolarik.

—Ai! Ene Salbador maitea! Zerentzat uzten gaituk? -erraten zuen neskatoak boz ezti ikaretan zegoen batekin.

—Behar dut joan -ihardetsi zuen Salbadorrek-, ene onetan, hire onetan, ez dakin gure aitak nahi duela? Hark manatzen du, ez dut obeditu behar?

(XI)

–Hori da nik andereari erraten niona -dio Piarresek hurbiltzen zelarik haurrer-. Jaun markesak Salbador igorritz bere eginbidea egiten du, zeren eta fite jaun Salbadorrek fortuna handi bat eginen baitu, eta ohorez beteak berriz elkarretarat juntatuko gara; ez zinateke orduan zu biziki uros izanen?

Gisa horretan mintzo zelarik Piarresek bere pena gordetzen zuen, ezen ez zen sentimendurik gabe Doloresen ganik separatzeaz. Haur eder hura kasik harena zen ezen mundura jin zen haren besoetan, haren aldean edukatu zen eta maite zuen bere alaba ukan balu bezala. Hortakotz, kontent baldin bazen Salbadorren lagun joateaz, bihotza erdiratzen zitzaion pentsatzean Dolores utzi behar zuela. Piarresen hitzak, nahasiak Salbadorren karesekin, iduri zuten kontsolatzen zutela puska bat. Negarretik gelditu zen, baina bat-batean erran zuen:

–Ez nauk ahantziko hainbertze gauza eder den mundu hartan? Ez haiz ene maitatzetik geldituko?

–Nik hi ahantzi? Ni hire maitatzetik gelditu? Nahi baldin banu ere ez nezake -dio Salbadorrek, harritua haren arrebak halako duda bat izateaz-. Ez haut sekula ahantziko, sekula ez naun hire maitatzetik geldituko.

Hitz horiek erran zituenean ikusi zuen ama heldu zela. Hartu zuen Dolores besotik eta bere amaren besoetan ezarri zuen; besarkatu zituen biak eta lasterka joan zen aitaren ganberara.

Hau bere apartamentuan promenatzen zebilen, iduri zuen kexu zela eta negar anitz egin zuela; arras penatua zen bere seme bakarraren ganik separatzeaz.

–Deitu nauzua, aita maitea?

–Bai, haur maitea, jar hadi; mintzatu behar haut. Joan behar duk, seme maitea. Zenbait orenen buruan hire buruaren nagusi izanen haiz. Ez nauk hire aldean izanen gehiago; hire ama ere ez hire laguntzeko, eta hire izatea gaiztoenera heltzen denean galtzen gaituk. Erran zioat Piarresi hirekin joan dadin zeren eta hark kontseilu onak emanen baitizkik. Segituko dituk egiazko adiskide batenak bezala. Bizkitartean behar duk kostuma hartu ontsa pentsatzera, Piarresen kontseiluak segitu baino lehen; gehiago dena, baitituk mementoak berehala opinio-ne bat behar baitu jendeak. Orduan ez ezakala nehor kontsulta hire burua baitzik. Faltarik ez egiteko, seme maitea, eta on izateko, graba itzak hire bihotzean eta hire memorioan erranen ditudan hitzak.

Markes Estebe baratu zen istant bat eta gero erran zuen:

–Jainkoa, erregea eta hire herria. Hori duk hire biziaren iturria. Biziko haiz sozietate anitz diferentetan. Harrapatuko dituk gizon sinesgogorrek eta gaiztoak. Urrunt hadi haien ganik, ez ezakala haien etsenplurik har, eta egin edo

mintzatu gabe galda ezak hire buruari ea egingen edo erranen duana hire fedeari zor dioan, ea ohoreari, Frantziari eta hire erregeari doana den.

Gisa horretan mintzatu zitzaion bi oren Salbadorri. Baina erran zizkion guziek ez zioten deus erakutsi zeren eta hori ez baitzen markesak ordu artio eman zizkion leitzionen eta kontseiluen totala baizik.

Salbadorrek hitzeman zion ez zela sekula hark ezarri lerrotik aterako eta bizi zeno oroituko zela hark eman kontseiluez. Eta aitak, boza kanbiatuz, erraten dio:

–Orain behar diat konfidentzia bat egin, uzten duanaz geroz etxea zenbait urterentzat menturaz.

–Zer da?

–Dolores ez duk hire arreba.

–Dolores! eta beraz!

Salbador baratzen zen; ez zen atrebitu aitari erratera haren burura bat-batean jin zen pentsamendua.

Aitari entzun zizkionean hitz horiek alegeratu zen, eta aitak leitu izan balu semearen pentsamendua ikusiko zuen erraten: “Dolores ez baldin bada ene arreba, ene emaztea izan daiteke”. Baina gorde zuen eta aitak ez zuen deus pentsatu ahal izan.

Doloresen istorioa hastetik buru kontatu zion markesak Salbadorri eta honek ez zezakeen sinets. Haur adoragarri hura hainbertze aldiz bere promenadetan kausitu zituzten buhame itsusi basa haietarik ote zen? Ez zuen sinesten ahal ikusten zuena eta bizkitartean bazekien bere aitak egia erraten ziola. Lehenbiziko aldikotz sentimentu ezagutzen ez zuen bat jin zen haren bihotzera, istant hartan haurretik atera zen eta orain gizon bat zen.

–Ez duk hortakotz gutiago maitatuko -dio markesak-; Grazianaren tokia atxiki dik gure bihotzetan eta horri zor diagu hire amaren osagarria.

–Ez, ez, aita, sobera maite dut, nik ez dut gutiago maitatuko, hortako ez duguia, bada, horri zor hemen ene haurtzarotik honat izan dugun bakea?

–Seme on bat haiz -dio markesak negarra begian eta besarkatzen duelarik-. Beti behar duk maitatu, hark ez zakik egia; eta ez diat nahi jakin dezan oraino; erranen zioat berantxago.

(XII)

–O! sekula ez dut ahantziko, sekula ez naiz horren maitatzetik geldituko -zioen Salbadorrek boza ikaratzen zitzaiola eta aitaren aitzinean egin zituen promes berak egiten zituelarik.

Eta, harritua jakin zituenez, utzi zuen aita berriz Doloresen gana joateko. Nahi zuen ikusi oraino aldi bat partitu gabe.

Hari hurbiltzearekin, haren bihotza pilpiratzen eta haren izate guzia ikaretan zegoen.

–Ez da ene arreba! -zioen eta berriz erraten zuen-. Ez baldin bada ene arreba, ene emaztea izan daiteke.

Orduan iruditu zitzaion bertze bat, kanbiatu izan balitz bezala. Lehenbiziko aldikotz ohartu zen esku adoragarriak zituela eta haien forma ezin erreprotxatua zela. Lehenbiziko aldikotz ez zuen atxiki ahal izan haren begi ederren argia, hark ikararazi gabe. Lehenbiziko aldikotz ohartu zen ja emazte bat zela eta ez haur bat. Bere bihotzari kontra azkarki tinkatu zuen eta besarkatu, erraiten ziolarik:

–Ez, ez, sekula ez haut ahantziko, beti maitatuko haut, geroago konprenituko dun hobeki.

Ez zen hari behatzetik gelditzen. Iruditzen zitzaion haren ilea perfumatua zela. Zenbat desiratzen zuen Doloresek egia jakin zezan bere sortzearen gainean, erran ahal izateko gero... “Adoratzen haut!”.

Sentimendu berri bat sartu zen autorizazionerik gabe hemezortzi urteko bihotz gazte hartan, bihotz ignorant eta garbi hartan, eta berriz tiratzen zuelarik gerritik, bere bihotzari kontra zerratu zuen ziolarik eztiki:

–Beti maitatuko haut, juramentu egiten dinat. Oroit hadi nitaz.

Arrapostua emateko orde, Doloresek behatu zion Salbadorri, eta bi besoak altxaturik lotu zitzaion lepotik, besarkatzen zuela, higiarazten zuelarik lehen haur baten eta orain gizon baten arima hura.

Bizkitartean horra partitzeko tenorea. Karrosa abiatzen da aitzinean zeren eta oinez joan nahi duten orok laguntzera, handik hurbil den herrixka bateraino.

Hirur orenetan abiatu ziren tristeki herriko alderat; Salbadorrek ematen zuen besoa amari, behatzen ziolarik Doloresi zeina baitzihoan markesaren eta Piarresen erdian. Tristezia handi bat leitzen zen haren begitardean. Tristezia! Memento hartan bazter guzietan zen, bai eta naturalezan ere. Larrazken hondarra zen. Haizeak ateratzen zituen arbolan adarretarik hondar hosto horiak. Zeru ilundu hartarik ez zen jausten argi puska bat ere, gure penen ahantzazteko edo arinarazteko.

–Begira hadi ontsa -zioen Marianak bere semeari.

–Izkiriatuko didak? -zioen Doloresek.

–Izan hadi ona eta balientea -zioen markesak.

Eta hirurek batean manatzen zuten Piarres ontsa kasu eman ziezaiola. Berriz besarkatu zuten, mintzo ziren eta nigarrez zeuden oro. Musu bat baizik ez! Besarka bat! Eta zaldiek eraman zuten.

Salbador jadanik urrun zen. Karrosa gordetzen zen errautsezko lainoetan eta

izate maite Salbadorrek giblean uzten zituen haiek galdetzen zuten bere buruari, hark egiten zuen bezala, ea ez ote zen separazione hura dolu bat izanen.

Markesek eginahala eginik Doloresi Salbadorrek utzi zion hutsaren betetzeko, hau hilabete bat negarrez egon zen. Desesperazione handi eta ilun bat haren bihotzaz jabetu zen.

Ez zitekeen kontsola Salbadorren oroitzapenaz baizik. Iduri zuen kontent zela sufrirituz, iduri zuen arima gazte hura sufritzeko baizik ez zela egina. Eta Salbador urrun izanik ere, hura zen bakarrik haren penari fin bat emanen zuena, eta harek kontserbatzen zuen Doloresen gainean ahal bat markesek ez zutena.

Hilabete baten buruan errezibitu zuen Salbadorren letrak gehiago ongi egin zuen haur arima hartan bere aita-amen hitz kontsolagarriek baino.

Izkiriatzen zuen Doloresi, kontatzen zion bere arribada, Parisen zein ontsa errezibitua izan zen bere aitaren adiskide Penthievreko dukearen eta Lamballeko printzesaren etxean. Printzesak eramana zuten Versaillesera eta presentatu Marie-Antonietari eta Luis XVI.ari. Dukeak bere etxerat hartu zuen, ikusi arte erregek zer eginen zuen.

Printzipio ona zuen Salbadorrek, bide onean aurkitzen zen. Printzesa interesatzen zen, Britainiara joan beharra zen fite dukearekin.

Hogei urte betetzeko beha zeuden, harentzat erregimentuko konpainia bat erregeri galdegiteko.

Berri on horiek alegeratu zituzten Salbadorrek lehen aldikotz utzi zituen hiru izate maite haiek. Markesak izkiriatu zion Penthievreko dukeari erremesiatzen zuela haren semearentzat zituen borondate on guzietz eta fite errezibitu zuen arrapostua.

Dukeak izkiriatzen zuen markesari haren plazerrik handiena izanen zela Salbador etxe hari argiaren ematen ikustea eta hark eginahalak eginen zituela.

(XIII)

Pentsatuz haien semearentzat begiratu zegoen argiaz, kontsolatu ziren markesak Salbadorrek haien bihotzetan utzi zituen penarik. Eta Doloresi ongi gehiago egiten zioten haren letrak haren geroagoko esperantzek baino. Salbadorrek bere urostasun guziak kontatzen zituen Doloresi. Harentzat nahi zuen loriarat heldu, hura uros izan zedin eta urgulu izan zezan bere anaiaz. Hola espresatzen zituen Salbadorrek bere bihotz gaztea betetzen zuten sentimenduak, agertu gabe hala ere bere aitak konfiatu zion sekretua; Doloresentzat ez zen plazer handiagorik bere anaia maiteari izkiriatzea baino.

Hola pasatu zen denbora, hautsi gabe etxe hartako urostatasuna bi urtez. Bi urteren buruan izkiriatzan zuen Salbadorrek erregek eman ziola konpainia bat dragonetako erregimentuan. Panthievreko dukeak eta printzesak emanarazi zioten grazia hura.

Erreginak ere hitzeman zion hartaz oroituko zela eta lagunduko zuela. Bere nagusi gaztea ez uzteagatik eta hari hurbil izateagatik Piarresak ere galdegin zuen erregimentu berean leku bat, eta ukan zuen enplegu gora bat.

Ez daiteke imajina Doloresen edertasuna denbora hartan! Lumarik hobere-nak ez liro presenta haren begitarte xarmanta! Kontenta gaiten erraiteaz haren edertasuna konplia zela.

Kanpoan hazi eta handitu zen, arbola bat bezala. Hura zen Dolores beha-tzetik gelditzen ez zen kanpaña eder haien garnigailua. Nork pentsa haur eder hura buhame beti bideen gainean hemen ohointzan eta han eske dabiltzan jende haietarik zela? Doloresek ez bazuen haien egiterik zen ama iduria zelakotz, ho-rrek sinetsarazten baitigu Dominika ez zela buhame arrazatik, bainan bai bere aiter ebatsi haur bat.

Doloresek odol bizia zuen Peio haren aitak bezala, zuria zen eta ile horia zuen Dominikak bezala. Haren begi beltz ederretan ikusten zen tenperamen-tuaren sua, borondatearen indarra eta frantses odol noblea. Ez zen presuna flako eri bat, baina gazte azkar eder bat, arbola baten aldaska aberatsa. Hazia izan balitz buhameen artean nahi eta ez ederra izanzen zen, distinzionerik eta noble-ziarik gabe. Edukazioeak findu zuen haren gorputza hala nola instruzioneak handitu baitzuen haren intelijentzia. Gisa horretan, hamazazpi urtetan eder-tasun perfektu inguratzen duten guziak jelos diren haietarik bat zen. Gehiago dena, arima gorputza bezain ederra zuen.

Geroxago ikusiko ditugu haur adoragarri honen kalitateak eta bertuteak, haur destinatua martir baten paperaren presentatzera erreboluzionean, paper hain handia nola ignoratua, sekula ontsa ezagutuko ez dena, eta non garbita-suna, sakrifizioa, bere buruari egiten zuen kasu gutia, ezin erranezko kuraiak, pasatu baitzituzten jendearen indarrak. Denbora hartan ez zuen deus falta Do-loresen biziak, Salbador bere anaia maitearen presentzia baizik.

Beren semetik pribatuak, markesek maiteago zuten oraino Dolores. Haren desirak manuak ziren. Alegerarazteko eramaten zuten Nîmesera, Montpellierera, Avignonera promenatzera, alde guzietan errezibitzen eta mainatzen zuten izen handi haren ondokoa izan balitz bezala, izen mende erdi bat ilunpetan egon nahi izan zuen hark nahi baitzuen gehiago argitu bi buru gazte eder haien gainean.

Pentsatzen zuen fite ikusiko zuela bere anaia maitea, eta esperantzaz betea zen. Salbadorrek berehala ematen zuen letra guzien arrapostua, hondarrekoan

erraten zion: “Ez zaitut istant bat ere ahantzi eta pentsatzen dut fite besarkatuko zaitudala. Zeren eta uste baitut joanen naizen Chamondrinerat zenbait asteren pasatzera, lehen bezala libro eta alegera”.

Doloresek errezibitu zuen bertze batean, erraten zion:

“Desiratzen dut ene bihotz guziaz zuen ikustea, pentsatzen nuen horrat joatea; baina uste dut ez naizela aise joanen; ez baldin banaiteke joan, esperantza izanen zaituztet oro Parisen.”

Izan zedin Parisen ala Chamondrineko jauregian, Doloresek besarkatuko zuen fite bere anaia maitea. Pentsamendu horrek kontsolatzen zuen, baina inpaizientziak galdeginarazten zion aitari:

–Zerentzat, aita, Salbadorren bidaia imposible da? Zeren beldur da?

–Zeren baitira behar orduak, bere karguan erregeren aldean atxikaraz dezaketanak -ihardesten zuen Estebek tristeki.

Presunan aitari izkiriartzen zituen letretan, erraten zituen Salbadorrek bere beldur guziak. Uste zuela zenbait partida zuen erregek eta erlisioneko gerlak izanen ziren. Nehork ez zuen pentsatzen zenbat malur izanen zen, baina ikusten zuten jadanik jende handi eta obserbatzaileek aire gaiztoa zerutik jausten.

Istant batez altxatu zen nazione guzia erlisionearen eta nobleziaren kontra. Parlamentuan handitu zituzten herritarren zergak, eta horiek inbidiarekin behatzen zuten nobleziari eta jauregiak mehatxatzen zituzten.

(XIV)

Horiek oro ikusten zituen markesak eta triste zen. Doloresek eta Marianak egiten zituzten, beren pena gordez, eginahalak ahantzarazteko, baina beti markesaren begiak lainoz beteak harrapatzen zituzten.

1788ko maiatzaren lehenean Salbadorren letra batek handitu zituen haren inketadurak. Izkiriatu zuen, goiz hartan, Parlamentutik haren dretxoen begiratzeko. Erraten zuen haren adiskide bat arrastatu zutela, eta erregeren eta nobleen kontra juramentuka ari zirela goiz hartan karriketan.

Doloresek ezagutu zuen Salbadorren letra zela, nahi izan zuen jakin zer igortzen zuen, markesak leitu zion eta erran zion gerlaren zein beldur zen. Orduan konprenitu zuen zerendako haren anaia maitea ez zen oraino jiten. Egun hartarik goiti interesatu zen gauza politikako guzietan, ez ikusten zuelakotz haiek arraroak zirela baina haiek gibelatzen zutelakotz Salbador maite haren bidaia jauregian.

Gaixo haurrak ez zuen pentsatzen zer malurra jin beharra zen zenbait egunen buruan Chamondrineko bortetara.

IV. PARTEA.

AMODIOEN KAPITULUA



Hamabortz egunen buruan Salbadorrek errezibitu zuen letra hau:

“Pena handiarekin behar dizut jakinarazi, Salbador maitea, gertatu zaigun ezin erreparatuzko malur tristea. Bil itzazu zure indar guziak, adiskide maitea. Zure ama hil izan da atzo. Hain fite joan izan da non ez baitugu izan denborarik zuri abisatzeko, ez eta ere zuri emanarazteko kontsolazionea azken aldikotz besarkatzeko nigarrez gauden hura, zeina ez baita gelditu azken memento artio bere seme maiteari oihu egitetik.

“Badu lau egun biziz, osagarritz eta esperantzaz betea zela. Beti zure itzul-tzeaz mintzo zen eta orok elkarrekin partitzen genuen haren alegria. Gau batez itzuli zen beti egiten zuen promenadatik sukar puska batekin eta hotzez zegoela erranez. Ez zen deus, iduriz, ez ontsa ttipi bat baizik, zeina goizetik handitu baita maluroski, gure arta guziak alferretan izan dira, eta ez zaigu gelditzen zeruaren aitzinean gurtzea eta negar egitea baizik.

“Negarrez zaude zu, Salbador maitea, baina ez zaitela altxa Jainkoaren manuen kontra. Resigna zaitetz, harrapatuko duzu indarra, nahi baduzu xerkatu bizi eternalaren esperantzan, zeinak berriz elkarretaratuko baikaitu sekula. Esperantza horrek ematen dit zuri izkiriartzeko eta zure aita desolatuaren kontsolatzeko indarra, ene pena ahantzirik. Baina nahirik ere, ez naiz kausitzen aski azkar haren pena handiaren eztitzeko, eta behar duzu zuk jin ene laguntzera; markesa bere marrumen artean ez da zuri oihu egitetik gelditzen. Xauri fite, bizia badoa haren baitan.

“Orain zuri, atzo ene anaia deitzen zintudana, behar dizut egin konfesion bat...Menturaz ja badakizu. Ezagutzen dut egia ene sortzearen gainean.

“Hil beino lehen markesak erran dit, zer gisetan, eskelari eta ume xurtx zure familiaratu nintzen. Zure amak azken hatsa ematean, zure aita ene besoetarat jin da. Deitzen ninduen izenik eztienez, nahi ukan balu bezala alaba baten karesentan harrapatu erremedio bat pena handi haren arintzeko.

“Haren zangoetarat erori naiz erraten diodalarik: –Oro badakizkit, jaun markesa. –Zer! Erran daun? Eta horrelako memento batean ez dun nahi izan

gehiago ene alaba!...Nahi naun utzi bakarrik ene pena guziekin? –Sekula, ihardetsi diot haren besoetarat joanik.

“Ez dut utziko sekula, Salbador maitea, trankilitatea eta kalma eman nahi diot haren zahartasunari, eta nahi duenaz geroz bizi nadin izanez haren alaba, zuk behar didazu jakinarazi nahi duzunez segi dezadan izanez zure arreba...

“DOLORES”.

Letra hori errezibitu eta zenbait egunen buruan, Salbador, bihotza doluz be-tea eta Piarresen konpainian, jausten zen Versaillesen, Chamondrinerat joateko. Politikako malurrak larriak izanagatik, koronelak eman zien permisionea behar zutena har zezaten, eta partitu ziren berehala. Urrundua lau urte hartan Doloresen ganik, eta utzia kasik haurra, harrapatuko zuen kanbiatua, edertua, berriz formatua. Ideia horrek pilpirarazten zion bihotza azkarki Salbadorri. Lau urtek ez zuten destruitu haren bihotzean partitzeko egunean sentitu zuen amodio garbi hura. Ez zen gelditu kar azkar batekin Doloresen maitatzetik. Haren arima, argitua amodioaren argiaz, ez zen ilundu lau urte haietan pasatu zituen uharretan, ez eta ere bizi zen sozietateetan. Paris bateko edergailuek ez zuten deus ahalik hark bere jostetako lagunarekin ezkontzeko hartu zuen erresoluzioean.

Ikusiko zuen sarrixeago, eta jakinik ez zirela anaiak, deklaratu ahalko zuen bere amodioa.

(XV)

Baina, eta Doloresek maite ez bazuen? Haren arrapostuarekin izanen zen uros edo maluros. Pentsamendu horrek bihotza zerratzen zion sortu zen lurra ikusiko zuelako plazerrarekin, eta han maitatu guziak han harrapatuko ez zituelako dolore handiarekin. Salbadorrek pentsatzen zuen bere ama gehiago ikusiko ez zuen hartan, bere aita desesperatuan eta Doloresen baitan.

Bizkitartean, ezagutzen zuen hain ontsa bide hura! Arboleak, beren adarrak apaltzen zituztela bidearen gainera, iduri zuten irri ezti bat egiten ziotela, lagun xahar batzuek bezala. Iguzkiak iduri zuen argi gehiago egiten zuela haren festekarazteko. Zenbat aldiz egin zuen bidaia hori Avignonen eta Chamondrinen artean! Han oro familiar zitzaizkion, orok ekartzen zuten haren memoriara zenbait oroitzapen ezti.

Baina, bere herrien eta izate maitatuen alegriari nahasten zitzaizkion Salbadorri bihotzean dudazko sendimendu batzuk, zeinek kirasten baitzuten haren urostatuna.

Bidaia guzian Piarresek eginahalak egin zituen bere nagusiaren kontsolatze-ko. Baina orain hura ere Salbadorren tristezia berean eroria zen. Enfin, zazpigarren egunean karrosa gelditu zen Chamondrineko jauregiaren aitzinean.

Markesa eta Dolores galerietan zeuden afaria zerbitza zezaten beha, aditu zituzten zaldien urratsak eta fite jautsi ziren. Salbador eta Piarres jautsiak ziren karrozatik. Oihu alegriazko handi bat izan zen eta gure adiskideak besarkatu ziren.

Ez ditugu izkiriartzen ahal haien emozioneak memento hartan, haien musu luzeak, haien bihotzen pilpirazioneak lau urte separaturik egon eta elkar ikustean, aita haren dolorezko eta alegriazko negarrak, haur haien elkar ikusteko zoriona.

Dolores ikusi zuen Salbadorrek lehenik, edertasun hark harritua utzi zuen. Lau urtek egin zuten haur batetik neskato adoragarri bat. Haren frakzione eder-rrak, haren begi argiz eta misterioz beteak, haren ezpain eta boz sonorak, haren erregina eskuak, oro admiratu zituen Salbadorrek behatze batez. Bazuen bere bihotzean haren aldetik urrun egon zen denbora guzian amodio garbi eta noble bat.

Modestki bizi izan zen, biltzen zituelarik elkarretara bere akzione guziak, bere lengoia, bere pentsamenduak, bere esperantzak, bere bizia, ezagutu gabe ontsa iradoki zituen hura. Iduritzen zitzaion ederra zela, baina ez zuen uste hain ederra izanen zela, eta maitatu zuen oraino hobeki.

Bizkitartean markesak tiratzen zuen Salbador salonerat, nahi zuen ikusi bere semea. Lanpen argiaren aldean behatzen zion besarkatzen zuelarik. Mutiko hura zen arraza baliente, arraza handi haren ondokoa.

Pasatuaz eta hilaz mintzatu ziren. Negar egin zuten, baina ez hain kiraski nola markesak negar egin baitzuen ordu arte. Bere seme maitearen ikusteko go-
zoak eta alegriak nahasten zuten ezintasun zenbait pena handi hartan.

Lehenbiziko arrats hura tximista bezala pasatu zen. Salbadorrek kontatzen zizkion aitari gortean pasatzen zirenak, zenbat adiskide zuen, zein onak izan ziren harentzat Penthievreko dukea eta Lamballeko printzesa, erreginaren lehen adiskidea.

Doloresek ez zuen hitz bat ere galtzen konbersazione hartarik. Ezagutu gabe Salbadorrek maite zituenak, maite zituen harek. Eta miresten zuen bere anaia uste zuen haren prestutasuna.

Piarresek ere kontatzen zituen bere oroitzapenak. Doloresek maite zuen anitz sehi on hura. Harek ere maite zuen baina biziki timido zen haren aldean.

Hamaikak jotzen ari ziren markesa jaiki zenean erraten ziolarik bere semea-
ri:

–Joan behar huke pausatzer.

–Hain uros eta kontent naiz zuen ikusteaz, ez baitut sentitzen akitua naizela. Hainbertze gauza baitut Doloresi erratekoak, ez baitzait loa heldu.

–Beraz, haur maiteak, mintza zaitetze nahi duzuen bezainbat. Ni banoa.

Markesa atera zen Piarresekin, Salvador eta Dolores gelditu ziren bakarrik. Istant bat isilik egon ziren. Dolores, bere emozioaren gordetzeko, leihoaren aldean jarri zen kadira batean eta behatzen zuen kanpo argi eder haier.

Salvador, oraino gehiago turbatua, joan-jinka zebilen salonean, isil ez zitekeenaren errateko okasione baten bila ibiltzen balitz bezala.

Azkenean desidatu zen, jarri zen Doloresen aldean eta erran zion:

–Izkiriatu didan letra luze bat, galdegin didan arrapostu bat eta emanen dinat.

Doloresek burua altxatu zuen, ikusi zuen Salvador turbatua zela, baina ez zuen deus erran. Salvadorrek segitu zuen:

(XVI)

–Bainan esplikatu gabe letra haren hotzdura, zerendako tratatzen nindunan zu erranez? Zerendako ez nindunan deitzen anaia, lehen bezala?

–Banekien nik ez nintzela orain hiretzat presuna estranjer bat izanen? -ihardetsi zion Doloresek eztiki.

–Estranjerra hi! -dio Salvadorrek zutitzen delarik-. Badu lau urte baino gehiago ezagutzen dudala egia eta ez naun hire maitatzetik gelditu. Zer diot? Jakinez geroz maite haut gehiago eta bertze manera batez.

Dolores ez zen atrebitu arrapostuaren ematera. Erran zezakeen hark ere maite zuela egia jakinez geroz? Salvadorrek segitu zuen:

–Galdegin didan, ea nahi huen segi nezan hire anaia izanez. Ez, ene arreba, ez! Baina bai ene emaztea, nahi baldin badun!

–Ni hire emaztea! -dio Doloresek zutitzen delarik bere aldian eta hori erraiten haren begiak itzuli ziren Salvadorren ganat pietatezko alegria batekin.

Salvadorrek, Doloresen aitzinean belauniko, bere bihotzari kontra eskuak tinkatzen zizkion.

–Ez dakin, haur ederra, ene aitak hire istorioa ezagutaraziz geroz karesatu izan dudala hi enea izanen hintzelako esperantza ezta? Gisa horretan erraten nuen: “Sekula ez gara separatuko; beti ene aldean izanen dut ene arreba deitu dudana, arrazoina ene amari ekarrarazi duena, haren bizia xarmatu duena, hura kontsolazionez bete duena eta sostenitu duena ene aita desesperatua...”. Ai! Do-

lores maitea, ez nezanala kasa, otoi, otoi! Hain maite haut! Hil ninteken!

Doloresek ez zuen sinesten ahal bere begiez ikusten zuena; entzuten zuen Salbadorren konfesioa amets bat izan balitz bezala. Dudatzen zen oren hain ezti hartaz.

Salbadorrek segitzen zuen:

–A! Dolores, ene ama maitea hemen izan balitz orain, berak belauniko otoitz hintzakeen uros egin nezanan!

–Ai! Pietatez, Salbador; isil hadi, isil hadi, eroak gaituk.

Dolores markesaren konfidanta izanez, bazekien honek nahi zuela ezkon-tarazi bere semea familia izen handiko eta aberats zenbaiten alabarekin. Jakitun aitaren nahiak zein ziren, ez zen atrebitzen bihotzaren manuen segitzera; bizki-tartean ez zuen balorerik mutikoaren desesperarazteko ere, ez eta ere errenun-tziatzeko haren baitan iratzartu ziren esperantzer. Salbadorrek, behatzen ziola eztiki, erran zion:

–Hire maitatzea erotzea da?

–Kasu emadak, Salbador. Ez diat ihardesten ahal orain. Sekula ez diat pentsatu pasatzen den honetan. Behar diat pentsatu eta ene bihotza eta kontzientzia kontsultatu. Eta hik ere behar duk pentsatu eginen duanean.

–Nik? Badu lau urte pentsaketan nagoela.

–Baina, Salbador, konprenituko duk ez diadala arrapostua ematen ahal orai berean.

–A! Ez naun maite! -zioen behatzen ziolarik eztiki-. Adoratzen haut, baina hik, erran, maite nauna? A! Ikusten dut ezetz, ez naun maite.

–Bai, maite haut arreba batek bere anaia maite duen bezala; maite bahaut bertze gisaz ez diat oraino ezagutzen, Salbador maitea -segitu zuen Doloresek, egiten zuelarik posiblea kalmatzeko eta haren kalmarazteko.

–Utz nazak akostunbra nadin ene bihotzera isuri dituan ideietan. Fite jakinaraziko diat ene erresoluzioea; ordu arte, otoizten haut, izan ezak nitaz pietate, errespetatene isiltasuna eta igurika.

Salbador, musuz betetzen zituelarik Doloresen esku zuriak, zutitu zen eta erran zion:

–Emanen dinadan amodioaren lehen proba, obediencia izanen dun; igurikatuko dinat baina izanen dinat esperantza.

“Gau hon” erraten zuelarik, erretiratu zen uzten zuelarik Dolores pentsatzerat bakean. Ondoko goizean eta ondoko egunetan, fidel bere hitzari, ez zuen alusionerik batere egin kondatu dugunaz. Lau urtez gorde zuen bere bihotzaren zolan bere sekretua. Nehork ez zuen jakin zein zen haren pasioea, ez eta Piarres haren aldean bizi izan zenak ere. Lan hori pisuago zitzaion Doloresen

aitzinean, baina harrapatu zuen soportatzeko manera bere esperantzetan, zeinak handitzen baitziren.

Gazteek ez dute dudatzen haien nahiak ez direla konplutuko. Bazekiela-rik zein ziren markesaren nahikariak, erraten zuen haren aita uros izanen zela bere ametsen eta nahikarien sakrifikatzeke semearen zorionarentzat. Beti bere amodioaren parean ez zuen Salbadorrek ikusten motibo faborablerik baizik bere ezkontzarentzat. Bere artean egiten zuen, haren aitak ez bazuen fite baia ematen, galdeginen zuela bere ama zenaren oroitzapenetan eta markesari aitzi-nerat emanik Marianak Doloresentzat zuen amodioa, oroitaraziz, etxe hartan hamazazpi urtez uros bizi izan baziren, hari zor ziola; zioen, markesak ez zuela errefusatzen ahalko. Ikusten zuen haren ezkontzeko eguna hurbil eta ezin parekatuzko urostatasun batean bizi zela. Azkartua esperantza horretaz, kontent bizi zen, igurikatzen zuen pazientziarekin Doloresen deziSIONea eta kontsideratzen zen uros haren aldean bizitzeaz.

(XVII)

Hainbertze kasu ematen zuen ez baitzuen haren bihotzak deus altxatzen; haren akzionetan, haren mintzatzeko maneran nehork ez zuen pentsatzen ahal sentimendu haiek haren baitan bizi zirela, eta zeinen gainean pausatua baitzen haren urostatasuna. Dolores kontent zen Salbadorren fidelitateaz eta obedi-entzi-az. Apreziatzen zuen haren sakrifizioa, eta ezagutzen zuen zenbat lan ematen zion isiltasun hark, ezen hark ere maite zuen!

Arima garbi karretan den batek sentitzen dituen guziak sentitzen zituen harenak. Aski izan zen harentzat Salbadorren konfesioa, Marianak hiltzerakoan erakutsi zion nahiaren gainera, esposa zedin haren bihotzeko sentimenduer eta kalitateer ihardesten zuen presuna batekin. Eta hautatua zena, haren destinua konplitu behar zuena Salbador zela uste zuen. Elkarrekin haziak, anitz maite zuten elkar eta estimatzen ziren, partitzen zituzten beren inpresione guziak, maitatzen zituzten gauza berak. Bazen bi arima haien artean lazo bat bezala, juntatzen zituena; nehork ez zuen hausten ahalko. Doloresentzat Salbador gi-zonik ederren eta nobleena zen. Ez ote zen hori amodioa? Zerendako beraz Doloresek atxikitzen zuen Salbador desesperatzen zuen isiltasun bat? Zeren beldur zen markesaren disgustatzea.

Haren ganik zuen ontsa izate guzia. Esposatuz Salbadorrekin, ez zuen ekar-tzen Chamondrineko jauregira haren aitak hainbertze amets egin zuen abantail haietarik batere. Markesak kontsentituko zuena haren desirer hain kontrario

zen ezkontza bat? Eta kontsentitzen ez bazuen zein izanen zen haren papera, ezarria semearen amodioaren eta aitaren indarraren artean? Bazekien Doloresek markesak egiten ahal zuen sakrifiziorik handiena hori zela. Kolpatua ja bere amaztearen galtzeaz soportatuko zuena bere esperantzer Doloresek eman zuen azken kolpe hori?

Pentsamendu horiek betetzen zuten Doloresen burua eta uzten mintzatzeko borondaterik gabe. Bere beldurrak Salbadorri erranez desespararaz beldur zen; deklaratzera ez zuela maite haren indarrer superior zen. Iduritzen zitzaion ere imposible zela ezkontza hori, ez zuen gezurraren errateko indarririk, ez zezakeen bere bihotz propioko sua hil. Bertze ideia bat bazuen eta hura zen markesari egia erratea; baina hark arrapostua ematen ahal zion haren hitz batez kentzen ahal zizkiola esperantza guziak Salbadorri; eta arrazoi zuen baina Doloresek ez zezakeen destrui bere urostasun guzia gisa horretan.

Enfin, bere dolorentzat erremedio bila zebilela denbora pasatzen zen; egun batez azkar kausitzen zen, bertze egun batez flako, eta hola, bere esperantza Jainkoaren baitan emana, hari otoiztuz fermuki argi zezala egin behar zuenaren gainean, denbora bazihoan.

Bi hilabete pasatu ziren eta markesa galdegina izan zen Marseillara bere adiskide eta kusi urrun eta eri txar zen baten gana. Partitu zen berehala Salbadorrekin batean. Kusi hau Comte de Mirandol deitzen zen.

Fortuna handi baten jabe, alargun zen aspaldian, eta bazuen hemezortzi urteko alaba bat zeina haren ontasun guzien ondoko izan behar baitzen. Han eta hemen estranjerian bizi ziren beti eta orain bere egoitzaren egitera Frantziara jinak ziren. Kondea eritasun bati ezin buru eginez egona, uste zuen izanen zuela arintasun zenbait sorlekuko aire garbia hartuz. Baina Marseillara orduko eri-txartu zen eta, bere estatu goraz ilusionerik egin gabe, xerkatu zuen bere alabarentzat protektor bat, pentsatu zuen bere kusi Chamondrineko markesean. Bazuen anitz denbora ez zutela elkar ikusi; baina aski ontsa ezagutzen zuen, bere haurraren ondasunen konfiatzeko. Markesak ez zuen tronpatu, jin zen, hartu zuen bihotz onez bere ahaideak ematen zion kargua eta zerratu zizkion begiak bere kusiar.

Zenbait egunen buruan itzuli ziren jauregira andere dolutan zen baten konpainian, hura zen Eusebia de Mirandol.

Begitarte aski pollita zuen; ez izanik ere Doloresen edertasunetik batere, bazuen grazia anitz. Beltxarana zen eta apala. Baina haren begien ezintasuna halakoa zen non obligarazten baitzituen oro maitatzerat.

–Ekartzen dinat ahizpa bat -dio markesak Doloresi-. Gaixoak anitz sufritzen du; eta ororen karesen beharra badu kontsolatzeko.

Bi neskatoak elkarretaratu ziren eta elkar besarkatu zuten. Doloresek la-
gundu zuen bere ganberara andere Mirandol, zeinarekin partitu behar baitzuen
ganbera handik aitzina; han bilatu zizkion kontsolazioneak, karesak, eta ordutik
goiti elkar maitatu zuten ahizpak izan balira bezala.

(XVIII)

Andere markesaren galtzeak, hark ama errenplazatu baitzion, eta Salbado-
rren ganik libratzeko egiten zituen indarrek kruelki penatua, adiskide baten
presentzian kontsolatu behar zuen Doloresek. Hola ahantzi zituen bere penak,
eta eman zen osoki bere adiskidearen penen ttipiarazteko misionari. Eta kon-
tsegitu zuen. Kontatu zuten elkarri beren pasatua. Doloresek ez zion deus gor-
de. Konfesatu zion modestia faltsurik gabe hura ez zela markesarentzat eskelari
bat baizik. Eusebiak ere kontatu zion bere gaztetasuna.

Ez zuen ezagutzen Frantzia. Hark hobekienik ezagutzen zuen lekua Luisia-
na zen. Eta beti leku eder haietaz mintzo zen. Doloresek obligarazten zuen Sal-
bador mintzatzera gortez, Parisez eta zekizkien erranaraztera Versaillesez,
beti Eusebiari penaren ahantzarazteko, Salbadorrek kontatzen zituen oro eta bi-
ziki mintzatzeko manera ederra zuen. Erraten zuen nola esperantza zuen egun
batez haren izena merezi zuen bezain gora ezartzea, eta Eusebiak, ikusiz bihotz
handiko gizona zela, hasi zen haren maitatzen. O! zoin uros diren ikusi dutenak
lehen amodioaren aurora garbia beren bihotz gazte eta puretara jausten!

Lehenik argi guti bat da, zoinak erakusten baitigu urrunetik maite dugun
presuna. Gero argia handitzen da, esperantzak eztatzen ditu, argitzen du oraino
ilunbetan zena: bihotzak hobeki ikusten du bere baitan. Bat-batean hondar lai-
noak altxatzen dira eta eguzkia ateratzen da izate maitatuaz inguratua eta bizi
berri bat ematen du. Amodioa da.

Chamondrinen hilabete bat pasatu orduko amodioaren lehen misteriozko
gradu hartara etorria zen. Salbador ona eta maitagarria zela iduritzen zitzaion.
Ez zuen gorde Doloresi; eta ez dugu dudatu behar bihotza xehatzen ziola bere
konfidentziekin. Dolores oraino ez zen sinetsia ez zela egun batez Chamondri-
neko markesa izanen. Eta orduan ikusi zuen imposible zela ezkont zedin maite
zuen gizonarekin. Orduan ezagutu zuen hobeki bien artean zen diferentzia.
Guduka zitekeen Eusebiarekin? Ez baldin bazuen bere eta Salbadorren amodio
handia baizik kontsultatzen, bai; baina kontsultatzen bazuen fortuna, noblezia,
hitz batez andere Mirandolek zituen guziak, ez. Ezen hark bazituen markesak
bere semearen ezkontarazteko behar zituen eta desiratu zituen guziak.

Zer gau terriblea Doloresentzat, Eusebiaren konfidentziak segitu zuen gaua. Zenbat pena! Biak ganbera berean etzaten ziren, eta Eusebiak ez bazuen ezagutzen Doloresen pena, hura ere pentsaketan zegoelakotz zen. Doloresek ez zuen bere adiskidearentzat inbidiarik ez eta ere jelsiarik, konprenitzen zuen maite zuela Salbador ikusi zuen puntutik. Negar egiten zuen desesperazionez. Salbadorren amodioa ezagutuz geroz esperantza sekretu bat haren baitan bizi zen.

Denbora bazuen. Markesak bere semearentzat desiratzen zuen emazte noble eta aberatsa ez zen oraino harrapatua. Arrazoin horiek ematen zioten zenbait indar. Baina orain ez zezakeen kontserba esperantza horietarik. Sostenitzen zuen gudua betea zen urriki handi batez. Boz batek erraiten zion: “Maite dun, maitatua haiz, mantenzkin hire dretxoak, guduka, otoitz, lagunt Salbador, lan egin elkarrekin zuen amodioaren triunfa irabazteko, erresista zazue elkarrekin markesaren borondateari, eta orain ez baldin baduzue irabazten ahal zuen indarrak koroatuak izanen dira berantxago argi handi batekin.”

Baina bertze boz batek erraten zion: “Markesa hire aita, hire ongi egilea izan dun, haren emazteak ama batek bezainbat maitatu hau, amaren plaza egin daun. Nori zor dun ignorante ez izatea? Nork ezagutarazi din Jainkoa, haren handitasuna eta haren obrak? Amaren bihotza, familiako gozoak, ontsa izatea eta hire izatea xarmatu duen guzia nori zor dion? Ez dun sobera eginen hire bihotzaren zerrateaz haien errekonpentsatzeko, eta gisa horretan ez ditun haien esperantzak destruituko.” Lehen bozak zioen berriz: “Salbador biziki maluros izanen dun hik abandonatzen badun. Negar eginen din hiretzat eta madarikatuko hau, eta hik ere pasatuko dun bizia negarrez, ahalgeturik hire urostasuna ezdeuskeria batzuentzat uzteaz.” Bainan bigarren bozak ihardesten zion: “Eusebiak kontsolatuko din Salbador. Madarikatzen bahau, jakiten duenean zerentzat ez dunan nahi izan, benedikatuko hau. Eta hitaz negar egiten badun kiraski, apazegatuko haiz pentsatuz hire deberra konplitu dunala.”

Haur malurosa gisa horretan gudukan ari zen bere bihotzaren eta kontzientziaren kontra. Baina geroxago ixilarazi zuen bere kontzientzia bai eta ere bihotza eta pentsamenduak. Erresignatu zen bere malurrari eta hartu zuen xedea ez konbatitzeko Eusebiaren baitan sortzen ari zen amodioa, baina bai animatzeko. Esperantza zuen Salbador ez zela insensible izanen Eusebiaren grazier eta orduan, hura desesperatzeko beldurrik gabe, atrebituko zen bere gogoaren kontra mintzatzera eta deklaratu zion Salbadorri ez zuela maite.

(XIX)

Hirur hilabete pasatu ziren gisa horretan. Salbador akitua bere onaren eta gaitzaren arrapostuaren beha, eta ezin atrebituz bere hitzaren haustera Doloresi galdeginez, desidatu zuen Eusebiari hel egin behar ziola harentzat errekeri zezan Dolores, hainbertze desirutzen zuen arrapostuaren izateko. Ja bazakien bi neskatoek biziki elkar maite zutela, beren sekretuak elkarri kontatzen zituztela eta pentsatzen zuen andere Mirandolek plazer hori eginen ziola.

Ordu arte harentzat hotz izan zen, baina orduan hasi zen haren hobeki tratatzen, pentsatuz gero atrebituko zela lau urte baino gehiago bere bihotzaren zolan zeukan sekretuaren hari erratera. Promenatzera joaten zirenean Salbadorrek ematen zion besoa, karrozan joaten zirelarik haren aldean jartzen zen, Avignonerat joaten zelarik Doloresi bezala hari ere oroitzapen bat ekartzen zion, eta Eusebiak zituen karesa horiek amodioaren probak bezala. Biziki kontent zen eta bere sentimenduek sinetserraz eginarazten zuten. Arrats batez erran zion Doloresi:

–Ez dakizu maite nauela?

Ez zuen sinetsi. Inposible zen Salbadorrek hain fite ahantzi zuen. Hark erran zizkion guziak gezurrak ote ziren? Nola sinets hainbertze lañotasunekin eta surekin mintzatu zitzaionaz geroz! Gudukatu eta ondoan pentsatzen zuen Salbadorrek ez zuela maite eta sakrifikatzen zela Eusebiarentzat. Preparatua zen behatze ezti batekin bere malurostasunaren kontsumitzen ikustera. Baina hain fite ahantzia izatea ez zuen sinesten ahal.

–Hau hola baldin bada -egiten zuen Doloresek-, Salbador Eusebiarentzat hain indigno da nola niretzat. Bainan ez daiteke. Eusebia tronpatzen da!

Segurtatzeko, erran zion Eusebiari:

–Baina, nola dakizu maite zaituela? Zein dira hark zuri erakutsi dizkizun amodioaren frogak?

Eusebiak erran zizkionean Salbadorrek harentzat hartzen zituen atenzio-neak, Dolores dudatu zen. Bizkitartean, ez zuen deus erran. Eusebiak biziki uros lo egin zuen gau hartan. Biharamunean bere ganberatik ateratzean harrapatu zuen Salbador galerian eta honek erran zion fite boz apal batean:

–Anderea, mintzatu behar zaitut. Zure beha nago behereko parkean.

Hitz horiek erran eta itzali zen, uzten zuelarik Eusebia konfusa baina urosa. Haren bihotzak palpitatzen zuen azkarki. Haren bisaia gorritua zen guti aski. Joan zen parkera ahal zuen bezain urrun, Doloresek ez ikusia izateko.

Salbador, haren beha zegoena, hari hurbildu zen. Ikusi zuenean beti bezala zela eta haren begitarreak ez zuela deus partikularrik altxatzen, horrek kontra-

riatu zuen. Uste zuen koloreak joanak eta ikaretan jinen zela baina tronpatu zen.

–Barkatuko didazu, anderea, zuri hel egiteaz -erran zion Salbadorrek-. Baina zuk egiten ahal didazun zerbitzua hain handia da non hari estekatua baita ene bizi guziko urostasuna, hortakotz ez naiz gibelatu zure borondatean konfiatzetik.

–Eta zertan baliatzen ahal nauzu?

–Maite dut -ihardetsi zion Salbadorrek.

Eusebia ikaratu zen, eta, turbatua, begiak apaldu zituen.

–Nik maite dudana diskretua da, ederra, eta ona zu bezala. Ez duzu erraten ahalko ezetz jakiten duzunean Doloresez mintzo naizela.

Nola istant hartan Eusebiak ez zuen zer sentitzen zuen erran? Hats luze bat bota zuen eta hits-hitsa egin zen baina arbolen itzalek disimularazi zioten bere histasuna. Eta gisa horretan entzun zituen Salbadorren konfidentziak. Kontatu zion maite zuela Dolores lau urte hartan eta hark bazekiela zenbait hilabete hartan; berak erran ziola, baina ez ziola arrapostua eman eta, ezin gehiago biziz gisa horretan, otoizten zuela andere Mirandol harentzat otoitz zezan Dolores nahi zuenez mintzatu hain maite zuen harekin.

Eusebiak hitzeman zion mintzatuko zitzaioela Doloresi. Haur malurosak hitzeman zion jakin gabe zer ari zen; desiratzen zuen Salbador joan zedin, gero negar egiteko, bakarrik. Joan zen parke hartara esperantzarik eztienekin eta esperantza haien arruina harrapatu zuen han, kulpable kausitzen zen eta erreprotxatzen zuen amodio hura krima bat bezala. Eta erraten zuen han ikusten zuela Jainkoaren eskuak gaztigatzen zuela Salbadorri pentsaturik, oraino dolu handian izan eta. Bakarrik gelditu zenean negar egin zuen, hala haren pena eztitu zen; baina jelosia sortu zen haren baitan zeren eta Doloresek errezibitu baitzituen haren konfidentziak hari erran gabe Salbadorrek maite zuela; joan zen haren bila. Dolores atera zen erraten ziolarik:

–Eusebia...baina zer duzu? Histua zara eta iduri duzu negar egin duzula.

–Zer dudan? Ez naiz maitatua! Horra zer dudan. Zu maite zaitu. Otoiztu nau zuri galdegitea hark desiratzen duen arrapostu bat. Konprenitzen duzu zer gisaz eni adrezatu den, zure aldean abokat paperaren egiteko? A! Anitz sufritzen dut, umiliatua naiz, ahalgetua. Zerentzat ez didazu erran Salbadorrek maite zintuela? Arras gaizki egin duzu; uste nuen ene adiskidea, ene ahizpa zinela.

Ez zezakeen deus gehiago erran, hats-hantua zen.

(XX)

Dolores, hainbertze ordu arte sufritu zuenak, oraino sufritzen zuenak, pietate izan zuen Eusebiaren penaz. Hari hurbildu zen, haren negarrak xukatu zituen eta erran zion:

—Egia da Salbadorrek maite nauela, erran dit badu zenbait egun; errefusatu nion arrapostua pentsatu baino lehen, eta ontsa egin dut zeren eta ez baitut ikusten Salbadorren baitan anaia bat baizik. Sekula ez naiz haren emaztea izanen, eta luzatu badut egiaren ezagutaraztea, egin dut beldurrez hari pena eman destruiaraziz haren baitan zen esperantza bat.

—Zer! maite zaitu, ez zara harekin ezkondu nahi? ez dirot sinets.

—Ez dut nahi harekin ezkondu -segitu zuen Doloresek-, eta aitortzen dizut, ikusiz zuk maitatzen zenuela kontentatu naizela erranez: hori da Salbadorri komeni zaion emaztea, eta ene arrapostuak desesperatzen baldin badu, kontsolatuko du Eusebiaren amodioak.

—Hori pentsatu zenuen? -dio andere Mirandolek bere adiskidea besarkatzen duelarik-. Eta nik hain gaizki jukatzen zintudana! Barkatuko didazu?

Musu bat irri batez lagundua izan zen haren arrapostua.

—Bai, Eusebia, nahi dut lanean ari haren onarentzat eta segur naiz harek maitatuko zaituela.

—Ai! nola nahi duzu ni maita nazan haren bihotza zurea denaz gainean eta haren begiek zureak baizik bilatzen ez dituztenean? Nahi gabe enetzat partida handi bat zara, zeren eta zu ikusiz ez baitu Salbadorrek sekula ene bihotza ezagutuko.

—O! ez ezazula beldur hori izan, ene ausentziak zuen urostatasuna eginen du.

—Zer! utz zenezake etxe hau hain maitatua zirena? -dio Eusebiak-. Ez, ez hori sekula.

—Bai, utziko dut, zuen urostatasuna segurtatu artio. Chamondrineko markesa izaten zarenean joanen zara Pariserat Salbadorrekin eta orduan jinen naiz ene aitaren alderat, utziko dudan hutsaren betetzera.

—Dolores, aingeru bat zara! zein maite zaitudan!

Doloresen lengoaiak kontsolatu zuen Eusebia eta kontent partitu zen.

Dolores bera gelditu zen bere desesperazionearekin, akitua egin zuen indar hartaz Eusebiaren urostatasunaren egiteko. Baina ez zezakeen ahantz Salbadorrek anitz maite zuela eta hark ere bai. Hala ere zioen: “Uros izanen da Eusebia bai eta ere markesa sakrifizio hori eginez eta bertze gisaz biak maluros lirakete.” Sakrifiziorik jenerosena egiten bazuen, dolorosena egiten zuen.

Iduritzen zitzaion ez zuela egiten ahal, ez zela kapable, hainbertze akitua

zela gudukan. Baina “Egin behar dut” erran zuen. Eta bere bihotzari kasurik egin gabe badoa berehala markesaren ganberara.

Elkarren artean konferentzia handi bat izan zuten. Urgulurik gabeko balore handi batekin Doloresek erran zion nola Salbadorrek maite zuen eta hark ez, harentzat Salbador anaia bat zela. Baina Eusebiak hura maite zuela, eta, ahantz ahal zezan, handik joanen zela, hura ezkondu artio.

(XXI)

Markesak negarretan besarkatzen zuen, erranez ez zuela nahi haren ganik separatu.

–Nesario da -zioen Doloresek-, zerendako eta ni haren aldean izanez ez nau ahantziko, eta beti kontserbatuko du nik maitatuko dudalako esperantza. Nesario da ezin pasatuzko murru bat gure bien artean altxa dadin, uste izan dezan hila naizela munduko eta amodioarentzat. Alon, aita, maite banauzu eta zure semea maite baduzu ez didazu errefusatuko nik ikusi nahi ez dudanaren eta ahantzi behar nauenaren aldean bizitzea. Pasatuko ditut bi urte komentu batean eta gero jinen naiz zure alderat.

Jaun Chamondrin harritu zen ikusteaz haur hark hain bihotz handia zuela, musuz betetzen zuela kontsentitu zuen pentsatuz hark zuen desira, bere semearen izen handiko andere batekin ezkontaraztea, konplituko zela fite eta orduan, berriz uros, bere alderat ekarraraziko zuela Dolores. Separatu zirenean Dolores joan zen Salbadorren aurkitzera, harrapatu zuen goizean andere Mirandol otoiztu zuen leku berean. Ikusi zuen heldu zela. Eta hari hurbildu zen.

–Eusebia hitaz mintzatu zaidak -erran zion boz segur batekin-. Beldur nin-duan hiri pena eman, horretako ez diat ihardetsi fiteago. Baina goizean hau pasatu denaz gainean, esplikatu nauk.

Salbadorrek pentsatu zuen, intzirina bat egin zuen eta bere indar guziak bildu zituen haren entzuteko.

–Har ezak kuraia, Salbador, ez ezakala handi hire desesperatzeaz duan pena. Hik hire bihotza ideki hidaan mementotik hire sentimenduen leitarazteko, ez nauk gelditu nirearen kontsultatzetik. Nahi nian hartan harrapatu hireari berdintzen ahal zen amodio bat. Baina alferretan bilatu diat. Maite haut ene odola hiretzat emateko, bai eta ere ene deskantsua eta ene bizia. Baina ez diat atxikitzen ahal bertze amodiorik. Beti sakrifizio guzietarat preparatu den haurride amodio harekin maitatu haut. Hori duk enetzat duana eta nahi duk parti dezagun? Nahi duanez geroz, ene bihotza zerratua duk eta beti izanen duk ho-

rretaz bertze amodioarentzat, kontsentitzen banu hirekin hurbilago juntatzera ezkontzako lazoekin.

–Ai! -murmuratu zuen Salbadorrek-, ez dut jakin nire buruaren konpreniarazten.

–Ez zezakeat ahantz hemezortzi urtez anaiak izan garela -erraten zion Doloresek kontsolarazi nahiz-. Ez duk ikusten ezik ezkontza hau gure aitaren nahiaren kontrakoa litzatekeela, bai eta ere hire izenaren loriarena, izen haren ondoko bakarra baihaiz?

–Eta zer egiten didate ene loriak, izenak eta ene aitaren nahiak! Deus ez zait interesatzen -zioen bizitasunekin Salbadorrek-. Sortu naiz holokaustoan ofreitua izateko ezdeuseria batzuentzat? Bortz urte bizi izan naun esperantza batekin. Egun destruitzen didate. Zer ikusten ahal dut urrunago? Deusek ez nau estekatzen biziari, zeren eta hire dezisioea ezin hautsizkoa baldin badun, ez naun kontsolatuko sekula.

–Bainan ahantziko dituk hola maite hautenak? Gure malurra egin hezakek.

–Maite nautenak! Alferretan xerkatzen ditut. Non dira? Ene aitak ez ote nau hazi bere anbizioe tzarren satifatzeko baizik? Hi haiz, Dolores, jostatzen haizena eni bihotzaren hausten? Ene ama, bakarra konprendituko ninduena, sostenituko eta kontsolatuko ninduena, ez da gehiago hemen ene defenditzeko.

Erotua penarekin, negarrez zegoen eta oihuka haur bat bezala.

Doloresek galdatzen zuen zeruari kuraia bere gogoaren kontra mintzatzeko eta sentitzen zuen pasione haren urruntarazteko.

–Blasfematzen duk, Salbador; gaiztoa haiz hire aitarentzat eta enetzat. Baina guk ez bahaugu maite bertze hainbertze erraten ahal duka Eusebiaz?

–Eusebia!

–Maite hau afektu handi batekin eta erran zidak; ez baldin bahenkien erraten diat, eta orain ez duk erraten ahal bihotz guziak ingratak direla.

Deklarazione horretan Salbador oroitu zen, goiz berean bere ideiak eta beldurrak konfiatu zizkiola andere Mirandoli. Pentsatuz zer paper eman zion eta zenbat sufritu zuen, hartaz pietate hartu zuen.

–Pena bera hartu baldin badu, zenbat urrikari dudan!

–Beraz zerendako ez kontsolatuko Eusebia hihaur kontsolatuz?

Hitz horiek irritatu zuten Salbador.

–Nagusi naiz ni -zioen- manatzeko ene bihotzari ahantz dezan xarmatzen eta memento honetan desesperatzen duena? Uste dun ene ahalean dela hire oroitzapenaren uztea Eusebiarenaren hartzeko? Jakin ezan ezetz, Dolores enea! Desolatua naun, ez hire galtzeari erresignatua. Obligaraziko haut ene maitatzera ene desesperazioneak eginen dinan pietatearen gatik ez baldin bada ere.

(XXII)

Hitz horiek, kolera bizi batekin erranak, hautsi zuten Doloresen bihotza, baina hala ere ez zuen kuraia galdu. Konprenitu zuen behar zuela destruitu Salbadorren hondar esperantza, ezen hura zen Eusebiaren besoetan ezartzeko erremediorik hoberena, eta erran zion boz fier batekin:

–Salbador, sobera maite haut, hiri errealizatzen ahal ez diren esperantza batzuen uzteko. Ene dezisioea ezin hautsia duk eta oraino dudatzen bahaiz, jakinen duk egia. Hitzemana nauk...

–Hitzemana! -dio Salbadorrek, pasatzen delarik sorpresatik kolerara!-. Hitzemana! Eta nor da hire ebastera atrebitu dena? Hitzemana! Eta nori?

–Jainkoari -ihardetsi zuen ezteki Doloresek-. Jada erakutsia zioat hire aitari karmelitetan sartzeko dudan ideia.

Hondar hitz horiek entzutearekin Salbador itzuli zen, Jainkoaren borondatearen kontra ez zitekeen joan, eta, ikusiz Jainkoak galdetzen zuela haren ganik sakrifizio hori, ez zuen kolpe txar bat egin. Tapatu zuen eskuekin bere bisaia, Jainkoari bere pena eta sakrifizioa ofreitu zion; eta joan zen arbola azpierz harat marrumaz eta bere marrumen artean oihu egiten ziola, betiko galdu behar zuen hari.

Dolores egon zen bortz minutu iltzatua bezala, zutik bere bizia hautsi zuen toki hartan. Behatzen zuen Salbadorri, zeinaren marrumek izutzen baitzuten, instant bat urrikitu zitzaion. Uste zuen krimen bat egin zuela, ezen munduan zuen maiteena hura zuen, markesa eta Eusebia baino anitz maiteago zuen. Baina ez zen arima baleros hura ukitu zuen itzal bat baizik. Altxatu zituen begiak zerurat han indarren bilatzeko bezala eta itzuli zen urrats ezti batean jauregiko alderat, harritia Salbadorren desesperazioneaz eta zanpatua bere pena handiaren azpian.

Iduri zuen haren bihotza pedazutan jarri zela, baina bere kondutaz kontent zen, soldaduak batailan anitz odol isuri eta ondoan bezala. Pentsatu gabe harrapatu zuen Piarres eta ez zuen denborarik izan bere begitartearen gordezko. Honek ikusi zituen haren negarrak. Pasatuaren oroitzapenetan eta haren bihotza betetzen zuen amodio paternal haren izenean atrebitu zen bere alaba kontsideratzen zuen hari galdetzera:

–Zerentzat negar egiten duzu, anderea?

Inkomodatzeko orde galde horrek plazer egin zion.

Badira mementoak bihotzak bertze bihotz konprenitzen duen bati bere penak komunikatu behar dituenak. Piarres ontsa heldu zen haren konfident izateko.

Doloresek beti maite izan zuen Piarres; baina gehiago maitatu zuen jakin zuenean zer familiarik zen, zeren eta hain estimagarria baitzen herritar baten semea nola buhame baten alaba.

Ez zen gibelatu, ireki zion bere arima. Nehori erran ez ziona, ez markesari, ez Salvadorri, eta ez Eusebiari, erran zion Piarresi. Nola haren amodio bizia, pasionearen sua, oro sakrifikatu zituen gogotik markesaren ongi handien pagatzeko eta bere adiskidearen zorionaren egiteko. Negar egin zuen Piarresen aitzinean, aita baten aitzinean bezala. Piarresek erran zion tristeziarekin:

—Oro pentsatu nituen. Haur gaixoak! Egia erran dizuete goizegi. Behar zintuzten bietarik bat ezkondu artio ignorantzian utzi eta orduan ez zenuten pentsatuko zuen destinoen estekatzea elkarrekin. Amodio mutua ez zen kanbiatuko negar egiteko amodio batean. Zer egingen duzu, anderea? —galdegin zuen Piarresek.

—Joanen naiz komentu batean zerratzera Salvador ezkondu arte.

—Zu komentu baterat? Inposible!

—Nesesario da —erran zuen Doloresek.

—Bai, konprenitzen dut behar duzula etxe hau utzi. Baina zerentzat joan komenturat? Norat joanen zara bakarrik eta adiskiderik gabe?

—Badakizu ez dudala adiskiderik hemengoak baizik eta horiek ez nirote akonpaina.

—Ez dakizu Piarres zure adiskidea dela eta preparatua dela dituen guzien sakrifikatza zure segitzeko? Joanen naiz zurekin, zerbitzatuko zaitut, defendituko zaitut. Badut zenbait ondasun eta zureak izanen dira.

Ezagun zen mintzatzeko maneratik, zuena bihotz onez ofreitzen zuela Piarresek. Admiratua haren borondate guziaz, Doloresek errefusatu zuen Piarresen eskaintza, erakusten ziola haren lekua jauregian zela eta bera preparatua zela komentu batean sartzeko, eta itzuliko zela Salvador ezkontzen zelarik.

—Egizazu nahi duzun bezala, anderea; baina oroit zaitez, ideia kanbiatzen baldin bazaizu ene fortuna ttipia eta ene bizia zureak izanen direla.

Piarresek anitz pena hartu zuen jakiteaz haren alaba deitzen zuenak zer ideia zuen.

1789an lehen egunetan Dolores sartu zen Arleseko karmelitetan, ez nobizio bezala zeren ez baitzuen serora egiteko boturik baina pensionist bezala, aski baitzen Salvadorren ganik urruntzeko.

(XXIII)

Ondoko egunetan Salbador desesperazione handi bati sumetitua zen. Pena kiratsago bat ez zion emanen Dolorezen hiltzeak. Ez zen hila harentzat? Uste zuen sekulako zerratua zela. Negar egin zuen harentzat, nigar egiten den bezala herioak altxatzen dizkigun ahaide eta adiskide anitz maite ditugunentzat. Desesperazione horretan pasatu zituen lau hilabete. Eta gero pentsatuz Dolores ez zela sekula bertze batena izanen, hura errefusatu zuela Jainkoari bere buruaren kontsakratzeko, arindu zen haren pena eta preparatu zen erresignatzera.

Eusebiak sinetsi zuen Doloresek erran ziona, ez zuela maite Salbador, eta Dolorezen ganik separatzeko hartu zuen pena arindu zitzaion Salbadorrek maitatuko zuelako esperantzaz.

Eztiki-eztiki Salbadorren pena joan zen ttipituz ezen zioen: “Jainko baten borondatearen kontra ez naiteke joan”. Baina deus gisaz ez zezakeen kendu Dolorezen potreta. Harek segitzen zuen beti eta arimako begiez ikusten zuen mirail argi batean bezala.

Orduan joan nahi izan zen Versaillesera bere erregimentuaren aurkitzera baina ezin utzi zuen aitak. Erran zion, galdu zuenaz gainean Dolores, ez zitekeela bizi bere semeak abandonatzen baldin bazuen. Salbador gelditu zen eta denborarekin ikusi zuen egiazki Eusebia hark behar zuen emaztea zela, eta pentsatzen zuen harekin ezkontzea. Baina lehenik nahi zuen bere Dolores maitearen dolua ibili alargun bat izan balitz bezala, eta erran zuen bere aitari eta Eusebiari utz zezaten trankil, berak erranen zuela noiz nahi zuen ezkondu. Haren borondatea manu bat izan zen. Markesa paziente zen, Eusebia umil, eta situazioneak segitzen zuen bere kursa bakean noiz eta ere politikako aferak jin baitziren turbaraztera.

V. PARTEA.
HISTORIA NAHASTEN DA ELEBERRIARI



Orok badakigu zer erreboluzioea jin zen 1790ean Frantziaren tormen-taraztera: jende xeheak ez zuen handier obeditu, erlijioneari ez zuten obedi-tu nahi, nobleak hil nahi zituzten, gisa berean erregea, errepublikaren izateko. Jende xehetarik armada handiak preparatu ziren Parisen eta atera kanpoetarat, erretzen zituztelarik jauregiak eta haien ondasunak. Gauza horien jakiteak ba-rrearazi zuen markesaren eta Salbadorren izpiritua eta gisa horretan arinduz zihoan haien pena, Dolosen ganik urrun bizitzekoa.

Markesak desiratzen zuen Salbador fite ezkont zedin, haren gibelerat eka-rrarazteko, eta Salbadorrek uste zuen Jainkoari kontsokratua zela Dolores. Oro arras triste ziren, kazetek erraten zuten errege menazatua zela. Hamar aldiz Salbadorrek joan nahi izan zuen bere erregimentura han erregeren zerbitzuan hiltzeko, ezen deusek ez zuen atxikitzen munduari bere Dolores maitea betikotz galduz. Baina Piarresek ez zuen joaterat uzten, erranez haren presentzia nesesa-rio zela jauregian, eta joaten baldin bazen markesa eta Eusebia lanjer handitan geldituko zirela.

Piarresek arrazoi zuen, ezen handik pasatzen ziren beti ohoin tropak; joaten zen ikustera, eta, nola beldur baitzen, harrapatzen zituen adiskideak jauregiaren zaintzen laguntzeko. Oroer kasu ematen zuen, deus arriskurik ikusten bazuen markesari kontatzeko. Eta, gehiago zena, hark ez zuen joan nahi Salbadorrekin Doloresen ez uzteko bakarrik adiskiderik eta defensorrik gabe, eta egun batez ha-ren laguntza falta beldur zen. Ez zen joan Salbador eta aitak eta biek hetsi zuten jauregia eta lau gizon borondate onezkoak armaturik ezarrarazi, begira zezaten.

Piarresek bazituen herritar batzuk hitzeman ziotenak laguntzera jinen zirela deus behar-ordurik baldin bazen eta markesa joaten zen ardurara Remoulinsera, eta han bere adiskide guziek hitzematen zioten jauregia atakutzen baldin bazu-ten jinen zirela begiratzera. Adiskide anitz bazuen zeren eta beti biziki jenerosa baitzen. Jakin zuten norteko alde guzia armetan jarria zela eta herri guzietan sartzen zirela, nobleak, erlijioneko jendeak hiltzen zituztela eta jauregiak eta elizak erretzen. Motibo horien gatik markesa eta haren semea preparatu ziren

ataka baterat. Gordetzen zirelarik ahal zuten bezainbat Eusebiaren ganik, honek ikusi zituen eta galdegin zuen zer ziren preparatibo haiek. Ez zen aise gordetzea, ikusten zuen Salbador goiti-beheitiko eskaileretan ibiltzen, markesarekin apal mintzatzen; azkenean Salbadorrek erran zion zeren beldur ziren eta kuraia anitz behar zuela hartu.

Kuraiaz betea ikusten zituen preparatibo haiek guziak, kasik kontent zeren eta haiek atxikarazten baitzuten Salbador haren aldean. Maitatzen zuen Eusebiak Salbador isiltasunean, maite zuen Salbadorrek hura baino gehiago, baina esperantza bazuen. Eta zenbait aldiz ikaratzen baldin bazen pentsatuz bizi eder eta gozo hura menazatua zela, kontsolatzen zen pentsatuz maite zuen harekin hiltzeko alegria izanen zuela.

Bizkitartean markesak eskrupuluak izan zituen Eusebia ez zelakotz haren familiakoa oraino eta hitzemana ziolakotz bere kusiari hari eta haren ontasuner kasu emanen ziela hil artio, eta deliberatu zuen Ingalaterrarat igortzea, pentsaturik han segurago izanen zela Chamondrineko jauregian baino.

(XXIV)

Erran zion egun batez Eusebiari baina honek ihardetsi zion:

–Neretzat interes zonbeit baldin baduzu, ez baduzu nahi hil nadin, ez nazazula urrunt Salbadorren ganik.

Markesak ezin erresistitu zuen otoitz horri eta Eusebia gelditu zen.

Chamondrineko jendeak emozione horietan erretiratua zeudelarik Dolores Arleseko komentuan zegoen Salbador fite ezkont zedin beha, gero berriz bere haurtasuna hain dohatsuki pasatu zuen leku horretarat joateko.

Zenbait hilabete pasatu orduko, etxe saindu horretan sosegatua zen. Kalmak eta otoitzak haren dolorea arindu zuten. Sufritzen zuen oraino, bere amodioaren sakrifizio beti sentitu behar zuen hura zela kausa. Baina xerkatzen zuen fedean, bere erresoluzione handietan, erresignazionea, grazia handi eta dibino zeruak arima malurus otoizten dutener igortzen duen hura.

Komentu hura egin zutenek nahi izan zuten han izan zedin ere leku bat jende pena zenbait izanik erretiratua bizi nahi zuenarentzat. Alargunek, ama bere haurrak galdurik negarrez zeudenek, umexurtx munduaz izutuek harrapatzen zuten han kontsolazionea bititze saindu batean. Hamazazpigarren mendearen hastetik serorek obeditu zuten desira horri.

Dolores komenturat bizitzerat joan zenean, baziren han zazpi pensionist, oro adinekoak. Errezibitu zuten alegriarekin gazte eder hura, eta hain maitatu

zuten non denbora gutiren buruko iduritzen baitzizaion bere familian zela. Jaikitzen ziren sei orenetan, joaten ziren ofizioetarat eta gero libro ziren nahi zutenaren egiterat.

Dolores lanean artzen zen pobreentzat eta aldareentzat, bisitatzen zituen pobreak eta eriak, haren egunak trankil pasatzen ziren. Piarres jiten zen eta ekartzen zizkion Chamondrineko berriak; markesak ere izkiriatzen zion. Haritzen zuen interes anitz berak utzi zituen jende maite haien preokupazionez, bere amodioaren proba berri baten emateko.

Piarres jiten zenean, Doloresek erraten zion zenbat desiratzen zuen Salbador ezkont zedin, berriz etxe benedikatu hartarat itzultzeko. Haren esperantzak ez ziren konplitu beharrak. Etxe hain maite zuen, hazia izan zen eta hain maitatua izan zen hura ez zuen sekula gehiago ikusi behar.

Errearoaren lehen egunetan, Piarresi, fidel bere kostumari, iduritu izan zitzizaion uzten ahal zuela jauregia bere alaba maitearen aldean zenbait egunen pasatzeko. Egun guziez elkar ikusten zuten, mintzatzen ziren jauregiko izate maiteez. Oren zenbaitek baizik ez zuten Piarres separatzen jauregitik.

Zenbait egun han bere alaba deitzen zuen harekin pasaturik trankil abiatu zen goizeko aire freskoa errespiratzen zuelarik, Beaucaire deitzen den hirian sartu arte, noiz eta ere ezagutu baitzuen jendea kexu zela eta armetarat preparatzen ari zirela.

–Baina zer da? -galdegin zuen Piarresek, hurbiltzen zelarik, tropa bati.

–Zer! Ez dakizu zer pasatzen den?

–Deus ez dakit. Arlesetik heldu naiz.

–Nîmes puskatua da, Cevenneseko ohoinak eta errepublikanoak jautsi dira hirirat. Itsuskeria batean hil dituzte hirur ehun presuna baino gehiago, langile, apez, serora eta arte jendea. Hiri hartan nagusi dira eta beldur gara honat jin daitezen. Hortakotz preparatzen ari gara errezibitzera.

–Baina, ja pasatuak dira Nîmesen? -galdegiten du Piarresek harrিতua.

–Bai, zenbait izan dira Gardeko zubiraino, Chamondrineko jauregia arrotatu eta erre dute.

Piarresek oihu ikaragarri bat egiten du, eskua bihotzaren gainean ezartzen du, haren bisaia zuri-zuria egiten delarik.

–Baina zer duzu, herritarra? -galde egin zion, berri triste hori erran zuten gizon haietarik batek.

–Ene nagusiak! Non dira ene nagusiak? -oihu egiten du desesperatua.

Eta nehork ematen ahal ez zion arrapostu baten beha egon gabe, badoa lasterka ero bat bezala, kurutzatzen du hiria hatsa galdu arte, Gardeko zubia-ri buruz. Ohoin tropak sartu zirenean hirian, hasi ziren elizaren erretzen eta

apezen hiltzen; gero joan ziren kaputxin komentu bat baitzen, hartara. Gero serora komentura, eta ikusi guziak erretzen zituzten. Egun batez hirur ehun hil zituzten.

Biharamun goizean ekainaren 13a zen. Entzun izan zen boz bat herri inguru guziak ikaratu zituena. Oihu izugarri hura Chamondrineko jauregi aldetik heldu zen. Eta hau zen: Nîmeseko gure anaien arrobatzen eta hiltzen ari dira!

Gau hartan markesak bilarazi zituen ezagun guziak eta goizik oro zaldiz joan ziren gaiztoen hiritik ateraraztera. Markesa ororen aitzinean zihoan, Salbador haren ondotik, hitz kontsolagarriak erraten zituztela eta oro kuriaz betearazten zituztela. Hirian sartu orduko markesak errezibitu zuen bala bat sahetsean, han berean erori zen, baina Salbadorrek ezagutu zuen ez zela oraino hila.

(XXV)

Altxarazi zuen etxe batera eta medikua ekarrarazi. Bala zazpigarren sahets hezuraren ondotik barnerat sartua zen eta bihotza ukitzen zuen.

—Deus ez daiteke egin -dio medikuak-, Jainkoak egin behar du.

Salbador, preparatua baitzihoan erreboluzionerat, ez zen desesperatua eta apez bat ekarrarazi zuen. Honek azken sakramenduak emanik, kontsolazionez bete ezarri zuen. Orduan galdegin zuen markesak hiltzera bere etxera nahi zuela joan, otoizten zuelarik apeza ez zezala utz azken hatsa eman artio. Karroza batean ezarri zuten eta Salbador eta apeza haren aldean joan ziren jauregira. Ohe baten gainean ezarri zuten ondoan, markesak ekarrarazi zuen Eusebia eta etsorta bat xarmanta eman zuen Salbadorri eta bier, erraten zielarik haiek bizi behar zutela, etxe hari merezi zuen ohorea eman behar ziotela, eta hitzeman zezaten apezaren aitzinean ezkonduko zirela elkarrekin.

Apeza egon zen istant bat hitzik erran gabe, obedituz hiltzen ari zen haren desirer. Eusebia eta Salbador negarrez haren aitzinean belaunikatu ziren.

Puska bat eztitu zirenean, apezak galdegin zien ea elkarrekin ezkonduko ziren, aitzak desiratzen zuen bezala, eta, baietz ihardetsi zutenean biek, erran zien:

—Ez zaituztet memento honetan ezkontzeko lazoekin juntatzen ahal. Baina elizak grazia hori zuen alderat isuri arte benedikatzen zaituztet Jainkoa otoizten dudalarik ene otoitza erdiets dezan.

—Uros hiltzen naiz -dio memento hartan markesak eztiki.

Agonia hasia zen.

—Jaun apeza, emaidazu benedizioa.

Eusebia eta Salbador zutitu ziren, musuz bete zuten markesaren begitartea, zeinaren gainean herioa leitzen baitzen. Eta berriz belaunikatu ziren.

Oren laurden baten buruko markesak azken hatsa ematen zuen.

Memento hartan sehi bat jin zen erratera jauregia sutan zela, eta ja gaiztaginak barnerat heldu zirela parkeko bortatik.

Apeza eta bi gazte haiek, otoitzean ari zirenak gorputz haren aitzinean, jaiki ziren.

–Zoazte ihes -dio apezak.

–Ene lekua hemen da -dio Salbadorrek.

Eusebiak aprobatu zion behatze batez.

–Zuen aita, bizitzeko manatu zaituztenaren izenean, manatzen zaituztet ihes joan zaitezten.

Hola mintzo zelarik apeza, erakusten zuen bere esku eskuinarekin borta.

–Baina, nork emanen dio sepultura? -dio, garrasia izigarri bat egiten duela, Salbadorrek.

–Nik! Atera zaitezte.

Salbador eta Eusebia harrituak eta marrumetan urundu ziren.

Apeza gelditu zen bakarrik. Bere presunaz kasu guti egiten zuen. Belaunikatu zen gorputzaren aitzinean eta erran zituen hilen arimentzat elizak zeruari egiten dituen otoitzak. Kandela baten argiak argitzen zuen ganbera ilun hura.

Bat-batean ohoinak sartzen dira, apeza haien aitzinera joaten da, eta keinu batekin erakusten die markesaren gorputza deskantsatzen den ohea, erraten diela:

–Ikusten duzue gorputz hori? Zuen lana da, errespeta ezazue, eta erretira zaitezte.

Ez zuen finitu. Tiro batez burua lehertu ziotenean oste guzia haren gainetik pasatu zen. Ebasten ahal zituzten guziak ebatsi zituzten, paretara guzier su eman zieten eta oro erre zirenean joan ziren.

Noiz eta ere gau terrible haren ondoko egunean Piarres jin zenean jauregiaren aitzinera, ez zen gelditzen paretarik baizik. Sortu eta hazia izan zen etxe maite haren paretarik baizik ez zen, zeinetarik baitzilhoan oraino laino ilun bat.

Hori ikustearekin Piarresek egin zuen desesperazionezko eta errabiazko oihu ikaragarri bat. Baina, zein zen haren xangrina eta pena jakin zuenean harriren azpian aurkitu zituzten gorputzak, oraino beroak, markesarena eta apezarena zirela! Salbador eta Eusebia non dira? Hilak ote dira? Nehork ez zekien. Gizon bakar batek erraten zuen ihes joaten ikusi zituela. Duda hori Piarresentzat begien aitzinean ikusten zituen guziak baino krudelago zen. Joan zen belar idorraren gainera eta han, tristeki, desesperazionerik espantagarrienari lotua, negar egin zuen kiraski.

VI. PARTEA. DESERTOREAK



(XXVI)

1793ko urriaren lehen igandean, goizeko hamar orenak jotzen ari ziren noiz eta ere andere gazte dolutan zen bat atera baitzen Londreseko inguruetan zen jauregi eder batetik. Jautsi zen erreposki eskalerer behera, kurutzatu zuen baratztea, portaleak ideki eta behatu zuen hiriko alderat.

Beltxarana, mehea zen, baina begitarte ezta zuen. Haren elegantziak, haren eskuen zuritasunak erakusten zuten jende handietarik zela. Ez zuen iduri oraino hogeitaz urte bazituela. Ikustean zer atentzionerekin behatzen zuen hiriko alderat ezagun zen izate maite baten esperantzan zegoela. Baina hau ez zen heldu.

–Ez da jinen? -murmuratu zuen.

Memento honetan hitz horiek entzunak izan balira bezala, boz batek ihardetsi zion:

–Ez ezazula gal esperantza, Eusebia maitea; jaun Salvador jinen da, egun abisatu digu bisita, erran gabe zer tenoretan, eta oraino goiz da. Ikusiko duzu.

Mintzatu zen presuna emazte ingeles bat zen, adinekoa baina koketa, ez baitzuen bere buruaren gaztearaztea baizik xerkatzen. Arras emazte ona zen eta juntatu zen Eusebiari bazekielakotz zein inket zen, puska bat kontsolarazteko, eta honek ihardetsi zion:

–Ai! nahi dut sinetsi ikusiko dugula, madama Reed maitea, baina ez dut inket izateko arrazoinik. Ez da egon jin gabe hirur astez.

–Badakizu zenbat afera duen Londresen.

Eusebiak burua higitu zuen eta berriz behatze bat egin eta, itzuli zen tristeki etxeko alderat.

Madama Reedek segitu zuen eta sartu ziren biak jateko sala ttipi eta ontsa mublatur batean, zeinaren mahaiaren gainean fille batek pausatu baitzituen taza huts batzu te-ontzi batekin eta ogi txigor xerra burraz inguratu batzuekin.

Memento berean gizon adineko lodi bat jautsi zen salara. Hura zen jaun Reed, jauregiko nagusia. Gizon begitarte oneko bat zen, emaztearen adin berekoa eta ezta.

—Anderea -dio Eusebiari behatzen zuela-, egun besta handia da; esperantza duzu jaun Salbador?

Hitz horiek erratean hartu zuen taza handi bat te.

Eusebiak ez zuen ihardetsi. Madama Reedek erran zion bere esposari:

—Andereak beldur du honen kusiak faltatuko duela bere hitzari.

—A! Haatik tronpatzen da -dio jaun Reedek bere tea edatean, leihoari hurbiltzen delarik-, ezen jadanik hemen da.

Eusebia jaiki zen loriatua. Joanen zen Salbadorren bidera, baina hau sartu zen denbora berean, eta bi kusiak elkarren besoetara joan ziren. Eusebiak jadanik bere pena guziak ahantziak zituen. Ai! Separatzeko orena tristeza baldin bada, zein ezti den elkarretara juntatzen gaituena ordainez!

Eusebiak, urosa, inguratzen zuen Salbador bere behatze ezkiez. Reedeneko esposek nahi ukan zituzten utzi bakarrik goza zezaten beren urostasunaz, erre-tiratu ziren. Baina atera gabe, jaun Reedek erran zion Salbadorri:

—Sakrifikatuko diguzu egun hau, ez dea hala? Gurekin janen duzu.

—A! Ontsa nahi nuke, baina oren baten buruko joan behar dut.

Jaun Reed harritu zen.

—Zer? Berriz utziko gaituzu? -dio Eusebiak.

—Oro esplikatuko dizkizuet -ihardetsi zuen Salbadorrek.

Jaun Reed gurtu zen eta segitu zuen bere emaztea.

Bi urte pasatu ziren jadanik, Salbadorrek Eusebia Chamondrineko jauregitik urruntaraziz geroz, utzirik etxe hain maite hura erretzen ari zela eta marka hila. Utzirik espantagarriko gau hura bere gibelean, Salbador, Eusebiarekin, joan zen Valencera. Han Chamondrineko familiako adiskide batek ezarri zituen zenbait paper haien eskuetan, zeinekin heldu ahal baitziren Ingalaterrara.

Londreserat, bertze hiri anitzetarat bezala, desertoreak joaten ziren. Baina Salbadorrek Ingalaterrako kapitala hautatu bazuen, Eusebiaren segurtatzeko egin zuen, ezen bazekien honen fortunatik parte handi bat pausatua zela hiri horretako bankier baten etxean, eta, gehiago dena, handik aiseago izanen zitzaiola kasu egitea Luisianan Mirandolen ondoko bakarrak zituen ondasun handier.

Bidaia peligras horren burura heldu eta Salbadorrek hunkitu ahal izan zituen Eusebiaren ondasunetarik zenbait eta hau salbatu ahal izan zuen behar-or-du guzietarik.

(XXVII)

Hilabete bat pasatu zen, egun guziet zerbait berriagoko bazelarik, halako gisaz non gure desertoreek ez baitzuten ukan denborarik bere bihotzer galdegiteko zer estatutan ziren. Baina denbora puska bat kalmatu zenean eta gau espantagarri hura puska bat haien bihotz hunkituetarik itzali zenean, etorri zitzairen deskantsu handi bat. Bat eta bestea aurkitzen ziren gau ikaragarri hark kreatu zien situazioneari bisean bis, eta bakotzak kontsideratzen zuen bere maneran.

Eusebia ez zen gauza batez baizik oroitzen: maite zuela Salbador, eta honek hitzeman ziola bere aitari harekin ezkonduko zela; eta kontsideratzen zen ja haren esosa balitz bezala.

Salbadorrek bere baitan madarikatzen zuen promes hura, pentsatzen zuen ere Doloresen baitan, bazekien komentuak eta elizak oro erreak eta destruituak zirela, eta, hil ez baldin bazen, orduan libro zela. Iduritzen zitzaion, gisa guziz, bizi zela.

–Piarres harekin gelditu da haren laguntzeko eta egun batez ikusiko dut.

Pentsamendu horrek alegeratzen zion bihotza. Nahi zituen guziak eginik ere esperantza baten hilarazteko, hau ez da sekula ahanzten ontsa maitatu duen bihotz batean, bakarrik herioak dezake eta esperantza du mundu honetan ez bada bertzean ikusiko duela maite duena.

Pentsamendu horrekin azkartua, Salbador ez zen atrebitzen Eusebiari erratera. Maite zuen arreba bat bezala, eta aitaren aitzinean egin zion promesa beti haren begien aitzinean zegoen urriki bat bezala.

Londresera joan eta zenbait egunen buruan izan zuen esplikazione bat Eusebiarekin. Erran zion aitaren dolua pasatu eta ezkonduko zirela. Oroitarazi zuen haren zorigaitzezko heriotzeaz eta ez zekiela oraino Dolores eta Piarres bizi zirenez, konpreniarazteko haren bihotza zein guti preparatua zen oraino espos arropa baten jaunzteko.

Eusebiak hitzeman zion esperatuko zuela.

Salbadorrek pentsatu zuen hobe zuela bere ganik Eusebia urruntzea eta erran zion ez zitezkeela bizi teilatu beraren azpian ezkondu artio, ezagutzen zuela Londreseko inguruetan familia bat arras ona eta arras kontent izanen zirela pensionist gazte bat berekin izateaz.

Eusebiak kontsentitu zuen.

Gisa horretan aurkitu dugu Reedeneko familian.

Jaun Reedek ez zuen sekula haurrik izan, negozioan bizi izan zen. Erretiratu zen kanpañarat bere eta emaztearen zahartasunari deskantsuaren emateko.

Gogotik hartu zuten Eusebia, eta hau han mainatua eta ontsa soinatua izan zen.

Salbador Londresen bizi zen baina joaten zen aste guzietz arratsalde baten pasatzera Eusebiarekin, zeina presentatu baitzuen kusina bat bezala. Hau jiten zenean Reedeneko jaun-andereek egiten zuten beti atsalde-askari on bat, eta ahal zituzten guziak.

Zein fite pasatzen ziren oren haiek Eusebiarentzat! Sekula ez ziren geroaz mintzatzen, Salbadorrek beti urruntzen zuen konbersazione hura. Baina mintzatzen ziren pasatuaz, Doloresez, zeinaren suertea oraino misteriosa baitzen. Ez ziren atrebitzen esperantzaz bizitzera, baina bai oroitzapenez.

Salbador Londresen lanean ari zen, beti esperantza zuen lanaren medioz ahantziko zituela bere penak eta hura guti ikusiz Eusebiak ahantziko zuela baina tronpatu zen.

Eusebiaren bihotza beti berdín zen, beti esperantza zuen, hirur urte pasatu ziren deusetan situazionea kanbiatu gabe, sufritzen zuen anitz, baina egiten zituen ahal zituen guziak bere penaren gordetzeko Reedeneko jaun-andereer, zeinak bizi baitziren beti hura mainatuz ezen maite zuten alaba bat bezala.

Bizkitartean geroago eta arraroago zihoazen Salbadorren bisitak, nahi ukan balu bezala hura ez ikusiz bere amodioa ahantzarazi andere Mirandoli.

Pena inutila! Eman zuen bere bihotza eta betiko, ez zuen ezagutzen Salbadorrek ez zuela maite eta haren hoztasuna akusatzen zuen Frantzia denbora hartan biktima zen nahaskerier.

Gure leitzaleek pentsatuko dute aise orai zertako goiz hartan halako inpa-zientziarekin zegoen Chamondrineko markes gaztearen beha. Hirur aste pasatu ziren hura jin gabe eta aldi honetan deus ez zioten egin haren tristeziaren kontra Reedeneko jaun-andereek.

Azkenean Salbador haren begien aitzinera jin zen eta pentsatu gabe gehiago, pasatuaz alegera, haren besoetarat joan zen erakutsiz zein uros zen haren aldean arratsalde baten pasatzeaz, jakin zuelarik oren baten buruko joan behar zuela.

(XXVIII)

—Esplikatu didazu determinazione hori? -erran zion bakarrik gelditu zirenean.

Haren boza ikaretan zegoen, haren begiak negarrez bustiak zeuden.

—Eusebia, uzten zaitut egitekoak manatzen nauen lekura joateko -ihardetsi zion Salbadorrek.

–Egitekoak? Zer egitekoak?

–Erregina hetsia da oraino Templeko dorrean. Diote jujatu behar dutela, jakin behar dut zer gaztigu emanen dioten eta ahal baldin badut kendu bere partiden eskuetarik.

–Bakarrik! -dio Eusebiak pentsatuz zer arriskutan zen.

–Sei gara abiatuak hil edo bizi, salbatuko gara edo hilen. Baina egin ahalak oro eginen ditugu salbatzeko.

–Baina zer eginen duzue hain gutik?

–Jainkoa gurekin izanen dugu -ihardetsi zion Salbadorrek- eta bertze adiskiderik ere harrapatuko dugu.

Hitz horiek erakutsi zioten Eusebiari haren ideia ezin kanbiatua zela eta ez zen bere sentimenduaren nagusi izan, jarri zen fofil batean eta bere eskuez bisaia gordetzen zuela negar egin zuen kiraski.

–Trankiliza zaitetz, adiskide maitea -erran zion Salbadorrek, desesperazione hori ikusiz.

Denbora berean belaunikatu zen haren aitzinean.

–Abandonatzen nauzu pentsatu gabe zer izanen den nitaz zu ene aldean ez zarenean eni kasu egiteko, eta hiltzen bazina hil bainaitzke aldi berean.

Salbadorrek eskuak zerratu zizkion eta erran zion boz ezti batekin:

–Lehenik hitzematzen dizut biziko naizela eta gero elkarretaratuko garela. Eta konprenituko duzu desohora nintzekeela gibelatzen banintz hartu dudan tarearen aitzinean. Maita ziniro bere egitekoen aitzinean gibelatzen den gizon bat? Erregina ene laguntzailea izan da. Ez dut orain tentatu behar bere etsaien eskuetarik kentzera?

–Baina hiltzen bazara?

Oihu horrek ezagutarazten zion Eusebiaren amodio guzia.

–Ez, ez naiz hilen -erran zion ikusiz haren tristezia-. Eta itzultzen naizenean nehork ez nau gibelatuko egin dizudan promesaren konplizetik.

Sekula ez zen hola mintzatu eta hitz horiek kontsolatu zuten Eusebia.

–Nik ez zaitut hemen atxikaraziko, zoaz bakean, suerte izan ezazu, otoitz eginen dut zuretzat.

Memento bat mintzatu ziren Eusebiaren ondasunez eta Salbadorrek erran zion hura Parisen izanen zen denboran ondasun haiei kasu emanen ziela jaun Reedek.

–Jaun Reed arras gizon ohoratua da.

Eta deitarazirik erran zion lehen aldikotz andere Mirandol egun batez haren esposa izanen zela.

Despeditzean hitzeman zion berriak igorriko zituela. Baina Eusebia sei as-

tez bizi zen beldurrez betea eta gaiztoena gogoan.

Orduan jakin zuen erregina hil zutela eta haren libratzea tentatu zutenak preso hartuak zirela.

–Ai! -dio Eusebiak-, Salbador presoner da.

Istant bat isilik egon zen eta gero erran zuen boz fier batekin:

–Joan behar dut.

–Joan? Norat?

–Salbadorren gana.

–Baina herioaren bila joatea da.

Eusebiak negarretan eta desesperatua ihardetsi zuen:

–Nahi dut joan!

Madama Reedek hartu zuen bere besoetan eta negarrak xukatzen zizkiola erran zion:

–Andere maitea, Salbadorrek gomendatu digu zuri kasu ematea, ez zaitugu uzten ahal. Nork erraten dizu zure kusia ez dela eskapatu? Gaztea da, azkarra eta abila. Nork daki memento honetan ez den bidean zure ganat itzultzeko?

Eusebiak sino batez erakutsi zion ez zuela esperantzarik, bizkitartean erran zuen obedituko zuela.

Madama Reedek lagundu zuen bere ganberara, etzanarazi zuen eta ez zuen utzi lokartu zen artio.

Lehen lo hau laburra izan zen. Bi orenak jo gabe, Eusebia iratzartu zen harritua, ikusi zuen ametsetan Salbador eskuak giblean katez estekatuak, ilea pikatua eta kondenatuaren abilamendu hits batekin. Oihu egiten zuen Eusebiari miserikordiazko boz batekin:

–O! joanen naiz, joanen naiz salbarazteko edo harekin hiltzeko.

(XXIX)

Horiek izan ziren haren hitzak.

Jaiki zen, beztitu, hartu zuen tiradera batean begiratua zeukan dirua eta zenbait urreria eta goiz alderat utzi zuen hirur urte bizi izan zen etxe hura.

Zenbait orenen buruan Madama Reed haren ganberara joan zenean ez zuen harrapatu letra bat baizik zeinetan erraten baitzion bazihoala bere kusiaren gana, erremersiatuz harentzat izan zituzten soinu guziak hirur urte haietan.

Jaun Reed joan zen berehala hirirat baina orduko Eusebia itzaldua zen.

VII PARTEA. ERRIDAU BAT HIGITZEN DA



Chamondrineko jauregiko ke beltzer beha Piarresen bihotza negar anitz eginik deskantsatu zenean, joan zen berriz bere alaba bezainbat maite zuen haren komentura eta jakinik bidean komentu hari ere su eman beharra zutela, deliberatu zuen ihes joatea Doloresekin. Honen desesperazionea handia zen, etxe maite hura ez zuen sekula ikusiko, eta markesari bere sakrifizioa egiteko egunean azken adioa egin zion. Salbador eta Eusebia hil ote ziren haiek ere? Maite zituen guziak galdu bazituen, zerentzat biziko zen?

Piarres ere maite zuen, honek bizia salbatu zion eta hitzematen zion sekula ez zuela deusen faltarik izanen. Obedituko zion, ahal bazuten sartuko ziren Parisen, ahal zituzten guziak eginen zituzten Salbador eta Eusebia, bizi baldin baziren, aurkitzeko, eta Jainkoaren laguntzarekin bizi ahalko ziren.

Horiek ziren Doloresen eta Piarresen ideiak eta nahikariak. Hiri batean zenbait egun pasatuz, bertze batean zenbait hilabete, bi urteren buruan heldu ziren Parisera, hil ala bizi ziren ez zekiten haien berririk deus jakin gabe.

Han Piarresek lehen ezagutu jaun zahar batek eman zien aterbe, hitzemanenez lana emanen ziola bere komertzioko etxean Piarresi, eta haren alaba ontsa izanen zela.

Piarresek gogotik azeptatu zuen pentsatu gabe gizon hura nobleziaren eta erlisionearen etsairik handienetarik zela, eta haren komertzioan sozio sartu zen.

Urte bat pasatu zen gure adiskideek deus jakin gabe bilatzen zituzten haie-taz.

Piarres, Vauquelasekin egiten zuen komertzioaren gatik egun guzietz ateratzen zen, joaten zen sozietate handietarat, palazioetarat, eta mintzatzen zen denbora triste hartako gizonik poderosenekin.

Doloresek ez zuen sekula uzten etxea. Ateratzen baldin bazen, mezarat joateko egiten zen. Bizi zen kalma trankil batean, nehor ikusi gabe. Bere adineko adiskiderik gabe, berak maite zituen guziak galduak, haren gatzetasuna bazihoan lore eguzkia ezin ikusizko bat bezala. Hirur urtez ikusi zuen hainbertze pena eta itzali zen haren begien aitzinetik hainbertze gauza non ez baitzuen dohatsutasunik mundu honetan esperantza.

Disgustatzen zen biziak, melankolia handi batez beteak zen. Neskato gazteen begitarte argi eta alegera galdua zuen eta haren ametsak oroitzapen tristeak beteak ziren.

Maitatuz geroz galdu zituen guziak ikusten zituen laino ilun baten artean bezala: markes Estebe, zeinaren amodioak isuri baitzuen hainbertze alegria haren bihotzera haurra zelarik!; Marie-Anna markesa, zeinari eman baitzion amaren izena; Salbador eta Eusebia, anaia-arrebak deitzen zituen haiek. Oro pasatzen ziren haren begien aitzinean desesperatuak. Ez zezaken goza komentuko bizi erretiratu hura ere, non bere sakrifizioak ahantzarazten baitzion bere pena handia.

(XXX)

Bere inguruetarat behatuz, ez zuen kausitzen nehor konfiantza ematen ahal zuenik eta bere penen arintzen laguntzen ahal zuenik.

Vauquelas eta Piarres ez ziren Doloresek behar zituen lagunak. Piarresek Doloresen aldean pasatzen zituen istant laburretan Doloresek ikusten zuen beti bere negozioarekin kalkulan ari zela.

Vauquelasek behatzen zion Doloresi errespeturekin, ez zen aise pentsatzea zer gisetakoa zen gizon haren bihotza, eta Doloresek ez zuen haren ganik kontsolazionerik esperantza.

Goizetan lanean aritzen zen Dolores, egiten zituen Piarresek ematen zizkion kontuak, bakarrik bazkaltzen zen eta arratsetan jiten ziren haren aldera bizi triste hartako haren lagunak.

Urriko gau batez bakarrik gelditu zen bere ganberan, zeinak baitzuen berinazko borta bat baratzeiko alderat eta haren aitzinean erridau haundi bat.

Bederatzi orenak ziren, Vauquelas eta Piarres oraino sartzekoak ziren, sehiak oherat joanak. Doloresek uste zuen bakarrik zela. Supazterrean jarria, brodatzen ari zen. Baina ikusten zuenak aise pentsatzen zuen haren pentsamendua handik urrun zela, lan hura eskuetan izanik ere.

Lehenagoko denboretan zen haren izpiritua eta bere buruari galdegiten zuen munduko zein partetan bilatu behar zituen Salbador eta Eusebia.

–Zer ari ote dira? -zioen Doloresek-. Nitaz oroitzen ote dira? Uros ote dira?

Memento hartan haize handi bat jaiki zen. Azkenean borta hesten duten bezalako soinu bat jin zen haren beharrietaraino eta izutu zen.

–Ahantzi dute borta haren hestea -pentsatu zuen Doloresek.

Eta zenbait hitz erraten zituela joan zen sehiak ahantzi zutenaren egitera.

Zenbait urrats egin orduko baratu zen izutua, iduritu zitzaion norbait bazela erridauaren gibelean.

–Zeruak! Zer da hau?

Haren imajinazionean pasatu zen lehen ideia izan zen ohoin bat ote zen, bakarrik zela ikusirik jina.

Emazte baten izpiritua fite inketatzen da; gaua, bakartasuna, oro jiten ziren Doloresen izialduraren handitzera. Ikaretan zegoen eta eskuak hedatu zituen erori gabe jartzeko kadera baten bilatzeko.

–Erotua naiz -dio berriz-. Nor jinen da horra haizeaz bertzerik? Goazen bortaren hestera.

Eta jaikirik berriz abiatu zen eta orduan ikusi zuen gizon baten itzala erridauaren gibelean.

–O! Zer izugarrikeria -dio bihotzera eskua altxatzen duelarik.

Eta boz apal batekin dio:

–Nor da hor?

Arraposturik batere. Orduan altxatu zuen erridaua. Gizon bat zutik zegoen borta zerratuari kontra.

Begiak ez zituen altxatzen eta ez zitekeen ikus haren bisaia itzalean.

–Nor zara? -dio Doloresek.

Hitz horiek ez zituen akabatu noiz eta ere gizona haren galdeari arraposturik egin gabe aitzinatzen baita dioelarik:

–Dolores! Dolores!

–Salbador!

Eta joan zen bere adiskidearen besoetara, zeinaren ganik separatua baitzen lau urte hartan, eta zeinari ez baitzen gehiago atrebitzen ahal anaia deitzerat.

(XXXI)

Horrela egon ziren zenbait minutu elerik egin gabe bere emozioetan.

Salbador zen, baina Salbador zahartua, mehetua, pena egingarriko kolore hits batzuekin. Elkarri beha egon ziren bulta bat, eta Dolores, ikusirik denborak eta penak haren anaiaren kopetan egin zituen markak, negarrez hasi zen.

–O! Dolores enea! hi haiz hainbertze xerkatu eta ondoan harrapatzen dudana!

Gaixo haurra! Negar eta irri egiten zuen alegriarekin, Salbadorrek irensten zuelarik bere behatze eztiak munduan maite zuen bakarra. Azkenean Doloresek Salbador eskutik hartu zuen eta fofil batean jarrarazi erraten ziola:

–Kanbiatua harrapatzen nauk?

–Lehen baino ederrago oraino.

Gorritu zen, burua itzuli zuen eta erran zion:

–Nola jin haiz hona?

–Jin naun Parisera lagun batzuekin erreginaren librarazteko. Heriotze tristetia! Erregina gillotinatu dute. Ene lagunak preso dira. Bakarra naiz eskapatu naizena.

–Ai! Beraz segitua haiz?

–Zortzi egunez egon naun gordea gizon ohoratu baten etxean, zeina ene mi-seriak hunkitu baitzuen. Uste nuen haren etxean egoten ahal nintzela Parisetik ateratzen ahal nintzen artio. Baina jin zait erratera konprometitua zela Errepublikaren kontrario baten bere etxean atxikitzeaz, eta ez baldin banuen nahi hil zezaten, hobe nuela ihes joatea. Geroztik Pariseko karriketean nabil, zakur bat bezala gosea gauaz eta egunaz, ezin atrebituz lehorraren galdegitera salatua izan beldurrez. Gaur gosearekin eta hotzarekin desesperatua, banindoan ene buruaren salatzer, hilen nindutela eta orduan oro fini izanen zirela pentsatuz, noiz eta ere hemendik bi urratsetan harrapatu baitut Phenthievreko dukearen zerbitzari bat, zeinari hainbertze ongi egin bainion. Ustez ez zituela ahantzi, hurbildu natzaio. Miserableak arrastatu nahi izan nau. Indarrak berriz jin zaizkit ikusiz zein gaizki, injustoki estekatu nahi ninduen, lurrerat bota dut eta oihuka ari zela eskapatu naiz etxe honen ondorat. Pareta bat ene aitzinean presentatu da eta jauzian pasatu dut, sartu naiz baratze honetan, leiho honetarik argia ikusi dut. Borta bat irekia zen. Sartu naiz eta Jainko maiteak hire gana heldu nain. A! hiltzen ahal naun orain, Dolores, ikusi haut eta hilen naun kontent.

–Baina, zerentzat mintzo haiz hiltzeaz? Hemen haizenez geroz, salbatua haiz eta hemen egonen haiz.

Baina bat-batean oroitzuz etxe hura ez zela harena, murmuratu zituen zenbait hitz.

Salbador ohartu zen eta erran zion:

–Hire etxean naun?

–Ez, Juan Vauquelasen etxean haiz.

–Vauquelas! Malurusa!

–Zerendako?

–Ez baldin badira segurik bi presuna izen horretakoak, etxe honen nagusia errepublikanoen buruzagia da.

Doloresek estali zuen bisaia eskuez zioela:

–Zer egin?

–Piarres ez da hemen?

–Ez, biziki berant jiten da.

–Gordeko baininduen menturaz bihar artio.

–Haren ganberan gordeko haut -dio Doloresek-. Nehor ez duk harat joanen. Haren beha egonen nauk eta erranen zioat.

Salbadorrek aprobatu zuen plan hura.

–Baina erran hidaan gosea hintzela. A! Jainko maitea, sehiak etzanak dituk.

Urrundu zen, Salbador suaren aitzinean jarria berotzen ari zela utzirik. Instant baten buruan itzuli zen Dolores, ekartzen zuela ogi, arno eta haragi. Pasatu zituen oro mahai tipi baten gainean eta mahaia ezarri Salbadorren aitzinean. Deus erran gabe hau hasi zen jaten eta edaten, aspaldian jatekoa den gizon baten apetituarekin.

Doloresek, haren aitzinean zutik, behatzen zion; haren begiak negarrez be-teak ziren.

Berotzearekin eta janik, Salbadorren indarrak itzuli ziren, odola iragan zen haren bisaiara, eta esperantzazko irri bat haren ezpainetara. Orduan Dolores atrebitu zen ordu arte haren ezpainetan zegoen izen baten aipatzera.

–Ez haiz Eusebiaz mintzatu.

(XXXII)

Izen horrek oroitarazi zuen Salbador Doloresek ez zekizkien promes sakratu batzuez, zeinak iduritu baitzitzaion egundaino bezala sekula ez zituela konplitzen ahalko.

–Eusebia? -dio Salbadorrek-. Bai, bizi da Londreseko inguruetan, han adiskide batzuer konfiatua dut.

–Hire emaztea duk? -galdegin zion behatzerat atrebitzen ez zela.

–Ez.

–Bizkitartean, hire aitaren nahia...?

–Isil hadi, otoi, otoi -dio Salbadorrek.

–Ez baldin bahindut harrapatu, ez banintz segur izan bizi hintzela, badaiteken Eusebiarekin ezkonduko nintzen. Baina orain, orain...ez daiteke jadanik ene emaztea izan.

–Ez hau maite?

Salbadorrek burua apaldu zuen eta instant baten buruan ihardetsi:

–Zerendako gordeko dinat gehiago? Nik hi maite haut, Dolores enea, maite ene bihotzean zen amodioa erakutsi ninan lehen istantean bezala. Geroztik hainbertze malurren aitzinean ez naun hire maitatzetik barat. Eta ene amodioa

ez da Jainkoaz madarikatua, egun elkarretarat juntatzen gaituenez geroz. O! Dolores enea! juramentu egiten dinat, nehork ez gaitin separatuko orain.

Doloresek indarrrik ez zuen lenguaia horri ihardesteko, ezen ikusten zuen egiazki lau urtek ez zutela hil bihotz fidel hartan zen amodio garbia.

Salbadorrek segitu zuen:

–A! baheki zein maluros izan naizen hire aldetik urrun! A!, Dolores maitea, bahekien elkarrekin hazi ginen jauregi hura utzi huenean Jainkoaren aitzinean sakrifizio baten egitera joateko, ene izate guzia eramaten huela?

–Aski! -murmuratu zuen Doloresek jartzen zelarik fotil batean, baina entzun gabe.

–Geroztik -segitu zuen Salbadorrek- malurus bizi izan naun alferretan bortxatuz ene bihotza sinetsaraztera hik ez huela nahi ukan hire amodioaren eta edertasunaren oroitzapena, obligaraziz Eusebiari kasu emaitera, hik manatu naunalakotz. Ikusten dun, sakrifizio hori imposible dun. Ez nezakeen, ez deza-kenat. Eusebia maite dinat arreba bat bezala, baina hi...

Dolores jaiki zen eta boz firme batekin ihardetsi zion:

–Salbador, ez haut gehiago entzun behar. Jainkoarena nauk eta hi ez haiz libro, Eusebia...

–Obligatu nahi naun aborreitzera?

Desafio horrek harritu zuen Dolores eta bete arima pietate eztiz haren zangoan belauniko desesperatua otoizten ari zitzaion malurus harentzat, eta zeina hainbertze maite baitzuen.

–Beraz ez hadila ezkont, hire aitaren nahia ez baldin baduk hirea. Baina ez ezakala esperantza izan aski ezdeus izanen naizela hire otoitzer kasu egiteko egun batez. Maita dezaan ala aborrezea, eternitate guzian Eusebia gure artean izanen duk.

Deklarazione horretan desesperatu zen arras Salbador, eta, jaikirik, joan zen jartzera, burua eskuen artean, marrumetan zegoela.

Doloresek ikusten zuen haren indarrak ttipitzen ari zirela eta nahi zuen fini zedin haien konbersazionea. Orena aitzinatzen ari zen. Etxeko nagusia fite jin beharra zen.

–Ez haute hemen harrapatu behar. Piarresen ganberarat eramanez haut. Han segur izanen haiz.

(XXXIII)

Baina Salbadorrek ez zuen entzuten, haur bat bezala negarrez zegoen eta bere dolorearen artean murmuratzen zuen:

–A! Gizon batek egiten ahal duena baino gehiago galdetzea da. Jainkoak ez du hanbertze galdegiten gure arrazari, eta bizi behar badugu eternitate guzian separatuak, zerendako elkarretaratu gau honetan? Dolores, kanbiatuko haiz.

Hitz ezti horiek bihotza hausten zioten Doloresi. Bizkitartean kuraia bildu zuen eta boz ezti batekin erran zion:

–Haugi, Salbador.

–Bainan hitzemandan...

–Bueno, bihar -ihardetsi zion kalmarazteko.

Salbador jaiki zen segitzeko. Dolores, gandelarra harturik, haren aitzinean abiatu zen entzun zituztenean norbaiten urratsak kanpoko aldean.

–Zeruak! Vauquelas! Galduak gara!

Keinu batez isil zedin erran zion Salbadorri, uste baitzuen pasatuko zela atea jo gabe. Haren esperantza inutil izan zen, Vauquelasek jo zuen bi aldiz bortan.

–Sar naiteke, andere Dolores?

–Ez -ihardetsi zuen-, etzana naiz.

–Beraz jaiki zaitetz berehala eta xauri bortaren idekitzera. Ikusi dute duela oren bat gizon bat karrikatik baratzerat jauzi egiten. Etxearen inguruan izan behar da, segitzen dute, jendarmeak bila dabilta.

–Jaikitzen naiz -dio Doloresek-, nahi baitzuen denbora irabazi Salbadorren ihes igortzeko.

–Gaua iluna da -dio honek-. Banoa baratzera, han gordeko naiz eta egonen jendarmeak joan artio.

Doloresek aprobatu zuen keinu batez, joan zen zango puntuen gainean bortaraino, ideki zuen emeki eta gibelatu zen bere adiskidearen pasatzerat uzteko. Eta bat-batean ikaretan jarri zen.

Ganberako argiarekin batean baratzearen zolan ikusi zituen bost guardia nazional bortari hurbiltzen ari zirenak eta beren armak apuntatuak.

Salbador abiatu zen kanporat eskapatu nahiz. Guardiiek apuntatu zuten.

–Ez ezazu tira -dio-, zuen eskuetan naiz.

Memento hartan Vauquelas sartu zen bertze bortatik, Doloresek behatze luze bat egin zion bere adiskideari eta haren ganat hurbildu zen. Isiltasun luze bat izan zen.

Azkenean galdetu zioten Salbadorri:

- Zer egiten duk etxe honetan? Nor haiz?
 Salbadorrek ihardetsi nahi zuen, Vauquelasek erran zuenean:
 –Nor den! Gauza erraza pentsatzeko: errepublikaren partidetarik bat, ene etxean sartu dena, andere horren ohorearen konprometitzeko arriskuan.
 Hitz horiek entzutean, Dolores ikaretan jarri zen eta erran zuen:
 –Tronpatzen zara, jaun Vauquelas, gizon hori ene senarra da.
 –Zure senarra! Ezkondua zara?
 –Gauza partikularren gatik oroer egia gordetzen nuen.
 –Baina Piarres...
 –Hark ere ez daki -dio Doloresek, begiak apalduz.
 –Ezkondua! -erraten zuen Vauquelasek-. Zerendako gorde didazu ezkondua zinela?
 –Gure arteko gauzen gatik.
 –Eta zerendako zure senarra sartzan da ene etxean ohoin bat bezala, bortatik sar orde?
 –Nahi baiginuen gure ezkontza sekretuan atxiki.
 Soldadoen nagusiak dio:
 –Horiek oro ez dira klar. Nola deitzen haiz? Eta nondik heldu haiz?
 Salbadorrek zerbait murmuratu zuen, xefak segitu zuen:
 –Jaun hau eta andere hau gurekin jinen dira sekzionarioko salara. Han esplikatuko dira, eta ez badute faltarik libre izanen dira.
 –Hori da, hori da, eraman itzazue -dio Vauquelasek, kontent, urrunduko zirelakoan etxea desohorutzen zioten soldado haiek.

(XXXIV)

Orduan Doloresek konprenitu zuen Salbadorren salbatzeko erran zuen gezurak ez zuela galtzen baizik. Harentzat baizik ez zuen sentitzen, bazuen anitz denbora bere biziaren sakrifizioa egina zuela, baina Salbadorrek ez zuen nahi sakrifizio hura, eta, ikusi zuenean estekatzen zutela, oihu egin zuen:

–Neskato hunek gezurra erran du arrotz baten salbatzeko. Ez naiz horren senarra eta horren ondoan kausitu baldin banaute, estekatu nahi ninduen gizon baten ganik eskapatzeko murrerik honetarik jauzian barnerat jin naizelakotz harapatu naute. Chamondrineko markesa deitzen naiz, konspiratzaile eta desertore bat naiz.

–Ai! Malurosa!, bera galtzen da.

Entzutean Salbadorren deklarazioa, jauzi zen Vauquelas, zioela:

–Deitzen haiz Salbador Chamondrin?

–Hori da ene izena -ihardetsi zuen.

–Beraz orduan andere honen anaiaordea haiz. Bai, konspiratzaile bat haiz eta hau hire konplizea. A, kanaillak!, ene etxeaz egiten duzue errepublikaren kontrarioen kafira bat!

Haserreak gorritu zuen gizon zahar haren begitartea, handitzen zituelarik haren begiak.

–Arrasta itzazue -dio errabian.

Salbador, uste izan zuena bere deklarazionearekin salbatzea hain maite zuen hura, ikaretan jarri zen, ez bere suerteaz baina bai Doloresenaz.

–Dударик gabe nik behar nituen ene teiltuaren azpian atxiki zuek bezalako noble batzuk, baina patriota naiz, maite dut errepublika, Frantzia guzien gainetik! Soldaduak! Gizon hau peligrosa da. Hau errepublikaren kontra konspiratu duena da erreginaren salbatzeko eta haren seme Kapetoren tronurat iraganarazteko, eta bertze hau horren konplize da. Eraman itzazue, hil daitezten nazioearen kontrarioak.

Arrastatu zituzten biak, hamaikak joak ziren orduko.

VIII. PARTEA. PRESONDEGIA



(XXXV)

Vauquelasen etxean arrastatuak, Salbador eta Dolores eramank izan ziren poliziako salara. Sala hartan zeuden hirur presuna oraino jujatzekoak. Presondegiko nagusiak ezarri zituen zenbait matalaz lurrean etzan nahi zuenarentzat, biharamun artio ez zituztelakotz jujatzen ahal.

Doloresek ez zuen etzan nahi izan, jarri zen Salbadorrek harrapatu zuen fotil hautsi batean eta deklaratu zuen hola pasatuko zuela gaua.

Salbador haren zangoetan jarri zen alki baten gainean eta gisa horretan egon ziren goizalde artio. Han ziren bertze hirur presunentzat gau hura gaiztoa baldin bazen, haientzat amets ezti bat bezala pasatu zen.

Ez zezaketen ilusionerik egin esperantza zuten suerteaz. Salbadorrek konspiratu zuen erreginaren faboretan, Dolores haren konplize egin zen errezibituz bere ganberan; krimen horrek ez zuen induljentziarik izaten ahal. Interrogatuak izanen ziren eta gillotinatzerat kondenatuak. Ez zuten hiltzerat preparatzea baizik pentsatu behar. Biak preparatu ziren sententzia jina izan balitz bezala eta ez zuten gehiago pentsatu munduan gelditzen zitzaizkien orenen trankil eta ezti egitea baizik.

–Zerendako herioaren beldur izan behar naiz? -erraten zuen Doloresek Salbadorri-, herioaren beldur izan behar da uzten direnean izate maiteak lurrean. Baina, hi ez bahaiz bizi, nor geldituko da ene tonbaren gainean negar egiteko? Eusebiak uste du aspaldi hila naizela. Joaten ahal naiz mundu honetarik bihozminik nehorri eman gabe eta joaten ahal naiz deskantsu eternalaren bila, zeina hainbertze desiratu baitut.

–Jadanik pentsatua huen?

–Emeki-emeki ikusi ditut joaten ene ingurutik maite ditudan guziak; ene bistak presentziatu du hainbertze malur eta heriotza; sufritu dut hainbertze kirastasan otoiztu baitut Jainkoa anitz aldiz bere ganat deit nazan.

–Bizkitartean, Dolores, entzun nahi izan banindunan, ene esposa nahi bahintz izan, zein diferentea izanen zen gure suertea!

–Ez nintekeen hire emaztea izan.

–Zerendako? Zerendako ez nindunan maite, zerendako ez naun maite orain ere?

Doloresek ez zuen ihardetsi, Salbadorrek segitu zuen:

–Ene nahier sensible izatea otoiztu haudan aldi guziez ez didan ihardetsi ene aitaren borondatea zela baizik, hartakotz nahi nindunan Eusebiarekin ezkondua ikusi. Orain ene aitaren borondatea ez dun bizi eta erraten ahal banu Eusebiari hi bakarrik maite haudala, gogotik egin lezaken desira horren konplimendua. Baina horiek guziak destruituak dira aurkitzen garen situazioe berrian. Libre gara gure beha dagoen herioaren aitzinean. Ez didan erranen egia guzia? Ez didan irekiko hire bihotza nik enea ireki dinadan bezala?

Doloresek entzun zituen hitz horiek Salbadorri beha zegoela, bihotza ttipitzen ari zitzaiola, harrিতua hitz horietaz: “Libro gara gure beha dagoen herioaren aitzinean”.

Berriz hori bera erranez, bere baitan egiten zuen ez zizola errefusatzen ahal bere adiskideari galdegiten zuen azken alegria, berak ere anitz sufritu zuela bere bizia eta esperantzak oro sakrifkatuz, bazuela dretxoa bere ariman hainbertze denboraz gordea atxiki zuen sekretuaren eskapatzerat uzteko. Azkenean haren ezpainetarik atera ziren hitz hauek:

–Adi ezak, Salbador, nahi duanez geroz egia jakinik trankil Jainkoaren aitzinean agertu: beti maite izan haut egun maite haudan bezala, eta bizi naizeno maitatuko haudan bezala.

Hainbertze ez-titasun bazen hitz horien errateko maneran Salbador jaiki baitzen, galdua, begiak argituak ezin erranezko alegria batez, zioela:

–A! Azkenekotz atera dun hire ezpainetarik hainbertze desiratu dudana. Ez zen posible ene amodio handiak arraposturik ez izatea hire bihotzean. Erran dun hik. Hainbertze zorion ene biziag pagaturik ere ez zitzaidan kario iduritu-ko. Itzularazten ditun ene indarrak; azkar sentitzen naun, iduri baitzait mundu guzia altxatzen ahal dudala gure salbatzeko eta gure zorionaren segurtatzeko. Biziko gara, Dolores, bat bertzearenak izateko eta elkarren adoratzeko.

–Otoi -dio Doloresek-, ez ezakala bizitzea galdegin, hiltzeko segurtamenak bakarrik gisa horretan mintzarazi bainau.

(XXXVI)

–Oraino! -ihardetsi zuen Salbadorrek, tristatua-. Baina aurkitzen garen peril handian libertatea ukaten bagenu, Jainkoaren nahiaren kontra joanen haiz? Ez

dun ikusten hura gurekin dela eta elkarretarazi nahi gaituela?

–Salbador! Salbador! -murmuratu zuen Doloresek.

Ez zuen akabatu ahal izan eta pausatu zuen bere burua Salbadorren bularren gainean zeinen barnea betea baitzen amodiorik garbienaz harentzat.

Goizeko bederatzi orenetan jujatuak izan ziren eta kondenatuak, bat Konserjeriako presondegira eta bertzea Madeloneteko presondegira.

–Ez gaituzte elkarrekin uzten ahal? -galdegin zuen Salbadorrek, desesperatua bere adiskidearen ganik separatzeaz.

–Gero ikusiko dugu, orain obligatua naiz separatzera –ihardetsi zuen Komunaren ordezkariak.

Salbador Doloresi hurbildu zen:

–Ez zanala kuraia gal -erran zion-, berriz elkarretaratuko gaitun.

IX. PARTEA.
EUSEBIA DE MIRANDOL



Hamabortz egun bazuen jadanik Dolores Konserjerian zela, Piarres jin zitzaizolarik erratera erdietsi zuela Salbadorren presondegi hartara ekarrarazteko grazia eta biharamun goizeko han izanen zela. Berri horrek alegeratu zuen Dolores. Hura zen izan zuen emozioerik eztienea.

Lehenago ere ikusi zuen Piarres eta erran zion eginahalak egingen zituela Salbadorren harat ekarrarazteko, bai eta ere bien librarazteko.

Doloresek ez zuen libratzeko esperantzarik, baina zioen, ikusten bazuen bertze aldi bat bere anaia eta adiskide maitea, gogotik eta arrangurarik gabe iraganen zela gillotinarenean azpian preparatua zen mahaiaren gainera.

–Badut paper bat -erran zion Piarresek-, zeinaren medioz Salbador jiten denean hemendik aterako baitzarete.

–Posible da? -dio Doloresek-, eta presondegia uzten ahal bagenu norat eramanen gaituzu, nobleak harrapatu leku guzietan arrestatzen dituztenaz gainean? Non gordeko gaituzu?

–Bilatu dut jadanik etxe bat -dio Piarresek-, Versaillesetik hurbil den oihan batean galdua; nehor ez da joanen hara zuen deskubritzera.

Piarresen lengoaiak Doloresen bihotzean gozo handi bat eman zuen. Bere adiskidearen ganik sekulako separatua uste izan eta ondoan, bere bihotza sakrifikatorik Salbadorrez maitatua eta hari juntatua izateko zorionari adio erran eta ondoan, uste zuenean oro galduak zirela, bere deskantsua, bere bizia... , oro bat-batean heldu zitzaizkion estatu triste hartarik ateratzera; haren bihotzean sartzen zen, lore bat bezala lur galdu batean, bere arimaren aspirazione ez tier urrikirik gabe abandonatzeko esperantza eta sekulako hain maite zuen harena izateko zoriona.

Eta Eusebia? pentsatuko dute gure leitzaleek. Doloresek ahantzia zuena Eusebiak bazituela dretxoak Salbadorren gainean? Ez, eta badakigu zer gisan sakrifikatu zuen bere amodioa eta bere bizia markesaren borondatearen Salbadorri konpliarazteko. Baina Salbadorrek harrapatu zuenean Vauquelasen etxean, ahantzi zituen hondar promesak, zeinek estekatzen baitzuten oraino aitzinean

baino gehiago andere Mirandoli, eta, Doloresi errateko orde, egin zuen eginahala disimulatzeko.

Erran zion ez zuela sekula amodiorik sentitu Eusebiarentzat, haren bihotzean zena hazi zela hark lehenik maitatu zuenarentzat, zeina maitatuko baitzuen beti eta bere emaztea eginen.

Kasu egiten badugu Salbadarren lengoaiari Vauquelasen etxean, pentsatuko dugu zer gozoa eman zuen Doloresen bihotzean, hura etxe hartan bizi zen manneran, bakarrik, adiskiderik gabe; kontsideratzen bada uste zutela Eusebia haien aldetik urrundua zela eta beren ustez nehoren beldurrik ez zutela, konprenituko dugu nola behatzen zuten beren ezkontzari gauza erraza bezala.

Arrats hartan Dolores, kontent biharamun goizean ikusiko zuela Salvador eta menturaz ez zela sekula gehiago haren ganik urrunduko, goizik joan zen bere ganberarat. Presondegi-zaina joan zen haren ondotik eta ezarri zuen haren ganberan burdinazko ohe bat.

(XXXVII)

Presondegi-zaina Martin deitzen zen gizon on bat zen. Doloresek haren baitan konfiantza hartu zuen eta han sartu zen egunean galdegin zion ahal bazuen eman ziezaiola ganbera bat beretzat, hartako pagatuko zuela, eta garantiazat eman zion, lepotik harturik, beti soinean zuen urrezko kurutze bat.

–Zer ari zara? –galdegin zion ikustean ohe bat han ezartzen zuela.

–Hemen ezartzen dut ohe bat, bihar igortzen dizkigutelako Vendéetik anitz presoner, haien artean izanen da anitz emazte, nonbait behar ditugu aloitu eta lekuak oro beteak dira. Egun artean egin ditut ahal ditudan guziak zuhaurek desiratu bezala uzteko, erran nahi baita bakarrik. Orain imposible zait, egun arratsaldean sartu da inspektorea zure ganberan eta eman dit ordrea ohe baten gehiago izateko. Hori ez zaizu gustatzen, egia da, baina ez beldurrik izan, oro jiten direnean hautatuko dut baño zure laguntzat, begitarreek ez naute ni tronpatzen.

Doloresen plazerik handiena bakarrik izatea zelakotz kontrariatu zuen berri horrek, baina biharamun goizean bere adiskidearen ikusteko pentsamenduak alegeratu zuen.

Biharamunean jaiki zen goizik ohetik, bat-batean ireki zuten ganbera eta Martin sartu zen emazte doluz beztitu batez konpainatua, Doloresek ez zion begitarrea ikusi ahal izan belo batek estaltzen ziolakotz eta oraino goiz zelakotz eta argia ez zelakotz sartzen oraino ganberan.

–Hona zure presondegiko laguna -dio Martinek Doloresi-, esperantza dut ene hautuaz kontent izanzen zarela, ene iduriz gisakoena hautatu dut zuretzat. Gaixoa! Zein akitua den.

Emaztea bere beloa goititu gabe bere ohearen gainean jarri zen, ezagun zen biziki akitua zela gauaren gaizki pasatzeaz eta penez.

Martin erretiratu zen. Orduan Doloresek, hurbiltzen zelarik bere lagun berriari, erran zion:

–Behar dugunez geroz elkarrekin bizi denbora puska zenbait, nahi duzu adiskide izan gaituzen?

Doloresen lehen hitza entzun orduko emaztea ikaretan jarri zen, zutitu zen, bere belo beltza gibelerat eman zuen eta behatzen ziola Doloresi erran zion:

–Nahi dudanez izan zure adiskidea, Dolores? ez nauzua ezagutzen?

Doloresek, harrিতua, eskuak gurutzatu zituen oihu bat eginez, eta, hurbiltzen zitzaioalarik, beloa gibelatu zion ezagutzeko.

–Eusebia! Eusebia!

–Dolores! Zu hemen?

Eta bat bertzearen besoetara joan ziren.

Lau urte separatuak izan ziren!

Ezin mintzatuz zeuden, azkenean Eusebiak erran zuen:

–Erranen didazu, Dolores...baina zu?

–Sarri, sarri, ene maitea -ihardetsi zuen Doloresek-. Lehenik etzanen zara, arras akitua zara.

–Gau guzia bidaian pasatu dut.

Doloresek lagundu zuen biluzten eta etzanarazi zuen. Memento berean joan zen Martini te bero xorta baten galdegitera, zeinak zerbitzatu baitzuen berehala.

Dolores itzuli zen bere lagunaren aldera, tea harrarazi zion, jarririk haren ohearen gainean mintzo ziren bizi pasatuaz. Baina hastean Eusebiak galdegin zion Doloresi:

–Ikusi duzu Salvador?

Galde horrek gorriarazi zituen puska bat Doloresen matelak eta ihardetsi zion kalmarekin:

–Bai, ikusi dut, gu bezala preso da eta egun berean honarako da.

(XXXVIII)

Eusebiak jakin nahi izan zuen nola arrastatua izan zen Salvador, eta Doloresek erran zion, gisa berean hark berak jauregitik ateraz geroz pasatu zituen

kirastasun guziak; baina gorde zion oroetarik handiena: Salbadorrentzat zuen amodio bizia.

Eusebiak, bere aldian, kontatu zion lau urte haietan pasatu zituen guziak, bai eta ere Salbadorrek egin ziola juramentu sakratua, eta nola haren ganik separatua ezin bizi zen bakarrik Reedeneko jaun-andereen etxean, eta nola Ingalaterratik eskapatu zen. Salbadorrek presentatu zion jaun baten protekzioa galdegin zuela Londresen, hari esker izan zuela bapor batean leku bat; Britainako ezkinetara heldu orduko, orok desenbarkatu zutela eta abandonatu. Ikusi zuela gizon bat eta galdegin ziola eramanaraz zezan Pariserat, hura bihi marxant bat zela eta eraman zuela bere karrozan herri bateraino, han jateko hotel batera joan zirela eta presentatu zuela bere alaba bezala, baina haren jateko manerak, haren esku zuriak galtzen zutela, jendea elekteta hasi zela ez zela hura bihi saltzaile baten alaba izaten ahal, eta, salon batean pausatzan ari zelarik, gizona eskapatu zela, hoteleko nagusiak komisariara eraman zuela eta han bere inketadurak ezin gorde zituela. Komisariako jujak nahi zuela Nanteserat igorri baina otoiztu zuela Pariserat igor zezan eta konsegitu zuela. Arrats berean abiatu zirela Pariserat eta gau guzia bidaian emanik goiz hartan ireki zirela haren aitzinean Konserjeriako bortak.

Gisa horretan kontatua izan zen Eusebiaren mihiaz bere bidaiako istorioa Doloresi. Honek hitzik erran gabe entzun zuen eta azkenean erran zion:

- Orain pausatu behar duzu, lo egizu bakean, ni zurekin izanen naiz.
- Nahi nuke Salbador ikusi –murmuratu zuen– lotan sartu gabe.
- Ikusiko duzu, nik hitzematen dizut.

Eusebia, dozil Doloresen nahier, fite lokartu zen. Dolores, jarriarik, bakarrik gelditu zen entzun zituenetan pentsaketa. Eusebiak erran guzietan ez zituen bi gauza baizik konprenitu: bat, Eusebia Ingalaterratik Frantziarat jin zela Salbadorrekin juntatzeko, eta bertzea, Salbadorrek bazituela eginak Eusebiari hark ez zekizkien promes sakratu batzuk.

- Zer egin? -zioen haur dohakabeak, zeinari bihotza xehatzen baitzitzaien.

Gau hartan egin zuen lo eztiaren ondotik, bere amodio propioa handitzen zitzaion Eusebiaren amodioaren aldean. Zein bi amodioetarik behar zen gelditu sakrifikatua? Eusebiarena, Salbadorrek maite zuena Dolores zenaz gainean. Ez zen atrebitzen erresoluzione horri buruz jartzera.

Gisa honetan pentsatzen zuen Doloresek: « Zer? Chamondrineko markesak atxiki nau alaba baten plazan, eta nik, lagunduz haren semea haren azken borondateen hausten, behar ditut haren ongi eginak pagatu? Ez, imposible da, itsuskeria bat litzateke. Hitzemanarazi dio Eusebiarekin ezkontzea. Berak ere hitzeman dio aitari eta gero Eusebiari. Eta zer erran nahi du maite banau ere!

Maitatuko du Eusebia ere. Gehiago dena, nihaur ez ikusiz ahantziko nau. Nor naiz ni ene presentziarekin ene ongi-egilearen azken borondateen hautsarazteko? Eta zerendako, zerk gibelatzen nau ene sakrifizioaren segitzetik? Alon, Dolores, izan hadi azkar eta habil kuraiarekin; ezkontzen bahintz Salbadorrekin, Eusebia maluros litzateke hire gatik: hilen litzateke eta bizi guzian ikusiko huke hire eta hire senarraren artean hire gatik hil litekeen haren itzala. Inozente dun. Ez daki Salbador maite dudala. Hark ere ez dio erran. Bueno, gordeko dut egia. Uros izanen da urrikirik gabe eta jautsaraziko du maite duenaren bihotzera erresignazionea eta amodioa. »

(XXXIX)

Dolores preparatzen ari zen, beti bezala bere buruaren digno erakusteko. Memento hartan hark bere presunarentzat zuen estekamendu gutia hunkigarri zen, ez zuen hitz baten erratea baizik berak maite zuen haren aldean izateko sekulako. Baina ez zuen urostasuna nahi aita bezala maite zuen hari errespetua galdurik, ez eta ere Eusebiaren bihotz ezitia penaturik. Pentsaketa horietan ari zen lo zegoen honen aitzinean.

–Ai! -erraten zuen behatzen ziolarik Eusebiari-. Zerendako jin haiz? Zerendako ez Ingalaterran gelditu, Salbadorrek utzi hinduen bezala? A! Ez dakin zenbat pena ematen didanan!

Denbora berean atea ireki zen, presondegi-zaina sartu zen erraten zuela:

–Anderea, bada salan presoner bat, zu ikusi nahi zaituena. Uste dut Madelonetetarik heldu den.

–Hura da! -pentsatu zuen Doloresek, zeina ikaratu baitzen ikusi behar zuelakoan.

Bizkitartean animatu zen eta urrats segur batekin jautsi zen salara. Salbador promenari zebilen urrats ezti batean kolore hits batzuekin, gizon anitz sufritu eta ondoan desiratzen duena ardietsi duen bat bezala.

Goizeko hamarrak ziren.

Dolores ikusi zuenean alegriazko oihu bat eginez haren ganat lasterka abiatu zen. Salan nehor ez zen eta besoak ireki zizkion zioela:

–A! Dolores maitea, ikusten haut azkenean; hirekin naun sekulako; sekula ez gaitun separatuko.

–Sekula? -dio Doloresek boz apal batekin.

(XL)

–Erran ninan: separazione luze eta krudel baten ondotik elkarretararazi gaituen Jainkoak, mehatxatuak garen arriskutik libratzen bagaitu, ez dun uste berak nahiko duela gure unioea mundu honetan? Ezen Piarresi eskerrak hemendik aterako gara, libro eta uros izanen gara.

–Eta Eusebiak zer egingen du?

–Eusebia!

Doloresek behatu zion, eta azentu segur batekin erran zion:

–Utzi huen Eusebia Ingalaterran, itzultzen hintzenean harekin ezkonduko hintzela hitzemanik. Ikusiz ez hintzela itzultzen, pasatu dik itsasoa. Parisen duk presondegi honetan; heldu duk hire promesaren konplimenduaren galdegitera.

Dolores mintzo zelarik Salbadarren bisaia kanbiatu zen, eta, arrapostuaren emateko indarrrik gabe, paretari kontra zutik paratu zen.

X. PARTEA. AMODIOAREN GERLA



Doloresek ekarri zion berriak samurraraz eta kexarazi zuen Salbador. Nola Eusebia jin zen Frantziara? Zer gisaz jin zen Parisera eta presondegi horretara? Hori jakin nahi zuen.

Doloresek kontatu zion Eusebiak errana eta akabatu zuenean erran zion eztiki:

–Salbador, zerendako ez dizkidak erran zein ziren Eusebiari hain hurbildanik estekatzen hauten promesak? Zer! Utzi duk duela sei aste, harekin ezkonduko hintzela hitzemanik, eta hemen nahi huen nik hire otoitzak entzun nitzan!

Salbadorrek isilarazi zuen bizitasunekin zioela:

–Otoi, otoi, Dolores, ez nazanala akusa! Ez naun traidore izan ez eta ere gezurti. Hire ganik separatua izanik, uste izanik hila hintzela edo gordea ni bezala baina ene ganik urrun, egin badut promesa bat Eusebiari, betiko Jainkoari kontsakratu hintzela uste izanik egin dinat, egin nion bezala bertze bat lau urte lehenago. Baina aurkitu haudanean hi, ene bihotzaren jabea, nola ahantz nezakeen hi hintzela lehena, bakarra, ene bihotza izan dunana? Oraino haur bat nintzen, eta, jakin gabe, ene arreba bezala maite uste nuen hura nik adoratzan nuen emaztea zen. Eta amodio hura hazi da hainbertzetaraino orain egiten baitu ene malurra.

–Ai! -murmuratu zuen Doloresek.

–Eta benedikatzan dudanean presondegi honetarat hire alderat igorri nauen Jainkoa, hire esku zuri maiteak ene musuz betetzen ahal ditudan mementoan, hire behatze eztien azpian egoten ahal naizenean, defendatuko didan hik, Eusebiaren izenean, hainbertze urte honetan ene bihotzean sentitzen dudanaren erratea? Ez, ez naiteken isil. A! Dolores, kuraia anitz badun, bazekinat, badun indarririk aski hilhauren bentzutzeko, aparentzia ezti baten egiteko hire bihotzak hainbertze sofritzen duen denboran; baina ez ditinat nik bertute berak. Sofritzen dinat eta behar dinat arranguratu, maite dinat eta behar dinat erran.

Gisa horretan mintzo zelarik, Salbadorren bisaiari behera negarrak nasai zihoazen.

–Ikusten dun -erran zuen istant baten buruan-, gure malur guzien hastapena aitari egiaren ez konfesatzea izan dun. Eskuak elkarri eman eta haren aitzinean

belaunikatu izan bagina erranez “Ene aita, elkar maite dugu”, uros izanen zen eta benedikatuko gintuen.

(XLI)

–Tronpatzen haiz, Salbador. Joan nintzanean komenturat, markesak jakin zian ene ahotik enetzat huen amodioa eta ez nindian geldiarazi.

Salbadorrek behatu zion harritua.

–Zer! ene aitak bazekien!...Bai eta obligarazi nau hil baino lehen hitzematerat Eusebiarekin ezkonduko nintzela! O! Zein krudelak diren aitak zenbait aldiz!

–Uste zian ahantzi ninduala.

–Posible da hire ahanztea? -dio Salbadorrek-. Baina zer egin?

Doloresek ez zuen ihardetsi, begiak apaldu zituen ez zezan leit haren bihoztzean zen gerla handia.

Salbadorrek baliatu zuen momento hura, berriz bere kausa propioaren defenditzeko.

–Entzun nazan, Dolores, ez gaitzekin sakrifizioetan ofrei gure aitaren borondatearen egiteko. Ezkontzen banintz ni Eusebiarekin ene bihotza hirea izan eta, ez nakiken haren uros egiten eta hik zer egin hiro?

–Baina, hiri behatzen banintz, zer egin liru Eusebiak?

–Ahantz niron. Maite nin, hark ezagutu duen lehen gizona naizelakotz, bertze bat baino lehenago ezagutu nauelakotz eta munduan sartu gabe. Baina negar zenbait isuri eta ondoan, ez baitira konparatzen ahal hiretzat isuri eta isuriko ditudaner abandonatzen banaun, ahantz nindezaken. Gehiago dena, haren amodioa ez daiteken konpara ene bihotza betetzen duenari.

–Ez ezakala kalumnia, Salbador. Lau urte honetan Jainkoaren aitzinean bere esposa uste hau, eta kapable duk, hik abandonatzen baduk, hire infidelitatearen doluaren altxatzeko.

–Ene infidelitatea?

–Bai, hari promes bat egin duanaz geroz eta eni ez didak hitzeman deus.

–Baina, eta hik?

–Nik ere ez.

–Beraz joan den eguneko isiltasuna ez zen konsentimendu bat?

–Ez, gaizki konprenitu huen -ihardetsi zuen Doloresek.

–O! zein malurusa naizen -dio Salbadorrek marrumetan zegoela.

Dolores akitua zen. Konbersazione horrek akabatu zituen haren indarrak, baina hartu zuen azken erresoluzione bat eta geroztik ez zuen izanen pentsamendu bat baizik: Eusebiaren urostasunaren segurtatzea, obligaraziz Salbador

harekin ezkontzera. Memento baten buruan erran zuen ezteki:

–Piarresék ekarriko dik honat paper bat, zeinaren medioz hik eta nik atera behar baikenikek; hi aterako haiz Eusebiarekin.

Salbadorrek protestazionezko oihu bat egin zuen, baina Doloresek ez entzunarena egin zuen eta segitu zuen erranez:

–Harekin aterako hiz. Piarresi esker izanen duzue leku segur bat, Versailles ondoan. Han biziko zarete trankil. Ez diat erraten ezkont zaitezten berehala, baina denbora eztitzen denean, gerlarik gabe hire bihotza jartzen denean, orduan, hire presuna bakez betea izaten denean, konplutuko dituk kuraiarekin egin hituen promesak.

Salbadorrek ezetz erran zion keinu batekin eta galdegin zion:

–Zer liteken orduan hitaz?

–Presondegi honetarik ateratzen ahal banintz, eskapatzen ahal banintz gillotinaren azpitik, joanen naiz estranjeriara eta itzuliko naiz ene lehenbiziko bokazio-nerat; han erretiro batean sepultatuko ditut ene egunak eta otoitz eginen dut zuentzat. Baina ez diat botu eternalik eginen, eta egun batez aski azkar kausitzen bahaiz ene presentzia hire etxean, perilik gabe hire bihotzeko bakearentzat, soportatzeko, jinen nauk hire ganat, Salbador maitea, lehen bezala hire arreba izanen nauk, hire haurrentzat bigarren ama bat, eta Eusebiak harrapatuko du berriz bere adiskidea.

–Ez naun Eusebiarekin ezkonduko. Beraz nahi naute obligatu harekin ezkontzera? Hura izanen da juje. Bai, erranen diot ez dakiena, elkar maite dugula eta beti elkar maitatu dugula.

(XLII)

–Isil hadi, -dio Doloresek-, gaixoak ez dezala sekula jakin. Ez duk dretxorik hirea bezainbat enea den sekretu baten hari konfiatzeko.

Bizkitartean konbersazione horrek aski iraun zuen. Emeki-emeki, sala jendez bete zen. Jausten ziren bere ganberetarik hara jateko tenoreko, beren artean eginen zutela ea arratsa harrapatuko ote zuten akusazioneko akta errezibitu gabe.

Zenbaitek, Salbadorren eta Doloresen aldean pasatzean, behatzen zieten jakin nahi ukan balute bezala zertaz mintzo ziren.

–Banoa Eusebiaren bila -dio Doloresek-. Hona ekarriko diat. Otoizten haut berriz ere, hire amodioaren izenean, ez erratea deus pena egin dezakeenik. Ez dugu presarik; hemen beti hiltzeko bezperan gara, eta, menturaz, Piarresék eginahalak eginik ere ez gara libratuko, memento batetik bertzean ematen ahal digute akusazioneko akta. Ez dezagun presentea turba, arima pedazutan ezartzen duten gerlekin; hemen bizitzen ahal gara Chamondrineko jauregian bizi

ginen bezala gure penak elkarren artean partituz. Gauden erreposki, denborak argituko gaitu.

–Zenbat kuraia dunan -ihardetsi zuen Salbadorrek, zeinari hondar hitz horiek esperantza bat uzten baitzioten.

Salbador nahasi zen salan ziren jendeer, zeinetan baitziren anitz kortean ezagutu zituenak, eta Dolores joan zen Eusebiaren bila. Hau iratzartua zen.

–Eta Salbador? -izan zen haren lehen hitza.

–Salbador jin da, ikusi dut eta salan gure beha dago.

Eusebia fite beztitu zen eta bi adiskideak jautsi ziren salara. Eusebiak Salbador ikusi zueneko jauzi batez juan zen haren besoetara. Salbadorrek hoztasune-kin errezibitu zuen zioela:

–A, malurusa! Zertako ez zara Ingalaterran gelditu? Zerendako jin zara arrisku handi hauetara?

–Ene egitekoa ez zen zure ganat jitea elkarrekin hiltzeko? Hamabortz egun berririk gabe bizi eta ondoan, jakin dudanean erregina hil zutela konprenitu nuen zuen indarrak inutil izan zirela eta zuen bizia peligro handietan izan behar zela, orduan utzi dut Ingalterra. Anitz sufritu dut; baina ez banaiz tronpatu ere, uros naiz ikusten zaitudanaz geroz.

Doloresek entzun zuen arrapostu hau Salbadorrek eginak zituen promesen froga berri bat zen. Doloresek behatu zion Salbadorri; behatze hark erran nahi zuen: “Atrebituko haiz ez duala maite erratera? Bertzenaz, maita ezak eta desiratzen duen urostatasuna egin iezaio!”.

Eusebiak uste zuen alegria gehiagorekin errezibituko zuela, bere amodioa deklaratu zioela. Baina Salbadorren ezpainetarik ez zen hitz bat ere atera ahal izan, mutu bat bezala zegoen bi neskatoen artean.

Ordu hartan sala guzia jendez bete zen eta iduri oro haietaz mintzo zirela. Doloresek erran zuen:

–Iduri zait oro gutaz mintzo direla, hobe dugu erretiratzea.

Markesa itzuli zen, ikusi zuen egia zela eta abiatu zen zioela:

–Sarri elkar ikusiko dugu.

Doloresek behatu zuen Eusebiari; hau kolore hits batzuekin ikaretan zegoen. Bere ganberarat konpainiatu zuen eta han negarrez hasi zen Eusebia, zioela:

–Ez dit ihardetsi, iduri du ene arribadak alegria baino pena gehiago eman diola.

–Maite baitzaitu eta pena baitu zu ere zure faltaz gu menazatuak garen arrisku beretz menazatua ikustea.

–Maite nauela? O! badakit nik, haren plazan, alegria gehiagorekin errezibituko nuela. Ikusiko zuen amodioaren proba bat, ni zer periletan nintzen pentsa-

tu gabe. Elkar maite denean zein triste ahal den hiltzea bat bertzea gabe! Zein malurus ahal den bizi gelditzen dena! Formatzen ahal duen desirarik handiena eta biziena da segitzea fite tunbara maite zuena.

(XLIII)

Doloresek ez zuen ihardetsi. Konprenitzen zuen Eusebiaren arima betetzen zuen tristezia handia. Harena ez zen ttipiagokoa, baina azkartzen zen konprenituz zein util zen haren sakrifizioa.

Memento hartarik izan zen Doloresen baitan bere buruaren holokaustoan ofreitzeko desira handi bat, hain maite zituen haien urostasunaren segurtatzeko.

Eguna pasatu zen berriagokorik gabe. Aldi bat baizik ez ziren presentatu salan. Salbadorrek ez zituen ikusi nahi izan. Alde batetik jiten zirenean, bertzetik joaten zen.

–Sufritzen du -zioen Eusebiak-. Zein ote da haren pena? Zertako hain triste ote da?

Ez zuen jakiten ahal baina konprenitzen zuen, ez bakarrik ez zela maitatua, baina bai oraino Salbadorrek lehen bezala maite zuela Dolores. Oroitu zen zuela bortz urte Salbadorrek erran ziola Dolores maite zuela eta haren partez errekeri zezala mintzatzea Salbadorrekin. Egun hartaz oroitzapen handi bat atxiki zuen zeina histu baitzen Dolores Arleseko karmelitetarat joan zenean. Baina memento hartan oroitzapen hura sekula baino azkarrago paratu zen haren aitzinean, min sendatu bat berriz irekitzen denaren efektua egin zion.

Orduan konprenitzen zituen oro: Salbadorren ezkontzeko duda handiak, promes sakratu haien biolazioneak. Bezperan haren alderat izan zuen hoztasunak erakusten zizkion zein ziren haren sentimenduak. Lehengo pozitione berean aurkitzen zen. Salbadorrek maite zuen Dolores.

Horretaz segurtatu zenean, bururdiaren azpian burua gorderik negarrez hasi zen, Dolores lo zegoenak entzun gabe. Bortz urte hartan pasatu guziak jin zitzaizkion aitzinera, eta penak handiagokoak ziren bortz urte hartan haren amodioa hazi zelakotz.

Gaua hola pasaturik Eusebia goizik jaiki zen. Beztitu eta hurbildu zen Doloresen oheari, hau lo zegoen oraino. Eusebia bere adiskidearen ohearen gainean jarri zen eta beha egon. Azkenean Doloresen begiak ireki ziren eta behatu zuen Eusebiari.

–O! Nola histua zaren eta penatua iduri duzun! Zer duzu, Eusebia?

–Hainbertze sufritu dut gau honetan!

–Zertako? Nola?

–Salbadorren indiferentzia!

–Baina ez zaitzela hola pena, adiskide maitea. Zuk indiferentzia uste duzun hura amodio handi bat da. Salbador kontrariatua da zuk ez duzulakotz esperatu Ingalaterran. Zuk aurkitu duzun situazioe terribleak pena ematen eta kontrariatzen du.

Egiten zuen eginahala, honi pentsamendu guzien kentzeko. Baina Eusebiak ez zuen segitzerat utzi, erran zion:

–Segur zara Salbadorren sentimenduez? Uste duzu ez duen bere bihotzean bertze amodiorik?

–Zer amodio? -dio Doloresek harrিতua entzutean egiari hain hurbil zen lengoia hura-. O! Ez ezazula sinets. Salbadorrek behar du zurekin ezkondu, bada-ki. Oraingo eta geroko egitekoen kontzientzia badu eta maite zaitu.

–Tronpatzen zara, Dolores; zu zara maite zaituena. Lau urte separatuak izan eta ondoan, ikusi zaituenean haren bihotza berriz zuri buruz jarri da. Ai! Ahantzi nau.

Eta berriz haren begiak negar kiratsez busti ziren. Dolores oraino ohean zegoenak bere alderat tiratu zuen eta, negarrak xukaturik, erran zion eztiki:

–Kalma zaitetz, Eusebia. Imajinazioeak eramaten zaitu egiatik urrunago. Salbadorrek lehen izan bazuen zenbait ideia enekin ezkontzeko, ene harenganik urruntzea aski izan zen ahantzazteko. Eta ideia haiek berriz ni ikusi nauenean sortu baldin badira, aski izanen da berriz urrunt nadin zuri itzularazteko haren amodio osoa, zeinetan baituzu dretxo osoa.

Hitz horiek kalmatu zuten Eusebiaren izpiritua. Ez zen gehiago negarrez ari. Iduri zuen bere izate guziaz Doloresen erremerziatzen ari zela, zeina bortxatzen baitzen hari esperantza emateko. Honek segitu zuen:

–Jainkoak nahi badu libertatea izan dezagun, joanen zara Salbadorrekin. Eta nitaz denaz bezainbatean, berari erran diodan bezala, joanen naiz estranjeriara eta galdeginen dut aterbe komentu batean. Han da ene lekua. Sekula ez naiz ezkonduko.

–O! Mila esker -dio Eusebiak-, ematen didazu uroostasuna eta deskantsua.

(XLIV)

Amodioa egoista da, eta Eusebiak ez zuen ezagutu Doloresek zuen bihozmina. Ez zuen xerkatu sakrifizio haren zola, eta, uros entzun zituen deklarazioeenez, pasatu zen tormentarik handienetik kalmara eta trankilitatera.

XI. PARTEA. ARGIA



Hirur egun pasatu ziren deus berriagokorik gabe. Teilatu beraren azpian, Eusebia eta Dolores bizi ziren separatuak bezala Salbador martir haren ganik, ezen Salbador, bere dolorea Eusebiari gordetzeko, Doloresen nahiaren arabera, haietarik urruntzen zen. Jausten baldin bazen salara eta neskatoak han baldin baziren, gizonen artean nahasia egoten zen, halako gisaz non ez baitziren hari hurbiltzen ahal deus inportanterik errateko zutenean baizik.

Salbadorrek falta zuena, erresignazionea zen. Bazekien Dolores harentzat arras galdua zela, eta presondegi hartarik ateratzen ahal baziren, jakinen zuela haien artean murru baten altxatzen; pentsaketa horietan, nehorekin elerik egin gabe, tristeziarik handienez bizi zen.

Doloresek eta Eusebiak errespetatzen zuten tristezia hura, eta haiek ere berak bizi ziren.

Egun batez jin zen Piarres haien librazteko esperantzan, aterarazirik paper bat zeina presondegian erakutsi eta Chamondrineko markeser presondegiko bortak ireki behar baitziren.

Piarresek ez zekien Eusebia han zela, eta ganberan sartu zenean, ikusi orduko, egin zuen dolorezko oihu bat.

—Hor zara, anderea?

—Badu hirur egun jina naizela, Piarres -ihardetsi zuen Eusebiak.

Piarresek segitu zuen:

—Baina paper hau ez da zerbitzatzen ahal hirurentzat baina bai birentzat.

Eusebiak ez zuen konprenitu, ez zekien zertaz mintzo zen Piarres.

Dolores hurbildu zitzaion bizitasunekin eta erran zion boz apalean:

—Aski, Piarres, ez ezazula erran hitz bat ere gehiago. Emaidazu salbokonduktoa.

Piarresek obeditu zuen penarekin, ezen pentsatzen zuen berriz ere Dolores Eusebiaren eta Salbadorrentzat sakrifikatzen zela.

Memento hartan haren baitan formatu zen gerla handi bat. Aborreitzen zuen Eusebia, zeina ez baitzen ez haren ahaidea eta ez haurtasunetik ezagutua ere, eta

zeina bigarren aldikotz heldu baitzen Doloresen egunen arriskuan ezartzera.

–Lehen aldiaren erraten zuen-, horren presentziak jauregian gibelatu zuen ene alaba Salbadorrekin ezkontzetik, eta hona, egun, hainbertze arrisku eta urratsen ondotik erdietsi dudanean hemendik ateraraztea, eta beren zorianaren segurtatzea, jiten den berriz gure planen barreatzera.

Mintzatzera abiatu zen baina Doloresek igorri zuen eta borta zerratu. Joan zen Salbadorren gana, zeinari erran baitzion Doloresek bere eskuetan zuela salbokonduktoa.

–Beraz nehoarentzat ez da zerbitzatuko -dio Salbadorrek, boza sentimendu eztiz betea.

–Irek ahal balira bortak bi emazteentzat, haiek ateraraziko gintian; baina batekin atera behar dudana geroz, ez dakit nork salba liron bertzea. Halako gisaz, non geldituko baikira hirurak.

–A! -dio Piarresek-, ene indarrak oro galduak izanen dira eta izanen dut ororen peritzen ikusteko dolore bizia, salbatzeko mirakuluak egin eta ondoan.

Kolerazko negar bat jin zen haren begietara.

Salbadorrek eztiarazi zuen erakutsiz inposible zela bia atera ziten hirurgarrenak han gelditu behar zuenaz geroz eta hirurek beren gisan elkar maite zutenaz geroz. Haietarik bat ikusten baldin bazen bertzez abandonatua, zer urriki handia jinen zen utzi zutenen bihotzera! Ez zuten partida bat baizik hartzeko: elkarrekin eskapa edo herioaren beha egon.

Piarresek hitzeman zion berriz eginahalak eginen zituela hirurendako baliatzen ahal zen salbokondukto baten erdiesteko.

Joan zen, hitzemanik bere adiskideer ahalik fitena itzuliko zela.

Joan zenean, hirurak elkarretaratu ziren.

–Oraino ere ez ote gaituzte gillotinarat galdetuko? -dio Eusebiak.

–Ez dakit; baina gisa guziez zuekin nahi naiz bizi -ihardetsi zuen Salbadorrek-. Bizi gaitezen elkarrekin, ahal dugun bezainbat, herioak harrapatzen bagaitu elkar ikus dezagun azken mementoetan.

–Ontsa mintzo haiz -dio Doloresek Salbadorri.

Eta, ez zirolakotz gehiago erran Eusebiak sekretua jakin gabe, eman zion eskua Salbadorri.

Elkarrekin egon ziren oherat joateko tenorea jin artio. Baina ez zuten batere alusionerik egin salbokonduktoaz, ezen Salbadorrek eta Doloresek ez zuten nahi sekula jakin zezan Eusebiak haren arribadak gibelatzen zituela libertatearen hartzetik.

Biharamun goizean jautsi zen Dolores bakarrik salara. Aurkitu zuen Salbador, izan zuen harekin konferentzia largo bat. Doloresen lengoaia seriosa izan zen:

–Jainkoak oro elkarretarazi gaituenaz geroz, goza gaitezen ematen digun denboraz, irritarazi gabe elkarretarik bereziak egonez, bakea eta batasuna gure kontsolazione bakarrak direnaz gainean.

(XLV)

–Ez ditinat hire sentimenduak jakin nahi, Dolores.

–Ez duk bi gauza baizik jakin behar, Salbador: lehena, ez naukala sekula hire emaztea izanen, eta bertzea, Eusebiari erreparazione bat zor dioala. Hori duk hire egitekoa. Horretaz kanpo, oro gezurra eta kaprizia duk. Ikusten duk, behar duk hire parte hartu, gehiago gu desesperarazi gabe hire tristezia espantagarriarekin.

Salbadorrek entzuten zuen, kopeta apalik, eta erraten zuen boz hori entzutean:

–Egia da, arrazoi du! Zer axola zait, geroak iduririk ere horren ganik urrundu nahi nauela, presenteak honen aldean uzten naudenaz geroz? Bizi gara hemen beti hiltzeko bezperan; eskapatzen baldin bagara izanen dugu pentsaketan egiteko denbora.

Haren ideiak azkenean akort kausitu ziren Doloresenekin. Juramentatu zuen bihotzean atxikiko zuela oraino bere esperantza; apaldu zen Doloresen eskuaren gainera, zeina altxatu baitzuen bere ezpaintedara eta besarkatzen zuela erran zion:

–Prestutasuna eta bertutea hire ahoan ditun, arreba maitea; hitaz digno izanen naun.

Egun hura izan zen gure istorioko hirur presunek pasatu zuten egunik urosena.

Maluruski urosten hainbertze xerkatu eta hainbertze desiratu hark ez zuen egun bat baizik iraun.

Abenduaren hondarra zen. Presonerak oro afaldurik salan zeuden eleketa, batek bertzeari pena berak kontatzen zituztela, oro akusazionezko aktaren beha. Bat-batean hirur ehun presuna haien artean harrabots bat entzun zen eta oro izutuak jarri ziren. Bortaren aldean zirenak gibelatu ziren eta pusatu zituzten gibelago zirenak, han leku huts puska baten uzteko.

Gizon bat sartu zen, beltzez bezi, oinetako eta xapel gorri batekin. Eskuak paperez beteak zituen. Lau soldaduk konpainiatzen zuten eta aise zen ezagutzea erreboluzioneko tribunaleko aintzindari zenbait zela. Egun guzietz jiten zen gizon espantagarri hura hiltzerat kondenatuak zirener beren listen ematera.

Egun guzietz ikusteko kostunbrea izanik ere, gizon hark oro ikaretan emarazten zituen. Bazen han hainbertze gazte jende, hainbertze odol inozente! Zerendako hilarazi behar zituzten gillotina terrible haren azpian? Zer gaizki egin zuten? Noren partidak ziren? Kestione inutila. Gizon haren eskua hedatzen zen onen eta gaiztoen gainera hala nola azkarren eta flakoen gainera.

Gizon itsusi Robespierre deitzen zen hura sartu zenean, Salbador eta Eusebia, hango kostunbreak oraino ez zekizkitenak, pusatu zituzten gibelerat, eta, haiek lekurik ez izanez, salatik kanporat atera ziren. Dolores, zer pasatzen zen bazekiena, aitzinatu zen ikusteko zein ziren egun hartan hil behar zutenak. Robespierre aitzinatu zen, bere lista atera zuen eta hasi zen gora biharamun goizean tribunalaren aitzinera joan behar zuten guzien deitzen.

Zer izen nahasdura! Pobreak nobleekin, serorak apezekin, errepublikanoak monarkikoeekin, zaharrak gazteekin, oro on ziren gillotinaren ahoak lepoa pika-tzen ahal bazien. Presoner bat deitzen zuen aldi guzietz entzuten zen murmura elkor bat, zeinak irauten baitzuen adinaren, posizionearen eta erakusten zuen pietatearen arabera; hurbiltzen zen, malurusak hartzen zuen bere eskuetan paper tinbratu itsusi hura. Haren aldean aita bat, ama bat baldin bazen marrumetan hasten ziren ziotela:

—Ai! zerendako ez naute ni galdetzen? Horren orde hil nahi nuke.

Dolores gauza espantagarri horri beha zegoen. Triste zen, ikusi zuen hainbertze gisa horretan joaten! Egun hartan emozioea egun guzietakoa zen. Begiak eta bihotza orotan kostunbratzen dira. Bat-batean ikaratu zen. Entzun zuen deitzen bere adiskidearen izena, Eusebia de Mirandol. Behatu zuen bere aldean eta ez zuen ikusi, alegeratu zen. Eusebia ateraia zen Salbadorrekin eta nehork ez zuen izen horri ihardetsi. Robespierrek berriz deitu zuen boz azkarrago batez. Orduan Doloresen begitartea zerutikako argi batez bete zen eta irri ezti bat egin zuen.

—Eusebia de Mirandol! -deitu zuen hirugarren aldikotz boz terribleak.

Dolores hurbildu zen.

—Hemen naiz, jauna. Barkaidazu, arras distraitu nintzen...

—Andere Mirandol zara?

—Hura bera.

Doloresek hartu zuen esku segur batekin eta begitartea urgulu sainduz bete, eta itzuli zen ezteki, irri bat ezpainetan, bere lekurat.

Eusebiaren izena zen listako hondarra.

—Deitu guziak bihar goizean hamar orenetan jujatuak izanen dira.

Hitz horiek erran orduko, joan zen gizon harrigarri pietaterik gabe hura eta Dolores ezagutzen zutenez inguratua izan zen.

–Malurusa! Zer egin duzu?

–Hiltzeko presa duzu?

–Zerendako presentatu zara ez zaituztenez geroz deitu?

Haren begi eztiak behatzen zuten trankilki galde horiek egiten zituztenen gainean, eta boz ezti eta kuraiaz bete batekin ihardetsi zuen:

–Galdetzen dut, guzien nagusi den Jainko handi haren izenean, utz diezadazuen ene sakrifizioaren libertate osoa eta ez dezazuen ene urostasuna turba ele banoekin. Galdegiten dut oroz gainetik sekretua atxik dezazuen.

(XLVI)

Nehork ez zuen ihardetsi. Haren desira manu bat zen, eta nola orduan ez baitziren martirak eta presuna bihotz handikoak arraro, instant baten buruko ahantzi zuten eta ez zen gehiago nehor Doloresez mintzo. Pasatu zen urrats firme batekin, kontent, ororen aitzinean, barkamendu galdetzen zuela, eta joan zen Salbadorren eta Eusebiaren gana zeinek ez baitzekiten zer pasatu zen. Gorde zuen bere kasakaren barnean paper izugarri bizia eraman behar zion hura. Eleketa ari izan zen bere adiskideekin ganbaretarat joateko ezkilak jo artio. Orduan besarkatu zuen Salbador zioela:

–Gau on.

Gero hartu zion besoa Eusebiari eta biak joan ziren beren apartamendurat. Eusebia sartu zen lehenik, eta Doloresek ikusi zuenean korridorean bakarrik zela joan zen presondegi-zain Martinen gana, zeinak ez baitzekien oraino zer pasatu zen.

–Norat zoaz? –galdegiten dio honek irri batekin.

–Zure bila nenbilen -ihardetsi zion honek-, behar dut komisione bat igorri Piarresi gaur berean.

Martinek behatzen zion atrebitu gabe galdetzera zer zen presa handi hura.

–Bihar tribunalaren aitzinean presentatu behar naiz.

–Zu? Ai! uste nuen ahantziko zintuztela.

–Isilik! Ez hitzik erran horretaz ene adiskideer, guzien gainetik enekin bizi den hari, abisa ezazu Piarres, eta zure obra onaz errekonpentsatua izanen zara.

Deusik gehiago erran gabe utzi zuen Martin eta joan Eusebiaren gana zeina haren beha baitzegoen. Biak biluzi ziren, instant bat mintzatu lehen jauregian pasatu zituzten egun ederrez eta gero elkar besarkaturik bakoitza bere oherat joan ziren. Doloresek biziki ontsa eta trankil lo egin zuen.

Iratzartu zenean ondoko goizean, sentitu zuen alegria saindu batez inguratu zela, pentsatzen zuen bizi sakrifizioz bete bat Jainkoaren aitzinean koroa-

tzera zihoala. Bazekien herioa haren beha zegoela baina harrapatuko zuen deus arranguririk gabe, trankila.

Jaiki zen, bere tualeta egin zuen kostuman baino koketeria gehiagorekin. Beztitu zen abilamendu gris batez, xingola zabal eder batez taila fin eder hura tinkatu zuen eta giblean floka handi batez estekatu. Buruaren gainean ezarri zuen txapel redonda gora bat zeinaren azpitik ateratzen baitziren urre kolore ziren bilo xarmant haiek. Sekula ez zen hain ederra izan. Haren begitartetik grazia saltatzen zen zeruko argi batek inguratzen izan balu bezala. Belaunikatu zen eta haren arima egon zen bi oren istantean ikusiko zuen Jainko handi haren aitzinean otoitz egiten.

—Herioa -erraten zuen-, ez da bizi hobeagoko baterat eramaten gaituen bide bat baizik. Ezagutzen ez ditudan leku haietara joan da egun ene arima eta juntatuko da mundu honetan maitatu eta zeruak altxatu zizkidan izate maitate haier: markes Esteberi, zeinaren borondateak eta amodioak segurtatu baitu ene suertea mundu honetan; Marie-Anna markesari, zeinaren bihotzean aurkitu baitut ama baten amodioa eta eztitasuna; ene aita-amei, zeinak galdu izan bainituen ezagutu gabe. Lurrean uzten ditudanen beha han egonen naiz, haien suerte onarentzat eta deskantsuarentzat otoitz eginez.

Jaiki zen eta hurbildu Eusebiaren oheari. Doloresek behatu zion memento bat eta behatze triste batekin murmuratu zuen:

—Ene herioak urostasuna eman diezanala eta Salbadorrek maita hazala nik maitatu izan dudana bezala.

(XLVII)

Atera zen ganberatik eta korridorean aurkitu zuen Martin, zeinak erran baitzion:

—Zure adiskide Piarres salan zure beha dago, anderea.

—O!, mila esker -dio Doloresek alegiarekin.

Jautsi zen salara. Han zegoen Piarres, hits-hitsa eta begiak hantuk. Martinek abisatua bezperan, pasatu zuen gaua karrikan, presondegiko pareter kontra, desesperatua, negarrez, Dolores ikusten ahal zuen orenaren beha.

—Zer da, anderea? zer da? -erran zuen ikusiz sartzen Dolores-. Tribunalean agertzeko markatua zara? Ez daiteke, anderea, deus maneraz, ez dut kontsentituko, imposible da. Tronpatu dira. Zer krimaz akusatzen ahal zaituzte? Desertatu duzu edo konspiratu?

—Errezibitu dut atzo ordrea tribunalean presentatzeko eta denbora berean akusazionezko akta.

–Ai, malurusa! -dio Piarresek.

–Zerendako ez nauzu ekutatu? Zerbitzatu izan bazinete nik prokuratu ni-zuen salbokonduktoaz, memento honetan libre eta uros izanen zineten.

–Baina Eusebia hemen izanen zen bakarrik, galdua.

–Eta zer axola zait eni andere Mirandol? Nor da enetzat? Zu bai, zu ene amodioaren nagusia zara, zu ene alaba zara, eta, heriotzeak eramaten bazaitu, ez naiz biziko. Egiiazki mirakuluak egin ditut zuen presondegia honetarik aterarazteko; karesatzen nuen oraino zuen uros ikusteko esperantza, eta horra, andere hori agertu denean ene indar guziak bano izan dira. O! hau ez da justo! . . .

–Jainkoa gatik, Piarres, isil zaitetz eta kalma.

Baina gizon gaixoak, negarrez, ez zuen deus entzuten.

–Alon, Piarres, ni kontent naiz hiltzeaz. Ene bizia ez da nesario nehorri. Niretzat negar eginen dutenak kontsolatuko dira pentsatuz egun batez zeruan elkarretaratuko garela sekula gehiago ez separatzekotan.

–Eta uste duzu esperantza hori aski dela? -dio Piarresek marrumetan-. Jau-regiko bortan zure ama hilaren besoetarik hartuz geroz maitatu zaitut egun guzietz gehiago; ene xarma izan zara, ene urostatuna, ene bizia. Eta egun, ikusiz kondenatua zarela sententzia itsusi batez, bihotza xehatzen zait! Zu, hain inozentea! . . .

Baratu zen, haren hitzak gelditu ziren negarren artean. Geroxeago erran zuen:

–Erakutsiezadazu akusazioneko akta.

–Zertako? -dio Doloresek, zeinak nahi baitzuen oroer gorde bere sakrifizioa.

–Nahi dut jakin zer krimenez akusatzen zaituzten.

–Ba ahal dakizu akusazione hauek ez dutela fundamenturik.

–Xerkatuko dut abokatu handi bat zure defenditzeko eta ez badut aurkitzen nihaurek defendituko zaitut.

–Adiskide maitea, hil behar dut, oro inutil dira, egiten dituzun guziek konprometituko zaituzte, eta ez nauzu salbatzen ahalko.

Hitz horiek erran orduko, sentitu zuen oihu bat eta ikusi zuen berriz bezperako gizon bera kondenatuen deitzen ari zela tribunalean agertzeko.

–Adio, adio -dio Doloresek boz apal batekin.

Lehenbiziko aldikotz sentitu zuen bihotza xehatzen maite zituen haietarik separatzean.

–Adio ez, sarri artio -ihardetsi zuen Piarresek.

Eta deusik erran gabe urrundu zen.

Doloresek behatu zuen bere inguruetarar eta ez zuen ikusi ez Salbador ez eta ere Eusebia. Alegeratu zen eta, momento hortarik, tonbarat bere sekretua

eramateko esperantza karesatu zuen. Ez zuen nahi sekula jakin zezan Salbadorrek Eusebiaren orde hil zela, hau odiosa izanen zitzaiola beldurrez eta urriki eternal bat izaten ahal zuela menturaz.

Salan bazen apez saindu bat ere hiltzerat kondenatua. Kondenatuak haren gana joaten ziren beren bekatuen kofesatzera eta absoluzonearen izatera. Dolores bere aldian joan zen, belaunikaturik bere berri guziak erran zizkion, eta apesak absoluzonea eman eta ondoan erran zion:

–Haur maitea, ematen diguzu azkartasunaren etsenplua. Zure bekatuak barkatuak dira. Inozenteen otoitzak entzuten dituen hari otoitz bat neretzat.

Bezperan bezala Eusebia de Mirandol deitu zutenean, Dolores presentatu zen eta tribunalerat joan. Justizia istant batez egiten zen. Egun hartan hamaika kondenatu zituzten, Dolores hondarrrik deitua izan zen.

–Zure izena? -erran zion presidenteak.

–Eusebia de Mirandol.

(XLVIII)

Izen hori erran zuenean, Doloresek entzun zuen bere giblean garrasi bat. Burua itzuli zuen eta ikusi zuen, paretari kontra zutik zegoela, Piarres, begitar-te triste batekin. Piarresek konprenitu zuen Doloresi bizia gostatzen zitzaion sakrifizioa.

Beldur izan balitz bezala mintza zedin, Doloresek behatze serio bat egin zion, zeinak erran nahi baitzuen ez zuela balio, oro galduak zirela, mintzatzen bazen galduko zuela Eusebia, Dolores salbatu gabe.

Dolores hiltzerat kondenatua izan zen Eusebia Mirandolen izenaren azpian. Jukeak abiatu ziren kondenatuak zirenen sala baterat laguntzera, gizon bat joan zelarik haien aitzinera, eta boz fier batekin mintzatzen hasi, zioela:

–Zuek egin duzuen justizia gaizki egina da, ez zarete jukeak bainan bai gizon hiltzaileak eta inozente-hiltzaileak.

Besoak bularren gainean gurutzatuak, behatzen zuen jujeer aire desafiador batekin.

–Gizon hori esteka ezazue -dio presidenteak.

Bi jendarmek estekatu zuten eta tribunalari buruz erran zuten:

–Jaun jukeak, gizon hau interroga ezazue eta punizioea eman.

Piarres zen, zeinak entzunik Doloresen sententzia desidatu baitzuen harekin hiltzea.

–Ai, malurosa! -murmuratu zuen Doloresek negarretan.

Piarressek behatzen zion ezteki, galdegiten balu bezala harekin hiltzeko aski digno kausitzen zuen, eta denbora berean jujeek interrogatzen zuten.

–Inutil da bila dezazuen zein den ene kondukta. Nik erranen dudana da: asean naiz zuen injustokerien eta inozenteen odolaren kurritzen ikusteaz. Monarkikoa naiz, aborritzen dut errepublika eta hura zerbitzatzen dutenak, eta ez dut bertze deusik opinione horren finkatzeko ene odolaren isurtzea baizik.

–Erotua da -dio juje batek.

–Ez, ez naiz erotua -dio Piarresek-. Hil bedi errepublika eta biba erregea!

Hoinbertze atrebimenduk koleran emanarazi zituen juje guziak eta hiltzerat kondenatu zuten. Orduan, haren begitartea ere argitua, hurbildu zen Doloresen ganat zeina negarrez urtua baitzegoen, eta erran zion:

–Barkatu behar didazu, anderea, hainbertze malur ez jasan nahi izatea, baina heriotzean ere ene lekua zure aldean da.

–Ene aita!, adiskide maitea! -murmuratu zuen Doloresek.

Eta bere besoetarat tiratu zuen presondegi-zainak, besarkatua atxiki baitzuen, manatu zituzten artio sala batean sar zitezen gillotinarat igateko mementoa jin artio.

XII. PARTEA.

ADIO



Horiek oro tribunalean pasatzen zirelarik, Eusebia de Mirandol iratzartu zen, beztitu eta juan zen salara jateko Doloresekin.

Nehon ez zuen aurkitu, orduan izutu zen ez pentsatu zuelakotz zer gertatu zen baina beldurtu. . . Itzuli zen bere urratsen gainean gizonen alderat, oraino Dolores Salbadorrekin zelako esperantzan. Harrapatu zuen kanpoko burdinen aldean, bakarrik.

–Eta Dolores -erran zion-, non da?

–Ez dut ikusi -ihardetsi zion Salbadorrek.

–Ai, Jainko maitea! -murmuratu zuen Eusebiak, koloreak joaten zitzaizkiola.

–Baina zer da? Eusebia, izutzen nauzu -dio Salbadorrek.

–Ai! Doloresi malur handi zonbait gertatu ote zaion beldur naiz.

Aldixartzera zoan eta eroriko zen, Salbadorrek, ezagaturik, ez balu besoetan hartu eta berehala zerbaite alimantu bero emanarazi.

Beldur bera jin zitzaion Salbadorri eta Eusebia bere ganatu zenean abiatu ziren biak Doloresen bila, galdeginez orori ea ikusi zuten. Azkenean Martin haien aitzinean presentatu zen eta berehala galdegin zioten Doloresentzat.

–Zer! Ez dakizue. . . -dio Martinek ikharetan.

–Ez, ez dakigu deusik.

–Andere Dolores hamar orenetan tribunalean presentatu da.

Bi oihu-garrasi entzun ziren, bat Salbadorrek errabiaz egina, eta bertzea izialduraz Eusebiak. Negar marrumen artean galdegin zioten Martini hobeki esplika zedin.

Ez zekien deusik bezperan akusazionezko akta errezibitu zuela baizik egun hartan tribunalean presentatzeko, eta otoiztu zuela Piarres deitzeko; goiz hartan bederatzi orenetan atera zela bere ganberatik trankila eta ederki beztitua, eta Piarresekin konbersazione luze bat izan zuela. Deus ez zekien gehiago, sartu zela baizik tribunalean, bertze akusatuekin.

(XLIX)

Zer berri krudela Eusebiaren eta Salbadorrentzat! Doi-doia zutik zeudela, erratea inposible den desesperazionezko estatu batean, elkarri behatzen zuten harrituak eta bere ideia nahasien artean egiten zuten zerendako Doloresek egia gorde zien. Hain gozo izanen zen elkarrekin uztea sakrifizioz eta negarrez bete bizi bat! Nork baratuko zituen elkarrekin gillotinaren azpirat joateko plazer eztitik?

–Guri pena ematearen beldur izan da -dio azkenean Salbadorrek-, pentsatu gabe egia erranez baino pena gehiago ematen zigula gordez.

Hitz horien akabatzen ari zelarik, Martin, urrundua zena, hurbildu zen berriz, zioela:

–Akusatuak itzuli dira tribunaletik. Andere Dolores haiekin da kondenatuen salan.

–Kondenatuen salan! Ai, ene Jainkoa! -dio Eusebiak.

Hitz horiek haien beharrietan erresonatu zuten gillotinaren ahoak bezala, eta bi ero bezala joan ziren sala hartako bortara.

Dolores alki baten gainean jarria zen leihoaren aldean. Piarresen kondenatzeko manerak eman zion pena izugarria orduko kalmatua zen. Piarres Doloresen aitzinean zutik zegoen, behatzen ziola irri ezti batekin, erraten ziola gogotik hiltzen zela memento terrible hartan hura haren aldean izanez.

Deus ez zitekeen Doloresen begitartea baino trankilagorik memento izugarri hartan, oro ikaretan zeudela hura eta Piarres bakarrik irri ezti batekin eleketan ari ziren.

Eusebia, Salbadorrez segitua, jauzi zen, bere adiskidearen oinetan belaunikatu zen, marrumaz zegoela:

–Eusebia, otoizten zaitut Jainkoaren izenean, ez diezazkidazula indarrak ken hainbertze neseario ditudan memento honetan -dio Doloresek.

–Ai, zein krudela zaren! Zerendako ez gaituzu abisatu?

–Zerendako erran behar nuen? Zer irabaziko nuen? Jainkoak igortzen digun suerteaz kontentatu behar dugu, eta ez kobardeak bezala hil.

Gisa horretan mintzatu eta ondoan, Doloresek bere aldean jarrarazi zuen Eusebia, mintzatzen zitzaioa lengoia firme eta ezti batekin. Paperrak kanbiatuak ziren. Hiltzera zihonak kontsolatzen zuen bizi gelditzen zena.

Bi neskatoak mintzo zirelarik, Salbador ikaretan, koloreak galduak, ukomi-loak zerratuak, kolera bero batekin interrogatzen zuen Piarres eta honek erran zion zer gertatu zen. Inbidiaz bete zen Piarresentzat, zeren Doloresekin hiltzeko zoriona baitzuen eta xerkatzen zituen bide guziak Robespierre espantaga-

rriaren kolera bere buruaren gainerat ekarrarazteko eta hain maite zuen harekin gillotinarekin azpirat joateko.

Piarresek kontatu zion modestiarekin bere istorioa. Desesperatua ikusirik Dolores kondenatua, zioen ez ziola sufri haren galtzeak ematen zion pena.

–Zenbat preferiblea den hire suertea eneari –dio Salbadorrek kirastasunarekin-. Nahi nitek hire plazan izan eta hil.

Doloresek entzun zituen hitz horiek. Urrundu zen Eusebiaren ganik Salbadorri hurbiltzeko eta erran zion:

–Jainko maitea gatik, Salbador, ez hadila gisa honetan mintza. Nahi gabe presentatzen zaik tenorea egin hituen promesen betetzeko. Jainkoak egun honetan erakusten dik bere borondatea. Bere ganat deitzen naik. Diok enekin hil nahi hukeela. Ez duk hil behar. Behar duk bizi, hire hitzetan fede izan duenarena baihaiz. Hire izena partitu behar duk eta nehor ez duk Eusebia baino dignoago izen hura altxatzeko.

(L)

Salbadorrek isilarazi zuen bizitasunarekin :

–Ni ez naun saindu, gizona naun. Zer erraten didan promesez eta egitekoetz? Zerbait erran edo hitzeman badut ere, ez badinat erran maite haudala, eta hitzeman banu ez hire maitatzea, gezurra erran niron: leit ezan ene bihotzean; han ikusiko dun hire izena; hire izena dun leku guzietan, eta erakutsiezadan hik, emazte azkarra, nola irensten ahal baita gure biziaren alegria eta tormenta izan den nahi bizia. Oroit hadi pasatuaz, Dolores, gure gaztetasuneko lehen orenez, gure bihotzak amodio berarekin jakin gabe norat zihoazen eta zer nahi zuten iratzartzen ziren memento hartaz. Ez zekinat zer pasatzen zen hirean, baina eneak ez din pentsamendu bat baizik izan, karesatu esperantza bat baizik: hitaz ene esposaren egitea. Esperantza hartaz bizi naun, egin din ene egunen animoa eta desesperazionea, doloretik zorrotzena eta alegriarik garbiena.

Gisa horretan mintzo zelarik boz erdi apal batean, inketatu gabe nehorik entzuten zuen, Eusebia hurbildu zen eta espian zegoen:

–Ai!, amets inutil bat zen enea -segitu zuen Salbadorrek Eusebia ikusi gabe eta Dolores entzun gabe, zeinak nahi baitzuen ixilarazi-. Hitzematea bizitze modest bat, beraz digno den emazte batekin, hori anbizione kulpable bat da? Bizkitartean amodio hartaz mintzatu hindudan lehen aldian erran hidanan: “Eusebia hor da, ezkont hadi!”. Eta nola nik ez bainuen nahi, erran huen berriz: “Jainkoari hitzemana nauk!”

–Ez zen egia? -dio Doloresek burua apaltzen zuela.

–Ez, zeren eta hik ere maite bainindunan eta sakrifikatzen hintzen ez zekinat zer egitekoer, ene aitak ez baikintuen gibelatuko, hitaz sostenitua izanik atrebitu izan banintz egiaren erratera. Ez huen nahi izan, joan hintzen eta probidentziak ezarri gaitin bat bertzeari buruz. Orduan esperantza bat eman hidanan gero kitatzeko. Eusebia berriz jin da. Orain ikus ezan hire obra. Hemen gaitun hirurak berdin kondenatuak, hi hiltzera, ni pena horren soportatzera, Eusebia ene maitatzera.

–Uros nauk hiltzeaz -ihardetsi zuen Doloresek irri ezti batekin.

–Zerendako atzo berri malurus hori jakin huenean ez erran: malurus gara mundu honetan, eternitateak libratuko gaitu hain guti merezitu ditugun gaitz hauetarik eta seguratu gure bihotzer hainbertze desiratzen duten unioea, haugi elkarrekin hil gaitezten!

–Nik hi hilaraz?

–Ez zunan bizitzera uztea bezain krudel izanen. Badakin zer izanen den ene biziaz, mundu honetan hire ikusteko esperantza galtzen dudanean arrunt? Otoitz luze bat herioari fite ene bila jin dadin.

–Salbador! Salbador! -murmuratu zuen Doloresek erreprotxu egiten ziola-, hi haiz gisa horretan mintzo haizena, hire arimari bertze bat josi duana, hi jadanik espos haizena, zeren eta hire aitaren hil ohearen aintzinean Eusebiarekin belaunikatu baihintzen eta apez batek benedikatu baitzintuzten? Erreprotxuak egin dizkidak -segitu zuen Doloresek-, zer bide dute? Nor da kulpable? Ni naiz? Ez diat erran beti: “egitekoak hire ganik urruntzen naik”? Ez diat erakutsi ehun aldiz hire esperantzen inutiltasuna? Eta hiri behatu gogo nintzen egunean ez hidaan hihaurek kofesatu Eusebiak hire promesa eta hire fedea bazituela? Uste dut ez dudan deus akusatze korik nihauri. Gehiago dena, ez dut herioa bilatu. Hiltzen naiz Jainkoak manatu didalako. Erresignatzen naiz. Eta erresignazione hori ene kuraia ttipiaren proba baldin bada, nahi nuke etsenplu horrek hire arima azkar dezan. Espantatu haiz gehiago, hortakotz errespetatu duk.

Lengoaia hori entzun zuenean erori zen Salbadorren kolera; ez zen gehiago irratia baina bai penatua.

Bat-batean haien gibelean negar marruma bat entzun zen. Itzuli ziren eta ikusi zuten Eusebia belaunikatua.

–Barkatu -murmuratu zuen Eusebiak negarra zeriola.

Doloresek zutiarazi zuen.

–Ai! barkatuko dizkidazu, Salbador, sufriarazi dizkizudan guziak? -galdegin zuen Eusebiak.

Salbador negarrez zegoen, eman zion eskua Eusebiari.

–A! -dio Doloresek-, arima pedazutan ezartzen didazue hainbertze indar behar dudan memento honetan. Ni hiltzen ikusteko desesperazioneak eramaten zaituzte biak egia baino urrunago. Hik, adiskide maitea, ene ahizpa Eusebia, errezibitu huen promes sakratu bat, eta hik, Salbador, egin huen libreki, konplitzeko borondatearekin. Hau da ahantzi behar ez duzuen gauza baharra. Horretaz kanpo, oro gezurak dira.

(LI)

Doloresen bozak iduri zuen haren arimak istantean pausatu behar zuen zeru eder hari prestamuz idokia zela. Memento izugarri hartan Jainkoak erakutsi izan balizkio bezala legeak hobeki, mintzo zitzaien munduko egitekoez, erresignatzeko behar orduaz eta sakrifikatzeoaz.

–Nahi dut enekin tonbarat eramane ene hiltzeaz kontsolatuko zaretelako segurtamena, elkar maitatuz ene oroitzapenetan.

Hitzeman zizkioten nahi zituen guziak, inkapableak hainbertze borondateri erresistitzeko. Bere sakelatik atera zuen Piarresek eman salbokonduktoa eta eman zion Salbadorri, zioela:

–Hau zuen libertatea da, salbokondukto honekin hemendik aterako zarete eta leku segurerat joanen. Han jakinen duzue miserableen arruina eta egiaren eta bertutearen triunfa. Oren hura jinen da, zeren eta geroa ez baita gaiztoentzat eta ez superbioentzat, bainan bai umilentzat, jenerosentzat eta onentzat.

Eusebiaren eta Salbadorren negarrak eta desesperazionea handitu ziren. Gisa horretan mintzatu zen Dolores oren bat eta gero otoiztu zituen bere adiskideak atera zitezten istant bat, hiltzerat preparatu behar zuela, eta, nola haiek marrumetan baitzeuden, erran zien:

–Otoizten zaituztet nitaz pietate izan dezazuen; joan baino lehen deituko zaituztet azken adioaren errateko.

Atera ziren eta gelditu zen bertze kondenatuen artean, zeinak oro bat bertzearen ondotik joaten baitziren jadanik Doloresen kofesatzen ikusi dugun apezari bere bekatuen barkamenduaren galdegitera. Dolores ere berriz joan zen.

–Aita maitea, benedikata nazazu.

Eta apezaren esku sakratuak Doloresen buru ederraren gainean pausatu ziren.

–Preparatua naiz -erran zion Piarresi-, herioa jin daiteke.

–Hain gazte eta hain eder hil behar! -murmuratu zuen honek.

–Ene suerteak pena egiten dik hiri. Ez dik bizkitartean merezi, ezen uros nauk.

–Konplitzen dunan sakrifizioak egiten ote hau hain uros?

–Isil hadi -dio bizitasunarekin-. Zer mintzo haiz sakrifizioz? Ez diat nahi erran dezaan. Eusebiak eta Salbadorrek behar dute beti ignoratu bertzeren plazan hil naizela.

–Gisa horretan mintzo dira sainduak -murmuratu zuen Piarresetik.

Eta alegre ikusten baitzuen, segitu zuen:

–Uros ni, konpainiatuko zaitudana eternitate guzian.

Arratsaldeko hirur orenak ziren; neguko denbora ederra zen, zerua urdin zen eta eguzkia bero.

–Zer egun ederra zerurat joateko -pentsatu zuen Piarresetik.

Dolores trankil zen, bihotzetik Jainkoari otoitzez ari zen handi zezala haren sakrifizioa eta hartarik egin haren oroitzapenez beteak gelditzen ziren bi izate maite haien urostasuna.

Bat-batean salan oihu-intzirina-garrasiak entzun ziren, haien gillotinarat eramaleak heldu ziren.

Doloresek oraino ere ez zuen bere kalma galdu. Kendu zuen bere txapela eta hirur jendarme ari zirelarik haren inguruan ziren kondenatuen biloen pikatzen, barreatu zituen bere bilo ederrak, zeinak jautsi baitziren haren sorbalden gainera belo lodi eder bat bezala. Bertze garrasi bat izan zen ikusi zituztenean borrero haiek buru eder hartako ilearen pikatzen.

(LII)

Ikusi zuenean joateko mementoa hurbil zela, galdeginarazi zituen bere adiskideak, zeinak bortan baitzeuden negarrez hantuak. Sartu ziren Martinekin, zeinaren begitartea triste baitzen, kostunbratua izanik ere izugarrikeria haien ikusten.

Dolores haren alderat joan zen eta erremerziatu zuen harentzat izan zituen soinu guzicz.

–Presondegian sartzean gurutze urrezko bat konfiatu nizun.

–Hona, anderea, ematera heldu nintzen.

–Atxik ezazu, ene adiskidea; oroitaraziko zaitu harentzat ona izan zaren presoner batez.

–O, anderea!, egin dut ene egitekoa.

Ez zuen deus gehiago ihardetsi ahal izan Martinek, konmobitua.

Dolores itzuli zen Salbadorren eta Eusebiaren ganat, zeinen dolorea espan-tagarria baitzen.

–Adio, adiskide maiteak -erran zuen Doloresek-, ez zaitezela desespera. Pentsa ezazue bidaian noala eta zeruan berriz elkarretarako garela sekula ez separatzeko.

Baina gisa horretan mintzo zelarik haien kontsolatzeko, bera ere negarrez zegoen. Hurbildu zen bati eta bertzeari, bere bihotzaren kontra tinkatuak bulta bat atxiki zituen.

–Elkar maita ezazue beti eta ez nazazuela sekula ahantz.

Hori zen eman zien azken kontseilua.

Piarres hurbildu zen Salbadorri eta besoak ireki zizkion.

–A Piarres!, gizon ohoratu bat zara, suplizioak ez zaitu izutzen. Ez ezazula zure odol hotza gal. Kasu emanen diozu Doloresi finitu artio, ez dea hala?

–Ez uzteko bakarrik joaterat, hil nahi izan dut honekin -ihardetsi zuen Piarresek.

Orduan oihu handi bat entzun zen:

–Bidean, bidean!

Musu batek juntatu zituen oraino.

–Adio, adio! elkar ikusiko dugu berriz zeruan!

Eta Dolores, penaz hautsia, jauzi zen kanporat.

Piarresek segitu zuen, baina ez zen atera hain fite, ezen ikusi zuen Eusebia aldixartzen eta Salbador haren sokorritzen.

Presondegiko bortan karro bat prestatua zegoen presoneren Erreboluzioeko plazarat eramateko.

Hara heldu zirenean gillotina ikusi zuen preparatua Doloresek, ikaretan eman zen eta murmuratu zuen:

–Beldur naiz!

–O, ene maitea!, ez ezazula kuraia gal -erran zion eztiki Piarresek-. Ikusten duzu, hemen naiz, ez zaitut hemendik ateratzen ahal. Baina konfia eta espera. Zenbait minutaren buruko tonbako bakean eta Jainko maitearen presentzian izanen gara.

(LIII)

Herritar hark bere hitz kontsolagarriekin kuraieztatu zuen memento ikaragarri hartan berriz Dolores. Hau lehenik iragan zen gillotinaren azpira. Piarresek otoiztu zuen borroera plazer hura egin ziezaiola, haren alabak, erraten zuen bezala, ez zezan ikus haren odola isurtzen.

Baina honek ikusi zuenean erortzen Doloresen buru xarmanta, eman zuen berea gogotik, kontent, separazioak ez zuelakotz minutu bat ere iraun.

Doloresek ez zituen oraino hogeit eta hiru urte beteak.

Salbadorrek eta Eusebiak, haren dolua errespetatuz, ez zuten hilabete batez librantza galdegin.

Orduan atera ziren eta joan Piarresek Versailleseko ondoan erakutsi zien etxera. Han familia on bat bizi baitzen, haiekin gelditu ziren, Doloresez negar eginez eta bizi pasatuaz oroitu gabe.

Han bi urtez Eusebiaren amodioa hazi eta purifikatu zen, baina handituz Doloresen oroitzapena. Hura ere orduan sakrifizio handi baten egiteko kapable zen eta uzten zion Salbadorri bere bihotzaren libertate osoa. Hau izan zen beti Eusebiaren nahia izan zenaren lehen alusioea egin zuena:

–Egin genion promes bat Doloresi, behar dugu fite konplitu.

Zenbait asteren buruan ezkondu ziren eta joan Ingalaterrarat. Berriz geroxeago Luisianarat, non baitzen Chamondrineko markesa berriaren fortuna guzia.

Handik hamar urteren buruan berriz jin ziren Frantziarat, ordukotz bazituzten bi haur, mutiko bat eta neskato bat, eta biziki uros ziren.

Salbadorrek berriz eginarazi zuen orduan bere sorlekuko jauregi errea eta mendearen hondarrean beren egoitza han egin zuten.

Mila zortziehun eta hemeretzi maitzean Parisen bere interes batzuen arranjatzen kausitu zen, harrapatu zuelarik harekin Konserjerian preso egona zen adiskide bat. Pasatuaz mintzatu ziren, egun triste haietaz, eta honen hitz batek erakutsi zion Dolores hil zela Eusebiaren plazan.

Chamondrineko markesa ikaratu zen, eskua bihotzera altxatu zuen, baina ez zuen *ai!* bat ere erran eta haren adiskideak ez zuen konprenitu bihotz martiritatu hartan egin zuen azken kolpea.

Salbadorrek sepultatu zuen oraino sekretu hura bere bihotzean eta Eusebiak ez zuen sekula jakin. Bizkitartean ezagutu zuen haren senarrak bazuela eztitasun gehiago bere bozean Doloresez mintzo zelarik, eta ikaretan zegoela beti neguko gau luzeetan bere haurrer gaztetasuneko istorioa kontatzen zelarik eta erraten zelarik: “Zuen izeba Dolores saindu handi bat zen.”.

FIN



